

# Bertsolaritza feminismotik (bir)pentsatzen

Miren Artetxe Sarasola  
Ane Labaka Mayoz (koord.)



ueu

# BERTSOLARITZA FEMINISMOTIK (BIR)PENTSATZEN

Miren Artetxe Sarasola eta Ane Labaka Mayoz (koord.)

Izar Algueró Txibite, Uxue Alberdi Estibaritz, Maider Arregi Markuleta,  
Miren Artetxe Sarasola, Maite Berriozabal Berrizbeitia, Mari Luz Esteban Galarza,  
Jone M. Hernández García, Nerea Ibarzabal Salegi, Oihana Iguaran Barandiaran,  
Ane Labaka Mayoz, Carmen Larrañaga Odriozola, Maialen Lujanbio Zugasti,  
Maite Martinez Etxebarria, Elixabete Perez Gaztelu, Iratxe Retolaza Gutierrez,  
Harkaitz Zubiri Esnaola

Udako Euskal **Unibertsitatea**  
Bilbo, 2019

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Miren Artetxe Sarasola eta Ane Labaka Mayo

ISBN: 978-84-8438-690-2

Lege-gordailua: BI-1322-2019

Inprimategia: PRINTHAUS S.L., Bilbo

Azalaren diseinua: Igor Markaida

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Ander Altuna Gabiola

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: [argitalpenak@ueu.eus](mailto:argitalpenak@ueu.eus)

[www.ueu.eus](http://www.ueu.eus)

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

*Plaza eta plaza-jira bizigarri eta gozagarriago egiteko bidean  
aliatu (izan) zaituztegunoi.  
Izango zaituztegunoi.*

# Aurkibidea

<b>SARRERA. (BIR)PENTSATU, EKITEKO .....</b>	<b>7</b>
<b>I. LEHENGOA, ORAINGOA (ETA TARTEKOAK) .....</b>	<b>17</b>
Bertsolaritza: maskulinitatearen habitat, <i>Carmen Larrañaga Odriozola</i> .....	21
Joxepa Antoni Aranberri bertsolaria, plazandre feminista?, <i>Elixabete Perez Gaztelu</i> .....	43
Naturaltasunaren azpiko guztia, <i>Nerea Ibarzabal Salegi</i> .....	65
Arbola hazten, azala zartatzen. Azken 40 urteak bertsolaritzan: bertso- eskolaren sorrera eta emakumeen sarrera, <i>Maialen Lujanbio Zugasti</i> .....	77
Altzairua. Kristala. Material organikoa, <i>Harkaitz Zubiri Esnaola</i> .....	111
<b>II. EMAKUME* AHOTS ETA GORPUTZEK ESAN (EZIN) DEZAKETENA .....</b>	<b>129</b>
Gorputz bat ikusten dut zure ahotsean. Gorputz generizatuak bertsolaritzaren soinu-bidean, <i>Jone M. Hernández García</i> .....	133
Emakumeak bertsogintzan: gai izaeratik gai izatera, <i>Oihana Iguaran Barandiaran</i> .....	157
Gaien garrantzia errealitate eta diskurtsoen eraikuntzan, <i>Maite Berriozabal Berrizbeitia</i> .....	181
Irribarre erditik irribarre osora. Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik, <i>Ane Labaka Mayo</i> .....	203
<b>III. DESAUTORIZAZIO(ETA)TIK AHALDUNTZE KOLEKTIBO(ETA)RA .....</b>	<b>227</b>
Bertsoraino ( <i>Kontrako eztarritik</i> lanaren alderdi teorikoa), <i>Uxue Alberdi Estibaritz</i> .....	231
Emakume* bertsolari garaikideak. Ahalduntze-prozesu baten kontaketa posible bat, <i>Miren Artetxe Sarasola</i> .....	257

Sofatik oholtzara, <i>Maidar Arregi Markuleta, Maite Martinez Etxebarria</i> eta <i>Izar Algueró Txibite</i> .....	277
<b>IV. KANPO-BEGIRADAK</b> .....	<b>297</b>
Begirada bat bertsolaritzari feminismotik, <i>Mari Luz Esteban Galarza</i> .....	301
Bertsolari emakumeak vs idazle emakumeak: kultur esparruak, kultur autoritateak eta genero-logikak, <i>Iratxe Retolaza Gutierrez</i> .....	313
<b>ESKERRIK ASKO</b> .....	<b>343</b>



# Sarrera

## (Bir)pentsatu, ekiteko

*Aupa Maurizia!*

Maurizia Aldeiturriaga Zabala

Ireki parentesia.

Gelditu. Sartu lasai barrura.

Orain zuei ere badagokizue tarte hau irrikaz, galdera berriz, emozioz, amorruez, kontraesanez, hausnarketaz eta pasioz betetzea. Bertsogintzaren ingurumarietan murgiltzera gonbidatu nahi genuke plazetako ibilerak urrunekoak zaizkiona; eta alderantziz, oholtzarako joan-etorri eta igo-jaitsi batetik besterako parentesi honetara gonbidatu nahi genuke bertso-jardunean dabilena; gelditzea bide egiteko modu bat delako. Hatsa botatzea arnasketaren parte. Arnasketa ahots, isiltasuna testu eta gogoeta ekintza. Egin dezagun, beraz, pausa —ez dramatiko— bat.

Esku artean duzuen liburuak jatorri zehatza du: 2018ko ekainean UEUren udako egitarauaren baitan Iruñeko Katakarak liburu-dendan garatutako «Bertsolaritza genero-ikuspegitik» izeneko ikastaroa, hain zuzen ere. Gauzak hala, liburuak ikastaroak izandako helburu bertsuak dauzka. Hasteko eta behin, bertsolaritzaren eta genero-ikuspegiaren arteko uztarketa aipagai den honetan, gogoetarako eta eztabaidarako materiala biltzea. Alde batetik, egin diren eta egiten ari diren zenbait ikerketa eta hausnarketari ikusgarritasuna emateko, eta bestetik, etorkizuneko gogoetak bideratzeko, fintzeko, osatzeko eta zabaltzeko nolabaiteko abiapuntua proposatzeko. Gogoetatzea bera ekitea ere badelako.

Izan ere, emakumeen\* lekuaz edo eta perspektiba feministaz hitz egitea ez da kontu berria bertso-mundu deitzen diogunaren barruan. Horren adierazgarri dira, besteak beste, *Bertsolari* aldizkariak emakume bertsolariei buruz 1995ean argitaratutako ale monografikoa, gai bera ardatz hartuta 2005ean emandako *Hitzetik Hortzera* telebista-programa, 2007an Maialen Lujanbiok emandako hitzaldiak<sup>1</sup>,

---

1. «Bertsolaritza emakumearen ikuspuntutik: Bertsolaritza eta emakumea» hitzaldia Oreretan, bertako bertso-eskolak antolatuta, maiatzaren 11n eta Judith Montero Imaz musikariarekin batera emandakoa uztailearen 18an Eibarren, UEU eta EHBK antolatutako «Bertsolantegia» ikastaroan.

2008an *Bertsoa.com* eta *Argia* aldizkariak elkarlanean antolatutako «Generoa bertsolaritzan» mahai-ingurua<sup>2</sup>, edota Ainhoa Agirreazaldegi Rekondok eta Uxue Alberdi Estibaritzek 2010 eta 2015 artean emandako «Bertsolaritza: Begirada feminista bat» hitzaldia.

Mugimendu feministaren eta bertsolaritzaren arteko harremana ere ez da berria. Azpimarratu beharra dago lehen emakume bertsolarietako batzuek dagoeneko euren buruak feministatzat zituztela publikoki nabarmendu izana, edo elkarre feministek emakume bertsolariak (bir)plazaratzen hasi zirenean bertso-saioak (hasieran mistoak eta geroago ez-mistoak ere) antolatzeko berariazko ahalegina egin izana, besteak beste. Hamarkada batzuetatik hona ez dira gutxi izan bertso-munduan feminista bilakatu diren bertsolariak, zein bertsozaletu diren feministak. Mugimendu feministaren baitan egin diren eta egiten diren hausnarketak zein praktikak bertsolaritzara ekarrazteko zubia gero eta sendoagoa da, eta zubigileak gero eta gehiago. Zubi horretatik egiten diote bertso-munduko eragile feministek ere haien ekarpen txoa mugimendu feministari.

Akademia feministarentzat ere aspalditik izan da bertsolaritza interesgune. Carmen Larrañaga Odriozola aipatu behar da aitzindaritzat, 90eko hamarkadan egindako lanagatik (Larrañaga, 1994, 1995, 1996, 1997, 1999) eta Jone Miren Hernández García egindako lana azpimarratzekoa da azken hamarkada luze honetan (Hernández, 2006, 2011, 2012, 2014, 2016). Aurrerago ikusiko dugun moduan, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak EHUrekin elkarlanean egindako bertsolaritzari eta bertsozaletasunari buruzko Azterketa Soziologikoak ere generoaren gaia lehen planora ekarri du ezinbestean (Zubiri *et al.*, 2018). Era berean, adierazgarria da azken urteotan emakume bertsolari eta bertsozale askok sentitu dugula gure ikasketa, ikerketa zein ekintzailtza ibilbidean bertsolaritzaren geruza ezberdinak genero-perspektibatik aztertze beharra eta gogoia (Latasa, 2010; Alberdi, 2014; Zinkunegi, 2014; Elustondo, 2015; Etxeberri, 2015; Zelaia, 2015; Enbeita, 2016; Ibarzabal, 2016; Labaka, 2017, 2018; Akizu, 2018; Arregi, 2019).

Hortik, izenburuan bertan agertu nahi izan dugun birpentsatzearen ideia; izan ere, aspalditik ari dira/gara gai hauen inguruan gogoetan eta genero-sistemek bertsolaritza bere luze-zabalean nola zeharkatzen duten aztertzea, bere horretan, ez da zenbaitek azpimarratzen duten bezain berria, ez eta batzuei iruditzen zaien bezain sinplea (onerako zein txarrerako). Feminismoaz eta bertsolaritzaz hitz egitea ez da soilik kuotez hitz egitea. Ez da soilik bertsolaritzan emakumeek duten\* lekuaz hitz egitea. Bertsolaritzaz eta feminismoaz hitz egitea, lehenik eta behin, bertsolaritzaz hitz egitea da. Eta bertsolaritzan ikusten diren genero-desberdinkerien bidez, gure kulturaz eta gure gizarteaz hitz egitea ere bai. Zentzu horretan badaude, noski, gogoeta-ildo berriak zabaltzeke, kasuak aztertzeke zein hainbat botere-harremanen korapilatzeak identifikatzeke. Ikerketa eta gogoeta horiek denak izango zaizkigu

---

2. Onintza Enbeitak, Unai Muñok, Jon Maiak eta Maialen Lujanbiok hartu zuten parte bertan, 2008ko apirilaren 26an Antiguako (Donostia) Lugaritz Kultur Etxean.



aberasgarri bertsolaritza bizigarri eta gozagarriago batera bidean. Bagoaz. Eta liburu honek bideko harri-koskorak baliatuz gogoeta berriak aireratzeko zatai-lanak baino ez lituzke egin nahi.

Egindako bilketa-lana ez da, noski, inondik inora exhaustiboa, baina, bertso-mundua feminismotik aztertzen duten gogoeta-lan interesgarri eta pertinenteak dira hemen bildutako guztiak. Gai, formatu eta kera ezberdinetako artikulua topa daitezke liburu honetan, ekarpen hertsiki akademikoetatik hasi eta formatu aldetik askeagoak direnetaraino, kontzienteki eginaz zenbait dikotomia eraisteko ahalegina: bizipenak vs gogoetak, adituak vs arituak, akademia vs herri-jakintza. Guztiei egin nahi izan diegu leku orriotan. Denon alde.

Liburua lau ataletan banatutako hamalau artikuluk osatzen dute. «Lehengoa, oraingoa (eta tartekoak)» izeneko lehen atalak bilakaera historiko moduko bat marrazten du, bertsolaritza gaur egun ezagutzen dugun modukoa izaten hasten den garaiko emakumeen leku-ezetik gaur egungo bertsolaritzan emakumeek duten leku(txo)ra.

Irati Majuelo Itoizek euskarara ekarritako Carmen Larrañaga Odriozola aitzindariaren «Bertsolaritza: maskulinitatearen habitat» artikulua da liburuko eta atal honetako lehen artikulua. Larrañagak gizonari eta maskulinitateari buruzko pasarte orokor batekin ekiten dio testuari, eta gure testuingurura ekarrita, bertsolaritzaren kasua maskulinitateak dituen adierazpide eta finkatze-moduen adibide sendo gisa aurkezten du. Haren arabera, XIX. mendearen bigarren erdialdea aipagai hartuta, sexu-desberdinkerian oinarritu eta emakumeak inprobisazio-praktikatik baztertuta egituratzen da bertsolaritza tradizio gisa, kirolarekiko analogian. Hitzaren habitata maskulinoa da, beraz, gizonezkoa, eta horregatik, emakumeen presentzia publikoak erronka bat plazaratzen du. Ondorioz, Larrañagaren arabera, nekez izango da emakumea bertsolaritzan ongi etorria, bere presentziak gure identitaterik sendoenak oinarritzat hartzen dituen zimenduak mugitzen dituelako.

Bigarren artikulua Elixabete Perez Gazteluren Joxepa Antoni Aranberri «Xenpelar» bertsolariari buruzkoa da. Egileak berak dioskun moduan, artikulua helburua da XIX.-XX. mendeen bitartean bizi izan zen erreteriar bertsolari pentsamen-duz integrista XXI. mendeko talaiatik begiratuta *feminismoaren lagungarri* gerta daitekeela erakustea. Horretarako, lehenik eta behin, haren bizitzaren zertzelada batzuk ematen ditu, eta, aldi berean, bizitzako mugarri horietaz baliatuko da topiko batzuk auzitan jartzeko. Bigarrenik, eskuratu diren haren bertsoen bitartez osa daitekeen irudiari buruz gogoetatuko du, bereziki neskezahararen topikoari erreparatuz.

Hirugarrenak 2018ko ekaineko ikastaroan Nerea Ibarzabal Salegik gidatutako hiru emakume bertsolari aitzindariaren mahai-ingurua du oinarri. Hiru belaunalditako emakume bertsolari erreferenteak elkartu ziren bertan: Kristina Mardaras Sedrun (1948), Arantzazu Loidi Garitano (1967) eta Estitxu Arozena Albizu (1975). Haien

garaiko emakume *bakar* edo *gutxietako bat* izandakoen eta denbora batez plazaz plaza ibilitakoen ibilbidea eta esperientziak kolektibizatze modua izan zen hura: beste bat gehiago izan nahi eta ezina, inguruko zenbaiten babesa eta beste zenbaiten gutxiespena, exotiko izatearen nekea, aitakeria, kontraesanak... Hasiera haietako oztopoak agerian uzten dituzten hainbat bat-etortze aurki daitezke haien bizipenetan, Ibarzabalen ustez, mahai-inguruan behin baino gehiagotan aipatutako «naturaltasuna» zalantzan jartzen dutenak.

Laugarrenari dagokionez, Maialen Lujanbio Zugastik emakumeek gaur egungo bertsolaritzan duten lekua azaltzen duten elementu giltzarriei buruzko gogoeta plazaratu du, bere bizipen pertsonalak harilkatuz. Bertso-eskolen sorrerarekin hainbat mito hautsi eta gazte-belaunaldi berri baten plazaratze *behartua* jazo zen, eta bertsolaritza hiritartzen hasi, tradizioarekiko talkan. Orduan antolatu ziren lehenengo *emakume-saioak* ere. Orduetik, testua eta testuingurua aldatu dira, aukera berriak zabaldu eta espazio berriak sortu dira, jokoak aldarazi eta deserosotasuna ekarri dutenak. Lujanbioren arabera, bertsolaritzan gaur egun gertatzen ari denak antza handia du, bai funtsean eta bai sortzen ari diren erreazioetan, orain 25 bat urte gazte-belaunaldia bertso-munduan sartu zenean gertatutakoarekin; «bestelakoak ginen, eta beraz, belarri tradizional askorentzat mailaz eskasak, eta aldiz belarri gazte eta zaletu-berrientzat, lehenengo zaharrak baino askoz hobeak».

Atal honetako azken artikulua Harkaitz Zubiri Esnaolak osatu du Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak EHUrekin elkarlanean egindako bertsolaritzari eta bertsozaletasunari buruzko Azterketa Soziologikoaren<sup>3</sup> bigarren eta hirugarren ikerketa-aldietan lortutako emaitzetan oinarrituta. Ikerketa horretan bildutako ebidentziek iradokitzen dute genero-ikuspegitik begiratuta aurrerapauso batzuk eman direla, eta garrantzitsuak gainera. Baina, aldi berean, nabarmena da asko dagoela egiteko, desberdinkeriarik gabeko bertsolaritza baterako bidean. Eta jokoan dagoena ez da soilik bertsolaritzaren bidezotasuna; baita bideragarritasuna ere. Are gehiago, Zubiriren arabera, ez dirudi ausartegia denik esatea bertsolaritzak gaur egun bizi duen boomaren erantzule nagusietako bat emakumeen ekarpena dela. Hala ere, nabarmena da bertsolaritzaren barruan dauden joera hegemonikoen leku estua uzten dietela erdigunean kokatuta ez daudenei.

Bigarren atalari «Emakume\* gorputz eta ahotsek esan (ezin) dezaketena» jarri diogu goiburutzat. Atal honetako lau artikuluek emakume\* gorputz eta ahotsek esaten dutena eta emakume\* gorputz eta ahotsetatik esan daitekeena eta esan ezin dena dute hizpide. Zer entzuten dugu ahots bat entzuten dugunean? Nola eragiten digu entzuten duguna emakume\* ahotsetik entzuteak? Zein ahots eskaintzen dizkiete gaiek emakume\* gorputzei? Zeintzuk dira oztopoak eta zeintzuk aukerak, emakume\* gorputzek nahi dutena esan ahal izan dezaten?

3. Beste bi egin dira aurretik, lehena 1991-1993 artean, Siadecok gidatua, eta bigarrena 2005-2007 bitartean Xabier Aierdik, Alfredo Retortillok, Harkaitz Zubirik, Eider Alkortak eta Juan Aldazek. 2015etik 2017ra bitarteko honetan, berriz, lehen hirurek hartu dute parte.

Jone Miren Hernández García gorputz generizatuari eta ahotsari buruz egindako artikulua ematen dio hasiera atal honi. Artikulu horretan bertsolaritza ahotsak izan duen paperaz hitz egingo da, ahotsak bertsolaritza *modernizazioan* izandako eragina azpimarratuz. Era berean, bertsolaritza modernoak ahotsari emandako garrantziak emakume bertsolarien parte-hartzea zenbateraino baldintzatu duen eztabaidatuko da. Eta ildo horretatik, azkenik, ahotsak genero-bereizkeriarako tresna izatetik bertsolaritza feministaren garapenerako tresna bihurtzera igarota egin dezakeen ekarpenaz egingo da gogoeta.

Oihana Iguaran Barandiaranek ondutakoaren helburua emakumeek bertsolaritza duten presentziaz hausnartzea izan da, azken urteetan plazara irteerako emakume bertsolarien jardunak ekarritako bilakaera deskribatuz. Horretarako, Bechdel-Wallace testa erabili du azken 30 urteetako txapelketetako finalei eta Bertso Egunei aplikatuz. Emaitzetan ikus daiteke bertso-plaza nagusi horietan emakume bat baino gehiago irudikatu ote den, emakumeen arteko elkarrizketarik irudikatu den bertsoaldiren batean eta elkarrizketa hori gizonetik loturan eraiki den edo ez. Bestalde, emakumeen ahotsak rol gisa zein bertsolari gisa irudikatu diren bereizita aztertu da, testa bi norabidetan aplikatuz. Emaitzen arabera, emakumeen ahotsa gizonen ahotan irudikatu da gehien eta bertso-plaza nagusietan oraindik ere oso gutxi betetzen dute Bechdel-en «araua».

Maite Berriozabal Berrizbeitiak gai-jartzaile gisa izandako gogoetak plazaratzeko baliatu du bere artikulua. Bertan, gai-jartzailearen lana zein den eta gaiak sortzeko lan-prozesua nolako den azalduko da, bai edukiari eta bai formari erreparatuz. Bide horretan, gaiaren sortze-lanean hartzen den erabaki bakoitzaren garrantziaz hausnartuko da, eta gai-jartzaileak prozesu hori ahalik eta modurik kontzienteenean egiteari buruz gogoetatuko da. Gai bakoitzak bere horretan ematen dituen bideak eta marrazten dituen errealitatei begiratu, eta hortik abiatuta, bertsolariak eraikitzen dituen diskurtsoetan gaiak duen pisuaz gogoetatzeko bidea irekiko da. Marko horretan, genero-ikuspegiak diskurtso eta egoera desberdinak sortzeko eta eraldatzeko eskaintzen dituen bideez ere hausnartuko da.

Ane Labaka Mayozen, azkenik, bertsolaritza garatutako umorea(k) izan d(it)u ikergaitzat. Bere artikuluan boterearekin harreman zuzena duten bi eremu, hau da, genero-sistema eta umore-sistema, gaur egungo bat-bateko bertsolaritza markoaren barruan uztartzeko ahalegina egin du. Horrela, bertsolaritza baita nagusi den umore hegemonikoaz gain beste umore mota bat(zuk) ere garatzen ari d(ir)ela argudiatzen saiatu da, umore mota horiek bereizteko zenbait gako azpimarratuz. Azkenik, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko testuinguruan umorearekin lotutako bertsoaldietan sortutako tentsio eta pitzadurez ere jardun du.

Hirugarren atalari «Desautorizazio(eta)tik ahalduzte kolektibo(eta)ra» deitu diogu. Atal horretan, alde batetik, bertsolari emakumeak\* banaka zein taldean desautorizatzeko moduez eta horien aurrean ahalduzte ezinbestean kolektiboak duen garrantziaz gogoetatzen da, eta, bestetik, ahalduzte-ariketa konkretu berri baten berri ematen da.

Lehen artikuluan Uxue Alberdik *Kontrako eztaaritik* liburuko oinarri teorikoa ekarri digu (Alberdi, 2019), emakume bertsolarien jarduna mugatzen duten mekanismoak hizpide hartuz eta autoritateaz gogoetatuz: zeintzuk diren bertsolariak autoritatez janzteko eta erantzeko martxan dauden mekanismoak; nola eragiten duen sexu-genero sistemak horretan; nola gertatzen den edo ez den gertatzen autoritate-transferentzia belaunaldien artean, kolegen artean, gizonen-emakumeen artean; zertarako autorizataua dagoen bertsolari bakoitza une, plaza, ariketa bakoitzean. Alberdiren hitzetan, «leku berean egonagatik posizio diferenteetan dauden gorputzek habitatzen baitituzte frankotiratzaille postuak, hondartzak, bertso-saioak».

Artetxek, bere aldetik, batez ere azken hamabost urteetan emakume bertsolarien ahalduntze-prozesuan mugarri izan diren batzuei buruzko irakurketa bat proposatzen du. Zein aldaketa gertatu diren eta nora heldu garen azaltzea baino areago, hona heltzeko izan diren zenbait gertakari, une zein gune gako aztertu nahi izan ditu. Gizartean gertatu diren aldaketek bertsolaritzaren azken urteetako garapenean eragin badute ere, kasu honetan bertso-munduko eragileen ekimenez gertatutako zenbait aldaketa-une eta gune izan ditu aztergai. Eta bertso-munduan ibilbide pertsonalek eragin badute ere, bai bertsogintza eta bai bertsolaritzaren sistemaren egituran, artikuluan modu kolektiboan garatu diren ekimenetan jarri du arreta, ahalduntzea modu kolektiboan ulertzearen garrantzia azpimarratuz.

*Bertstxortan* kolektiboko Maider Arregi Markuletak, Maite Martinez Etxebarriak eta Izar Algueró Txibitek, berriz, beren jendaurreko bizipenei buruz idatzi dute; ahalduntze kolektiboa praktikan jartzeko egin duten emanaldiaz. Burututako hausnarketek eta horiek konpartitzeko beharrak sorkuntzara bideratu zituztela diote, hasieran bilatzen zutena elkarrekin pentsatzea baino ez izan arren, azkenerako sorkuntza baliabide bilakatu zutela. Sorkuntza horren funtsa elkarbizitza izan dela azpimarratzen dute; kolektiboa. Bakoitzak aurretik ezagutzen zituen teknikak batu dituzte bide horretan (bertsoa, antzerkia, musika), baina, diotenez, ez diete garrantzi askorik eman nahi izan. Emanaldiaren funtsa edukia izanik, edukiak arduratu ditu gehienbat eta eduki horren lagin bat ere ekarri nahi izan dute orriotara. Beren adibide zehaztetik abiatuta, bizitza kolektiboan oinarritutako proiektu ez-mistoak aldarrikatzen dituzte, bai oholtzan eta bai oholtzatik kanpo.

Bukatzeko, liburuari itxiera emateko asmoz, «Kanpo begiradak» izeneko atalean Mari Luz Esteban Galarzari eta Iratxe Retolaza Gutierrezen eskatu diegu bertsolaritzari beha jar daitezela. Barrutik barrurako begiradak izanik nagusiki liburuaren mamia osatzen dutenak, zooma atzera bota eta urrunxeagotik begiratu nahi izan diogu bertso-munduari, bere berezitasunak eta bere ez-berezitasunak azaleraziz eta bertsolaritza praktika sozial gisa testuinguru zabalago batean kokatuz. Eta horretarako antropologia feministarena zein literatur kritika feministarena talaia egokiak izan daitezkeelakoan gaude.

Lehenak begirada orokor bat eman nahi izan dio bertsolaritzari kanpotik, feminisotik. Ondorio borobilik planteatu gabe, galderak egin dizkigu Estebanek,

feminismoaz duen ezagutzak ematen dion ausardiaz. Halaber, artikuluan zehar zenbait gogoeta plazaratzen ditu, zenbait kontzeptu eta ideia bertsolaritzara ekarrita, hala nola gaur egun feminismoak bizi duen arrakasta, generoaren izaera erlazionala, ahalduntze-prozesuen eta egituren iraulketen arteko oreka, emakume bertsolarien aniztasuna eta emakumeen arteko lehia eta ahizpatasuna.

Bigarrenak, berriz, bertsolaritzaren eta literatura idatziaren arteko alderaketa bat egin du esparruan esparruko genero-logikak argitze aldera. Alde batetik, bi kultur esparruetan eragiten duten genero-bereizkeriak identifikatzen ahalegindu da, diskurtso soziologikoen eta antropologikoen argitan. Beste alde batetik, kultur esparru bakoitzean gorpuzturiko genero-bereizkeriak edo genero-zapalkuntza berezituak aletzen saiatu da. Azken batean, genero-zapalkuntza berezitu horiek ikusgarri egingo dituzte kultur esparru bakoitzean gorpuzturiko genero-logika berezituak. Izan ere, kultur jarduera horietariko bakoitzak genero-diskurtso eta genero-imaginario bereziak sortu ditu, baita autoritatea gorpuzteko estrategia berezituak ere. Genero-logika horiek argitzeko asmoz, honako alderdi hauetan jarri du arreta: kultur esparruak definitzeko moduak, kanonaren eta prestigioaren inguruko diskurtsoak, herritartasuna eraikitzeko edo ordezkatzeko funtzioa, bitartekaritza-lana eta kultur kritika, bertsolari-autoritatea vs autoritate literarioa.

Horiek, beraz, artikulubilduma osatzen duten lanak. Bere horretan bilduma bat osatzeaz gain, elkar osatzen dutela begi-bistakoa izango zaio irakurleari. Are gehiago, artikuluko batzuek besteekin elkarrizketa osatzen dutela dirudi, elkarri erreferentzia egiten diotela, elkarri erantzun, elkarri galdetu.

Eta elkarrizketa bertsogintzara ere eramanda, ohiko bertso-jardunean nola, artikuluko bakoitza izan da gai bertsolari batek bertsoa jartzeko. Bertsolari bat arduratu da artikuluko bakoitzari atariko bertso bat josteaz. Emakume bertsolarion parte-hartzeari ere bide eman nahi izan diogu lan honetan, bide honetan kolektibotasunak indartu gaituelako eta elkarrekin pentsatu eta ekin izanaren fruitua delako honakoa (ere). Merezki zuen hori nolabait bistaratzea.

Izen eta abizen horien guztien atzean daude beste asko. Kafetegiko zein txosnako elkarrizketa eta bilera-orduak, bakarkako habanerak, zortziko handiko ofizioak, zein koplatakoak, autoko joan-etorrietako emozio-deskarga eta depositu-betetzeak, haserreak eta adiskidetzeak, eta euforia zein begi-zulo konpartituak. Kolektibotasun hori bistaratzeke saiakera xumea da, hamalau bertso horien bidez egin nahi izan duguna.

Esku artean duzuen liburua, beraz, bilketa-lan bat besterik ez da funtsean, baina, era berean, etorriko diren ikerketa, gogoeta eta praktika feminista gehiagoren pizgarri izan nahiko luke. Segi dezagun, beraz, elkarrizketan.

Itxi parentesia.

Ireki beste bat(zuk). Eta (elkar)ekin.

**BIBLIOGRAFIA**

- Alberdi Estibaritz, Uxue (2014): «Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak bertsolaritzan», in Gema Lasarte eta Amaia Alvarez (ed.), *Gorputza eta generoa: Teoria didaktika eta esperientziak*, UEU, Bilbo, 145-162.
- , (2019): *Kontrako eztarritik*, Susa, Zarautz,
- Akizu Bidegain, Maialen (2018): *Diskurtso komunitatea. Bertsolaritzaren kasua. 2001 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletako gaien azterketa*, EHU, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Gradu Amaierako Lana, EHU, Bilbo.
- Arregi Leonardo, Graxi (2019): *Emakumea bertsotarako gaia izatetik, gai dela erakustearaino*, Deusto, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea, Zuzenbide eta Komunikazioko Gradua, Gradu Amaierako Lana.
- Elustondo Plazaola, Nerea (2015): *Emakume bertsolarien plazan izan duten bilakaera* (Mintzola Fundazioak lagundutako ikerketa monografikoa, argitaragabea).
- Enbeita Maguregi, Onintza (2016): «Eta hala ere plazan gaude», in M. Guilló Arakistain (koord.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, UEU, Bilbo, 117-130.
- Etxeberri, Karine (2015): *«Je sais faire des bertso, mais je ne suis pas bertsolari» Le genre des improvisations chantées au Pays Basque en question* (Master Bukerako Lana, argitaragabea).
- Hernández García, Jone Miren (2006): «Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea», *Kobie* aldizkaria, 12. zk.
- , (2011): «Bertsolaritza, definizio berri baterantz?», *Emakunde* aldizkaria, 81, 2011ko uda, 4-5.
- , (2012): «Emakume bertsolariak: bertsotik bertsora hanka puntetan», in *Gorputza eta Generoa Euskal Kulturaren eta Literaturaren*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 49-68.
- , (2014): «Begiekin entzuten dutena. Emakume bertsolariak euskal kulturaren begiradapean», in *Diskurtsoak, Eraikuntzak, Gorputzak. Gorputzen eta binarismo sexualaren eraikuntzaz*, Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 137-154.
- , (2016): «Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoetarako bizitoki», in *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 27-42.
- Ibarzabal Salegi, Nerea (2016): *Bertso eguna 2016: bertso-ikuskizuna eta genero-ikuspegiak*, EHU, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea, Gradu Amaierako Lana, EHU, Bilbo.



- Labaka Mayoz, Ane (2017): *Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik*, EHU, Master Amaierako Lana, Gizarte Antropologia masterra [argitaratu gabea].
- , (2018): *2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik*, EHU, Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak masterra [argitaratu gabea].
- Larrañaga Odriozola, Carmen. (1994): «El Bertsolarismo: habitat de la masculinidad», *Bitarte*, 4, 29-51.
- , (1995): «El bertsolarismo: una tradición oral transitada por el género-sexo», *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, 23, 405-425.
- , (1996): «Ubiquitous but invisible : the presence of women singers within a Basque male tradition», *Gender & Memory*, Oxford, Univesity Press, 60-71.
- , (1997): «Del bertsolarismo silenciado», *Jentilbaratz*, 6, 57-73.
- , (1999): «Bertsolaris destacadas», *Euskonews & Media*, 56, 1999-11-26.
- Latasa Oteiza, Zaira (2010): *Bertsolaria ez da bertsolari jaiotzen, izatera iristen da. Emakumearen ibilbidea bertsolaritzan zehar (1980-2009)*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Master Bukaerako Lana, argitaragabea.
- Zelaia Arratibel, Izarne (2015): *Emakumeek jendaurreko jardunetan parte hartzeko gaitasunak eskura ditzaten eskolak jokatzen duen papera, bertsolaritza aztergai hartuta*, Gradu Amaierako Lana, EHU, Donostia
- Zinkunegi Barandiaran, Izaro (2014): *Emakumeak eta bertsolaritza: Gaiak, bertsolarien paperak eta bertsoak genero ikuspegitik*, EHU, Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua, Gradu Amaierako Lana, EHU, Bilbo.
- Zubiri, Harkaitz; Aierdi, Xabier eta Retortillo, Alfredo (2018): *Hirugarren Bertsolaritzaren Azterketa Soziologikoa* (ikerketa argitaratugabea), Mintzola Fundazioan aurkeztua, Villabona.



# I. Lehengoa, oraingoa (eta tartekoak)



*Doinua: Martxa baten lehen notak*

Lehia gozoa izan liteke,  
izan liteke mingotsa:  
Bihotz taupadak, burua lauso,  
azkartuta arnas-hotsa.  
Dardarka zango, gorputz, eskuak  
eta dardarka ahotsa,  
Esanarekin biluztasuna,  
ez esanarekin lotsa.  
Goxotasunez kantatutako  
bertsoak dirudi hotza,  
Epai, aipu, aurreiritzi,  
dena bihurtuz arrotza,  
Gazi-gozoak une berean  
bertsolarian jaiotza,  
Gure jokoen, gure jolasen  
lekuko dugu oholtza

**Joana Ziganda Olano**





# Bertsolaritza: maskulinitatearen habitat

*Carmen Larrañaga Odriozola*  
Itzultzailea: Irati Majuelo Itoiz

## **GIZONARI, GIZONEZKOARI ETA MASKULINITATEARI BURUZ**

1949an Simone de Beauvoirrek (1965: 13) *Bigarren Sexuan* adierazi zuenean emakumea ez dela jaiotzen, baizik eta egin egiten dela, bazirudien oraindik urrun geundela ulertzeko baieztapen horrek gizonarentzat ere balio zuela, nahiz eta hari buruz guztia esana zegoela iruditu. Hori gertatzen da gizonezkoak —gizon deitzen diogun abstrakzio filosofikoago baino kontzeptualki okerrago horretan— erreferentzia egiten diolako norbanakoari bere izaki identiko gisa. Ondorioz, nozio horretatik kanpo geratu den guztia, ez-norbanako gisa kontrajarri dena, alteritate gisa ulertu da eta gizonezkoarekiko harremanaren arabera azaltzeko beharra egon da, gizonarekiko duen harremanaren arabera. Horrek bere buruari buruz hitz egiten zuen bitartean.

Mendebaldeko tradizio filosofikoan alteritatearen nozioa arrotza zaio gizonezkoari. Hori frogatu beharrik ez dagoen ideia bat da, izan ere, gizakia identifikatzen duen egitura *gizona* kategoria arautzailearengan sostengatu eta finkatu izan baita eta egiten baita oraindik: ulermena, hitza, arrazoia, pentsamendua; eta azken batean, legea eta ordena. Ordea, gizakia izendatzeko erabiltzen dugun kategoria nahasgarri horren oposizioan, *emakumeak* honako nolakotasunak adierazten ditu horien aldean: sentimendua, emozioa, burugabekeria eta, finean, desordena. Horrek zalantzan jarri izan du beti nomenklatura zail hori, emakumeak gizakiaren barnean eta kanpoan kokatzen baikaitu. Hala, bada, mendebaldeko pentsaeran ez da sekula ulertu dualitate antropologiko horrek, sexu-desberdintasunetik abiatu eta genero maskulinoa eta femeninoa sortzen dituen horrek, gizonak eta emakumeak bata bestearengandik distantzia identikora ipintzen dituela genero-sistemaren barruan<sup>1</sup>.

---

1. Genero-sistematizat hartzen da genero maskulinoa eta femeninoa osatzen dituzten identitate eta rola sustatzen dituen praktika kultural eta soziala. Gutxitan ulertu da, hala ere, praktika horietatik eratortzen den dimorfismo hori ikaspenen ondorio dela. Horren ordeztarazoi biologikoa nabarmendu da, hau da, sexuen desberdinkeria natural eta berehalakoa. Kontzeptu hori hobeto ulertzeko, ikusi: Scott, 1989: 81-100; Fox-Genovese, 1982: 5-30; Cornell, 1985: 260-272, eta Victoria Sauk «Las mujeres y la Educación» ikastaroan irakurritako «La construcción del “yo” femenino: Hacerse a sí misma» ponentzia, Emakumearen Institutuak antolatua, Madrilen, 1988ko ekainean.

Aitzitik, emakumea genero markatu gisa ulertzean, gizonak ez du sekula bere diferentzia azaltzeko beharrik izan, *giza* kalifikatiboaren pean gainditua eta ezkutua geratzen baita.

Gizonezko izatea zer den ulertzeko era honen eragozpena da, ukatu egiten digula forma historiko eta kultural oso zehatzei lotutako identitateak ulertzea, elkarrengandik oso desberdinak izan daitezkeenak. Izan ere, maskulinitatearen izaera, feminitatearena bezala, prozesu baten ondorio da eta prozesu hori hazi eta kasuaren arabera aldatu edo eraldatzen da, ikasiak diren soluzioak egotziz. Horren adibide dira gizarte orok maskulinitatea ikasi eta lantzeko erabili eta sustatzen dituen bitartekoak, formalak edota informalak izan.

Hemen landuko dugun Euskadiren kasuan, kuadrillak eta elkarte gastronomikoak dira egungo zirkunskripzio maskulinoaren bi adibide. Baina herri-kirol gisa ezagutzen den horretan pentsatuz gero, harri-jasotzaileak, aizkolariak edo pilotariak, gutxi batzuk aipatzearen, maskulinitatearen inbokazioa are nabarmenagoa da. Hemen, beste kultur adierazpide batzuetan posible den generoen arteko nahasketa pentsaezina da; eta ez da ez delako emakumerik egon kirol horiek praktikatzen, baizik eta zeharo isildu dituztelako<sup>2</sup>. Hori dela eta, herri-kiroletan maskulinitateak dimentsio absolutua hartzen du ia.

Baina kirolaz eta kuadrillez harago, elkarte gastronomikoez harago, adibide sendoen bidez ikusten dugu maskulinitateak beste adierazpide eta finkatze modu batzuk dituela, eta artikulu honetan saiatuko garen moduan, esploraziora gonbidatzen dutela. Horietako bat da, preseski, bertsolaritzaren kasua. Ahozko tradizio horrek, Euskal Herrian hain errotua dagoenak, maskulinitatearen ideia bultzatu du bertsoen kantu inprobisatuari dagokionez, nahiz eta historiak ezeztatzen duen gizonezkoen praktika denik soilik. Hala ere, bertsolaritza gizonen tradizioa izan da eta da nagusiki, leku publikoan eta publikoarekin egiten diren bestelako tradizioen arrazoi berengatik. Baina orokortasunak inposatzen dituen mugei iskin egiteko, tradizio horren singularitasuna azaleratuko dugu adibideen bidez, eta horrez gain, bertsolaritzan horren bereizketa itxia egotea justifikatzeko adituek eman dituzten arrazoiak aurkeztuko ditugu. Horrek, zalantzarik gabe, F. K. Mayr-ek *El matriarcalismo vasco*-n baieztatu zuen falazia ezetsiko du, esan baitzuen Euskadin bi sexuen arteko oreka dagoela «menderakuntza eta esklabotza euskal hiztegiari arrotzak baitzaizkio» eta horrek ere sexu-diskriminaziorako balio duelako: «ez da bere horretan existitzen» (Ortiz Osés eta Mayr, 1981: 27).

---

2. Bonbín Fernández, L. eta Bozas-Urrutia R.: *El Gran Libro de la pelota*, Vol II. Liburu horretan daude Ramos Azcáratek María Albizuri eskainitako poema batzuk, esaten baitzen 1885ean gizonezko pilotari bati baino gehiagori irabazi ziola; ikusi 1.012. or.

## **BERTSOLARITZAREN JATORRIARI ETA DEFINIZIOARI BURUZ**

Bertsolaritzaren jatorriari buruzko eztabaidaren aitzakian hasten da gai honen analisia. Manuel Lekuonak artzaintzarekin lotzen du (Lekuona Etxabeguren, 1978: 44-45), eta horren antzinako garaietan kokatzeak aukera ematen die Lekuonari eta beste batzuei abestutako inprobisazio forma askotarikoak kontzeptu beraren pean batzeko, ahozkotasanaren estilo oso desberdinak nahasaraziz. Aniztasun horren adibide dira *eresiac*, XVI. mendeko genealogista eta kronikagileen arabera, emakumeek ezkontza, hileta eta beiletan errezitatutako heriotza-intziriak. J. M. Lekuonak adierazten du intziri horiek publikoan egiteak eta entzule bati zuzentzeak eragiten zuela inprobisazio horiek dramatizazio berezi bat izatea (Lekuona Berasategi, 1985: 459-468)<sup>3</sup>, «batzuetan, batzuk besteei erantzuten baitzieten, gaur egungo bertsolarien modura bertsotan eztabaidak sortuz» (Mitxelena, 1960: 42). J. M. Lekuonarentzat, nahiz eta Mitxelenarentzat hain argia ez izan, emakume inprobisatzaile horiek bertsolariak ziren dudarik gabe, XVI. mendean ahotsa galduz joan zirenak, sistema feudalak gorantz zihoan burgesiari bide eman zionean (Lekuona Berasategi, *op. cit.*: 459-468). Argi dago, gainbehera hori ez zela era naturalean eta bat-batean gertatu, Bizkaiko Foru Zaharrean (1452) irakur dezakegun bezala:

Título 35, ley VI: [...] de aquí en adelante cuando quier que alguno muere en Vizcaya o fuera de ella, por mar o por tierra persona alguna de toda Vizcaya [...] Tierra llana, Villas y Ciudad, no sea osado de hacer llanto alguno mesándose los cabellos ni rasgando la cara [...] ni haga llanto cantando [...], so pena de mil maravedís a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez (El fuero, 1977:301).

R. M. Azkuek adierazi zuen debekuak ez zuela eresi-inprobisatzaileen berehalako desagerpena eragin (Azkue, 1968: 16-17), nahiz eta haien garaia agortzear egon. Izan ere, debekuaz gain, ikus dezakegu emakume horiek lotsagabe eta difamatzailetzat hartzen zituen ideia zabaldu zela. Baldintza horietan, erraz uler daiteke eresi-inprobisatzaileek ez zutela hedatzeko eta finkatzeko aukera handirik izan. Are gutxiago, «profazadei» buruzko beste lege batek haien interbentzio publikoa debekatu zuenean. Profazadore gisa ulertzen zen «ipuin eta katramilekin lagunak direnen artean desadostasunak sustatzen dituzten pertsona berritsuak» (Aulestia, 1990: 91). Foruak emakumeei egozten zien jardun hori, eta fama txarrekoak zirela esaten zuen, herriz herri joaten zirela feria eta merkatuetan kinkila saltzen, eta haien inprobisazioek umorezko eta isekazko tonua zutela (Aulestia, 1990: 91). Azken ideia hori bertsolaritza modernoaren zenbait adierazpidetatik oso gertu dago; batez ere, sagardotegi eta tabernetan landu denarengandik, hori ere luze iraindua izan dena, nahiz eta oso arrazoi desberdinetatik izan.

---

3. Iturri guztiak, jatorrizko testua euskaraz izaki, nik neuk itzuli ditut.

«Profazadorei» buruz, gogorarazten digute ez zirela abestera mugatzen, prostituitzen zirela aditzera emanez (Azurmendi Otaegi, 1980: 148). Ideia hori berretsiz, J. Azurmendik adierazten du «ez dela harritzekoa testu moralistek eta elizlegeek erreparo bat edo beste ezartzea emakume juglare edo bertsolariekiko [...]» (*ibid.*), espazio publikoak okupatzen zituztela ikusita jardunbide oker bat asoziatzen zitzairen eta. Izan ere, Leonore Davidoff historialariak azpimarratu bezala, «publiko gisa definitutako espazioetan ikusten diren emakumeak susmagarriak izan dira ia beti». Hain da egia, ezen emakume publiko terminoa prostituta bezala ulertzen baita (Davidoff, 1992: 8). Eresi-inprobisatzaileak ez ziren asoziazio horretaz libratu, ezta beste emakume batzuk ere, espazioa generoaren arabera bereizteko joera hori eta horiek transgreditzeak zekarren zigorra gaur egunera arte iritsi den praktika baita.

Horien desagertpenak arrazoi bat baino gehiago izan zituela dirudi. Hori dela eta, ezin dugu hemen arrazoi bakoitza sakondu, ez soilik gure analisiaren gai nagusia denbora garaikideago batean zentratzen delako, bertsolaritza historiko gisa ezagutzen duguna, baizik eta J. Juaristik esan bezala «testuen urritasunak eragozten digulako Erdi Aroko postrimerien tradizio honen ideia doi bat izatea» (Juaristi, 1987: 17). Egia da ere, Trentoko Kontzilioak (1545) eragin handia izan zuela Euskal Herriko bizitza erlijiosoan, bereziki emakumeengan. Gorka Aulestiak proposatu gisan «San Pabloren esaldiaren muinak, *mulieres taceant in Ecclesia* (emakumeak Elizan isildu daitezela), fruituak eman zituen Euskal Herriko alor erlijioso eta sozialean [...]. Emakumeak bigarren mailan geratu ziren» (Aulestia, 1990: 92). Segregazio horrek, eta Euskal herrian jazo zen sorgin-ehizak, XVI. eta XVII. mendeetan eresi-inprobisatzaileen figuraz gain, tradizioa ere desagerrarazi zuen<sup>4</sup>. Hala, bada, «ahozko tradizio zahar hori XVI. mendeko kroniketan jasotako pasarteak baino testigantza gehiagorik utzi gabe desagertu zen» (Juaristi, 1987: 21). Eta bere arrastoa ez genuen XIX. mendearen hasierara arte aurkitu, bertsolaritza historiko edo moderno gisa ulertzen denaren forman.

Aintzat hartu behar da, ordea, *eresiac* ahozko tradizioaren atal bat zirela soilik, eta kopla, erromantze, sehaska-kanta, gabon-kanta eta atsotitzekin batera bizi zirela sarri. Horiek guztiak bertsolaritza izendatzaile komunaren pean barne hartu izan dira, eta horrek zaildu egin du zehazki jakitea zer den termino horrek definitzen duena eta zein praktika barnebiltzen dituen. Eta, nahiz eta desadostasunak eta eztabaidak presente egon, ez soilik edukiaz baizik eta jatorriaz, ulertzen da bertsolaritza bertsoan abestutako inprobisazioa dela, bereziki espazio publikoetan egiten dena. Egia da bertso-jarriak edo bertso-paperak, inprobisazio-tradizioaren modalitatetzat hartuak, pribatuan sortzen direla, baina jatorriz publikoan errezitatzeke asmoz idazten zirela. Gaur egun, ordea, oraindik bizirik dagoen tradizio horrek indarra galdu du, eta bertso-paperak ez dira abesteko idazten —mende hasieratik Gerra Zibilerara arte egiten zen

---

4. Otazu, A. (1978): «Brujería y régimen social en la montaña atlántica de Navarra (1600-1620)», Homenaje a J. Caro Baroja, Madril, Ikerketa Soziologikoen Zentroa, 827-842. J. Juaristik (1987) aipatua, 21. or.

bezala, bertsozale sutsuentzako dokumentu ohiko eta oso preziatuak izanik—, baizik eta tradizioa aberasteko (Lekuona Berasategi, 1982: 7-21 eta Amuriza, 1981: 16-17).

Berriz ere jatorriari erreferentzia eginez, zenbaitek baieztatzen du bertsolaritza tradizio moderno bat dela, eta ez dela aurreko mendea baino lehenagokoa. Zentzu horretan, J. Juaristik adierazten du «nahiz eta gehien hedatu den iritziak bertsolariak ikusi garai zaharretako bardoen balizko korporazio baten oinordeko gisa, argi dago bertsolaritza orain dela gutxiko fenomenoa dela. Egiaz, ez dago notiziarik Euskal Herrian XIX. mendea baino lehenago praktikatzen zela adierazten duenik» (Juaristi, 1987: 24). Zentzu kritiko igualtsuan dio Joxe Azurmendik «bertsolaritzaren antzinakotasunaz mito sobera erraz bat egin dela, baieztatuz bertsolaritza betidaniko fenomeno bat izan dela» (Azurmendi Otaegi, 1980: 143). Baten batek ziurtatu zuen Tubal edo Tarsisek irakatsi ziela euskaldunei bertsoen inprobisazioa. Horren aurrean, Azurmendik iradokitzen du hobe litzatekeela bertsolaritzaren sorrera 1801ean kokatzea, gure asmoa datu historikoak erabiltzea bada behintzat (Azurmendi Otaegi, *op. cit.*: 144). Izan ere, 1801ean Zabaltegi eta Zabalak Billabonako plazan izandako erroka da, nolabaiteko zehaztasunez, bertsolaritzaz dugun lehen datu historikoa, gaur egun Euskadin praktikatu eta ezagutzen den moldean. *Plazetan* edo bestelako espazio publikoetan egiten diren lehiaketa eta apustuei buruz ari gara, noski.

Kontrara, esan liteke hori ez dela Euskadin egun dagoen inprobisazio-forma bakarra, oraindik ere egiten direlako saioak sagardotegietan eta lehiaketa-zirkuitutik kanpoko bestelako nukleo batzuetan. Baina lehiaketaren kontzeptua (edo haren ideia) bertsolaririk onena zein den erabakitzeko aldi-aldi egiten diren probetara mugatzea, pentsaraziz parte hartzen ez dutenak lehiatik at daudela, tradizio honen oinarri bati uko egitea da. Lehia bertsolaritzan agertzen da eta berau laguntzen du, bai jarduna hertsiki lehiaketa denean eta baita ez denean ere, eta haren funtsezko ezaugarri bat osatzen du. Honela adierazi du Juanito Dorronsorok:

Bapateko bertsoen sailean bada bertso ihardunaldi mota bat berezia, bizi-bizia, eta bertsozaleen gustukoa. OFIZIOKA deitzen diogu gure artean. Bi bertsolari gehienetan, hiru edo lau batzutan, elkarrekin teman, dialektika bizkorrean, bakoitzak bere haria eta eginkizuna sustraitik hartu eta arrazoia ateratzen saiatuz, kontrakoaren alderdi ahulak bilatu eta ironiaz edo arrazoiz edo bakoitzak ahal duen armen bidez bestea menderatzen saiatuz. Hortan datza jokua, hori da apustua, hortan da burruka (Dorronsoro, 1988: 197).

Konfrontazio, erroka eta borroka ideia hori bertsolariek berek berresten dute sagardotegi edo tabernetan egiten duten saio orotan, beraz frogapenetan hastea amaiezina litzateke. Balio dezatela adibide gisa Amurizak saio erlaxatu eta lagunkoi batean kantatutako bertso hauek, 1993ko udaberrian Lasarten ospatutako bazkaloste edo afaloste batean. Horrela ohartarazi zion Egañari, bere gau hartako ofiziokideari:

«Gelditzen banaiz ez naiz joango

Egañak lurra jo arte»

Amurizaren bertsoak barnebiltzen duen lehiaren ideiak ez du tentsio hori sortzeko sari baten materialitatearen edota lehiaketa baten ohorearen beharrik, bertsolaritzaren bilakaerak berak baitakar bere gain. Izan ere, inprobisazioak dituen arriskuak eta zailtasunak gainditzeko bertsolariak duen gaitasunetik eratortzen da lehiaren nozioa: ingenioa, ironia, imajinazioa, tonua, errima, azkartasuna, etab. Trantze horretan aurkaria baino hobeto edo okerrago konpontzeko trebetasunaren arabera neurtu eta kontrastatzen da gaitasun hori. Zailtasun horien multzoari «desafio» izendatzen zaio, eta erronka gisa ulertzen da, borrokaldi gisa. «Desafio» honen kasuan, Egaña galtzaile suertatu zen, bera izan baitzen jardun inprobisatuko ordu askoren ostean, goizaldeko ordu txikietan, bertsoen bidez erretiratzea proposatu zuena. Hori dela eta, ezin da doakotzat hartu Amurizak bere kidearen porrota adierazteko erabili zuen figura: *lurra jo arte*.

Jatorria eta definizioa dira, beraz, ahots desberdin eta kontraesankorrak ezagutzen dituen bertsolaritzaren zenbait kezka. Izan ere, alde batetik, tradizioa eta, bestetik, bertsolaria definitzeko ahalegina ez zaie erraz suertatzen gaiari buruzko adituei. J. Azurmendiren kasuan, zailtasuna era honetan adierazten du:

Bertsolaritzaz hitz egiten dugu, baino ez dago batere argi zer ulertu behar den hitz horrekin. Bertsolari tipifikatu jakin baten *irudia* eta *konzeptua*, definizioa, nahasten ari gara. Eta hori, bertsoa zer den, zerk mugatzen duen eta definitzen duen, zerk ezaguarazten (historian zehar aldatuz joan daitekeena), ez aztertzeagatik. Orduan, nola ez dakigun bertsolaria obraren aldetik definitzen, produktua aldetik (lehenengo obra bera definitzen jakin beharko bait genuke), subjektuaren aldetik definitzen dugu (Dorronsoro, 1988: 160).

Enfasia irudian jartzen bada kontzeptuan baino lehenago —Azurmendik goian aipatu bezala—, edo kontzeptua iruditik eratortzen bada, bertsolaritzaz dugun ulerkerak, inprobisazioaren ekintzatik hartua, are gehiago murrizten ditu praktika honetan generoen (maskulino eta femenino) artean ematen diren mugak. Hortaz, bertsolari izan nahi duen emakumeak trabestismoa baino ez du soluziotzat. Transformismoari egindako aipamen hori modu bat da zenbait ezaugarrik, maskulinitatearenak uste direnak, bertsolaritzaren adierazpenean duten garrantzia azpimarratzeko, testigantza honetan zintzo bezain argi ageri diren eran:

Ni konbentzituta nago puntu pilo bat galtzen ditugula txapelketetan eta holako lekuetan ahotsagatik eta kantatzeko moduagatik. Nere bertsoak kantatzen ditu Xebastian Lizasok eta hiru puntu gehiago ateratzen ditu. Nahiz eta epaimahaikoek polita naizela esan, polit horretan badago zerbait inkontzienteki puntuak kentzen dituen (Loidi, 1992: 37-39).

Ez dago zalantzarik Arantzazu Loidi (harenak dira hitzak) nekez egokitzen dela bertsolariaz dugun irudi-tipora<sup>5</sup>. Egia da irudi horrek estereotipo bat elikatzen

---

5. Ez legoke gaizki 1993an Bertsozale Elkartek bidalitako egutegiari erreferentzia egitea. Sei bertsolariren argazkiak jasotzen zituen (eta nazioarteko fama zuten sei abeslarirenak). Argazki horiek gerra aurreko belaunaldiari zegozkion, Fernando Amezetkarrarengandik hasi eta J. J. Lujanbiorengana arte, Txirrita eta Urretxindorarengandik pasaz. Horrek antigoaleko estereotipoa indartzen du, aurreko



duela eta ez duela tradizio honen historian egon diren inprobisatzaileen aniztasuna islatzen, ez orain ez iraganean. Hala ere, —eta Arantzazu Loidik argi eta garbi adierazi arren ez dagoela ados inprobisazio-tradizio honetan emakumeek parte hartzeak bi kategoria bereizi sortzen amaitu beharko lukeenik, atletismoan kasu— ez dirudi erraza denik aniztasun horretan emakumearen presentzia txertatzea. Izan ere, tradizio idatzian ez bezala, bertsolaritzak ahotsaren erakargarritasuna bilatu eta presentzia fisikoa eskatzen du. Horrek ez du esan nahi hitzaren irmotasuna indar muskularretik edo gorputzaren bolumenetik datorrenik halabeharrez, bertsolari *txiki* oso onak ere ezagutu baitira.

Alabaina, ukaezina da inprobisatzaile baten jardun ona, Loidi bera jakitun denez, inprobisazio-gaitasunetik at dauden beste oinarri batzuetan sostengatzen dela. Eta nahiz eta zaila den hemen zehaztea nola eta zein puntura arte baldintzatzen duten jardun on hori ahotsaren indarrak, tonuak, intentsitateak, keinuek eta abarrek, berak hiru puntu kentzen dizkio bere buruari emakume izatearen ezbeharrarengatik. Esan liteke, beraz, bertsolaritzan ere emakume izatea penalizatua dagoela. Neure buruari galdetzen diot transgresioaren prezioa den hori edo, sinpleki, aldaketak suertatzen direla onartzeak eta aldaketa horiek tradizio anti-femeninoenetan ere euren lekua bilatzen dutela onartzeak dakarren zailtasuna ikusgarri egiteko modu bat. Gainerakoan, ez dut zalantzarik bertsolari emakume honek eta beste batzuek pairatzen duten zigorra inkontzientziaren inozentziatik egina dela, A. Loidik iradoki gisan, nahiz eta badakigun hor anabasa handia dagoela.

Bertsolaritzaren garapenak eta gaur egungo formara arte izan duen espezializazio progresiboak definizioari eta jatorriari buruzko desadostasunak konpondu ez dituen arren, posible egiten du, ordea, egun bertsolaritza moderno gisa ezagutzen dugun tradizioaren alor hori zedarritzea. Horren historia, esan bezala, XIX. mendearen hasieran hasten da, Beñat Mardo izanik historian erregistratzen den lehen bertsolariaren identitatea. Bere jaiotegun eta heriotzaren datari buruzko erabateko ziurtasunik ez badago ere, XVIII. eta XIX. mendeen artean bizi izan zela uste da, eta Zuberoakoa zela. Bere obran iraun duen testigantza bakarra *Beñat Mardoren Kantoria* da. Garai igualtsuan, baina Gipuzkoan, Fernando Amezketarra (1746-1823) da jasota geratu den lehen bertsolarietako bat. Mende horretan bertan, baina beranduago, XIX. mendearen bigarren erdialdera iristen dira Xenpelar, Bilintx eta Etxahun, besteak beste.

Bertsolaritza historikoaren aldi hori hartuko dugu aintzat saiakera honetan, erreferentziatuz hartuz J. Zulaikak (1985) *Bertsolariaren jokoak eta jolasa* liburuan egindako ahalegin kontzeptuala. Obra horretan bertsolaritzari buruz proposatzen duen definizioa *Jokoan* oinarritzen da; nozio horrek euskal kulturaren ulkerera zabalago batera garamatza, bertatik hartzen baitu, bertsolaritzaren eta euskal kirolaren arteko analogia estu bat azaleraziz. Bere proposamenak ahozko praktika

---

aipuan J. Azurmendik «bertsolari-tipo» gisa izendatzen duena, egun bertsolarien artean dagoen aniztasuna islatu ordez.

honen banaketa sexuala argitzen laguntzen du; izan ere, emakumeak baztertzeaz batera, maskulinoago bihurtu den praktika baita. Haatik, ez dago identitate baten ziurtasuna mantentzeko beste modurik —are gehiago identitate sexualari buruz ari bagara—, baten alteritate guztia ukatzea baino; eta bertsolaria gizonetzko izendatzen da, edo nahiago bada, ez da emakume izendatzen.

Salbuespen gisa emakume inprobisatzaileraren bat aipatu ahal izateak ez du aurreko baieztapena baliogabetzen, horien presentziak ez baitu jakin bertsolaritzan bermatzen den maskulinitatearen ideiarekin hausten, baizik eta kontrakoa. Eta egia da hitzaren alorra gizonetzkoarena dela, Zulaikak euskal kulturaren testuinguruan laburbildu duen gisan: «Gizon izatea zer den definitzerako orduan, hitza da bere oinarritzko ezaugarrietako bat» (Zulaika, 1985: 10). Hala, bada, gizon bat ezagutzeko ordua iritsita, «haren humanitatea eta hitza bata bestearen isla izaten dira» (*ibid.*: 10, 11).

Hortaz, inprobisazio-tradizioa gizonen praktikatzat eta gizonen arteko praktikatzat sustatua izateak berretsi egiten du adierazpen kultural zabalago batek, baina berdin-berdin maskulinoak denak, bere baitan idatzita dakarrena: humanitatea hitzarekin lotzen du, eta berau gizonetzkoarekin, esaera honek laburbiltzen duen gisan: *hitza duen gizona, hitzeko gizona* (*ibid.*: 10, 11). Irudikapenak, bi kasuetan, generoaren nozioak markaturik daude. Hori dela eta, bertsolaritzaren eraikuntzan sakontzean gizonen feudo ia eskusibo moduan, presente izan behar dugu hasieran proposatutako genero-sistemaren teoria. Izan ere, sexu-desberdinkerian oinarrituta eta emakumeak inprobisazio-praktikatik baztertuta jarduten da bertsolaritza tradizio gisa eta ulertzen da, azken buruan, kontzeptu gisa: gizonen arteko errezitate-espazio gisa.

### **KIROLAREKIN DUEN ANTZEKOTASUNA**

Bertsolaritza izendatzeko ohiko esaera da «hizkuntzaren kirola» (Amuriza, 1981). Datu ezezaguna da niretzat zeren ondorio den esaera hori, ea bertsolaritza lehiaketa gisa praktikatzen delako den, beti irabazle bat izan behar duen (era erreal edo figuratuan) edo ea bertsoa inprobisatzeak eskatzen duen ariketa mentala gogorazteko den. Hala ere, badirudi bertsolaritza «kirol nazionaltzat» hartzeak (horrela ere ezaguna baita) praktika honi joko lehiakor baten egitura ezartzen diola (Zulaika, *op. cit.*: 7).

Euskal kulturaren, Zulaikak baieztatzen duenez, gure jokoak bipolarrak izan dira tradizioz (*ibid.*: 7). Zehatzago esanda, euskal kirolek lehiakide bat bestearekin buruz buru aritzera jarrarazi izan dute. Izan harri-jasotzaileak edo idi-dema, edo baita euskal pilota aipatuko bagenu ere, jokoaren bipolaritate horrek beti irabazle eta galtzaile bakarra egotea determinatu du, zalantzarako espaziorik utzi gabe.

Jokoa horrela ulertuta, euskaraz gainera *jokoa jolasetik* bereizten baita (ez dago termino horietarako gaztelaniazko itzulpen egokirik, baina ingelesez, adibidez,

*game* eta *play* nozioetara hurbil daitezke, hurrenez hurren), lehenak lehiakortasuna eta arauak barnebiltzen ditu; arauak behar ditu, jokoaren sostengatzeko eta irabazlea erabakitzeke behar diren irizpide formal eta zehatzak.

Lehen termino horren kontrara (*joko=game*), euskarak bereizten duen bigarren adierazpenak (*jolas=play*) ezaugarri nagusizat dauka, preseski, arauen absentsia. Horretan, ez da irabaztea edo galtzea bilatzen, ez baitago lehiaketa formalik, baizik eta helburua, sinpleki, jolastea izaten da, entretenitzea, dibertitzea. Jolas mota horren baldintzak malguak dira, parte hartzen dutenen interesen arabera eta aldagarriak, aurreko kasuan gertatzen zenaren kontrakoa, alegia, non arauen zurruntasuna eta zorroztasuna den haien baldintza saihetsezina.

*Joko/jolasaren* bi adiera horietatik abiatuta, Zulaikak ebazten du bertsolaritzari lehen nozioa dagokiola hobeto, hau da, *jokoa*; iritzi hori, gainera, bertsolarien artean egiten ziren apustu ugarien ebidentzian sostengatzen du (*ibid.*: 7). Noski, ez dago apusturik lehiaketaren bipolaritate propioak ez baldin badu bere muturretako batean irabazlea ikusten, edo kontrakoa. Apustuaren nozioak, beraz, jokoaren muina dauka bere baitan: lehia, enfrentamendua. Eta adiera horrek, *jolas* terminoak baino hobeto, bertsolaritza aipatzeko balio du, sinpleki jarduera hori desafio moduan egiten delako eta irabazle bat aurreikusten duelako.

Baina Zulaikak galdegiten du ea bertsolaritza, halaber, modu horretan ulertu behar den eta bigarren modalitatearen arabera praktikatzearen alde egiten du. Hau da, jolas bat izan dadila. Hortaz, erabil dadila izpiritua zabaltzeko eta balio dezala dibertimendu eta sormenerako, plazer eta olgetarako; ez dezala jokoaren zurruntasunera lotu beharrik izan. Bigarren alternatiba honetara lerratzeke proposamenarekin, Zulaikak adierazi nahi du sinetsita dagoela ahozko praktikaren ulerkera hau berezkoago zaiola bertsolaritzari.

Haren iritziak, bertsolari baten trebetasuna, bere sormen eta buru-azkartasun maila, bere abilezia, originaltasuna, edo inprobisazioaren beste edozein arrasto ezin da irabazle/galtzaile formatuan neurtu, baina bai ordea euskal pilotan edo aizkolari eta segalarien artean. Eta azpimarratzen du egun inprobisatzaile onena zein den erabakitzeke antolatzen diren lehiaketek ez dutela funtsik, kantuan saio bat edo batzuk egin ostean horrelako lehiaketa batek bertsolari bati ematen dion arrakasta aldagai askoren menpe baitago, hala nola zer esan, non, norentzat, zein testuingurutan, eta bertsolari baten edo bertso baten balioa egoera horiek guztiek baldintzatzen dutela (*Zulaika, op. cit.*: 29).

Behin *joko/jolas* kontzeptuen esanahiak laburbildurik, argitu beharra dago ez dela gure asmoa hemen eztabaidatzea Zulaikak, bertsolaritzari berezko zaiola berreskuratu nahian, txapelketen egokitasun edo desegokitasunei buruz esandakoak<sup>6</sup>.

---

6. *Bertsolaritzaren jokoa eta jolasa* lanean Zulaikak erabiltzen duen argudio oro, hark bertsolaritzaren egiazko funtzio edo «egitazko funtsa» gisa ulertzen duena defendatzeko ahalegina da. Ikus. *ibid.*, 5. or.

Aurretik argi geratu denez, hausnarketa honen helburua da ikustea *jokoaren* eta *jolasaren* arteko bereizketa kontzeptualak nola laguntzen duen edo ez emakumeek tradizio honetan parte hartzean, edo alderantziz, ea uxatzea sustatzen duen.

Bertsolaritzaren eta kirolaren arteko analogiak erakusten du, ikusi berri dugun bezala, joko delatzen —lehia eta enfrentamendu zentzuan— praktika honen ezaugarri nabarmenetako bat. Baina hori bai, euskal kulturaren erreferentzian, kontzeptu hori pertsona helduen arteko ezaugarria da soilik, hurrekin gertatzen denaren kontrara, horiek soilik jolastu egiten baitute, eta helduak ez baitira jolasaren dimentsio infantil horretan galtzen. Horren harira, Zulaikak honakoa adierazten du:

Umeak bakarrik egin dezakete jolas, eta pertsona heldua jolasean hasten bada, umeen portaerara itzultzen da. «Ze! Umekieretan ibili behar al degu oraindik?» esaten da holakoetan (Zulaika, *op. cit.*: 47).

Hortaz, *joko/jolas* terminoek marrazten duten espazio kontzeptualak tarte gutxi uzten du zalantza egiteko. *Jokoaren* kontzeptua eta heldutasunaren ideia, heldu izatearena, molde berekoak dira; izan ere, lehiatzen jakiteko gaitasunean oinarritzen baita, hau da, arauak barneratzeko, arauetara egokitzeko, posizioak lehiatzeko, maila lehiatzeko eta, azken buruan, hitzez desafiatzeko gaitasunean. Heldutasunaren ideia, era berean, pertsona heldu bat umekieratan ez ibiltzean eusten da, ez baita egokia bere izaeran. Beste era batera, haur bat ez dela argi uztea da heldu baten egin behar lehiakorren zorrotzasunaren muina. Haur izateari utziz iristen da heldu izatera. Haurra ez dela eta umekieratan ibiltzen ez delako susmoei ihes egiten frogatzen du gizonezko euskaldunak gizon delatzen. Hala ohartarazten du berriz ere Zulaikak:

Jolasak umearen portaera markatzen duen bezala, jokoak gizon helduarena definitzen du; heldutasuna jokorako gai izateak erabakitzen du; azken batean gizon helduaren nortasuna joko bat bilakatzen delarik (*ibid.*: 48).

Puntu horretara iritsita, galde genezake zein den emakumeari dagokion lekua bikote kontzeptual horretan: *joko/jolas*. Orain arte esandakoa gizonari baitagokio. Euskal kulturari buruz hitz egiterakoan horren ohiko bihurtu diren teoria matriarkalistek, egia direla frogatuko balira, gure galderaren zailtasuna berandutu gabe bideratuko lukete. Baina horrek ez dirudi hemen horren erraza. Izan ere, euskal tradizioaren ulerkeran, bi kontzeptu horietako batek ere ez du emakumea barnebiltzen, beste bat behar du propio berarentzat.

Edozein delarik ere emakumearen habitata, leku inposiblean dagoela dirudi. Erdi heldu, erdi haur, emakumearen identitatea indefinitu bilakatzen da, ulergaitz. Edota Celia Amorósek esango lukeen bezala, «bereizezin» (Amorós, 1987: 113-121). Baina horrek ez gintuzke sobera harritu behar, aintzat hartzen badugu euskaraz *emakume* kontzeptua bera eme-ume bereizten delatzen, gure dimentsio immanentea eta basatiena azpimarratuz, gure izate sexuala. Egia da beste termino bat ere badagoela emakumeak izendatzeko, *andre*, baina horrek andere ñabardura dauka, era berean menpeko kontzeptua dena. Norbaitek argudiatu nahiko du, akaso, gizonezkoiei ere

*gizakume* esaten zaiela. Egia. Baina, kasualitate arraroren batengatik, *gizakume* giza-ume bereiziko litzateke, eta ez ar-kume. Badirudi euskal gizonezkoei humanitatea era automatikoan iristen zaiela eta hura, beraz, ez dugu ar-tzat hartzen, giza emearekin pasatzen den bezala. Honetan, espeziearen beste bikotea izakia da lehenik, *ume/kume*, ez dauka sexurik (hau pena), eta gero gizon-izaki izatera pasatzen da: *giza-kume*. Agian, hau litzateke momentua Ortiz Osések azaltzeko non betetzen den hemen berak hain irmoki baieztatzen duen genero arteko berdintasuna, noski, hori ulertu ahal izateko alor telurikora joan eta horrek hermeneutika arraro eta ezinezko bat erabiltzea exijitu gabe, berak proposatzen duen gisan<sup>7</sup>.

Argi dago, beraz, emakumeari entitate substantibo oro ukatzen zaiola, ez bada zalantza eta hanka-sartzea. Ez dago kontzeptu egokirik berarentzat, bietako bat ere ez, ez *jokoak* ez *jolasak* ez dutelako barne hartzen; biek egiten dute kurrinka hura definitzen saiatzen direnean. Hemendik proposatu nahi diet euskaldunei pentsatzeko emakumea bi praktika horiekin erlazionatzen dituzten zenbait esaldi: *jolas*, *joko*, *jokalaria da* edo *jolasean dabil*. Ohartuko gara, hain zuzen, zein desegokiak suertatzen zaizkigun biak. Esaten gabiltzan moduan, euskal kultura tradizionalan ez da beharrezkoa emakumea jokalaria izatea. Zentzu horretan, honako hau gogorarazten digu Zulaikak:

Gizonezko jokalaria, bertsolari, edo «erdi-txispatu» bat gauza normala da; emakume jokalaria, edana, edo bertsolaria, gauza aldrebesa (Zulaika, *op. cit.*: 47).

Eta jokoaren dimentsio hori emakumearentzat egokia ez izanik, gizonak jolas moduan hurbildu beharko du beragana, eta esan bezala, heldutasunik ezarekin, umekierekin eta haurtzaroarekin lotutako kontzeptua da hori. Hortik ondorioztatzen da, logikoki, gizonak emakumeak haur bezala trata ditzaketela soilik. Aintzat hartu beharreko ondorio harrigarria eta esanguratsua zinez.

Erreferentzia kultural honetan presente dagoen gizon-emakume, emakume-gizon harremanaren pultsua goian aipaturiko kontzeptuetan laburbiltzen da, emakumeari entitate ontologiko bat ukatuz. Emakumea, *apeiron* singular eta berezi horretan ulertuta, Lockek esango lukeen «ez dakit zer» bat da. Hori dela eta, generoen (maskulinoa eta femeninoa) arteko distantzia, beraz, distantzia baino gehiago da; izan ere, berez, emakumea ez da izatera ere iristen. Edo, edonola ere, hibrido zail eta definiezin hori da: erdi heldu, erdi haur; beti osatzeke dagoen izaki espezie hori, irmoki amaitu gabea. Bada eta ez da, anbiguetatera eta zalantzara kondenatua. Dударik gabe, *rara avis* bat. Ez dakit nik, azkenean, galzorian egoteko arriskuan dagoen. Baina hibrido hori entitate errealago baten aitzakian desagertuko balitz, emakumearentzako kategorikoagoa, tradizioaren ulerkerak ere aldaketa bat jasango luke. Hori bai, *joko/jolas* kontzeptuek ez lukete beren esanahia galduko emakumeek *plazan* duten parte-hartzea beste generoarekiko orekatuagoa izan arte, txapelketak irabazi eta galdu arte. Hori oraingoz ez da gertatzen, eta ez da gertatuko gure ondasun komunala den hitzak emakumeen ahotan gizonak desafiatzeko indar

7. Ortiz Osés eta Mayr, *op. cit.* Ikusi, bereziki, sarrera eta lehen kapitulua, 9-32. or.

aski izan arte, eta haiek desafiatuak direla jakin arte. Hori gertatzen ez den bitartean, Zulaikak honakoa adierazten du:

Gizonezko batentzat ez da egokia emakumezko batekin burrukan, jokoan edo musean aritzea; era berean, emakume eta gizonezko bat bertsotan aritzea kultura tradizionalaren domeinuak nahastea izango litzateke. Bertsolaritza, beste edozein joko bezala, gizonei dagokie; emakumeekin bertsotan aritzea gauza normala balitz, bertsolaritzaren definizio inplizittoa joko bano jolasetik hurbilago egongo litzateke (*ibid.*: 48, 49).

Badakigu, noski, kulturaren eremuak aldatzea ez dela lan erraza, eta are gutxiago egun bakarreko lorpena. Hori hala da tradizioak praktika baten behaketa puntuala edo ohitura baten errepikapena baino askoz harago doazelako. Eta, beste era batera esatearren, ohiturak eta praktikak kontzeptu eta jakintzekin komunikatzen dituen esanahien sare zabal eta konplexu batean inskribatzen direlako tradizioak. Horrek gure kontzientziak ulerker a espezifiko batera mugatzen ditu, baina ez soilik gure identitateen ulerker a, baita besteena ere. Eta mundua ulertzen eta bertan kokatzen gaituen egitura sakon horri ihes egitea guztiz zaila da, eta ezinegona sortzen du. Horregatik, ohitura bat aldatzea, zenbaitetan, *corpus* kultural baten pitzaduraren arrazoi izaten da; eta aldaketa hori eginez gero, bere eskutik datorrela dirudien hondamena mehatxu gisa sentitzen da, gu zapalduko gaituelakoan; ziurtasunik gabe uzten baikaitu, eta gu garena ukatu.

Horrek azaltzen du, hein batean, ahozko tradizioak emakumeak jasotzeko izan dituen erresistentziak. Gainera, bidea irekitzen da ikusteko haien presentziak zein puntura arte galdekatzen duen bertsolaritzan ez soilik emakumeen praktikaren nozioa, Zulaikak esan bezala, baizik eta, bereziki, maskulinitatearen nozioa. Izan ere, egia den arren bertsolaritzak hiriko bertsolariak eta bertsolari euskaldun berriak ere txertatu dituela bere oinarriak erauzi gabe, ez dirudi gauza bera gertatzen denik emakumeen *plazarekiko* gertutasuna hazi ahala.

Egiaz, haien presentzia publikoak erronka bat suposatzen du, eta horrek emakumeen eta gizonen arteko muga hausten laguntzen du hain bereizita eta urrun dauden unibertso kontzeptual, fisiko eta kulturaletan. Hori dela eta, bertsolaritzak emakumeak ezagutzen dituen edo ez jakiteko ahalegina ezin da mugatu zenbatzera eta zortzi edo lauogei izan diren, ea ezkontuta zeuden edo ez, laikoak edo mojak ziren, hirikoak edo landa-eremuak. Praktika horrek eskatzen duen teknika oso ongi menderatzen zuten emakume batzuk kontabilizatzeak ez baitu ekidin praktika horren oinarria definitzen duten kontzeptuek emakumea aintzat ez hartzea.

Era berean, emakumeak bertsolaritzan sartzeko zailtasuna ezin da halabehar historiko huts baten gisa ulertu, garaien arbitrariotasun bat bezala. Emakumerik ez badago, hain zuzen ere, bertsolaritzaren baldintzak definitzen dituen *joko/jolas* espazio kontzeptualak esentzialki alde batera uzten duelako da. Hau da, definizioz. Hortaz, bere baztertzearen kontingentzia historikoa garai baten apeta baino askoz gehiago da, emakumeari substantibitate oro ukatzen dion unibertso kontzeptual eta

sinboliko bati eusten baitio. Ez dauka espaziorik bertsolaritzan, maskulinitatearen limiteak bere presentzia kontzeptutik definitu baitu, kontu ontologikoetarako emakumearen gutxiegitasuna determinatuz. Horrek azaltzen du zergatik sortzen duen oraindik hainbeste harridura emakume batek bere substantziazioaren alde egiten duen edozein keinuk, eta azaltzen du zergatik sortzen den horrelako erresistentzia integratzeko orduan, aldaketa ematerakoan. Keinuak eta espazioak sexuen arabera esleitzeko ulerkerak horrek ekintzen paralizazioa dakar bueltan.

Ondorioz, generoen arteko haustura oso suspertuta dago bertsolaritzan, baita euskal kulturaren emakumea eta gizona aipatzen diren jardura orotan ere. Lehenago ikusi dugun bezala. Gizona ekintzaren bidez definitzen da; emakumea ukapenaren bidez. Gizonak jokatu, apustu egin, edan, mozkortu, ligatzen saiatu (*neskatan*)<sup>8</sup>, biraoak esan, borrokatu, bertsoak bota, plazara atera, hitza hartu eta erronka egiten du. Eta hori guztia eginez bere maskulinitatea frogatu eta berretsi egiten du. Emakumeari, alabaina, aurreko guztia ukatu egiten zaio, seinalatua izateko zigorraren pean, *aldrebesa* edo *andra txarra* izatea leporatuta, Xenpelarrek esan gisan (Zavala, 1981: 260-271). Eta feminitatea, edo hartaz aditzera ematen dena, ukapenean eta absentzian sostengatzen denez, emakumea, desafiatazaila eta ausart, goian aipaturiko edozein alorretan sartzen bada, ez da soilik ez duela bere identitatea berresten, baizik eta zalantzan jartzen duela, esentzialki galdekatzen du, barnebiltzen dituen muga kontzeptualak arrakalatuz. Egia da horrek ez duela definizioa alde batetik soilik pitzatzen, kontrako aldetik ere, eta zentzu horretan, beste generoa zedarrizten mugak ere antzeko haustura jasaten du.

Emakumea *plazara* sartzen denean, ezinegona ez da sortzen aurpegi polit batekin topo egitearen berritasunarengatik, eta are gutxiago bestelako ahots bat entzuteagatik, baizik eta emakumearen presentziak errukirik gabe zartatzen dituelako gizon-emakume, emakume-gizonaren arteko mugak. Ezinegona sortzen da *joko* nozioaren oinarriak, bertsolaritza sostengatzeaz gain, modu berean sostengatzen duelako maskulinitatearen ilusioa. Hau da, gure ziurtasun sendoenetako bat sostengatzen du: sexuen arteko desberdintasunetik eratorri eta horren gainean eraikitzen dena. Ezinegona, azken finean, kontzeptuaren ordena iraultzeak emakumeei ukatutako esanahien sare konplexu bat aldatzen duelako: arauen ulerkerak, desafiorako izpiritua, erronkarako nahia, jokorako anbizioa, hitzaren dohaina eta, azken batean, humanitatea bera. Bien bitartean, kontzeptu berak dena baieztatzen du gizonarentzat. Eta noski, orain ematen badu emakumea ere gai dela gizona bezainbeste, eta ongi dakigun moduan, gai da, orduan desberdintasuna desagertzen da. Eta ez badago desberdintasunik ez dago batasunik (Alexander, 1984: 125-149). Hortik dator ezinegona, hortik erresistentzia, hortik beste generoarekiko areriotasuna. Izan ere, ez badago desberdintasunik, non geratzen da maskulinitatea? Zertan oinarritzen da? Zertaz elikatzen?

8. Azpimarratu beharra dago, ez dagoela beste generoarentzat erabiltzen den esamolde honen parekorik: mutiletan, esaterako, noski, gizonetzakoak gustuko dituzten emakumeen balizko kasuan erabiltzeko.



Ondorioz, ez da erraza emakumea bertsolaritzan ongi etorria izatea. Baina ez araua hausten duelako, Zulaikak proposatu bezala —hausten baitu, dudarik gabe—, baizik eta bere presentziak gure identitaterik sendoenak oinarritzat hartzen dituen zimenduak mugitzen dituelako. Gizon edo ez-emakume kontsideratzea, hori da gehien inporta duen desberdintasuna, gizonezkoarengan maskulinitatea determinatzen duena, ez bere baitan elikatua baizik eta feminitatearen oposizio gisa, hura erresistitzen. Horrek azaltzen du, era berean, ezinegonak eta erresistentziak horren forma konkretua badute *plazan* emakumeen presentzia kudeatzeko orduan, hori gertatzen dela, sinpleki, gizonarena eskusiboki uste zen tribunan bat-batean eta guztiz sartzeko ausardia egon delako (Davidoff, 1992). Maskulinitatearen metafora *plaza* da, bere santutegia. Baita boterearen metafora ere. Eta generoa dauka plazarako sarrerak, espazio publikoaren okupazioak, hitza bere baitan pentsetzeko autoritateak. Eta genero hori gizonezkoarena da.

Sarri, ordea, hitza ikasi eta lantzeko beste espazio bat ezartzen da, berriz ere beste metafora bat dena: etxea. Feminitatearen metafora da kasu honetan. Itxialdiaren eta giltzapetzearen metafora. Baina hemen hitzak ez du bere autoritateagatik balio, ez baitu halakorik; afektuak ematen dio balioa. Etxea hemen bihotz hitzaren santutegi bihurtzen da; *plazak* autoritate hitzari, arrazoi hitzari leku egiten dion gisan. Bereizketa horrek elkarrekikotasun maskulino eta femeninoak dituela jasota geratu da honako testigantza honetan, Aita Villasantek 1975eko Emakumearen Nazioarteko Egunaren aitzakian esana:

Emakumeak, euskararen alde lan egiteko, badu toki autatu bat, gaztelu bat, bere-berea duena: etxea. Hau da euskerak behin ere galdu behar ez lukeen kabia. Hemendik kanpora irten bai, kalera, plazara, eta noranahi, baina beti ere etxea, ahal dela, galdu gabe. Eta hori bai dagoela emakumearen eskuan, beste inorenean baino gehiago! Etxea da lehenbiziko eskola eta beharrezkoena<sup>9</sup>.

Baina hitza infantila da etxean, ez da heldu egiten harekin desafiatzeko kapaz garelara frogatzen dugun arte, bere identikoa eta maila berean esanguratsua den beste batekin neurtzen den arte; hitza ekintza eta testigantza bihurtzen den arte: *hitza duen gizona, hitzeko gizona*, esan dugun bezala. Hortaz, euskara irakasteagatik letretako gizonek euren amei egindako eskertza-testigantza ugari dauden arren, kasu honetan ez dio uzten erredundante izateari, tautologia hutsa. Izan ere, amak soilik irakats dezake ama-hizkuntza. Eta nola ez eskertu afektua afektuaren bidez, emakumearen hitza afektuaren hitza bada, amaren hitza. Baina hitz hori ez da nahikoa, nahiz eta guztiz beharrezkoa den. Eta euskarak ongi daki hori. Sinpleki, alor honetara mugatzen den hitz hori ez delako garatzen ez hazten; beste hitz bat desafiitzen ez duen hitza da, besteak posible duenean itzalarazten dutena, isiltasunera, ikusezintasunera eta ezjakintasunera bideratuz. Poetak arrazoi zuen hau zionean: «Ialgi hadi plazara, ialgi hadi mundura» (Etxepare, 1980: 250-261).

9. Villasante, L. (1976): «Emakumea Euskal Literaturan», *EUSKERA*, XXI, 151. or. Aipatu beharra daukat Villasantek hitz horiek esan zituenean EUSKALTZAINDIAREN buru zela.



Bi ondorio ateratzen ditut horretatik, nire argudioa betiere *joko/jolas* bikotean sostengatuz. Bata hizkuntzari buruzkoa da; bestea generoari buruzkoa; nahiz eta biak lehenengoan, bigarrenean, eta azken finean, guztietan nahasten diren. Hots, argiari irekitako hitzak gizonezkotasunaren substantibitatea berresten du. Bere hitz egiteko eta iritzia emateko modua, ahots eta hitzak hausnartzeko modua bere identitatea aldarrikatzeko eta humanizatzeko modurik nabarmenena da. Emakumezkoen kasuan, ordea, argi beraren pean jarritako hitzak bere irudia estaltzen du, birrindu eta indeterminazioan disolbatzen du, izenik ez duenaren «bereizezintasunean». Eta ez du izenik bilatzen ez dagoelako bere hitzarentzako ekintzarik: *jolasean edo jokoan?* Bi horietariko zein dagokio bere ahotsari? Zer determinatzen da bere hitzean? Humanitatearen zein alor ezkututzen da bertan? Azken batean, zer ematen du ezagutzera estalitako hitz batek?

Bertso eta prosako hitzaren habitata maskulinoa da, gizonezkoa. Eta hori deitoratu behar da. Izan ere, Villasante guztiz oker dago etxea euskararen santutegi gisa aldarrikatzean, eta bertan emakumea andre eta jabe ezarriz, sinetsita horrela hitzak biziraun eta irauten duela. Hizkuntzak zerbait aditzera ematen du kanpora ateratzen denean soilik, eta argira ateratzean egiten du hori, beste ahots batzuekin topatzean bere burua proiektatu eta lantzen duenean, beste ahotsak ulertzen dutenez egiten baitute soinudun. Beste ahotsak ospatu egiten dute, ulergarri eta erraz suertatzen delako, komunikatu eta atsegina ematen duelako. Eta horrela, berezko eta arin hazten da, bere egin eta partekatzen duten besteengan bere burua bilatuz.

Hitza, bertsolaritzan gizonen artean partekatua, adierazpen-txandaka ordenatzen da, ez soilik errima eta metrikaren bidez, baizik eta bertsolari batetik bestera txandakatzen diren ahotsen bidez, denbora osoan hitza atxikitzen duen bat egon gabe. Horrela soilik humanizatzen da hitza, alderatu eta komunikatzen denean, hau da, partekatzen denean. Heraclitok esan gisa, *logosa* komuna da, eta hala behar du izan halabeharrez, humanitatea osatzekotan. Tradizioak praktika horretatik alde batera utzi izana eta, beraz, *joko/jolas* kontzeptuak emakumei hitzaren espazioa ukatu izana penagarria da, edozein ikuspuntutatik begiratuta ere. Zulaika ez da oso urrutira joan alde batera uzte horren zergatiak interpretatzeko ahalegin analitikoan: izan ere, arauak eta ohiturak aipatzen ditu bertsolaritzak emakumea baztertzeko izan duen azalpenerako arrazoi gisa eta dio arauak osatzen dutela kultura oro sostengatzen duen ondasuna —normala dena eta ez dena ezartzen duena—. Baina arau eta ohituretan zerbait nabarmena bada, preseski, zerutik euriaren gisa erortzen ez direla da, baizik eta indibiduen artean adosten direla eta horiek betetzeko onarpen-edo zigor-mekanismoak ezartzen direla, kontrako jarreraren edo adostasun mailaren arabera.

Ondorioz, emakumeak bertsolaritzaren ohiko paisaiaren parte izateko dagoen erresistentzian, araua hausteko dagoen erresistentzian, gure kulturaren zenbait kontu salatzen dira: geure burua beste modu batean ulertzeko zailtasuna, aldaketak onartzeko daukagun baldartasuna. Hori bai, zailtasun hori ez da espontaneoki

eta era desordenatuan agertzen, arbitrariotasun atmosferikoekin gertatzen den bezala, esaterako. Hemen ohiturak emakumea praktika horretatik baztertzen du —baztertzen baititu, ongi dakigun moduan— bertsolaritza genero-bereizketaren sisteman oinarritutako tradizioa delako, edo beste era batera esanda, botere-sistema batean. Feminismoak proposatzen duen «espazioaren birdefinizioa» da bereizketa hori sostengatzen duen ordena desorekatu eta hierarkiko horrekin hausteko modu bakarra, emakumeei hitzean gizonen espazio identikoa emanen dien berdintasuna errazteko asmoz.

Bertsolaritzaren kasu zehatzean, «birdefinizio» hori ez da emakumeen ahotsaren presentzia *plazan* sustatzea besterik. Baina ez ama baten ahotsa, edo haur batena, baizik eta ahots heldu bat, beste ahotsen gisa bere txanda itxoin eta hartzen duena. Izan ere, ezin dugu ahaztu plazan irabazten duela bertsolariak autoritatea eta bertan hartzen duela zentzua haren ahotsak, bertsoan osotasunez izendatzen duela. «Birdefinizioak» guk ere jokatzeko dakar, erronkaren eta desafioaren jokoan parte hartzea dakar. Konfronta gaitzen hitzean eta kontsidera gaitzen heldu. Desafia dezagun, beraz, desafioa. Desafia dezagun bertsolaritza.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Alexander, Sally (1984): «Women, Class and Sexual Difference in the 1830s and 1840s: Some Reflections on the Writing of the Feminist Theory», *History Workshop Journal*, 17, 1984ko udaberria, 125-149.
- Amorós Puente, Celia (1987): «Espacio entre iguales, espacio de las idénticas. Notas sobre poder y principio de individualización», *Arbor*, 503-504, azaro-abendua, Madril, 113-127.
- , (1985): *Hacia una crítica de la razón patriarcal*, Anthropos, Bartzelona.
- Amuriza Sarrionandia, Xabier (1981): *Bertsolaritza 1. Hitzaren kirol nazionala*, AEK.
- , (1982): *Zu ere bertsolari*, Elkar, Donostia.
- , (1985): «Bertsolaritza», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, I. bol., Donostia, 469-472.
- , (1980): «Bertsolaritzaren barne prozesua», *Jakin*, 14-15, apirila-iraila, 134-138.
- Anderson, Benedict (1991): *Imagined Communities*, Verso, Londres.
- Aulestia Txakartegi, Gorka (1990): *El bertsolarismo*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Azkie Aberasturi, Resurrección María (1968): *El cancionero popular vasco*, 2 bol., La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Azurmendi Otaegi, Joxe (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», *Jakin*, 14-15, apirila-iraila, 139-164.
- Azurmendi Zabaleta, Nerea (1987): «Emakume idazleak euskal literaturan», *Jakin*, 45, urria-abendua, 25-37.

- Bauman, Richard eta Sherzer, Joel (1989): *Exploration in the Ethnography of Speaking*, Cambridge University Press (2. edizioa), Cambridge.
- Beauvoir, Simone (1965): *El segundo sexo*, Siglo Veinte, Buenos Aires, II. bol., 13. or.
- Bloch, Maurice (1975): *Political Language and Oratory in Traditional Society*, Academic Press, Londres.
- Cameron, Deborah (1985): *Feminism and Linguistic Theory*, Macmillan, Londres.
- Chircop John (1993): «Oral Tradition and Historical Source: The Maltese Ghannejja», *Oral History*, 21. bol., 1. zk., udaberria, 63-67.
- CAP (1981): «Berto Paperak», Xenpelar Saria, Donostia.
- Coates, Jennifer (1986): *Women, Men and Language*, Longman, Londres.
- Cornell, R.W. (1985): «Theorising Gender», *SOCIOLOGY*, 19. bol., 2. zk., 1985eko maiatza.
- Davidoff, Leonore (1992): «Beyond the Public and Private: Thoughts on Feminist History in 1990s'», *Pasato e Presente*, 1992.
- Dorronsoro, Juanito (1981): *Bertsotan: 1789-1936*, Ediciones Elempuru, Bilbo.
- , (1988): *Bertsotan: 1936-1980*, Itxaropena, Zarautz.
- Echegaray, Carmelo (1901): «Apéndice a la obra Noticias de las cosas memorables de Gipuzkoa», 6. bol., Tolosa, 34-36
- Egaña Makazaga, Andoni (1993): «Egungo Bertsolaritzaren Ezaugarriak», *Jakin*, 75, martxoa-apirila, 17-31.
- Eizemendi Manterola, Ignacio (1984): «Basarri», *Bertsolaritzari Buruz*, Auspoa, Tolosa.
- El Fuero, Privilegios, Franquezas y Libertades del M. N. y M. L. Señorío de Vizcaya, Diputación Foral de Vizcaya, Bilbo, 1977.
- Elizegi Bengoetxea, Mikaela (1963): *Pello Errotaren Bizitza* (2 bol.), Auspoa, Tolosa.
- Ellakuriaga, Izaskun (1992): «Bizkaiko emakume bertsolariak», *Bertsolari aldizkaria*, 8, abendua, 41-64.
- Etxepare, Bernat (1980): *Linguae Vasconum primitiae*, Mensajero, Bilbo, 251-261.
- Finnegan, Ruth (1992): *Oral Traditions and The Verbal Arts*, Routledge, Londres & New York.
- Fox-Genovese, Elisabeth (1982): «Placing Women's History in History», *New Left Review*, 133, maiatza-ekaina, 5-29.
- Goody, Jack eta Watt, Ian (1968): «The consequences of literacy», in Jack Goody (ed), *Literacy in Traditional Societies*, Cambridge University Press, Cambridge, 21-84.
- Goody, Jack (1987): *The Interface Between the Written and the Oral*, Cambridge University Press, Londres & New York.
- Haranburu, Antton eta Iriondo, Jose Mari (1980): «Bertsolaritza gaur eta bihar», *Jakin*, 14-15, 38-49.

- Haritschelhar, Jean (1985): «Euskal literaturaz», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, I. bol., Donostia, 473-477.
- Iztueta, Juan Ignacio (1847): *Gipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia*, Baroja, Donostia.
- Johnson, Richard *et al.* (ed.) (1982): *Making Histories. Studies in history writing and politics*, Hutchison, Londres.
- Jordan, Rosan A. eta Kalcik Susan J. (ed.) (1985): *Women's Folklore, Wonten's Culture*, University of Philadelphia Press, Philadelphia.
- Juaristi Linazero, Jon (1987): *Literatura Vasca*, Alfaguara, Madril.
- Leizaola Sánchez, Jesús María (1951): *Estudios sobre la Poesía Vasca*, Editorial Vasca Ekin, Buenos Aires.
- Lekuona Etxabeguren, Manuel (1985): «Aozko Literatura Euskalerrian», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, I. bol., Donostia, 456-458.
- , (1978): *Aozko Literatura*, Kardaberaz Bilduma, 3.ed., 22-A.
- Lekuona Berasategi, J.M. (1982): «Bertso Paperak», Xenpelar Saria, Jakin bilduma, CAP, Donostia, 7-21.
- , (1985): «Ahozko literaturaren historia», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, I. bol., Jakin, Donostia, 459-468.
- Loidi Garitano, Arantzazu (1992): «Emakumezko saioak antolatzea oso bide okerra da», *Geu Emakumeok*, prentsa feminista, 15, uda, Bizkaiko Emakume Asanblada, Bilbo.
- Lord, Albert B (1978): *The singer of Tales*, Atheneum, New York.
- Mitxelena Elissalt, Koldo (1960): *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madril.
- McConnell-Ginet, Sally *et al.* (ed.) (1980): *Women and Language in Literature and Society*, Praeger, New York.
- Molina Petit, Cristina (1991): *Hacia un modelo explicativo*, Seminario de Estudios de la Mujer, Donostia.
- Onaindia Baseta, Santiago (1954): *Mila Euskal Olerki Eder*, Karmeldar Idaztiak, Zarautz.
- , (1964): *Gure Bertsolariak*, Aita Onaindia, Bilbo.
- Ong, Walter J. (1982): *Orality and Literacy* (2. Eed.), Routledge, Londres & New York.
- Ortiz Osés, A. eta Mayr, F.K. (1981): *El matriarcalismo vasco* (2. ed.), Publicaciones de la Universidad de Deusto, Bilbo.
- Sau, Victoria (1998): «La construcción del yo femenino: hacerse a sí misma», Instituto de la Mujer, Madril.
- Scott, Joan (1989): «Gender: "A Useful Category of Historical Analysis"», in E. Weed (ed.), *Coming to Terms*, Routledge, Londres.
- Shils, Edward (1981): *Tradition*, Faber and Faber, Londres & Boston.
- Thompson, Paul (1988): *La Voz del Pasado. Historia Oral*, Edicions Alfons el Magnanim, Valentzia.

- Tonkin, Elisabeth (1992): *Narrating our Pasts. The social construction of oral history*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Torrealdai, J.M. eta Azurmendi, J. (1985): «La literatura vasca a través de los siglos», *Euskal Herria: historia eta gizartea*, I. bol., Donostia, 478-489.
- Valcárcel y Bernardo de Quirós, Amelia (1992): «Sobre el genio de las mujeres», *ISEGORÍA*, 6, Madril.
- Villasante Kortabitarte, Luis (1976): «Emakumea Euskal Literaturan», *EUSKERA*, XXI, 146-159.
- Zavala Etxeberria, Antonio (1981): *Xenpelar bertsolaria*, Auspoa, 88-89-90, Tolosa.
- , (1964): *Bosquejo de Historia del Bertsolarismo*, Auspoa, Tolosa.
- , (1968): *Lexo Bertsolaria*, Auspoa, 79-80-81, Tolosa.
- Zulaika Irureta, Joseba (1985): *Bertsolariaren jokia eta jolasa*, Baroja, Donostia.



*Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke*

Joxepa Antoni emakumea,  
askea bere erara,  
bertso sortzaile langile edo  
apurtzaile behar bada...  
Izan nahi baten adierazle,  
kanta zerion aldaba,  
jakinduriaz harrotasunez  
neskazahartu zen alaba;  
Zuri beltzeko bekozko baten  
kolorezko begirada.

**Rosi Lazkano Larrañaga**





# Joxepa Antoni Aranberri bertsolaria, plazandre feminista?

*Elixabete Perez Gaztelu*

## **SARRERA: JUSTIFIKAZIOA, HIPOTESIA ETA HELBURUA**

### ***Justifikazioa***

*Feminismo* hitza (ia seguru) sekula entzun ez zuen<sup>1</sup> XIX.-XX. mendeen bihurguneko euskal emakume elizkoi, karlista, tradizionalista bat feministatzat jotzeak zentzua izan dezakeelako du artikuluko honen izenburua. Beste emakume (eta gizon) askok bezala, jakinaren gainean feminista ez izan arren, bere jendaurreko egitateen bitartez emakumeen duintasunaren alde jokatu zuen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena feministatzat jo daiteke.

**1. irudia. Joxepa Antoniren irudia Ayaldek egina Antonio Zavalaren 1967ko *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak* liburuko moldiztegirako (Koldo Mitxelena liburutegia. A. Zavalaren ondarea).**



---

1. *Orotariko Euskal Hiztegia* [OEH aurrerantzean] ez dago hitz hori jasoa. *Feministaren* lehen idatzizko agerpena euskal testuetan 1962koa da; Villasanteren *Kristau fedearen sustraiak. I. Jainkoa* lanekoa. CORDEko lehen erreferentzia 1898koa da, Perez Galdosen *Mendizabal* kontakizunekoa.

Bertsolaria emakumezkoa izatea oraindik ere bada aski arrazoi ikergaitzat hartzeko. Besteak beste, XXI. mendeko ikuspegi hutsetik begiraturata —batik bat Maialen Lujanbioren 2009ko garaipenaren ondorioz—, arriskua egon baitaiteke pentsatzeko emakume bertsolarien sorrera, plazandreena, 1980ko hamarraldian hasi dela<sup>2</sup>, Kristina Mardarasen 1985eko Euskal Herriko Txapelketa Nagusiko parte-hartzearekin. Egungo loraldiaren aurretik, baina, emakume bertsolaririk izan dela aitortu eta gogoraraztea garrantzitsua da (Bertsozale elkarte, 1995; Larrañaga, 1995a, 1995b, 1999, 2000), eta, ahal delarik, emakume haien bertsoak (eta bizitza) ikertzea eta biziberritzea.

Y desde aquí ver cómo éste se representa y construye como una práctica masculina, donde las mujeres sólo parecen tener cabida como objetos ideados por los varones, o como meras transmisoras de las composiciones de ellos. Lo que por otro lado contradice y contrasta con los múltiples testimonios, que presentaremos a lo largo de estas páginas, que hablan de la habilidad bertsolarística de las mujeres, bien que ésta ha sido históricamente acallada e ignorada (Larrañaga, 1995: 409).

Emakumezko bertsolaria zenbat eta aspaldikoagoa izan («1801a baino lehenagoko denboretan “dena ilundura dela gure gaian” bertsolaritzaren historian» Lekuona, 1982: 95), orduan eta zailagoa da emakumezko bertsolarien eta haien lanen berri izatea. Askotan, gainera, zeharbidez besterik ezin da jakin emakumezko bertsolaririk izan zela. Esate baterako, Bilintxen bitartez besterik ez dakigu Hondarribiko Joxepa bizi izan zela (Larrañaga, 1996, 2000).

Hego eta Ipar Euskal Herrian emakume bertsolariak izan direla ere badakigu, eta aritu zirela bai (gizonen) plazan, bat-bateko jardunean (Abadia, 1896; Urkizu, 1997; Charriton, 1998), bai etxeko giroan (Lekuona, 1982), baina iritsi zaizkigun emakume bertsolari gehienek bertsoak ez dira bat-batean sortuak. Halaxe gertatzen da Joxepa Antoni Aranberri Petriarenaren bertsogintzaren zati ezagun handienarekin ere: Zavalak (1993) argitaratutako bertso gehienak bertso jarriak dira. Baina baditu bat-batean eginak ere, fabrikari, emakume langileen artean, sortuak, esate baterako (Zavala, 1993: 581).

Xenpelar Dokumentazio Zentroko datu-basean (BDB), Joxepa Antoni Aranberri Petriarena jaio zen 1800-1899 urte-bitartean, 19<sup>3</sup> emakumezko bertsolarien<sup>4</sup> (% 14) eta 116 gizaseme bertsolarien (% 86) izenak daude jasoak. Joxepa Antoni Aranberri Petriarena hemeretzi bertsolari horietako bat da.

2. Emakume bertsolarien genealogia batzen duen infografia 1990ean hasten da. Agirreazaldegia, Alberdi, Artetxe, Labaka, Amenabar, Arbeo (2018).

3. Ikerketek aurrera egin bezala, aberasten doa datu-basea: 2018ko ekainean, garai horretako 17 emakumezko izenak jasoak ziren, baina 2019ko otsailerako beste bi bertsolarienak berreskuratu dira. Horixe da ikerketaren premiaren erakusgarriarik egokiena. Lekuonaren 1982ko lanean bi emakumezko bertsolari besterik ez da aipatzen, Joxepa Antoni *Xenpelar* errenteriarra eta Martzelina Lopetegui oiartzuarra.

4. Hemendik aurrera, zehaztapenik ezean, bertsolari izena emakumezko bertsolariak izendatzeko erabiliko dugu.

### ***Hipotesia eta helburuak***

XIX.-XX. mendeen bitartean (1865-1943) bizi izan zen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena *Xenpelar* errenteriar bertsolaria pentsamenduz tradizionalista, kontserbadorea bada ere, XXI. mendeko talaiatik begiratuta, feminismoaren lagungarria da, emakumeen kolektibo estereotipatu (markatu) bati, neskazarrei, jendaurreko ahotsa eman ziolako, subjektu bihurtu zituelako.

Helburu nagusia lortzeko topiko itxurako uste (aurreiritzi) batzuk desegingo ditugu:

- XIX.-XX. mendeen bihurguneko bertsolariak baserritarrak dira.
- Bertsolariak ahozko kulturari bizi dira.
- Emakume bertsolariek etxean (besterik ez) dute kantatzen.

Aurreiritziok desegiteko, Joxepa Antoni Aranberriren biografian arakatuko dugu (Zavala, 1993; Perez Gaztelu, 2013, 2014), bizitzako mugari batzuek, hain zuzen ere, arestiko aurreiritziak husten dituzte eta.

Bestetik, berriz, *Xenpelar*ren langintzaren atal bat aztertuko dugu, *Xenpelar* bere «plazetan» kokatuta, zerk/nork bultzatu zuen bertsolaria jendaurreko plazara erakusteko. Ildo horretan, bereziki erreparatuko diogu neskazahararen topiko-estereotipoari, nahiz neskazaharren gaiak merezi duen lanketa orain albo batean utzi beharko dugun. *Xenpelar* neskazaharra neskazaharren ahotsa izanik (emakume bakoitza emakume guztien ordezkaria da), neskazaharrek besteek definitutako bertsogintzako objektu (bertsotarako gai) izatetik subjektu izatera dramatzatza eta bere bertsoen objektu eta subjektu bihurtzen ditu (autorrepresentazioa gauzatzen du) (Zavala, 2000).

Horrek guztiak eramango gaitu helburu nagusira hurbiltzera: *Xenpelar* bertsolari katoliko, karlista, gizarte tradizionalaren defendatzailea pentsamendu feministaren lagungarria da.

Ildo beretik, azpimarratu nahi genuke beste helburu bat ere baduela lan honek: emakume bertsolariei banaka bere lekua aitortzen, ezagutarazten laguntzea. Joxepa Antoni *Xenpelar* norbaiten adar izatetik —*Xenpelar* (osabaren) iloba besterik ez izatetik—bere lekuaren jabe, subjektu, izateko bidean jartzea.

## ***XENPELARREN TESTUINGURUA***

### ***Etxeko giroa, familia***

Joxepa Antoni Aranberri Petriarena 1865eko urtarrilaren 7an jaio zen, Errenterian, kaleko etxe batean. Gurasoak baserrian jaioak ziren. Ama, Maria Luisa Petriarena Berrondo Senperelarre edo *Xenpelar* baserrikoa (Errenteriakoa) zen eta

aita ere, Jabier Inazio Aranbarri<sup>5</sup> Elorza, baserrian jaioa zen, Azkoitiko Urrategiko Oiaun izenekoan, eta gero joan zen Erreteriarra lanera. Baina Joxepa Antoni<sup>6</sup> sortzez kalekumea zen.

Ia lau urte zituela galdu zuen ama Joxepa Antonik (1869ko abenduaren 19an)<sup>7</sup> eta izan zituen hiru senideak hilak zirela, aitarekin eta amaren aldeko amona Rita Berrondorekin bizi izan zen. 1882an hil zen amona, Joxepa Antonik 17 urte zituela. 1871n aita bigarren aldiz ezkondu zen Irungo Justa Gorostiola alargunarekin. Hortaz, 1910 urte arteko erroldak diotenez, 1871tik 1882ra arte teilatupe berean bizi izan ziren laurak, Erreteriarako Biteri kalean, eta, amona hil ondoren, hirurak 1911 arte, urte horretan hil baitziren aita eta amaordea. Joxepa Antonik 46 urte zituen<sup>8</sup>.

Ama ezagutzeko aukera handirik ez zuen izan, baina amaren aldeko jaidura batzuk beragan bizi izan zituen Joxepa Antonik. Irakurzaleak ziren biak. Amagatik honela dio Zavalak (1993: 32):

Egunez astirik ez, eta arratsean, oherakoan, jarduten omen zen, kinke bat piztuta. Batzuetan, ordea, lo hartzen zuen, eta bere ile kizkurrak erre egin omen zitzaizkion behin baino gehiagotan. Bestetan, berriz, senarrak argia itzali behar izaten zion.

Eta Joxepa Antonik ere, bere burua honela aurkezten du, 1941-1942 inguruko «Markolako patatak» izeneko bertsoan (Zavala, 1993: 587):

Nere denboran izandu diot  
afizioa kantari,  
inon bertsorik azaltzen bazen  
erosi (e)ta irakurri;  
umore ona lagun artean,  
hori gustatu zait niri.

---

5. Aranbarri eta Aranbarri jasotzen dira agiri ofizialetan (Perez Gaztelu, 2013).

6. Izen hori darabil berak *Ibaizabalen* argitaraturiko lanetan.

7. Txoil ezaguna da galeraren kontakizuna: Xenpelar anaia eta familia baztangak eri zirela beren etxera zaintzera joan eta bertan geratu ziren Maria Luisa bera, eta sabelean zeukan Daniela umetxoa (bertan jaio zena) betiko. Historia garrantz honek gero ere oihartzuna izan du: besteak beste, Andoni Egañak eta Xabier Lizaso pianistak *Bi arreba* izeneko ikuskizuna sortu zuten, Chopinen eta Xenpelarren arreben bizitzetan oinarrituta. Genero-ikuspegitik zer pentsatu ematen du izenburuko *arreba* horrek.

8. Zavala (1993: 551) ez bide dabil zuzen: «Aita mundu honetatik joan eta bakarrik gelditu zenean, Joxepa Antoni auzoko familiarekin hasi zen bizi izaten. Lehen ere etxeokak balira bezala ziren, baina harrezkeroztik haiekin erabat jarri zen». Biografia osatuagoa (Perez Gaztelu, 2013, 2014).

Aitak, berriz, ez zuen letretarako grinarik: 1861eko erroldaren arabera, amak irakurtzen bazekien, idazten ez, baina aitak ez zekien ez irakurtzen ez idazten, eta gerora ere ez dirudi ikasi zuenik<sup>9</sup>. Alabari erakusteko ahalegin handirik ere ez zuen egiten. Oso pasarte argigarrian jasotzen du Zavalak (1993: 549) gai honetan aita-alabek zuten elkarren arteko aldea. Aitaren jakinduria-iturri bakarra, antza, Testamentua zen:

Joxepa Antonik, herriko eskolara joaten hasi zenean, ikasteko gogo handia agertu omen zuen. Horretan ere, bere ama zenaren antz handia, beraz. Baina aitak ez zion eskola-libururik erosten. Alabak honela esaten omen zion:

—Maistrak erritan emango dit!

Eta aitaren erantzuna:

—Ez dio inporta! Ez dugu guk kastabelazko (sic) liburu beharrik! Pregunta behar dugu guk, *pregunta!* Hori ondo ikasi!

*Pregunta* dotrina zen.

Alabak negarrari ematen zion [...].

Pregunta ez ezik, bere gustuko beste liburu bat ere bazuen aitak: *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*. Askotan, bazkalondoan eta, honela esaten zion alabari:

—Hau letu, hau! Oso polita da eta!

Alabak:

—Lehen ere letu dut nik hori, aita! Memoriz ere badakit!

Bertsozaleak eta bertsolariak ziren ama-alabak. Ama Maria Luisa anaia Juan Frantzisko *Xenpelar* sonatuarekin aritzen omen zen bertsotan. Amaren faltan, pentsa daiteke amona Ritaren bitartez iritsiko zitzaizkiola Joxepa Antoniri osabaren, amaren (?), eta beste bertsolari batzuen bertsoak.

Joxepa Antoni kaletarra, letrazalea eta, ama eta osaba bezala, 12 urte zituenetik ia hil arte, fabrikako langilea izan zen. Hirurok fabrika berean egin zuten lan, Errenteriako Santa Klara kalean zegoen Fabrika Handia esaten zioten liho-fabrikari. Honatx hiru bertsolari fabrikako langile.

Bertsolariaren biografia soilak agerian uzten du topiko-aurreiritzi batzuen balio eskasia. Bertsolaritza batik bat nekazaritzarekin, baserri-munduarekin lotu izan bada ere (ik. Mitxelenaren kritika<sup>10</sup>), lotura horrek ez du balio, gutxienez industriagintzaren sorreraz geroztik. Joxepa Antoni Aranberri Petriarenaren familia horren adibide

9. 1871ko Jabier Aranberri eta Justa Gorostiolaren ezkontza-agirian, sinaduren lekuan, bi ezkongaien izenen pean paratzen du «a ruego de..., que no sabe firmar».

10. «Ahotik belarrira aritu diren bertsolariak datoz, beraz, lehendabizi, eta ahazkorrei gogorazai nahi nieke, Xenpelar (gero, beste hainbesteren artean, Zabaleta anaiak bezala) fabrika langilea zela, ez nekazaria» (Mitxelena, 1976: XXV).

garbi-garbia da: ama Maria Luisa (1833) eta osaba Juan Frantzisko (1835) baserrian sortu ziren, baina Erreneriako kalera joan ziren bizitzera eta fabrikan izan zuten ogibidea. Baieztapen horrek etxetik kanpoko testuingurura garamatza.

### ***ERRENERIA XIX.-XX. MENDEEN BIHURGUNEAN***

Joxepa Antoni Aranberri bizi izan zen giroan kokatzeko kontuan izan behar da XX. mendearen hasierako Erreneriak industriagintzaren eta modernizazioaren hasiera bizi zuela, tradizioaren eta liberaltasunaren arteko lehia, eta abertzaletasunaren hasiera (Zabaletak (2019) xeheki azaldua). Eta, ezinbestean aipatu beharra, eguneroko bizitzan itzal handia zuen Eliza katolikoaren eragina: Ilustrazioaren eta ideia liberalen beldur, gainera, XX. mendeko lehen herenean lehen baino ikuspegi hertsia goa zuen eta bekatuan eta predikazioan oinarritu zuen bere jarduna.

Historialariek erakutsi dutenez, Obietak lehenbizi (1996) eta Zabaletak geroago (2019), integrismoak eragin handia izan zuen XIX. mendearen bukaera aldean Gipuzkoako gizartean eta Errenerian bereziki. Fabrikak sortzen hasi ziren hanhemen, baina erabateko industrializazioa gertatu bitartean gizarte tradizionalaren bizimoduak, balioek, pentsamenduak bizirik iraun zuten. Erreneria hartzen du Obietak, hain zuzen, erakusgarri moduan:

El ejemplo de Rentería resulta sumamente esclarecedor a este respecto; hasta que inició su desarrollo industrial su voto era mayoritariamente integrista, y se trata de uno de los municipios en los que se contabiliza mayor número de seguidores integristas (Obieta, 1996: 350).

Integrismoa bi ardatzen inguruan garatu zen Gipuzkoan: Azpeitia-Azkoitia-Errezil-Baliarrainen, alde batetik eta Erreneria-Oiartzunen, bestetik. Asko baserritarrak ziren, eta artisau-lanak ere egiten zituzten, bi lanok elkarren osagarri. Azpeiti-Azkoitietako espartingileak aipatzen ditu Obietak (1996).

Hortxe sortu eta bizi izan zen Joxepa Antoni Aranberri Petriarena: esan bezala, aita azkoitiarra zuen, baserritarra, espartingilea zen eta erlijioak eta elizak betetzen zioten bizitza (Zavala, 1993: 551). Ama eta osaba —eta Joxepa Antoni bera— erlijiozaleak eta ehun-fabrikako (liho-fabrikako) langileak ziren, lehen esan bezala. Antza denez, gainera, Errenerian bereziki, integrismoaren aldeko zale gehienak «ehuleak» omen ziren, bai jabeak, bai langileak. Obietak ahotan hartzen duen Juan Olazabal, hain zuzen, liho-fabrikaren akziodunetako bat zen (Zabaleta, 2019:39):

Seguramente se trata de operarios de cualquiera de las industrias textiles ahí asentadas y cuyos accionistas eran destacados líderes del integrismo guipuzcoano, como Juan Olazábal, por ejemplo. Por ello, más que hablar del asentamiento de las ideas tradicionalistas en el campo, se trata de municipios económicamente importantes, aunque muy vinculados a actividades agropecuarias y con una activa vida artesanal, y que se están incorporando a otro ritmo y con otras características y especializaciones al proceso industrializador y modernizador guipuzcoano. Se trataría, pues de grupos

urbanos medios y/o bajos, ligados a unos modos de vida y de trabajo tradicionales, y con una cierta educación (Obieta, 1996: 350).

Joxepa Antoniren aita integrista zen ez dakigu (Obietaren integristen zerrendetan ez dago bere izena), baina familia osoa karlistatzen jotzen du Zavalak (1993: 548), Bigarren Karlistaldian (1872-1876) kokatzen duen pasarte honetan behintzat. Joxepa Antonik orduan 10 urte inguru zituen.

Soldaduek [liberalek] bazekiten nexka koxkor haren familia beretakoa ez zena, eta tentatzen

hasten zitzaizkion. Bai Joxepa Antonik agudo erantzun ere:

—Zuek denak infernura joango zarete, beltzak<sup>11</sup> zarete eta!

Baina haiek ez ziren haserretzen. Barre egin ondoren, propina ere ematen zioten, eta Joxepa Antoni pozik bueltatzen zen etxera bere xoxekin.

Etxekoek honela esaten zioten gero:

—Hau ume lotsagabea! Haiekin horrela ariko zara ba?

Baina Joxepa Antonik ez zuen amore ematen:

—Bai; gaiztoak dira denak! Infernura joango dira, beltzak dira eta!

Haren sententziaz, beraz, bizirik kondenatuak zeuden denak.

Eskuratu ahal izan dugun Joxepa Antoniren bertsogintzak erakusten du tradizionalista zela —Lehen Mundu Gerran Alemaniaren alde eta Ingalaterraren kontra bertso-sorta luzea egin zuen («Gerra europeari jarriak», 1917)—, eta erlijioa (Ama Birjina batik bat) bere bizitzaren muinean zeukala. Erakusgarri askoren artean aipa daiteke Zavalaren Joxepa Antoniren gaineko berri-emaile Monika Galarragarena (Zavala, 1993: 577). *Propagación de la fe* zelakoari (Pio XI.a Aita Santuaren agintaldiko) jornal murriz hartatik astero-astero diru kopuru bat ematen zioten ume paganoak «erosteko», eta Joxepa Antonik bertsoa egin ere bai («Errenterian uztaren lauko prozesioari» (1926an), Zavala, 1993:576):

Misiolari bat etorri baitzen, eta esan zuen, alegia, nonbait ere haurrak, neskak, debalde izaten zituztela; nolana bi bilatzen zituztela. Baina mutikoak erosteko bost erreal behar izaten zirela; hamar errealekin bi mutiko erosten zirela bataiorako. Jesus! Nik hori aditu nuenean, arrunt lehenaz gainera berotu nintzen, eta Joxepa Antoni Xenpelarrekin batean egin ginen sartu horretan. Hura beharbada lehenagotik sartua izango zen.

Ildo berean, adierazgarria da R. M. Azkuek eta E. Bustintzak (BLOA, *Kirikiño*) zuzentzen zuten *Ibaizabal* aldizkarian argitaratu zituen bertso ia guztiak (neskazarren gaineko sonatuak ez beste guztiak) eta Zavalak jasotako asko ere («Bi sermolari», «Mariaren alaba»...) gai erlijiosoen gainekoak direla.

---

11. Liberalak, alegia.



## 2. irudia. Joxepa Antoni eta jostundegiko neskak (Antonio Zavalaren 1993ko *Xenpelar eta bere ingurua* liburutik hartua).



Euskara ere oso garrantzitsua zen XX. mende hasierako Errenterian. *Ibaizabal* astekariaren editorialgile BLOA horren aitorea da:

Ibaizabal-ek Errenterian adina irakurle daukan uririk ez dago ez Bizkaian ez Gipuzkoan, Bilbo alde batera kenduz gero; ehun eta berrogeita hamarretik ehun eta hirurogeira lagunek hartzen dabe Errenterian euskarazko albistaria, euskarazkoa delako [...] Ibaizabal-ek Aitorren hizkera agertzen den albistari bakarrak bere barren-barreneko agur bat bidaltzen dizue oihera eginaz: Gora Errenteria! Bizi bedi uri euskaratsua! (BLOA, 1903).

Elizetxeak (1902c) eta Zabaletak (2019) ere islatzen dute XX. mendearen hasieran euskarak zuen lekua Errenteriako bizitza publikoan. Udal-bandoak gaztelaniaz eta euskaraz egiteko erabakia hartu zuen udalak, errepublikanoen egoitzan bazkideen artean kalapita izan zen, batzuek eta besteek euskarari zioten atxikimendua zela medio. Eliz giroan ere izan zen istilurik sermoien hizkuntza zela eta. Nolabait esan, errenteriar euskaldun multzo handi batek, ideologia politiko desberdinetakoek, nahi zuten eta eskatzen zuten jendaurreko komunikazio-egoera formaletan ere euskara erabiltzeko.



Eta Joxepa Antonirentzat ere hala zen. Horren berea zuen sentimendu erlijiosoa euskaraz adierazita besterik ez zuen ulertzen. Hona *Ibaizabalen* argitaratutako «Ama Birgiñari» bertsoko bi ahapaldi (1902f) eta «Kastigu tristia»-ko bat (1902e).

8/ Beste gauza bat esan behar dut	9/ Ikusten duzu, Ama maitea,	8/ Zu gure alde izan zaitezen
asko gustatu zaiguna,	zenbat peligrotan gauden,	guk arrazoi bat daukagu:
alde denetan jakin dezaten	etsai gogorrez ingurutuak	gure hizkuntzan maldizio hau
euskara maite dugula;	euskara ta fedearen;	ez da oraindik azaldu.
euskaraz izan dira sermoiak	Judit fuertea zu izan zaiten	Kastillanoan hitz gaizto hori,
ta bederaziurrena,	beti gure herriaren,	ai!, al baliteke galdu,
pozturik utzi dizkigutenak	«errukiz begiratu zaiguzu,	arrozoiakin Ibaizabal-ek
«bizitza, bihotz eta arima».	galtzera ez utzi, arren».	nahi du euskara zabaldu.

Horrek erakusten du gizonek betetzen zuten urrutiko aldizkari bateko jendaurreko «letren plazara» egin zuela jauzi Joxepa Antonik erlijioaren —eta emakumeen— gaineko bertsoak argitaratzeko.

## **XENPELAR PLAZANDREA, NESKAZAHAR(OBJEKTU)EN SUBJEKTUA**

### ***Emakume bertsolarien plaza. Xenpelar plazandreamen plazak***

Sarreran adierazi bezala, bertsolaritzaren historiagile eta aztertzaielak (Lekuona, 1982) aipatzen dute izan zirela aspaldi euskal emakumezko eresigile, bertsolari, koplagileak, beste kultura batzuetan izan diren bezala. Emakume sortzaileak izan bide dute, etxeko «plazaz» gain, beste era bateko jendaurreko esparru, komunikazio-barrutirik beren sorlan bat-batekoa erakusteko. Kaleko plazan, desafioan, aritu ziren XIX. mendearen bukaera aldean Maria Argain (alfabetatu gabea) eta Aña Etxegarai/Ane Etxegoien (eskoladuna), Abadia andreak jasotakoaren arabera (Abadia, 1896, 1909). Etxegarairi (1873-1939) bertso-grina espartin-fabrikan piztu omen zitzaion<sup>12</sup>. Bertso jarriak ere egin zituzten, beste emakume bertsolari batzuek egin bezala (Zavalaren *Auspoa* bilduma eta DBD begiratu besterik ez dago horretaz ohartzeko). Emakume bertsolarien plazek hemen eskaini diezaiekegun baino azterketa sakonagoa merezi dutelakoan (analfabetismoaren eragina ere kontuan hartu beharko litzateke) aipu hutsean utziko dugu gaia.

12. «Anna Etchegoyen, est une jeune fille d'une figure agréable et distinguée; elle a débuté par être sandalière comme Marie Argain. Tout en façonnant les semelles de chanvre des sandales, en compagnie des ouvriers et des ouvrières de son atelier, elle s'exerçait à composer des vers. Peu à peu, elle a pris le goût et l'habitude de traiter sur le champ tout sujet qu'on lui propose» (Abadia, 1909: 64).

Joxepa Antoni *Xenpelar* ez zen plaza bakarrean aritu. Bertso jarrien bitartez, jendaurreko idatziaren plazan aritu zen, baina bat-bateko saioak ere egin zituen, bai bizikide zituen emakumeen jostundegian, bai fabriketan, lehen esan bezala. Alegia, *Xenpelar* plazandreak ez zuen plaza bakarra izan.

### *Neskazarren kalapita Bilboko Ibaizabal astekari euskaldunean*

#### *Elizetxearen eta Joxepa Antoniren arteko borroka dialektikoa*

Neskazarren estereotipoaren gaiak, bistan da, euskal bertsogintzaren<sup>13</sup> eta euskal literaturaren mugak gainditzen ditu. Makina baten artean, aipagarria da Alvarezen Katalina Elizegiri eskainitako doktore-tesia (2011), non T. Altzagaren *Neskazarra* (1932) antzerkia aztertzen duen eta Jane Austenen (XVII.-XIX. mendeetako) nobeletako pertsonaiak ere ahotan hartzen dituen.

Alvarezek (2011: 214) XX. mendearen lehen hereneko «ezkontzen krisia» aipatzen du eta zein ondorio izan zituen batik bat klase ertaineko emakume askoren bizitzan, «senarrik aurkitzen ez bazuten, edo senideren baten kontura bizitzera kondenatzen zituen egoera honek, edo lan bila hastera». Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, neskazaharra, ordea, langile-familia bateko alaba zen, eta 12 urterekin fabriketan lanean hasi behar izan zuen.

OEHren arabera, *neskazahar* hitza, idatzita, batik bat XVIII. mendetik aurrera erabiltzen da<sup>14</sup>, gipuzkerazko eta bizkaierazko testuetan, eta XX. mendean azkartzen da hitzaren izkribuzko erabilera<sup>15</sup>. XX. mendearen hasieran, 1902an, antolatu zituen, hain zuzen, *Ibaizabal* astekariak bere irakurleentzako bertso-lehiaketa arin, umorezkoak.

5. Ez etorri, mutilak, negarrez edo serio; bertso alai edo alegreak egin eizuez. Barre egin daigun, negar geuk gura ez dogula egin behar izaten dogu, gura dogun baino sarriago-ta (Zavala, 1993: 557).

Bi urte eskas (1902-1904) iraun zuen astekariak lortu zuen era askotako irakurleak erakartzea, besteak beste, bertso-paperak irakurri (eta entzutera) ohituta zeuden irakurleak (Kintana, 2008: 400).

«Neskazaharrak» izan zen proposatutako gaietako bat<sup>16</sup>. Lehiaketak ez bide zuen aparteko zalapartarik sortuko eta, agian, gaurko mintzagaia ere ez genuen

13. Besteak beste, Eusebio Mugertza Azpiazu (1874-1955) *Mendaroko txirristakaren* «Dama-galaiak, senar-emazteak, neskazahar-mutilzaharrak», in Zavala, A. (ed.) (1974): *Mendaroko txirristaka*, Auspoa liburutegia, 120-121-122.

14. *Mutxurdi* sinonimoaren lekuko idatziak zaharragoak dira.

15. Euskal klasikoaren corpusean emaitza hau eskuratzen da *neskazahar* galdetuta: «Emaitza: 36 agerraldi / 12 liburu / 5 egile». XIX. mendeko adibide bat eta gainerako 35ak XX. mendekoak. Guztiak gipuzkerazko testuetakoak, eta guztiak antzerki-lanetakoak. Egile hauen lanetakoak: Abelino Barriola (15 aldiz), Toribio Altzaga (14), Xabier Lizardi (4), Kaietano Santxez Irure (2) eta Pepe Artola (1). Adibideetako asko testuinguru «barregarrietakoak» dira.

16. Aukera horrek ere orain eta hemen egingo ez dugun bere azterketa berezia beharko luke.

izango, baldin eta Joxepa Antonik (eta Dominikak) eta berebiziko garrantzia duen «kajista batek» esku hartu izan ez bazuten. Larrañagak (1995a, 1995b, 1999) batik bat Elizetxearen eta Aranberriren arteko norgehiagokari erreparatzen dio. Horretan hasi zen lehia, egia, baina kajistaren parte-hartzea (Zavalak (1993) jaso) erabakigarria izan zen Joxepa Antoni plazara bultzatzeko, edo plazan jarraitzeko.

1902ko apirilaren 6an, 14. alean, argitaratu zuten 2. saria irabazi zuen bertsoa *Biarguin bat* bermeotar batek egina. Hurrengo astekoan, 15. alean, lehen saria irabazi zuen *Ibaizabalen* Errenteriako berri-emailea zen Enrike Elizetxearenak. Epailiek saritu zituzten bertsook neskazarren estereotipoaren euskarriaren adibide garbiak dira. Hona Elizetxeak 18 bertsoetan jaurtiriko ezaugarrietako batzuk (nola eraikitzen den «bestea» Zavala, 2000): itsusiak eta zaharrak; senargaiaren faltan beti elizan sartuta daude; bizimodu tristea dute; denak berdinak dira; barrengo ernegazioak ez die lasai bizitzen uzten, eta ezkonduz gero, gajoa senarra, etxean beti gerra topatuko du; beti marmarrean daude, umore txarrean; kalean uso, etxean okasio bila; ez die kalean inork kasu egiten; nahiago izan dute gurasoen bazterrean bizi izan; asteen hiruzpalau aldiz konfesatzera joaten dira, baina mihia dantzatzeko; mihiluzeak dira; neska gazteak moja bidali nahi dituzte, baina hobe zuketen berak joango balira, eta abar.

Bertso irabazle ondoan, «Azaldea» izeneko beste bertso luze bat erantsi zuen Elizetxeak, bere belarrietara emakumeon kexa iritsi zitzaioela eta, Joxepa Antoniri, neskazarrei, barkamena eskatzeko. Elizetxeak dio ez zituela bertsoak egin neskazarren «lotsatuzengatikan», *Ibaizabalen* sari txiki bat «irabazteagatikan» baizik. Ale horretan emakumeen ahotsik ez dago, neskazarren objektua besterik ez dira.

Maiatzaren 11ko 19. alean Elizetxeak «Neskazarrari» izeneko artikulua argitaratzen du. Bertan kontatzen du damututa eta beldurrak dagoela, neskazarrek nondik erasoko, eta postontzian «karta bat» topatu duela, barrenean 10 bertso dituela, «letra polit batekin izkribatuak», Joxepa Antonik eta Dominikak sinatuak.

Honela jasotzen eta jendaurrean plazaratzen da lehen aldiz Joxepa Antoniren ahotsa, Elizetxearen azalpenetan tartekatuta baitaude Joxepa Antoniren bertsoak. Horren bitartez, rol-aldaketa gertatzen da jendaurreko plazan: neskazarra bertso-gai hutsa izatetik bertsoaren egilea, subjektua izatera iristen da. Hobeto esan, gaia eta egilea da aldi berean Joxepa Antoni; bere buruaz, eta, honenbestez, neskazar guztiez ari da bere ahotsaren bitartez (Zavala, 2000).

Joxepa Antonik eztabaidan parte hartzea justifikatzen du esanez lagunak, neskazarrek bultzatuta egin duela, eta «edadetxoko» bere lagunak «anparatzeagatik» (37 urte zituen Joxepa Antonik) eta gustua emateagatik «buelatu» diola ordaina Elizetxeari. Horrenbestez, Joxepa Antonik ederki daki neskazar guztien ahoa dela. Kajistak ere horrelaxe aitortuko du geroago: «Abogada bezala Errenteria aldeko neska... horiek kontsola ditzazun».

Joxepa Antoni subjektu enuntziatzaileak (Zavala, 2000) neskazarren estereotipoko ezaugarriak auzitan jartzen ditu. Elizetxearen jokamoldea itsusten du, sari txiki batengatik «gogora etorri zaion guztia esan duelako». Gainera, neskazarren funtzio soziala nolabait esan, babesten du Xenpelarrek: Errenteriako neskazarrek Elizetxearen alde ere erreztatu izan dute.

Elizetxeak erlijioa hizpidean hartzeari ere Joxepa Antoni elizkoiak ezin dio muzin egin. Hona, ezker-eskuin Elizetxea errepublikar-liberalarena eta Aranberri erlijiozalearena:

8/ Beti elizan eta errietan da beren ofizioa, horientzako eginak dira meza eta prozesioa, bederatziturren, errosario, sermoi eta konfesioa, ta elizatik atera orduko ere murmurazioa. (Elizetxea, 1902b)	9/Ez zait gustatzen erlijioa gauzak ahotan ibiltzea errespetoko gauza guztiak serio tratatutzea harriturikan gelditu gara zu horrela mintzatzea esperantza dut hoinbesterekin Enrike, konprenditzea. (Aranberri, 1902a)
--	---

Gainera, beste baliabide erretoriko bat ere darabil Joxepa Antonik, Elizetxea gertu-gertutik ezagutzen du eta. Elizetxeatarrek etxeko duten Bizenta<sup>17</sup> neskazarra bihurtzen du neskazarren ordezkari:

4/Gu ernegatzen bizi gabela  
senargairikanen ez da,  
nire laguneren artean behintzat  
horrelakorikan ez da  
niri sinesten ez badidazu  
etxean hasi galdezka  
nik baino hobeto emango dizu  
Bizentak erresposta.

---

17. Bizenta Alzelaibide da, fabrika handiko Joxepa Antoniren lankide eta laguna eta elizetxeatarren ostatuan urte luzetan lanean aritu zena; ia-ia etxekoa. (Alzelairen berria Imazen (2007) lanetik hartua). RILEk ere «Enikeri» bertsoetan etxeko neskazaharrak aipatzen ditu: «Nire adiskide Enrikek horiek / hor esan dituenan / segur egiak izango dira, / ez daukazki bi etxean?».

Jaso berri dugun bertso horrek bestelako informaziorik ere ematen du, XXI. mendeko talaiatik begiratuta, azpimarragarria: Joxepa Antonik aldarrikatzen du senargairik ez izateagatik ez direla neskazaharrak ernegatzen bizi. Elizetxeak azken bertsoan ere esan du neskazaharren azken bidea eskean ibiltzea dela (ezkonduta etorkizuna segurtatua edukiko dutela iradoki nahian edo) eta Joxepa Antonik erantzuten dio ez dela segurua ezkonduta ere eskean ibili beharko ez dutenik («ezta seguru ezkonduak ere / bide hortara ez juatea»). Elizetxearen barkamen eskearekin bukatzen da Enrike Elizetxea liberalaren eta Joxepa Antoni Aranberri tradizionalistaren arteko gorabehera publikoa.

Baina, esan bezala, beste pertsona batek ere parte hartu nahi izan zuen eztabaidan: orain arte xehe aztertu ez den aldizkariko «kajista batek». Merezi du pixka batean itzalpean dagoen langile horri erreparatzea.

### ***Joxepa Antoniren eta «kajista» delakoaren artekoa***

Azkuek kezka handia zuen euskal lanak hutsik gabe kalera zitezen, eskarmentu txarra izana baitzuen (Díaz Noci, 1995: 93). Pentsatzekoa da euskal kajista adituak izango zituztela *Ibaizabal* inprimatzen zuten Bilboko La Editorial Vizcaína delakoan. Astekaria gipuzkeraz eta bizkaieraz argitaratzen zen, baina neskazaharren gaian esku hartu zuen (eskua «sartu» zuen?) kajistak gipuzkeraz idatzi zuen. Pentsatzekoa da, hortaz, giputza zela, edo, hala izan ez bazen, Gipuzkoako hizkera batzuk behintzat ongi menderatzen zituela (besteak beste, gero aztergai izango dugun *ambiente* hitza erabiltzea).

19. aleko eztabaidan hiru aldiz tartekatzen ditu kajistak bere oin-oharrak. Bitan Elizetxearen testuan eta behin Joxepa Antoniren bertsoan. Elizetxeak dioenean penatuta dagoela neskazaharren estimua galdu duelako, kajistak honela erantzuten dio: «Eztezu<sup>18</sup>, jauna, gauz aundirik galdu». Eta Elizetxeak Jainkoari eskatzen dionean neskazaharrei senargai on bana emateko edo aberastasunak edo... Kajistak bigarren oin-oharrean hauxe eransten dio: «Urteak bizkarretik kentzeko *balsamo* bat».

Joxepa Antoniren bertsoan, berriz, bertsolariak galdetzean neskazahar onik ez dela esan duen Elizetxearen «amigo» horrek zein proba duen hori esateko, «gure moduko persona ez da, / esango nuke bestela», kajistak hauxe erantzuten du: «Nik esango det bada. Marka oiekin ez liteke izan apaizen bat besterik. Zuek nai dezutena esango dezute zeren buruak edertzeagatik... bañan ni apaizaren alde ontan; eta ez aserretu orrengatik».

Kajistaren oharrok bultzatu zuten, hain zuzen, Joxepa Antoni handik bi astera, 21. alean, berriz ere bertsoak argitaratzera: «Kajista bateri» erantzun zion, bertso bidez. Kajistak erabili zuen baltsamoaren metaforaz baliatzen da Joxepa Antoni eta

18. Kajistaren testuetan ez dugu ortografia euskara batuan emango, euskalkiaren aztarnak ez ezkutatzeko.

agintzen dio kajistari eros dezala Bilbo aldean kajatxoa kajista bera baltsamatzeko... Hurrengo alean, ekainaren lehenean, kajistak berriz ere hitza hartzen du «Errenteriko Josepa Antoniri» hitz lauz erantzuteko. Eta, berriz ere, baltsamoa hartzen du ahotan kajistak. Baltsamoaren metafora, azken batean, neskazarren ezin sendatuzko zahartasuna irudikatzen du; neskazarrentzat erremediorik ez dagoela, adinean aurrera eginak dira eta gaztetzea ezinezkoa dutela, eta, hortaz, ezkontzeko aukerarik ere ez dutela izango. Horregatik aipatzen du kajistak bukaeran Santa Rita Kasiakoa, ezinezkoen abokatua delako. Joxepa Antonik bi bertsoetan ematen dio erantzuna «Kajistari», Santa Rita aipatuaz: «Gure herrian beneratzen da txit imajina polita, / orain bi urte deklaratu / Kasiako Santa Rita». Izan ere, Leon XIII. ak 1900ean kanonizatu zuen Santa Rita.

Beste norbaitek ere hartu zuen esku eztabaidan. Arestian aipatutako 21. alean RIL. izeneko norbaitek, gure ustez, Ramon Illarramendi<sup>19</sup> errenteriar idazle eta Elizetxearen lagun eta alderdikideak (Zabaleta, 2019) «Enrikeri» izeneko bertsoak argitaratu zituen, lagunari kontuz ibiltzeko eskatzeko (neskazarren haserreaz diu eta). Esaten du, era berean, *Ibaizabal* erruz saltzen ari dela Errenterian, neskazarren erosleen buru direla<sup>20</sup>.

Horren ondoan aitortu behar da 21. alean bertan Joxepa Antoniren beste bertso-sorta bat ere argitaratu dagoela, «Tota pulchra...» izeneko, eta astekari berean argitaratu zituela gerora ere kanpoko akuilurik gabeko bertso gehiago (47. alean «Kastigu tristia» eta 50.lean «Ama Birgiñari»).

Ez dakigu neskazarren jendaurreko ahots bihurtzeko premia izan ote zen beste gai batzuen gaineko lanak (erlijio-gaikoak) ere plazaratzeko akuilua. Ezin jakin dezakegu Elizetxearen eta kajistaren astinaldirik gabe Joxepa Antonik letren plazan argitaratzeko bidea egingo ote zuen, baina kontua da 1902ko maiatzean, azaroan eta abenduan, Joxepa Antoni *Xenpelar* plazandreak bertsoak plazaratu zituela apaiz batek eta beste gizaseme batek zuzentzen zuten Bilbon argitaratzen zen *Ibaizabal* astekari euskaldun hutsean.

---

19. Ramon Illarramendiren berri (Mixelena, 1960). «Enrike Elizetxea, Erramun Illarramendi eta Juan Inazio Uranga. Liberalak, nolazpait esan, gehienez errepublika zale —gero, ustekabeen, horrenbeste errenteriar bezala— agertu zirenak [...] Elizetxeak du agian, idazle bezala, entzuterik handiena. Illarramendi, gizon eta industrialari zen aldetik, nor izan zen zaharragoek badakigu, eta gazteagoek behar lukete jakin. Lotsagarria da, izan ere, XVII. mendean Salamancan titulua atera zuen edozein paperjalari aitortzen zaiona oraindik oraingo gizon gailen bati ukatzea. Horrez gainera eta oso oker ez banabil, Illarramendiren teatro lanek —umetan ikusia dut bat edo beste, gero irakurriak gainerakoak— merezi lukete diren baino ezagunago izatea [...] ikasiak ziren, hizkuntza landua zerabiltenak» (Mixelena, 1976: XXV).

20. «Alguna que otra vez me repitió mi padre que, durante la polémica, el *Ibaizabal* se vendía en el pueblo como si fuera el honor. Hasta se peleaban con el que lo vendía», aitortu zion Zavalari Elizetxearen seme Manuelek (Zavala, 1993: 568).

### ***Eta, nor zen «kajista»?***

Bereziki begiratu nahi genioke kajistaren parte-hartzeari, Joxepa Antoniren akuilatzailea eta, honenbestez, neskazaharren ahots-igogailu gertatu zenez gero.

Lehenik eta behin, harrigarria gertatzen da moldiztegi (edo, *Ibaizabalen* modura esanez, moldagintza) bateko langile batek bere buruari halako askatasuna ematea inoren testuan oharra egin, eta, batez ere, idazle-irakurleen arteko auzi batean alderdi hartzeko. Harrigarria da, era berean, idazleari idatziz erantzutea. Harrigarria, halaber, kajista batek hainbesteko jakintza lexikografikoa izatea...

Ez dugu artean inon ikusi zehaztuta nor izan daitekeen kajista sudur (eta esku) luze hori. *Ibaizabalen* agintea edo zuzendarien onespina zuen edo biltzen zuen norbaitek behar zuen izan. Azkuek Broussaini 1902ko irailean egindako gutunean (Charriton, 1986: 69) esaten dio «Gu (Juan Carlos [Gortazar] da beste lau) martitzen guztietan batuko gara aurrerantzean Ibaizabal-i ugatza emoteko». Ez dakigu besteak nor ziren, baina Gortazar eta Bustintza zuzendaria izatea zaila da: zuzendariak (BLOA izengoitiaren nahiz besteren baten atzean) *Ibaizabalen* idazten duenean bizkaieraz egiten du. R. M. Azkue lekeitiarra, euskara baturako gipuzkera osotua proposatu zuena, edo oso gertuko zuen norbait zen, hortaz, kajista? Ezin dugu erabat ziurtatu, baina erabat baztertu ere ez.

Konpara ditzagun kajistak darabilen *albiente* hitzaren gainean dioena eta OEHk ematen duena.

Kajistak argibide metalinguistikook alboratzen dizkio *albiente* hitzari, horretarako premiarik batere izan gabe:

Urtero joten du nere echeko atea, Bilbo ontan bizi naizen-ekzero beintzat, albienteak (Gabiri, Oikina, Arrona aldean albienteari amabia esaten diote; Donostian, berriz, *aguazilla*. Nere koiñatak ere, donostiarra izan ez arren, aguazilla esaten du).

Areago. Azkuez ari dela, honela dio Mitxelenak (1960: 145):

No podía ocultar largo tiempo su afán preceptista y tampoco conseguía siempre refrenar el deseo incontenible de volcar a cada momento las riquezas del léxico vasco que tan bien conocía.

Eta hona OEHren informazioa. Osorik jasoko dugu, arestiko informazioarekiko zubia egiteko balio du eta:

◆3. (Ae), *almiente* (G-nav), *albiente* (G, AN). Ref.: A (*albiente*); A *Apend* (*almiente*); A *Aezk* 289; Ond *Bac* (*almiente*). Alguacil; antiguamente, alcalde de un Almiradío. «Erderazko *alguacil* esateko berba asko daukaguz: *amabia* ta *merinoa* (Gipuzkoako Goierriin), *amar-gizona* (Aramaio-aldean), *amarren-gizona* (Oñatin bertan), *albientea* (Naparroan), *prostua* (Zarauzen), *txinela* (Bilbon)» A *Ezale* 1897, 62a. Cf. *Voc Nav*: «*Almirante*. Alcalde de un Almiradío (Navascués). Nombre que dan al alguacil en los pueblos de la Barranca y en Oroz-Betelu». Cf. *MEIG* I 227: «*Almirante*

nabarmenegia iruditzen zitzaiolako edo, zertxobait itxuraldaturik hartu zuen Azkuek: *albiente*, Gipuzkoa-Nafarroetako zenbait herritan jaso, eta eraskinetan Etxarri-Aranazko *almiente*. Halaz ere, aitortzen du bere *Aezkera-n almirante* dela hango hitza». v. *Egan* 1962, 299-300.

Alegia, hitzaren lehen lekuko idatziak Azkueren lanak dira eta Mitxelenaren oharra (MEIG) agerian jartzen du Azkueren isuri garbizalea, hain zuzen, kajistak ere bizi duena.

«Bizargintza edo *barbería* ote da denda hura» dio kajistak (1902. urtean). *Bizargintza* hitzak, adiera horretan, OEHren arabera, berriz ere Azkueren hiztegian (1905-1906) edo Azkueren lanen batean du lehen lekuko idatzia.

Eta kajistak oin-oharrean esana ere tesi honen indargarria izan daiteke, «... baina ni apaizaren alde honetan», egia bada. Azkue apaiza zen, jakina denez. Eta, Mitxelenaren iritziz behintzat, baita lan zientifikoetan ere umoreaz baliatu zalea:

Como su precursor, el padre Larramendi —cuya obra porcierto no admiraba demasiado—, tenía un humor amable y juguetón que le llevaba a menudo a llenar de chascarrillos las páginas más serias de sus obras (Mitxelena, 1960: 145).

Azkue bazen «kajista»ren rola jokatu zuena, beste maila bat hartuko zuen eztabaidak. R. M. Azkue apaiz jakintsu «jostalaria» ere zenaren irudia osatzeko beste informazio-iturri bat litzateke Joxepa Antoni bertsolari, neskazarren (eta emakumeen) bozgorailuarekin izandako liskarra, eta aldi berean, Joxepa Antoniren balioaren indargarri litzateke, gisa horretako lehiakideari aurre egiteko gauza izan zelako.

## ONDORIOAK

Feminista zen Joxepa Antoni Aranberri tradizionalista? Feminista izatea zer den, nola ulertzen den. Ez dakigu, esate baterako, feminismoaren oinarri-oinarrian dagoen gizon-emakumeen berdintasunaren aldekoa zen (seguruenik ez zen hala izango), ezta, konparaziorako, emakumeen botoa ematearen eskubidearen aldekoa ote zen. Baina hori aski arrazoi da Joxepa Antoni Aranberri feministatzat ez jotzeko?

1865-1943 urte-bitartean Errenterian bizi izan zen langile familia xume eta tradizional bateko emakume neskazar batek publikoki, jende aurrean, estereotipo baten geruza desagitera eta estaltzen zuen emakume «kategoria» baten —eta, hortaz, emakumeen— aldeko argudioak ematera ausartzea ez zen gutxi izango. Jakin bazekien ez zela ari bakarrik bere buruaz; beharbada, hala bazen ez zen jendaurreko letren plazara aterako: neskazarren estereotipoari (Elizetxearen bertsoek eta kajistaren testuek ispilatu-eraikinari) kontra egiteko altxa zuen ahotsa. Neskazarren duintasuna eta funtzio soziala aldarrikatu zuen eta horri eutsi zion, baita ezagutzen ez zuen Bilboko aldizkari sonatu bateko norbaiti aurre egiteko ere.



Joxepa Antoniren eskumenetik kanpo zeuden alderdi biografikoek —etxeoak eta etxetik kanpokoak— erakusten dute zenbait topikoren balio-gabezia: Joxepa Antoni Aranberri Petriarena bertsolaria kaletarra zen, fabrikako langilea, karlista, eta erlijiozale goitik beherakoa; guztia batean. Irudi poliedriko horrek erakusten du ez dagoela eraikitako koherentzia eta artesiturik gabeko irudiei eusterik.

Bestetik, berriz, Joxepa Antonik neskazahar izatearen harrotasuna defenditzea ez dago zertan ordenaren kontrako aldarritzat hartu; ezarritako ordenari eusteko beste modu bat izan daiteke, neskazaharren kategoria birdefinitzeko, eta, aldi berean, neskazaharren estereotipoa pitzatzeko modua.

Ohartuki ez egin arren, feminismoa zer zen jakin gabe ere (eta, beharbada, jakin izan bazuen ere), ez zitzaion guztiz egokia irudituko, baina adinkide zuen (1862-1937) Edith Barton estatubatuar idazlea bezala —kontserbadorea, sufragisten eta feministen kontra mintzatu zena, baina emakumeen eskubideen aldeko borrokari horrenbeste lagundu ziona—, aldeak alde, Joxepa Antoni *Xenpelar* emakume bertsolaria emakumeen eta feminismoaren laguntzailea gertatu dela erakutsi uste dugu.

Eta, hondarrean, garrantzitsuena da BDBko datuek erakusten duten joera. Egun 529 (% 21) emakumezkoren eta 1.991 (% 79) gizasmeren izenak daude jasoak, orotara. Lehen jaso bezala, 1800-1899 urte-bitartean, 19 emakumezko (% 14) eta 116 gizasmerenak (% 86). 1900dik honantz, 227 emakumezkoren (% 21) eta 810 gizonezkoren (% 78) izenak. Baina 1980tik honantz sumatzen da aldaketa gaitza: 150 emakume (% 33) eta 298 gizonezkoren (% 64) izen.

Oraindik ere zeregina badagoela ukatu gabe, itxaropenerako bidea zabaltzen dute datuok. Joerari eusteko guztion bultzada ezinbestekoa da, izan bertsolari, bertso-jartzaile, entzule, nahiz izan ikertzaile. Lan hau, bere txikian, lagungarria gertatuko ahal da!

## **BIBLIOGRAFIA**

Abadia d'Arrast, Mme Charles (Etxauzeko anderea) (1896): «La femme dans le Pays Basque», *La femme*, 2, 11-14 [1909, *Causeries sur le pays basque : la femme et l'enfant*, F.-R. de Rudeval, Paris. [ark:/12148/bpt6k8630871q.] (Kontsulta: 2019-02-14).

Alvarez, Amaia (2011): *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan*, doktore-tesia, EHU/UPV. [http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Amaia\_Alvarez\_TESIA.pdf] (Kontsulta: 2019-02-07).

Aranberri, Joxepa Antoni, Dominika (1902a): «Neskazarrari», *Ibaizabal*, 19, 1-2.

———, (1902b): «Tota pulchra», *Ibaizabal*, 21, 1.

———, (1902c): «Kajista bateri», *Ibaizabal*, 21, 3.

- , (1902d): «Kajistari», *Ibaizabal*, 24, 2.
- , (1902e): «Kastigu tristia», *Ibaizabal*, 47, 3.
- , (1902f): «Ama Birgiñari», *Ibaizabal*, 50, 1.
- Bertsozale elkarte (1995): «Emakumeak plazara», *Bertsolari*, 17. [<http://www.bertsolari.eu/aldizkariak/emakumeak-plazara/>] (Kontsulta: 2019-02-07).
- BLOA. Ik. Bustintza
- Bustintza, Ebaristo (1903): «Erretereria», *Ibaizabal*, 60, 1.
- Charritton, Piarres (par.) (1986): Resurrección Maria de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa, (1897-1920), *Iker* 4, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1998): «Jean Baptiste Larralde, miriku bertsolaria (1804-1870)», in *Antoine d'Abbadie 1897-1997. Congrès International (Hendaye, 1997)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia; Euskaltzaindia, Bilbo, 553-560.
- Díaz Noci, Javier (1995): «Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)», *Cuadernos de sección. Medios de Comunicación*, 5, Eusko Ikaskuntza, Donostia. [<http://www.eusko-ikaskuntza.eu/PDFAnlt/mediatika/05/05017298.pdf>.] (Kontsulta: 2019-02-07).
- Elizetxea, Enrike (1902a): «Neskazarrak», *Ibaizabal*, 15, 2-3.
- , (1902b): «Neskazarrari», *Ibaizabal*, 19, 1-2.
- , (1902c): «Erreteritik», *Ibaizabal*, 32, 3.
- Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal Hiztegia*. [https://www.euskaltzaindia.eu/index.php?option=com\\_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eu/index.php?option=com_oeh&view=frontpage&Itemid=413&lang=eu) [OEH]
- Imaz, Iñigo (2007): *Un liberal entre dos siglos. Enrique Elizechea Arrieta (1873-1947)*, Bilduma 20.
- Kajista (1902): «Erreteriko Josepa Antoniri», *Ibaizabal*, 22, 2.
- Kintana, Jurgi (2008): *Intelektuala nazioa eraikitzen: R. M. Azkueren pentsaera eta obra*, *Iker* 22, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Larrañaga, Carmen (1995a): «El bertsolarismo: Una tradición oral transitada por el género-sexo», *Cuadernos de Sección. Historia-Geografía* 23, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 405-425.
- , (1995b): «Andra bertsolarien historia», *Bertsolari*, 17, 17-19.
- , (1999): «Bertsolaris destacadas», *Eusko News & Media*, 56, 1-5. [<http://www.eusko News.eu/zbk/56/bertsolaris-destacadas/ar-0056001004C/>] (Kontsulta: 2019-02-07).
- , (2000): «Teatralidad y poética alternativas: El bertsolarismo y las mujeres», in I. Zavala (koord. nagusia), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)*, 6. lib., Athropos, Madril, 399-424.
- Lekuona, Juan Mari (1982): *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia.
- Mitxelena, Koldo (1960): *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madril [1988, Erein, Donostia].
- , (1976): «Hitz bitan», in E. Bozas Urrutia (ed.), *Andanzas y mudanzas*

- de mi pueblo. Erreterria kondairan eta ipuin-zaharretan*, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, Donostia, XIX-XXXI.
- Obieta, María (1996): *Los integristas guipuzcoanos 1888-1898*, Euskal Herriko Zuzenbidearen Histori Institutua, Donostia.
- Perez Gaztelu, Elixabete (2013): *Joxepa Antoni Aranberri Xenpelar (1865-1943)*, Erreterriako Udala, Erreterria.
- , (2014): «Bertsolaria, fabrikako langilea, emakumea. Joxepa Antoni Aranberri Petriarena, “Xenpelar”. XIX-XX. mendeetako erreterriar emakume baten ahotsa XXI. mendeko plazan», *Bilduma*, 26, 181-187.
- Real Academia Española: Banco de datos (CORDE) [en línea], *Corpus diacrónico del español*, <<http://www.rae.es>> [2019-02-14].
- RIL (1902): «Enrikeri», *Ibaizabal*, 21, 3.
- Urkizu, Patri (1997): «Anton Abbadiaren Koplarien guduak (1851-1897)», *Eusko Ikaskuntza*, Donostia. <<http://hedatuz.euskomedia.org/4007/1/03011059.pdf>>.
- Xenpelar Dokumentazio zentroa. Bertsolaritzaren datu-basea. <<https://bdb.bertsozale.eus/>> [BDB].
- Zabaleta, Mikel (2019): *El baluarte de J.E.L. Erreterria y el primer nacionalismo vasco (1904-1931)*, Erreterriako Udala, Erreterria.
- Zavala, Antonio (1967): *Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak*, Auspoa, 63-64.
- , (1974): *Mendaroko txirristaka*, Auspoa, 120-121-122.
- , (1993): *Xenpelar eta bere ingurua*. Auspoaren sail nagusia. Sendoa [Auspoa bilduma osorik: <[https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&lang=eu&layout=auspoa\\_zerrenda&view=frontpage&Itemid=601](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&lang=eu&layout=auspoa_zerrenda&view=frontpage&Itemid=601)>]. (Kontsulta: 2019-02-07).
- Zavala, Iris (2000): «Las formas y funciones de una teoría crítica feminista. Feminismo dialógico», in M. Díaz-Diocaretz eta I. Zavala (koord.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua castellana). I. Teoría feminista: discursos y diferencia*, Anthropos, Madril, 27-76.



*Doinua: Gai horrek badu mamia*

Bertsolaritzan bidea  
ez da izan denena,  
zaila da emakumeak  
plazaratzearena,  
baina «naturaltzen» goaz  
lehen arraroa zena.  
Bidea ireki zutenei  
esker banaiz naizena,  
Ixildutakoei jarri  
Nahi nieke izena:  
Kristina, Arantzazu (e)ta  
Estitxu Arozena

**Aroa Arrizubieta Barredo**



# Naturaltasunaren azpiko guztia

*Nerea Ibarzabal Salegi*

## **SARRERA**

«Bertsolaritza genero-ikuspegitik» ikastaroan antolatutako mahai-inguruan hiru belaunalditako emakume bertsolari erreferenteak elkartu ziren: Kristina Mardaras Sedrun (1948), Arantzazu Loidi Garitano (1967) eta Estitxu Arozena Albizu (1975), neroni, Nerea Ibarzabal Salegi (1994) moderatzaile nintzela. Beraien garaiko emakume «bakar» edo «gutxietako bat» izandakoen eta denbora batez plazaz plaza ibilitakoen ibilbidea eta esperientziak kolektibizatzeke modua izan zen mahai-inguruarena. Beste bat gehiago izan nahi eta ezina, inguruko zenbaiten babesa eta beste zenbaiten gutxiespena, exotiko izatearen nekea, aitakeriak, kontraesanak... hainbat kointzidentzia aurki daitezke beraien bizipenetan, hasiera haien zailtasuna agerian uzten dutenak. «Naturaltasuna» askotan aipatutako hitza izan zen, eta hain zuzen kontzeptu hori da zalantzan jarri dudana izenburuan eta artikuluan osoan. Zaila da esatea emakumeak naturalki hasten eta amaitzen duela bertso-ibilbidea, bien bitartean entzun eta bizi izan dituen egoerak kontuan hartuz gero. Naturaltasunaren azpian ezkututzen den hori seinatu nahi nuke datozen orrialdeotan, patroi gehiegi baitira errepikatzen direnak.

## **NORTZUK**

### ***Kristina Mardaras Sedrun***

1948, Iurretako Oromiño auzoa. Ikasteko zuen gogoak muga guztiak gainditu zituen, baita etxeakoak ere. Komertzio ikasi ostean, Durangoko paper lantegian egin zuen lan, eta beranduago Iurretako Maiztegi Herri Ikastetxean irakasle. Hainbat talderen sorreran parte hartu du: Durangoko Ikastola, AEK, EHE, bertso-eskola... Herrigintzarekin konprometituta egon da beti.

Durangoko bertso-eskola sortu zenean, bertan hasi zen Jon Lopategi eta Anjel Uxaolarekin. 1982an Bilbon egin zuen lehen plaza, eta Bertsolari Elkartearen sorreran parte hartu zuen. Txapelketa Nagusian kantatu zuen lehenengo emakumea izan zen.

### *Arantzazu Loidi Garitano*

1967, Aretxabaleta. Kazetaritza eta Itzulpengintza ikasketak ditu eta gerora psikopedagogian espezializatu da. Herri-komunikabideetan, Administrazioan eta EMUNen egin izan du lan. Egun PRH (pertsonekitate eta giza harremanen) helduentzako garapen pertsonaleko formazioa irakasten du.

Almen bertso-eskolako lehen belaunaldiko kidea, Eskolarteko Txapelketetan nabarmendu zen. Plazan aritutako lehenengoetako emakumea da —aro garaikidean—. 1991ko Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen, eta gai-jartzaile eta epaile-lanetan ere ibili izan da.

### *Estitxu Arozena Albizu*

1975, Lesaka. Psikologia ikasketak ditu, eta sexologian espezializatu zen.

Lesakako bertso-eskolatik irtendako lehen belaunaldiko kidea; hamasei urterekin plazetarako urratsa eman zuen. Neska izateak hausnarketarako bidea ireki eta sexuen arteko desberdintasunen eta harremanen gainean sakontzera eraman du, baita akademikoki ere.

Nafarroako bertso-eskoletan eta hezkuntza arautuan bertsolaritza-irakasle dabil orain. Lehen Hezkuntzako irakasle-ikasketak ere bukatu ditu. Euskal Herriko Txapelketetan kantatu zuen 1993-2005era, eta Nafarroako txapeldun izan zen 1995ean eta 1998an. Lurraldeetako Txapelketa Nagusi bat irabazi zuen lehen emakumea izan zen.

## **ISPILUAK HEMEROTEKAN**

Mahai-ingurua bideratzeko proposamena jaso eta segituan, Xenpelar Dokumentazio Zentroan harrapatu nuen neure burua paperez estalitako mahai luze baten aurrean: prentsako albisteak, erreportajeak, argazkiak, aipuak. Denon Gradu edo Master Amaierako Lanetan testuingurua azaltzeko aipatutako izenak dira Mardaras, Loidi eta Arozena, baina zer dago aipamen horien atzean? Zerk batzen ditu, eta zerk desberdindu? Nola hasi galdetzen eta zein tonu eman galderei, ez dadin geratu omenaldi hutsean, ez nadin erori ezkortasunean, ez dadin izan orduan egon zitekeen kontzientzia faltaren gaurko begiradatik egindako epaiketa zentzugabe bat?

Prentsako orrialde haietan islatuta ikusi nuen bai nere burua, bai nire inguruko emakume bertsolari askorena, bakoitzari gure «arrakastaren gailurtxoan», «promesatasunaren jaiotzan» egin dizkiguten elkarrizketak berdinak baitira ia beti. Mardarasi galdetzen zioten emakume bakarra izateaz, Loidiri galdetzen zioten emakume ia bakarra izateaz, Estitxu Arozenari ere galdetzen zioten, eta guri ere galdetzen digute 2019an, eta hori oso ondo dago, baina badirudi beti zerbait berria izatera kondenatuta gaudela edo kondenatuta dagoela gaia bera, eta horregatik



geratuko dira elkarrizketak azalean, galdera oraindik orokorrean egiten delako, «berdintasunera bidean goaz» bezalako titular errazaren bila, eta analisiak beti guri eskatu izan zaizkigunez azkeneko 40 urteetan, gizonak ez dira interpelatuta sentitu; gizonentzako badirudi beti dela bizkorregi, beti prestatu gabe harrapatzen dituztela, beste erritmo batean beti.

Adibide bat. 1999ko Bertso Egunari buruzko kronika labur batean azaltzen du *Deiak* bertsogintzaren lau belaunaldi elkartu zirela bertan: Manuel Lasarte (Lekuona jartzen du, baina tira...), Imanol Lazkano, Andoni Egaña eta Estitxu Arozena bera. Bakoitzaren elkarrizketatik ateratako titularrak esanguratsuak dira (Lopetegi, 1999):

Manuel Lasarte: «Si los cambios eran necesarios, los acepto».

Imanol Lazkano: «Los bertsos se pueden convertir en un vicio».

Andoni Egaña: «Hoy por hoy, ser bertsolari es mi profesión».

Estitxu Arozena: «La situación de la mujer en este mundo se ha normalizado».

Edozein garaitako elkarrizketa eredu izan zitekeen goiko hau. Hiruri bertsogintzari buruz galdetzen zaie, artista bezala duten ikuspegia jakin nahi da. Emakumeoi ezarri zaigun etengabeko salbuespen-egoerak, baina, ez digu arteraino hain erraz iristen uzten. Ez gara gaur agertu oholzetan, zergatik dago pertzepzio konstante hori? Bertso-plazaren diseinuak gaur arte banaka agertzera eta banaka desagerraraztera garamatzalako, eta ahanztura interesatu bat egon delako urte luzez. Horrela beti gara zerbait berria, oraindik zentroa izan ezin duen zerbait kasuala. Emakume anitzak, taldean eta maizago agertzen hasi ezik, zaila da hori aldatzea.

Baina beno, alferrik nenbilen Mintzolako mahaian kazetariekin eta gainerakoekin barrutik haserretzen. Sentipen horiek guztiak nolabait ordenatu, oinarrira ekarri eta galdera orokorxeago bilakatu nituen azkenean, tiraka hasteko hari-mutur edo. Hona, ordubete hark emandakoa gaika banatua.

## **LEHEN PAUSOAK**

Bertsogintzan hasi zireneko garaiei buruzkoa izan zen lehen galdera. Aitzindari izatearen kontzientziarik izan ote zuten, eta hala bazen, gustatzen zitzairen edo nola eragin zuen beraien bidean. Gerora egin ziren ikerketek bistaratu zuten ez zela Mardaras izan txapelketa batean kantatu zuen lehenengo emakumea, XIX. mendearen amaieran Lore Jokoetan, Lapurdin, behin baino gehiagotan parte hartu eta irabazi baitzuten zenbaitek: Maria Luixa Erdoziok (1869an eta 1875ean), Marie Hargainek (1888an eta 1895ean) eta Aña Etxegaraik, besteak beste (1894an). Ehun urte beranduago, ordea, ahaztuta zituen historiak.

Kristinak sentitzen zuen aitzindaritasun hori, bere hasierako urteetan bera bakarrik ibili baitzen gizonen artean. Bazuen, ordea, intuizio bat.

Seguru nengoen egon behar zela norbait, baina ez zegoen ikertuta [...]. Aurreko ispilu horren beharra behin baino gehiagotan sentitzen nuen (K. Mardaras, 2018).

Loidiren berri bazuen Mardarasek garai hartan, bazekien atzetik bazetorrela emakume bat, nahiz eta, berak esan bezala, «11 urteko ume bati emakume deitzea ere...». Loidik bi fase bereizten ditu bere hastapenetan: eskolartekoa eta plaza. Lehenengoan dibertsioa eta ondo pasatzea ziren nagusi, ez zuen aitzindaritasunik sentitzen, «besteek parean ispilua jartzen zidatenean bakarrik». Plazan aldatu egin zen sentsazio hori:

Plazan bai, hor ikusi nuen bakarra nintzela, Kristinarekin saioaren bat egin arte [...]. Ni gerora konturatu naiz ez zela erraza izan, orduan bizi egiten nuen, baina... (A. Loidi, 2018).

Zerbait aldatzen da, beraz, bertso-eskolatik plazarako salto horretan, norbere generoaz jabetze bat. «Inkontzientzia» hitza aipatu zen askotan atal honetan, aurrera egiteko motor gisa. Arozenak honela azaldu zuen:

Urgentzia bat genuen Nafarroan, ez zegoela bertsolari gazterik, eta horregatik gu hasi ginenean, bertsolari izan orduko txapelketara joan ginen... kontzientzia handirik gabe [...]. Erraza edo zaila izan zen, nik uste dut inkontzientea izan zela. Bertsoan badakizu? Etor zaitez (E. Arozena, 2018).

Loidik eta Mardarasek baino kide emakume gehiagorekin egiten zuen topo Arozenak — «Iratxe Ibarra, Maialen Lujanbio, Saioa Arando, Amaia Agiriano...»—. Eta, noski, aurrekari ziren bere solaskide biak ere ezagutzen zituen. Hirurek aipatzen dute beraien bertso-eskola babes-eremu gisa.

Gu plazara ailegatu ginenean, talde bat ailegatu zen, ez emakume talde bat, baizik eta bertso eskola bat. Talde sentsazio bat bagenuen (E. Arozena, 2018).

## ***PUBLIKOAREN GOGOA, NESKEN ERABAKIAK ETA MUTILEN MARKAKETAK***

Arozenak aipatu zuenez, 90eko hamarkadaren inguruan bazen halako gogo bat publikoaren eta antolatzaileen aldetik emakume bertsolariak entzutekoa. Gogo horri erantzun egin zioten, Arozenaren hitzetan, beraien «mailari zegokiona baino saio gehiago egiten».

Gogo horrek ardura bat suposatzen zuen. 17 urterekin bota nuen «neskame» hitza bertsoan, eta kazetari batek aurpegiratu zidan: «neska izanik nola bota du hori?» [...]. Hor konturatu nintzen agian formatu behar nuela pixka bat (E. Arozena, 2018).

Mardarasi ere kezka bera sortu zitzaion, batik bat emakume gehiagorekin kantatu behar izan zuen garaian. «Beldur bat» eramaten zuen halako saioetara, «emakumeen hausnarketara» ohitu gabe zegoelako, ordura arte gizonekin kantatu izan zuelako beti. «Ni gizonen hizkuntzara ohitua nengoen». Hala ere, beti saiatzen

zen emakumeen arazoei ahotsa jartzen horrelakoetan, baita bere emakumetasuna aldarrikatzen ere.

Nik nire bizitzatik ikasi dut feminismoaz, ez dut gehiegi sakondu. Emakumeoi eragiten ziguten gaiak sartzea zen nire lana bertso saioetan, askotan etxetik prestatuta eramaten nituenak [...]. Andoniri (Egañari) galdetu nion bertsoan «*zure hiztegiak zer dio dela proxeneta?*» (K. Mardaras, 2018).

Soltera garaian prakak janzen hasia nengoen, baina plazara beti gonarekin. Bertso onik agian ez duzue entzungo emakume honengandik, baina emakumea naizela bistan egongo da (K. Mardaras, 2018).

Loidiren belaunaldiak justu kontrakoa egin zuen janzerari dagokionez «Prakekin joaten ginen apropos». Baina oharkabean pasatu nahiak ere ez zituen libratu zenbait gizonen iruzkinetatik. Behin batek esan zion Loidiri bera inoiz ez zela ohituko emakume-ahots bat bertsoan entzutera —nik agure batek esan ziola irakurri edo entzun izan nuen nonbait, baina ez omen zen hain agurea—.

Gaur daukadan ausardia izan banu erantzungo nioke zerbait, baina ez nion erantzun. Sentitu nuena izan zen: «orduan nik ohitu beharko dut horrelako gauzak entzutera?» (A. Loidi, 2018).

Ahotsarena beti bizi izan dut horrela. Umetan ez, denok antzerakoa dugulako, baina gerora bai. Denbora guztian tonuari eusten, tonura egokitzen jardun izan dudana sentsazioa... askotan bortxa asko duen ariketa bati bortxa gehiago jarriz (A. Loidi, 2018).

Publikotik bakarrik ez, bertso-kideengandik ere iritsi ziren halakoak. Mardarasekin kantatzeari uko egin zioten zenbait gizonen, feminista zela argudiatuta. Desberdinkeria legitimatzeko modu leunagoak ere bazeuden, beste gizon batzuek hartu zuten *aitakeriazko* jarrera, esaterako.

Markajea izan zen paternalismoa, onartzea, babestea, aurreko belaunaldiarengandik. Garbi esan gabe, baina esanez bezala: «zer egingo diogu ba, onartu egin beharko da hau ere» (A. Loidi, 2018).

### ***BABESA BAI, BAINA / BAI, BAINA BABESA***

Markaketak markaketa, hirurek aipatu eta eskertu zuten ahots batean ingurutik jaso zuten babes, batik bat bertso-eskolatik. Bi egiaztapen horien artean mugitu zen mahai-inguru hura, dikotomia horretan: ez zela bide erraza izan eta oztopo ugari aurkitu zituztela, baina, hala ere, babes sumatu zutela bertso-eremuan eta badutela zer eskertua.

Nik aitortuko dut gizonen munduan kantatu nuela, eta babes guztia eduki nuela bai Bertsozale Elkartetik. Kantatu nuen bertsolari handi edo kotsakratuekin, ni oso ondo tratatu ninduten. Beno, beti daude batzuk probatzera etortzen direnak [...]. Baina beste batzuek babes handia eman zidaten (K. Mardaras, 2018).

Bertso eskolak, ez bakarrik Almenekoak, baizik eta belaunaldikoak, beti izan dira babes bat, natural bizi genuelako. Eta eurek normalizat hartzen ninduten. Laguntza jaso dut publikoko sektore batetik, esanda edo esan gabe animatzen nindutenengandik, eta gero, sekula ez dut aitortu baina amaren aldetik ere bai. Zer eskertua badaukat, beldurra pasako zuelako seguraski herriz herri ibiltzen nintzen garaian umetan... babes bano, askatasuna eman zidalako. Eta hori daukat oso barruan sartuta (A. Loidi, 2018).

Nik babes bano dut bertso eskolan, babes bano etxean bertsolari izateko, babes bertso eskolako irakasle izateko... azkenean, babes bano lotura ez ote den bihurtu... Batzuetan pentseta izan dut, hau ze punturaino da nik aukeratua edo bideratua? (E. Arozena, 2018).

Amaierako galderen txandan, publikotik Ainhoa Aranburuk seinalatu zituen bi alde horiek, babesarena eta oztopoena, eta hizlarietara galdetu zien ea ez ote zen kontraesan bat biak aipatzea. Baietz erantzun zuten.

Gure bizitza ere kontraesanez bete zegoen beste edonorena bezala (E. Arozena, 2018).

Kontraesan pila, eta kontzientzia gero. Momentuan ez daukazu aurrera egitea besterik. Entzule talde batengan bi gauzak perzibitu daitezke, babes bano eta kritika. Kontraesan horrekin bizi ginen. Saio bat daukat buruan, nire aitona izan zitekeen batekin: bere borroka zen azken bertsoa beti berak botatzea [...]. Horretaz konturatzen zara etxera joan eta gero. Kontraesan pila bat, eta kontraesanean bakarrik (A. Loidi, 2018).

Noiz konturatzen zara ez daukazula babesik? Herri horretara ez zaituztenean berriro deitzen. Edo ez duzu egin saio ona, edo ez zaie gustatu esan duzuna. Nik horrelako hainbat bizi izan ditut (K. Mardaras, 2018).

## ***KREMA IZATEAREN DESEROSOTASUNA***

1993ko Bertso Egunean Arozenak, Lujanbiok eta Ibarrek kantatutakoak hurrengo belaunaldioi iritsi zaizkigu mugari gisara; egun hartan «gizonezkoen tarta honetan krema ez dugu izan nahi» esan baitzuten publikoki, osorik gizonez osatutako egitarau haren erdian irten baitziren hirurak.

Jon Maiak esan dit duela gutxi egun hartako Bertso Eguneko kartelean gure izenak ez zirela agertzen, ea zergatik. Ez nekien erantzuten. Iragarria zegoen Bertso Egun bat bertsolari batzuekin, eta gu bukaerarako utzi gintuzten... Mugari izan zitekeen egun hori, loratze bat edo, ondorengo askok dakizkitelako bertso horiek. Ausart joan ginen (E. Arozena, 2018).

Saio asko egin zituzten hiru hizlarietara garai batean. Mardarasek esan bezala, bere senarrarekin hasi zen bertso-egun, baina bera zen *la vedette*. Zer pentseta eman zien horrek. Zergatik deitzen zituzten? Zer espero zuen publikoak beraiengandik? Nola kudeatzen da hori?

Bazenekien neska zinelako deitzen zizutela, edo nafar, edo biak batera. Nik niretik kantatzen nuen, ez nintzen zerbait feminista bilatzera joaten... ez naiz pinpirina, emakumea naiz noski, ateratzen zitzaidana kantatzen nuen. Nire garaian uste dut jendea

ez zela luparekin begira egoten ea nola kantatzen duen emakume batek. Gehiago zen nire ardura zegozkidanak baino saio gehiago egitea, gero astean zehar bertso eskolak ematea, 26 klase, ostiralean kantatu... nekea.. Ardura hori bai, baina emakume nintzelako ez dut sentitu izan (E. Arozena, 2018).

Ni nintzen nire kritikari gogorrena. Jendea etortzen zitzaidan zoriontzen. Nik uste dut ondo saltzen nuela nire produktua, ze egoten zen isiltasun bat... kosta egiten zitzaidan hastea... eta gero amaitzean txalo zaparrada izugarria. Jendeak asko babesten ninduen. Ondo sentiarazten ninduten, baina gero norbera da epailerik txarrena (K. Mardaras, 2018).

Nik ere niretik jarduten nuen, baina berehalaxe konturatu nintzen leku askotatik zergatik deitzen ninduten, eta horrek galdera bat sorrarazi zidan. Zerbait esateko daukadalako? Herrikoa naizelako? (A. Loidi, 2018).

Pixkanaka osorik emakumez osatutako saioak antolatzen hasi ziren garai hartan, martxoaren 8aren harira gehienak. Honekiko iritzi eta jarrera desberdinak sortu ziren; Loidik, horrelako saio askotan kantatu ondoren, gehiago ez joatea erabaki zuen une batean. Mardarasek, aldiz, antolatu egiten zituen horrelakoak.

Ni errebelatu egin nintzen eta joateari utzi nion. Agian ez zen korrektoena baina... neke batetik, astuna egiten zitzaidalako modu hori. Emakumez bakarrik osatutako saio mota hori, gaiak ere beti berdinak zirelako (A. Loidi, 2018).

Nik propio antolatu ditut emakumez osatutako saioak. Nik uste dut interesgarria zela, paisaia aldatu beharra zegoen. Guk emakume taldetxo bat egin genuen sasoi baten, hor saiatu ginen gazteagoen arteko harremanak indartzen. Publikoa ohitu behar da emakumeen ahotsetara, emakumeen presentziara. Lau gizonezkoz osatutakoa bertso saioa da; lau andrerena ikusi eta... «eeee, androk zer?» (K. Mardaras, 2018).

Loidik adostasuna adierazi zion Mardarasi puntu horretan, baina «garai hartan forzatua izan zelako» esan zion berak ezetz formatu horri. Loidiren ustez, bere belaunaldiari bi erronka tokatu zitzaizkion: batetik, «zer esanik ez daukazu zerbaiti buruz kantatzea ume-umetatik», «zaharrentzako gaiak» deitutakoak, eta bestetik, «emakume izateaz eta horrek dakarrenaz egin gabe geneuzkan hausnarketak kantatzea». Horrekin erre zela dio Loidik, gerora egindako irakurketa baten ostean ikusi duela hori.

Emakumezkoen saioetan hori gertatzen zitzaidan, eta emakume izateagatik deitzen nindutenetan ere bai [...]. Guk *adornoa* izatea deitzen genion horri (A. Loidi, 2018).

Beraz, zenbait problematika identifika daitezke. Saio askotan egoteak eragindako ardura batetik, saio gehienetan emakume bakarria izatearena bestetik, eta gainera emakume izatearen inguruko lanketa bat egitea edo ahots guztien ordezkari izatea eskatzen zitzairen, gizonei eskatzen ez zitzairen zerbait. Horrek gaiarekiko deserosotasuna eta errefusa eragin zituen batzuegan. Hau da, gizonak plazara libre eta kontraesanen beldur handirik gabe irteten ziren bitartean, *kremari* bestelako baldintza asko eskatzen zitzaizkiola, irau nahi bazuen.

**HASIERA «NATURALAK», AMAIERA «NATURALA»**

Plazaz plazako erritmo bizi haren ostean, barealdia etorri zen hirurentzat. Saio gutxiagotan kantatzen hasi ziren. Loidiren kasuan, bera hasi zen galga jartzen, behar bezain prestatua ez egoteak eragiten zion ziurtasun faltaren ondorioz. Arozenak saioen «beherakada» aipatzen du 90eko hamarkadaren erditik aurrera. Baina kontziente ziren emakume izanda bazeudela zailtasun batzuk plazetan urte luzez ibiltzea oztopatzen zutenak.

1993, 94, 95ean... saio mordo bat egin genituen, eta gero beherakada etorri zen. Nik lasai hartu nuen, eta behar nuen etenaldia (E. Arozena, 2018).

Orduan gure artean komentatzen genuen zerbait izan zen... norbait agertuko da haurdun plazara? Gaur egun normaltzat... beno, edo behintzat gertatu da. Modaz pasatzea naturaltasunez bizi izan nuen. Beste hautu batzuk egiten joan nintzen heinean, deitzen zidatenean ez nintzen prestatuta sentitzen, eta orduan ezetz esaten nuen, eta hurrengoan, ba, are zailagoa... poliki-poliki utzi arte. Uzten joan nintzen. Kudeatzen da bizitzako beste gauzak bezala (A. Loidi, 2018).

Ni ordezkatu ninduten ondorengoek, eta hori zen helburua. Nire zorionerako eta askorenerako, emakume pila bat dabil bertsotan. Hori nahi nuen ikusi. Nire arduretako bat zen ezkondu eta haurrak izan ostean jarraituko ote duten. Oihane Perea ikusi nuen, Uxue ere bai... horrek informazio bat ematen du, emakumeen presentzia ez dela bukatuko, oraingoz ez behintzat. Nire helburua ez zen bertsolari izatea eta irautea, eta ez zitzaidan batere kostatu (amaiera). Oso nekoso da bertsotara deitzen zaituzten leku guztietara joatea... (K. Mardaras, 2018).

Galderen tartean Uxue Alberdik hartu zuen hitza, eta honela adierazi zuen sentitu zuena: «Entzun bitartean mina sentitu dut, sumatzen dudalako biolentzia sinboliko handia. Bertso-sistema oso biolentoa dela emakumeekiko, eta dagoela egitura bat emakumeak baztertera bidaltzen dituen, askotan eurak konturatu gabe». Emakumeei emakumeak izateagatik deitzen bazaie, «gizonei ere gizonak izateagatik» deitzen zaiela azpimarratu zuen Alberdik, eta galdera batekin amaitu zuen hitzartzea: «90. hamarkadan funtzionatzen zuten emakume horietatik zenbatek jarraitzen dute gaur egun? Denek utzi nahi zuten? Batzuek nahiko lukete jarraitu».

Bizipenek eta bizipenen teorizazioak topo egin zuten une hartan, eta hizlariak ere halaxe adierazi zuten lasaitasunez:

Zorionez bazaudete horri buruz teorizatzen ari zaretenak. Guk kontatu dugu gure bizipenetatik (E. Arozena, 2018).

Interesgarria litzateke utzi dugunok geure buruari galdetzea «eta nik zergatik? Jarraituko nuke? Ez?» Nik hausnarketa hori pertsonalki egin dut. Baina hor badago ikerketa polit bat (A. Loidi, 2018).

Loidik kontatu zuen, beste galdera bati erantzunez, plazan gehiagotan saiatu dela apurtzen gerora, gai-jartzaile edo epaile izan denetan. Berak «bizi izandakoa»

ikusten zuelako beste batzuegan, eta «hortik aportatu» nahi zuelako. Ideia honekin borobildu zuen mahai-ingurua.

Nik daukat sentsazioa zubi-lana egin genuela. Ez bakarrik kaletarrak izanda, gainera bertso eskolakoak, gainera emakumeak, gainera bizkaieraz —beste periferia bat—... (A. Loidi, 2018).

### ***KOINTZIDENTZIAK ETA GOGOETAGAIK***

- Hizlarien kasuan, bertso-eskolek talde izaera indartu zutela dirudi, babes-eremu izan zirela. Plaza eremu basatiagoa izan zen zentzu horretan, zerbait aldatzen zen hara iristean: emakumeen generoaren azpimarratze bat, ohartarazte bat.
- Gizonezkoen hizkuntzan oinarritzen zen bertsogintza, eta emakume bertsolariek hortxe funtzionatzen ikasi behar izan zuten; horrek, Mardarasi adibidez, ziurtasun falta eragiten zion gerora emakume gehiagorekin kantatu behar zuen unean. Arozenak gehiagotan kantatu ahal izan zuen beste neska batzuekin hasieratik, eta ez du horrelako sentsaziorik aipatzen. Emakume asko egoteak kode, diskurtso eta umore-eredu propioak sortzeko aukera ematen du.
- Neska izateagatik «merezki» baino plaza gehiago zituztela aipatzen dute askotan. Gaur egun ere entzuten dira halakoak. Alberdik esan bezala, gizonek ere generoa daukate, eta beraiek dira saio gehien zeukatenak eta daukatenak. Hor ez da merezimendurik aipatzen. Merezimenduaren kontzeptua, emakumeok ez dagokigun leku batean egoteko behar dugun «baimenaren» forma tranpatia ez ote den...
- Emakume izateagatik beraien sormen-lana gutxiesten zutenen iruzkinak, ekintzak edo jarrerak jasan zituzten.
- Saioko emakume bakarra izateak emakume guztien ordezkari bilakatzen zituen, horrek sormenarentzat suposatzen dezakeen mugarekin eta presioarekin. Zenbait gaierako deserosotasuna edo «prestatu behar» bat sumatzen zuten.
- Bertso-saioak urritu ziren, eta denek diote pozik hartu zutela atsedena. Interesgarria da deskantsu hori eskertzearena, nekearen tamaina islatzen baitu, eta ez dakit garai hartan plazaz plaza zebiltzan gizonei neke bera suposatzen ote zien. Loidik esan bezala, interesgarria litzateke bakoitzak bere buruari galdetzea zergatik utzi zuten benetan, beraiek utzi bazuten behintzat, edo bertso-saioetan neskenentzat gordetako aulki pare hurrengo belaunaldiko neska pareak hartu ote zuen, eta elkar ordezkatzeko ote gailtzan urteak joan, urteak etorri.

- Egin zuten zubi-lana ezinbestekoa eta eskertzekoa da. Bidea ireki zuten, egitura dardarazi, eta ondorengoei erreferentziak eman. Gora ez-naturalon ahotsak, umoreak eta oholtza gaineko iraultza txikiak.

### ***BIBLIOGRAFIA***

Lopetegi, Arantxa (1999-01-31): «Pasado, presente y futuro del bertso», *Deia*.



*Doinua: Nhoiz ez da senditzen*

Izaki ezezagun  
gorputz gabeko buru  
nola beretu urpe  
ta zingira inguru?  
ez erabateko urtar,  
lehorrean ez puru  
gorputz atalak mudatuz  
egina zapaburu  
gaur arte anfibio  
baten traza hartu du  
gerora zer bihurtuko  
den ikusteko dugu.

**Eli Pagola Apezetxea**



# Arbola hazten, azala zartatzen. Azken 40 urteak bertsolaritzan: bertso-eskolaren sorrera eta emakumeen sarrera<sup>1</sup>

*Maialen Lujanbio Zugasti*

«Emakume bertsolariak betidanik izan dira» esaten dut lasai, noiztik, nola eta non zehatz jakin ez arren. Izan ere, zorroztasun historiko handirik gabe ere, irakurketa nahi bada inozente bat eginez, pentsatzekoa litzateke, «kantatzen duen herria» izan bada gurea, ez duela gure herrian herritarren erdiak bakarrik kantatu izango. Eta gainera, hizkuntzaren transmisioa nagusiki emakumeen gain egon bada, eta transmisioa kantuan ere egiten denez —eta kantuetan hitzak eta doinuak, eta doinuetan afektibitate bat...—, pentsatzekoa litzateke emakumeek «betidanik» kantatu dutela. Eta inprobisatuz ere bai, akaso, tarteka.

Zehaztasun historikoz eta inozentziak utzita, emakumeek inprobisatzen zutelako arrastoak badira artxibo idatzietan 1432tik bederen.

XXI. mendera arte heldutako bertsolari ezagunen izenak gizonezkoenak izan dira ia erabat. Aldiz, gure aitona-amonen ahotik maiz entzun izan dugu: *gure etxean, bertsolaria ama zen!* edo *gurean bertsotan ondoen izebak egiten zuen*. Orain arte hala izan bada, pentsatzekoa litzateke, lehenago ere halatsu izango zela. Besterik da, emakume bertsolari haien berri apenas izan dugula, arrazoi sozial eta politikoak medio. (Bertsotan aritzen ziren) emakumeek, ez zuten gune publikoetan, ez plazetan, ez festetan, ez jendaurrean aritzeko aukerarik izaten. (Bertsolari) emakumeak izan, ordea, baziren.

Emakumezko izanik plazara irtetea gaitza izan bada historikoki, euskaldun izanik plazara ateratzea ere ez da xamurra gertatu izan. Joan den mendea bakarrik kontuan hartuta, Ipar Euskal Herria, frantsese ospe oneko batera bortxatua zen; euskaldunak euren burua gutxiestera eramanez eta hala, euskara larriki atzentzen joango zen

---

1. Honakoa, 2018an AEBko Elkon (Nevada) eskainitako hitzaldiaren eta haren harira argitaratutako *Female improvisational poets: Challenges and achievements in the Twentieth Century* libururako idatzitako testuaren moldaketa da (Irujo, Xabier eta Arrieta, Iñaki (2019): *Female improvisational poets: Challenges and achievements in the Twentieth Century*, Center for Basque Studies UV of Nevada, Reno).

pixkanAka. Hego Euskal Herria, Francoren diktadurapean bizi izan zen 1939-1975 bitartean, eta erregimen faxistak euskara eta euskal kultura galarazi eta zanpatuko zuen berrogei urte horietan.

Eta gero, gaur.

40 urte inguru iraun zuen frankismoaren tunel beltzak Hego Euskal Herrian eta haren amaieran koka genezake bertsolaritzaren aro modernoaren hastapena. Orain, frankismo osteko beste 40 urte igaro direnean, begiratu bat egin dakioke ibilitako bideari: euskararen biziberritze-mugimenduaren baitan, bertsolaritza gaur egunera arte indartsu ekarri duten gertakizunei eta bereziki emakumeak bertsolaritzan duen lekua azaltzen duten elementu giltzarriei.

**«Hernanin 1975. urtean, gai jartzaile ibili zinen Lasarte eta Lazkao Txikirekin. Azken bertsolariak izango zirela uste zenuen?»**

*Bai. Pentsa aurreko berrogei urteak nolakoak izan ziren: euskararen aurkako zapalketa, debekua... Bertsolari zaharrenak hiltzen ari ziren, eta berriak sortzeko formularik ez zen ezagutzen»<sup>2</sup>.*

## **TUNELAREN IRTEERA**

*«Euskaingintzaren egoerarekin kezkatuta zegoen jendeak zerbaitegin nahi zuen euskara, kultura esparruan... Mugimendu horren guztiaren atal bat izan zen bertsoarena»<sup>3</sup>.*

Euskara eta euskal kulturak ia hutsetik eraiki beharko zuen bere burua. **Ikastolak** abian ziren berriz (aurretik, XIX. eta XX. mendeetan zehar, zenbait ikastola bakan eta askotan klandestino existitu baitziren, bai Ipar eta bai Hego Euskal Herrian). 60ko eta 70eko hamarkadetan ugaritu eta indartzera egingo zuten. Ekintzaile haiek abiatutako transmisio-proiektua, geroko Euskal Herri euskaldunaren oinarri nagusia izango zen, dudarik gabe.

*«Bertso eskola batzuk ikastolan sortu ziren. Esaterako, Zumaiako ikastola izan zen klase ordutan bertsolaritza lantzen lehena, 1975ean. Beste bertso eskola asko Xabier Amurizak emandako hitzaldietatik sortu ziren. Horietan lehena Santutxuko bertsolari eskola izan zen»<sup>4</sup>.*

2. Juanjo Uriari elkarrizketa. *Berria*, 2017-12-24.

3. Juanjo Uria. «Bertso eskolek 25 urte». *Argia*, 2018-02-24.

4. «Bertso eskolek 25 urte», *Argia*, 2018-02-24.

Ni ere ikastolako haurra izan nintzen. Euskara dut ama-hizkuntza, etxean  
jaso nuen.

Gure etxea, euskalduna, abertzalea izan da eta, asko bezala, erdarazalea ere  
bai.

Ni, oroimenik dudanetik, beti izan naiz euskararen maitea, beti izan dut  
euskararen mina. Inork hala agindu edo esplizituki transmititu gabe. Neuk  
hala sentituta.

Euskara ni zen. Ni da. Ni naiz.

«**Gu euskara(z) gara**». Bertso-munduko jendearen oinarritzko sentipen konpartitua esaldi horrek laburbilduko lukeela esango nuke. Ez baita bertsorik euskararik gabe.

Bertsolaria beti egon da hizkuntzaren egoerarekin eta nolakoarekin kezkatua. 80ko hamarkadan, artean, euskararen —eta bertsoaren— galeraren aukera eta desagertze zorian egoteko kontzientzia oso presente zegoen. Arriskua erreala zen.

«*Gure lurrean guk eztaukagu/*

*zertan egon buruz bera/*

*Une honetan aitor dezagun:*

*bagera edo ez gera!//*

*Bertsolaritza bizi dan arte/*

*biziko baita euskera»<sup>5</sup>.*

Euskara, ikastolaren bidez indartzea gertagarria bazen, **bertsolaritza** eskolatik indartuko zela sinesteak lanak zituen. Inor gutxik defendatuko zuen orduan bertsotan eskolan ikas zitekeenik. Ordura arte, euskaldunen iruditerian **bertsolari jaio** egin behar zen. Ez zitekeen edonor izan. Gutxi batzuk sortzen ziren inprobisaziorako dohain berezi horrekin (eta kasualitatez gainera, sortzen zirenak, denak gizonezkoak ziren...).

«*Orduan jende guztiak esaten zuen: “Bertsolariak jaio egin behar du”. Horrek esan nahi zuen ezin zitekeela bertsotan ikasi, eta guk hori oso barneratua genuen. Baina gero Amuriza etorri zen, eta esan zuen: “Zeinek esan du bertsotan ezin dela ikasi?”. Hari zor diogu etena ez izatea»<sup>6</sup>.*

5. Iñaki Eizmendi «Basarri». BDB. Xenpelar Dokumentazio Zentroa. 1989-12-18.

6. Juanjo Uriari elkarrizketa. *Berria*, 2017-12-24.

## **BERTSO-ESKOLEN SORRERA**

**Xabier Amuriza** handiari zor zaio, besteak beste, bertso-eskolaren ideia eta haren zabalkundea. Bertsoan ikasi ahal izateko metodologia eta materiala sortu zuen eta sozializatu. *Zu ere bertsolari* edo *Hiztegi errimatua* besteak beste. Bera bertsolaria izanik, bere jakintza «esklusiboa» gorde eta *kontserbatu*, ordez, besteri transmititzeko sena eta eskuzabaltasuna izan zuen.

*«Bertso-eskola batzuen hasierako helburua euskara maila hobetzea zen. Beste batzuen bertsozaletzea, eta bazen bertsolariak ateratzearen aukerari aterik ixten ez zionik ere».*

*«Guk irakaskuntzan sinesten genuen, eta erronka moduan planteatu genuen: gu bertsolari izango gara. Guretzat ilusio bat zen frogatzea hori posible zela. Euskaldun berriak ere aritu ziren gure bertso-eskolan, eta erakutsi genuen eurek ere ikas dezaketela bertsoan»<sup>7</sup>.*

Egoera linguistiko eta kultural larri hartan, arriskatu beharra zegoen. Ia ez zegoen ezer galtzeko. Superbibilitate-senak buru-zabal eta esku-zabal jokatzeraren eraman zuen garaiko jende euskaltzale eta bertsozale engaiatua. Transmisioa modu «naturalean» gertatzea ziurra ez zenez, transmisio-estrategia diseinatu egin zuten. Bai ikastolekin eta bai bertso-eskolarekin ere.

*«Artifizialtasuna eta Naturaltasuna: «Euskal Herria asmatu egin zen, Euskal Herri politizatua, nazio gisakoa. Herri kulturak nazio kultura bihurtu. Etxea plazara eraman. Eta asmatu ez balitz, galdu egingo zen. Ideologiaren zeregina hori da: gizartea eraikitzea. Gizartea nahita egitea, zer nahi den jakinda. Postmodernitate baldintzetan transmisioa egin nahi bada, modu artifizial batean egingo da»<sup>8</sup>.*

«Bertso-eskola» asmatu egin zuten. Eta asmatu egin zuten!

## **HERREN, BERAZ AURRERAKOI**

Xabier Amuriza bezala, bertso-mundua oro har eta bertso-munduko jendea jarreraz irekia eta buruz zabala izan da. Bertsolaritzaren mugimenduak arriskatzen jakin du eta berritzen ausartu izan da, eta hor datza, ziur asko gaur egunera arte indartsu heldu izanaren gako nagusia.

Nolatan bada jardun tradizionalak halako irekitasuna? Kontraesana lirudike, baina ez da. Hain zuzen, euskaldunok, herri eta hizkuntza moduan dugun hil ala bizi egoteko sentipenak egiten gaitu jarreraz ireki eta ausart. Ezinbestek. Geure herrenean aurrera-nahi. Gurea den zerbait edo, hobe esan, geu garena, galtzeko arriskuaren kontzientziak bihurtu izan du euskal jende ekintzailea buruz eta eskuz zabal.

7. «Bertso eskolek 25 urte». *Argia*, 2018-02-24.

8. Eduardo Apodaka. HUHEZI: Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa 2007-2008 («Hau koaderno bat zen»). HUHEZI, Lanku, MU, 2009).

Ikastolen planteamendu pedagogikoetan agerian geratu zen eta bertsolaritza transmititzeko sortutako mekanika honetan guztian ere bai.

*«Halakoxea da, beraz, bertsolaritza aterbetzen duen komunitatea, euskararen komunitatea: komunitate koxkorra, biziraupen eta moldaketan esperientzia deigarri bat duena, garaiotan etorkizunera begira bizi-kinka berezia duena, dagoeneko zenbait lurraldetan hizkuntzaren biziberritzea galtze-zorian daukana eta hizkuntza uniformizaziorako indar berrien desafio zailen aurrean dagoena. Desafio honek, nolana ere, bertsolaritzaren mugimenduarentzat zentzu dramatiko eta etsigarria baino gehiago izaera pizgarri eta ludikoa du»<sup>9</sup>.*

### **BERTSO-ESKOLA: MITOAK HAUSTEN**

Bertso-eskolak abian ziren. Bai ikastoletan, neska-mutilekin; bai helduekin ere, herrietan eta baita Bilbo bezalako hirietan ere.

Lehen mito ukiezina haustear zen: «bertsolari, *jaio* egin behar da»; «bertsotan *ikastea* ezinezkoa da». Eta lehen mitoa haustek, noski, bigarren mito zaharra ere laster eraitsiko zuen: «emakumeek ez dute bertsotan egiten».

Zortzi bat urte nituen. Bertsolaritza zer zen apenas jakingo nuen.

Gogoan dut, hala ere, gure irakasleak nola esan zuen Arantzazu Loidi zelako neska batek irabazi zuela Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

Komentario solte bat.

*Arantzazu Loidi...* Orduan ez nekien aipamen hura buruan iltzatuta geratuko zitzaidanik.

Emakumeen parte-hartzea ere, ziur aski, hil ala bizi dagoen kultura batek ezinbestean duen buru-zabaltasunagatik gertatu zen. Alegia, galtzeko gutxi daukazuenean, arriskatzeko jarrera hartu ohi da. Irautea ez zaizu aski, bizitzeko egin behar duzu apustu. Eta bertsolaritza galzorian bazegoen, denen beharra zuen, baita emakumezkoena ere!

### **ZER ZEN BERTSO-ESKOLA?**

Bertso-eskola bertsozaletasuna lantzeko eskola informala zen. Anarkoa ia. Lagun taldea gehiago, adin desberdineko jendea elkartzen zuena. Zaletasun bera konpartitzen genuen gazteon habitat berezia.

---

9. Egaña, Andoni; Garzia, Joxerra eta Sarasua, Jon (2001): *Bat-bateko bertsolaritza: Gakoak eta Azterbideak*, Bertsozale Elkarte, Donostia, Andoain.

Hasierako irakasle haien helburua gehiago zen bertso-munduarekin gozaraztea haurrak: bertso-zaharrak kantatzen ziren, haiekin doinuak ikasten, bertsolarien hizkuntzaren erabilera eta esamoldeak ikusten, bertsoaren logika barneratzen pixkanaka. Bertsolari zaharren istorioak entzuten genituen, Etxahunen ibilerak, Bilintxenak... Dena, araurik gabe, metodologia asmatuarekin eta gozamenerako. Gero hasten ziren, pixkanaka, norbera bertso-tara bideratzeko ariketak: metrika, doinuak, errimak, hitzak... Eta horrela, bat-batean kantatzen hasi arte.

Nik ez nuen bertsolaritza askorik ezagutzen. Ez nuen zaletasuna etxetik jaso.

10-11 urterekin bertso-eskolan hasi nintzenean nik ez nekien ia Amuriza nor zen ere.

Nire eskolako lagunek 86ko Txapelketa segitua zuten.

Nik ez nekien ia bertso bat zer zen. Oroitzen naiz buru-lan hori izaten nuela:

*«nola jakin noiz den bertso bat ona?!»*

Klase-orduak galtzen genituen bertso-eskolara joateko. Gero, frontoian pasatzen genituen bertso-eskolako orduak. Hara hona ibiltzen ginen ikastolaz ikastola. Bertsoan pixka bat ikasitako gazteek hartzen zuten gero gaztetxoagoei irakasteko ardura eta hala transmisio-kate bat sortzen zen, atxikimendua eta talde-sentimendua areagotzen zuena. Hura ez zen akademia. Ondo pasatzen genuen eta hori, eta horixe bakarrik, zen kontua.

Bertso-eskolak abiatu eta ugaritu egin ziren Euskal Herrian barrena. Geroko bertsolaritzaren oinarria eraikitzen hasia zen.

1981ean hasita urtero jokutzen zen Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, gaztetxoak plazaratzeko eta bertsoan zailtzeko sortutakoa; eta han, behin *Arantzazu Loidi* zelako batek irabazi zuen txapelketa hartan, eman genuen guk ere jendaurrera lehen urratsa.

Beste bertso-eskola batzuetako kideekin egin genuen topo. Gazte-jende *«berezi»* xamarra ginen, «gizon zaharrena» zen jardun batean aritzen ginen neska-mutil gaztetxoak; euskaldun kezkatuak, hizkuntza zaleak, kantatu zaleak... ez ziren horiek gure kirako neska-mutilen kezka nagusiak.

*Neska-mutil*, esan dut, baina gure bertso-mundutxo hartan mutilak ziren gehienak.



## BERTSOLARI EMAKUMEA ZENIK EZ ZEKIEN EMAKUME BERTSOLARI BATEN BIZIPENAK ETA BIZIPOZAK

Ni, ikastolan ez nintzen mutiko artean neskato sentitzen.

(Edo bai...?)

Ez nintzen behintzat «berezi» sentitzen.

Ohituta nengoen beti mutiko artean ibiltzen, pilotan, futbole...  
eta nire ingurukoak ere ohituta zeuden.

Baina bertso-munduan etengabe azpimarratuko zidaten *berezitasun* hori.

Beste eskoletako gazteekin lehenengoz topo egitean, taldetasuna errazago  
sortzen zen mutikoen artean. Ni, artean ezagutzen ez ninduten mutiko haiek,  
distantzia handiagoarekin tratatzen ninduten, hotzago eta korrektoago/  
korrektoegi. Nirekin ohituta ez zeudelako, «*desberdin*» ikusten nindutelako  
edo adinaren ezaugarriengatik ere bai, akaso.

Mutiko haiek guztiak elkarren kide bihurtzen ziren,  
instantean.

Eta nik sentitzen nuen, nolabait, **ZU** nintzela **Hi** artean. Metaforikoki eta  
literalki.

Jakina, unean berean, ez nuen hau hain argi errekonozitzen. Arrarotasuna  
bai, baina berritasuna, urduritasuna... dena nahasia zen; eta nik hala-nola  
aklimatatzea lortzen nuen.

Ez alferrik, lehen ere ohituta nengoen espazio eta kode horietan.

Futbolearen aritzen nintzen jolas-garaietan beti mutikoekin.

Media baino hobea bazinen jolasten uzten zizuten.

**Hondarribian** izan zen estreina. 1988an. Lehen aldiz Eskolarteko Txapelketan parte hartu nuenean 11 urte nituen eta 11 bertsolari txikiren artean neskato bakarra nintzen. Aurkezleak sorpresa berezi bat banintz bezala aurkeztu ninduen: «*eta gaur gainera neska bat...!*» gisako formula batekin.

Bertsolarien ohiko performancea errepikatuz, mikrofonora atera eta gure gorputz geldí eta zurrunetatik ahalik eta sendoen kantatzen saiatzen ginen. Formatua emana zegoen eta guk hartan egokitu behar genuen. Formatua gainera, ez zen formarena bakarrik; mamia ere, gaiak eta ikuspuntuak, klase jakin batekoak ziren.

«*Jaiki Maialen*», bizitzan jendaurrean kantatu behar nuen lehen bat-bateko bertsoa osatzeko «*hauek dituzu lau oinak: MARINO / PINO / CUBINO / ANIMO!*»

11 urteko neskatua ni...

*Marino, Pino eta Cubino, Vuelta a España* korritzen ari ziren hiru txirrindulari. Eta animo!

Jakin egin behar...

Tentsioa sentitu zen gelan. *Gogoan dut. Azalean dut.*

«*Jakingo ote du...*»

Gerora pentsatuta, ez dirudi 11 urteko gaztetxo batentzat (neskato batentzat —?—) mundu erreferentzialik aproposena... Baina, inork ez zuen hori kontuan hartu, antza... Prentsa zen, kirola zen, denon —gizon gehienek, beraz denon— intereseko gai bat.

Eta bertsolaritza hori zen.

*Karreraren lehenengoa*

*zijoan CUBINO*

*harek lehen atzetikan*

*zedukala PINO*

*baina ero(r)i in ziran*

*bera ta MARINO*

*Hala ta guztiz haiei*

*milaka animo!*

Nik banekien. Ondo asko nekien nortzuk ziren hiru txirrindulari horiek eta Vuelta a Españan zehazki zer gertatu zen bezperan. Nor zen lider eta nor erori zen.

Baina egia esan, ez nuen zertan jakin...

Saio hartan bertan, jarraian Unai Agirreri lau oin hauek eman zizkioten: ZAZPI / NOSKI / WHISKI / GAIZKI. Ez zirudien 12 urteko gaztetxo batentzat mundu erreferentzialik aproposena... *WHISKY...*

Baina Bertsolaritza hori zen: gizonezko helduen neurrian egindako moldea.

## ZER ZEN BADA BERTSO(LARITZ)A?

Bertsolaritzak bere manierak zituen. Bere elkarrizketa-moduak, bere harremanetan jartzeko era, bere zirto-hizkera, bere estetika, arrazoiketa, umorea... Eta hori zen, inkontzienteki ere, bertso-eskoletan transmititzen zena eta imitazioaren poderioz berritzen.

*«Al margen de su habilidad y formación para improvisar versos, los y las principiantes son educados en unas determinadas actitudes y técnicas corporales, que constituyen la postura típica del bertsolari, que, aunque con variaciones, es la de una persona de pies, erguida, bien plantada y que nos remite a su vez a un valor fundamental de la cultura vasca, como es la expresión de la “fuerza” [...]. En el caso del bertsolarismo no se trataría de una expresión de una fuerza física [...] sino más bien de la demostración de la capacidad de resistencia y aguante, del “saberestar”»<sup>10</sup>.*

Bertsolaritza hori zen, erantzunen zorroztasunean eta arrazoien pisuan oinarritutako jarduna, eta inork kontrakorik erakutsi arte behintzat, «horrela» egiten zen bertsotan.

Gaiak inguruari eta garaiari zegozkionak ohi ziren. Sozialki garrantzitsuak zirenak: egoera politikoa; euskara; bikote-harremanak —rol oso estereotipatuetan eta soilik gizonezkoen ahotik jokatuak—; familia; eliza; baserri-mundua eta lana; kirola; festa eta jan-edana...

Testuingurua, gizon-giroa zen. Festa; elkarte gastronomikoetan otordu oparoak (askotan emakumeek sarrera galarazia izaten zuten eta salbuespen bezala emakume bakarra bertsolaria izaten zen. Bertsolaria, eta garbitzailea, esan gabe doa). Jatea eta edatea balio bezala bizi zuen gizataldea, gehiago jan nahi ezik *exkaxtat* hartuko zintuena. Gaueko ordutegiak. Taberna-giroa... Zinema-aretoak eta frontoietako jaialdiak ere bai. Hizketa-gai klasikoki maskulinoak: ehiza, kirola, politika, emakumeak... Emakumeei buruzko komentario eta txisteak zu presente ez bazeunde bezala...Eta zu han. Mutu eta ikusezin. Edo ikusgarri baina insignifikante.

Ez nuen moldatu behar berezirik izan habitat hartan. Edo moldatzen jakin nuen, ez dakit...

Hura bazen nire mundua ere; nire modua ere.

Edo nik ikasi nuen modua...

Nire bertsotako jarrera sendo eta menderakaitza, ez nuen errepresentazioa zenik sentitzen.

(baina inkontzienteki bazen ere, bizirik irauteko modu bakarra zen)

10. Esteban, Mari Luz (2004): *Itinerarios Corporales*, Ediciones Bellaterra.

«*El de Arrate es un cuerpo joven todavía, en crecimiento, pero contundente, rotundo, de una pieza y esto hace que esté enraizado en la cultura vasca [...] un cuerpo acorde con la corporeidad del bertsolarismo [...]. Pero que implica al mismo tiempo un desafío para su propia cultura y desde el interior de la misma*»<sup>11</sup>.

Bertsolari(tzar)en formatan, «euren» maneran aritzea tokatzen zen. Eta geuk ere ez genekien bestela. Sendo, erantzule.

Orduan, *Neska horrek barrabilak zeuzkak!* esango zuten gizon adituek eta ustekoek, eta komentario hura onarpen keinu bezala ulertu behar zen.

«*Barrabilik duenik  
ez nuke esan nahi  
barrabildun batentzat  
leku polita bai*»<sup>12</sup>.

... kantatuko zuen orduan besteak eta denek barre egingo zuten.

Nik ere bai. Barre arina, derrigorra, erdi ez-ohartu-nahiago duenarena.  
Ohartu banintz, mingarriegia bailitzateke.

Barre desberdina. Konplazientea. Besteren etxean dagoenarena.

Inkontzientzia hargatik egin ote nuen aurrera?

Giro hartan irauteko ahots, gorputz eta jarrerak haiek behar ziren derrigor?

Garai hartan emakumezko fin, apain, zaindu eta femeninotzat jotzen diren ezaugarriak lituzkeen bertsolari bat, pentsaezina zen Euskal Herriko bertso-plazetan.

«*Sermoiek eta neskatxen gonak  
behar dute alde gutxi  
Izan behar dute ahalik motzenak  
ta ahalik gehien erakutsi*»<sup>13</sup>.

Bertsolaritza hori zen...

11. Esteban, Mari Luz (2004): *Itinerarios Corporales*, Ediciones Bellaterra.

12. «Emakumeak plazara», *Bertsolari aldizkaria*, 17. zk., 1995. Maialen Lujanbiori elkarrizketa.

13. Ahoz-ahozkoan jasoa.

**GAZTE-BELAUNALDIAREN BAITAN**

... baina ez hori bakarrik.

Niretzat, taldetasuna ezinbestekoa izan da bertsoaritzan.

Izatez, bertso-eskola niretzat nagusiki hori zen eta hori da: zaletasun bat partekatzen dugun lagunon taldea.

Nik ez dut bertso-eskolan ikasi bertsoan. Oinarri-oinarria bai, baina gero gehiago izan da testuingurua, bertso-kultura.

Ez nintzen bertso-eskolara astero joaten. Joaten nintzen apurretan ez kantatzen saiatzen nintzen.

Ikastolakoak ez bezala, orduko herriko bertso-eskolak bertsoaritzaren antza zuen: tradizionala, gizon helduek osatua. Ezezagunago nituen eta larritasuna sentitzen nuen han kantatu behar-eta. Beti ondo(egi) egin nahia.

Zorionez, baziren bestelako bertsolari gazteak ere taldean. Bertsolariari suposatzen zitzaizkion zaletasunez gain, beste interes batzuk zituztenak, beste erreferentzia soziokultural batzuk. «Garaikideagoak» esan dezagun; topikoki bertsozaleari «ez zegozkionak».

Nik hori behar nuen: bertsolariak/bertsozaleak izanik, bestelako (nere) kezka eta gogoak ere bazituzten lagunak. Eta anfibiotasun hori, ez zen hain ugaria, orduan, bertso-munduan.

Uste dut hori aurkitu genuela bertsolari gazteok gero «gazte-belaunaldi» bihurtuko zen hartan: elkar.

Eta taldea salbazioa izan zen.

Unai Agirre eta Jexux Mari Irazu Hernanin. Gero, Jon Maia, Iratxe Ibarra, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Estitxu Arozena, Xabier Silveira... gazte plazaratu berri haiek laster sentitu genuen nolabaiteko taldetasun ez-antolatu bat, belaunaldi-izaera bat eta bertso-mundura berritasuna zekarren olde baten kontzientzia lausoa.

**ZARTATUA**

Amurizak lehenik eta Egañak eta Sarasuak batez ere gero, bertso-gintzaren gaineko gogoeta beste maila batera eramana zuten: bertso-moldeez, hizkeraz, ideiez eta formaz gogoetan eta froga praktikoetan ziharduten.

Bertsozale Elkarteak sortu berria zen eta bertsolaritza kultur mugimendu bezala ikusaraztea lortu zuen.

Eskolarteko Txapelketetatik, bertsolari gazteak, banaka, plazaratzen hasiak ziren gure aurretik eta gure belaunaldiaren sartzearekin, ohiko saioak gaztetzeaz gainera, «bertsolari gazteen saioak» ohiko bihurtu ziren pixkanaka.

Bertsolaritza ez zen jada gizon helduen festa-giro hura bakarrik.

*«Bertsolariek, eta orokorki mugimendu honetan engaiatu direnek, gune eta formatu berrietan saiatzearen alde jokatu dute, telebistan sartzearen alde, bertsolaritzak orain arte ukitu ez zituen forma eta eremuak bilatzearen alde»<sup>14</sup>.*

Bertsogintzako berrikuntza-tanta haiek isuri-jarrai bihurtu ziren, eta gazte-belaunaldiarekin, isuria olde. Barru-barrurik eta gorantz, izerdi berriak arbolaren azala zartatuko zuen.

Korronteari indar eman genion edo korrontearen indarrak eraman gintuen gu.

Bertsolari gazteek, bertsolaritza garaikidetu eta euren mundura egokitu zuten. Jarrera, estetika eta gaitegi bestelakoak: drogak, maitasun eta sexu-harremanen gaineko diskurtso diferenteak, bestelako kultur erreferentziak, bestelako kantaera eta hizkuntza...

Bertsolaritza hiritartu zen. Tematikoki kalera eta garaietara egokitu. Formalki, ariketa artistikoak ugaritu ziren, musikarekin eta bestelako arte-jardunekin lankidetzak...

*Negu Gorriak* taldeak «bertso-hop» kantua grabatu zuen Egaña eta Peñagarikanoren bertsoak hip-hop moduan emanaz. Hura ondo ote zegoen ala ez zen eztabaida. Hura bertsoaren galgarri izango ote zen. Iraultza txiki bat izan zen. *Hertzainak* talde ezagunaren despedidan bertsolariek parte hartu zuten koplakantari. Eta abar eta abar.

Bertsolaritza bestelako irudia hartzen ari zen.

Espazio berrietara eramatea lortu zen. Aurrez pentsaezinak ziren soziologietara: gaztetxe eta rockzaleen tabernetara, esaterako.

Bertsolari neska-mutil gazteek eta euren ekarriak entzuleria gaztea eta emakumezko entzule gaztea erakarri zuten plazara.

**Azalaren zartatuetatik oxigenoa sartzen hasi zen.**

---

14. Egaña, Andoni; Garzia, Joxerra eta Sarasua, Jon (2001): *Bat-bateko bertsolaritza: Gakoak eta Azterbideak*, Bertsozale Elkarteak, Donostia, Andoain.

## ERREZELOEN ERREZELA

«Hori ez duk bertsoa, motel!», «hori ez duk euskara, motel!», «ez zaiek entzenditzen-eta!», «hori ez duk bertsolariaren itxura, motel!». Gazte eta berriok, gazte eta berrientzat ohi diren komentarioak sarri-sarri entzun genituen.

Nolabaiteko berritasuna genekarren plazetara; eta jakina, berritasunek mesfidantza. Errezela atzetik bezala begiratzan zigun zale betiko askok. Bertso-eskolan ikasitako belaunaldia ginen, ez «naturala», ez «benetakoa», ez «bertsolari jaioa». Demonstratu egin beharko genuen «bertsotan egiten genuela». Bestetik, gure manierak, hizkuntzak, umoreak, kantaerak, estetikak... errezeloa sortzen zuten euskal tradizioaren begibelarrietan. Kalekumeak ginen (!); bizkaitarrak gainera batzuk (!); neskak tartean, alajaina... (!).

Batzuentzat ez ginen (gara?) sekula «aski» bertsolari izango...

«Ni ez naiz sekula ohittuko emakumea bertsotan aditzen»<sup>15</sup>.

Emakumeak, bertsozaletasunaren zilborretik kanpokoak, etorkinen ondorengoak, hiriko kulturako jendea. Kasualitatea den ala ez, (eta salbuespenen bat salbu) bertso-tradiziotik gutxien edan genuenok egin genuen bidean aurrera. Edo bertsoez gain beste jardunetatik ere gehien edan genuenok. Espezie anfibiokoek.

Bertsoaren ekosistema aldarazten ari ziren elementu asko zeuden. Eta gazte-belaunaldi hark biziraupena erraztu ez ezik, bizileku ezinago interesgarri eta motibagarri bihurtu zuen bertsolaritza.

## PLAZARATZE «BEHARTUA»

Gazte-belaunaldi harentzat, ez transmisioa, ez plazaratzea ez zen modu «naturalean» gertatu. Ia bertsotan egiteko gai izan baino lehen plazara bultzatu gintuzten. Plazaratze behartua izan zen edo azkartua behintzat bai. Premiak eragindakoa seguru aski. Egoera linguistiko eta kulturalak. Jende gaztea behar zen, jarduna berritzeko, entzulea erakartzeko, bertsolaritza herren zebilen lekuetan erreferentziak sortzeko. Plazara bultzatu gintuen, berriz ere, komunitatearen superbibentzia-senak.

1992a zen. 15 urte nik. Telefonoak jo zuen. «Hondarrinbiatik deitzen dut», esan zidan emakume batek, «bertso saio baterako: Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Kristina Mardaras eta zu».

Izutu egin nintzen. Ni ez nintzen artean ia bertsotarako gai. Jendaurrean 8ko haundi bat osatzea aldiro basamortua gurutzatzea zen. «Ez, ez, ez» esan nion «ni ez naiz gai bertsolari haundi horiekin kantatzeko». Ez dut berehalakoan ahaztuko bueltan entzun nuena: «aizu, al toro por los cuernos, ezta?». Hitzik gabe utzi ninduen. Hain mutu, ze, isiltasuna baiezkotzat hartu zuen eta berriz Hondarribian egin nuen nire bigarren eta benetako debuta.

*Al toro por los cuernos... Zezen-plazara bultza egin ziguten.*

15. Plazan, ahotik belarrira jaso.

## EMAKUMEEN SAIOAK

Hondarribikoa, 1992ko martxoaren 7a zen. Bi emakumezko eta bi gizonek osatutako saioa antolatu zuen Emeki emakume-taldeak. Pentsaezina zen halako laukorik bertsotan garai hartan. Behartua zen. Kristinak ez zuen oso sarri kantatzen. Ni, hasi berria, ez nintzen gai bertsolari haiekin kantatzeko.

Behartzea ez dela beti txarra, emaitzek erakutsi dute...

Nik, beldur handia nuen *behartze* horrekin....

Hasiera haietan, kuriositate bezala saio askotara deitzen gintuzten «neska bertsolariak». «*Hara hemen zer dugun emakume (bizardun) bat!*» tonuan.

Bultzadatxoa eta paternalismoa elkarrengandik gertu sentitzen nituen, askotan gure benetako bertso mailarekin konfiantzarik ez baitzuten izaten. Adibidez, gaiak aurretik emateko keinua egiten zuten zenbaitek, gero saioa desorekatu ez genezan.

Erakutsi nahi gintuzten baina ez gintuzten erabat «sinesten».

Ez. Inseguritatea transmititzen genien.

Gazteok oro har. Neskok, are gehiago.

Ez genuen saiorik falta izan aro hartan. Neska izanda errazago zela kantatzea, «diskriminazio positiboa» esango zuen batek baino gehiagok. «*Emakume bertsolariek diskriminazio konbinaketarik txarrean jasaten dute: positiboa deituak diren garaian eta negatiboa epaitzen ditugunean*»<sup>16</sup>.

Gazte-belaunaldiaren baitan, bertso-eskoletan abiatutako neska gazte zenbait baginenez, (Estitxu Arozena, Estitxu Fernandez, Amaia Telletxea, Iratxe Ibarra, Ainhoa Munitxa...) antolatzaile batzuk «**emakumeen saioak**» egiten hasi ziren, aleka, han eta hemen.

Gauza kuriozosa bazen neska bat bertsotan aritzea zer esan bost emakumek osatutako saioa!

«*Gaia: Zer sentitzen du neska batek mikrofono aurrean bertsotan?*»<sup>17</sup>.

16. Egaña, Andoni (1995): «Emakumeak plazara», *Bertsolari* aldizkaria, 17. zk.

17. Pello Urretabizkaia. Lazkao, 1990-07-10. BDB Xenpelar Dokumentazioa Zentroa.



Niri *emakume* lehen aldiz oholtzan deitu zidaten.

Nik nire buruari *emakume* lehen aldiz bertsotan esan nion.

Kanpotik deitzen zidaten *emakume*. Ni, mutiko arteko neskato izan nintekeen, baina Nik *emakume* entzunda ez nuen nire burua ezagutzen.

15 urteko ni, lanketa ideologiko berezirik gabeko gaztea nintzen, artean.

Ez aktiboki militantea.

Gazte-belaunaldiko bertsolariok, jendaurrean hazi gara eta bertsolaritzak hazi gaitu.

Bertso-munduak planteatu zizkigun galderak, bizitzak berak baino lehen: identitatea, etika, maitasuna eta sexua; politika eta gatazka; eta emakume izatea, berdintasuna eta feminismoa.

Emakumeen saioak ez zitzaizkidan gustatzen. Poza baino kontraesan gehiago ematen zidaten. Bultzadaren eta errukiaren/paternalismoaren mugan sentitzen nituen. Errebelatu egiten nintzen. Ez genuen «berezitasun» horren beharrik. Gu mutilak adina baginen eta euren maila hartuak eta baloratuak izatea defendatzen nuen. Ez baitzen erreala emakumeen saio bat egin ahal izatea. Ez genuen mailarik!

Saio haiek aldarrikatu nahi zuten gai ginela eta erakusten zuten ez ginela gai.

Hura, kontraproduzentea zen.

*«Neska soileko saiorikan ez*

*bagera gehiorako gai.*

*Gizonezkoen tarta honetan*

*Krema ez dugu izan nahi»<sup>18</sup>.*

Feminismoak prentsa txarra zuen gainera garaian. Gu parte ginen giza talde gehienik-ezkerreko eta erabat-euskaltzale hartan ere bai. Neska gazteok ere ez geneukan geure burua feministatzat, nahiz feminismoaren oinarriekin bat egin. Taldeko izan nahi genuen, bereizketarik gabe.

Gainera, gure belaunaldian, gaindituak uste genituen kontu horietako asko...

---

18. Maialen Lujanbio, Bertso Eguna 1993.

Bestalde, garai gatazkatsua zen politikoki. Gatazka armatua, gizartean tentsioa eta elkarren *markajea* handia. Euskal gizartea oso bitan zatitua zegoen. Ez zegoen ñabarduratarako lekurik: denak zuen bere etiketa, bere aldea eta bere esanahia. Feminismoek ere bai.

Botereak, *herri-kultura* deitzen zuena gutxien zuen, bere esanetara ez zegoelako, kritikoa zelako, besteak beste. Kontrabotereak, berriz, interesgarri zitzaion guztia beretzat hartu nahi izaten zuen. Bereganatu eta baliatu.

Ez zen erraza norebere bideari eta hitzari eta ahotsari. Independentzia.

Nire obsesiorainoko kezka izan zen (eta da), *erabilia* ez izatea.

*Emakumeen saioetara* ez joaten saiatzen nintzen.

Akaso nire auto-lotsa izango zen? Pentsamendu patriarkal neureganatua?

Nire orduko begiradan, hura kontraproduzentea zen.

Behartzea ez dela beti txarra, gero emaitzek erakutsiko zuten...

Baina, garai hartan, entzule, ohitura, gaitegi, bertso-molde eta entzule-soziologia harekin, nola jokatu?

Neurgailu estandarretan leku egin, media baino hobea izanik errekonozimendu orokorra lortu eta entzuten zaituztenean, orduan barrutik moldea mugiarazten saiatu?

Ala, jarrera gogorragoarekin, moldea bera lehertu; txiki-txiki egin eta gero berri justuagoa eraikitzen hasi?

Bertsolaritzan eta 90.etan, ezinezkoa zen bigarren aukera hori. «Onartu» ez bazaituzte, entzuten ez bazaituzte, zilegitasunik ez baduzu audientziarentzat, ez dizute deituko, ezingo duzu esan, ez zaituzte entzungo, beraz ezingo duzu moldea apurtu.

Ezinbestean, lehenengo aukera zen nire estrategia.

Bidea oso pixkanakakoa eta luzea izango zen. Izango da.

**HEIDI ETA AITONA**

Gazteen saioa aldizkako eta emakumeen saio bakanen oinarrian, saio betikoek zuten pisua.

15-16 urteko neska gazteak, giro tradizional batean, gizon heldu eta trinkoei bertsotan eraso egiten entzuteak, errekonozimendurako bide bakarra izateaz gain, izugarritzko efektua egiten zuen.

Gainera, senar-emazte, ama- seme, bikote heterosexualak jokatzeko garaian, gaiei errealismo handia ematen genien. Emakume bat ari zen lehenengoz emakumearen ahotik kantatzen.

Bertsolari kideek abegikor eta babesle hartu gintuzten plazan. Hainbeste ze, paternalismora eramaten zituen adin-diferentziak eta gu neskak izateak. Umetu egiten gintuzten. Gure kirako mutil gazteekin harreman parez parekoago bat zutela esango nuke nik. Anaitasun bat. *Hi-tik Hi-ra*.

«Neska gaztea gizon sendoari ausart erantzuten» hura, ordea, laster bihurtu zen txalo errazerako bide aurreikusgarriegia. Gai-jartzaileek ere hartara nabarmenegi bideratzen gintuzten: «*Mañukorta eta Maialenek gaur dute beren ezkon-gaua*»<sup>19</sup>.

Nekatzen hasita nengoen.

Beste zer bait esan eta izan nahi zuenarentzat bide motza zen hura.

Hasierako txalo handien efektua itzaltzen joango zen denborarekin. Aho biko labana zen arrakasta azkarraren hura, irteerarik gabeko bidea.

Agortuta beti rol eta tonu bertsuetan. Hori baino gehiago banintzen...

Baina nondik jo? Nola berrasmatu norbere burua?

Krisi intimoak latzak badira, latzago krisi intimoak jendaurrean.

*Gainera, zertan ari zara?! pentsatzera heldu nintzen, «igual, bertsolaritza hori da...». ni banintzen azkeneko iritsitakoa eta ni banintzen ezin-kabituta deseroso nenegoena... akaso ni nengoen oker.*

*«Igual, dena izorratzen ari zara»(sic).*

Bi korronteren arteko zurrumbilo momentua zen: tradizioaren azal gogortuak eta belaunaldi gaztearen izerdi berria. Kriki-kraka.

---

19. Memoriaren zakutik.

Ideologizazio ikasirik gabe, lanketa feministarik gabe, konplize gehiegirik  
gabe, senez...

Bizitu ahala pentsatuz nindoan.

### *TXIMELETARENA*

Nerabea haziz doa eta handituz eta helduz eta eraldatuz. Gazte denerako lehengoaz beste zerbait ere bada. Beste gauza asko.

Oskola hautsi beharra zegoen.

Ez zen xamurra izan.

Irudi bat egina dizu jendeak zure azalarekin eta zu barrutik jada beste zerbait  
zara.

Gogorra eta zaila izan zen, gaiak beste helduleku batetik heltzen hastea;  
umore errazegirako zirenak serio hartzea; gizonak erraz zirikatzeke gaien  
iskin egitea... Hasieran ez zen ulertu. Txalo hutsak biltzen pasatu nuen aro  
bat. Entzuleen ustez, aukera  
pare-parekoak alferrik galtzen.

Baina pixkanaka ulertu zen: ez zela aukerak galtzea, beste aukera bat hartzea  
baizik.

Txaloak sakrifikatzea latza izan zen, baina luzera emankorra.

(H)arraren oskola hautsi eta barrutik lehen ez bezelako zerbait agertzen hasi  
zen: koloretsuagoa, indeszifragoia, delikatuagoa, konplikatagoa.

### *PRAKTIKATIK TEORIA*

2000ko lehen hamarkada. Plazatan atzera begiratzeko adinako bidea ibilia genuen.

Bideko sasiek zauritu gintuzten, nahiz eta momentuan ez konturatu. Zorionez. zauri  
horien inkontzientziak lagundu zigun, segi eta segi, aurrera egiten. Gero, atzera  
begiratzean errekonozitu genituen orban haien zergatiak.

Inkontzientziak muga bat du. Kolpe txikien pilaketan ubeldua azalarazi zuen  
azkenerako. Guk geuk egindako bidea ulertzen hasi ginen. Zauri zaharrak hazkura  
ematen hasi ziren eta orduan zauri berriek min.

Bertso-munduko eta bertso-eskoletako beste **neskekin sentipenak partekatzen**  
hastea izan zen gakoia. Instantean ulertu genuen elkar. Esperientzia konpartitua zen:

Babarrun-eltze baten inguruan hitz egindakoak, urteetako bizipen konpartituak,  
hitzaldi bilakatu ziren Oleretan 2007an «Emakumea bertsolaritzan» titulupean.

Han azaldu zen egindako bidearen a posterioriko irakurketa bat, askoren artean osatua<sup>20</sup>:

### **BERTSO-ESKOLETAN**

- *Heziketagatik, neskak ez daude entrenatuta espazioa okupatzeko, jolasetan, adibidez; zentroa izateko eta jendaurreko jardunetarako.*
- *Mutilak beti badu a-prioriko errekonozimendu sozial bat, eta gero egingo du egiten duena. Neskak, aldiz, a-prioriko kusionatze bat du eta gero egingo du egiten duena; eta egin beharko du 3 aldiz ondo, hain zuzen zalantzatik/minusetik abiatzen delako.*
- *Bertso-eskoletako neskak oso perfekzionistak izan ohi dira. Perfekzionistak autodestruktzoraino. Zergatik? «Ez dagokizun» leku batean egotea justifikatzeko modu bakarra delako egiten duzun hori oso-oso ondo egitea. Indiskutibleki ondo.*
- *«Bertso-eskola idatzizkoa bakarrik balitz, neskak zoriontsu izango lirateke».*

### **NERABEZAROA**

- *Beti da ataka gogorra bertsotan jarraitzeko (eta neskenzat bereziki). Askok utzi egiten diote kantatzeari adin horretan: sozializazioa eta jendaurrekotasuna dira adin horretan plazaratzeko arazo gogorrenak.*
- *Autokonfiantza eskasa da oro har nesken kasuan: Ez dute sinesten euren hitzak inporta duenik. Beraientzat gai garrantzitsuak direnak, sozialki garrantzitsuak direnik. Eta sozialki garrantzitsuak diren gaiez eurek ezer esan dezaketenik.*

### **JENDAURREAN**

- *Noiz egon da herri bat neska bat/bi neskak esango/kantatuko dionaren zain? Haiek entzuten? Haiek zentroan direla, haiei begira?*
- *Zergatik identifikatzen gara eta sufritzen dugu kantari ari den neskarekin? Zergatik ez utzi bera izan dadin? Ez zara zu. Bera ari da. Bereiztu zaitez. Emakume bakar hura, denen ordezkari sentitzen da eta entzule garenean denon ordezkari sentitzen dugu. Ardura handiegia da. Ez dago huts egiteko zirrikiturik.*
- *Jendeak gehiago sufritzen du neskak entzuten. Neskek inseguridadea sortzen dute entzulearengan.*

---

20. Lujanbio, Maialen: «Emakumea bertsolaritzan», BDB, Orereta, 2007-05-11.

Definitzeko eta defenditzeko zailagoak diren sentipenak ere baziren,  
denok errekonozitzen genituenak:

saioretan edo bileretan aintzat hartuak ez sentitzea; hitzek pisu desberdina  
dutela emakume edo gizonezkoen ahotan; lagun artean ez genuela  
hizketarako tarterik; gure txisteez ez zutela graziazirik...

Sentsazio horien guztien hondo-hondoan, esperientzia konpartitu bat zegoen:  
(hitzaren jabe den) emakumea izatea, (jende aurrean) gizonezkoen munduan.

### **IDEOLOGIA ETA ARTEA**

Pentsatu ahala bizi eta bizi ahala pentsatu. Plazako ibilian gure martxan jarraitzen  
genuen. Errealitatearen oinarri desorekatuez gero eta kontzienteago.

Emakumeok beti rol bertsuak jokatzen genituen, pertsonaia arketipatu eta  
absolutuetan: neska-laguna, ama, andereñoa... Gizonezko pertsonaiak askoz  
ugariagoak eta ñabartuagoak ziren. Beti «pelikulako neska» izan behar hori salatzen  
hasi ginen, eta bestelako emakume batzuk marraztu nahian...

Emakumeen ordezkariak sentitze horrek sorkuntza ere baldintzatzen zuen: etengabe  
hautatu behar zenuen zer lehenetsi: eduki ideologikoa? ala artistikoa? «*baserritarra  
zara*», «*futbolaria zara*», «*jubilatua zara*» entzutean, eta jakinik entzuleek  
automatikoki gizonezko bat irudikatu zutela, sentitzen zenuen jendearen buruetan  
beste errealitate batzuen posibilitatea sortzeko erantzukizuna. Bertso bat, puntu pare  
bat, «sakrifizioan eskaini» beharko zenuen baserritar hori emakume baserritarra zela  
adierazteko.

Edo gaien planteamenduan halako topiko sexistaren bat salatu beharrekoa zenean,  
saioko emakume bakarrak sentitzen zuten *nik ez badut esaten ez du inork esango...*  
Gizonek ere berdin sala zezaketen, baina ez zen hori gertatuko zen esperantza  
handirik izaten.

Eta nola salatu eder-esanez eta eder-esan salatuz. Alegia, nola kritika egin baina  
bertso-moldean, modu artistikoki eraginkorrean.

*Emakumea, emakumea, emakumea...* Nekatuxea ere banangoen ordurako,  
galderekin, ardurarekin, aipamenekin... beti gai honekin. Baina mintzen  
ninduen, eta mintzen zaituenak bizi zaitu.

Ni (eta gu, bertso-munduko emakumeak) nekatuta eta, aldiz, ohartzen  
nintzen, inguruko askok ez zutela sekula gai hau planteatu ere egin.

## **LAINOA LANBROTZEN**

Plazan egindako lan «zikin» eta sotil horrekin batetik, neska gehiagoren presentziarekin bestetik, taldean hizketan hastearrekin, gure sentipenak teorizatu eta konpartitzearekin eta gazte-belaunaldiaren mentalitate aldaketarekin, hasiera hartako traba agerikoenak desagertzen ari ziren: gai nabarmenki desegokiak, erantzun narrasak, jarrera itxiak...

Kezka eta sentsibilizazioa zabalduago zegoen, entzuleen artean, Bertsozale Elkartean, gai-jartzaile eta bertsolarien baitan...

Lehenengo sasiak, agerikoenak, gainditu genituen. Laino potoloak saretzen hasiak ziren. Guk geuk ere ikusten ez genuen laino baten barruan ibiliak baikinena... Ikusmira argitzen hasi zen.

Lainoa lanbro egitea ordea, ez da desagertzea, ikusezinago eta ulergaitzago, lausoago egitea baizik.

## **BERTSO EGUNA: Emakumeen saioak berriz?**

Emakumeon artean zurrumbiloa sortzen hasia zen. Pentsamenduarena, konplizitatearena, grinarena, aldatu nahiarena, kritikarena. Sentitu egin zitekeen, nondik norakoa zen ulertu ez arren askok.

2008an, zurrumbilo hari presentzia eman nahi-eta, bilera bat deitu zuen Bertsozale Elkarteak, proposatzeko, urteroko festa handia den Bertso Eguna *generoa* gaitzat hartuta egitea eta emakumeek osatutako saioa izatea.

*Baziren aldeko iritziak. Ez nirea. Berriz ere «emakumeen saioak» ikusten nituen proposamen hartan; eta berriz ere, «aldarrikatuko dugu gai garela eta erakutsiko dugu ez garela gai», beldur hori...*

2008an ez, baina 2014an egin egin zen genero-gaiaren bueltako Bertso Eguna, «Azalera» titulupean eta kantu taldea emakumezkoek osatu genuen erabat.

*Ahul-antzekoa irten zitzaigun artistikoki. Baina, Bertso Eguna askotan izan den bezain ahula, bestalde... Hau, ordea, emakumeena zenez eta «erakutsi» egin behar genuenez —beti a-prioriko zalantza hori gainditu—, eta nitaz eta gutaz ari zenez, mingarriagoa zitzaidan askoz.*

Aje gogorra bezain betea utzi zuen generoari buruzko Bertso Egunak. Bazterrak astindu zituen barru eta kanpo. Bertsolariak, zaleak, aldekoak eta kritikoak, bakoitza non geunden azaltzeko balio izan zuen. Ez zen alferrikakoa izan.

Behartzea ez dela beti txarra...

«[En política] No soy una loca de las cuotas, pero en la práctica te das cuenta que hasta que estamos realmente mezclados todos, razas y genero, pasa que hay una carencia. Puedes poner diez hombres muy sofisticados, feministas y lo que quieras, pero al final no van a tener el mismo resultado que si hay cinco chicas y cinco chicos»<sup>21</sup>.

### **WORK IN PROGRESS**

Bakoitzak bere digestioa egin genuen. Baina ukaezina zen urte batzuetan gauzak dezente aldatuta zeudela. Aldatuta daudela.

2010etik (data-inguru bat ematearren) neska gehiago eta elkarren artean «desberdinagoak» gabiltza plazan. Bertso maila gero eta hobea da eta diskurtsoak aniztu eta indartu egin dira...

... beraz lehen ez bezalako premiak dauzkagu. Elkarren desberdinak:

Emakume gazteek, emakume artean kantatu nahi eta beharra aipatzen dute, horrek eragiten dien ahalduntzeagatik eta gai eta kantaera diferenteak garatzeko.

Aldiz, bide bat egin eta errekonozimendu eta erreferentzialtasun orokorra lortzea borrokatu duenarentzat, gutxieslea eta injustua gerta daiteke  
«emakume» izendapen hori;

*emakume bertsolari* (bakarrik) deitzea; *emakumeen* sailkapenetan sartzea.

—«Neska honek egin egiten dik bertsoan, e?!»

—«Bera zegok onena emakume mailan

[...]

eta bestela ere...»

Euskal Herriko txapeldunordea nintzen (ez da beti neurgailu zuzena baino) elkarrizketa hori nigatik eta nire aurrean konposatu zutenean.

*Bestela ere...* orain, emakume bakoitzaren lekuari eta momentuari egokitutako aukerak beharko dira.

Lehengo testuinguruak onartuko ez zituzkeen estetikak ageri dira oholtza gainean, arropak, ahotsak, makillajeak eta gorputzak. Beren bideko une desberdinetan dauden emakumeak, eta neska gazteak. Eta diskurtsoa, eztabaida, kezka-gogoa, bizi-bizi dago.

21. Despentés, Virginie. *Otra vuelta de tuerca*, 2018-03-24.



## **HOMO-HAMARREKO TXIKIAN**

Orain lasaiago kanta daiteke. Lasaiago entzun eta lasai barre egin. Gai horiekin...

1994an, ez zen hain xamurra. Donostiako Victoria Eugenioan, 25. Bertsolari Eguna ospatu zen. Omenduak bederatzi gizon bertsolari oso edadetu<sup>22</sup>. Entzuleak araberakoak. Solemnitatea eta errespetua aipatzen ditu eguneko kronikak<sup>23</sup>.

Bestela esateko gai ez ginelako artean, bestela entzuterik izango ez zelako orduan, bertso-paper idatziekin egin genuen. Harreman homosexual baten kontaketa zen<sup>24</sup>. Probokazioa zela bagenekien. Krakatekoa.

Listua eztarrian pasatzen, entzuten ez den gauza da, baina nekez pasatakoak izango ziren. «Ulertu» bazuten...

1995ean, Sarasua eta Egañari «*Zuek bi lagun zarete, biak mutilak. Nonbait oporretan zaudetela-eta kanpina hartu eta Karakate mendira joatea pentsatu duzue. Gaua pasatu da eta goizean biok zaku berean esnatu zarete*»<sup>25</sup> gaia jarri zieten Elgoibarren. Bat-batekoa konprometituagoa da. Jendeak zerbait espero du eta aurrez aurre duzu masa. Egañak eta Sarasuak, garaiko aurreikuspen (eta exijentzia esango nuke) guztien aurka, gozotik heldu zioten gaiari. Korronte kontran.

Behin baino gehiagotan aipatu izan da suposatu zuen kolpea.

1997ko Txapelketa Nagusiko finalean, Joan Maia eta Unai Iturriagari gai hau egokitu zitzaion: «*Bi neska zarete, beti hurbileko harremana izan duzuen bi lagun min. Konturatzen ari zarete zuena adiskidetasuna baino zerbait gehiago dela*»<sup>26</sup>. Oraindik gogoan dut gaia entzun ahala publikoaren zurrumurru-barrea nola entzun zen. Grabaketek ere jasoko dute, noski.

### **Maiak**

*Gaia esandakoan*

*hara ze iseka!*

*Ez dakit zertan hasi*

*zareten barreka? (bis)*

22. Joxe Manuel Arriola, Manuel Matxain, Inozentzio Olea, Jesus Lete «Ibaiertz», Guillermo Albizu, Xalbador Zapiain «Ataño», Sebastian Salaberria, Joxe Aierbe eta hil berria zen Luis Rezola «Ximela» (+).

23. <https://www.eitb.eus/eu/audioak/oso/590929/bi-mutilen-arteko-maitasuna/>

24. Mikel Markez, J. M. Irazu, Maialen Lujanbio «Zertarako mugak jarri».

25. <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/jjuao>

26. <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/k1pvk>

Jon Maiak ere entzun zuen eta are gehiago, ausart heldu eta jendeari aurpegiratu. Brillantea izan zen muturrekoa eta, ondorioz, bertsoa. Baina ondorengo egunetan eztabaida gehiago zen ea hori eginda Maia «gaitik atera» zen ala ez.

2016an, ia hogeit urte geroago, Bizkaiko Txapelketako finalean egokitu ziren Nerea Ibarzabal eta Miren Amuriza kantari. «*Miren, Nerea Boliviatik etorri zan Euskal Herrira eta hemen ezagutu zenuen alkar. 4 urteko alaba bat daukazue. Nerearen familiak ez dau zuen alaba ezagutzen. Lehenengoz joango zarie Boliviara neguko oporraldian*»<sup>27</sup>.

### **Amurizak**

«... nire amona baita  
gozoa, epela  
ta uste dut bera ere  
lesbiana dela»

### **Ibarzabalek**

«... asko maite zaitut ta  
gora “Bollivia”»

Miribillako milaka pertsonak gora-goraka jarri zituen bertsoaldi honek. Onarpena ez ezik, arrakasta itzela lortu zuen. *Bollera* eta *bollivia* hitz-joko hori masarentzat ulergarria zen, hasteko, eta funtsean zuen ideiak txalo zaparrada sortu zuen.

Badago aldea!

Lehen ohiko ziren *Barrabilik duenik ez nuke esan nahi / barrabildun batentzat leku polita bai...* eta gisakoak pentsaezinak dira orain.

Edo ez?

Posible badira, ez dira erantzun gabe utziko. Eta hori ere bada zerbait. Parez-parekora hurreratze bat.

Testua eta testuingurua aldatu da. Aukera sorta zabaldu: elkarre gastronomiko eta herri-kirol girotik, bertso-afari feministetara, tartean zinema, gaztetxe, taberna eta jaialdiak pasatuz.

Espazio berriak lortu dira zaharrak galdu gabe. Denetarako eta denetariko bertsolariak daude.

---

27. <https://bdb.bertsozale.eus/web/bertsoa/view/14455c>

Sorkuntzarako baldintzak dira ederrak orain! Gaitegia askoz aberatsagoa da eta interesgarriagoa. Berria kasu askotan. Umore-gai, metaforizazio, eremu semantiko oso bat dago lantzeko.

*Zure lorea nola dagoen*

*Nahiz eta ez zaidan inporta*

*Imajinatzen saiatuko naiz*

*Baina ez zaitut gorrota*

*Zabaldu hankak, kendu izarak*

*Ta erizain, zerbait topa:*

*Zure masusta zail da aurkitzen*

*Sasiak janda dago ta<sup>28</sup>.*

Emakumeen «ordezkari» izateko sentipena partekatua da. «*Nik ez badut esaten beste batek esango du*». Jolas egin dezaket, jolas bakarrik. Lasai.

Egile bezala, espazioa askoz handiagoa da bestelako erregistroak ERE lantzeko. Zakar (ere) izateko, itsusi (ere) izateko, inkorrektu (ere) izateko.

Sorkuntza lehenesteko, ideologia puruaren ginetik. Arnasa da.

Emakume bertsolariak bere inguru guztia mugiarazi du. Izerdi berria arbolaren azala zartatzen ari da berriz.

... eta, jakina, ez dago zartaturik zauririk gabe

### ***HURBIL, AMILDEGI BAT TARTEKO***

Zartatuak mugimendua sortzen du eta mugimenduak beldurra.

Plazan genero-desberdinkeriak zuen eraginaz autokontzientzia gehiago hartu eta berbagai bihurtzen hasi ginenean, gazte-belaunaldian konplize handien izan nituen gizonekin, amildegi handi bat sentitu nuen bitarteko. Urteetan elkarren ondoan aritutakoek elkarren berri guztiz ez bageneki bezala.

Oreretako hitzaldiaren ostean batek esan zidan moduan: *hori guztia noiz gertatu da?*

Leku berean geunden, baina bide desberdinetatik iritsita.

---

28. Amaia Agirre, Usurbil, 2013-03-07, <<https://bdb.bertsozale.eus/intranet/grabazioa/view/15368>>.

Emakume izanik eta izanagatik bizitakoak, ez ditut kide gizonekin askotan konpartitu. Nire koldarkeriagatik akaso... Taldeko, eta euren mailan *nor* izateko hainbeste ahalegin egin ondoren, eurengatik bereizi nahi ezagatik, behar bada... Edo eurei ere disposizio eta interes handirik ez nielako igartzen... Euren beldur eta deserosotasun puntua usaindu zitekeelako... Ulermen onik ez aurreikusteagatik... Eurak «gure kontuekin» ez «molestatzeagatik», seguru asko... Neska gazteagoen hasierako bizipen eta irakurketekin ez nuelako ehuneko ehunean bat egiten... Zerbaitegatik ez dugu gure belaunaldikook gai honetaz sakon hitz egin izan.

Genero-desorekaren injustizia azaleratu genuen. Urteetan jende askok landu du, norbere baitan eta publikoki bertso-jardunean. Egun, jada bertsolaritzak ezin dio gai horri ihes egin.

Gizonak, kasurik onenetan, ideologikoki eta teorikoki ados daude, baina kosta egiten zaie *ikustea*. Emakumea, bizipenetik dago *hor*. Bizi duelako, eta ideologikoki landu duelako, ia dena *ikusten* du. Ia denean ikusten du (egoten baita) genero-desoreka.

Gizonen kezka sentitzen hasi gara, bertsolaritzaren —eta gizartearen— antzaldatzearen aurrean ezin lekua hartua, «*zer esan behar da gai honetan*» bat airean. *Asmatu ezin* horretatik badago erantzunen eske bat; gizon askok iritsi nahi du azkar erantzunetara, bidezidorretik, eta beren buruari galdetu gabe.

Deseroso daude. Estreinakoz, ez dira gunegunekoak. Eta bitxia da ikustea nola, gu beti egon garen *beste* leku horretan, orain, gero eta gehiagotan, eurak dauden. Testuinguru batzuetan eurak dira *beste*.

Hori ez da berez poztekoa, baina bai aldaketa-seinale; seinale ona.

Orain, bestelako bertsokera bat (ere) ikasi behar da, beste gai batzuetan zure ikuspuntua eman, beste terminologia bat maneiatu.

*Cubino, Pino, Marino, Animo...* oroitzen? Hura ere ikasi egin behar zen.

Oinpean lurra mugitzen ari da eta horrek ziurgabetasuna sorrarazten du.

Denontzat. Niretzat ere bai. Egin ez dudan eta egiten ez dakidan bertsokera bat dut ikasgai.

Guk, futboleak ikasi genuen baina orain jokoa aldatzen ari da.

Deserosotasuna da hazteko lekurik onena.

Beldurak beldur, bertsoaritzaz bizi duen talde humanoa —eta Bertsozale Elkartearen bera mugimendu antolatua gisa— lur oparo eta emankorra da halako gaien talde-lanketarako.

Lehen ere, jarrera-zabaltasunak ekarri gaitu honaino.

### ***ORAIN (herenegun)***

*Lehenengo* eta *betiko* bertsoaritzaz ez da desagertu hala ere. Bistara apalago dago akaso. Baina *betiko* bertsokeraren balioak eta moldeak sendo daude oraindik. Buruegiturak eta buruegitura sozialak ez zaizkigu hain azkar aldatzen. Bertso-gai handi eta prestigiotsuak lehengoak dira, oraindik. Oinarri-oinarria ez da ziurrenik hainbeste mudatu, baina badira dardara-guneak, eta gero eta gehiago.

Gizartearekin garaikide, diskurtso feministaren bultzadaz, bertso-munduan egindako lan teoriko eta artistikoarekin eta jendarte oro har sentibilizatuagoa lagun, joko aldatzen ari da bertso-plazan. Ez alferrik, emakumezko bertsolari gazte askok hartzen du parte plazan, eta pertsona horiek euren bizipenak txertatu dituzte diskurtsoetan. Emakumei\* asteriskoa ere jarri diegu. Eta emakumeek\* hitza hartuz gero, eta plazak haien hitzari zilegitasuna ematen badie, ezinbestean, pertsona horien bizitzak plazaratuko dira. Emakume\* horien bizipenak. Eta hor entzungo dena, egundaino entzun gabea izango da.

A zer mauka! Zer eremu zabal eta zapalgabea kreazio-lanerako eta zer eremu aberats eta berri bertsozaleen adimenerako.

Emakumeen arteko zurrumbiloa indartzen ari da. Kezkak eta ezinegonak konpartituak dira. Saretuta dago hein handi batean emakume bertsolarien taldea. Nolabait bertsoaritzaren errotaio-norabidearen barruan beste norabide batean doan zirimola baten indarra sumatzen da. Eta emakume bertsolarien zirkulu horretan sormena lantzen, egoera teorizatzen eta auto-sinesmena elikatzen badaramate denboratxo bat.

Ahalduntzearen mareagorak baditu egile bezala bere arrisku batzuk ere.

2016an Ahalduntze Bertso Eskola sortu berrira gonbidatu ninduten eta han, espazio ez-misto eta seguruan, han, gure artean, kritika eta autokritika egiten ausartu nintzen:

*Bertso-mundua basa-oihana da, esan nuen, ez da beti norbere gustuko habitata, eta hor,*

*irauteko eta bizitzeko,*

*zaildu beharra dago forma horietan ere; habitata bera aldatu arte behintzat.*

Bertsolaritza den bizilekua egurasten saiatzea beharrezkoa da. Denentzat berdin balio ez duten manera horiek salatzea, *betiko moduen tirania* errekonozitzea: boz ozena, petxua kanporantza kantatzea, agresiboa izan beharra, erantzulea, kemena adieraztea, gai «inportanteetan» iritzi ziurrak izatea...

Baina galbahe estuaz bereizi behar dugu, badirela ezaugarri batzuk gure *gintzak* bere-berezkoak dituenak: ahotsa, kantua, entzuleekin komunikazioa lortzea, jendaurreko presentzia...

Negoziagarria dela beti NOLA, baina ez ditzagula gutxietsi ZERA hauek. Ahotsaren, kantaeraren eta jendaurrekotasunaren kontzientzia bat behar da. Eta ardura hartu. Saioen ardura konpartituari heldu.

Teoria praktikaren aurretik jartzeko arriskua ikusten nuen. Guri, bizitu aurretik egin zizkiguten plazan bizitzako galderak, eta oraingoek bizitu aurretik badakizkitez erantzunak. Zorionekoak eurak! Lan handiak aurreztuko dituzte!

Baina aldeztu aurretik irakurketa politikoa egina izateak ez gaitzala autoexigentzia jaistera eraman.

Esan nahi nuen, desberdin entzunak izango garela jakinik ere, horrek ez duela edozein moduzko bertsokera justifikatzeko balio behar.

«*Ez naute baloratzen eta...*», askotan egia izanik ere, hori ezin dela zuk zeure buruari ez eskatzeko ezkutalekua izan.

Ahalmen kritikoa garatu dugu. Orain sorkuntza maila berean ala hobean jartzea tokatzen da. Zer esan asko eta ona duten gazteek *bertsotan* egin behar dute, eta modu eraginkorrean esaten ikasi.

Akuilatu egin nahi nituen neska gazteak. Kritika baino gehiago motibazioa izan nahi zuen. Exigentzia artistikorako konpromiso-eskaera zen.

Biktima izateari utzi, salatzeari utzi gabe.

Kexatzeari utzi, haserretzeari utzi gabe.

Lanean jarraitu behar dugu egituraren baitan eta aldi berean egitura aldatzen saiatu.

**ORAINAGO (atzo)**

Hain da mugikorra lurra, ze esan berri nituen gauzeekin ere ez nagoen erabat ados.

*«Bai, baina bertsotan egin behar da», ez diot akaso entzutea gehien merezi duenari esaten, baizik gehien inporta zaidanari. Min gehien ematen didanari.*

*On izateko bi aldiz on izan beharko duela badakidanari. Eta konplize dudanari.*

*«Bai, baina bertsotan egin behar da» basa-oihanean nor izateko.*

*Gizon gazte bati esaterik bururatu ez zaidana.*

*Batetik, gizonen biziraupenak ez nauelako kezkatzen, bidea eginagoa dutelako eta bat ez bada beste bat aterako delako.*

*Neskena, oraindik larritasunaren muga dagoen kopurua eta egoera da.*

*Eta bestetik, gizonezkoentzat onartuago dagoelako erdi-mailako izatea ere.*

*Orduan, arriskua dago, neska oso onei eskatzen ari naizela, mutil balekoei eskatzen ez zaiena.*

*Ez dut uste nire gaitza bakarrik denik...*

2019. urtea da eta bertso-mundua inflexio-puntu sakon eta interesgarri batean sumatzen da. Aldian behin gertatzen den aro giltzarri horietako bat dela esango nuke.

Batzuen deserosotasuna eta besteen aldatu grina eta premia maila berean daude; ikuspuntu feministak zeharkatutako gaiak eta bertsoaldiak puri-purian bertso-munduan; erresistentziak azaleratzen; nahiak nahiago eta ezinak...

Emakumezko bertsolariak aurrera egin dute, bertso mailan, jendaurreko jarreran, ardura hartzean eta auto-sinesmenean.

*Deskubrimendu txiki bat egin dudala uste dut.*

*Pare bat urte lehenago Ahalduntze Bertso Eskolan esandakoak berriz bota, eta ez zaio berdin ondo geratzen errealitateari.*

*«Bai, baina bertsotan egin behar da!» esaten dut eta...  
et, et... zertan nabil?!*

*Ez ote da «bertsotan egin behar da» hau, gu gazte eta berri gineneko «Hori ez duk bertsoa, motel!» haren azken aktualizazioa?*

Bertsolari emakumezkoek eta euren diskurtso berriek entzuleria berria dakarte, gai-jartze modu berritua eta gaitegi desberdinak; garaiari egokituak eta bestelako gatazkei erreparatzen dietenak. Performancearen formak oso gutxika bada ere mudatzen ari dira, ahotsak eta gorputz-jarrerak. Eta ahots horiek eta gorputz-jarrera horiek «onartzeko» eta irensteko eta apreziatzeko heziketa zabaltzen doa. Egurasten ari la lurra, arrakaletatik. Bertsorearen mamia bera ere ari da aldatzen: umore-kodea, erreferentziak eta ideiak.

Eduki asko dago aldaketa-prozesuan eta ezbaian gaur egun.

Baina hau guztia ezaguna zait...

Hau, lehen ere esana entzuna dago...

Errebelazio txiki bat izan dut. Kanpotik akaso begi-bistakoa izango zen, baina ni orain ohartu naiz:

Bertsolaritzan gaur egun gertatzen ari den izerdi-aldi berri honek, antza handia du, funtsean eta sortzen ari den erreazioetan, orain 25 bat urte izan zen beste izerdi-berri aldi harekin, gazte-belaunaldia bertso-munduan sartu zenekoarekin.

Orduko gazteena ez zen «bertsotan egite» kontua bakarrik. Ez zen, txar edo on izate kontua. Batez ere, bestelakoak ginen, eta beraz, belarri tradizional askorentzat mailaz eskasak, eta aldiz belarri gazte eta zaletu-berrientzat, lehengo zaharrak baino askoz hobeak.

Oraingo isuri berria, diskurtso feminista eta emakume\* bertsolarien ekarria da. *Betiko* entzule askorentzat bestelakoegia, beraz, mailaz eskasa

Aldiz, bertsolari emakume\* gazteek erakarritako entzule zaletu-berrientzat, lehengo betikoak baino hobeak dira emakume bertsolariok.

Batez ere interesgarriagoak.

[Aldeak ere badira, noski, bi ebaki desberdinon artean. Adibidez, «emakumearena» denak, «markatua» denak, dosi txikian ere betekada ematen duela gizarte zabalaren belarrietan. Lehen eta orain.

Eta, gazte-belaunaldiaren gaitegiak baino askoz areago, diskurtso feministak denok zuzenean interpelatzen gaituela; eta deserosagoa izan daiteke entzuteko; eta lantsua onartzeko].



Bertsogintzaren barrutik dator oldea eta bertsolaritzaren azala berriz zartatzen ari da; arbola zabalago eta aberatsago eta interesgarriago egiten.

Autoexijentzia beharrezkoa da edozein sormen-arlotan. Baina oraingo bertsozaleen soziologia berrituan zer da *bertsotan* egitea? Zer da bertsotan *ondo* egitea?

Bertsolaria zer den, bertsotan egitea zer den, hori dago auzitan orain. *Canona* deitzen diote.

2018an Bertsolaritzaren Azterketa Soziologikoak eman zituen emaitzak argigarriak izan dira alde askotatik. Aipatzen da, besteak beste, bertsozale emakumezkoei, bertsolari emakumeak gustatzen zaizkiela gehien. (Baina hori etengabe aipatu zaigu; sinesterraino bertsolari emakumezko ona, emakumeen gustuarentzat bakarrik zela ona). Baina BASek agertzen du, zer eta, bertsozale gizonezkoei bertsolari gizonezkoak gustatzen zaizkiela gehien! Eta hori bai, hori da notizia! (Bagenekien, baina) ikusezina baitzen, frogatu gabea, eta neutroa zirudien.

Honelakoa da beti moldea:

- Emakumeen zaletasuna: emakume bertsolarietikiko zaletasuna.
- Gizonen zaletasuna: bertsozaletasuna.

Ba ez, jaun andreok: gizonezko zaleek gizonezko bertsolariak entzun nahi dituzte (nagusiki)!

Ez da asmoa, inondik ere, dikotomia betikoa gehiago azpimarratzea. Kontua, ohartzea da: orekatua zirudienak alderakarga nabarmena duela. Eta gustu jakinak, ez dituztela emakumeek bakarrik. Eta hori jakinik, guztiontzat osasungarri eta aberasgarri izango denaren alde lanean segitzea.

Zorinekoak gu! Bizirik gaude, eta kezkatuta, eta indartsu!

### ***GAUR (bihar)***

Bertso-eskolak izan dira gaur egungo bertso-mundua ulertzeko ekimen giltzarria. Eta bertso-eskoletan abiatutako lanak fruituak izan ditu. Bertsolaritza gaztetu, berritu eta aniztu egin da.

Euskaldun kontzientziatuen eta bertsozaleen arriskatzeko ausardiak eta jarrera irekiak ekarri du gaurdaino osasuntsu bertsolaritza.

Bertsolaritza, jardun eta gizarte-mugimendu izugarri, interesgarri, ekin, autokritiko eta eraldatzailea da. Belaunaldi artekoa, besterik gutxi den bezala.

Katea ez zen eten; kateak sendo dirau. Bertsolari zaharragoek abegikor hartu zuten gazte-belaunaldiaren berritasuna (ez da beti hala gertatzen belaunaldi artekoan), irekitasun miresgarriaz. Egun, bertsolari helduagoak erne daude gazteagoen ikuspuntuei eta bereziki emakume gazteagoen ekarpen eta aldarriei.

*Beti ez du goitik behera egiten*

*Transmisioaren trentzak*

*Guk behetik gora ikasi dugu*

*Ta zabaldu muga-ertzak*<sup>29</sup>.

Emakume\* bertsolari gazteak parte ezinbestekoa dira egungo mugimenduan. Emakume\* gero eta gehiago eta elkarren artean antzik ez dutenak dira parte. Horrek artistikoki ere eduki berriak ekarri ditu eta ekarriko ditu. Gaur arte entzun gabeko ahotsak eta irudikatu gabeko emakume\* motak.

*Emakumeena* ezin da belaunaldi izendatu. Adin desberdineko protagonistak baititu. Falta zen errealitate baten gorpuztea da, eta harekin, falta ziren ikuspuntu batzuen sarrera indartsua bertso-munduan. Munduaren irakurketa bat beste ikuspuntu batetik; beste errealitate batzuetatik bestelako ekarpen artistiko-ideologiko batzuk.

Eraldaketa etengabekoa da bertso-jarduna; komunikazio-jarduna denez eta bere inguruari kantatzen dionez, ezinbestean. Gaur artekoan bezala, aurrerako ere, burua zabal, begirada zoli eta belarri-niniak etenik gabe egokitzea beharrezko izango da.

Bertsogintzaren mugimendua, oinarrian, ez da noski hain azkar eta hainbeste aldatu. Bere forma eta soziologia tradizionalan ere segitzen du jardunak —eta horrek ere segi dezala! —.

Ikusiko da, ea molde betikoak eusten dion bere hegemoniari. Ikusiko da, gaur egun politikoki zuzena den genero-ikuspegiak (eta politikoki zuzena izatea jada lorpen bat da), zenbateraino egiten dituen erroak sakon eta zenbateraino bihurtzen den erradikalki eraldatzaile.

Baina egindako bidean irabaziak, horrek, ez dauka atzera bueltarik.

Espero izatekoa da, bertso-mugimenduak, lehen bezain zabal, harkor eta ausart jokatu duela ikuspegi berriok txertatzeko garaian. Aberasgarri eta bizigarri diren kontzientziak.

Ari da, ari gara, pixkanaka.

Izerdi berriak behin eta berriz arbolaren azala zartatzen du.

**Deserosoa bezain zirrargarria izango da.**

29. Maialen Lujanbio, 2017, Txapelketa Nagusia, txapeldunaren agurra.

*Doinua: Munduko ilunabarra*

Kristalak nortzuk ebaki  
odolak hala diraki  
emozioak aitzaki  
zientziak gehiago daki.  
Ikerlariak bihurtu ditu  
sentsazioak zenbaki  
denen bistara agertu dira  
grafikoetan bi zati...  
Bertsolaritza zabaldu edo  
ixtea gako izaki  
talde-lanaren ikurra zenak  
argirik badaramaki  
auzolana ongi letorkioke  
geroranzko bide bati.

**Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo**



## Altzairua. Kristala. Material organikoa

*Harkaitz Zubiri Esnaola*

Eremua ikertzen hasi ginenean, 2005ean, ez genuen aztertu generoak nola gurutzatzen zuen bertsolaritza alderik alde. Nik, egia esan, ez neukan ideia argirik. Zorionez, garai bertsuan, euskal literatura eta genero-ikuspegia lotzen zituzten ikertzaileen ekarpenen berri izaten hasi nintzen. Begi-bistan izan arren, inoiz ikusi ez nituen gauzez jabetzen hasteko balio izan zidan. Berdina gertatu zitzaidan Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegi genero-ikuspegitik bertsolaritzari buruz entzun nituenean. Azken urteetan izan dut generoa eta bertsolaritza lotzen dituzten hainbat argitalpenen berri (Larrañaga, 1995, 1996; Lujanbio, 2007, 2011; Hernandez, 2007, 2011; Eizagirre, 2008; Erkiaga, 2008; Enbeita, 2009, Agirreazaldegi, 2010; Agirre, 2010; Alberdi, 2015, 2019).

Bigarren aldiz bertsolaritza aztertzea eskatu zigutenean, 2015ean, Mintzolatik eman zizkiguten aztergaien artean generoa zegoen. Baina gaia zehaztu izan ez baligute ere, elkarrizketak egiten hasi ginenean aterako zen. Nabari zen bertsolaritzan eztabaidagai zegoela. Beraz, gure zeregina garbi zegoen: ebidentziak biltzea eta aurkeztea. Horretarako, bertsolaritzan zebilen jendearen ikuspegiak jaso genituen elkarrizketen bidez (32 egin genituen, 50 grabazio-ordu baino gehiago); halaber, galdetegi bidez aztertu genuen publikoaren iritzia (3.663 galdetegi orotara), bai urtean zehar egiten ziren saioretakoarena (344 galdetegi 2005ean, 600 galdetegi 2016an) bai azken txapelketa nagusiko saioretara joan zenarena (723 galdetegi 2005-2006 artean, 777 galdetegi 2017an) bai euskaldunena oro har (1.219 galdetegi 2006an); eta, era berean, Xenpelar Dokumentazio Zentroak urteetan bildu dituen datuak analizatu genituen.

Atal honetan azalduko duguna, beraz, Bertsolaritzaren Azterketa Soziologiakoaren bigarren eta hirugarren ikerketaldietan lortu ditugun emaitzetan oinarritzen da<sup>1</sup>.

---


1. Zubiri, H.; Aierdi, X. & Retortillo, A. (argitaratze-prozesuan): *Kultura ez da bat-batekoa. Bertsolaritza aztergai*.

## URBANITAK SINTONIAN JARTZEN

Bertsolaritza genero-ikuspegitik aztertu dugunean, bildu ditugun ebidentziek iradokitzen dute aurrerapauso batzuk eman direla, garrantzitsuak gainera, baina, aldi berean, asko dagoela egiteko, arazoak oso esanguratsuak baitira, hainbeste, ezen orain generoaren arloan egiten denak bertsolaritzaren etorkizuna nabarmen baldintzatuko duen. Erronkak gutxienez bi dimentsio dauzka: bidezkoagoa den heinean bihurtuko da bertsolaritza bideragarriagoa. Bi dimentsio horiek elkarri estuki lotuta daude (bidezkoa-bideragarria). Zergatia azaltzen saiatuko naiz segidan.

Berdintasuna ezinbesteko baldintza da bertsolaritza bidezkoagoa izan dadin, baina datuek argi erakusten dute parekidetasuna ere oraindik urrun dagoela bertsolaritzan: 18 urtetik beherakoen artean nesken eta mutilen kopurua oso parekoa da, baina aktibo dauden bertsolarien artean lautik hiru gizonezkoak dira, eta soilik lautik bat inguru da emakumezkoa. Desberdinkeria hori ez da naturala, ez da berez sortzen, ez da gaitasunen arteko aldean oinarritzen, eta ez da arazo indibiduala. Aitzitik, soziokulturalki ekoizten den desberdinkeria da. Fabrikatutakoa da. Ondorio horretara eramaten gaituzten ebidentziak ugari dira. Deigarria da, adibidez, nola 18 urtetik behera bertsotan ari direnen artean parekotasuna ez den bakarrik kuantitatiboa, zeren neskak eta mutilak erdia eta erdia izateaz gain, merituei dagokienez ere parean baitabilta; hau da, ez da parte-hartzean soilik, lorpenetan ere parean daude.

1. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopurua, adinaren arabera.




Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (ikertzaileok landutako datuak).

Gutxienez bi ondorio atera ditzakegu datu horietatik: batetik, traba sozialik jartzen ez denean, neskek eta mutilek kopuru berdintsuetan parte hartzen dutela; eta, bestetik, bertsolaritzaren testuinguru soziokulturalak kopuruetan ere desberdinkeria handia eragiten duela.

Bilakaera aztertzen badugu, ikus dezakegu egoerak hobera egin duela azken hamarkadetan. Hasierako datuetan deigarria da ez dagoela ia emakume bertsolaririk, eta zenbait urtez kopuruak gora egin duela harik eta azken urteetan % 20-25 inguruan egonkortu den arte, ez gora eta ez behera.

**2. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopuruen eta parte-hartzeen bilakaera (1990-2015).**



Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa (ikertzaileok landutako datuak).

Diskriminazio positiboaz eztabaidatu izan da bertsolaritzan, ea egin beharko litzatekeen edo ez, baina bildu ditugun datuek argi islatzen dute ez dagoela halakorik. Bertsolari kopurua eta bertso-saioetan parte hartu dutenen kopurua aztertu ditugu

elkarren ondoan: bi datuek erritmo berean egin dute gora, eta garai berean egonkortu dira. Hau da, emakume bertsolarien kopurua handitu ahala handitu da haien parte-hartzea, ez hori baino gehiago. Diskriminazio positiboa balego, esate baterako gaur egun emakume bertsolarien kopurua % 25 balitz, parte-hartzea kopuru horien gainetik legoke, baina ez da hala. Ez dago diskriminazio positiborik. Diskriminazio positiboa litzateke, esate baterako, emakume bertsolariak % 20-25 izanik, bertso-saioetan % 50 balira, betiere kontuan hartuta emakumeak biztanleriaren % 51 direla.

Gainerako arteetan ez dabilta askoz hobeto. Emakumezkoen kopuruak nekez gairitzen du % 25eko altzairuzko sabaia. Zineman, adibidez, Oscar sarietan generoa berariaz zehazten ez duten sarietatik % 25 baino ez ziren emakumezkoak 2019an. Oscar sariak 1929an banatu zituzten lehen aldiz, eta harrezkero emakume bakarrak irabazi du zuzendari onenaren saria. Cannes-en 72 urtez antolatu dute zinemaldian, eta soilik 82 emakume zuzendarik aurkeztu dituzte beren filmak gaurdaino, eta bitartean gizon zuzendariak 1.688 izan dira, hots, % 5 eta % 95, hurrenez hurren. Aurtengo Goya sarietan generoa berariaz zehazten ez diren sarietan % 25 izan dira emakumezko hautagaiak. Musikan beste horrenbeste: Grammy sarietan, adibidez, generoa zehazten ez duten sarietan hautagaiak eta irabazleak ez dira % 25etik pasatzen. Emakume margolarien egoera ez da hobea: Ipar Amerika eta Europako erakusketetan nekez gairitzen du laurdena emakumeen kopuruak. Literaturan ere antzera. Nobel sarietan emakume idazleak % 11 besterik ez dira izan 1901etik orain arte, eta azken bi hamarkadetan % 25 izan dira. Euskal literaturan, berriz, 2006. urtean emakume idazleak % 16 ziren, eta gizon idazleak % 84. Euskadi saria 1997tik gaurdaino hiru emakumek irabazi dute, narratibako kritika saria bi emakumek 1976tik, eta poesiako kritika saria sei emakumek 1978tik, azkenak 2010ean.

Arte guztientzat da kaltegarria, desberdinkeriak pobretu egiten dituelako, zentzu askotan gainera. Baina are kezkarriagoa da hizkuntza eta kultura gutxiagotuetan egiten diren arteentzat. Baliabide gutxi dituenak inor ez du soberan. Ahulezia garestiago ordaintzen du. Bertsolaritzan garbi ikus daiteke fenomeno hori.

Bertsolaritza gainbehera zetorren 1970eko hamarkadan. Aurretik, bertsolaritza oso erreferentziala izan zen euskararen lurraldean, batik bat landa-eremuan. Bertsolaritzak zentraltasun handia zuen testuinguru sozial hartan. Espazio publikoetan bermatzen zen bertsolaritzaren erreproduktzioa, bertan ekoizten, entzuten, zaletzen eta ikasten baitzen. Baina mundu hura desagertu zen, eta espazio horiek gabe bertsolaritzak ez zuen aurrera egiterik, ez baitzuen non erreproduzitu. Autoeraketaren bidez erantzun zioten gainbeherari. Kolektiboki antolatu ziren. Gizarte-mugimendu baten forma hartu zuten: garai historikoaren egiturazko arazoei aurre egin zieten beren egoerari buruzko ikuspegi berriak ekoitziz, aukera-leihoak baliatuz, gainerako agente sozialekiko interakzioan, jendea mobilizatzeko ahalegin handia eginez. Bertsolaritza geroratzea helburu zuen proiektu soziokultural bat gauzatu zuten, zeinetan sozializazio-guneek berebiziko garrantzia duten: jendea elkartzeko espazioak dira, biografiak gurutzatzen diren lekuak, interakzioak



ahalbidetzen dituzten guneak, eta bertan egosten dira bertsolaritzari eutsiko dioten interakzioak. Bertsolaritzako rockaren belaunaldia sozializazio-espazio horietan hazi zen, bertsolaritzaren gizarte-mugimenduak ekoitzi zituen bertso-eskoletan, gazteek sortu zituzten guneetan, gazteek eraiki zituzten harreman-sareetan... Horrek ahalbidetu zuen rockaren belaunaldiko artistak, antolatzaileak eta publikoa sortzea, eta belaunaldi hori bertsolaritzan integratzeak ahalbidetu zuen bertsolaritzak gaur egun bizi duen booma. Era berean, orain bertsolaritzan emakumeak duen posizioarekin eta ideia feministek duten indarrarekin zer gertatuko den funtsezkoa izango da bertsolaritzarentzat. Tira, era berean ez, emakumeak biztanleriaren % 51 direlako, eta rockzaleak ez.

Kultura gutxiagotuetan bereziki, inor ez dago soberan. Ziur aski, kultura handien ereduak ez dira eraginkorrek kultura txikientzat. Kultura hegemonikoetan pentsatu ohi da sortzailea norbanako isolatu bat dela, zeinak bere bakardadean artelana ekoizten duen eta hedapen-kanalen bidez publikoari helarazten dion. Publikoak baldintzatzen ez duen sortzailea famatzen da, parekorik ez duena, bere originaltasunaren bidez publikoa harrituta uzten duena. Halaber, kultura hegemonikoetan maiz erabiltzen da artea distintzio sozialerako tresna bezala; musikari, idazle edo zine-zuzendari jakin batzuen artelanak kontsumitzea gainerako herrikideengandik bereizteko baliabide bezala erabiltzen denean, gainera gelditzeko, *cool* izateko, besteak baino gehiago. Dinamika hori bat dator Pierre Bourdieu (1996, 2012) soziologoaren ikuspegi teorikoarekin: gutxiengo batek lortzen du distintzioa, prestigiotsuak diren artelanak kontsumitzen dituelako, besteak beste; bitartean gehiengoak kalitate txikikoa kontsideratzen den artea kontsumitzen du, eta, ondorioz, kultur sorkuntza mota horrekiko hurbiltasunak ez dio inolako prestigiorik ematen gehiengoari. Gurean ere gertatzen da. Ikuspegi horretatik goi- eta behe-kulturak bereizten dira, prestigiotsua eta baliogabea, dakien gutxiengoa eta ulertzen ez duen gehiengoa.

Baina eredu dikotomiko hori ez da beti nagusitu, historikoki ez behintzat. William Shakespeare delako baten lanak, adibidez, herri-kultura bezain goi-kultura ziren, Elizabeth erreginaren aroan, Ingalaterrako berpizkundean. Garaian ezagunak ziren istorioak hartzen zituen oinarri Shakespearek, ez ziren originalak. Ziur aski aktoreekin batera moldatzen eta fintzen zuen lana. Bera ere aktorea zen, ziur aski. Tragediak eta komediak hainbat klase sozialetako publikoaren aurrean antzezten zituzten. Publikoa ez zen beti isilik egoten, saioari buruz hitz egiten zuen ingurukoekin, jan egiten zuten, edan egiten zuten. Ez da arte kontenplatiboa. Publikoaren rola nahiko aktiboa da. Gainera, sortzaileek eta aktoreek publikoarekiko tratu zuzena dute, haren erantzuna une oro sentitu dezakete. Ez da sortzaile urrun bat kontsumitzaile ezezagun bati artelan indibidual original bat bidaltzen. Ez du Bourdieuren ereduarekin bat egiten.

Distintzioaren kultur ereduak indarrean darrai gaur egun, goi- eta behe-kulturak bereizten dituen eredu horrek eragin handia du oraindik, baita gurean ere, baina, ziur aski, jadanik ez du hain ondo funtzionatzen. Kultura gutxiagotuetan are okerrago.

Pop kulturak pieza guztiak mugiarazi ditu. Pop arteak, adibidez, goi-behe dikotomia hautsi zuen, egiletzaren originaltasuna zalantzan jarri zuen, ideiak eta artelanak berrerabiltzen zituela aldarrikatu zuen, arruntak/gutxietsiak ziren hainbat gauza arte bihurtu zituen, hedapenerako gaitasun handia izan zuen, jendearengana iristea lortu zuen... Era berean, gogor kritikatu zuten pop artea merkatuarekiko morrontzagatik, genero-arloan desberdinkeria berriak ekoizteagatik...

Ezer ez da berdina izan harrezkero. Pop kultura fenomeno oso konplexua da. Ertz asko ditu. Baina ez du esentziarik. Aldatzen ari da etengabe. Hegemoniaren parametroetan eraikitzen da, beti erdigunea okupatzeko bokazioz, baina ez ezinbestean erdigunean dauden osagaiekin bakarrik. Muga lausoak ditu. Ez dago argi zer dagoen kanpo eta zer barne, eta hori ez da arazo pop kulturarentzat, ez du horretan denborarik galtzen. Distintziora baino atxikipena da bere motorra. Taldea eraikitzea. Urbaniten garaiko kultura da. Hirien diseinuak, lan moldeen dinamikak, bizimoduen konplexutasunak... elkar ez ezagutzera bultzatzen gaitu. Elkarren ondoan bizi garen lagun potentzial isolatuak gara maiz. Anomian erortzeko arriskua oso erreala da. Anomia, lekua ez aurkitzea, taldearen bizindarretik ez elikatzea, inguruko bizimoldearekin ezin sintonizatzea. Baina gizakiok besteen goxotasuna behar dugu, besteekin bat egitea, taldea garela sentitzea. Harrobi hori lantzen du pop kulturak. Ezezagunak sintonian jartzen ditu. Musika-kontzertu batean agerikoa da, baita fisikoki ere, soinu-uhinek entzule bakoitza biltzen dutenean, musika entzutera joan den norbanako bakoitzak besteekin sintonizatzen duenean, hari fin batez. Nor bere biografiarekin joaten da kontzertura, bere arnas eta minekin, baina musikak performatiboki ondo funtzionatzen duenean, taldea eraikitzen du, baita bizimodu oso fragmentarioak dauzkaten norbanakoekin ere. Bestela, nola uler daiteke futbol-estadio batean musikari talde bat entzuteko eta ikusteko elkartzen den urbaniten emozioa? Musikak gizatasuna kanalizatzen du. Gizatalde baten epeltasuna soinu-uhin bihurtzen du. Pop kultura da urbaniten lekeda garrantzitsuenetako bat.

Testuinguru globalizatu horretan, pop kulturaren garaian, jokutzen du euskaraz egiten den kulturak, eta, jakina, baita bertsolaritzak ere. Baina euskaraz egiten den kulturak erraldoien artean aritu behar du. Eraginkorrako, finago, sortzaileago. Bestela nekez berma dezake bere etorkizuna. Handien moldeek ez dute beti balio.

Transmisioaren ideia nagusitzen da kultura handien artean. Sortzaile indibidual batek igortzen du bere sormen-lana, eta kontsumitzaileak jaso egiten du. Eredu horrek oso ondo funtziona dezake zenbait kultura hegemonikotan, hain zuzen hartzaileak bilatu gabe kultur produktuekin tupust egiten duenean, behin eta berriro. Kultura hegemonikoa nagusitzen bada hartzaile potentziala mugitzen den guneetan, orduan kultura hegemonikoak jarriko du gune horien soinu-banda, ezarriko ditu balio estetikoak, kontatuko ditu mundua ulertzeko istorioak. Kultura handi batek sozializazio-guneak monopolizatzen dituenean, jendea gune horietan sozializatu ahala zaletuko da kultura handiaren produktuarekin, eta, beraz, arazorik gabe funtzionatuko du transmisioaren eta kontsumoaren ereduak.

Baina zer gertatzen da sozializazio-gune horietan lekurik ez duten kultur adierazpideekin? Museoetako pieza exotiko bihurtuko dira? Litekeena da baldin eta kultur gintzaren eredu hegemonikoari jarraitzen badiote. Jokoaren arauak berez galtzera bultzatzen zaituztenean, jokoa beste era batera joka litekeen aztertzea komeni da.

Bertsolaritzak aurkitu du formula bat. Orain arte nahiko ondo funtzionatu dio. Bere sozializazio-guneak eraiki ditu. Jendea haietara erakartzea lortu du, eta ez soilik eskaintza artistikoagatik, baita sozialki hara joateak suposatzen duenagatik ere, eta testuinguru horretan lortu du makina bat lagun zaletzea.

Urbanita euskaldun batzuentzat bertsolaritzak balio izan du sintonian daudela sentitzeko. Baina nola lortzen du hori bertsolaritzak kultur sorkuntza globalizatuaren testuinguruan? Gakoa, proiektu soziokulturala da. Bitartekoa, nagusiki, sozializazio-gune eraginkorrak sortzea da. Baina horrek guztiak ezin du ondo funtzionatu eta, beraz, gainbehera etorriko da baldin eta bertsolaritza ez bada gai bertsozaleen (eta bertsozale potentzialen) esfera pribatua eta bertsolaritzaren esfera publikoa konektatzeko. Jürgen Habermas-ek (1989; 1993; 2006) arteen ahalmen hori nabarmentzen du, nola konekta ditzaketen esfera pribatua eta publikoa. Azken hori, esfera publikoa, partekatutako espazio bat da, sare-forma oso konplexua duena. Esfera publikoak informazioa komunikatzen du etengabe, eta gai da iritzia eta legitimotasuna ekoizteko. Esfera publikoak pribatuarekiko daukan loturak baldintzatuko du esfera publikoaren eraginkortasuna. Esfera pribatua aintzat hartzen ez duen esfera publikoak ez dauka ahalmen komunikatibo handirik, ez dauka legitimotasuna ekoizteko indar handirik, eta, beraz, ez dauka errealitatearen gain eragiteko aukera handirik. Kultura gutxiagotu batean hori ez da bideragarria. Bazterreko izatera bultzatzen du. Aitzitik, parte-hartzaileen eta parte-hartzaile potentzialen esfera pribatuak aintzat hartzen direnean eta esfera publikoarekin eraginkortasunez konektatzen direnean, egoera problematizatzeke aukerak handitu egiten dira, munduari begiratzeko modu eraldatzaileak ahalbidetzen dira, eta irtenbideak eraikitzeke aukerak ere handitu egiten dira. Bertsolaritza bezalako arte batek (eta gauza bera esan genezake euskaraz egiten diren arte askori buruz) ezinbestean behar du eraldaketa. Bestela, kultur globalizatuaren testuinguruan desagertuko da. Eraldaketa, bi zentzutan: batetik, bere erreproduzioaren baldintzak eraldatzea eta geroratzea bermatu behar du, eta, bestetik, eraldaketa hori ahalbidetzen dion jendearen esfera pribatuarekin konektatu behar du, eraldaketa ez delako hutsaren gainean egiten, eraldaketa jendearen bizitzaren testuinguruan egiten delako, jendearen bizitza puskekin, eta, jakina, pop kulturaren garaian urbanitak sintonian jartzen ez dituen kultur sorkuntzak ez dauka etorkizunik, eta, esan gabe doa, urbanita euskaldunen bizitza puskak balioesten ez dituen bertsolaritzak nekez jarriko ditu urbanita euskaldun horiek sintonian.

Gizarte-mugimenduek ilusioa piztu behar dute, bestela ez baitira gai jendea mugiarazteko, eta, jakina, jendea mugiarazten ez badute, ezin dute inolako eraldaketarik lortu. Bertsolaritzaren erronka hori da: ilusioa piztea, urbanita

euskaldunak sintonian jartzea, bertsolaritza ardatz duten sozializazio-guneetan mobilizatu daitezten (bertso-eskoletan, bertso-saioetan, bertsolaritzaren aldeko borondatezko lanean, bertsolaritzaren esfera publikoan parte hartuz...). Jende hori mobilizatzeak ahalbidetuko du bertsolaritzaren erreproduzioaren baldintzak eraldatzeko indarra izatea edo ez. Bizindarraren katea hau da: esfera pribatua - sintonia - esfera publikoa - mobilizazioa - eraldaketa - bertsolaritza geroratzea.

Gizabanakoa konturatzen da noiz dagoen eroso, eta ez badago hala, benetan ihesbide erraza badauka, aldendu egiten da deserosotasunetik.

Elkarrekin gustura bagaude, zinez atsegin dugu une hori, leku hori. Gure memoria biografikoan marka utziko du. Are gehiago gure bizitzaren zenbait puskek parean dugun pertsonarekin eta gertatzen ari denarekin zerikusia dutenean. Eta zeresanik ez gure bizitzak egoera jakin batekin zuzen konektatzen duenean, orduan bai gozatzen dugula.

Gako nagusia ez da, ziur aski, kulturarako espazio fisikoak edukitzea eta bertan guri egokia iruditzen zaigun kultura programatzea, edo hori bakarrik ez behintzat. Gakoa, beharbada, jendeari elkarguneak eskaintzea da, besteekin sintonizatzeko espazioak, zeinetan biografiak gurutzatuko diren, zeinetan norbanakoen bizitza puskek lekua eta zentzua izango duten.

Transmisio soilerako pentsatuta dauden dinamikak ez dira baldintza hauetara ondo doitzen. Espazio inklusiboagoek eta berdinzaleagoek askoz modu eraginkorragoan funtzionatzen dute.

Kultur adierazpide batek sozializazio-gune hauen eraikuntzan inbertitzen duenean, jendea elkartzeko lekuak ekoizten ari da. Interakziorako guneak dira. Gauzen esanahia elkarrekin eraikitzeke espazioak. Zenbat eta askotarikoagoa, hobeto, interakzioak aberastu egingo direlako. Atxikipen osasuntsurako aukerak handitu egingo dira. Taldearen lekeda bizigarriagoa izango da.

Espazio hauetan inbertitzeak ez du esan nahi gune hegemonikoei uko egiten zaienik. Egia da gune hegemonikoetan lehiatzea ez dela lehentasunezkoa, lehen pausoa ez behintzat. Baina ez da guztiz egia. Kultura gutxiagotuek arnasa nahi badute, zabaltzeko bokazioa ezinbestekoa zaie. Sustrai Colinak egin zion elkarriketa famatu hartan Gorka Urbizuk oso ondo definitu zuen «gutxiagotu-gutxizale-gutxiesle» logikaren katea hautsi egin behar du kultura gutxiagotuak. Museo bateko pieza soil izateko bokazioa ez daukanak ezinbestean zabaltzeko bokazioa dauka, bere espazioan arnasa ondo hartzeko tamaina eta lekua erdiesten dituen arte, ez gehiago, ez gutxiago.

### **LEKU ESTUA GEHIENGOARENTZAT**

Emakumeen lekua bigarren mailakoa den heinean, eta hala da bertsolaritzan, ez du ahalmen nahikoa izango euskaldun urbanitak sintonian jartzeko. Orain dela zenbait hamarkada baieztapen hori pertinentea bazen, gaur egun are zentralagoa da. Zergatik? Publikoa errotik aldatzen ari delako. Genero-nortasunari dagokionez, emakumezkoen kopurua gizona baino handiagoa da.

#### **3. grafikoa. Publikoa genero-nortasunaren arabera (Txapelketa Nagusia, 2017).**




Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018.

Bertsolaritzaren bertuteetako bat (eta erronketako bat) sortzaileak publikoarekiko duen hurbiltasuna eta negoziazio-harremana da. Publikoa mugiarazten ez badu, barrez jartzen ez badu, hunkitzen ez badu, irudimen-ariketen bidez harritzen ez badu, ez du funtzionatzen. Bertsoek publikoa sintonian jar dezaten, ezinbestean erabili behar ditu publikoaren bizitza puskak. Horrek ez du esan nahi publikoari beti nahi eta espero duena jaten eman behar dionik. Negoziazioa askoz konplexuagoa da gauzak ondo funtzionatzen duenean. Baina halabeharrez hartu behar ditu kontuan publikoan dagoen jendearen bizitza puskak. Eta gauzak asko aldatu dira azken urteetan.


Emakumeei zor zaizkie publikoan gaur egun gauzatzen ari diren aldaketa nabarmenenak. Emakumeen gustua, jakina, ez da homoginoa, baina zenbait joera bereizgarri nabarmentzen dira: gustuko dituzten bertsolariak ez dira gizonezkoek gustuko dituztenak, bertso-saio mota batzuekiko eta besteekiko lehentasunak ez dira berdinak, ez dute bertsogintza berdina maite.

**4. grafikoa. Bertso-saio mota gustukoena, Txapelketa Nagusiko publikoaren arabera (emakumeak eta gizonezkoak, 2017).**




Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018.

**5. grafikoa. Bertsolari batengan gehien estimatzen diren ezaugarriak, Txapelketa Nagusiko publikoaren arabera (emakumeak eta gizonezkoak, 2017).**



Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018.

**6. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopurua publikoko emakumezkoek eta gizonezkoek gustukoak dituzten bertsolarien artean (Txapelketa Nagusia, 2017).**



Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018 eta Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Beraz, ez dirudi ausartegia denik esatea bertsolaritzak gaur egun bizi duen boomaren erantzule nagusietako bat emakumeen ekarpena dela. Lagin bat: «Ez da kasualitatea» izeneko bertso-saio baten ondoren publikoko emakumezko batek honakoa esan zion bertsolari bati: «Ez nuen uste bertsozalea nintzenik». Sintonian sentitu ahal izan zuen lehen aldiz. Lagin esanguratsua da, ez kasu isolatua. Horrelako aldaketak ahalbidetzen ari dira bertsolaritzaren bideragarritasuna.

Beti gertatzen den bezala, aldaketa hauek ez dira berez etorri. Desberdinkeria naturala ez denez, soziokulturalki eraikia dagoenez, arazoa gainditzeko gakoa ere esku-hartze soziokulturala da.

Ekarpen oso esanguratsua egin dute bertso-eskolek, zeinak bertsolaritzaren gizarte-mugimenduaren proiektu soziokulturalaren emaitza diren. Miren Artetxek (2014) eta Ainhoa Agirreazaldegik eta Arkaitz Goikoetxeak (2007) ondo azaldu zuten

nola bertso-eskolek berebiziko garrantzia duten sozializazio-guneak diren. Leku inizatikoak dira. Plazan nekez gerta daitezkeen interakzioak ahalbidetzen dituzte. Praktika komunitatea eraikitzeko espazio aproposak dira. Bertso-eskoletan dagoen neska eta mutil kopurua antzekoa da. Baina ez da partaidetza soilik. Eskolarteko txapelketetan neska eta mutil kopurua parean egotea ez da kasualitatea. Eraldaketak egosteko leku ezin hobea dira bertso-eskolak.


Emakume bertsolarien arteko sareak ere funtsezkoak dira eraldaketa ahalbidetzeko. Modu informalean laguntasun-sareen bidez gertatzen ari da, eta modu formalagoan Ahalduntze Bertso Eskola, *Ez da kausalitatea*, eta Zila bertso-eskola bezalako ekimenen bidez. Bertsolaritzaren ageriko adierazpen guztiak esfera publikoaren parte direnez, argi eduki behar da atea formalki irekitzea ez dela atea praktikan erabat irekitzearen parekoa. Esfera publikoan arazo hori ohikoa da. Nancy Fraser-ek (1990) nabarmentzen du eraginkorra dela desberdinkeria horiek nola ekoizten diren azalratzea eta baztertuek elkar hartzea, esfera publikoan parte hartzeko baldintzak hobetu daitezken, eta hori oso garrantzitsua da, zeren eremu horretan erabakitzen baita nola ulertzen den bertsolaritza, eta, beraz, baita bertsolaritza legitimoak nolakoa izan behar duen ere.

Horrekin guztiarekin batera, nabarmentzeko modukoa da zenbaterainoko eragina izan duten oholztan lekua egin duten emakume bertsolariek. Erreferentziak ikusgarri bihurtu dituzte. Aldaketa gorpuztu dute. Bertsolaritza asko aberastu dute. Maialen Lujanbioren kasua oso argia da. Hainbesterainokoa izan da bere ekarpena, ezen bertsolaritzan mugari bihurtu baita. Bertsolaritzan kantatu daitezkeen gauzen eremua zabaldu eta sakondu egin du. Existitzen ez zen kanon artistiko bat sortu eta legitimatu du. Posizio ez-hegemoniko batetik abiatu zen, gainerakoentzat baino zailagoa zen leku batetik beraz, baina, beste inork egingo ez lukeena eginez, zailtasunak aukera bihurtu zituen.

Aldaketa, beraz, gertatzen ari da, arlo guztietan gainera, baina aldaketekin batera erresistentziak ere aipatzeko modukoak dira. Publikoaren baitan gertatzen ari direnak, adibidez, oso deigarriak dira. Genero-nortasunaren arabera aztertzen badugu, aldaketa nahiko asimetrikoa da. Emakumeen gustua azkar aldatzen ari da. Gizonezkoena, ordea, lehengo moldeetan gelditu dela dirudi, oro har. Are gehiago, bideragarritasunaren ikuspegitik (ez soilik bidezkoetasunaren ikuspegitik) aldaketa hau ez da nahikoa, sortzen ari den egoerari ez diolako erantzuten. Orain dela 10-15 urte publikoko emakumezkoen artean ez zirudien emakume bertsolariak gehiago entzuteko gogo nabarmena zenik. Gaur egun, aldiz, argi dago publikoko emakumeek gehiagotan entzun nahi dituztela emakume bertsolariak. Hau da, ez dituztela nahi adina entzuten. Beraz, arazo kuantitatiboa agerikoa da. Badirudi bertsolaritzak ez diola zentzu horretan bere publikoari erantzuten.



**7. grafikoa. Emakume eta gizon bertsolarien kopurua eta partaidetza oro har, eta emakume eta gizon bertsolarien kopurua publikoko emakumezkoek eta gizonezkoek gustukoak dituzten bertsolarien artean (Txapelketa Nagusia, 2017).**



Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018 eta Xenpelar Dokumentazio Zentroa.

Kuantitatiboa ez ezik, arazoa kualitatiboa ere bada. Ikerketarako informazioa bildu genuenean, nabarmen gelditu zen bertsolaritzaren baitan dauden joera hegemonikoek leku estua uzten dietela erdigunean kokatuta ez daudenei. Osagarriak dira maiz, edo exotikoak. Hori gertatzen zitzairen hasieran rockaren belaunaldikoei bertsolaritzan. Generoaren araberako posizioekiko antzekoa gertatzen da. Hegemoniatik begiratzen dutenentzat zailagoa da periferikoagoekin sintonian sentitzea.

Gizonezkoa, 45< «Lehen, generoa [herriko] feriara ekartzen zutena zen [...]. Orain dela 30 urte minifaldarekin ez zenuen inor imajinatzen. Oraindik ere nire adineko eta goragoko belarrientzat gogorra da ahots femenino batek kantatutako bertsoa baloratzea. Aldiz, [ahots sendoarekin kantatutakoa] inork ez du zalantzan jartzen [...]. Gure laguna eta [bertsolari jakin baten] laguna denak orain dela bi urte aitortu zigun [bertsolari hori] amerikarekin kantatzen ikusi zuen lehenengo aldian pentsatu zuela: honek ez dik batere kantatuko, marikoi pinta zaukak».

Emakumezkoa, 30-45 «Amerikana batekin bertsoan egiten zuenak egin behar izan du *doble salto mortal* eta demostratu behar izan du. Bertsoan normala izan balitz, segituko zuen *marikoi* edo *amerikanaduna* izaten, baina super ona denez...».

Gizonezkoa, 30-45 «Eredutik edo kanonetik aparte [dabiltzalako deitzen dieten bakoitzean, maskota sentitzen dira, haien bidea egin eta haien lekua topatzen duten arte]».

Nolanahi den, argi dago bertsolaritzan oso murgilduta dauden zenbaitek ez dutela partekatzen orain arte azaldu dugun ikuspegia. Haien iritziz emakume bertsolariak ez dira gutxiago baloratzen eta ez dute sufritu behar gizonezkoek pairatzen ez duten zailtasun berezirik.

Gizonezkoa, 30-45 «Nire inguruan ez dut bizi emakume izateagatik gutxiago baloratzearena. Diferente tratatzea bai [...]. Ez dut uste [jendeari gizonezko batek hobeto koadratzen dionik bertsolari rolean], baina ez naiz neure buruarekin fidatzen».

Gizonezkoa, 45< «[Entzule batzuek emakume bertsolariak gutxiago baloratzen dituztela esaten dutenean, pentsatzen dut] horrelako gauzak esaten direla geure buruak babesteko. Nik ez ditut horrela bizi. Nik ez ditut horrela sentitzen. Nik uste dut bertso batek gizon baten ahoan egon edo emakume baten ahoan egon, balio berdina daukala».


Emakumezkoa, <30 «[Generoarena] oso gai delikatu da Elkartean, eta niri kostatzen zait, egia esan, horri buruz hitz egitea [...]. Nik ez dut inoiz arazorik izan neska nintzelako».

Publikoaren baitan gauza bera gertatzen da. Askok ez dute uste emakume bertsolarientzat zailagoa denik, gizon bertsolariekin alderatuta. Aitzitik, gutxiago dira emakume bertsolarientzat zailagoa dela pentsatzen dutenak kontrakoa pentsatzen dutenak baino. Horrez gain, publikoaren gehiengoak uste duen arren emakume bertsolariek leku handiagoa izan beharko luketela bertsolaritzan, publikoaren laurdenak ez du iritzi horrekin bat egiten, eta publikoaren % 20 inguru emakumeei leku handiagoa egitearen aurka dago<sup>2</sup>.

---


2. Baieztapen honi buruzko adostasuna adierazi behar zuten: «Emakume bertsolariei leku gehiago eman behar litzaieke». Erantzuteko, 1etik 7ra aukera behar zuten, 1=«ez nago ados» eta 7=«guztiz ados nago» izanik. Emaitzetan, 1-3 artekoak aurkakotzat hartu dira, 4koei zalantzarik jarriera eman zaie, eta 5-7 artekoak aldekatu hartu dira.

**8. grafikoa. Gaur egun, gizonen bertsolarientzat baino zailagoa da emakume bertsolarientzat (2017ko Txapelketa Nagusiko publikoaren iritzia).**



Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018.

**9. grafikoa. Emakume bertsolariek leku handiagoa izan beharko lukete (2017ko Txapelketa Nagusiko publikoaren iritzia).**



Iturria: Bertsolaritzaren Hirugarren Azterketa Soziologikoa 2015-2018.

**CODA: METOO?**

Isiltasunaren legea haustea ez da erraza. Bertsolari batek bortxaketa-saiakera bat salatzen duenean, ingurukoek ez ziotela lagundu azaltzen duenean, kontuan hartuta 2019. urtean gaudela, MeToo-ren ondoren, espero zitekeen kultur sorkuntzaren munduko jendeak erreakzionatuko zuela. Arazoa bertso-saioretan maiz agertuko zela (agurretan, gaietan...). Hedabideetan lekua egingo ziotela... Ez dakit oso masiboa izan den.

Isiltasunaren legeak babestu egiten du genero-indarkeria. Berdintasuna noiz iritsiko den ez dakit, baina badakit lekukoaren esku-hartzea (bystander intervention) eraginkorra dela, eta mutu daudenek erraztu egiten dutela eraso.

Ez daukat garbi sabaia zertaz egina dagoen. Altzairua? Kristala? Material organikoa?

**BIBLIOGRAFIA**

- Agirre, Lorea (2010): *Zapia eta txapela: emakume bertsolariak tradizioarekin negoziatzen eta eredu berria sortzen*, Ikerketa nahikotasun tesina, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Agirreazaldegia, Ainhoa (2010): «Ezin dut bertsolari izan emakume feministaren kontzientziarik gabe», *Bertsolari*, 78, 34-39.
- Agirreazaldegia, Ainhoa & Goikoetxea, Arkaitz (2007): «Verse Schools», *Oral Tradition*, 22(2), 65-68.
- Alberdi, Uxue (2015): «Bertsolaritza eta gorputza», *Pikara Magazine*, otsaila. [<http://www.pikaramagazine.com/2015/02/bertsolaritza-eta-gorputza/>].
- Alberdi, Uxue (2019): *Kontrako eztarritik. Emakume bertsolarien testigantzak*, Susa Lisipe, Zarautz.
- Artetxe, Miren (2014): «Bertsolaritzaren eragina Lapurdiko bertso-eskoletako gazteen identitatean eta hizkuntza erabileran: bertso-eskola Jarduera Komunitate gisa aztertze proposamena», *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, 92, 11-31.
- Bourdieu, Pierre (1996): *The Rules of Art. Genesis and Structure of the Literary Field*, Polity Press, Cambridge (UK).
- Bourdieu, Pierre (2012): *La distinción. Criterio y bases sociales del gusto*, Taurus, Madril.
- Eizagirre, Estitxu (2008): «Konplexuak eta esterotipoak hausteko ordua», *Argia*, 2.136, maiatzaren 11. [<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2136/konplexu-eta-esterotipoak-hausteko-ordua>].
- Enbeita, Onintza (200): «Gu eta gure konplexuak». *Berria*, martxoaren 25a. [[http://paperekoa.berria.eus/papera\\_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2009&hilabetea=m03&eguna=d20090325&orria=p00042007](http://paperekoa.berria.eus/papera_inprimatu.php?html=BERRIA&urtea=y2009&hilabetea=m03&eguna=d20090325&orria=p00042007)].

- Erkiaga, Nere (2008): *Generoaren ikuspegia Bertsolaritzaren mugimenduaren barruan*, Masterreko lana, Euskal Herriko Unibertsitatea. [<https://www.bertsozale.eus/eu/fitxategiak/generoa-dokumentazioa/2008-nere-erkiaga-generoaren-ikuspegia-bertsolaritzaren-kultur-mugimenduaren-barruan>].
- Fraser, Nancy (1990): «Rethinking the Public Sphere: A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy», *Social Text*, 25/26, 56-80.
- Habermas, Jürgen (1989): *The Structural Transformation of the Public Sphere: An Inquiry into a Category of Bourgeois Society*, Massachusetts Institute of Technology Press, Cambridge, Massachusetts.
- Habermas, Jürgen (1992): «Civil society and the Political Public Sphere», in J. Habermas, *Between Facts and Norms. Contribution to a Discourse Theory of Law and Democracy*, MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Habermas, Jürgen (2006): «Political Communication in Media Society: Does Democracy Still Enjoy an Epistemic Dimension? The Impact of Normative Theory on Empirical Research», *Communication Theory*, 16, 411-426.
- Hernandez, Jone Miren (2007): «Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea», *Kobie: antropologia cultural*, 12, 12-61.
- Larrañaga, Carmen (1995): «El bertsolarismo: una tradición oral transitada por el género-sexo», *Cuadernos de Sección Historia-Geografía*, 23, 405-425.
- Larrañaga, Carmen (1996): «Ubiquitous but invisible : the presence of women singers within a Basque male tradition», in Selma Leydesdorf & Luisa Passerini, *Gender and Memory*, Oxford University Press, New York, 60-71.
- Lujanbio, Maialen (2007): «Bertsolaritza eta generoa» [Pdf dokumentua]. [<https://www.bertsozale.eus/eu/fitxategiak/generoa-dokumentazioa/20070718-maialen-lujanbio-eta-judith-montero-bertsolaritza-eta-generoa>].
- Lujanbio, Maialen (2011): «Kosta egiten da emakumeen lorpenak aitortzea, eta txapela irabaztea, sinbolikoki, pauso bat da», *Emakunde aldizkaria*, 81, 4-5.



II. Emakume\* ahots eta  
gorputzek esan (ezin)  
dezaketena





*Doinua: Norbere mundu intimo*

A hotsak eta B hotsak  
alfabetoen bi erpin  
betatutako tonuak  
betatutako hitzekin...  
Zein ahots da zorrotz ta zein  
oihartzun sortzeko erkin?  
Zer da erreferentzial, zer  
ezagun ta zer desberdin?  
Zer benetako, zer sendo  
zer ertzeko zer atsegin?  
Zer esana emateko  
pentsa dezagun zer egin;  
nola berrabiarazi  
berrasmatu ta berekin  
gorputzak urtzen dituen  
ahots solido batekin...

**Alaia Martin Etxebeste**



# Gorputz bat ikusten dut zure ahotsean. Gorputz generizatuak bertsolaritzaren soinu-bidean

*Jone M. Hernández García*

Txikitan, eskola-garaian,<sup>1</sup> ohiko zigorra izaten zen egunean zehar *gaizki* egindako edozer esaldi batean laburtu eta hura hamaika aldiz idatziz errepikatu behar izatea. Arrazoi ezberdinak egon zitezkeen zigorraren atzean, adibidez etxeko lanak egin gabe eduki izana edota gelan iskanbilaren bat sortu izana. Baina, beste askoren artean, bazen esaldi bat bereziki gogoangarria: «Ez dut berriro gelan hitz egingo. Ez dut berriro gelan hitz egingo. Ez dut berriro gelan hitz egingo...». Orriak eta orriak izan dira beteak esaldi horrekin, eskuz eta bolalumaz, jokaera bat zuzendu nahian, isilik, eta isiltasuna gorpuztu nahian.

Ahoz aho, ahotsa, hotsa gorputzaren materialtasuna dugu. Ahotsa gorputz bat da, besterik ez (Ferrete in Villaverde, 2016). Hala nola, garai hartako irakasleak horren jakitun ziren eta, horregatik, ahotsa kontrolatzeko eta diziplinatzeko asmoz, gorputza zigortzen zuten, haurron eskuetan kalanbreak sortuz edota egundoko asperdura eraginez.

Ahotsak gorputzetik atera eta testuingurua betetzen du, era guztietako ondorioak sortuz: poza (lagun batek agurtzen gaituenean), haserrea (oihu batek ezustean harrapatzen gaituenean), amorrua (mingarria den zerbait entzuten dugunean), algara (gure emozioak pizten dituen zerbaitek hartzen gaituenean)... Ahotsa berak eta ahotsak dakarrena errealitatean kokatzeko edota errealitateari eusteko ezinbestekoa dela uste dut. Ahotsa helduleku bat da, norbanakoa zein kolektiboa, izakiak eta gizakiak sortua, eraginda eta zabaldua testuinguruarekin harremanetan jartzeko eta testuingurua bera bereganatzeko. Adibide argigarria dugu, erdi jolasean erdi serio, oihartzuna sortu nahian gabiltzanean. Baina hain esplizitua izan gabe, ahots eta hots guztiek badute joan-etorri horren gogoia edo beharra: (ahotsarekin) munduan eragin nahi dugu, bueltan munduaren parte sentitu ahal izateko.

---

1. Kasu honetan, eskola aipatzen dudanean, 1970eko hamarkadaren hasierako eskolaz ari naiz. Eskola publikoaz ari naiz, frankismoan zegoena.

Planteamendu hauek akuilu izanik, artikulu honetan bertsolaritzan ahotsak izan duen paperaz hitz egingo da, ahotsak bertsolaritzaren *modernizazioan* izandako eragina azpimarratuz. Era berean, bertsolaritza modernoak ahotsari emandako garrantziak emakume bertsolarien parte-hartzea noraino baldintzatu duen eztabaidatuko da. Eta ildo horretatik, azkenik, ahotsa genero-bereizkeriarako tresna izatetik bertsolaritza feministaren garapenerako egin dezakeen ekarpenaz egingo da gogoeta.

Hausnarketa hau mamitzeko eta egituratzeko, gizarte-antropologian sortutako zenbait planteamendu teoriko eta 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian zehar jasotako hainbat adibide etnografiko bidelagun izango dira, Maialen Lujanbio bertsolariaren ahotsa erdigunean jarritz. Lujanbio 2017ko txapelduna suertatu zen, Txapelketan zehar inoiz, publikoan, entzundako bertso harrigarrienetarikoa utziz. Bertso horiek eragindakoa ulertzeko afektuen antropologia (Surralles, 1998, 2009a, 2009b; Hernández, 2016, 2017) baten beharra dugulakoan nago. Hau da, bertso batek biltzen dituen elementu erretorikoak eta diskurtsiboak gainditu edota osatuko dituen antropologia bat. Horren alde egin nahi du testu honek, bertsolaritzaren ezagutzan eta definizioan elementu zein ikuspegi osagarriak eskainiz.

### ***BERTSOLARIA, BERTSOA, BERTSOLARITZA, ZERTAZ ARI GARA HITZ EGITEN?***

Bertsolariaren, bertsoaren edota bertsolaritzaren definizioa zeharo lotuta dago definizio bera egiten den une eta tokiari; izan ere, jakina da bere izaera eta ezaugarriak asko aldatu direla denboran zehar eta testuinguruaren arabera. Manuel Lekuonak (1978) neolitikotan sortutako tradizioa zela zioen eta, zehazki, «artzei-kulturaren barruan» (*ibid.*: 12) kokatzen zuen. Une batean euskaldunon bizimoduak artzaintzatik nekazaritzara egin zuen jauzi eta, orduan, —dio Lekuonak— «bertsolaritza, nekazarietara ere zabaldu zen. Nekazarietara eta langilleetara» (*ibid.*: 15).

Antzinako bertsolaritza horren inguruan hipotesiak eta espekulazioak baino ezin dira egin. Joxe Azurmendik (1980, 1990) ere tradizio horren sorrerari eta garapen historikoari eskainitako gogoetan zalantza ugari agertu ditu, bertsolaritzak piztutako argi-itzalak nabarmenduz. Azurmendik dio bertsolaritzaren inguruan bi indarrek talka egin dutela (Azurmendi, 1980: 143): batetik, bertsolaritzaren antzinatasunaz mito errazegia egin duena; bestetik, antimitoa, hau da, bertsolaritza Euskal Herrian aski fenomeno moderno dela (XIX. mendean sortua) aldarrikatzen duena.

Nolabaiteko bertsolari, bertso edota bertsolaritzaren gaineko aipamenek XV. mendera eramanez bagaitzake ere, XVIII, XIX eta batez ere XX. mende arte ez dira ikergaitzat hartuak izan: «Esan liteke, beraz, XX. mendearen erdira arte ez dugula aztertze moduko bat-bateko bertso korpusik» (Garzia, Egaña, Sarasua, 2001: 20). Izan ere, bertsolaritzak ikergai bilakatzeko izugarritzko traba zuen; entzuleen

oroimenean gordeta geratu ezean, bertsoak haizeak eramaten baitzituen. Horregatik, ikerlariak bereziki estimatzen dute XIX. eta XX. mendean *bertso-paperekin* edo *bertso-jarriekin* osatutako lehenengo bertso-corpora.

Bertsolaritzaren gaineko gogoetarako helduleku oso gutxi izateak ikerlariari edo eremu intelektual-akademikoari sortutako traba izan zitekeen ondorio nagusia, baina Azurmendi haratago doa eta gabezia horrek bertsolaritzaren definizioan bertan eragindakoa nabarmentzen du: «[...] nola ez dakigun bertsolaria obraren aldetik definitzen, [...] subjektuaren aldetik definitzen dugu» (Azurmendi, 1980: 160). Geroago, Carmen Larrañagak bat egin zuen Azurmendiren ideiarekin ñabardura garrantzitsu bat gehituz, subjektu horiek gorputz maskulinoak dira, sozialki gizon gisa irakurriak. (Larrañaga, 1994).

Eta gizon bertsolari-subjektuan oinarrituta bertsolaritzaren garai ezberdinak finkatu dira. Joxerra Garziak egindakoa da ziur aski gehien erabiltzen den sailkapena (Garzia, 2012: 51). Horretan bi aro agertzen dira nagusiki bereizita: XX. mendearen aurrekoa eta XX. mendearen ondorengoa. XX. mendearen aurretik bi garai zehazten ditu Garziak. Batetik, historiaurrea deitzen duena (*hasieratik* 1800era arte) eta, gero, *Desafioak eta bertso-papera* izendatzen duena (XIX. mendean kokatuta). Bestetik, XX. mendea dugu, eta horren barruan zenbait garai bereizten ditu: bazterreko bertsolaritzatik lehenengo txapelketara arte (1900-1935), isiltasun-aldia (1936-1945), biziraupen-bertsolaritza (1945-1960), erresistentzia-bertsolaritza (1960-1979), herriari kantatzetik publikoarentzat kantatzera (1980-1998), bertsolaritza multipolarra (1999-...).

Kronologia horretatik funtsezko une bat nabarmendu beharko banu, XIX. mendearen eta XX. mendearen arteko muga aukeratuko nuke, tarte horretan bertsolaritza modernoaren esanahia finkatzen hasten delakoan bainago. Ondoren, XX. mendean zehar, bertsolaritzaren iraultza (Garzia, Egaña, Sarasua, 2001: 21) gertatuko zen (batez ere 80ko hamarkadatik aurrera). Orduan tradizioa erabat berrituko zen, bertsolariaren egungo definizioa finkatu arte: «Jendaurrean bertsoak bat-batean sortzen dituen da» (*ibid.*).

Eta definizio hori eratu baino lehen, aipatutako historiaurreko horretan (Garzia, 2012: 51), zer zen bada bertsolaritza? Zein bertsolaria? Dauden testigantzek diote bertsolariak jendaurrean aritzen zirela, plazaz plaza, kalez kale. Baina, esanda dagoen moduan, datu gutxi daude jardun horren inguruan eta ia ezinezkoa da jakitea bat-batean egiten zuten ala ez, non, noiz, zeinen aurrean... Halere, Garziak proposatzen duen sailkapenera bueltatuta, XIX. eta XX. mendeen arteko trantsizioan, bertsolaritzari loturiko bi jardun mota ezberdin elkarrekin bizi ziren: batetik bertso-paperearen inguruko jarduna; bestetik, desafioak edo bertso-demak, nagusiki Lore Jokoen testuinguruari lotuak. Denborarekin bertsolaritzak papera baztertu eta ahotsari protagonismoa ematera jo zuen.

## **BERTSO-PAPERAK**

Antonio Zavalaren ustez zaila da jakitea noiz *jai*o zen bertso-paperaren generoa (Zavala, 1980: 119). Antza denez jada XVIII. mendean zenbait gabon-kanta paperetan ateratzen hasi ziren, baina egileak zalantzak ditu horiek *bertso-paper* gisa kontsideratuak izan daitezkeen ala ez. Izan ere, Zavalaren ustez gauza bat da bertsoak gizon (sic) ikasiak paperera eramatea eta beste bat bertsolari jator baten bertsoak izatea. Halere, bere hipotesia da jende eskolatuak hasi zela bertsoak paperean argitaratzen eta gero, bide egokia zela ikusirik, bertsolariak (eskolatuak izan ala ez) gauza bera egiten hasi zirela. Zavalak berak aditzera ematen duenez, 1847an, Juan Ignazio Iztuetak, bere Gipuzkoako probintziaren kondaira-liburuan, bertso-papera praktika zabaldua zela adierazten du. Hori dela eta, Zavalaren hipotesia da bertso-jardun mota hori mende bat lehenago hasi bazen ere, XIX. mendearen hasieran indartu zela. Are gehiago, egileak dio garaian izandako bi gerlek ez zutela kalterik egin (*ibid.*: 120). Ildo beretik, Maitane Ostolazaren lanak erakusten du bertso-paperak iturri historiografiko garrantzitsua direla XIX. mendean zehar garatuko zen karlismoa ikertzeko (Ostolaza, 2010: 105). Ostolazaren ustez, garai hartan bertso-paperean kontsumoa izugarria zen, bertan zenbait aldagaik bat egiten zutelarik. Batetik, garaiko bertsolariaren figura dugu, pertsona argia, azkarra, garaiko kezkekiko sentsibiltate handia duena, eta, batez ere herrikoia eta hizkuntzarekin zein hitzarekin izugarri trebea dena. Hau guztiagatik, (*ibid.*: 108),

[...] los bertsolaris conectaban fácilmente con las preocupaciones del pueblo al moverse en las mismas coordenadas ideológicas y culturales que las clases populares. De ahí su aceptación y su elevada consideración social, sobre todo en los medios rurales, compitiendo en muchos casos en prestigio e influencia con el cura-párroco de la localidad.

Bestetik, bertso-paperek garaian sortzen ari zen *informazioaren beharrarekin* bat egiten dute. Prentsa modernoaren sorrerak zein argitaletxeen negozioaren hedapenak (Aizpuru, Delgado, Ostolaza, 2010: 331) aukerak zein eginkizun berriak eskaintzen dizkiete bertso-paperei. Argitalpenen negozioak bertsolaritzaren hedapenean laguntzen du eta, era berean, bertso-paperek edukiak ematen dizkiete sortzen ari diren argitalpenei.

Dena den, informazioa zabaltzeko ez ezik, bertso-paperak talde-identitatea, elkartasuna eta oroimena sortzeko eta sendotzeko ere baliagarriak izan ziren (Ostolaza, 2010: 109-110). Ez hori bakarrik. Kontuan izanda testu haiek erosi, kantatu, ikasi eta etengabe errepikatzen zirela, jasotzaileek zuten parte-hartzea ere nabarmendu behar da (Aizpuru, Delgado, Ostolaza, 2010: 331); izan ere, bertsoak moldatu, aldatu edo egokitu zitezkeelako. Era horretan, bukaeran, bertsoak *inorenak eta denonak* ziren, taldean egindako sormen-lana bilakatuz: «Perteneciendo su autoría definitiva a toda la comunidad al ser la comunidad la que daba la forma final a los bertso-paperak a través de sucesivas modificaciones y adaptaciones» (*ibid.*).

Edozein kasutan, denborak aurrera egin ahala, eta batez ere 60ko hamarkadatik aurrera, bertso-papereen protagonismoa itzaltzen joango da. Aldiz, bertsolarien bat-bateko jardunak nagusitzen hasten dira.

## **JENDAURREKO BERTSOLARITZA**

Egun, esku artean ditugun zantzuen arabera, jendaurreko bertsolaria, dokumentatua eta subjektu historiko gisa, XIX. mendean agertzen da. Ez edozein testuingurutan gainera. Aurrena Villabonan 1802an egindako bertso-gudan. Ondoren, Lore Jokoek bultzatutako lehiaketa-giroan.

Bertso-papereen arrakasta atzean utzita, irriatik bere garaian, telebistak ondoren eta gaur egun Internetek eta gainontzeko bide digitalek, bertsoaren jarduna *hemen eta orain* kokatzen dute. Une eta toki jakin batean, zeinean gorputz bati loturiko ahotsak *soinu-bide* bat mugatzen duen (Murray, 1976). Bertso-papereen logika bestelakoa zen. Bertsoak, behin idatzita, saldu edota zabaldu egiten ziren, irakurriak, ikasiak eta errepikatuak izateko asmoz. Gorputz bat zegoen, zalantzarik gabe, idatzi horren atzean, baina hura erraz desagertu edo ezabatuko zen, bertsoa errepikatzen duenaren gorputzak protagonismoa irabaziz. Jendaurreko eta papereko bertsolaritzak gorputz (jakin) bat dakar. Horrela, gorputz jakin batzuk jendaurreko edo paperezko bertsolaritzarako *jaiok* izango dira<sup>2</sup>.

Bat-batekotasuna erdigunean jartzeak izaera berezia eman dio bertsolaritzari. Ezaugarri ugari aipa daitezke, baina denen artean bi nabarmendu beharko lirateke. Batetik, bertsoa sorkuntza errepikaezina eta zuzeneko da; bestetik, entzulearekin lortzen den erabateko lotura eta *feedbacka*. Azken ezaugarri horri buruz, hona hemen Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuaren hitzak (2001: 54):

Jendaurreko bertso-emanaldietan entzuleak saioaren emaitzan duen esku hartzea berezia da: sorkuntzaren garapenean entzulearen erantzunak eragin nabarmena du, errokoa. Azken batean, ingurunea sorkuntzarako oinarritzko osagaia da bertso-saioetan.

Praktikan, bertsolariaren gorputza jartzen da erdigunean: papera izan beharrean gorputzak eusten dio bertsoari. Aldi berean, gorputza da sortzaile eta jasotzaileen arteko muga. Bertsolariak ez du besterik, ez pertzibitzeko ez eragiteko. Bertsolariak zaila du publikorik gabe inprobisatzea; eta, era berean, bertsozaleek ez dute bertsoa jasoko bertsolaria bere gorputzean egon ezean.

Bertso-paperei kultura oso bat lotu ahal zaaien moduan, bat-bateko bertsolaritzak kultura berri bat sortu zuela esan daiteke, bertsolariak zein bertsozaleak jarduteko modu berrietara egokitu behar izan zutelako. Nago mudantza-prozesu horretan

---

2. Bereizketa honetan sakontzeko oso interesgarria da Pio Perezek (2013) Zapirain familiako bertsolarien inguruan egindako lana. Bertan argi azaltzen da zapiraindaren profila bertso-papereen generoa lantzeko oso egokia zela eta, ez hainbeste, jendaurreko bertsolaritza garatzeko. Publikoa aurrean aritzeko zuten zailtasunen artean, ahotsa (*ahots txikia omen zuten*) nabarmentzen da bereziki.

ahotsa ezinbesteko elementua izan zela. Bertsolaria, publikoa eta bertsoa. Horiek dira, egun, bertsolaritzaren jardunaren oinarritzko elementuak. Horiek eta ahotsa, denen arteko lotura egiten duena. Juan Mari Lekuonak (1980) jendaurreko bertsolaria bere poemak «hotsegiten dituen» dela zioen.

Bertsolaritzaren teoriak aritu direnak ahotsaren garrantziaz jabetu badira ere, oro har, bertsogintzan ahotsa kantuak duen izaeraren barruko aldean kokatu dute: «kantua ere bada bertsoa, eta, emozioa sortzerakoan, testua bezain garrantzitsu izan litezke doinua, ahotsa eta kantaera» (Garzia, Egaña, Sarasua, 2001: 140).

Testu honetan, ahotsa erreskatatu nahi dut elementuen zerrenda horretatik (testua, doinua, ahotsa eta kantaera) bere protagonismoa nabarmentzeko. Izan ere, bertsolaritza ahozko kultura baten ordezkari gisa irudikatzen baldin badugu, ahotsean izan behar du oinarria. Joaquín Díaz antropologoak, ahozko kulturaz ari dela, hau dio hizlari edo poetari buruz (Díaz, 2005):<sup>3</sup>

El sentimiento, el mito, el tejido social, son sus temas preferidos pero la entrega de ese material molturado, triturado y poetizado sólo funciona si funciona la voz que lo traduce al lenguaje íntimo con el concurso de una melodía y un ritmo que seducen y fascinan.

Ezinbestean ahotsak bertsoari eusten dio, eta antropologo gisa horretan ere erreparatzea eta ikertzea izan beharko genuke erronka.

## **ANTROPOLOGIA ETA AHOTSA**

Sarritan gertatu zait iluntzean izandako bertso-saio bizi baten ostean, etxera joan eta lo hartu ezinean ibiltzea. Bizitako emozioz gainezka sentitu izan dut gorputza, egonezinean, urduri, mugitua, zeharo hartua. Eta ahotsak edonon. Burutik atera ezinik, ahots ezberdinez osatutako korapilo bat. Ahotsak, oihartzunak, hitzen jariora. Doinuak sentitu ditut belarri inguruan zurrumbilo moduan.

Denborarekin ohitu naiz. Gainera, ikasi dut horiek direla bertso-saioak utzitako aztarnak eta arkeologo moduan edo, indusketa-ariketak egin behar ditudala. Gorputza sensografo gisa aritzen da eta saioan zehar gertatutakoa jaso eta erregistratzen du. Antropologoak horren ganean egin behar du lan, sentsazio horiek ahalik eta hobekien bilduz eta gordez.

Aipatuenez, elementu ezberdinek *hartz*en gaituzte eta, praktikan, datu, informazio eta materialen zurrumbilo batean murgiltzen gara. Horien guztien artean, nire baitan, bat nabarmendu zen 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian. Auskalo zergatik, txapelketak iraun zuen asteetan, ahotsak harrapatu

3. Testu hau egileak berak, Joaquín Díez-ek, eman zidan. Hitzaldi baterako idatzi zuen eta «En defensa de la voz» da izenburua. Testu horren bertzio bat Interneten topa daiteke: <[https://funjdiaz.net/a\\_articulos2.php?id=20157](https://funjdiaz.net/a_articulos2.php?id=20157)>.



ninduen. Horrekin jabetu bezain pronto, soinuak zein ahotsak gizarte-antropologian izandako tokiaz arduratzen hasi nintzen.

Ez dago tokirik hemen entzumenak gizarte-antropologian izan duen tokia deskribatzeko, baina, oro har, esan daiteke 1970eko eta, bereziki, 1980ko hamarkadatik asko izan direla, eta izaten jarraitzen dutela, soinua edota entzumenari buruz egindako lan antropologikoak. Horietako lan gehienetan, mendebaldeak ikusmenari eskainitako demaseko arreta azpimarratzen da, entzumenak jasandako bazterketa salatuz. Raymond Murray-k dio gure kulturaren informazioaren % 80 begien bitartez jasotzen dugun sinesmena dagoela, baina «muy pocas personas se paran a pensar que quizás esto no fue cierto en el pasado ni lo será tampoco en el futuro, y que ni siquiera lo es en el caso de gran parte de la población actual del mundo» (Murray, 1976: 4).

Murrayk bezala, beste egile askok, entzumenaren alde egin dute, *Sound Studies* edota *Sound Culture Studies* bezalako ikerketa-eremuak garatzeraino. Bertan, soinuaren etnografiak landu dira, soinua bera sistema kultural gisa definituz (Feld, 1990).

Halere, testu honetan, soinuaz baino areago ahotsaz hitz egin nahi da, abiapuntuan bi ideia kokatuz. Batetik, Webb Keane-k (2001: 268) ahotsaren inguruan egiten duen definizioa: «The concept of voice, meaning the linguistic construction of social personae, addresses the question “Who is speaking?” in any stretch of discourse». Gogoeta horretatik, ahotsak duen izaera eraikia azpimarratu nahiko nuke, antropologia eta ahotsean aditua den Amanda Weidman-en proposamenarekin bat eginez. Bere hitzetan (Weidman, 2014: 40): «Voices are material embodiments of social ideology and experience».

Planteamendu horietatik, antropologo gisa gonbidapen zuzena jaso dezakegu: eraikuntza soziala den heinean, ahotsa ere bere testuinguru kulturean eta historikoan jarri behar dugu. Eta ez hori bakarrik, ahotsak, testuinguru baten berri ematen digu: ahotsak bizitza sozial bat edukiko luke (Feld, Fox, Porcello, Samuels, 2004: 341).

Idea hauek oso agerian geratzen dira ahozko kulturaren testuinguruan. Hor, ahotsak beste dimentsio bat hartzen du. Díazek deskribatzen duen moduan: ahotsak ez du hitza bakarrik transmititzen/garraiatzen, eduki sentimentala ere bai. Ideia horren oinarrian dagoen bereizketa ezinbestekoa iruditzen zait; izan ere, Leslie C. Dunn eta Nancy A. Jones-ek (1994:1) argudiatzen duten moduan, sarritan *hotsaren* (*voice*) eta *hizketa* edo diskurtsoaren (*speech*) arteko nahasketa gertatu da, gehienetan hitzak edota diskurtsoak protagonismoa bereganatuz.

Nire ustez, nahasketa horren trazak bertsolaritzan ere topa daitezke. Horrela, denboraren poderioz, bere *ahozko* izaera ahaztu (edo) eta, mezuak, diskurtsoak eta edukiak gailendu direla esango nuke. Arrazoiek erdigunea hartzen dute. Komunikazioa, komunikatiboa izateari zor dio morrontza egungo bertsolariak.

Morrontza hori bera zuten garai bateko glosalari edo juglareek, baina, Díazek (2005) azaltzen duen moduan, dena ahotsaren baitan zegoen: «La eficacia de su voz (juglarearena), especialmente preparada para comunicar».

Hizkuntzari, mezuari, diskurtsoari ezin zaio inolaz ere garrantzia kendu, baina ahozko kulturaren bide oparotik iritsi zaigu gaur egunera arte bertsolaritza eta, ezinbestean, hizkuntza, mezua eta diskurtsoa garraiatzen duen ahotsa ere interesgune pribilegiatua litzateke. Horri heltzeko, antropologiak aukera ezberdinak eskaintzen ditu, betiere, abiapuntu jakin batetik: ahotsa berak esanahia du. Esanahi hori kokatua da, testuinguru jakin bati dago lotua. Horregatik antropologok ahotsaren unibertsaltasunetik haratago begiratu behar dugu ahotsak non, noiz, zeri edota nori lotuta agertzen zaizkigun aztertzeko. Eginkizun horretan, ahotsak berezkotasuna bereganatzen du. Hortik aurrera azterbideak biderkatzen dira, baina, testu honen helburuetarako bi behintzat aipatu nahiko nituzke: ahots-ideologiaren inguruan sortutako ikerketa-eremua eta ahots-praktikei lotutakoa.

## **AHOTS-IDEOLOGIAK**

Ahots-ideologiak ahotsaren gainean, oro har, garatzen diren ikuspegi, esanahi, errepresentazio edota metaforez arduratzera gonbidatzen gaitu. Weidmanen hitzetan (2014: 45):

Ideologies of voice can be characterized as culturally constructed ideas about the voice, including theories of the relationship between vocal quality and character, gender, or other social categories; where the voice comes from; its status in relation to writing and recorded sound; the relationship between the voice and the body; what constitutes a natural voice; and who should be allowed to speak and how.

Ildo horretatik, Weidmanek berak mendebaldeak modernitatearen garapenarekin batera zabalduko ahots-ideologia (zehatza) azpimarratzen du. Horrek, oinarrian, bi ideia nagusi edukiko lituzke. Batetik, ahotsak norberaren presentzia irudikatzen duela azpimarratzen da, *ni-a, identitatea* zein agentzia. Praktikan, agentzia izatea ahotsa izatearen sinonimoa litzateke. Bestetik, mendebaldeak bultzatutako bigarren ideia legoke: ahots batek garraiatzen dituen bi oinarriko elementuen arteko bereizketa. Weidmanen ustez, ahots batean mezua batetik eta, bestetik, sonoritatea eta materialtasuna banatzea ohikoa izaten da, bigarren horiek lehenengoarekiko menpekoak izanik. Egilearen hitzetan (*ibid.*: 39): «Voice then becomes a central vehicle for this modern interiorized self».

Edozein kasutan, hizkuntza-ideologia moderno honen oinarriak kritikatu izan dituztenek ere, ahotsaren nozio orohartzaitetik aldentzeko joera izan dute, bereziki hizkuntzan eta hitz egiteko moduan erreparatuz. Ahotsaren dimentsio soniko eta materiala (Weidmanek *vocality* gisa izendatzen duena) animaltasunarekin lotu izan ohi da, bigarren edo hirugarren mailan utziz. Halaber, denborarekin, psikoanalisiak eta dekonstruktibismoak ahotsaren dimentsio guztiak (baita haren potentzialitate

disruptiboa ere) errekupearatu zituzten. Horrela, Julia Kristevak eta, bereziki, Roland Barthesek ikuspegi berriak esploratu zituzten ekarpen interesgarriak eginez. Horien artean, Barthesen planteamendua nabarmendu nahiko nuke (Barthes, 1977), testu honen oinarrian dagoen ideia, ildo beretik datorrelako. Egile horren iritziz, musikak entzulearengan sortzen duen gozamina ez dator hainbeste melodiatik edota hitz edo mezuetatik, ahotsak dakarren ahozko materiatik (*material vocality*) baizik, ahots-aletik (*the grain of the voice*). Ahots-ale horrek gorputzaren materialtasuna dakar. Jardun horretan, gorputzak berak hitz egiten edo abesten du, dio Barthesek. Ahotsa, gorputzetik datorren fluidoa litzateke, horregatik, sarritan posible da zenbait ahotsetan gorputza(k) ikustea<sup>4</sup>.

### AHOTS-PRAKTIKAK

Ahots-ideologiekin lotuta, baina bigarren ikerketa-eremu bezala, antropologiak ahotsarekin lotutako praktikak nabarmentzen ditu, horiek baitira ahotsaren gaineko diskurtsoei (errepresentazioei, metaforei eta abarri) eusten dietenak. Ahotsa praktika jakinen bitartez *sortu* edo *ekoizten* da, dimentsio bien artean sortutako lotura estua baino estuagoa izanik. Praktika horiek ahotsaren eraikuntza-prozesuari egiten diote erreferentzia, eta Weidmanek (2014: 42) *voicing* kontzeptuarekin irudikatu du. Bere ustez, esanahiz beteak legoke prozesu hori, izaera estrategikoa eta politikoa edukiko luke, eta egunerokotasunean zein une berezietan ematen diren performanceetan gauzatzen da.

Vocal practices, including everyday speech, song, verbal play, ritual speech, oratory, and recitation, can be viewed as modes of practice and discipline that, in the irrepeated enactment, may performatively bring into being classed, gendered, political, ethnic, or religious subjects (Weidman, 2014: 44).

Ahots-jardunen nozioak (*Vocal practices*) norbanakoaren eta egituraren arteko tentsioa eta elkarri eragitea jaso eta islatzen ditu, zenbaitetan dikotomia hori gainditzeko eta zalantzan jartzeko aukerak ere zabalduz. Noraino ahotsak irudikatzen/erreproduzitzen du gizarte-egitura? Noraino ahotsak du gaitasuna gizarte egituraren eragiteko? Noraino ahotsak ez du laguntzen irudikatzen berezko mundu bat, berezko logika batekin, gizartearen eta norbanakoaren arteko tentsio horretatik ihes egiten duena?

Dimentsio praktiko honek gainera, badu beste ertz interesgarri bat: publikoarekin harremanetan jartzen gaituena. Izan ere, ahots-jardunek entzuleria sortzeko gaitasuna dute. Horren erakusgai dugu, beste askoren artean, bertsolaritza. Weidmanek (*ibid.*) ohartarazten gaituen moduan, ahots-jardun ezberdinak —entzutearen poderioz eta askotan komunikabideen bitartez gertatzen den zabalpenarekin lagunduta— kolektibitate baten oinarri diren identitate, afektuak edota intimitatea hornitzeko gai dira.

4. Ideia hau *Flamenco desde el diván* izeneko blogean topatutako sarrera batetik hartu dut. Sarrera horrek *El grano y la voz* izenburua zuen eta, bertan, egilea, Roland Barthes, ideiak flamenkoan aplikatzen saiatzen da.

Mendeetan zehar euskaldunok bertsolaritzarekin izan dugun lotura afektibo eta intimo horren adibide ginateke. Ahozkotasunean aditua zen John Foleyk zioen, bertsolaritzak lortutako garapenak, eta batez ere, sozialki izandako hedapenak, kultur praktika hau munduan bakarra izatera iritsarazi zuela.

Antropologo eta etnografo gisa, lekuari zor diogu errespetua. Hortik dator gure zeregin nagusia: lekuan lekuko lana egitetik. Tradizionalki, leku hori espazio (fisiko) gisa irudikatu dugu, hortik —Bronislaw Malinowskirengandik aurrera— ikerketa objektuarengana joan beharra. Hortik, antropologoak izan dituen bertaratzeko eta bertakotzeko beharrak. Baina nago, doinuaren zein ahotsaren munduan sartu nahiak (edo sartzeko interesak) bestelako leku batera joateko beharra agintzen digula; bestelako bertaratzeko eta bertakotzeko beharretara eramaten gaituela hain zuzen ere. Doinuak, ahotsak, beste espazio bat sortzen dute: soinua egitea/eragitea, (bestelako) leku/toki bat egitea da.

Steven Feld-ek, soinuaren antropologian adituak, honela deskribatzen zuen oihanean urteetan egindako soinu eta ahotsen inguruko lana (2004: 465):

And when you hear the way birds overlap in the forest and you hear the way voices overlap in the forest, all of a sudden you can grasp something at a sensuous level that is considerably more abstract and difficult to convey in a written ethnography.

Feldek egindako deskribapen horretatik, sentsual zein sentsorial gisa definitzen duen maila hori nabarmendu nahiko nuke. Maila hori Nin Sun Eidsheim-ek *sensing voice* bezala izendatzen duenetik gertu kokatuko nuke eta musika (kantatua) eta ahotsak biltzen dituen aspektu hurbilgaitzengana eramango gintuzke: «[...] those aspects of music that are inaccessible to standard notation but available to all our perceiving senses» (Sun Eidsheim, 2015: 134). Sun Eidsheimen ustez, ahotsa leiho bat da abeslari zein publikoen gorputzek dituzten ezaugarri fisiko zein sentsorialengana iristeko. Are gehiago, leiho bat da abesteko zein entzuteko praktikak, bizitutako esperientzia gisa ulertzeko. Halaber, mendebaldeak musika zein ahotsa jasotzeko, *idazteko* zein adierazteko garatu duen metodo *kuantitibistak* ez die bide eman esperientzia sentsorial horiei: «Western music studies favor the idealized and abstract at the expense of the sensible, unrepeatable experience» (*ibid.*).

Mendebaldeko sistema horrek doitu (edo *afinatu*) egin du gure gorputza eta horrek soinua pertzibitzeko duen gaitasuna (Sun Eidsheim, 2015: 149). Horregatik ez dugu modurik topatzen definitzeko eta azaltzeko soinu edo ahots jakin batzuen aurrean (gure) gorputza bizitzen, sentitzen eta esperimendatzen ari dena.

## **EMAKUME BERTSOLARIAK ETA AHOTS EMEAK**

Testuan zehar aditzera eman den moduan, azken urteotan ikuspegi de-naturalizazioak agertzen ari dira ahotsaren inguruko eztabaidetan, besteak beste, hizkuntza-antropologiatik, musikologiatik edo etnomusikologiatik. Ikuspegi horretatik ahotsa

produktu sozial gisa agertzen zaigu, elementu zein estrategia ezberdinen bitartez ekoitzi, aldatu edo birmoldatu daitekeena. Weidmanek (2014: 39) ikuspegi horien ekarpenak azpimarratzen ditu:

[...] perspectives which are grounded in the notion of voice as embodied practices haped by and embedded in culturally and historically specific social relations.

Planteamendu horietatik abiatuta, zenbait kontzeptu azaleratzen ari dira, ahotsaren izaera soziala, subjektiboa, moldakorra... nabarmentzen dutenak. Aurretik aipatu den moduan, mendebaldean, ahotsak epistemologia jakin batekin duen lotura oso estua da. Hortaz jabetzeak ikertzeko zein hausnartzeko bide zabala irekitzen du, ahotsak eskaintzen dituen aukerak izugarri zabalduz.

Weidmanek, adibidez, *voicing* kontzeptuaren garrantzia nabarmentzen du, horren bidez, ordura arte ohikoak izan diren hainbat ideia eztabaidan jarriz. Hiztunak —dio Weidmanek— ez dira entitate itxiak, erabat koherenteak. Mikhail Bakhtinek, heteroglosiaren kontzeptuarekin, jada, ohartarazten gintuen hiztun bakar batean eta, askotan, adierazpen bakar batean ahots ezberdinak elkarrekin bizi daitezkeela, sarritan, izaera kontraesankorra dutelarik (Bakhtin, 1981 in Weidman, 2014: 42). Era berean, *voicing* nozioak ahotsak garraiatzen dituen hitzak esperientzia subjektibo bakar baten adiera direla zalantzan jartzen duela dio Weidmanek. Egile horren ustez —Ervin Goffmanen planteamenduei jarraituz—, *voicing* kontzeptuak nabarmentzen du hiztunak kokapen ezberdinak eduki ditzakeela *ahoskatzen* ari den horrekiko:

[...] author, or originator of the words; animator, or actual speaker of the words; and principal, the person or entity responsible for the message or in whose interests the words are spoken (Goffman, 1981 in Weidman, 2014: 42).

Zalantzarik gabe *voicing* bezalako kontzeptuek laguntzen dute era *natural* batean ahotsaren gainean barneratutako uste zein ideiak kolokan jartzen. Gainera, ahotsaren eraikuntza-prozesua azpimarratzean, ahotsari bueltatzen zaio agentzia. Batez ere, ahotsak igortzen duen gorputzari edo gorputzutako ahotsari. Prozesu hori izendatzeko zenbaitek *vocality* nozioa erabiltzen dute. Jada XX. mendearen lehenengo erdialdean Marcel Jousse bezalako egileek ahozkotasuna eta ahozko generoen inguruan hitz egitean gorputzari ematen zioten bereziki garrantzia, euren ustez hori baitzen hizlariaren eta publikoaren arteko lotura sortzeko eragiten zuen gako nagusietariko bat. Jousseren lana aztertzean Joaquín Díazek nabarmentzen du egile horrek gorputzari emandako garrantzia, hizlaria *sinesgarri* edo agertzeko, *hitzak murtxikatu eta irenstera* behartuta zegoelako (Díaz, 2005).

Urte batzuk beranduago, Paul Zumthor (1989) historiagileak, *orality versus vocality* bereizketaren aurrean, bigarren horren alde egin zuen. *La vocalidad es la historicidad de una voz: su empleo* (Zumthor, 1989: 23)

Ahazkotasuna sakonki aztertu dutenek argi dute hitzak pisua eta eragina badu, hizlariak hitz hori *bizi* egiten duelako da. Hitzek zabaltzen duten mezuaz aparte

elkarrekiko lotura bat egon behar du hitzaren eta bizitzaren artean, eta horrek publiko aurrean ari den pertsona —bere osotasunean— konprometitzen du:

Porque, como diría Zumthor, la actuación del intérprete compromete a toda su persona: el conocimiento, la inteligencia, la sensibilidad, los nervios, los músculos, la respiración, un talento para reelaboraren un tiempo muy breve (Zumthor in Díaz, 2005)

Urrats bat haratago eginez, Leslie C. Dunn eta Nancy A. Jonesek (1994) ahotsa generoarekin zeharkatutako eraikuntza kultural gisa irudikatzen dute, eta ez bakarrik era metaforikoan: gorpuztutako edota gorputzarekin eraikitako prozesu (generizatu) gisa baizik.

To move to «voice» to «vocality», then, implies a shift from a concern with the phenomenological roots of voice to a conception of vocality as a cultural construct. By specifying female vocality, we also assert the centrality of gender in shaping that construction. Here our third term, «embodiment» comes into play. As a material link between «inside» and «outside», self and other, the voice is, in Nelly Furman's works, the locus of articulation of an individual's body to language and society (Dunn, Jones, 1994: 2).

### **AHOTSA, GORPUTZA ETA GENERIZAZIO-PROZESUAK**

Nago emakume bertsolariek azken bost mende igaro dituztela euren (a)hotsa berriz topatu arte; XV. mendeko profazadoreen (a)hotsa berreskuratu arte; Maialen Lujanbiok 2017ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan, publikoa XV. mendeko ahozkotasan erradikalera bueltatu zuen arte.

Egun, oso zaila egiten zaigu idazteko aukerarik ez zuen gizarte edo kultura bat irudikatzea (Frenk, 1997: 15). Baina egoera horretatik nahiko gertu zeuden, XV. mendean Bizkaiko Foru batek debekatu zituen, emakume profazadoreak. Jakina da ordurako mendebaldean idazketa zabaldua zegoela, baina Margit Frenkek dioen moduan, ahotsak, ahozkotasanak edo bokalitateak (eta behintzat XV. mendea pasa arte) *agintzen* zuten oraindik (*ibid.*: 30). Eta ez edozein ahots, ahozkotasan edo bokalitatek, gorputzaren materialitasunaz osatutakoak baizik. Hori horrela zela irudikatzeke, aipatutako Foruak zioena berreskuratu nahiko nuke. Debeku horrek horrela definitzen zuen bere jomuga (Garzia, Egaña, Sarasua, 2001: 19):

[...] sobre mujeres que son conocidas por desvergonzadas y revolvedoras de vecindades y ponen coplas y cantares a manera de libelo inflamatorio.

Aurrerago emakume horien jarduna honela deskribatzen zen (*ibid.*)

En qué manera se puede hacer llanto y poner luto por los difuntos [...]. Ordenaron, y establecían por ley, que de aquí adelante cuando quiera que alguno muere en Vizcaya [...] no sea osado de hacer llanto alguno mesándose los cabellos, ni rasgándose la cara, ni descubriendo la cabeza, ni haga llantos cantando, ni tomen luto de márraga, so pena de mil maravedís a cada uno que lo contrario hiciere por cada vez.

Deskribapen horiek ulertzeko bereziki baliagarriak dira Frenkek ahozkotasunaren unibertso horretan komunikazioa zertan zetzan deskribatzeko erabiltzen dituen hitzak (Ong, 1982; Finnegan, 1992; Zumthor, 1983 in Frenk, 1997: 34):

[...] en una cultura oralizadora la comunicación [...] reúne a la gente en grupos [...] y la performance —palabra, en este contexto, imprescindible— es necesaria para la plena realización de un texto [...], con lo cual el hic et nunc de ese evento público y colectivo adquiere suma importancia.

Horrek —dio Frenkek— esan nahi du olerkia irakurtzen edota abesten den egoera, abeslaria, entzuleria, tokia zein momentua, gertakari horren ezinbesteko elementuak direla (*ibid.*: 35). Eta egoera horren erdigunean gorputzak daude. Gorputz bat beste bat edo asko zuzentzen. Testuinguru horretan *hitzak* bizitza du, izaera erreala du, orainaldi bat du. Ahots horren materialtasuna da, hain zuzen ere, bere boterea, mezua, diskurtsoa, hitzak gaindituko dituen.

Horregatik pentsa dezakegu profazadoreen gainean ezarritako debekua emakume horien hitz edo kantuei baino gehiago, euren gorputzei zuzendutakoa izan zela. Horregatik Foruaren egileek tarte luzea hartzen dute emakume horien gorputz-jarduna deskribatzeko. Gorputz horietatik —algara, keinu bortitzak, burua estali gabe erakusteko joera— sentsorialitatea eta sentsualitatea zerion.

(A)hots bat zigortzen eta debekatzen ari zen. Materialtasun jakin bat. Gorputz (jakin) batzuek eragindakoa.

Ez dakigu ezer Foru horren eraginari buruz, ezta emakume profazadore horiek egingo zuten ibilbideari buruz ere, baina jakina da, geroztik, emakume bertsolarien arrastoa ia-ia galtzen dela. Ziurtzat jo dezakegu, debeku horren ondoren ere emakumeak, (gizonezkoak bezala) bertsoez baliatu zirela munduarekin harremanetan jarraitzeko, baina, oso bertso gutxi dira horren berri ematen dutenak. Episodio edota notizia solteak dira; askotan izen-abizen gabeko protagonistekin.

Hurrengo bertso-jardun dokumentatuak 1802an kokatzen gaitu. Villabonako plazan. Hau da Jesus Mari Etxezarretak horren inguruan egindako kontakizuna (Etxezarreta, 1993: 10):

1801ean Billabonako plaza andian. Parte hartu zuten bertsolariak: Juan Ignacio de Zabala, Amezketakoa eta José Joaquin de Erroicena «Txabalategi» Hernanikoa. Apustua bosna ontzako urre (denera 10 ontzako urre). Garaia: karnabala inguruan (otsaila). 4.000 entzule bildu omen ziren. Juezak ere baziren: alde bakoitzak pertsona bat aukeratzen zuen, gero beste pertsona bat «inpartziala» (alkatea, eliz inguruko gizon bat...). Bi ordu luzetan jardun ziren.

Deskribapen horrek ez du zer ikusirik Fueroak utzitakoarekin. Kasu honetan, *performance*aren baldintza formaletan jarri du arreta deskribatzaileak, betiere, horren izaera lehiakorra nabarmenduz: bi bertsolari (gizonezkoak) epaile eta publiko zabal baten aurrean diruaren truke lehiatzen, luze, bi orduz. Gorputzak desagertu egin dira eta, eurekin batera, ahotsak.



XIX. mendearen hasieran izandako ekitaldi horretan ez da emakumerik aipatzen, baina mende horren bukaeran, Lore Jokoen barruan, emakume bertsolariak aritu zirela badakigu. Aurretik aipatu denez, norgehiagoka zen festa horren bizkarrezurra (Toledo, 1998). Kronikek diotenez, garaiko emakume bertsolariak *nekez ausartzen ziren parte hartzera*. (Gaur8, 2017)

Hala eta guztiz, txapela lortu zutenak ere egon ziren. Esate baterako Marieder Uthurralt, 1894an. Garaiko prentsak inprobisatzaile bikaina zela zioen arren, harrিতuta agertu zen *sexu ahula sexu indartsuari gailendu* zitzaiolako. Hitza tartean egonik, ez du zentzu handirik *indarra* aipatzeak, baina horrek garaiko pentsamenduaren neurria ematen digu: jada, emakumea sexu ahula zen eta gizonezkoa eremu guztietan boteretsu.

Lehiaketa horien bitartez bertsolaria eta bere jardunaren ezaugarriak hezur-mamitzen joango ziren. Azkenean 1935ean egin zen lehenengo Bertsolari Txapelketa Nagusia. Orduan Euskal Herri osoko 20 bertsolari bildu ziren, kanporaketarik gabe. Denak gizonezkoak. 1936an bigarren txapelketa egin zen. Ondoren, frankismoaren eraginez, 20 urte baino gehiagoko etena gertatu zen. Azkenean, Euskaltzaindiak 1960. urtean berriz ekin zion Euskal Herriko Txapelketa Nagusia antolatzeari eta, ondoren, 1962, 1965 eta 1967ko txapelketak etorriko ziren. Gero berriz etena, 1980. urtera arte. Une horretan bertsolaritza bete-betean berritze-prozesu batean murgilduta zegoen. Bertsozale Elkarteak sortuko zen eta bere ardurapeko lana izan zen 1980. urtean egingo zen txapelketa (eta hurrengoak) antolatzea. Xabier Amurizak irabazi zuen garaiko bertsolaritzaren martxan ekarpen nabarmenak eginez. Denen artean ezagunena bertso-eskolen sorrera eta diseinua izan zen. Amurizak ziurtasunez aldarrikatu zuen pertsona ez zela bertsolari jaiotzen, egin egiten zela baizik. Pertsona trebatu egin zitekeen bertsolaritzan aritzeko, bertsolaria izateko.

Horrek garrantzi nabarmena izan du emakumeek oholtzara jauzi egiteko prozesuan. Ordura arte ez zegoen bertsolaritza *mistorik*; ia ezinezkoa zen emakumeak eta gizonezkoak batera aritzea bertsoan, publiko aurrean behintzat. Bertso-eskolek horretarako bidea jartzen dute, batetik emakumeak bertan trebatzen hasten direlako, bestetik, espazio horrek legitimatzen duelako gizonezkoak eta emakumezkoak bertsoan batera aritzea.

Bertso-eskolaren bidetik emakume bertsolarien izen-abizenak agertzen hasi ziren: Kristina Mardaras, Arantzazu Loidi, Maialen Lujanbio, Iratxe Ibarra, Estitxu Arozena, Oihane Perea, Ainhoa Agirreazaldegi, Oihane Enbeita, Estitxu Eizagirre... Mardaras da denen artean zaharrena eta horrela deskribatzen zuen garai hura, emakumeak publikoaren aurrean bertsoan hasi zirenekoa:

Sasoi hartan emakumea zen edo ama, edo amabirjiña, edo neskazarra, edo San Frantziskon Bilbon egoten diren horietakoa. Ez, jauna, parkatu, ze mundutan bizi zarie? Inguruan badaukazue emakumearen eredu mila, normaltasunez hitz egiteko. Eta



bertsotan gaietan, klaro, grazia egiten zuten, ba bien, ba niri ez. Ta horregaz konturatu ziren nahiko arin<sup>5</sup>.

Ordura arte bertsolari zein bertsolaritzaren eredu bakarra zegoen, gizonezkoek garatutakoa eta gizonezkoek ordezkutzen zutena. Horrek bere isla zuen oholtza gainean aritzen ziren gorputzetan. Gorputz jakin bat, eta horrekin batera ahots bat eta besoak, eskuak, sorbalda, bularra zein hankak agertzeko modu bat, urte askoan zehar bakarra. Praktikan esan daiteke bertsolaritzan gorputzarekiko kezka emakumeak oholtzara igotzen hasten direnean agertzen dela.

Carmen Larrañagak garai hartan egindako diagnostikoa ezin argiagoa zen (Aristi, 1995): bertsolaritzan ez zegoen tokirik feminitatearentzat; emakumeentzat bai, maskulinizatzearen truke. Antzeko ondorioak ateratzen zituen elkarriketatutako emakume bertsolari batek:

(Galdera: Zure ustez gorputza bada elementu bat hor —bertsolaritzan— jokoan dagoena?) Bai, nahi edo ez. Ni beti, nire estrategia izan da ezkutatu, esan nahi det, hau (gorputza seinalatuz) ez balego bezela, ze handicap bat da.

Traba bat zen emakume izatea bertsolaritzan aritzeko, eta bereziki emakume bezala agertu nahi izatea (fisikoki, estetikoki, janzkeraren bitartez...). Zenbaitetan, bertsotarako gai bilakatzen zen emakumea, txantxarako aukera, bertsokideari ateraldi erraza eskaintzen zitzaion. Hori dela eta, bertsolaritzaren testuinguru tradizionalan emakume bezala (fisikoki) nabarmentzea arriskutsua zirudien. Horregatik, bertsolaritzara iristen ziren neskak mutil eta gizon bertsokideekin mimetizatzen ziren. Bizirauteko estrategia bezala definitu dute hainbat emakume bertsolarik, batez ere euren hastapenetan.

Batzuentzat, aldiz, oso zaila zen estrategia hori erabiltzea.

Arantzazu Loidi oso gazte zela<sup>6</sup> bertsolaritzan murgiltzen hasi zen eta, hortik aurrera, punta-puntako bertsolariekin batera aritu zen plazaz plaza. Zenbait txapelketatan parte hartu zuen eta hainbatetan saritua izan zen, baina bere presentziak bazuen zerbañt entzuleei bere *emakume* izana behin eta berriro gogorarazten ziena: ahotsa. Batzuen ustez finegia zen. Bertsozale batek horrela hitz egin zidan Loidiren kantaerari buruz: «Arantzazuk etzuen bozik, etzuen eztarririk, Maialen Lujanbiorekin konparatuz askoz ere femeninagoa zan hortan».

Arantzazu Loidik berak hainbat pasadizo ditu gogoan non argi islatzen diren bere presentziak sortzen zituen erreakzioak<sup>7</sup>.

---

5. Elkarrizketa Villabonan (Gipuzkoa) egin 2010eko azaroaren 25ean.

6. Arantzazu Loidik kontatu zidanaren arabera, 14 urterekin plazetan eta saioetan parte hartzen ari zen.

7. Elkarrizketa Villabonan (Gipuzkoa) eginda 2010eko urriaren 29an.

Behin gogoratzen naiz eskola arteko garai horretan, [...] saio baten nola pertsona bat, gizonezko bat, hurbildu zitzaidan eta esan zidan: ni ez naiz sekula ohituko emakume bat entzutera. Niretzat zan ui, ba nolabait kontziente egitea ni emakumea nintzela eta... baina nik ez nuen horrela bizi. Ni ez nintzen hori defenditzen, baina konturatzen nintzen zenbateaino zan hori oztopo bat.

Eta bertsolari gisa aritzen zen gehienetan bere ahotsa hizpide bihurtzen zen:

Eta hasieran [...] nik apurtu behar izan nuen horma bat edo ez dakit nola esan... muga bat... zan emakume ahotsa entzutearen kontrastea edo. Bertsotan neskatila bat o sea bertsolaria, ta gainera neskatila o sea gaztea eta gañea neska. Ta gañea holako ahotsakin ze nik neukan ahots bat, hola... hori asko entzun nuen.

Baina, aurretik azaldu den moduan, Loidiren ahotsa entzuten ari zen garai hartan (80ko hamarkadan) bertsolaritza berritze-prozesu geldiezin batean zegoen murgilduta eta bertan emakumeak berrikuntza bat izateaz gain, berritzaileak ere izan ziren: emakume bertsolariak orokorrean ematen ari zen aldaketa-prozesu baten parte izan ziren (Gartzia, Egaña, Sarasua, 2001: 28).

Une hartan ikusteke zeuden zenbait profil euren tokia hartzen ari ziren: emakumeak, gazteak, unibertsitateko ikasleak, euskal hiriko hiritarrak, eta abar. Baina emakumeen kasuan zabaltze-prozesu horrek ondorio jakin bat izango zuen: identitate edo profil eza.

Denborarekin bertso-saioetan emakume *bat* egoten saiatzea ohikoa bilakatzen hasten da, zerbait *originala* da eta antolatzaileak saiatzen dira emakume bertsolari bat lortzen kartelean agertzeko. Emakumeek beraiek adierazten dutenaren arabera, izen gutxi batzuk kenduta, gainontzekoak *elkarren artean trukagarri* gisa agertzen dira. Kolektibo bezala existitzen ziren bakarrik: *gu, neska bertsolariak*, izen-abizen propiorik gabe, ñabardurarik gabe, batak besteek ordezkagarriak.

Celia Amorosek (1987) ezin hobe irudikatu du egoera hori *identikoen espazioaz* (*Espacio de las idénticas*) hitz egin zuenean. Kasu horretan Sören Kierkegaarden hitzak ditu abiapuntu (Amorós, 1987: 120):

La mujer es una criatura infinita y, en consecuencia, un ser colectivo: la mujer encierra en si misma todas las mujeres.

*Identikoen espazio* hori *berdinen espazioari* kontrajarri zion. *Berdinen espazio* horretan gizonetako euren arteko aitortza lortzen dute (Amorós, 1987:121).

[...] por espacio de los iguales entendemos en este contexto el campo gravitatorio de fuerzas políticas definido por aquellos que ejercen el poder reconociéndose entre sí como los titulares legítimos del contrato social, a la vez que reconocen la expectativa de otros posibles titulares que aguardan su turno en calidad de meritorios, que no están actualmente en ejercicio pero sí en actitud de espera ante un relevo siempre posible, al menos, en principio.

Aitortza dagoen momentutik onarpen bat dago, subjektuari ohorea eman ahal zaio, boterea, prestigioa. *Berdinen espazioan* gizon bakoitzak (Amorosek gizonak bakarrik irudikatzen ditu espazio horretan) badu bere profila, bere ezaugarriak, bere izaera, bere berezitasunak. Horiengatik da ezaguna. Eta euren artean —lehian izan arren— kideztat dituzte euren buruak. Horrela osatu dira gizon bertsolarien genealogiak ere. Izen propioek osatzen dute bertsolaritza garaikidearen ibilbidea eta sarritan entzuten dira bakoitzaren inguruko anekdotak, istorioak, laudorioak... Horri bertsolaritzaren historia deitu izan zaio.

## **GORPUTZA BERRESKURATZEKO BIDEAN**

Historia lineal horri arrakala egiten zaio 2009ko abenduaren 13an. Egun horretan Maialen Lujanbiok Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi zuenean. Historikotzat jo da egun hori bertsolaritzaren historiaren ikuspegitik, eta, zenbaiten ustez, oro har, euskal kulturaren ikuspegitik. Txapel horren inguruan irakurketa asko eta ezberdinak egin badaitezke ere, bat gailentzen da nabarmen: bere botere erreferentziala. Onarpen bat dago, aitortza bat, ohorea, prestigioa. Txapel horren ondorioz emakume gehiago hurbildu ziren bertsolaritzara, euren ahotsak ezagutarazteko eta trebatzen hasi eta jarraitzeko. Bertsozale Elkarteak azaleratzen ari den subjektu berri horrekin bat egiten du, zenbait ekimen diseinatzen eta sortzen<sup>8</sup>. Pixkanaka, feminismoak, oholtza hartzen du gizartean genero-berdintasunaren inguruan ematen ari diren eztabaidei oihartzuna emanez.

Bitartean, 2013an, berriz, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia egin zen. Amets Arzallus atera zen garaile. Txapela buruz aldatzeak porrot gisa bizi izan zuten zenbaitek. Hurrengo txapelketara itxaron beharra zegoen, 2017ra arte, hain zuzen ere.

Eta gai-jartzaileen ahotik «Dena ondo zihoan, argia piztu den arte» entzun genuen Irungo kiroldegian 2017ko azaroaren 1ean bildu ginen 2.260 entzulek. Kartzelako ariketa zen, Maialen Lujanbioren txanda (aurretik gai berari beste hiru bertsolarik abestu ondoren). Hiru bertso bikain osatu zituen Lujanbiok, jarritako gaiari erantzuteko<sup>9</sup> edukia, teknika eta kantaera maisuki lotuz. Bikaina. Halere,

8. Adibidez, 2008an Bertsozale Elkartearen barruan *Genero Taldea* sortzen da. Urte batzuk beranduago (2015) Ahalduntze Bertso Eskola martxan jartzen da. Bi ekimen *formal* horien aurretik, mugarriztat jo daiteke 2003an egin zen emakume bertsolarien lehenengo topaketa. Horietaz gain, azken urteotan zenbait ekimen burutu dira emakume bertsolarien jarduna bultzatzeko, liburu hau bera horren adibide bat izan daiteke.

9. Jarritako gaiari erantzuteko Maialen Lujanbiok transexual baten eta heterosexual baten arteko elkarte sexu-afektiboaren kontakizuna irudikatu zuen. Pertsona heterosexuala harremanak hastekotan zegoen, argia piztu eta pertsona (transexual) bat zela konturatzan da. Harridura horren aurrean transexualak erantzuten duena dago Lujanbioren bertsoen oinarrian. Kasu honetan Lujanbio transexualaren ahotik ari da abesten. Pertsonen sexu-generoari ez diot erreferentzia zehatza egin nahi izan, benetan ez dakidalako zer den bertsolariak buruan zuena eta, bestalde, ez dudalako argi datu hori inportantea denetz.

bikaintasun horrek, bakarrik, ezin du azaldu bertsoaldi horrek sozialki lortutako arrakasta. Egunak eta egunak pasa ziren kantaldi horren bideoa sare sozialetan zirkulatzen, horren inguruan idazten eta hitz egiten. Are gehiago, egunak eta egunak pasa genituen kantaldi hori zuzenean bizi genuenok sentitutakoa eta bizitutakoa hausnartzen. Literalki hausnartzen. Izan ere, Jousssen hitzetara bueltatuz, Lujanbiok, bertsoaldi horretan erabilitako hitzak *murtxikatuz eta irentsiz* eskaini zizkion entzuleriari<sup>10</sup>.

Pertsonalki sentipen eta emozio horrek erabat blaitu ninduen goitik behera, luzaroan.

Nola ulertu bertsoaldi horren eta publikoaren arteko lotura? Nola azaldu hitz errimatu multzo horrek eragindakoa? Nire ustez zaila da gertatutakoa azaltzea, ezpada, esperientzia sentsual zein sensorial gisa.

Maialen Lujanbiok, bere bertsoek, bere bertsokerak, eta bereziki bere ahotsak XV. mendera bueltatu gintuen. Garai luze eta ilun horretara, zeinean ahotsa zen pertsonak agertzeko, aurkezteko eta bereizteko zuten tresna nagusi edo ia bakarra. Garai luze eta ilun hartan, zeinean soinua eta ahotsa harremanetarako, bizitzeko..., espazio bat (eta ia bakarra) zen. Gorputzak ahotsen menpe eta ahotsen zerbitzurako zeuden garaia. Gorputzek gorputzak erakartzeko tresna zuten ahotsa, eta ahotsean elkartu eta elkarrekin bizi ziren gorputzak. Sufritzeko zein gozamenerako zen ahotsa.

Lujanbiok garai bateko juglaren gaitasuna eta abilezia erakutsi du:

[...] personas, que traducen un compromiso —el de comunicar sabiduría— a través de su voz, que envuelve al oyente y le eleva por encima de la realidad, destacando al mismo tiempo su pertenencia a una tierra y una cultura. (Díaz, 2005)

Lehengo emakume bertsolarien antzera, zigortutako eta debekatutako profazadore horien antzera, Lujanbioren ahotsak bertsolaritzak zuen gorputz (generizatu) horietara bueltatu gaitu, gorputzutako bertsolari batera, zeinean hitzak, arrazoiak, diskurtsoak bigarren maila batean geratzen ziren, eta gorputzez sortutako ahotsak entzuleen ahotsarekin bat egiten zuen, hitzun bakar bilakatuz.

Sun Eidsheim-ek Julia Snapper abeslariak eta performerrak ur azpian emandako kontzertu baten kronika bikaina eskaintzen digu. Egilearen baitan esperientzia horrek argi erakusten du, entzumenak duen gorputz-dimentsioa, ur barruan abeslariak ekoitzitako soinua (eta bereziki horrek sortutako *olatuak*), zuzenean eragiten du entzuleriaren gorputzean, biek fisikoki bat eginik.

In effect, at an underwater performance where the audience and performers are immersed, the singer's body, the water, and the audiences' bodies become one vibrating mass, a single pulsating speaker (Sun Eidsheim, 2015: 148).

---

10. Bertsoaldi hau Interneten dago eskuragarri (2018-04-17): <<https://bertsoa.eus/bertsoak/14800-kartzela-maialen-lujanbio-btn17>>. Hura ikustera gonbidatzen dut ematen ari naizen azalpena irudiz hornitzeko.

Nago Sun Eidsheimen deskribatutako esperientziak balio duela Irunen bizitakoaren eszena deskribatzeko<sup>11</sup>.

Hor geunden bertsolaria eta entzuleria itsasertzean, olatuen menpe, ura belaunetaraino, arnasari eusten, ahotsaren itsasgorak denok noiz xurgatuko zain.

Zigor luze baten ondoren, gorputza bueltan zen bertsolaritzan.

## **BIBLIOGRAFIA**

- Aizpuru, Mikel Xabier; Delgado, Ander eta Ostolaza, Maitane (2010): «Pueblo, política y nación en el País Vasco (1833-1936): una aproximación a través de los bertso-paperak», in M. Esteban de Vega eta M.D. De la Calle. (koor.), *Procesos de nacionalización en la España contemporánea*, Universidad de Salamanca, Salamanca, 329-354.
- Amorós, Celia (1987): «Espacio de los iguales, espacio de las idénticas: notas sobre poder y principio de individuación», *Arbor: Ciencia, pensamiento y cultura*, 503-504, 113-128.
- Aristi, Pako (1995): «Bertsolaritza feminismoaren begietatik begiratura», *Bertsolari aldizkaria*, 17, 2-9.
- Azurmendi, Joxe (1980): «Bertsolaritzaren estudiorako», *Jakin* 14/15, 139-164.
- Azurmendi, Joxe (1990): «Bertsolaritzaren kontzeptuari buruz», in Zenbaiten artean, *Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa*, UPV-EHU, Bilbo, 57-77.
- Barthes, Roland (1977): «The Grain of the Voice», in Stephen Heath, *Image, Music, Text*, Noonday Press, New York, 181-183.
- Díaz, Joaquín (2005): *En defensa de la voz*, <[https://funjdiaz.net/a\\_articulos2.php?id=20157](https://funjdiaz.net/a_articulos2.php?id=20157)> (Kontsulta: 2019-03-07).
- Dunn, Leslie C. eta Jones, Nancy A. (1994): *Embodied Voices*, Cambridge University Press, Cambridge.
- Egaña, Andoni; Garzia, Joxerra eta Sarasua, Jon (2001): *Bat-Bateko bertsolaritza*, Bertsozale Elkartea, Donostia.
- Etxezarreta, Jesús Mari (1993): *Bertsolarien desafioak, guduak eta txapelketak*, Sendoa Argitaletxea, Donostia.

---

11. Kasualitatez Jorge Oteizak ere ura baliatu zuen bertsolariaren jarduna eta bertsolariaren eta publikoaren arteko harremana irudikatzeke. Hona hemen Oteizak sortutako irudia: (2007, 117): «La técnica del bertsolari es que está delante de todos y desaparece en su realidad interior. De la que salen sus palabras (que irán saliendo). Suelo decir que como dejándose llevar sumergido en un río (el río de su visión interior). Ahora digo también que es como si dejase a la gente (que le escucha) en la playa. Y él fuese retrocediendo de espaldas al mar. Y sumergido del todo nos hablase con ese ritmo del mar que llega con las olas a la playa (y que también puede embravecer)». Asier Altunak, zine-zuzendariak, elkarrizketa batean komentatu zidan moduan, deskribapen hau *Bertsolari* (2011) pelikularen jatorrian dago, eta, berez, pelikulan bertan horren *antzezpena* ikus daiteke.

- Feld, Steven eta Brenneis, Donald (2004): «Doing anthropology in sound», *American Ethnologist*, 31. bol., 4. zk., 461-474.
- Flamenco desde el diván (2014): *El grano de la voz del cante*, <<http://www.pieflamenco.com/el-grano-de-la-voz-del-cante/>> (Kontsulta: 2019-03-07).
- Frenk, Margit (1997): *Entre la voz y el silencio: la lectura en tiempos de Cervantes*, Ediciones del Centro de Estudios Cervantinos, Alcalá de Henares.
- Garzia, Joxerra; Egaña, Andoni eta Sarasua, Jon (2001): *Bat-Bateko bertsolaritza*, Bertsozale Elkartea, Donostia.
- Garzia, Joxerra (2012): *Bertsolaritza*, Etxepare Euskal Institutua, Donostia.
- Hernández García, Jone M. (2016): «Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoetarako bizitoki», in Mari Luz Esteban eta Jone M. Hernández García (koor.), *Etnografía feminista Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, UPV/EHU, UEU, Bilbo, 27-42.
- Hernández García, Jone M. (2017): «¿Acaso tiene género la sangre? O por qué los cuerpos femeninos no sirven como habitáculo para los versos», in Mari Luz Esteban eta Jone M. Hernández García (koor.), *Etnografías feministas. Una mirada al siglo XXI desde la antropología vasca*, Ediciones Bellaterra, Bartzelona, 105-132.
- Keane, Webb (2001): «Voice», in Alessandro Duranti (arg.), *Key Terms in Language and Culture*, Blackwell, Oxford, 268-271.
- Murray, Raimond (1976): «El mundo del sonido. Los sonidos del mundo», *El Correo. UNESCO (año XXIX)*, 4-8
- Larrañaga, Carmen (1994): «Bertsolarismo: habitat de la masculinidad», *Bitarte*, 4, 29-51.
- Lekuona, Juan Mari (1980): «Jendaurreko bertsolaritza», *Jakin* 14/15, 99-113.
- Ostolaza, Maitane (2010): «La cultura carlista a través de la literatura popular: los bertso paperak», in Julien Lanes Marsall eta Maitane Ostolaza (arg.), *Las culturas políticas en la España del siglo XIX*, Editions Hispaniques, Paris, 100-128.
- Oteiza, Jorge (2007): *Quousque Tandem*, Fundación Museo Oteiza, Navarra.
- Perez, Pio (2013): *Joxe Zapirainen bertso-malkoak*, Labayru Ikastegia, Amorebieta.
- Sun Eidsheim, Nina (2011): «Sensing Voice», *The Sense and Society*, 6:2, 133-155.
- Surralles, Alexandre (1998): «Entre el pensar y el sentir. La antropología frente a las emociones», *ANTHROPOLOGICA*, 16, 291-304.
- Surralles, Alexandre (2009a): *En el corazón del sentido*, IFEA/IWGIA, Lima.
- Surralles, Alexandre (2009b): «De la intensidad o los derechos del cuerpo. La afectividad como objeto y como método», *RUNA*, 1, 29-44.
- Toledo, Ana M<sup>a</sup> (1998): «Antonie d' Abbadie Hegoaldean (1879-1895)», *Congrès International. Eusko Ikaskuntza*, Eusko Ikaskuntza, Bilbo, 535-546.
- Villaverde, Teresa (2016): «Las ideologías de la Voz», *Pikara Magazine*, <<http://www.pikaramagazine.com/2016/07/las-ideologias-de-la-voz/>> (Kontsulta: 2019-03-07).

Weidman, Amanda (2014): «Anthropology and Voice», *Annu. Rev. Anthropol.*, 43, 37-51.

Zavala, Antonio (1980): «Bertso paperak», *Jakin* 14/15, 115-133.

Zumthor, Paul (1989): *La letra y la voz*, Catedra, Madril.





*Doinua: Kantuz sortu naiz eta II*

Emazte, ama edo  
alaben logikaz  
sortutakoa nahiz ta  
litekeen desikas  
emakumeak nola  
perfilatu tintaz  
ezpada haien hitzek  
dakarten kronikaz  
entzun nahi ditut minaz,  
zaintzaz, erotikaz,  
herriaz, botereaz,  
kulturaz, musikaz  
eguraldiaz eta  
geopolitikaz

**Amaia Iturriotz Etxaniz**



# Emakumeak bertsogintzan: gai izaeratik gai izatera

*Oihana Iguaran Barandiaran*

## **SARRERA**

Bertsolariak errealitatea eta testuingurua interpretatzen ditu bat-bateko inprobisazio bidez, entzuleen gozamina, hausnarketa edota probokazioa bilatzeko. Gai librean jardun daiteke, edo gai-jartzailearen agindura (kasu honetan gaiaz gain pertsonaia edo egoera bat eman dakioke bertsolariari). 80ko hamarkadara arte, jendaurreko plazan bertsolariak gizonak izan dira. Emakumearen presentzia, entzuleriatik kanpo (eta entzuleen artean ere gutxi), bertsolarien aipamenetara edo pertsonaietara mugatzen zen bertsogintzari dagokionez. Emakumeak, beraz, katurako gai edo interpretatzeko pertsonaia moduan agertzen ziren bertsoetan. Hala ere, azken urteetan, emakume bertsolariek ahots propioa jarri diote plazari. Aldaketa pixkanaka doa; oraindik beraz, badago zeregina.

Orain gutxira arte emakumeak bertso-plazara irten ez izanaren arrazoi batzuk Carmen Larrañagak eskaintzen ditu, bertsolaritzaren inguruan egindako lanetan. Larrañagak bertsolaritza praktika maskulino moduan adierazi eta eraikitzen dela dio eta hargatik: «Badirudi emakumeek gizonen asmatutako objektu moduan soilik dutela kabida, edo gizonen konposizioen transmisore soil moduan»<sup>1</sup> (Larrañaga, 1995: 409). Lorea Agirrek (2010) ere, Joxerra Garzia, Andoni Egaña eta Jon Sarasuak (2001) emandako bertsolariaren definizioari ezaugarri hori ikusten dio: «Definizioak gutxienik beste adjektibo garrantzitsu bat du bere baitan: bertsolaria jendaurrean bertsoak bat-batean sortzen dituen gizona da» (Agirre, 2010: 46). Agirrerren ustez, gizona da «adjektiboa, edo agian baita substantiboa ere». Ildo berean definitzen du bertsolaria Larrañagak (1997: 61) ere: «Bertsolaria gizonezko bat da bat-batean eta plaza publikoan jarduten duena. Alegia, plazagizona». Orain, emakume bertsolariak oholtza nagusien parte dira, baina Larrañagak (1997: 59) duela 20 urte esana oraindik egia da, tamalez: «Gaur egun arteko bertsolaritzaren historiak ez du emakumearen presentziarik apenas jaso eta landu, eta are bertsolaria, gaur egun eta orain berrehun urte, gizartearen imajinario horretan, gizonezkoa da». Lanketa berezia ari da egiten

---

1. Jatorrizko testua: «*Las mujeres sólo parecen tener cabida como objetos ideados por los varones, o como meras transmisoras de las composiciones de ellos*» (Larrañaga, 1995: 409).

hezkuntzan eta transmisioan presentzia hori indartzeko, baina bertsolariari lotzen diogun irudia oholtza nagusietan eraikitzen dela kontuan hartuta, oraindik ez da askorik aldatu.

Gaur egun, emakume bertsolariak ikus daitezke jardun publikoan eta badirudi oraingo gauza dela; baina galdera litzateke: non egon dira emakume bertsolariak aurretik? Izan ere, testigantzei arreta jarritz gero, beti izan direla ohartuko gara. Esaterako, Pedro Lemonaauriak (1837: 12) bildutako 1452ko Bizkaiko Foru Zaharraren lege-liburuetan ageri dira lehen erreferentziak: «[...] emakumeok, lotsagabe eta auzoen nahastaile direlako ezagunak, koplak eta kantuak jartzen dituzte trufazko libelo modura»<sup>2</sup> eta hain zuzen, debekua adierazten du idatziak. Azpimarratzekoa da gainera, Larrañagak (1995: 421) bistaritzen duen moduan emakume bertsolaririk ez dela ia indibidualki ezagutzen, euren erreferentzia guztia generikoa delako edo familiako gainerako bertsolariei lotu zaielako: «Familiako gizonengandik datorkien erreferentzian lausotzen dira, haiek bai (gizonak), euren izenez nabarmenduak»<sup>3</sup>.

Ezagun egin diren bertsolari askoren familian, emakumeek ere bertsotan egin dute eta bertsolarien testigantzei esker soilik jakin da hori. Larrañagak (1995: 420) esaterako, Inocencio Olearen hitzetan jaso zuen arrebaren dohainen berri: «Etxean bai, baina etxetik kanpo inola ere ez. Garai hartan emakume bat bertsotan ikusiz gero: ez zatekeen ezkonduko»<sup>4</sup>. Edo Patxi Etxeberria bertsolariak ere *bertsoa* atari digitalari eskainitako elkarrizketa batean<sup>5</sup> aitortzen zuen euren arreba zela etxeko bertsolaririk abilena. Gainera, Etxeberriak «Gaztelu» bertsolariez ere gogoan du nola zioen anaia batek hiruretan onena arreba zela etxean eta handik kanpo aukera izan balu oso bertsolari ona zatekeela.

Ondorioz, funtsezkoa da azpimarratzea emakume bertsolariak beti izan direla, oihartzunik lortu ez arren. Agirrek (2010: 10) laburtzen duen moduan: «Emakume bertsolariak ez datoz hutsetik, baina bai isilpera kondenatutako tradizio batetik, garrantzīgabetutako tradizio batetik» eta hori ez da bertsolaritzaren joera isolatua, «ekimen pribatu eta publiko orori historian zehar» gertatu zaiona baizik.

Larrañagak (1995: 420) esaldi bakarrean bereizten du bertsolaritzan gizon eta emakumeek izandako rola: «Emakumeek tradizioa iraunarazten laguntzen dute, gizonak sortzen duten bitartean»<sup>6</sup>. Sarreran adierazten duen moduan: «Andrazkoei

2. Jatorrizko bertsoa: «[...] sobre Mugerres, que son conocidas por desvergonzadas, y revolvedoras de vecindades, y ponen coplas, y cantares á manera de libelo infamatorio» (Lemonauria, 1837: 12).

3. Jatorrizko bertsoa: «Se desdibuja en la referencia parental que les llega de los varones de sus familias que han emergido con nombre propio» (Larrañaga, 1995: 421).

4. Jatorrizko bertsoa: «En casa sí, pero fuera de casa, ni pensar. Si entonces alguna mujer fuera vista cantando versos: ésa no se casaría» (Larrañaga, 1995: 420).

5. Ane Labakak Patxi Etxeberriari 2017-06-29an bertsoa.eus atariarentzat egindako elkarrizketa, esteka honetan eskuragarri: <<https://bertsoa.eus/albisteak/6450-nire-arreba-ere-bertsolari-izango-zen-seguruea-aukera-izan-balu>> (Azken kontsulta: 2018-01-19).

6. Jatorrizko bertsoa: «Ellas colaboran en la conservación de la tradición mientras que los varones la crean» (Larrañaga, 1995: 420).

tradizioak transmisio-lana gorde die, gizona zuei luzituagoa den protagonista eta sortzaile izatearena egokitu dien bitartean» (Larrañaga, 1995: 407). Eta hasieran aipatutako legean ikusi dugun zigorra ere nabarmentzen du Agirrek, horri esker lortu baitzen bereizketa horri eustea. Alabaina, oso interesgarria da «transmisore» figura horri heltzea, hori izan baita tradizioz (eta genero-sistemaren aginduz), emakume askok etxeko esparruan egin duten lana: transmititzea. Izan hizkuntza bera, izan ipuinak, abestiak, bertso zaharrak... garaiko kontaketa oso bat mantendu da sukaldeetako transmisioari esker. Deigarria da esaterako, Larrañagak jasotzen duen moduan, nola Manuel Lasarte (1927-2012) bezalako bertsolari ezagun batek sinesten zuen bere kabuz ikasi zuela inprobisatzen, bera umetan inprobisatzen hastearen eta euren amak egunero bertsoak abestearen artean loturarik egon zitekeenik planteatu gabe<sup>7</sup>.

Azken batean, Patxi Etxeberriak euren etxean anai-arrebak jarduten zirela kontatzen duen moduan, hainbat etxetan trebatu ziren elkarrengandik ikasiz gizon eta emakumeak. Plazarako bidean, ordea, ikusgarritasuna genero bakarraren esku zegoen. Hainbestek goraiatutako emakumeen inprobisazio-gaitasuna ez zettorren bat plazan ahotsa banatzeko moduarekin: «Emakumeei esparru pribatuan aitortzen zaien inprobisatzeko gaitasuna ez dator bat esparru publikoan euren ahotsek duten presentzia faltarekin; eta hori, bertsolaritza emakume eta gizonak espaziotan bereizten dituen segregazio gogorra aipatu gabe»<sup>8</sup> (Larrañaga, 1995: 420). Honen guztiaren emaitza da bertsolaritza gizonen arteko tradizioztat jaso izana. Agirrek aztertu du nola gizona bertsolariak presentzia hutsarekin «eredu hegemonikoa» betetzen duten «eta horrenbestez bere irudia beti da “neutroa”. Gizon bertsolarien presentzia eza litzateke eraldatzailea, izatekotan» amaitzen du.

Publikoki gizonak soilik gauzatutako praktika izatean, Juana Gallego (2002) kazetari eta ikerlariak genero-asimetriatzat hartzen duena gertatzen da, gizona dela aditza eta emakumea aditzondoa. Eta gizona norbanako moduan agertzean, eta bakoitzak bere esperientziatik kantatzeko aukera izatean, izaera indibiduala har dezakete, emakumeek kolektibo generiko dirauten bitartean.

Gizonaren presentzia neutroa bada, emakumeena puskatzailea suertatuko da, gizonen presentziaren moldeak mantendu ezean. Emakume bertsolariak izandako elkarrizketen ostean gizon bertsolarien eredu baliatu izana horrela arrazoitzen du Agirrek:

---

7. Larrañaga, 1995: 13: «*La respuesta de Manuel Lasarte (un improvisador nacido en Leiza el año 1927) a la pregunta de cómo se introdujo él al bertsolarismo: “Comencé a cantar versos antes de cumplir los cuatro años. Por mi cuenta. De crios, en nuestra casa, nuestra madre era muy aficionada... La madre cantaba mucho, cantidad”*».

8. Jatorrizko bertsoa: «*La habilidad improvisadora que se le reconoce a las mujeres en el espacio privado, y que tan rotundamente contrasta con la ausencia de sus voces en el público, sin referirnos a la severa segregación de espacios que aparta a hombres y a mujeres en el ejercicio del bertsolarismo*» (Larrañaga, 1995: 420).

Kontestuak, sistemak, ez die beste biderik utzi. Plaza publikoan ez da indarrean dagoen talde hegemonikoaren hizkera (gaitegi, kode, estetika, etika) baino ulertzen, eta horrenbestez emakume bertsolariek bere egin behar izan dute hizkera hori (halako trabestismo baten modura). Hizkera hori erabili ezean, eredu hegemonikoak ez du emakumeen hizkera (gaitegi, kode, estetika, etika) «ulertzen». Ez ulertze hori emakumea menderakuntza egoeran izateko modu bat baino ez da (Agirre, 2010: 49).

Esparru publikoan eredu hegemonikoa gizona den heinean, gizonak eta gizontzat eraikitako diskurtso publikoa da emaitza (diskurtsoarekin doan hizkuntza-erregistroa barne). Horren aurrean, emakumeek ez dute eurentzat bereziki garrantzitsu izan daitezkeen gaiak garatzeko erregistro edo koderik. «Muted Group Theory» edo talde mutuaren teoria (Ardener eta Ardener, 1975) erabiltzen du Agirrek kode edo erregistro falta azaltzeko, emakume bertsolariak talde mutu gisa ulertuta bertsogintzan. Agirrerren (2010: 19) ustez hori ikus daiteke, «umore mota jakin batean; diskurtsoak eratzeko modu batean; lehian jarduteko era batean; sinbolo eta termino jakin batzuen nagusitasunean [...]». Eta talde mutu izateari uzteko behar-beharrezkoa da emakumeek euren kode eta erregistro propioa sortzea. Ardenerengana itzulita «model of women» edo emakumeen gainean eraikitakotik «women's model» edo emakumeek eraikitakora pasatzea litzateke aldaketa.

Bertsolaritzak, oholtzan emakumerik egon ez arren, kantatu die emakumeei eta are, emakumeen larrutik jorratu ditu hainbat gai. Hala ere, Poullain de La Barre filosofo frantziarraren (Pulain de la Barre, F., non: De Beauvoir, 1949) aipu ezagunari jarraituz gero, gizonak eraikitako emakumeen diskurtsoa ez da ordezkagarritzat jotzen: «Gizonak emakumeen inguruan idatzitako oro susmagarritzat hartu behar da, biak baitira aldi berean, epaile eta parte»<sup>9</sup>. Emakumez eraikitakoa eta emakumeek eraikitakoa bereizten baditugu Ardener-en eredutik, gizon bertsolarien buruan emakumea errepresentatzen duten ideia multzoa baino areago emakumeek euren buruaz «sortzen» dituzten kontzeptuei arreta jartzea litzateke kontua. Bertsolarien lana gizarteko gai eta rolei ahotsa jartzea denez gero, gai-jartzaileek horrela utzi zuten idatzita Xabino San Sebastian, Inazio Usarralde eta Nikolas Zeberio, *Gai-jartzailearen eskuliburuan*: «Askotan jarri izan ditugu bertsolari mutilak, ama, emaztea, amona, alaba edo ahizparen paperean eta inolako arazorik gabe kantatu dute» (San Sebastian, Usarralde eta Zeberio, 2002: 15) eta alderantziz ere berdina dela aldarrikatzen zuten jarraian. Baina ez da gauza bera rol bat betetzea eta norbere larrutik abestu ahal izatea. Hala oroitzen du Maialen Lujanbiok ere, Agirrerren (2010) lanean jasotzen den elkarrizketaren atal batean:

Gu sartu ginenean plazan oso itxura erreala hartu zuten gai askok. Alegia, ordura arte emakume guztiak gizonzkoek interpretatzen zituzten. Orain guk, eta bertsolaritzak errealismoan irabazi bazuen ere, gu mugatu egin gintuen. Urteak pasa genituen ama izaten, alaba izaten, amona izaten, neskalaguna izaten... eta normalean emakume pertsonaia horiek oso gutxi perfilatzen ziren, orain ere bai askotan, gizonzkoen

9. Jatorrizko bertsioa: «*Todo cuanto sobre mujeres han escrito los hombres debe ser sospechoso, pues son a un tiempo juez y parte*» (Poullain de la Barre, F. non: De Beauvoir, S., 1949: 2).

pertsonaiak beti daude askoz perfilatuagoak, eta beraz gaietan protagonista gizezko pertsonaia da eta emakumezko pertsonaia pixka bat sekundarioa edo kontrapuntua da (Lujanbio, 2009; in Agirre, 2010: 17).

Hortaz, emakume bertsolariak gai dira emakumeen ahotsak irudikatzeke modu errealeko batean, baina ez emakumeak, oro har, ordezkatzeko. Gutxiago, horretara mugatzeko. Lehenik, oholtzako presentzia hutsa eta erregistroa berreraikitzea bera sekulako lana eta ekarpena da. Agirrek (2010: 48) dioen moduan, «emakumezko bertsolarien presentziak, ekinak, praxiak eta kontzientziak alternatiba berri bat osatzen eta proposatzen dihardute. Definizio berri bat josten dihardute bertsolaritzaren barrenetik bertatik».

Aldaketa, beraz, Bechdel testarekin neurtuko dugunetik haratago doa. Ikerketa honetan, presentzia aztertu ahal izango da; baina Agirre (2010) eta Larrañagaren (1995) ikerketak irakurrita argi dago: emakume bertsolariak presentziaz gain «lidgegotza berri bat, hizkera berri bat, gaitegi berri bat eta sorkuntza modu eta emaitza berri bat proposatzen ari dira» (Agirre, 2010: 4). Hala ere, presentziak berak duen garrantzia ezin da gutxietsi, tradizionalki gizezkoen eremu huts izan den horretan bestelako «estetika eta etika» bat agertzeak pisu sinbolikoa duelako bereziki lagina osatzen duten oholtza nagusietan.

### ***IKERKETA-GALDERAK***

Lan honen helburua emakumeek (pertsone presentzial zein pertsonaia moduan) bertsogintzako plaza nagusietan duten presentzia aztertzea da. Plaza nagusitzat txapelketetako finalak eta Bertso Egunak hartu direnez, Txapelketa Nagusian mugargari izan zen 1986. urtetik honakoa hartu da epeztat. Hortaz, lehen ikerketa-galderak dio:

RQ<sub>1</sub>) Zer presentzia izan dute plazan emakume-ahotsek azken 30 urteetan?

Presentzia hori gizei lotua edo gizei buruzkoa den Bechdel testak erantzun-go du eta, hortaz, emakume-ahotsen nortasun maila minimo hori kuantifikatu ahal izango dugu saioz saio. Zenbaketatik kanpo geratzen diren aldaketak ere badira, ordea. Emakumeak plazan egoteak ahots horien nolakotasuna, emakumezko pertsonaien definizio mota edo maila ... aldatu duen ikusteko planteatzen da bigarren galdera:

RQ<sub>2</sub>) Emakumeak plazaratzeak nola eragin du emakume-ahotsak irudikatzeke orduan?

## **METODOLOGIA**

Bertso-plaza nagusietan emakumeek duten presentzia eta emakumeen ahotsak nola irudikatu diren neurtzeko, Bechdel testean oinarritutako galdetegia aplikatu zaie, azken 30 urteetako bertso-plaza nagusiei. Horretarako, banakako txapelketetako finalak hartu dira kontuan, herrialdekakoak zein nazionala; baita Bertso Eguketako jaialdi nagusiak ere. Testaren zergatia eta zehaztapenak edota lagina (107 saio) hautatzeko arrazoiak azaltzeko dira datozen paragrafoak.

### ***Bechdel testa***

Bechdel-Wallace testa izenez ere ezagutzen da (lehenengoz Alison Bechdelen izenean argitaratu arren, ideia Liz Wallacek eman ziola aldarrikatu duelako lehenak). Fikzioan generoa nola irudikatzen den deskribatzeko asmotik sortu zen, jatorrian filmetako genero-bazterkeria bistaratzeko. 1985. urteko *Dykes to Watch Out For*<sup>10</sup> komiki tiran agertu zen lehenengoz «The Rule» edo «araua» izenpean. Bertan, film bat ikusi edo ez erabakitzeko «araua» bete behar zuela esaten zion lagun batek besteari; hiru galderaren bidez ebatzia: 1) gutxienez bi emakume agertzen dira? 2) elkarrekin hitz egiten dute? eta 3) gizona ez den zerbaiti buruz hitz egiten dute?

Baliteke Bechdelen inspirazioa Virginia Woolf-en *Gela bat norberarena* [*A Room of One's Own*] (1929: 53) liburutik etortzea, 5. kapituluaren horrela baitio: «[...] Saiatu nintzen ea bi emakume lagun bezala irudikatzen zituen kasurik bazen nire irakurketen artean... Beti dira amak edo alabak. Baina ia salbuespenik gabe, gizonetik harremanetik agertzen dira»<sup>11</sup>.

Testak baditu bere mugak, ezin baitu fikziozko lanaren edukia sexista den edo ez ebatzi; emakumeek bertan presentzia «burujabe» bat (alegia, gizonetik harremanean oinarritu gabe) duten aurreikusi baizik. Bestalde, pertsonaia edo elkarrizketa definitzeko erak ere aldatu dezake testaren emaitza. Horregatik, arau erabatekoa baino gehiago, oinarri gisa ulertu behar da Bechdel-Wallace testa, fikzioan genero-bazterkeriak edo bestelako bazterkeriek duten presentziaren ideia bat lortzeko. Hain zuzen, arrazari, funtzio-aniztasunari eta sexualitateari lotuta ere erabili izan dira test honen eratorriak, pertsonaien sakontasuna aztertzeko (esaterako, [www.racialbechdel.tumblr.com](http://www.racialbechdel.tumblr.com) webgunean film eta serieei aplikatzen zaie testa arrazaren ikuspegitik, edo LGBT kolektiboak filmetan duen presentzia neurtzeko egokitu dute GLAAD edo difamazioaren aurkako gay eta lesbianen elkartean). Neda Ulaby kazetariak irratiko publikoan adierazi bezala, testa erabilgarria da honakoagatik: «Kultura herrikoian askotan falta den zerbait egituratzen du: ez pantailan ageri den

10. Dykes to Watch Out For: The Rule (1985): <<http://dykestowatchoutfor.com/the-rule>>.

11. Virginia Woolf-en aipu hori bertsiotik digitala eskuragarri dago, lotura honen V. atalean: <<https://ebooks.adelaide.edu.au/w/woolf/virginia/w91r/chapter5.html>>. Jatorrizko bertsiotik: «*I tried to remember any case in the course of my reading where two women are represented as friends [...]. They are now and then mothers and daughters. But almost without exception they are shown in their relation to men*».



emakume kopurua, baizik eta emakume horien istorioen sakontasuna eta euren kezken dimentsioa» (Ulaby, 2008)<sup>12</sup>.

Bertsolaritzari begira ere, «oholtza» edo «plaza» har genezake Ulabyren aipuko «pantaila» hitzaren ordezkagarri. Horrenbestez, batetik emakumeek plazan duten presentzia neurtzen lagunduko du, eta, bestetik, emakume horien istorioen sakontasuna eta euren kezken neurria bistaratzen lagunduko digu. Dena den, ez du saioak feministak diren agerian jarriko berariaz, ez baitugu eraikitzen den diskurtsoa aztertuko.

Bertsolaritzak badu, ordea, fikziozko gainerako lanetik bereizten duen zerbait: rol eta pertsonaiak lantzean, bere ikuspegi edo iritzia ere islatzen dela normalean. Horregatik, Bechdel-Wallace testa aplikatzeko garaian bi dimentsiotan egingo da:

- Presentziala: Emakume gisa sozializatutako bat baino gehiago dauden saioan, elkarrekin bertsoaldirik ba ote duten eta gizonen inguruan ez den zerbaitez kantatu ote duten (euren larrutik).
- Irudikatua: Bertsoaldi batean hartutako pertsonaietan bi baino gehiago emakume diren, elkarrizketarik ba ote duten eta elkarrizketa hori gizonak ez beste zerbaiten inguruan ote den.

Bi dimentsioak elkarren osagarritzat lantzea garrantzitsua da, zeren bertsolaritzan emakumeen ahotsak nola irudikatu diren aztertu nahi bada kontuan izan behar baita urte luzez gizonek hartu dutela emakumeen rola betetzeko lana. Beraz, emakumeen oholtzaratzeak duen eragina ikustekotan, funtsezkoa da presentziala zein irudikatua lantzea. Gainera, perspektiban jartze aldera, kontuan izan behar dugu bertsolaritzak unean uneko euskal gizartearen ispilu-papera hartu duela; eta gizarte horren erdiaren ordezkapena gizonen ahotan egon dela duela gutxi arte. Emakumea irudikatze modua presentzialki bakarrik aztertzeak ezkutatu egingo lituzke rol moduan emakumei emandako ahotsa eta jarritako gaiak; aitzitik, irudikatua bakarrik hartzeak emakume presentzialen plazaratzea desitxuratu luke.

### ***Lagina mugatzea***

Laburtu berri dugun metodologia azken 30 urteetako saio nagusiei aplikatzea erabaki da. Laginak Bertsolari Txapelketetako finalak eta Bertso Egunak hartzen ditu bere baitan, eta Bertso Eguna 1968. urtetik ospatzen da (formatuan bilakaera izan arren urtez urte). Epe luzeegia zatekeen lanerako eta gehienbat txapelketei begira ere herrialdeka ezegonkortasuna eragingo zukeena. Horregatik, Txapelketa Nagusiari begira erabaki zen 1986. urtean jartzea marra.

---

12. Jatorrizko bertsoa: «*It articulates something often missing in popular culture: not the number of women we see on screen, but the depth of their stories, and the range of their concerns*». Elkarrizketa entzungai lotura honetan: <<https://www.npr.org/templates/transcript/transcript.php?storyId=94202522>>.

Bertsolari Txapelketa Nagusiak 1935. urtetik darama bertsogintzaren erakustoki nabarmen izaten, baina hainbat aldaketa jasan ditu bidean. 1982. urtetik aurrera bete da lau urtean behingo zikloa, eta 1986. urtea bereziki markatua da, egungo Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak hartu zuelako antolatzaile-ardura. Ondorioz, esan daiteke Txapelketa Nagusiaren egungo forma ezarri zenetik honako epea ikusi dugula arrazoizko muga gisa, guk ezagutzen dugun txapelketaren antzekoa izaki, bertsolarien eta bertsogintzaren aldaketak nabarmenduko direlako, egitura egonkorren gainetik.

Txapelketa Nagusia bertsolaritzaren erakustoki handiena dela aipatu da, ez alferrik. Ikusle gehien biltzen duten saioak izateaz gain, arreta mediatiko gehien jasotzen dutenak ere badira; beraz, bertsogintzaren balio sinbolikoak elikatzen dituzten plazak direla esan daiteke.

Esaterako, 2017ko finala pasa berrikan horrela interpretatu dute bi kazetarik kroniketan, finalaren esanahi sinbolikoa: «Kontsentsu kultural bat ebatzi dela, hizkuntz estandarrak ezartzetik balio soziokulturalak finkatzerainokoa. Laburbilduz, komunitate baten autoidentifikazio eta autorrekonozimendurako zumeak zeintzuk diren erabaki dela» (Eskisabel, 2017). Kattalin Miner idazle eta kazetariak, ildo berean, zehazten du Txapelketa Nagusian «bertsotan ondoen nork egiten duen» erabakitetik oso aparteko gauza asko neurtzen dela:

Erabakitzen baitugu, zer den kultura. Erabakitzen baitugu zer den euskaraz egitea edo nola egin behar litzatekeen. Erabakitzen eta finkatzen dugu, zein bertso-joera gailenduko den. Zer den bertsotan egitea. Zer den ederra, eta zer edertasun saiakera [...]. Zein mundu ikuskera eskertzen den. Zerk eragiten dion Euskal Herriari eta zerk munduari. Zer moduz datozen neskak aurten. Zein diren egungo gai sozialak. Zer den politikoa eta zer ez. Zer den umorea, zeri egin diezaiokegun barre eta zeri ez (nahiz barreak ihes egin) [...]. Zer den fikzioa eta zer norbere galbahetik kantatzea. Nork ordezkatzan gaituen kulturalki [...]. Zer ekarri erdigunera eta zer utzi atzean (Miner, 2017).

Agerian da, beraz, Txapelketa Nagusiko finaletako saioek, apar arteko ueña bizi-tuta ere, aurrez dakartela garrantzi handia eta eragiteko gaitasuna. Ondorioz, emakumeak bertan irudikatze-ko duen erak- gizar- te osoari eragiten diola esan daiteke. Ez da eguneroko bertsolaritzaren erakusle fidelena, baina bai begi gehienentzat lau urtean bertsogintza islatzen duen argazkia.

Halaxe aitortzen zuen Jon Sarasua (2007) bertsolariak, hain zuzen, txapelketa zela bide *Oral Tradition*<sup>13</sup> aldizkariak bertsogintzari eskaini zion aldizkarian. Txapelketako finalaz zehazki, bi funtzio mota betetzen zituela idatzi zuen, bertsolaritzaren azken hamarkadei begira: «Batetik, komunikabideen eta gizar- tearen

---

13. Oral Tradition: <<http://journal.oraltradition.org/>>.

arreta bereganatu dute (Euskal Herrian maila nabarmeneko ekitaldia izaki); bestetik, bertsolariaren kalitatezko produkzioa sustatu dute»<sup>14</sup> (Sarasua, 2007: 35)

John Miles Foley ahoz-kotasunean adituak ere (*Oral Tradition Journal* haren sortzailea bera) txapelketaren bidez ezagutu zuen bertso-gintza lehen pertsonan. Geroago, sakonago ezagutzeko aukera izan zuen eta txapelketa atal bat gehiago zela ikusi ahal izan zuen; hala eta guztiz ere, txapelketak ahoz-kotasunaren mugimendu osoari egiten zion ekarpena azpimarratzen zuen:

[...] funtsean ahozko poesiak beti egiten duena da: gizartearen izenean egiten du lan, komunitatearen balioen eta balio etnikoen izenean, mundua negoziatzeko mekanismo malgu baten moduan. Zentzu errealean, bertsolari-tza euskal kulturaren taupada da, euskaldun izaeraren aurkibidea —iraganekoa, egungoa eta etorkizunekoa—<sup>15</sup> (Foley, 2007: 11).

Bertsolaritzak urtean behin duen beste hitzordu eta erakustoki esanguratsua Bertso Eguna<sup>16</sup> da. 1968. urtean ospatu zen lehen Bertsolari Eguna (izen hori izan du 1995. urtera arte), urte hartako txapel-duna zen Manuel Olaizola «Uztapide» bertsolaria omenduz. Bertsozale Elkarteak bere gain hartu zuen Bertsolari zein Bertso Egunaren antolakuntza, sortu zenetik. 1987. urtetik, beraz, Elkartearen arduratu da ekitaldia antolatu eta burutzeaz.

Bertsolari Eguna izatetik Bertso Eguna izatera pasatzean, ereduaren aldatu zen: omenaldien aroa amaitutzat eman eta bertso-gintzari begirako ekitaldi izatera pasa zen. Bertsozale Elkarteak berak idatzi moduan: «Helburu berriak jarri ziren: garaiko bertso-gintzaren aldaketak islatzea, esperimentatzea, kanpoko esperientziak ezagutaraztea... Horrela, saiakerak egin dira bat-bateko sorkuntza eta eszenen jartzeko molde landuen arteko orekaren bila».

Bertso Eguna, beraz, laginerako oso eduki interesgarria da, urte osoko bertso-gintzaren erakustoki izan dadin ahalegina egiten delako. Horregatik, bertsolari-tzak pixkanaka landutako aldaketetako asko katalizatu ditu eta beste batzuk plazaratzen lagundu du.

14. Jatorrizko bertsoa: «*On the one hand, they have attracted media and social attention (when they became a top-level event in the Basque Country); on the other hand, they have supported quality production by bertsolaris.*» (Sarasua, 2007: 35).

15. Jatorrizko bertsoa: «*[...] is simply doing what oral poetry always does: it works on behalf of society, on behalf of ethnic and community values, as an adaptive mechanism for negotiating the world. In a real sense bertsolaritza is the pulse of Basque culture, an index of what it means to be Basque—past, present, and future*» (Foley, 2007: 11).

16. Bertso Eguna, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen: <<https://www.bertsozale.eus/eu/bertso-eguna>>.

Laburbilduz, lagina osatzen dute: Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalak, herrialdekako txapelketetako finalak eta Bertso Egunak 1986. urtetik. Bechdel testetik emakumeen ahotsen presentzia eta horren bilakaera deskribatzeko argazki nahiko zabala eskain dezake, azaldu bezala bertsogintzako plaza nagusiak izateaz gain bertan sortzen denak esanahi sinboliko eta soziala ere baduelako.

Txapelketetako finalei lehiatzeko kanpoko Bertso Eguna gehitzeak beste arrazoi bat ere badu; izan ere, txapelketetako partaideek sailkapen bat gainditu behar izaten dute aztertuko ditugun saioei euren ahotsa jarri ahal izateko. Bertso Egunean, aldiz, plazako gainerako saioetan bezala, antolatzaileak deitzea da nork parte hartuko duen erabakitzen duena. Zentzu horretan, Bertso Egunean begira gure testaren dimentsio presentziala aldatzeko Elkarrekin erabakitze hutsa nahikoa da. Txapelketetako finaletan, ordea, egitura oso batek eragiten du eta aldatzeko epe luzeagoa behar dute ikusteko.


Bi faktore horiek aztertzeko bidea emango du diseinatutako metodologiak, eta azken 30 urteak hartuta saioen oinarriak nahiko egonkorak izan direnez, aurki dezakegun bilakaera testuinguruaren edo bertsolarien arabera izango da gehienbat. Alegia, urtez urte gehien aldatu den faktorea bertsolariak eta edukia izatea bilatu da, jomuga horiek direlako.

## ***EMAITZAK***

Emakumeen ahotsak nola irudikatu diren aztertzeko, ez dago soberan saio nagusietan ahotsa zenbat emakume bertsolarik izan duten begiratzea. Azken batean, gai-jartzaileek rol edo egoera bidez planteatu zain egon gabe emakumeen ahotsak irudika daitezela lehengaita emakumeak dira.

Sarreraren aipatu den tradizioaren baitan, gizarte-egiturak emakumeei egotzitako espazioaren (edo espazio ezaren) baitan eta pertsonal jotzen diren faktore sozialen baitan dago emakume bertsolarien oholtzarako bidea. Ikerketa honen helburutik urrun dago, baina Txapelketa Nagusiko finala soilik aztertuko dugunez, merezi luke horra sailkatzeko bidean parte hartu duten emakume eta gizonen kopurua ikustea:

1. taula. Emakume kopurua txapelketan.




Herrialdeetako Bertsolari Txapelketetan parte hartu duten bertsolarietan lehen postuetan geratutakoak soilik sailkatzen dira Bertsolari Txapelketa Nagusira (herrialde bakoitzaren kupoa desberdina da). Eta Bertsolari Txapelketa Nagusiko 43 bertsolarien artean ere soilik 8 sartzen dira finalera, baina finalera zuzenean sailkatuta egoten da azken edizioko txapelketa eta, beraz, 7 postu jokatzen dira txapelketan zehar.


Kontuan hartzekoa da gainera, txapelketetan epai-egitura eta funtzionamendu oso batek baldintzatzen duela sailkapen hori. Oso bestelakoa da plaza batean kantatzeko deiak egiten dituen antolatzaile baten hautaketa bai eta Bertso Eguneko bertsolariak hautatzen dituen Bertsozale Elkarteko antolatzaile taldearena ere.

Hurrengo taulek Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletako eta horiek jokatu ziren urteko Bertso Eguneetako parte-hartzaileak aztertzen dituzte: lehen taulan, 1986 eta 2017 urte bitarteko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalisten artean zenbat gizon eta zenbat emakume izan diren; bigarren taulan, final horiek jokatu diren urteetako Bertso Egunean zenbat emakumek eta gizonek abestu zuten.

## 2. taula. Emakume kopurua laginean.



\*Txapelketa Nagusiko finalak 1986-2017



\*Bertso Egunak

Bertso Egunaren inguruan agertu dugun moduan, 1995. urtetik aurrera Bertsolari Eguna izatetik bestelako helburuetara aldatu zen eta nabarmen islatzen da aldaketa bertsolari kopuru orokorrean. Txapelketa Nagusiari begira, deigarria da bi marren (gizon eta emakumeen ordezkariak) lehen gerturatzea 1997an eman arren, geroztik ez dela berriz gertatu. Horrek esan nahi du, Txapelketa Nagusiko finaletan ez dagoela Bechdel-Wallacen «araua» betetzen duen saiorik, dimentsio irudikatuan ez bada. Emakume bakarria egoteak ezinezkoa egiten duelako emakumeen arteko elkarrizketa bat, dimentsio presentzian.

Bertso Eguneko marrik nabarmen gerturatu dira bertsolari gutxiago hartzen direnetik. Txapelketetan parte hartu duten bertsolari guztien artean emakumeak askoz gutxiago direla ikusi dugu lehen taulan eta horren proportzioan ordezkatu behar balira, akaso ulergarria litzateke. Bertsolaritza, baina, gizartearen ispilutzat hartzen da, bere funtzioa, Foley-ren aipura itzulita, gizartearen izenean eta euskal kulturaren izenean hitz egitea da, ahozko poesia den heinean. Hori horrela, Bertso Egunak ez du euskal kulturgintzaren erdia dena ordezkatzeko, nahiz ikusiko dugun horien izenean ere hitz egiten duela, rol eta egoeren bidez.

Hurrengo taulan, lagin guztiek (Bertsolari Txapelketa Nagusi zein herrialdekoen finalek eta Bertso Egunetako saio nagusiek) «araua» betetzen ote duten ikusiko dugu, presentzialki zein irudikapen-dimentsioan:

**3. taula. Bechdel.**

		BERTSO EGUNA (1986-2001)															
		1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001
Pertsona																	
Rola																	

		BERTSO EGUNA (2002-2017)															
		2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Pertsona																	
Rola																	

		TXAPELKETA NAGUSIA									
		1986	1989	1993	1997	2001	2005	2009	2013	2017	
Pertsona											
Rola											

		BIZKAIKO TXAPELKETA									
		2000	2002	2004	2006	2008	2010	2012	2014	2016	
Pertsona											
Rola											

		GIPUZKOAKO TXAPELKETA						
		1991	1995	1999	2003	2007	2011	2015
Pertsona								
Rola								

	XILABA				
	2008	2010	2012	2014	2016
Pertsona					
Rola					

	ARABAKO TXAPELKETA											
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2011	2013	2015	2017
Pertsona												
Rola												

	NAFARROAKO TXAPELKETA																	
	1994	1995	1996	1998	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2013	2015	2017
Pertsona																		
Rola																		

	BERTSO EGUNA (2002-2017)																
	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	
Pertsona																	
Rola																	

Lehen begiratuak bistaratzen du oso saio nagusi gutxik gaintitzen duela testa. Gaur egun, soilik txapelketetara begira 55 emakume bertsolari izanda ere, bertso-plaza nagusitzat aurkeztu ditugun horien artean dimentsio presentzian 15 saiok bakarrik bete dute Bechdel-Wallace testak proposatutako «araua». 107 saio kontuan hartuta, 15ean egon dira oholtzan gutxienez bi emakume, elkarrekin bertsoaldiren bat osatu dutenak eta elkarrizketa hori gizonetik loturaz izan ez dena. Dimentsio irudikatura pasako bagina, 31 saiok bete dute «araua». Horrek esan nahi du gai bidez bertsolariei egotzitako roletan edo generoa zehaztu gabeko rola emakume bertsolariei egokitu zaizkienean, 31 bertsoaldi egon direla emakumeen artean gizonetik harremanak definitu gabeko zerbaitez.

Emakume-rolak irudikatu dira gizonetz soilik osatutako saioetan, baina emakume rola jarri baino ohikoagoa izan da emakumez aritzeko eskatzea. Adibide batzuk ekartzearen: 1986. urteko Bertsolari Txapelketa Nagusian bakarka hiru bertso



osatzeko jarritako gaia: «Une honetantxe hor goiko erresidentzian isil-isilik lanean ari den mojatxoari hiru bertso»<sup>17</sup>. *Isil-isilik* hori oso metafora egokia suertatzen da artikulu honetarako. Txapelketa berean, beste bertsolari bati ariketa bera osatzeko: «Igande goizean hamaiketan ohetik jaiki eta sukaldean sartu zarenean hor ikusten duzu zure ama zaharra tirriki-tarraka bazkaria prestatzen». Bi adibide simple baino ez dira, baina emakumea diskurtsoaren objektu gisa agertzeaz gain, zein espazio eta eginkizunetan irudikatzen diren ere garrantzitsua da.

Gainerako gai gehienak, gizona definitu ostean bigarren bertsolariari «emazte» edo «alaba» rola emanez osatzen dira<sup>18</sup>: «Zu Andoni Egaña, itxurazko erretiro batekin, jubilatua zara, baina zahar-etxe edo asilo batera joateko asmoak dituzu. Zuk Sarasua, bere alaba, aita etxean nahi duzu». Baina kronogramak aurrera joan ahala, emakumezkoen rola definituago eta sakonago eskaintzen dira, emakumeen ikuspegi bat eskatuz hainbat gairen inguruan.

Aldaketa deigarri bat rola egotean generoa zehazteari uztea izan da. Duela 20-30 urteko gai guztietan, «bikotea zarete» baten ostean beti etortzen zen «A neska» eta «B mutila» zehaztapena. Gaur ohikoagoa da bikote hitza entzunda ere, norberak bere generotik osatzea egokitu zaion rola (baldin eta lanketa bereziren bat egin nahi ez badu generoa aldatuz justu). Adibide gisa, 2016ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalean<sup>19</sup> jarritako gaia: «Miren, Nerea Boliviatik etorri zen Euskal Herrira eta hemen ezagutu zenuen elkar. 4 urteko alaba bat daukazue. Nerearen familiak ez du zuen alaba ezagutzen. Lehenengoz joango zarete Boliviara neguko oporraldian». Pertsonaia bat boliviarra da, bikotea dira eta bi emakume tokatzean, bikote homosexual batez ari dira. Horrek kezken fokua banatzea dakar, eztabaida umeaz soilik izan ordez, euren harremanak Bolivian izan dezakeen onarpenaz ere zalantzak eragiten baititu bidaiak:

Miren Amuriza:

«[...]

**hemen tratetan zaitut  
modu xamurrean  
ta muxuka al zaitzaket  
beraien aurrean?»**

Horrelaxe amaitu zen bertsoaldia:

Nerea Ibarzabal:

«[...]

**asko maite zaitut ta  
gora “Bollivia”»**

17. Donostia, 1986-03-23: Bertsolari Txapelketa Nagusia (finala).

18. Donostia, 1986-03-23: Bertsolari Txapelketa Nagusia (finala).

19. Bilbo, 2016-12-17: Bizkaiko Bertsolari Txapelketa (finala).

Txapelketetan zoriak erabakitzen du nork kantatuko dion gai bakoitzari. Jaialdietan, ordea, gai-jartzaileak hauta dezake nori zer egoera, gai, pertsonaia jarri. Horrelakoetan, gai-jartzaileak intentzio bat erantsi ohi dio gaiari, edo pertsonarentzat egokitzen du gaia; edo baita beretzat asmatzen ere. Bertso Egunaren kasua hori da, hain zuzen.

1993. urtean bete zuen jaialdiak lehen aldiz Bechdel-Walacen «araua» bi dimentsiotan eta hori bera gai bilakatu zieten hiru emakumezko bertsolariei: «Hiru neska lehen aldiz Bertsolari Egunean»<sup>20</sup>, zioen gaiak. Esperientzia horren irakurketa eskatzen zitzaien nolabait, bertsolari gazteei. Aukera baliatu zuten, azkenak jarri dituztela nabarmenduz eta «hogei urte atzera» pentsaezina zatekeela gogoratu. Hala ere, saioetan duten «anekdota» rola kritikatu eta horrela amaitu zuten saioa:

Maialen Lujanbio:

**«Lehenago hauek osatzen zuten**

**bertso munduko bizitza**

**beraiena zen irakaskuntza**

**ta beraiena zen hitza.**

[...]

Estitxu Arozena:

**«Emakumeok mikrofonoan**

**jaso izan dugu burla**

**gaur ere batzuk haserre daude**

ezin dute disimula.

Ni ziur nago egunen baten

erakutsiko dugula

bertsolaritzak barrabilekin

zerikusirik ez dula!»

Saio berean honako gaia jarri zieten sei gizon bertsolariri: «Sei neska soltera zarete zuen ezkontza despedida ospatzen». Ziurrenik saio oso desberdina izango zatekeen gai hau ere oholtzan zeuden emakumeei jarriz gero.

---

20. Donostia, Bertsolari Eguna, 1993-01-24.

Urte batzuen buruan, genero-ikuspegia lantzeko helburua eman zitzaion 2014. urteko Bertso Egunari eta ahalegin berezia egin zen egun osoan zein jaialdi nagusian genero-lanketa egiteko. Saio horrek noski, araua bete zuen (eta unibertso paralelo batean saio horri gizonen presentzia neurtzeko Bechdel-Wallace testa pasa bagenio, gaudituko zukeen hori ere). Bertsoaldi esanguratsu bat hautatzekotan, Rosi Lazkano, Onintza Enbeita eta Saioa Alkaizarena hartuko dugu<sup>21</sup>, normalean irudikatzen ez den ahots femeninoa agertu zelako: emakumeen sexualitateaz eta hilekoaz aritu ziren, hiru emakume etapa desberdinetatik (20 urte inguru, 30-40 urte eta 50 urtetik gora).

Rosi Lazkano

«[...]»

**beraz ez naiz hasiko saltoka**

**armairuraino igota**

**eztarritik ta beste hortatik**

**nahiko sekoa nago ta»**

Onintza Enbeita

«[...]»

**Nire alua urgente dago**

**beste esku bat eskatzen»**

Bertso plazetan askotan ez da gertatzen 50 urtetik gorako emakume bat entzutea eta gutxitan dago horrelako gai zehatz bat konplizitatez garatzeko espaziorik. Emakumeei sexuaz abestea, edo emakumeen sexua irudikatzea gauza bat da, eta beste gauza apurtzaileago bat betiko irudikapenetik irten eta «seko» dagoela esatea edo masturbazioa zeharka aipatzea. Bechdel-Wallace testak, esan bezala ez du markatzen emanaldiaren edukia feminista den edo ez, baina eztabaida oinarritzeko abiapuntu bat eskaintzen du.

## ***EZTABAIDA***

Azken adibidetik hasita, emakume bat baino gehiago, elkarrizketan eta gizona lotu gabeko zerbaitez jarriz gero, beste inork abestu ezingo lituzkeen gauzak entzun daitezke. Badira beste inork ordezkatu ezin dituen diskurtsoak; eta gizartearen izenean ariko bada, bertsoalaritari badagokio horrelako espazioak ere sortzea. Plazan ari da aldaketa gertatzen, nahiz saio nagusiei begira agerian den saio gehienetan ez dela «araua» betetzen.

21. Donostia, Bertsozale Eguna 2014. Bertsoaldia lotura honetan ikusgai: <<https://bertsoa.eus/bertsoak/10998-enbeita-lazkano-eta-alkaiza-dibanean>>.

Irudikapenari begira bilakaera ari da pixkanaka ikusarazten. Emakumeak, nolabait laburtuz, pasa dira bertso-eskaintzen jomuga izatetik gizonen ahotan irudikatuak izatera; lehenik gizonetik harremanetan eta ondoren gai orokorragoen inguruan. Emakumeak plazara etorrira, ordea, adierazi izatetik adierazle izatera pasa dira eta rol horiek sakontzen eta zabaltzen joan dira praktikaren bidez. Bide luzea dago egiteko saio nagusien taulari koloreak aldatzeko, baina gero eta emakume gehiago irtengo dira bidera.

Andoni Egañak 1997ko finaleko agurrean abestu moduan:

«[...]

**bertsolaritza aurrera doa**

**emakumeen harira**

**82ko Txapelketari**

**jarri gaitezen begira**

**orduan gaitzat hartzen genitun**

**ta orain eurak gai dira»**

Gainera, gogoratu behar da saio batek testa gainditzeak ez duela genero-berdintasunerako eredu ona denik esan nahi. Ez du esan nahi emakume rolak ondo eginak, funtsezkoak, errealak edo sakonak direnik. Egon direla besterik ez. Saio ugari sistematikoki aztertzeak, hala ere, bertsolaritzak generoarekiko duen joera ager dezake; eta horrek, aurrera begira egin beharreko lanak antolatzen lagundu dezake.

Lanketa ez da bertsolarien ahotan bakarrik gertatzen, deskribatu ditugun saioetan ikusi baita antolatzailek, epai-egiturak zein gai-jartzaileak funtsezko papera dutela diskurtsoari eragiteko. Gaietan generoa ez zehazteak, esaterako, aldaketa bat ekarri du hainbat saiotan eta egunez egun ez jabetu arren, azken 30 urteetako saioak elkarren ondoan jartzean argi ikusten da bestelako familia-eredu eta harremanak irudikatzen lagundu duela ñabardura txiki horrek.

Ikerketa-galderetara itzuliz, beraz, emakumeen ahotsen presentziaz esan dezakegu «araua» betetzen ez duten saioak gehiengo handia direla eta, ondorioz, emakumeen ahotsa edo ez dela irudikatu, edo irudikatu denean gehienetan gizonarekiko harremanaren inguruan irudikatu dela. Oholtzan bi emakume baino gehiago ez ziren saio batzuek irudikapenetan «araua» gainditzeak agertzen du gizonak abestu zutela emakumeen larrutik saio horietan. Hortaz, emakume-ahotsen presentzia mugatua eta askotan gizonak irudikatua izan da.

Dale Spender ikerlari australiarrak adierazi bezala, gizonak erreferentzia-marko bakartzat jotzea funtsezkoa da patriarkatuarentzat, are gehiago emakumeek kontatzeko daukaten esperientziak marko hori kolokan jar dezakeenean:

Gizartearen erdia izatearen esperientzia zuzenik izan ez arren, gizonen mundua euren ikuspegitik azaldu eta deskribatzera jo dute, asumituz euren munduaren esperientzia partzial eta erdi hori dela existitzen den bakarra. Emakumeen esperientzia ezgauza da, ikusezina oinarritik irrealia, eta nire ustean, patriarkatuak iraungo badu, emakumeen ikusezintasunak irautea beharrezkoa da<sup>22</sup> (Spender, 1982: 46)

Spenderren hausnarketak bigarren galderara garamatza, emakumeak plazara irteteak bertsozintzan emakumeak irudikatzeke era aldatu baitu: emakumeari kantatzetik (bertsoen objektu), emakume-roletik kantatzera; emakume rola «emazte» soil bezala agertzetik, emazte gisa bizi duen egoera edo kezka edo pentsamendua zehaztera; emazte gisa bizi daitezkeen kezketatik bestelako kezka orokorrak planteatzera (gai sozial zein politikoak). Eta azkenik, rolei generorik ez definitzera (helburua hain justu hori ez den kasuetan).

Duela 30 urte, bertsozintzak, gizartearen ispilu-funtziotik ahalegina egin zezakeen oholtzan emakumeen ahotsak ordezkatzeko, pertsonaia horiek irudikatzeke. Ez da berdina, ordea, gizon batek egin dezakeen irakurketa, umorea, diskurtsoa eta emakume batek egin dezakeena. Alabaina, oholtzan emakume bat jartzeak ez du emakumeen ahotsak ordezkatzeko balio, bere horretan. Ekarpen oso garrantzitsua egin dezake diskurtsoa osatzeko, nahiz ezin zaion bertsolari bakarrari gizarte erdia ordezkatzeko eskatu. Esperientziak aldakorrek eta subjektiboak dira, eta zenbat eta «pertsonaia» gehiago irudikatu, orduan eta aukera zabalagoa ñabardurak, zirrikituak eta urradurak agertzeke.

Oholtza espazio presentzial boteredun gisa hartuz gero, hegemoniaren kontzeptua apur bat zabalago hartu eta ohartuko gara generoarena ez dela arrakala bakarra. Bide horretan, emakumeak plazara irteteen ekarritako aldaketak ulertzen lagundu dezake nola oholtzako aniztasunak gizartea irudikatzeke aukera zabalagoa eskaintzen duen.

T. J. Jackson Learsek (1985: 569) filmekin dioena apur bat moldatuz<sup>23</sup>: Bertsozintza giltza izan daiteke gizarteko genero-desberdintasuna iraunarazteke; eta hori hegemonia kulturalaren kontzeptuaren parte da. Giltzak ireki eta itxi egin dezake, ordea, eta genero-bereizkeria iraunarazteke balio duenak beste norabidean biratuta balio dezake genero-berdintasuna eraikitzeke.

---

22. Jatorrizko bertsoia: «[...] *Yet without any direct experience of what it feels like to be half of humanity, men have proceeded to describe and explain the world from their own point of view, and have assumed that their half, partial experience of the world is all that exists. Women's experience is non-existent, invisible, unreal from the outset, and it is my contention that if a patriarchy is to be preserved, women's invisibility must remain*» (Spender, 1982: 46).

23. Lears T. J. Jacksonen esaldiak honakoa dio jatorrian: «*The centralized nature of movies plays a key role in the persistence of gender inequality in a society, which is part of the concept of cultural hegemony*».

**BIBLIOGRAFIA**

- Agarwal, Apoorv; Zheng, Jiehan; Kamath, ShrutiVasanth; Balasubramanian, Sriram eta Dey, Shirin Ann (2015): *Key Female Characters in Film Have More to Talk About Besides Men: Automating the Bechdel Test*, <<https://pdfs.semanticscholar.org/dfaf/97f709be25faceb91e218964bd288a138e0e.pdf>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Agirre, Lorea (2010): *Zapia eta txapela*, <<https://www.bertsozale.eus/eu/fitxategiak/generoa-dokumentazioa/2010-lorea-agirre-zapia-eta-txapela/view>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Ardener, Edwin eta Ardener, Shirley (1975): *Perceiving women*. J.M. Dent & Sons Ltd., Londres.
- De Beauvoir, Simone (1949): *El Segundo Sexo*, Catedra, Madrid.
- Eizagirre, Estitxu (2014): *Bidea urratu duten bertsoak*, ARGIA, Lasarte-Oria.
- Eskisabel, Idurre (2017): «Gure inurri horiek», *Berria*, 2017-12-23, <[https://www.berria.eus/paperekoa/1955/026/001/2017-12-23/txapelketa\\_gure\\_inurritegi\\_hori.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1955/026/001/2017-12-23/txapelketa_gure_inurritegi_hori.htm)> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Foley, John Miles (2007): «Basque Oral Poetry Championship», *Oral Tradition*, 22/2, 3-11.
- Gallego Ayala, Juana (2002): *La prensa por dentro. Mecanismos de transmission de estereotipos de género*, Los libros de la frontera, Bartzelona.
- Garcia, David; Weber, Ingmar eta Rama Kiran Garimella, Venkata (2014): «Gender Asymmetries in Reality and Fiction: The Bechdel Test of Social Media», Weblog eta giza komunikabideen inguruko 8. Nazioarteko Konferentziatik eratorriak, *ICWSM 2014*.
- Garzia, Joxerra; Sarasua, Jon eta Egaña, Andoni (2001): *The Art of Bertsolaritza: Improvised Basque Verse Singing*, Bertsozale Elkarte, Donostia.
- Hickey, Walt (2014): «The Dollar-And-Cents Case Against Hollywood's Exclusion of Women», *FiveThirtyEight*, <<https://fivethirtyeight.com/features/the-dollar-and-cents-case-against-hollywoods-exclusion-of-women/>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Larrañaga, Carmen (1994): «Bertsolarismo: habitat de la masculinidad», *Bitarte*, 4, 29-51.
- , (1995): «Bertsolarismo: una tradición transitada por el género-sexo», *Eusko Ikaskuntza*, Donostia, 405-425.
- , (1997): «Del bertsolarismo silenciado», *Eusko Ikaskuntza*, Donostia, 57-73.
- Lawrence, Faith (2011): «SPARQ Ling Conversation: Automating The Bechdel-Wallace Test», *Hypertext*, <<http://nht.ecs.soton.ac.uk/2011/papers/12-flawrence.pdf>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Lears T.J. Jackson (1985): «The Concept of Cultural Hegemony: Problems and Possibilities», *American Historical Review*, 90/3, 567-593.

- Lemonauria, Pedro (1837): *Ensayo crítico sobre las leyes constitucionales de Vizcaya*, Delmas, Bilbo.
- Miner, Kattalin (2017): «Bazterren aroa behingoz», *ARGIA*, 2017-12-19, <<http://www.argia.eu/albistea/bazterren-aroa-behingoz>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- San Sebastian, Xabino; Usarralde, Inazio; Azkune, Laxaro eta Zeberio, Nikolas (2002): *Gai-jartzailearen eskuliburua*, Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Donostia.
- Sarasua, Jon (2007): «Social Features Of Bertsolaritza», *Oral Tradition*, 22/2, 33-46.
- Sharma, Versha; eta Sender, Hanna (2014): «Hollywood Movies With Strong Female Roles Make More Money», *Vocativ*, <<http://www.vocativ.com/culture/celebrity/hollywood-movies-strong-female-roles-make-money/>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Snow, Georgia (2015): «Theatre gets its own Bechdel Test», *The Stage*, <<https://www.thestage.co.uk/news/2015/theatre-gets-its-own-bechdel-test/>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).
- Spender, Dale (1982): *Women Ideas and What Men Have Done to Them*, Harper Collins, Sidney.
- Ulaby, Neda (2008): «The ‘Bechdel Rule,’ Defining Pop-Culture Character», 2008-09-02, <<https://choice.npr.org/index.html?origin=https://www.npr.org/templates/story/story.php?storyId=94202522>> (Azken kontsulta: 2019-02-18).

### ***Iturriak***

Xenpelar Dokumentazio Zentroa (<http://bdb.bertsozale.eu/web/bertsoa/bilaketa>)  
Mintzola Ahozko Lantegia (<https://www.mintzola.eu/eu>)

EITB:

Hitzetik hortzera (<http://www.eitb.eu/eu/telebista/programak/hitzetik-hortzera/>)

Bertsoaren aldagela (<http://www.eitb.tv/eu/bideoa/hitzetik-hortzera-bertsolari-txapelketa-nagusia-2013/4104744476001/4090123454001/bertsoaren-aldagelan/>)

Bertso-plaza digitala ([www.bertsoa.eu](http://www.bertsoa.eu))





*Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian*

Txapelketetan talde lan bat da  
zehaztasun ta araudi  
baina oro har bakarkako lan  
ziurgabe ta limuri  
ezinbestean bertsolari ta  
entzuleen arteko zubi  
ez soilik aho bat aurkezle ta  
gaitegi eusle esku bi  
inoiz belarri ukendu ta maiz  
kontzientzia bisturi  
bertsolaria soilik ez dago  
arduratsu ta urduri  
prestigioa ta lan eskerga  
nahiz ta askotan itzuri  
ertzeko aulkitik erdigunera  
badatorrela dirudi.

**Amaia Agirre Arrastoa**



## **Gaien garrantzia errealitate eta diskurtsoen eraikuntzan**

*Maite Berriozabal Berrizbeitia*

Askotan pentsatu arren, zaila zait jakiten bertso-saio baten arrakastan gaiak eta gai-jartzailearen lanak zenbat eta nola eragiten duten. Egia esan, ez da erraza gaiaren eragina zenbatekoa den jakiten bertso-saio baten arrakasta zertan oinarrituta neurtzen dugun hausnartzen ez badugu. Izan ere, bertsolariarengan zer sortu edo eragin behar du gaiak bertsoaldi on bat entzun ahal izateko? Eta zer hartzen dugu bertsoaldi ontzat? Ondorioz, zer da edo nolakoa behar du gai on batek?

Gaiak aztertu ahal izateko ezinbestekoa iruditzen zait gai-jartzaitzaren testuingurua eta lan egiteko modua kontuan izatea. Jarraian ahaleginduko naiz gaien inguruko gogoeta egin ahal izateko gai-jartzaitza moduak azaltzen. Horregatik, nonbaitetik hastearren bertsolaritzako ikuskizunetako gai-jartzaitza lana bi multzotan bereiziko dut: txapelketa eta plaza. Bereizketa horretan esan daiteke txapelketa bateko gai-jartzaileak lehian oinarritutako eta aurrez adostu eta diseinatutako egitura baterako jartzen dituela gaiak. Bestalde, plaza deituko diet lehiarik gabeko edozein motatako bertso-saioei; hau da, gaiak unean uneko leku, bertsolari edota beste edozein kanpo/barne faktoreren arabera erabakitzen direnei.

### ***TXAPELKETAKO GAI-JARTZAIETZA***

Txapelketa edo sariketa arautu batean gaiak jartzea talde-lana izaten da, eta, besteak beste, horrek egiten du txapelketako gai-jartzaitza desberdin. Izan ere, talde-lanean egin eta adostutako gaiak osatzen dute txapelketako gai sorta. Beraz, txapelketan erabiltzen den gai oro taldea osatzen dutenen ekarpen, bizipen, zuzenketa eta proposamenen ondorio da. Gaiaren ideia taldea ekarri duenak proposatutakoa bere horretan hel daiteke oholtzara edo bidean beste edozer bilakatu. Norbere bakarkako sormen-lanean egindako antzeko galbahe-lana izan daiteke, baina taldean egiten da prozesu osoa eta taldean erabakitzen da guztia.

Txapelketa Nagusia adibide hartuta ahaleginduko naiz gai-jartzaile taldearen funtzionamendua azaltzen. Ezinbestekoa iruditzen baitzait taldearen izaera eta lan-

dinamika ulertzea gaira nola iristen garen ulertzeko. Hemezortzi kidez osatu zen 2017ko Txapelketa Nagusiko gai-jartzaile taldea, eta bertan, Euskal Herriko lurralde guztietako kideek parte hartu genuen.

Bertsozalearentzat irailean hasi eta abenduan amaitzen da txapelketa, gai-jartzaile taldearentzat, aldiz, udaberri aldean hasi eta astez aste egiten eta fintzen den lana da. Saioen datak gerturatu ahala astean behin biltzen hasten da taldea astebarruko arratsalde batez, eta larunbat edo iganderen batzuk ere behar izaten dira lana amaitzeko. Txapelketa Nagusiko lanerako funtzionamendu hori izan dugu azken urteetan eta lurraldeetako gai-jartzaile taldeena ere antzekoa izaten da.

Bileretan egiten den lanak ematen dio forma aurkezle-lanetan arituko den gai-jartzaileak irakurriko duen gai zerrendari. Hala ere, ezinbestekoa da horretarako gai-jartzaile bakoitzak aurrez egiten duen sormen-lana. Izan ere, taldean eztabaidatuko diren gaiak taldekide bakoitzak aurretik sortutakoak dira. Bakoitzak gure gai sorta eramaten dugu taldera eta gero taldean erabakitzen da bere horretan balio duen, moldatu beharra dagoen edo gaia alboratu egiten den.

Ezinbestean kontuan izan behar dugu txapelketak duen zurruntasuna egiturei eta ariketa motei dagokienez. Aurrez erabakitzen da nolakoa izango den ariketa bakoitzaren arima eta forma; esaterako, bertsolari bakoitzak rol edo ikuspegi desberdin batetik kantatuko duen ala biek abiapuntu beretik helduko dioten gaiari, edota zein tonutako tematika eta planteamenduak egingo diren ariketa bakoitzean. Izan ere, formari dagokionez ariketari ezaugarri batzuk atxikitzen dizkiogu taldean eta horri jarraiki diseinatzen ditugu gaiak. Ariketa bakoitzarekin egiten da lan hori eta horrek ezarriko du gero gaia sortzeko markoa; hain zuzen ere, taldekide bakoitzak sortzen dituen gaiak hori kontuan izanda egiten du. Bestalde, gaiaren forma eta egitura zehatz bat erabakitzeak ariketa eta gaien arteko orekan asko laguntzen du.

Edukiei dagokienez ere adosten dira gaiaren ezaugarriak; alde batetik, ariketa bereko gaien arteko orekari eusteko edukiaren pisua zenbatekoa edo nolakoa izango den zehazten da, eta, bestetik, zein gai eta ikuspegi plazaratzea nahi dugun adosten dugu. Gainera, saio bakoitzean bertsolari bakoitzari egokitu zaizkion gaietan rola edo tematika ez dela errepikatzen bermatzeko «oreka-taula» deitzen diogun taula bat baliatzen dugu. Taula horrek saio osoaren ikuspegia eskaintzen digu, eta horren bitartez, ariketa bereko gaien oreka eta bertsolari bakoitzari egokituko zaion lanaren oreka egiaztatzen dugu. Jarraian ikus daiteke 2017ko Txapelketa Nagusiko finaleko gaien oreka-taula, bertsolariz bertsolari eta ariketaz ariketa. Saioko gaitegi osoaren ikuspegi orokorra ematen du eta rol bakoitzaren deskribapena. Errepikapenak ekiditeaz gain, desorekak ekiditeko modua ere bada.

	8H	8TX	Puntuak	10TX	Kartzela
1	<b>Euskara elkartearen borondatez</b> lanean. Jarduna profesionalizatzearen alde. (A)	<b>Auzokidea.</b> Auzokoaren sexu jolasekin esnatu. Iggogailuan topo. (E)	Haurren heziketa	<b>Errepideak konpontzen lanean.</b> Arriskuan sentitzen dira. (I)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
2	<b>Euskara elkartearen borondatez</b> lanean. Jarduna profesionalizatzearen aurka. (A)	<b>Semea/alaba.</b> Bideo-jokoa baimenik gabe erosi. Amak/aitak berak baino gehiago erabili (F)	Justiziaz	<b>Irakaslea.</b> Murrizketengatik greba atzo. Gaur lanean. (J)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
3	<b>Kirolari profesionala.</b> Publizitate eskaintza asko, iragartzeko prest. (B)	<b>Auzokidea.</b> Bere sexu jolasekin auzokoa esnatu. Iggogailuan topo. (E)	Bizitzarekiko jarrera	<b>Irakaslea.</b> Murrizketengatik greba atzo. Gaur lanean.(J)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
4	<b>Kirolari profesionala.</b> Publizitate eskaintza asko, iragartzeko ez dago prest. (B)	<b>Ama/Aita.</b> semeak/alabak bideo-jokoa baimenik gabe erosi. Amak/aitak erabili gehien. (F)	Erljiioak eta fedea	<b>Errepideak konpontzen lanean.</b> Arriskuan sentitzen dira. (I)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
5	<b>Pisukidea.</b> Tebistan eztabaida politikoak ikusi eta komentatzea gustuko. (C)	<b>Artzaina.</b> Herritarra ikusi du ardiak norabide okerretik bidaltzen. (G)	Lan-prekariatatea	<b>Gurasoa.</b> Seme-alabak etxetik joan dira. Gela husten hasi dira. (K)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
6	<b>Pisukidea.</b> Tebistan eztabaida politikoak ikusi eta komentatzea ez du gustuko. (C)	<b>Arkeologoa.</b> Indusketako hezurak autoan, poliziak geratu. (H)	Kutsadura eta osasuna	<b>Musikaria.</b> Herrian musu-truk jotzeko eskatu diete.(L)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
7	<b>Dendaria.</b> Jaiegunetan denda zabaltzearen alde. (D)	<b>Artzaina.</b> Herritarra ikusi du ardiak norabide okerretik bidaltzen. (G)	Gabon garaiaz	<b>Musikaria.</b> Herrian musu-truk jotzeko eskatu diete. (L)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.
8	<b>Dendaria.</b> Jaiegunetan denda zabaltzearen aurka. (D)	<b>Polizia.</b> Arkeologoa indusketako hezurak autoan dituela geratu. (G)	Iritzia guztiaz emateari buruz	<b>Gurasoa.</b> Seme-alabak etxetik joan dira. Gela husten hasi dira. (K)	Atetik sartu zarenean, isildu egin dira denak.

Esan bezala, ariketa mota eta neurria aurrez zehaztuta egon arren, gai mota edo gaiaren forma taldean erabakitzen da. Hala ere, txapelketetan badira ariketa bereziki zurrunkak gai-jartzaitzaren ikuspegitik, hasierako puntuen ariketa, adibidez. Ariketa horren kasuan hainbat faktore izan behar dira kontuan: hiru hasierako puntu sortu behar dira bertsolari bakoitzarentzat, hiruak izan ohi dira gai baten bueltakoak, ekidin egin behar da bertsolariak hasierako puntu bati erantzungo dion hori jarraian datorren hasierako puntuak esatea, errimak ezin dira errepikatu saio bakoitzeko hasierako puntuen artean eta bertsolari guztiei jarritako puntu guztiek antzeko aukera eman behar dute bertsoarako.

Baldintza horiek guztiak beteko dituela aintzat hartuta sortzen da hasierako puntuen sorta bakoitza, eta lan horretan, puntu sorta bakoitzaren gaiaren pisuaren arteko oreka eta diskurtsorako aukera antzekoa eskaintzen bermatzen ahalegintzen gara. Horrelako egoeretan zaila da edukiaren zehaztasunari alde formaletik harago nahi beste erreparatzea. Baldintza asko bete behar dituen sormen-lana da eta gehiago du funtzionala izan beharra askotan eraldaketarako tresna izatea baino. Muga formalek sormenari eta eraldakuntzarako nahiari neurria jartzen diete horrelakoetan.

Ofizio edo bakarkako lanen kasuetan, gaiaren formulazioan hitzez hitzeko aukeraketa egiten da taldean. Hitzari berari erreparatzen zaio alde batetik, alegia, hitza ulergarria ote den euskara guztietarako edota aukeratutako hitzak adierazi nahi duguna ondo transmititzen ote duen. Bestalde, esaten dugunak zer esaten duen aztertzen da batzuetan, hots, aukeratutako hitzek diotenaz edo esaten ez dutenaz ohartzea. Izan ere, ez da lehenengo aldia izango hemezortzi laguneko talde batek gauza bakarra ulertzen duen lekuan frontoi betek beste gauza bat ulertzen duena. Horregatik, ezinbestekoa da esaten den guztia neurtzea eta neurtuta eramatea saiora. Hori dela eta, aurkezle-lanetan arituko den taldekideak gai guztiak idatzita, erreparatuta eta orraztuta eramaten ditu. Txapelketan gaien, bertsolarien eta lehiaren babeserako, ez da egoten gaien aldetik inongo inprobisaziorik.

Txapelketak badu beste berezko ezaugarri bat, gaiak egiteko orduan muga bihurtzen dena: zozketa. Saio bakoitza hasi baino ordubete inguru lehenago jakiten da bertsolari bakoitzari zein gai egokitu zaizkion. Goiko tematika-taulan ikusten den bezala, zenbaki bakoitzari ariketa bakoitzean gai bat eta rol bat dagokio, eta hori ez dago aldatzerik edo aurreikusterik. Plazan ez bezala, txapelketako gai-jartzaileak ezin du gaia nori jarriko dion aurrez erabaki, eta horrek eragiteko gaitasuna mugatzen dio gai-jartzaileari. Lekuaren eta denboraren faktoreak baliatzen dira txapelketan, baina inoiz ez kantuan nortzuk ariko diren.

Esan dezakegu, beraz, txapelketaren egiturak sormenari marko zurruna ezartzen diola. Eta zurruntasun horretan gai-jartzaile taldearen lana xehetasunaren zaintzan oinarritzen dela neurri handi batean. Zeren sortzea dagokio gai-jartzaileari berez, baina txapelketan, egokitze- eta neurtze-lan handia dago. Hori horrela izanik, galdera honakoa litzateke: nolako boterea du gai-jartzaileak txapelketa batean bertsoan entzungo den diskurtsuan eragin edota errealtate jakin batzuk irudikatzeke?

Bertsolariak txapelketan ere aurrean dituen entzuleei kantatzen die eta neurri handi batean entzulearen erantzunak eragiten du saioaren giroaren gorabeheran. Gai-jartzaileon lana ere egiten da neurri batean entzulari begira; izan ere, kartzelako gai baten irekitasunak badu neurri batean entzulea ez aspertzeko intentzioa, zaila delako bertsolari guztiek diskurtso bera errepikatzea gaia irekia bada. Bestalde, txapelketaren oihartzunaren kontziente erabakitzen dira gaiak, ez dira bertsolariak faktore bakarra. Entzulearen boterea eta bertsolariak duen entzulearen beharra aintzat hartuta jartzen dira gai jakin batzuk plaza jakin batzuetan.

### ***PLAZAKO GAI-JARTZAILETZA***

Plazako saioetan askotarikoa izan daiteke forma edo motiboa. Dena den, Euskal Herriko edozein txokotan izan daitekeen plazako edozein saiotan gai-jartzaileak saioa prestatzeko garaian eskura izaten ditu saio mota, lekua, eguna, ordua, bertsolarien zerrenda eta saioaren motiboa zein den. Txapelketan ez bezala, gai-jartzailea aske da aurrez nori zein gai jarriko dion erabakitzeko eta ez du zertan saioa orekatu, nahi ez badu. Gainera, ez du derrigortasunik bertsolari guztiei lan bera jartzeko edo ez du zertan hasi eta amaitu aurrez aurreikusi bezala. Azken batean, gai-jartzaileak oholtzan dagoenean inprobisatzeko aukera ere badu eta sarri askotan ezinbestekoa izaten da.

Oro har, bakarkako lana da plazakoa, nahiz eta egia den gai-jartzen aritzen den hainbati entzun izan diodala saio bat prestatzen duenean ingurukoren batekin kontrastatzen duela lehenengo. Hala ere, orokorrean saioko gaien aukeraketa, ikuspegia eta bertsolari bakoitzari zer kantatzeko eskatu edo eskaintzea bakarkako lana izaten da. Ematen du horrek estilo pertsonal edo norbere lehentasun eta nahiak osotasunean plazaratzeko aukera, baina ordainetan ez du taldearen babesik eskaintzen.

Plaza izan daiteke urteroko bertso-jaialdi bat, bertso-afari bat, bertso-saio musikatu bat, bertso-trama bat, motibo zehatz baterako antolatutako saio puntual bat... Baina saioetarako gaiak pentsatu behar dituenarentzat badira txapelketan aintzat izango ez diren elementuak; besteak beste, publikoa oso aintzat hartzen da, kantuan arituko diren bertsolariak nortzuk diren eta zer dakigun eurei buruz, saioaren motiboa zein den, antolakuntzaren helburua zein den... Kanpo-faktore askoren batura gertatzen da bertso-saio bakoitzean eta lehentasunak ezartzea dagokio horrelakoetan gai-jartzaileari; izan ere, plazako saioetako gaiak jartzea ariketa askea izan daiteke, baina askatasun horretan zeri erreparatzen diogu?

Bertso-saio bat ikuskizun bat da eta gai-jartzailearen lana ikuskizun horri forma eman eta gidatzea da. Baina ikuskizun horretan zer garrantzi du gai-jartzaileak kontatu edo azaleratu gura duenak? Zer da garrantzitsuagoa, testuingurura egokitzen jakitea edo norbere sormenari bide ematea? Beharbada bien arteko oreka bat izango da arrakastaren giltza, baina nola orekatu nahia eta egin beharra aurrez bermatu ezin daitekeen arrakastaren alde?

## **ZER EGIN DEZAKE GAI-JARTZAILEAK?**

Gai-jartzailearen lana, bertso-saioko gidoia sortu eta saioari eustea izateaz gain, publikoaren eta bertsolariaren arteko zubi-lana egitea ere bada. Gai-jartzaileak saio bat pentsatu eta diseinatzen du forma eta eduki aldetik, baina ez dago bere esku bertso-saio batean kantatuko diren bertsoak aurrez diseinatzea. Hala ere, gai-jartzaileak badu boterea eta erantzukizuna bertsolariek sortuko duten horren abiapuntuarekiko eta baita gaiak bere horretan esaten duen horrekiko ere. Gaia istorio baten hasiera izan daiteke, egoera baten deskribapena, elkarrizketa bateko esaldia, gertakari baten interpretazioa... eta gaia ez da inoiz objektiboa izango, horren diseinu osoa gure esku baitago. Bertsolariek gaia entzun eta hortik abiatuta zer sortuko duten ez dago gure esku, baina badugu bideratzeko ahalmena. Gai bakoitza arrazoi eta helburu jakin baterako jartzen da, eta batzuetan nahi duguna lortuko dugu eta bestetan ez, baina eragiteko aukera hor dago beti.

Gai-jartzaileok dugun botere eta eragiteko gaitasuna aintzat hartuta, edozein gai jartzea erabakitzen dugun unetik ari gara diskurtsoa sortzen. Era berean, gai jakin bat bertsolari jakin bati eta toki jakin batean edo bertsokide jakin batekin kantatzeko jartzen diogunean ere eragiten ari gara. Horregatik, nahi izan dut gaiaren edukia eta egoera kontuan izanda gai-jartzaileok hartzen ditugun zenbait erabaki zerrendatu eta azaldu.

### ***Gaiaren edukia***

- Gai-jartzaileak erabakitzen du gai bat jartzea edo ez jartzea. Gai jakin bat jartzeak zerbait, norbait edo egoera bat ikusgarri bihurtzen du, eta gai bat ez jartzeak ez existitzea dakar gaiaren ikuspegitik. Beste kontu bat litzateke gero bertsolariak eraiki dezakeen edo ez gaiak esan ez duena.
- Gaira ekartzen den egoera edo kontakizuna nola ekartzen den; hau da, zertan jartzen den garrantzia, zeri ez zaion erreparatzen, zertan jartzen den indarra... Gaia jarri izanak edo egoera bat ikusgarri egin izanak ez duelako beti gaien lantzen den horren alde egiten. Nolakotasuna zer bera baino garrantzitsuagoa da gehienetan.
- Gaiaren edo gai-jartzailearen tonua. Ez da gauza bera zein ariketa motatarako jartzen den zein gai edota umorez, seriotasunez, azalckeriaz, xehetasun asko eman... esaten duen gaia gai-jartzaileak esaten duena. Gaiaren tonuan norbere ikuspegi eta lehentasunen mailaketa bat ere badago.
- Hitzen erabilerak duen indarra ere aintzat hartzekoa da. Hitz edo esamolde bakoitzaren atzean zentzu bat dago, sozialki adostutako edo eraikitako esanahi bat. Beraz, ez da gauza bera izango gai berdina azaltzeko berba batzuk edo beste batzuk erabiltzea.



- Gaiaren desprestigioaren arriskua. Gai baten inguruan asko kantatu denean, entzuleak eta bertsolariak berak izaten du sentsazioa gai horri buruz esan beharrekoak esan dituela. Horri buelta bat emateko gai izatea dagokio gai-jartzaileari; izan ere, ertz asko dituen errealitateak ezkututzen dira gai bakoitzaren atzean.

### ***Gaiaren testuingurua***

- Gaia nori jartzen zaion erabakitzea. Ez baita berdina kantuan arituko dena nor den eta norekin arituko den kantuan. Ekuazio horretan gai-jartzailearen erabakia da faktore horiek kontuan izanda nori zer eta norekin jartzen dion. Oso garrantzitsua iruditzen zait gaia nori jarriko diogun erabakitzerakoan norekin kantatuko duen ere balioan jartzea. Bertsolarien arteko botere-harremanek edo konplizitateak asko baldintza baitezakete gaiaren eraginkortasunean.
- Gaia non jartzen dugun balioan jartzea. Non horretan entzulea eta saio mota aipatuko nituzke. Izan ere, bertsolariak diskurtso jakin bat garatu edo bertsotan gai mota jakin bati buruz kantatzeko leku eta une egokia bilatzen laguntzea ere badagokigu. Azken batean, gai jakin batek izan dezakeen indarra edo eragin dezakeen ondoeza guztiz desberdinak izan daitezke testuinguruaren arabera.
- Bertsolari bat beste bat baino gehiago ezagutu dezakegu edota bertsolari jakin batzuei buruzko aurreiritziak izan ditzakegu: nolakoa den, zer transmititzen digun, zer dirudien... Horrelako kasuetan gai edo rol mota bat bertsolari jakin bati jartzeko ohitura izaten dugu, eta askotan ez dakigu bertsolari horrek jarritako horri eta horrela kantatu nahi dion ala ez. Bertsolariekin gai horri buruz hitz egiterik ez badugu, bertsolari batari edo besteari jartzen dizkiegun gaien inertziak aztertzea ona izan daitekeela uste dut.

### ***GAI-JARTZAILETZA IKUSPEGI FEMINISTATIK***

2017ko Txapelketa Nagusian jarritako zenbait gai aukeratu ditut gaien edukiari buruz ikuspegi feminista batetik hausnartzeko. Txapelketako gai batzuk hautatzea erabaki dut; alde batetik, gai horietara heltzeko taldean emandako urrats eta elkarrizketetan parte hartzeko aukera izan nuelako, eta, bestetik, gaiak idatzita dauden moduan irakurri zirelako zegokien bertso-saioetan. Gainera, txapelketak bere forman eta zurruntasunean gaiari exijitzen dion egokitasuna handia da, horregatik, uste dut interesgarria dela mugen barruan sortutako gaiaren ibilbidea.

Berez gai bat sortu eta plazan aurkezten den unerainoko prozesua antzekoa da txapelketan eta plazan, baina kasu honetan, lagungarria zait txapelketa, aukeratutako gaiak eta horiei kantatutako bertsoak ere sarean ikusgai daudelako. Eta horrek aukera ematen digu gaia eta gaitik abiatutakoa bere osotasunean ulertzeko. Dena den, nabarmendu nahi nuke asmoa ez dela egindako lana auzitan jartzea, baizik eta jarri genituen gaiak bere horretan irakurri eta gogoetarako baliatzea.

### ***Ikusgarritasuna eta normaltasuna***

Gai neutrorik ez dela existitzen jakin badakigun arren, gai batzuk neutroz mozorrotuta jartzen ditugu ohartu ere egin gabe. Generorik zehazten ez dugun kasuetan eta emakumezko zein gizonezkoen errealtate izan daitezkeela uste dugun gaiekin asko gertatzen zaigula uste dut. Egia da batzuetan apropos ez dela generorik zehazten eta beste batzuetan nahita zehazten dela, baina uste dut generoa markatzen ez den kasuetan normara egiten duela gaiak edo gaiak irudikatzen duenak. Gaiak aurkezten duen errealtatea jendartean gertatzen den edozein harreman, arazo, gertakari edo pasarteren erreprodukzioa izango da askotan, eta iruditzen zait jendartean gertatzen den hori nola gertatzen den hausnartu beharra dagoela jakiteko benetan sortzen ari garen istorioan generorik ez markatzea benetan neutroa den edo ez.

*GAIA: Kirolari profesionalak dira Maialen eta Unai, eta publizitatea egiteko eskaintza asko jasotzen dituzte. Maialen edozer iragartzeko prest dago. Unai, ordea, ez. (Maialen Lujanbio eta Unai Agirre; Barakaldo)*

Gai hori gai-jartzaile taldean erabaki genuenean gaiaren edukiari eta formari erreparatu genion, batez ere. Gertutik ez genion bistan zuenaz gain, beste tolesturarik nabaritu, baina oholtzan Maialen eta Unai kantuan entzun nituenean ohartu nintzen gaiak bi gizonezko kirolari profesional marraztu zituela. Hasteko, guk kirola aipatu ez arren, zaila zegoen futboletik ihes egiten, eta guk emakumeak edo gizonak ziren esan ez arren, zaila zegoen emakume kirolari profesionalak izaten. Izan ere, errealtate horrek errealtate jakin bati erantzuten dio, eta hortik kanpo bertsotan marraztu gura denak eraikitze-lan handia eskatzen du. Kasu honetan ia-ia fikzioa litzateke bi emakume kirolari profesional publizitate-eskaintza baten inguruan bertsotan entzutea, errealtatean hori gutxiengoa delako. Entzuleak berak errealtate hori irudikatze laguntza beharko luke eta bertsolariek eraiki egin beharko lukete errealtate hori, errazagoa zen bi gizon kirolari irudikatzea. Eta horrela egin zuen Maialen Lujanbiok:

«Hemen dirua baita kontua  
 nola ez esan? Akabo!  
 Futbol zelaian egiten degu  
 izerdi eta ur trago  
 Real Sociedad SAri ta  
 txinoei salduta nago  
 ta honezkero zer inporta zait  
 pixka bat salduxeago (bis)».

Esan dezakegu Maialenek lehen bertso horretan kokatu zituela Errealeko gizon futbolari bi mikrofonoaren aurrean, baina sentsazioa dut gaiak berak jarri zituela hasieratik bi gizonetzko kirolari profesional kantuan. Gaiak proposatzen duen egoera entzun eta lehen kolpe batean burura datozkigun pertsonaiak gizonetzkoak dira, errealitatean hori delako ohikoena eta hedatuena. Emakumeen kirol profesionalaz ez dakigu hainbeste eta emakumeen kirolaren prestigioa ez dago gizonetzkoenari ematen zaionarekin alderatzerik, hori kontuan izanda, posible al zen gai hori jarrita emakume kirolari profesionalak kantuan entzutea? Edo bestela esanda, zer kostu izango luke bertsolarientzat emakume kirolari profesionalak zirela azaltzeak eta entzulearekin erraz konektatzeko erreferentzia errealak aurkitzeak?

Horrekin ez dut esan nahi bi gizonetzko kirolari profesional kantuan ez ditugunik jarri behar, ezta gutxiago ere. Nire ustez, hor kontua da kontziente izatea, emakumeak edo gizonak zirela esan zein ez, gizonen errealitate bat eramán genuela gaira. Normaltasuna normak ezartzen duen bezala, gaia esandakoek eta esan bakoek eraikitzen dute, eta hori ikusteko gai izan behar dugu nahi ditugun gaiak jartzeko, askatasuna eskuratuko badugu. Zein diskurtso ahalbidetzen ditugun eta ahotsa zeri ematen diogun jakiteko ezinbestekoa da gaietan adierazten ditugun egoerak, harremanak edo rolak errealitatean zeri erantzuten dioten jakitea. Alegia, kontuan izatea sarri askotan ez zehaztea normaren alde egitea dela.

*GAIA: Urteetan egin duzu lana adineko pertsonak zaintzen. Geroz eta hurbilago ikusten duzu zeuk zaintza beharko duzun unea (Aitor Sarriegi; Barakaldo)*

*GAIA: Hotel bateko garbitzaileak dira Miren eta Nahikari. Hamar minutu dituzte gela bakoitza garbitzeko. Egun osoa daramate gelaz gela lanean. (Miren Artetxe eta Nahikari Gabilondo; Zumaia)*

Futbolarien gaian bezala, bi hauetan ere ez dago genero-markarik. Txapelketako gaiak izanik, saio aurretik egiten den zozketak erabakitzen du nortzuk ariko diren gaiari kantuan. Hala ere, plazan gai horiek jarriko bagenitu ez lukete genero-markarik behar emakumeak irudikatzeko adinekoen zaintzan edo hotelak garbitzen. Kasu horietan ere aurreko gaian gertatzen den gauza bera gertatzen da: generoa ez markatzeak ez du neutro bihurtzen irudikatzen den rola generoa. Horrenbestez, ezinbestekoa iruditzen zait esan nahi duguna esaten ari garela bermatzea eta horrekin sortu eta eragiten duguna neurtzeko ohitura hartzea.

Bestetik, hoteleko garbitzaile eta adinekoen zaintzaileen kasuan esan daiteke emakumeen ikusgarritasunaren alde ari garela, alegia, jendartean ahotsik ematen ez zaienei ahotsa ematen ari garela. Eta neurri batean ari gara horretan, baina bestalde, arriskua dago emakumearen irudi ahul eta biktimizatua erakustera mugatzeko. Hau da, emakumeek bizi duten zapalkuntza eta biolentzia azalarazi behar dugula ez dago zalantzarik, baina ezin dugu horretara mugatu. Emakumearen figura indartsu eta boteretsuak ere plazaratu behar ditugu: emakume arrakastatsuak, independenteak, borrokalariak... horiek ere irudikatu eta ikusaraztea garrantzitsua delako.

### ***Gaiaren asmoa***

Ohitura, gertakari edo harreman modu jakin bat gai bihurtzen du gai-jartzaileak. Izan daitezkeen gauza guztietatik batzuk aukeratzen ditu eta horretan datza neurri handi batean gai-jartzailearen erantzukizuna eta boterea. Horren haritik, gogoetatu behar genuke zer ekartzen dugun erdigunera, nola ekartzen dugun eta zer bihurtzen dugun eztabaidagai. Askotan, gure bizipenak edo inguratzen gaituen errealitatea eramaten dugu gaietara, baina gaiak zeri buruz eta zertarako jarri nahi ditugun jakitea oso lagungarri izan dakiguke zenbait inertzia aldatzen hasteko.

*GAIA: Koadrilakoak edo lagun-talde berekoak dira Jone eta Julio. Lehenengoz, lagun bat ezkontzera doa eta ezkontza handi bat antolatu du. Jone desiratzen dago eguna iristeko. Julio ez da ezkontzara joanen. (Jone Uria eta Julio Soto; Donibane Lohitzune)*

Esan daiteke gai horrek ezkontzaren ospakizun tradizionala jartzen duela auzitan. Kasu horretan, Juliok ez du ezkontza handi batera joan nahi, baina, bestalde, Jonek joatea nahi du eta aldeko argudioak eman beharko ditu gaitik kanpo aritu nahi ez badu. Beraz, esan daiteke ez duela ezkontzaren ospakizun tradizionala auzitan jartzea helburu, baizik eta ospakizun handi bat egitearen alde onak eta txarrak azaleratzeko bide ematen duela.

Kontua da, eztabaidagaia ezkontza handi batera joatea edo ez joatea den unetik, inplizituki gai horretan ezkontzaren normalizazioa dagoela; beraz, ulertzen da ezkontzaren ospakizuna handia izateak ekartzen duela gaira ezkontza, eta eztabaidatu beharrekoa ezkontzaren ospakizunaren tamaina dela. Horrelako gai bat horrela planteatzea izan daiteke nahita eta kontzienteki jarri izana, nola ez, baina

beste askotan kontrakoa lortu nahian jarritakoa ere izaten da; hau da, gai jakin bati ikuspegi kritiko batetik kantatzeko aukera eskaini nahian, kritikatu nahi dena goratzeko bozgorailu izatea. Ez baita nahikoa interesatzen zaigun gaia gai bihurtzea, gaiari kantatuko diotenak nor diren eta nondik kantatzen dioten definitzen asmatzea ezinbestekoa da.

Ikuspegi feminista batetik hausnartzekoa iruditzen zait gai horren atzean dagoen eraikuntza sozial guztia: maitasuna eta harremanak ulertzeko modua, besteak beste. Ez diot ezkontzari buruz kantatu behar ez denik, uste dudana da ezkontzaren inguruan zer kantatzea gura dugun erabaki behar dugula, eta ez hainbeste alde edo kontra, gehiago da bertsolariek ezkontzak bere horretan irudikatzen duen horretan guztian zeri kantatzea gustatuko litzaigukeen eta zergatik. Azken batean, gai horren helburua ezkontza handiak bai ala ez eztabaidatzea bada, jakitun izan behar dugu ezkontza normalizatzen eta babesten ari garela nahita edo nahigabe eta, ondorioz, ezkontzak atzean duen maitasuna eta harremanak ulertzeko sistema osoa.

*GAIA: Bikotea dira Maddalen eta Aimar. Biek dituzte umeak aurreko beste harreman batetik. Orain, elkarrekin bizitzera joatekoak direla eta, erabaki behar dute aste berean bien haurrak elkarrekin hartu ala aste bakoitzean batenak. (Maddalen Arzallus eta Aimar Karrika; Irun)*

Familia-eredu berri bat proposatzen digu gai honek, baina kasu honetan, kontua da errealitate hori gai batera eramateko eman beharreko azalpen-beharra. Gai-jartzaile taldean gogoan dut zenbat buelta eman genituen gai honen idazketan. Izan ere, familia-eredu desberdin eta askotarikoen alde gogor ahalegindu ginen arren, ezinezkoa egin zitzaigun hizkuntzaren aldetik eta larregi luzatu gabe familia horretako kide ziren bikote horren iragana azaltzerakoan aukera ematea aurrez bikoterik izan ez zezaten; hau da, ama edo aita bakarrak ere izan zitezkeen bietako bat edo biak eta gero elkarrekin harreman bat abiatu. Kontua da milaka bueltaren ondoren ahalik eta labur eta ulergarrien esan beharrak beraien iragana beste bikote-harreman batean kokatzera eraman gintuela.

Esan behar da, azkenean, kontzienteki egin genuen hautua izan zela, ez baikenuen beste irtenbiderik ikusi ulergarritasunaren alde. Izan ere, bakarka guraso izandakoak ere izan zitezkeela adierazteko, hori hitzez hitz azaltzea beste aukerarik ez genuen, ez delako normalizatutako eredia eta, beraz, ez delako lehen entzunaldi batean burura etortzen zaigun lehenengo gurasotasun-eredua. Kontua da txapelketan ezin genuela gaia horrenbeste luzatu eta, egokitasunaren izenean, gaia hausnartutakoa baino mugatuago eta sinpleago jarri genuela.

Txapelketak ez bezala, plazak badu malgutasun hori, luza daiteke gai-jartzailea eta nahi beste azalpen eman ditzake gaien esan nahi duena esateko. Zentzu horretan, garrantzitsua iruditzen zait aukera dagoenetan aukerak zabaltzearen alde beharrezko azalpenak eman eta errealitate ez horren normalizatuak marrazteko ahalegina

egitea. Esan bezala, txapelketaren mugetan kabitzen ez bada ere, plaza asko ditu bertsolaritzak izaera, bizimodu edo sentitzeko modu askotarikoak marrazteko.

*GAIA: Bikotea dira Ibon eta Nahikari. Nahikari herriko zinegotzia da. Orain, Europako Legebiltzarrerako hauteskundera aurkeztea proposatu diote. (Ibon Ajuriagojeaskoa eta Nahikari Gabilondo; Zumaia)*

*GAIA: Gurasoak dira Mikel eta Aimar. Hauen alabak orain 5 urte amaitu zituen ikasketak. Geroztik, han eta hemen ari izan da lanean, baina erraten du ez daukala etxetik joateko diru nahikorik. (Mikel Artola eta Aimar Karrika, Baigorri)*

Bikotea zarete edo gurasoak zarete esateak ez du bermatzen entzuleak existitzen diren bikote- edo gurasotasun-ereduetatik guztiak dituenik buruan. Normalizatutako ohiko bikote-harremanak eta gurasoak imajinatzen ditugu oro har, eta, beraz, gure aldetik arduragabe jokatzea litzateke pentsatzea bikote mota markatzen ez dugulako entzuleak maitatzeko eta harremanetan jartzeko aukera eta modu guztiak dituenik aukeren artean. Ondorioz, pentsatzekoa da orokorrean bertsolariak ere normalizatutako harreman mota bat hartuko duela oinarri legez gaian sakondu ahal izateko, bestela, luze joko lioke bertsolariari harreman mota azaldu beharrak gaian sartu aurretik. Bestalde, egia da batzuetan bertsolariek bertsotan ari direla elkarri beraien izenetik deitzen diotela eta horrek eragin dezake gaia errealitatean bertsolari bakoitzak ordezkatzeko duen generotik lantzea.

Lehenengo gaiak bikote bat jartzen du bietako baten ibilbide politikoari begira eta horrek ekar lezakeenari buruz eztabaidan. Berez bikotea izatea bien arteko harremana eraikitzeke modua baino ez da eta horrelakoetan ez da generorik markatzen. Horrelako kasu askotan bertsolariek ez dute beraien generoa definitzen eta bikote izatetik kantatzen dute, besterik zehaztu beharrik gabe. Baina zehazten eta azaltzen ez denean normara jotzen da harreman motetan ere, barneratuta dugun horretara, alegia.

Gurasoen gaian ere antzekoa gertatzen da, bien arteko lotura alaba da eta berdin du gurasoak emakume edo gizon diren edota zer-nolako harremana duten beraien artean, gaia alabarekin duten auzia delako. Hala ere, horrek ez du esan nahi formula horrek normatiboa eta imajinarioan errotuta duguna indartzen ez duenik. Horregatik, gaiaren aldetik ez dago dena eginda generoa ez markatzearekin, horrek ez baitu ikusgarriagoa egiten gutxiagotu edo desprestigiatutako errealitatea. Batzuetan, errealitate desberdinak, hegemonikoak izan zein ez, izendatu beharra dago ikusgarritasunaren mesedetan.

*GAIA: Ama izan zara. Denek diote pozik egon behar zenukeela, baina ez zara hala sentitzen. (Maialen Lujanbio; Barakaldo)*

Argia da gaiaren intentzioa zein den, zer eta nola azaltzen duen amatasunaren aurrean bertsolariak duen auzia. Txapelketako saio batean ezinezkoa da gaiari nork

kantatuko dion aurreikustea, baina kasu honetan 2017ko Txapelketa Nagusiko zortzi finalistetako batentzako gaia zela bagenekien. Haietako bakarra zen emakumea, eta ama zenik ez zegoen oholtzan, aitarik bai, ordea. Gaia Maialeni egokitu zitzaion eta batek baino gehiagok galdetu zuen ea nahita egin ote genuen hori, eta txapelketaren funtzionamendua ezagutzen duenak badaki ezinezkoa dela halakorik egitea.

Horrez gain, izan zen galdetu zuenik gaia bertsolari gizon bati tokatu izan balitzaio ama beharrean aita esango ote genuen. Gaia hori zen, gaia amatasunaren inguruan dagoen erromantizismoaren kritikarako abiapuntua zen, gai horretan aitatasuna ez zen gai. Taldean era adostu eta kontzientean hartutako erabakia izan zen, ikusi zelako ez zela gurasotasunari buruzko gai bat, amatasuna zela gai. Aurrez ikusitako zenbait adibidetan generoa zehaztu ez den bezala, hau bezalako beste hainbat egoeratan generoa zehaztu egiten da eta ez da bertsolariaren arabera moldatzen.

*GAIA: Pisukideak dira Miren eta Aitor. Mirenek Aitor animatu zuen tango ikastaro batean izena ematera. Orain, etxean tarte bat duten bakoitzean entseatu nahi duela esaten dio Aitorrek Mireni. (Miren Amuriza eta Aitor Mendiluze; Durango)*

*GAIA: Aitorrek barazki biltegi bat du. Alaia gaur hasi da bertan lanean. Aitor Alaiari lantegia erakusten ari dela, hozkailu gelara sartu dira. Alaiak atea itxi du, eta kanpotik bakarrik ireki daiteke (Aitor Sarriegi, Alaia Martin; Iruñea)*

Bertsolariek gaia entzun eta euren pertsonaia eraikitzen dute entzun duten horretatik abiatuta eta ofiziotan ari direla, bakoitzak hartutako bideak bestearena baldintzatzen du une oro. Horrelakoetan sarri gertatzen da bertsokide bat eroso sentiarazten ez duen bidea hartu izana bestea, eta askotan umorezko saioetan gertatzen da hori. Umorea tarteko denean zailagoa zaigu erasoak eta hartzen diren lizentziak argi ikustea, sarritan horrelako egoeretan, lige-kontu eta sexu-jolasera jotzen dute bertsolariek. Entzulea ohituta dago halako egoeretan bertsolarien etorriari jarraitzen eta askotan ez du bertsokide bat nola senti daitekeen ikusten, umorean denak balio duen kultura oso barneratuta dago oraindik.

Horrelako egoerak gerta ez daitezen gaien ikuspegitik neurriak hartzeko moduak egon badaude, baina zein puntutaraino dagokio gai-jartzaileari bertsolarietako batek muga jakin batzuk zeharkatu ez ditzan arriskutsuak izan daitezkeen egoera guztiak ekiditea?

Tangoa dantzatzen ari diren bi pertsonen gorputzak oso gertu daude bata bestearengandik eta bietako bat edo biak momentu jakin batean deseroso senti ez zitezen, edota bertsokide batek beste bertsokide bat eraso ez zezan, pisukideak izango zirela erabaki genuen bikotea jarri beharrean. Era horretan, tangoa dantzatzea dantzaren testuingurura eramanez nahi genuen eta ez sexu-jolasa soilik gai bihurtuko litzatekeen testuingurura. Norbaiti txikikeria bat irudituko zaio, eta beharbada hala

izango da, baina aurre har badiezaiokegu helmuga bakarra izan dezakeen bidea eskaintzeari, gai-jartzaileoi hortaz ohartu eta arduratzea dagokigula pentsatzen dut. Nahiz eta jakin ez dela inondik inora ere gai-jartzailearen erantzukizun osoa bertsolarien jarduna, zenbat egoera erasokor ekidin eta inertziak indartzeari utzi diezaiokegu.

Horrekin ez dut esan nahi tangoa dantzatzen hasi eta sexu-jolaserako tarterik eskaini behar ez denik, baina horretarako bermeak behar ditugu. Ez du balio bertsolariak egoera batean jarri eta bermerik gabe elkarri nahi dutena esan eta bietako bat momentu jakin batean erasotuta edo salduta sentitzea. Uste dut bertsolariek badituztela espazioak bertsotan elkarri nahi dutena esateko lizentzia sentitzeko, baina neurtzen eta aurreikusten jakin behar dugu, egoera hori noiz, nori eta nola izan daitekeen.

Lantokia erakusten hasi eta hozkailuan harrapatuta gelditzen direla dioen gaiak bertsolariak espazio itxi batean kokatzen ditu eta umorea egiteko ezaugarri guztiak eskaintzen ditu berez. Bere horretan eman dezake, lan-harremanak, hotzak eta egoeraren itotasunak bertsotarako nahikoa helduleku. Baina gerta daiteke bertsolarietako batek, konkista edo sexu-jolasa bide gisa hartzea, iradokitzen hastea eta bestearengana besteak nahi lukeena baino gehiago gerturatzea. Gerta daiteke erasotua sentitzen den bigarren horrek erabaki behar izatea gogoz kontra jolasari jarraitu edo umorearen katea eten, eta entzulearen konplizitatea galtzea. Izan daiteke biek erabakitzea konkista eta sexurako egoera aparta dela, elkarri epelak esan eta egiteko unea bilatzea eta eroso aritzea kantuan. Baina nola dakigu gai-jartzaileok noiz gerta daitekeen bata edo bestea? Txapelketan ez dakigu nor kantatuko duen norekin eta zaila zaigu gertatuko dena aurreikustea. Plazan, aldiz, izan dezakegu aurreikusi eta gaia nori eta noiz kokatzeko ahalmena.

Txapelketa nagusian gai-jartzaile taldean eztabaidatu genuen gai horrek zeukan arriskuaz eta, hala ere, jartzea erabaki genuen eta ondo atera zen, alegia, gaia ez zuten nahi ez genuen bidetik eraman. Nik honakoa galdetzen diot neure buruari, merezi izan al zuen? Neurri handi batean bertsolariari dagokio kantukidea errespetatzea, jakitea noiz bai eta noiz ez, ikustea zer bai eta zer ez... Gai-jartzaileok ezin dugu kantatuko dituzten bertsoak zeintzuk izango diren jakin, baina arriskuak ikusi ikusten ditugu.

### ***Eskerrak ez dagoen dena gure esku***

GAIA: *Jendea harri eta zur utziko lukeen argazkia atera berri duzu. Zalantzan zaude gorde ala zabaldu. (Miren Amuriza; Zalla)*

GAIA: *Dena ondo zihoan, argia piztu den arte. (Maialen Lujanbio; Irun)*

Gaiak abiapuntua baino eman ez du ematen askotan eta bertsolariak hortik abiatuta errealitate oso bat eraikitzen du. Lehenengo gaian Mirenek argazkitik sortutako adineko emakume biluziaren irudi esplizituekin edo Maialenek argia piztu



zelako sortutako gorputz eta identitate desberdinen inguruko sorta ederrarekin atzean utzi zuten gaia. Horrelakoetan lasaitasuna eta poza sentitzen ditut: dena ez dago gure esku antza, eta eskerrak.

### ***ERALDAKETA HELBURU***

Gaiak sortu eta jartzen ditugun unera arte hartzen ditugun erabakien kontzientzia hartzearen garrantzia ekarri nahiko nuke erdigunera. Esate baterako, jartzen ditugun gaiekin lortu nahi dugun erreakzioa beti izaten dugu presente; alegia, gai edo ariketa jakin batekin entzuleak barrez lehertzea nahi genukeen, bertsolaria estutasun batean jarri edo bertsolariari gaian sakontzeko aukera eskaini nahi geniokeen. Txapelketetan ere oso kontuan izaten dira faktore tekniko eta formalak: dagokion gaia dagokion ariketarako egokia ote den, orekatua, gaitegi aldetik ez errepikakorra, lehen irakurraldi batean ulergarria izatea... Baina kontzientzia maila berdina al daukagu bestelako erabakien gainean ere?

Genero-ikuspegiaren prismetik saioei, gaiei, bertsolarien jardunari eta nire jokabideei begiratzeak eskaini dit kontzientzia hartzen hasteko bide emankor eta sortzaile bat. Ideia bat bere horretan ez da ezer intentziorik gabe, eta intentzio hori gehitzen diogunean bihurtzen dugu gai: erabakitzen ditugu itzalak eta argi-guneak, esango ditugunak eta isilduko ditugunak... Askotan, baina, gure gaien edukietan eta edukiek hartzen duten formetan gure parte diren aurreiritziak eta barneratuta ditugula jakin ez dakigun milaka ikuspegi azaltzen dira. Horiek detektatuzetik hasi beharra dugula uste dut diskurtsoak eta errealitatea aldatzen hasteko.

Askotan gertatzen da gai jakin bat edo ikuspegi jakin bat ikusarazteko lekua, eguna eta bertsolaria aurkitu ezinda ibiltzea, baina hori da positiboa nire ustez, une jakin batean zaila eta deserosoa izan daitekeenari leku egitea. Gaitegi edo formulazio jakin batek beharbada ez du funtzionatuko leku eta egun jakin batean, baina hezi ere egin behar dugu gaitegi berrietara, eta heziketa horretan gai-jartzaileok asko dugu egiteko. Hain zuzen ere, gai-jartzaileon lanak bi aldeak ditu nire ustez; batetik, bertso-saio bat ondo ateratzeko lan egitea eta, bestetik, diskurtso eta ikuspegi berriak plazaratzeko lan egitea. Eta ondorioz, ahal denean behintzat bata eta bestea saio berean lortzen ahalegintzea.

Bide horretan, gaiak jartzen ditugunok jakin behar dugu gure lanak duen eragina saio baten arrakastaren baldintza izatea baino zabalagoa dela. Gure gaiek errealitate jakin bat irudikatzen dute, ikuspegi batean oinarritutako errealitateak normalizatu edo hausten dituzte. Eta hori batzuetan begi-bistakoa izango da eta beste askotan xehetasunetan ikusiko dugu. Hala ere, izango dira distantziara baino atzemango ez ditugun erabaki xume eta nabarmenak ere.

Nire ustez, gai-jartzaileok gure lanaren eraginaren eta garrantziaren ardura hartzen badugu, zein errealitate marraztu eta irudikatu gura ditugun erabakitze

ikuspegi zabalagoa eta askatasun handiagoa izango dugu. Nire kasuan eta gaitegiari dagokionez, ikuspegi feministak askotariko errealitatei lekua egiteko aukera emateaz gain, zer egiten ari naizen ohartzen hasteko heldulekuak eman dizkit. Gaitegitik harago, harremanez hausnartzeko aukera ere eman dit, bertsolariak eta ni horretan nola sentitzen naizen, zeren arabera, nola eragiten duen horrek saioan... Eta konturatu naiz horren guztiaren baturak bertso-saioaren edukietan, giroan, eta ondorioz, arrakastan asko eragiten duela.

Gai-jartzailea sortzailea dela aitortzea kosta zaidan beste kosta zait gai-jartzailearen eragiteko eta eraldatzeko botereaz ohartzea, edo beharbada aitortzea esatea litzateke egokiagoa. Ahaldundu beharrak alde batetik, eta ausardia faltak bestetik, sortzearen artea eta erantzukizuna bertsolariengan uztera eraman nau sarri. Neure buruari ardura funtzionalagoa jarri izan diot, ohartu gabe, nire erantzukizunetik eta sortzaile izateko gaitasunetik urruntzen ari nintzela.

Bestalde, gai-jartzailletza bakarkako bidea dela ere sentitu izan dut askotan, eta uste dut badela garaia horri ere bestelako forma bat emateko eta gaitegi eta gai-jartzailletza eredu berriei bide emateko estrategia partekatua adosteko. Ez gara gai-jartzailletzan bizi ditugun gogo eta zailtasunez hitz egiteko batzen, helburu produktiboetarako espazioetan baino ez dugu topo egiten, eta uste dut gai-jartzailletza moduei buruz hausnartzeko espazioak sortzea oso aberasgarria izan daitekeela guztiontzat.

### ***KONTUA EZ DA GAIK JARTZEA SOILIK***

Gaiak sortu eta erabakitzeak sortzen duen ardura eta antsietatetik ihes egitea ez da izaten erraza askotan, zaila da jakiten non hasi eta non amaitzen den gure ardura, eta zenbat egitea dagokigun guri. Argi dagoena da, errealitatearen pertzepzioa eta errealitatea bera eraldatzea helburu badugu, ezinbestekoa dela ikuspegi feministatik sortzea eta gudan ditugun eraikitako balioak zalantzan jartzea. Aitzitik, zenbat eraiki edo eraldatu behar du gai-jartzaileak eta zenbat bertsolariak? Elkar elikatu egiten dute, bertsolaria gaitik eta gai-jartzailea bertsolarien jardunetik, berdin du zeinek eman duen lehen urratsa, zeinek ireki duen biderik txikiena edo zeinek eragin duen lehenengo isiltasun deserosoa gero gainean eraikitzen jarraitzeko. Kontua ikuspegia partekatzen dugula ohartu eta elkarrekin bidea egitea dela uste dut.

Egia esan, gai-jartzailearen lana ez da gaiak pentsatzea bakarrik, beste hainbat lan ere egiten ditugu: saioa aurkeztea, antolatzaileekin hitz egitea, arazoan aurrean zer egin erabakitzea, egoeraren kontrola hartzea... Horretan guztian asko eragiten du taldeak, eta taldea diodanean bertso-saioa osatzen duten bertsolariez eta gai-jartzaileaz ari naiz. Horrelakoetan ezinbestekoa da taldekideen arteko harremana saioaren emaitzari begira.

Izan ere, bertso-saio batean gai-jartzaileoi eskatzen zaigu, inplizituki bada ere, ziurtasuna transmititzea oholtzan eta gure paperean idatzitako gaien gaineko kontrola. Eskatu izan zaidan jarrera horrekin egoten ahalegindu izan naiz beti, baina ziurtasunik ez dudanean nekez adieraz nezake halakorik. Eta sentazioa dut hortaz ez dugula ia hitz egiten, helburua zein den argi dugula guztiok eta helburua lortzeko bidean nola sentitzen garen bakoitza kudeatu beharrekoa dela. Uste dut gai-jartzaileok gure artean zein bertsolariekin partekatu beharko genukeela nola gauden, zer espero dugun, zerk kezkatzen gaituen...

Normalean, bertsolariak eroso daudenean ni ere erosoago egon ohi naiz eta ni eroso nagoenean bertsolariak erosoago egongo direla imajinatzen dut. Bide horretatik, azken urteetan emakumeen bertso-saio musikatu, espermental edo bestelakoetan elkar zaintzeko jarrera kontziente bat ikusi eta sentitu dut. Esango nuke pertsonak jartzen direla horrelakoetan saio on bat egitearen presioaren gaineratik, eta pertsonak aurretik jartzea saio on bat egiteko osagai garrantzitsuena dela uste dut. Horregatik, saioaren emaitza ona eta arrakasta helburu baditugu, taldearen ongizatea ere aintzat hartu beharko genuke, ezinbesteko baldintza baita.

**Maialen Lujanbio, Unai Agirre** (Barakaldo)

Kirolari profesionalak dira Maialen eta Unai, eta publizitatea egiteko eskaintza asko jasotzen dituzte. Maialen edozer iragartzeko prest dago. Unai, ordea, ez.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/barakaldo>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14934-goizeko-saioa-zortziko-handia-maialen-lujanbio-eta-unai-agirre>

**Aitor Sarriegi** (Barakaldo)

Urteetan egin duzu lana adineko pertsonak zaintzen. Geroz eta hurbilago ikusten duzu zeuk zaintza beharko duzun unea.(Barakaldo)

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/barakaldo>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14981-arratsaldeko-saioa-bakarka-aitor-sarriegi>

**Miren Artetxe, Nahikari Gabilondo** (Zumaia)

Hotel bateko garbitzaileak dira Miren eta Nahikari. Hamar minutu dituzte gela bakoitza garbitzeko. Egun osoa daramate gelaz gela lanean.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/zumaia>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14724-zortziko-handia-miren-artetxe-eta-nahikari-gabilondo>

**Jone Uria, Julio Soto** (Donibane Lohitzune)

Kuadrillakoak edo lagun-talde berekoak dira Jone eta Julio. Lehenengoz, lagun bat ezkontzera doa eta ezkontza handi bat antolatu du. Jone desiratzen dago eguna iristeko. Julio ez da ezkontzara joanen.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/donibane-lohitzune>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14884-zortziko-handia-jone-uria-eta-julio-soto-btn17>

**Maddalen Arzallus, Aimar Karrika (Irun)**

Bikotea dira Maddalen eta Aimar. Biek dituzte umeak aurreko beste harreman batetik. Orain, elkarrekin bizitzera joatekoak direla eta, erabaki behar dute aste berean bien haurrak elkarrekin hartu ala aste bakoitzean batenak.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/irun>

Bertsoaldia: (ez dago eskuragarri)

**Ibon Ajuriagojeaskoa, Nahikari Gabilondo (Zumaia)**

Bikotea dira Ibon eta Nahikari. Nahikari herriko zinegotzia da. Orain, Europako Legebiltzarrerako hauteskundera aurkeztea proposatu diote.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/zumaia>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14731-hamarreko-txikia-ibon-ajuriagojeaskoa-eta-nahikari-gabilondo>

**Mikel Artola, Aimar Karrika (Baigorri)**

Gurasoak dira Mikel eta Aimar. Hauen alabak orain 5 urte amaitu zituen ikasketak. Geroztik, han eta hemen ari izan da lanean, baina erraten du ez daukala etxetik joateko diru nahikorik.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/baigorri>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14659-zortziko-handia-mikel-artola-eta-aimar-karrika>

**Maialen Lujanbio (Barakaldo)**

Ama izan zara. Denek diote pozik egon behar zenukeela, baina ez zara hala sentitzen.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/barakaldo>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14977-arratsaldeko-saioa-bakarka-maialen-lujanbio>

**Miren Amuriza, Aitor Mendiluze** (Durango)

Pisukideak dira Miren eta Aitor. Mirenek Aitor animatu zuen tango ikastaro batean izena ematera. Orain, etxean tarte bat duten bakoitzean entseatu nahi duela esaten dio Aitorrek Mireni.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/durango>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14836-zortziko-txikia-miren-amuriza-eta-aitor-mendiluze-btn17>

**Aitor Sarriegi, Alaia Martin** (Iruñea)

Aitorrek barazki biltegi bat du. Alaia gaur hasi da bertan lanean. Aitor Alaiari lantegia erakusten ari dela, hozkailu gelara sartu dira. Alaiak atea itxi du, eta kanpotik bakarrik ireki daiteke.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/irunea>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14906-zortziko-txikia-aitor-sarriegi-eta-alaia-martin-btn17>

**Miren Amuriza** (Zalla)

Jendea harri eta zur utziko lukeen argazkia atera berri duzu. Zalantzan zaude gorde ala zabaldu.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/zalla>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14713-kartzela-miren-amuriza>

**Maialen Lujanbio** (Irun)

Dena ondo zihuan, argia piztu den arte.

Gaia: <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/saioak/irun>

Bertsoaldia: <https://bertsoa.eus/bertsoak/14800-kartzela-maialen-lujanbio-btn17>

*Doinua: Eguzkiak urtzen du han goian*

Gaiak generotik desberdintzen  
Direnez betitik, berez  
Gauza ainitz erran daitezke bainan  
Gauza bera ainitzek ez  
Feminismoaz, indarkeriaz,  
Zein bikote harremanez  
Plazan kantari agertzen diren  
Emakumeak girenez  
Hau salatzea zein ixiltzea  
Guri al datorkigu legez ?  
Bertso soil batzuk txalotzen dira  
Begirunez ta ohorez  
Aldarri zonbait taula gainean  
Janzten baditugu morez  
Erantzun bera nekez lortzen da  
Jardun ezkeru umorez

**Nahia Sasco Etxeberri**





# Irribarre erditik irribarre osora. Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik

*Ane Labaka Mayo*

«Emakumeari edo edozein pertsonari egin dakioken anputazio gordinena, umorea, barrea ukatzea da. Berarekin, berataz, beretzako... eta deklinabideko kasu guztietan, ezin barrerik ere egina. Algara, irria, zirika, ukapen latzegiak dira. Gaixotasun larria gizarte itxuraz osasuntsu baterako. Irribarre erdia baino ez dakigu egiten».

Lujanbio, 2003

## **SARRERA**

Emakume feminista eta bertsolaria, bertso-eskoletako irakaslea eta Bertsozale Elkarteko proiektu ezberdinetako hezitzailea izaki, hasieratik izan nuen argi nire ikergaiak bertsolaritza eta genero-ikuspegia uztartuko zituela nahitaez<sup>1</sup>. Uztarketa horretaz zihardutenei adituta ohartu nintzen bazela gai zehatz bat askotan garrantzitsutzat aipatu arren sakontasun handiagoz lantzen ez zena; umorea, hain zuzen ere. Ordurako, hainbat galdera zebiltzan emakume bertsolarien ahotan: Emakume bertsolariok ba al dakigu umorea egiten? Ba al dugu graziaz? Bertso otorduetan umorearekin lotutako tartekak sortzean zergatik ekiditen dugu publikoko emakumeei buruz kantatzea? ...

Galdera horietatik tiraka, ikerketa-objektua bi norabidetan funtsatu nuen. Batetik, genero-sistemak umorearen garapenean duen eragina ikertzeko eta, bestetik, umorearen beraren erabilera genero-sistemaren eragin horrekiko erresistentzia edo transgresiorako bide bezala.

Metodologiari dagokionez, hiru ikerketa-teknika baliatu ditut bi ikerlanetan<sup>2</sup> zehar. Lehenengoan, hamaika elkarrizketa sakon eta pasarte autoetnografikoak tartekatuta ditut. Hasteko eta behin, umorearekin lotura duten bertso-mundutik

---

1. Orriotan esango ditudanak, beraz, ezagutza kokatuaren ikuspegitik irakurri behar dira (Haraway, 1991).

2. *Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik* (2017) eta *2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik* (2018).

kanpoko zenbait emakume elkarrizketatu ditut: Beatriz Egizabal ipuin-kontalari eta klowna, Idoia Torregarai umoregilea, Aitziber Garmendia aktorea eta Irantzu Varela ekintzaile feminista. Gainera, belaunaldi ezberdinetako emakume bertsolariekin ere mintzatu naiz: Alaiia Martin, Uxue Alberdi, Nerea Elustondo, Onintza Enbeita, Ainhoa Agirreazaldegia, Amaia Agirre eta Maialen Lujanbio.

Autoetnografiari dagokionez, Mari Luz Estebanek (2004) norberaren esperientzia dimentsio kultural batera iristeko bitarteko bezala baliatzea defendatzen du. Hau da, bestea ulertzeko orduan norberarengandik abiatzeak duen komenigarritasuna aldarrikatzen du, batez ere, antzerako bizipenak izandako kasuetan<sup>3</sup>.

Bigarren ikerlanean, aurrez zedarritutako oinarri teorikotik pauso bat haratago eman eta praktikara egin nahi izan dut jauzi, horretarako 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia baliatuz. Horrela, berriro ere sei elkarrizketa mamitsu egiteaz gain<sup>4</sup>, txapelketako bertsoaldien gaineko kasu-azterketa ere gehitu diot ikerlanari.

Bi motatako bertsoaldiak barneratu ditut nire aukeraketan: txapelketan zehar nolabaiteko tentsioa (zeresana, eztabaida...) sortu eta arretagune bihurtu direnak, batetik, eta, bestetik, kanpora begira zeresan handirik eman ez duten arren, nire analisirako interesgarriak begitandu zaizkidanak.

### **UMORE-SISTEMAZ BI HITZ**

«Umoreak ia beti egiten du boterearen alde. Hegemoniaren alde. Beti “bestearen” kontra. Oso maiz, goitik behera».

Agirre, 2017

Uxoia Anduaga soziologoaren arabera, «inguru sozialaren ezaugarriekiko sentikorra izanik, umorea azalduko duten definizioek nahitaez kontuan hartu beharko lukete haren aldagarritasuna» (Anduaga, 2016: 152). Horregatik, ikerlariak umorea mediazio-prozesu gisa aztertzea proposatzen du.

---

3. Honako pasartea ekarri nahi izan dut orriotara autoetnografiaren lagin modura: «Eta nerabe hark garatu zuen bertsotan inkontzienteki bere egunerokotasunean horrenbesterainokoa ez zen dramatismorako joera. Gogokoenen zerrendan sartu zituen doinurik solemneenak, tristenak, pausatuenak... Irakurri zuen poesia, azpimarratu zituen liburueta esaldi pisuzkoenak eta pixkanaka pixkanaka trebatu zen “arrazoi potologintza”-n. Nerabe hura ez zen ohartu, ordea, horretan trebatu ahala beste zenbait betso-modu alboratzen ari zenik. Eta ia nahigabe hasi zen ulertzen bertso-eskolako mutilek hain ondo burutzen zituzten zirtoarekin, azkartasunarekin eta umorearekin lotutako ariketak (zortziko txikikoak, kopletaoak, puntu erantzunak...) agian ez zegozkiola berari».

4. Kasu honetan Andoni Egaña eta Uxue Alberdi (bertsolari eta txapelketa komunikabide ezberdinetan mintzagai izan duten aditu bezala); Nerea Ibarzabal, Aitor Sarriegi eta Sustrai Colina (parte-hartzaile moduan) eta Maite Berriozabal (gai-jartzailea) izan ditut solaskide.

## **UMOREA MEDIAZIO-PROZESU GISA**

Anduagarentzat, umoreari bi ezaugarri nagusi esleitu dakizkioke, praktika sozial bezala ulertua den heinean. Alde batetik, umorea errealitate sozialari atxikia dagoen fenomeno denez, testuinguruaren baldintza eta ezaugarrien arabera aldakorra izatea; inguru sozialak umorean eragina duela ulertuz, baina baita alderantziz ere, errealitate sozialaren parte den neurrian, umorea gauzatu ahala, errealitate hori (ber)eraiki edo osatzeko gaitasuna duela. Eta, bigarrenik, umorea praktika ere badela kontuan izan behar da eta, ondorioz, suerta dadin, umorea gauzatzea beharrezkoa dela, subjektuen arteko interakzio-jardueraren ondorioa baita.

Laburbilduz, «umoreak errealitate sozialaren baitan gauzatzen diren interakzio dinamikoz osatua dagoen eraldaketa ziklo jarraitu bezala jokutzen du» (*ibid.*: 153).

Gainera, interakzio edo negoziaketa horretan eragin zuzena dute parte hartzen duten agente desberdinen arteko botere-harremanek. Izan ere, «mediazioa botere posizioetatik gizarte osora zabaltzen den errealitate konkretu baten eraketa homogeen eta aldibereko bat sortzeko modua litzateke, eta ondorioz, baita errealitate sozial hegemonikoaren ezarpena bideratzekoa ere» (*ibid.*: 160).

Beraz, mediazioa (komunikazio) interakzio sinbolikoaren bidezko errealitate sozialaren (bir)produktzioarako abagunea eskaintzen duen prozesutzat ulertzea proposatzen du Anduagak; bai eta ezaugarri horiei erantzunez, umore-prozesuek euskal nazioaren eraketarako mediazio bezala funtzionatzen dutela ere.

Anduagaren arabera, mediazioak eta umore-prozesuek performatzeko gaitasuna konpartitzen dute, harreman komunikatiboan informazioa transmititzeaz gainera, errealitate soziala (bir)produzitzeko gaitasuna ere badutelako. Fenomeno diskurtsibo moduan funtzionatzen duten heinean, aipatu eta ukitzen dituzten errealitate horietan (eta sinergikoki beste batzuetan ere bai) eragina izateko gaitasun politikoa (performatiboa) izango dute.

Nire ikerketa-objektura itzuliz, umoreak nazioaren eraketarako balio duen bezala, genero-sistemaren baitako botere-harremanen eta estereotipoen eraketarako ere balio duela defendatzen saiatuko naiz.

## **UMOREAREN NORANZKOAK**

«Umoreak taldea mugatzen du, barreak markatzen baitu nor den taldekidea eta nor ez».

Mintegi, 2017

Botere-harremani erreparatuz, umorea hiru talaietatik (behintzat) egin daiteke: goitik behera, behetik gora eta parez pare.

## ***Goitik behera***

Miren Artetxe bertsolari eta ikerlariak bikain agertzen ditu umorearen noranzko honi buruzkoak:

Umoreak umore izateko, igorlearen eta hartzailearen mundu ikuskera partekatua behar omen du. Gutasun bat, bestetasun batek definitua. Gu ez-ezjakinak. Gu ez-emakumeak. Gu ezbaserritarrak. Ez-homosexualak. Ez-ijitoak. Eta jakinik ez dagoela umore neutrorik, testuinguruaren baitan zein guk zein besteri egiten dion barre, horren arabera izango da umorea subertsiboa edo *statu quoaren* aldekoa, zapaltzailea ala askatzailea.

Ez gaitezen engaina, ordea. Beltzek izango dituzte zuriei buruzko txisteak, baina, ezin esan txiste horiek arrazistak direnik, ez dutelako atzean mendetako egiturazko zapalkuntza historia bat. Besterik da beltz talde batean dagoen zuria deseroso sentitu daitekeela txiste horien osteko barre-argaren artean (Artetxe, 2017: 01).

Iñigo Aranbarrik ere bide beretik jarraitzen du:

Horregatik dator hiperreko umore hau goitik behera, horregatik da hierarkizatua, ezinago bertikala. Eta horrexegatik, hain zuzen, dute horrenbesteko arrakasta gehiengo onartutik bazter geratzen diren kolektibo horiei guztiei buruzko txisteek, eta berdin da *borono* ezjakin izan, marikoi lumadun zein *machu pichu* metro erdiko. Izan ere, jendartean mendeetan mamitutako egituren errailetan dabil umorea, ezagunak zaizkion txokoetan egiten du habia, han espero du txaloa eta algara. Hala, *performancean* parte hartuko duten guztiek ongi ezagutzen dute aldamia, hasierako eta amaierako posizioak ondo markatuak daude, legeak zein diren azaldu beharrik ez dago. Eta nola ez, hizkera markatuak erabileraren bermea du. Esan gabe doa, errepikatuaren errepikatuaz, umorearen bidez finkatu egiten da norberaren posizioa piramidean, barre onartuaren bidez itxura ematen zaio eguneroko egiturari, sendotu egiten dira jendartearen zimentuak. Bai, bere itxura arau-hauslean, pentsatu aldean asko du erritutik umoreak (Aranbarri, 2017: 21).

Maialen Lujanbiok ere umorea boterea dela azpimarratu zidan berari egindako elkarrizketan<sup>5</sup>:

Umorea sarri egiten denez batetik, kodigo konpartitu batean edo kodigoa konpartitzen duen gizatalde batean. Bestetik, askotan beste giza talde bati buruz eta askotan zapalduago marjinalago edo desberdina den gizatalde bati egiten den momentutik jada botere-harreman bat ere badago umorearen erabileran.

Amaia Agirre elkarrizketatuak gaineratzen du bertsolaritzan historikoki beti garatu izan dela goitik beherako umorea.

---

5. Erreferentziarik ez daramaten aipuak neuk burututako elkarrizketetatik hartuak dira, aurrez izendatutako bi ikerlanetan aurki daitezkeenak.

### ***Behetik gora***

Unai Iturriaga bertsolariak honakoa dio umorearen noranzko posible honi buruz:

Zapalduak zapaltzaileaz umorea egiten duenean eta zapaltzaileak zapalduaz egiten duenean, kasu beraren bi bertsiori buruz ari al gara? Ezezkoan nago. Zapaldua zapaltzaileaz ari denean bere komunitateari ari zaio gehienetan. Labana izan nahi du baina ukendua da, batez ere, umore hori. Zapaltzaileak zapalduarekiko darabilena mailua da, bere hegemonia indartzeko darabilen zartailu bat gehiago (Iturriaga, 2017: 46).

Aranberriren arabera, umore klasista, arrazista eta matxista egitea ez da batere zaila:

Mendeetako entrenamendua dugu, gizarte finkatu baten egituretan hazten da, eta bitartekoetara heltzen garen neurrian, bera da seinale jakiteko badugula norbait gu baino beherago, hondorago, lokatzago haren lepotik uxatzeko tristura zirin hau. Eta hor dago hain zuzen ere galdera. Hau da, zer umore klase egin liteke goitik behera erabiltzen diren mekanismo horien gaitzetan erori gabe? Europako herri literatura guztia dago jende xehearen mendeku txikiz josia. Literatura pikareskatik ahozko hamaika kontaketatara, nonahi ditugu zirtotxoak, sistema antolatua osatu gabe gehiago direnak mundu ikuskera baten adierazle alternatiba sendoa baino (Aranberri, 2017: 21).

Irantzu Varela ekintzaile feministaren arabera gizon zuri heterosexuala ez beste guztia burlarako objektu izan da:

Oso markatuta zegoen: gizon zuri heterosexuala zen barre egiten zuena. Eta zeinetaz egiten zuen barre? Gainerako guztietaz. Hain zuzen ere horregatik uste dut umorea arma bat dela. Virginia Imazek dio emakume batek umorea egitea oso transgresorea dela eta, nire ustez, emakume batek bere buruari buruzko umorea egitea are transgresoreagoa da. Nik uste dut azkenaldian hau ulertu dugula, emakumeok orokorrean eta modu partikularrean feministok. Gure egoerari buruz barre egitea oso transgresorea da ikusarazi egiten dugulako [...].

Hain zuzen ere horregatik, beti izan garelako txistea. Eta orduan orain guk egiten dugu barre, guk egiten ditugu txistek eta txistek aldatu egiten dira halabeharrez [...].

Nik zuri buruzko txistek egiten baditut, gutako bat ez zarelako da. Orduan lodiei, *bollerei*, itsusiei eta tuntunei buruzko txistek egiten dira. Eta putei buruzkoak. Ama eta andre onak diren eta edertasun kanonak betetzen dituzten bioemakume zisgenero heterosexualai buruz ez dira txistek egiten. Horiek gustuko ditugulako. Disfuntzionala den guztiari buruz egiten dira txistek. Hori dela eta, zuk funtzionala denari buruzko txistek egitea oso barregarria da eta oso apurtzailea, bat-batean margenetara bidaltzen dituzulako.

### *Parez pare*

Donna Goldsteinen lana (2003 in Anduaga, 2016) har dezakegu umorearen norabide honen erakusgarritzat. Autoreak Brasilgo auzo txiroetako emakumeen umorea aztertzeko egindako etnografian haien egoera prekario eta menderakuntzakoaz barre egiten dutela erakusten du, horrek emakumeen artean kontzientzia politiko bat partekatzen eta kolektiboki indartzen laguntzen duela ohartaraziz.

Nork bere buruaz eginiko umorea praktikatzeko beharrezkoa da parekideen arteko harreman bat egotea, egoera edo posizio berekoak izateak bermatzen baitu askatasunez edo lasaitasunez jardutea.

Uxue Alberdientzat ere umorea egiteko seguru egon behar duzu:

Oso desberdina da umorea egitea seguru sentitzen zaren guneetan, aurrez baiezkoa edo onarpena sentitzen duzun guneetan eta neurtua izango ez zarela sentitzen duzun guneetan. Umorea egiten duzunean ari zara gauza asko esaten, ari zara zure iritzia ematen, ari zara zure ahuluneak erakusten, zerk egiten dizun mina, zerk haserretzen zaituen. Hori dena agerian lagatzen duzu. Biluztea da umorea egitea.

Nerea Ibarzabalek, bide beretik jarraitzen du, norbere buruari barre egitearen interesgarritasuna aldarrikatuz:

Umorea da —askotan izan ahal da— zure ahulgunea ezkutatzeko *fuerte* agertu, edo zure ahulgunea erakutsi eta *fuerte* agertu. Niretzako askoz ere interesanteagoa da zure ahulgunea erakutsi eta *fuerte* agertzea. Baina horrek aurretiko ahalduntze bat eskatzen du [...].

Historikoki ahulenari egin izan zaio barre, baina *interesanteago* da askoz ere zure buruaren gainean egitea. Eta zu sentitu momentu batean *erridikulu* eta jendea identifikatuta sentitzea, eurak ere badirelako hori. Niretzako hori da. Baina, prozesu luze bat eskatzen du, zeren zu konturatu behar zara eta zuk eduki behar duzu aski segurtasun zeure buruari barre egitera heltzeko.

### **GENERO-SISTEMAREN ETA UMORE-SISTEMAREN GURUTZAKETA BERTSOLARITZAREN BAITAN**

Iratxe Retolazak (2017) gogorarazi bezala, generoa<sup>6</sup>, kontzeptu analitiko bezala, erlazionala, historikoa eta lekuan lekukoa izateaz gain, esparruan esparrukoa ere bada. Espazio berezitu bakoitzak bere genero-arauak ditu eta bertsolaritzak ere baditu bereak.

Jone Miren Hernándezek (2016) ohartarazi bezala, gizartearen isla dugu bertsolaritza eta, halabeharrez, gizarteak bezalaxe, genero-sistema du antolaketaren erdigunean. Bertsolaritzan emakumeen ibilbidean agertutako mugez eta oztopoez ari

---

6. Genero-sistemaz ari garenean, boterearen banaketa ez parekide baizik hirerarkikoaz ari garela ulertzen dugu.

dela, horietako asko gizarte-egituraren azterketatik identifikatu badaitezke ere, beste batzuk jardueraren beraren izaera eta logikatik soilik uler daitezkeela azpimarratzen du antropologoak.

### ***Bertsolaritzaren transmisioa: tradizioaren pisua eta publikoaren eragina***

Nabarmena da tradizioak pisu handia duela bertsolaritzan; oholtza gainean gertatzen denak garrantzia izateaz gain, aurrez gertatu izan denak ere pisu handia izan ohi du. Bertsoen transmisioaren aldetik, interesgarria da behatzea zein bertsoaldi umoretsu gogoratzen diren, zein errepikatzen diren, zein jartzen diren eredu gisa, etab<sup>7</sup>.

Tradizioaren transmisio-lan horretan, gainera, publikoaren eragina ezin ukatuzkoa da. Publikoa gizartea da, gizartearen lagin bat behintzat, eta publikoak ere tradizioaren iturritik edan du, ikasi du, eta berak espero duenak eragin handia dauka bertso-jardunean. Bertsolariak entzulearekin negoziatu behar du une oro, eta erresistentziak eta tentsioak publikotik datoz<sup>8</sup>, neurri handi batean behintzat. Negoziaketa hori gizarteak oro har onartutako diskurtsoaren erakusgarritzat har daiteke.

Hernándezen (*ibid.*: 38) arabera ere bertso-jardunean bi ikuspegi gurutzatzen dira: batetik, bertsoa eta bertsolariarena; eta, bestetik, ikusle edo publikoarena. Biak aztertu eta ulertu beharko genituzke eta, horrekin batera, bien arteko logika; elementu horiek guztiek bertso-saioaren eraketa-prozesuan parte hartzen dutelako.

Ahozko tradizioen ikerkuntzan erreferente den John Foleyk (1991) ahozkotasunean hartzaileek izan ohi duten jarrera aktiboa azpimarratzen du eta jarrera aktibo horrek zeregin berezi bat bideratzen duela dio: testuak dituen elipsiak edo hutsuneak betetzea.

Umorearen kasuan ere jurisprudenzia moduko bat ematen dela bistakoa da. Alberdik egoki adierazten duen moduan:

Legeetan *jurisprudenzia* bat dagoen bezala aurretik eman diren epaiekin eta horrela joaten den bezala osatzen legea, umorea ere joaten da osatzen aurretik egin den umorearekin. Eta zenbait gairi buruz publikoki ez baldin bada umorerik egin, ba... oso zaila da lehenengo momentuan asmatzea ze gradutako, ze koloretako umorea egin. Termometroa jartzea ez da batere erraza ez delako aurrez probatu.

Maite Berriozabal gai-jartzailearentzat nabarmena da umorea funtzionatzen duenaren gainean eraikitzen dela. Bere hitzetan, «umorea onartuta badago, publikoa ere eroso sentitzen da. Nik uste dut umorea egiteko esparrurik erosoena dela funtzionatuko duela dakizun hori».

7. Azken bi urteetan helduen bertso-eskoletan ibili naiz umorearen eta genero-ikuspegiaren inguruko ikastaroak ematen eta aipagarria da ariketa batean burura etortzen zitzairen lehen bertsolari umoretsuaren izena idazteko eskatuta ez dela behin ere emakume bertsolari bakar baten izena atera.

8. Xalbadorri jotako txistualdia har daiteke adibidetzat.

Kontua da, Andoni Egañak dioskun moduan, azken hamarkadetako publikoaren ezaugarria dela gero eta ezpalduegoa izatea; erreferentzia ezberdinak dauzkala sektore bakoitzak eta, ondorioz, umore mota ezberdinak funtzionatu dezakeela bakoitzean.

### ***Bat-batekotasunaren inertziak***

«Hemen eta orain aldagaia hain da premiatsua, bertsoa bera eta harekin batera umorea bera ere, urjentziak baldintzatzen dituela».  
Iturriaga, 2017

Formari dagozkion muga zurrun batzuk eduki eta bat-batekotasunez (segundo gutxiren buruan) eta urjentziaz sortzen den jarduna izateak berezi bilakatzen du aztergai dugun eremua. Bat-batean eta dioguna bi aldiz pentsatzeko tarterik apenas izan gabe aritzeak leku gehiago egiten die inertziei, eta, alde horretatik ere, nabarmena da bat-bateko bertsolaritzaren interesgarritasuna, jendartearen gehien hedatutako uste eta balioen ispilu gardena izan daitekeelako.

Iturriagak bat egiten du aurrekoarekin:

Denborak eta distantziak hartara ekarrita, laburrean bertsolariak gehiago tirako dio fisikoari, begitik sartzen denari, topikoari, eraikita dagoen moldeari, horrek berarekin dakartzan arrisku guztiekin. Azken finean, topikoen eraikuntzak asko du gizartean nagusi diren balioetatik. Bizkor ibili beharrak, inprobisatzeak berarekin duen urjentziak, burutik ezpainetarako bidean berbak norberaren eraikuntzak diren arrazoiak edo ideologia lako galbaheak pasa barik jaurtitzera garamatza. Horrekin ez dut, inondik ere, neure burua zuritu nahi. Ez da gure ahotik gure baitan ez dagoen ezer aterako, bai ostera bazegoela ez zenekienik (Iturriaga, 2017: 44).

Onintza Enbeitarentzat ere bertsolaritza sormen-lan prekarioa da:

Zu zure etxean bakarrik zaudenean zure memoriak baldin badauzka hiru kaxoi, zu joan zaitezke hirugarren kaxoira. Baina bat-batean ari zarenean lehenengo kaxoira zoaz! Eta lehenengo kaxoian denok dauzkagu gutxien hausnartuta dauzkagun gauzak. Lehenengo kaxoian dauzkagu estereotipoak.

### ***Umore motak***

Aurrez ikusi dugun moduan, errealitate bakarra izanik ere, prozesua den heinean askotariko izaera, adierazpen edota funtzioak izan ditzake umoreak eta «umoreaz» baino areago «umoreez» hitz egiteko aukera sortzen da horrela, baldintza desberdinen arabera umore-prozesu desberdinak sortuko direlarik.

Umore hegemonikoa, hitzak berak dioen moduan, hegemonia elikatzen duena litzateke, normatik bertatik sortua. Aitzitik, bazterreko umore edo subertsiboaren barruan kokatzen dira behetik goranzko noranzkoan nahiz parez parekoan eraikitako umoreak, erresistentzia gisa eta batzuetan pauso bat haratago emanda transgresio gisa ere jotzen dutenak.



Azken bereizketa egitea garrantzitsua da oso. Erresistentziak aurrez zeunden lekuan kokatzen zaitu, posizio horretatik egindako defentsa litzateke. Transgresioa, aldiz, pauso bat aurrera egitea litzateke, eta pauso horrek lege, norma edo ohituren apurketa ekarriko luke berarekin. Transgresioa probokazioarekin lotuta dago nolabait.

Sustrai Colinak argi dio hegemonia zalantzan jartzen duen umore bat bilatzen duela eta bide horretan emakume bertsolariek azken hamarkadetan egindako gogoetei egiten die azpimarra:

Susmoa dut gure umorearen bidez ari garela betiketzen Euskal Herri bat, jada existitzen ez dena gainera, askotan. Denok daukagu inguruan edo norberak eduki ditu esperientzia homosexualak ez bada, haurdunaldi subrogatuak... Eta gu oraindik kantatzen heteroarau patriarkal... Ez dakit, susmoa daukat hori betiketzen ari garela [...].

Niretzat horregatik izan da bertso-munduan emakumeek egin duzuen gogoeta guzti hori kriston arnasa izan delako interpelatze bat.

Berriozabalek ere saio hegemoniko eta bazterrekoagoak bereizten ditu gai-jartzailearen ikuspegitik eta bere iritziz, «Ez da kasualitatea»<sup>9</sup> eta antzerakoetan «formatuak berak bere horretan dakar leherketa edo apurketa bat; badakit ideologikoki ere kaotikoagoa den saio bat izango dela eta askoz ere askatasun gehiago sentitzen dut».

Nerea Elustondok ere askatasun hori sentitu ohi du giro konkretu hauetan eta perfektua izan behararen pisua kentzeko aukera bezala bizi ditu:

Espero dute zuk egitea *abc*. Eta behar bada zuk *abc* ez duzu egin nahi. Egin nahi duzu *d*. Eta justu hor ez duzu askatasuna sentitzen *d* hori egiteko eta orduan gelditzen zara *tx* batean, horrela, erdibideko gauza batean. Ez alde batera ez bestera, gaizki. Hau da; ez perfektu ez gustura [...]. Beste plazetan giroak ematen dizu konfiantza eta gehiago askatzen gara. Tokiaren arabera.

Alaia Martinek, aldiz, horrela azaltzen ditu bazterreko espazio horietan izandako bizipenak:

Kontziente izatea batetik, batzuetan ahalegin bat egiten ari dela pertsona hori beste eskema batzuetatik kantatzeko. Edo gai bat jartzen diotenean masturbazioari buruz konturatzeko entzulegoko asko ere pixka bat urduri jarri dituela gaiak. Eta zu ere igual konturatu zarela kantatu duzula 50 mila aldiz baserritarra zarela eta ez dakit zer, baina masturbatzen ez zarela inoiz azaldu plazan zentzu horretan. Eta uste dut atzean gaudenok momentu horretan edo aurrean sentitzen dugula konplizitate hori, babes sentsazio hori. Ez ea nondik ateratzen den hau baizik ea zer berri dakarkien espazio berri horretatik eta terminologia berri horretatik.

9. 2007an, emakume bertsolariek elkarrekin kantatzeko zuten beharrak eta gogoak bultzatuta, «Ez da kasualitatea» izeneko bertso-saio feminista musikatuak jarri zituzten abian. Lehen saioa Mutrikun izan zen. Emakume bertsolarien arabera berebiziko garrantzia izan du formatu hau sortu eta egonkortu izanak, teorizazioaz haratago, bertsolaritzan praktika feministak barneratze orduan.

Lujanbioarentzat aldaketa nabaria da, bere ustez pixkanaka plaza estandarretara iristen ari delako:

Hori da esaten nuen kodigo konpartitu bat, testuinguru eroso bat, erortzeko eta ez dakit zer «astakeria» esateko beldurrik gabe, ez? [...] Da terminologia berri bat, umore diferente bat, beste erreferentzia batzuk. Gorputza, sexua, beste *rollo* bat. Beste parametro batzuk dira. Eta hori kristona da. Izugarri aldatzen da.

Txapeldunak harriduraz aipatzen du adibidetzat Bizkaiko Bertsolari Txapelketako 2016ko finalean Miren Amurizak eta Nerea Ibarzabalek jositako saioa. Bikotea osatzen zuten, Amuriza boliviarrak zen eta Ibarzabal lehen aldiz zihuan Amurizaren familia ezagutzera Boliviara. *Bollerak* zirela aipatu eta Ibarzabalek azken bertsoan «asko maite zaitut ta/ gora Bollivia» kantatuz borobildu zuen saioa:

*Gora Bollivia*-ren saioa, Bizkaiko final batean! Jada gaur egun ez gara harritzen baina, ez dugu perspektiba galdu behar. Hori orain dela hamar hamabost urte pentsaezina zen, ia ez Berrizko taberna batean, ez, Bizkaiko finalean hori kantatzea! Hori kantatzea, onartua izatea, txalotua eta jende guztiak barre egitea.

### **Umorearen hiztegia**

«Bai, hitzak behar ditugu bestelako umorea nahi badugu, horra abiapuntua. Hitzak zorrotasunak, sonak, graziak bere bidea egin dezan. Monsanto bahitu eta Bayerrek komertzializatu gabeko hiztegi libre bat, ezinezkoa baita beste logika batean saiatzea, barreari ziri-ziri aritzea, hasieratik bertatik bagaituzte gatibu».

Aranbarri, 2017

Ikerlari moduan, hizkuntzari erreparatu nahi izan diot, umorearen kasuan ere garrantzi berezia dutelako hitzek; hiztegiak. Izan ere, umorea nola, zein noranzkotan, egiten den aztertzeaz gain, ezinbestekoa deritzot umorea zertaz eta zer esanez egiten den ikertzeari. Hori dela eta, umorerako zein gai (eta zein ez), zein hizkera (eta zein ez), zein hitz (eta zein ez)... baliatzen diren hausnartzea premiazkoa dela iruditzen zait.

Varelaarentzat hiztegiak eraikuntzak dira eta gizon zuri heterosexualek eraikitzen dituzte. Horren erakusgarritzat elkarrizketatuek oparitutako hiru pasarte ekarri nahi izan ditut orriotara. Lehena Alberdirekin egin zuen saio baten harira Enbeitak kontatutakoa da:

Mahai batean zegoen adineko jendea, beste mahai batean gazteak. Eta bat-batean bertso saioaren erdian —ez dakit zergatik, ez naiz gogoratzen— Uxuek atera zuen mahai gainera *sakaletxesa* eta hasi ginen horretaz barrez. Eta niretzat une berezi bat izan zen. Inoiz ez nuen imajinatuko egongo nintzenik amatasunari eta gure gorputzari horrela barre egiten edo umorea egiten. Gure gorputz desberdinak, gure dekadentzia... [...] Umore handia egon zen, barre egin zuten 60 urteko gizonek, 20 urteko neskek eta han egon ziren denek, ez? Orduan egon zen zerbait denengana iritsi zena. Eta aldi berean egon zen zerbait —nik ez dakit zergatik— inoiz ez duguna erabiltzen umorea egiteko. Hor barrera batzuk apurtu genituen nahi gabe.

Lujanbiok, berriz, Markinako frontoian gertatua gogoratzen du:

Markinako frontoian, mila lagun, saio klasiko ohiturazko bat eta Miren [Amuriza] eta ni jarri gintuzten kantuan. *Polideportiboan* elkartu ginela aldageletan eta biluztu ginela eta nire titiak grabitatearen indarrarekin beheraino erori zirela eta Mirenenak berriz... Kriston grazia egin zidan. Kriston sorpresa izan zen. Plaza horretan gai hori *derrepente* biluzik bezala sentitzen zara benetan. Eta gustatu egin zitzaidan. Gainera, Mirenekin, jende horren aurrean esan nuen: Ostia earra! Hau berria da, ez dut honetaz hitz egin.

Eta gainera, sentitzen duzu zilegitasuna. Zu pertsona hori emakume hori zaren edo izan zaitezkeen aldetik, nahi duzuna esateko. Inor ez da ofendituko. Diferentea da Sebastian [Lizaso] eta Andoni [Egaña] gai horri buruz hitz egiten. Ze... izango litzateke goitik beherako harreman bat edo. Ze... nik esan dezaket nire buruagatik. Orduan da, *derrepente* terreno berri bat irabazteko, ez? Egin dezaket umorea nire buruari buruz edo balizko egoera honi buruz, ni naizena edo gu garena. Eta kristona da. Gero, emakumearen mundu —eta gainera kasu partikular hori— denontzako zerbaít bihurtzea, ez? Ze klaro! Soiltzeari buruz edo *pitopausiari* buruz —nahi baduzu— askotan hitz egin dugu baino, horri buruz lehenengo aldia zen. Eta, orduan, *derrepente* horrelako gauza bat izatea Markinako plazan mila lagun eta mundu guztiarentzat mikrofono batetik honetaz hitz egingo dugu. *Segun* ze esparrutatik begiraturata erridikuloa dirudi, baina gure munduan zeozer izan zen hori. Eta horrelako gai bat izatea gai unibertsal bat edo neutro bat; mundu guztiarentzat bat. Ba... Kristona izan zen.

Hirugarren pasartearen ere Lujanbiok berak kontatua da. Behin Andoaingo saio batean gai-jartzaileak bazkaria egiteari buruzko gai bat proposatu zien bertsolariei eta honakoa gertatu zen:

Orduan batek bazekien, besteak ez... zen lentejekin bueltaka. Pentsa zer gai tontoa! Eta konturatu nintzen... izan zen oso bisuala! Lehenengo aldiz ikusten nituen lehenengo filako emakumeak disfrutatzen algara batean! Zergatik? Beraiek zirelako espezialista handienak gai horretan. Publiko guztian *derrepente* beraiek ziren autoridade bat. Eta mikrotik ari ziren hitz egiten beraien munduaz. Beraiek inork baino gehiago kontrolatzen zuten munduaz. Kriston algarak egin zituzten [...].

Baino, esaten duzu: klaro, gizonak bizi guztia daramate horrela, algara hori egiten. Beraiek direlako protagonistak, beraiek direlako pertsonaia hori, beraien mundua delako. Orduan denbora guztian beraien mundua *erreflejatua* ikusten dute bertsotan. Eta andre hauek beraien lentejez hizketan ari garelako eta beraiek direlako nagusi horretan *derrepente* sentitzen ari dira... beraien mundua mikrotik esana, beraien bizitza *prestijiatua*, mikrotik beraiek dakiten horri buruz hizketan eta horrekin konturatu nintzen: andre hauek zenbat urtetan egon dira beraien burua aurkitu gabe mikrofonoan?

## **2017KO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIKO UMORE-TALKAK**

Aurrez aipatu bezala, burututako bigarren ikerlanaren helburua txapelketan umoreak zein pitzadura edo tentsio eragin zituen eta teoria feministatik irakurrita pitzadura edo tentsio horiek zer adieraz lezaketen ikertzea izan zen. Izan ere, nire aburuz, pitzadurak bi norabidetan jazo ziren. Batetik, litekeena da genero-sistemak markatutakoa indartzen duen umore mota gaur egun hain onartua eta txalotua ez izatea eta, kontrara, genero-sistemak markatutakoa iraultzea xede duen umoreak ere pitzadurak sor ditzake, oraindik orain ez delako (umoretzat) ulertzen.

Hipotesi nagusi gisa, azken txapelketa nagusian bazterreko umoreak esparru hegemonikoagoetara hedatzeko eta hauetan zirrikituak sortzeko saiakerak izan direla proposatu nuen.

### ***Txapelketaren garrantziaz***

Ezer baino lehen, gaur egun txapelketak duen garrantziari azpimarra egitea nahitaezkoa da. Txapelketa, zerbait bada, ariketa kolektiboa da:

Taldean konpartitzen duguna ez da ikuskizun hutsa, ez arratsalde pasa bat edo hizkuntzaren aldeko aldarria (bakarrik) [...]. Elkarrekin da. Sentimenduak, pentsamenduak eta jarrerak taldearen eraginpean daude (Akizu, 2018: 4).

Idurre Eskisabelentzat ere txapelketak funtsezko papera jokatzen du:

BECen, eta, oro har, txapelketan, erabaki dena ez da soilik nork egiten duen bertsotan ondoen. Aitzitik, hori baino askoz gehiago da: kontsentsu kultural bat ebatzi da, hizkuntz estandarrak ezartzetik balio soziokulturalak finkatzerainokoa. Laburbilduz, komunitate baten autoidentifikazio eta autoerrekonoizimendurako zumeak zeintzuk diren erabaki da (Eskisabel, 2017: 01).

Eskisabelen aburuz, ordea, adostu denak adina esaten du lortu den kontsentsuari buruz adostu ez denak. Edo gutxienez, adostasunera iritsi aurretik izan den tentsioak:

Alde batean, *twitter*ren hainbesteko arrakasta izan duen Patxi Bakallo trollaren<sup>10</sup> eta, askoz esparru zabalagoan, haren ildoan dabilzan asko eta askotarikoen inkorrektzio errebolta kokatuko nuke. Bestean, emakumezkoen kristalezko sabaiaren auzia. Eta zer diren gauzak, ezin ditut biak bereizita ikusi: hari fin eta lurpekoz bada ere, bata besteari tinko lotuta sumatzen ditut, soka beraren bi mutur. Patxibakallotarren errebolta inkorrektzioarena bainoago autentizitatearen eta esentziaren lurrinak baitakarzkit, horrek esan nahi duen guztiarekin. Autentizitateak, bertsolaritzan bezala jardun publiko guztietan, gizona, maskulinoa baitu eredu bakar, ezinbestean. Non bilatuko du emakumezkoak benetakoa, naturala? Edo gure inurritegiaren ezaugarrirei erreparatuta, non euskaldun berriak, edo ez eremu euskaldunekoak, edo hiri eremukoak? (*ibid.*: 01).

---

10. *Patxi Bakallo* trollak sareak astindu zituen txapelketa garaian bere iruzkinen bidez. *Zirtolari vs puntolari* paradigma sortu zuen, genero-ikuspegitik behatuz larria suertatzen dena, eta bertsolaritzaren tradizioaren eta berezkotasunaren alde egin zuen etengabe.

### ***Umorearen mugak txapelketan***

«Txapelketaz kanpoko ohiko plazetan duen nagusitasunarekin alderatuta, zer hausnartua eman dit txapelketako markoan umoreak izandako presentzia urriak. Esango nuke eskema zurrunegei bat eraiki dela gai-jartzaile taldeak eskatutakoaren, entzuleak espero duenaren, eta ondorioz, bertsolariak egin dezakeela sentitzen duenaren artean. Kaiola txikiegi eta kortse estuegi bat. Eta hor ez da umorea kabitzen».

Labaka, 2017b

Atal honetan eta umorearen mugei buruz ari garela, azalari dagozkion mugak eta mamiari dagozkionak bereiztea komeni da.

#### *Azalari dagozkion mugak*

Formarekin lotura duten mugei behatuz, ariketei dagokienez eta salbuespenak salbuespen, zortziko txikiko ariketara<sup>11</sup> mugatu da umorea egiteko aukera, edo zuzenago esanda, ariketa horretan nahitaezko bilakatu da umoreari leku egitea.

Nire ustez, gainera, ariketa bakoitzaren aurrean eskatzen zaion kokapenak bertsolariaren gorputzaldia aurrez modu homogeneo samarrean zehaztea dakar berarekin, doinuen aukeraketatik bertatik hasita. Ohiko plazetan askoz momentukoagoa da gaiak iradoki dienaren arabera bertsolariek hartu nahi duten enfokearen, sortu nahi duten emozioaren edo bertso moduaren aukeraketa.

Elkarrizketatuen arabera, txapelketan ia ezinezkoa da non zauden ahaztea. Alberdik honela deskribatzen du txapelketako markoa:

Nik uste Txapelketan denok sentitzen duguna dela *fortzatua* dela. Eta neurri batean guk onartzen dugun paktu horrek zilegitzen du nolabait, baino bestela niretzako da *inkluso* biolento samarra. Badaudelako ariketa konkretu batzuk umorea exijitzen denak eta gainera gaia ere kanpotik dator, gainera hiru bertsotan agortu behar da. Orduan horrek ez dizu uzten, nire ustez, umorearen osagai oso inportante bat den bat-batekotasuna edo *espontaneidadeara* sortzen.

Nik uste plazan denok goazela batez ere —esango nuke— *a priori* baita ondo pasatzera ere. Baina iruditzen zait Txapelketaren testuinguruak berez garamatzala umorearen kontrakora, hau da zurruntzera. Batere graziarik egiten ez duen testuinguru bat da.

Txapelketan ez dago denborarik eta umorea egin behar da ahal bada lehenengo puntutik. Orduan, niretzako horrek badakar makinaria behartzea eta gainera iruditzen zait plazan baino oraindik eta bortitzago edo ageriago gelditzen direla bakoitzaren posizioaren aldarnioak. Nola ia egin behar den umorea eta ia artilleria gutzia deskargatu behar

---

11. Lau puntu eta zortzi lerroko ahapaldia da. Lerro bakoitian zazpi silaba ditu eta sei bikoitian. Silaba kopurua urriagoa izatean berbaldi laburragoa eskatzen du eta maizenik temako egoera bizi eta umoretsuetan erabiltzen da.

dudan, abiatzen naiz nik ahal dudan botere kuota handienetik. Eta logikoa da. Ehun metrotan korrika egin behar baldin baduzu, ez zara hirurogeita hamabosgarrengoa esprintean hasiko. Hasiko zara lehen minutuan. Uste dut bestelako saioak askoz ere karrera luzeagoak direla.

Alberdik, gainerako saioetan behintzat, umorea bilatzen duenean gorputzaldi bat bilatzen duela kontatu digu:

Plazan jolaserako aukera dago eta txapelketan ez. Biolentzia gainera hortik dator; egiten da jolasa performatu benetan azpian jolas bat ez dagoenean, lehia dagoenean. Eta iruditzen zait plazan aldrebes dela. Plazan jolasa dago eta jolasak eduki ditzazke lehia tanta batzuk. Baina proportzioak aldatu egiten dira.

Ibarzabalek beste ideia interesgarri bat ere gehitzen dio aurrekoari:

Umoreak erritmo bakar bat baleuka moduan da<sup>12</sup> eta justu erritmo horretan ez bazara aski ona, galdu egiten duzu umorea zure modura egiteko aukera. Adibidez, puntuka, emakume asko eta askoren *handicap* eterno hori. *Derrepente* hemen egin behar dut umorea. Dauzkat bost minutu txapelketa osoan eta hemen egin behar dut!

Elkarrizketatuek kontatu bezala, doinuera bera ere muga izan daiteke zenbaitetan; oso bizia, oso kolpera bideratutakoa, errepika duena... Aitor Sarriegiren hitzetan «hiru kolpe» bilatzen dira zortziko txikiko ariketan eta Colinarentzat ere «epaitzen den marko batean eta hiruna bertsotan tiroak bilatzen ditugu, ezinbestean».

### *Mamiari dagozkion mugak*

«Umoregile feminista hauek! Suntsitu egingo dute etxera inongo hausnarketarik egin beharrik gabe itzultzen uzten zizun umore oinarritzkoa!».

Ibarzabal, 2018

Umoreari eta zentsurari buruz diharduela, Aysa Nuevek interesgarri zaizkidan honako galderak planteatzen ditu: Munduan zehar milioika pertsona historian lehen aldiz ahotsa goratzen ari dira, emakumeen, LGTB pertsonen, aniztasun funtzionala dutenen nahiz arrazializatuen iritziak entzuten ari gara lehen aldiz eta hau eskubideetan atzerantz egitea da benetan? Nola izango da ba galera bat gure pribilegio nahiz zapalkuntzen gero eta kontzienteago izatea?

Bertsolaritzaren markora ekartzeko moduko beste ideia bat ere badakar Nuevek jarraian:

Norbaitek publikoki beste norbait iraintzen duenean, parte hartzeko beharra sentitzen dugun botere dinamika bat garatzen da. Irain horrek apelatu egiten gaitu. Edo jaso duenaren bandoan gaude edo esan duenarenean. Seguru sentitzeko iraina burutu duenaren alde jartzea beharrezko zaigu, bestela, gu bihurtu gaitezkeelako bere hurrengo

12. Azkartasunarekin lotzen den arren, umorearen erritmoa pausatua ere izan daiteke berez. Aitor Mendiluzek, adibidez, nabarmenki azkarrago kantatu zuen Durangoko finalaurrekoan. Julio Sotok ere egin izan du hau, puntu-erantzunetan, besteak beste.

helburu. Eta erasotzailearekin lerratzeko modurik azkar eta zuzenena bere graziei barre egitea da (Nueve, 2018<sup>13</sup>: 01).

Bertsotan, gainera, are nabarmenago bihurtu daiteke Nuevek dioen hori, bertso bakoitzaren amaieran txalo jotzeko ohitura baitago.

Umorearen edukiaren aldetiko mugei buruz ari garela, zuzentasun politikoaz eta zentsuraz jardutea dagokigu nahitaez. Izan ere, Anduagak galdetu moduan, «zein “barne pultsiok” garamatza eduki batzuekin barrez lehertu eta beste batzuk nardagarritzat ikustera? Nolatan da zilegi kolektibo batzuen aurkako umorea egitea, beste batzuk ukiezintzat hartzen direnean?<sup>14</sup>» (Anduaga, 2017: 26).

Artetxerentzat ere «botereak erabaki du umore jakin bat iraingarria dela batzuentzat eta, beraz, onartezina denontzat» (Artetxe, 2017: 01). Eta umorea kontu pertsonal, berezko edo naturala dela pentsatzea ohikoagoa izan den arren, «botereak umorearen kontrolean inbertitzen duen esfortzua hain handia dela ikusirik, bidezkoa da pentsatzea hainbestekoa izan daitekeela umoreak duen gaitasun eraldatzailea ere» (Anduaga, 2017: 39).

Anduagaren hitzetan, ordea, bada kontuz ibili beharreko beste alderdi bat ere: «sarritan umorea “politikoki zuzena” den hori iraultzeko tresna dela saltzen digute, baina, gehienetan, “politikoki zuzena” dena zurkaizteko tresna izan ohi da» (*ibid.*: 7).

Umorearen mugak bertsolaritzaren markora egokituz, Lujanbiori egindako elkarrizketa sakoneko bi pasarte azpimarratu nahi izan ditut jarraian, gatazka nagusien erakusgarri direlakoan.

Batetik, Lujanbiorentzat «politikoki *korrektoa* denarekin ez dago umorerik» eta ondorioz, egun bizi dugun egoerak bereziki kezkatzen du hernaniarra:

Politikoki *korrektoaren* hesiek eta gure kezka etikoez oso *konfundituta* gauzkatzen garai bat dela esango nuke. Delikatua dela transgresio hori gaur egun. Askotan ideologikoki ez dakigu zenbateraino, zenbateraino bai zenbateraino ez [...]. Politikoki *korrektoa* denarekin ez dago umorerik. Umorea justu hori puskatzea da. Genero gaiekin, adibidez, zaila da umorearen pertinentzia detektatzea. Oso testuinguru erosoan edo familiarrean agian errazagoa da transgreditzea, baina jendaurrean ez da beti erraza [...].

Gaur egun iruditzen zait jendaurreko jardunetan gure *korrekzio* politikoan oso polizi gaudela jarrita denok ere. Lehen, *klaro*, umorea egin izan da edozeren bizkar. Eta, batez ere, talde baztertuenen bizkar. Orduan, hori errebisatzen hasi garenez, oso interesantea ideologikoki, baina, bestetik, umorea egiteko garaian *ostr!* kaiola estua ere bada.

13. Itzulpena nirea da.

14. Soziologoarentzat *Euskalduna naiz eta zu?* telebista-saioak, esaterako, gure artean nagusi den umore-logika iraultzea ekarri zuen: «Euskal nazioa anomaliatik atera eta normaltasunean kokatu baitzuen espainiarren inguruko umorea sortuz. Une batez “haiek” ziren arraroak, bereziak, ezaugarri desberdin eta desiragaitzak zeuzkatenak, eta “gu” euskalduna bihurtu zen normaltasun desiragarri baten eredu» (*ibid.*: 38).

Ni behintzat sentitzen naiz askotan ataka horretan: zenbateraino bai, zenbateraino ez. Horregatik kriston barne eztabaida izaten dut, neure buruan kriston katiamentua edukitzen dut hor. Eta gero baita zeinek esaten duen. Zer intenziorekin esaten duen. Zertarako. Zer testuingurutan. Horrek ere asko esan nahi du.

Bestetik, Lujanbiorentzat gai baten aurrean «ez dut hori egin nahi» erabakitzea eta espero den umorea ez erabiltzea erresistentzia modu bat da. Espero diren erreferentziak, hitzak, rolak ez erabiltzea edo, adibidez, mundu guztiak oso umorezkotzat ikusten duen egoera bat umoretik ez hartzea edo umore errazena zeneukakeen elementuen erabilerarik ez egitea. Horri erresistentzia pasiboa deritzo Lujanbiok baina hortik erresistentzia aktiborako bidea ere umoretik egin daitekeela defendatzen du. Hala ere, zaila dela onartzen du, landu egin behar dela:

Zerbait berria denean gehiago da *txokantea* umorezkoa baino. Orduan, lortu behar duzu berria izanik edo espero ez dena izanik eta gainera pixka bat jendea *inkomodatu* duena edo lotsaraziko duena izanik, hala ere umorera hurbiltzen, ez? Horrek oso fin ibili beharra eskatzen du. Guk denbora guztian onarpenarekin jokatzeko baitugu bertsoan. Eta bestela onartuko dizute transgresioa *igual* edo onartuko dizute *inkomodatu* duzula jendea [...].

Nola barre eginarazi zure elementuekin eta ez emanda dauden elementuekin? [...] Orduan, hor dago niretzat zailtasuna! Oso fin ibili behar duzu, ze haiek molestatuko dituzu, zenbait behintzat molestatuko dituzu. Mikatzarekin batera gozo pixka bat eman behar diezu zurekin jolasean segitzeko. Eta *igual* gero eta gozo gehiago. Mikatzasuna *bajatzeko* joango zaie eta onartuko dute eta azkenerako barre egingo dute.

Lujanbiok aitortzen du bide horretan berari ere elementuak falta zaizkiola askotan. Badakiela nola ez duen egin nahi, zein terminologia edo rol ez dituen erabili nahi, baina ez zailagoa dela nola egin erabakitzea:

Bale. Hori ez dut egingo. Oso ondo. Eta, zer egingo dut? Ze klaro! Ezetz esatea gauza bat da. Eta gero? Ezetz esatea eta erresistentzi hori beno... horraino ailegatzen gara baino gero horren orde, zer? Eta hori da zaila. Hor sortu egin behar da eta gainera jendea zurekin eraman behar duzu, neurri batean behintzat.

Atal honekin bukatzeko eta bertsoaldi zehatzen azterketari ekin aurretik, diskurtsoari edo bertsoen edukiari buruzko Alberdiren azken ideia bat ekarri nahi nuke orriotara:

Ikusten ditut bertsolari asko diskurtsoak benetan gorputzetik pasa gabe, hau da, pantaila pasa nahian kontraesanetatik pasa gabe eta zauririk batere gabe, txapelketan bereziki. Eta iruditzen zait feminismoan ezin dela horrela, denok daukagula gure minak, gure kontraesanak, hanka sartu dugula mila aldiz eta gainera ez dagoela egia bakar bat. Joaten zarela ertz diferenteak ikusten. Batzuetan menperatua zarela, besteetan zuk menperatzen duzula... Eta boterea zure kontra etorri daitekeela, zuk ere erabiltzen duzula.



### ***Bertsoaldi hautatuaren azterketa***

Aurretik landutako gaien erakusgarri gisa, 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko bost bertsoaldi iruzkindu nahi nituzke jarraian labur samar, aurrez esandakoen lagin moduan:

#### *1. Ibarzabalek begiak estali zituenekoa*

Txapelketan sonatua izan zen Ibarzabal eta Nahikari Gabilondok Zumaian zortziko txikian osatutako bertsoaldia, hain zuzen ere, markinarrak goxokiak lapurtzen ari zen umearen paperean begiak estalita kantatu zuena. Alberdik honako irakurketa egiten du Zumaiaiko bertsoaldiaren inguruan:

Ibarzabalek transmititzen zuen askatasun bat *Ez da kasualitatea* batean *perfektamente* izan zezakeena. Niretzako beste leku batzuetan entrenatu, probatu edo esperimentatu izanak gero ahalbideratzen dizu Txapelketako testuinguru horretara ere eramatea.

Lehen bertsoaldi honetatik azpimarratua detaile txiki bat baino ez da izango batzuentzat. Hala ere, Ibarzabalek keinu txiki horren bidez txapelketaren zurruntasunarekin, txapelketaren markoan espero zenarekin, hautsi zuela esango nuke. Zurruntasun hori, gainera, beste inon baino gehiago hautsi ohi da lehenago bazterrekotzat aipatu ditudan bertso-saioretan, bertsolarien gorputzek hain zurrun egoteari uzten diotelarik tarteka, ondokoari begira edo are ondokoari eskutik helduta, besarkatuta... kantatzen delarik.

#### *2. Iguaranek eta Artetxek doinu pausatuegi bat hautatu zutenekoa*

Oihana Iguaran eta Miren Artetxeren Durangoko zortziko txikiko bertsoaldia ere aipatu behar da txapelketara umore mota ezberdin bat ekartzeko ahaleginaren adibidetzat. Berriozabalen arabera, «Durangon egon zen ahalegin bat, baina... eurei ez zaie falta *txispa*, *txispa* publikoari falta zaio, baina, zelan hezi?».

Colinak ere bat egiten du aurrekoarekin, aipagai dugun bertsoaldiak seguru aski beste giro bat eskatzen zuela azpimarratuz, «fokoetatik hasita»:

Aukera intelijentea zen niretzat. Ez du funtzionatzen horrela. Horrek ez du esan nahi ez denik eraman behar. Nik uste eraman behar dela eta seguraski limatu beharko da handik eta hemendik funtzionatu dezan hegemonian. Baina ez dago urruti funtzionatetik.

Berriozabalentzat, Zumaiaiko aurreko adibidean bezala, bi bertsolari hauek aurretik beste eremu eta kode batzuk konpartitu izanak lagundu zuen hegemonikoagoa den txapelketako plazara saiakera hau ekartzeko orduan:

Nik uste dut zure burua ez baduzu entzun horrela inoiz, ez duzula horrela kantatzen Txapelketan. Ez diozu zure buruari *permitted topless* egitea zure herriko *plaiian*, ez duzu pasiatuko Kontxatik *toplessen* domeka eguerdi batean. Nik uste dut ahalduzte prozesu bat badagoela. Azkenean da *esposaketa* maila oso handia Txapelketa.

Zortziko txikiari «dagokion» doinuaren inguruan hausnartzeko parada ere ematen du aztergai dugun bertsoaldiak. Berriozabalen hitzak dira ondokoak:

Doinua ere aukeratu zuten<sup>15</sup>. Justu biak zeuden, niretzako egon zen oso gertu *Ez da kasualitatea* batetik edo behintzat saiakeratik. Eta hor ez zuen funtzionatu. Ez zuen funtzionatu *inkluso* Mirenenak. Eta Miren oso ondo egon zen. Esan nahi dut ez zuen funtzionatu Unai Agirrek potoloarena kantatu zuenean bezala. Ez dakit. Niretzat momentu horretan izan zen: Ai ama! Kristona ari da egiten baina ari da beste modu batera, orduan jendeak ez du... Hori doinua erabaki zutela seguruen, daukan historiagatik beste saio batzuetan eta beste plaza batzuetan.

### 3. Hozkailu batean preso geratu zirenekoa

Hirugarren bertsoaldi hau txapelketaren testuinguruan lekututako bi umore mota edo behintzat umorerako bi bideren adierazletzat har daiteke. Arestian Egañak aipatzen zuen bezala, entzuleria ezpaldu baten aurrean aritu ziren seinale. Protagonistetako batek, Sarriegik, honela kantatzen du Alaia Martinekin egindako ofizioan jazotakoa:

Gaia ere xeblebre xamarra zen. Hozkailu batean geunden biok. Eta jendea barrez hasten da. Eta jendearen % 90aren burutik oraindik pasatzen da gauza berdina. Eta gu jendea gara. Eta gure burutik ere pasatzen da. Eta bai eragin zidan esateko: bale, edozein bide bilatu behar dut hori izan ezik. Eta hori ere ez da oso bidezkoa. Autozentsura maila horretara iristea.

«Zure adineko neskek ohi duten modura...» kantatu nuen bertsoaldiaren une batean eta etorri zitzaizkidan publikotik gero bi pertsona; niri bi ikuskerak iritsi zitzaizkidan. Batek ia kargu hartu zidan: «kriston hanka sartzea egiteko puntuan egon zara!» eta besteak: «zure antzeko neskek hori duten modura... bahuena garaia! Uste genuen sartu behar zenuela behingoz gaian, ze jende guztia horren zain zegoen eta hala ere, ez zara sartu!». Eta esaten duzu, beno, denekin ez dago asmatzerik!

Alberdik ere hizpide hartzen du atal honi dagokion gaia:

Niri gogorarazten zidan Estiballes eta nire saunarena<sup>16</sup>. Klaustrofobia sortzen didaten gaiak dira. Atea itxita dauden gaitan ia klaustrofobia sortzen zait. Bestea zen beroa eta hau hotza. Bestean toallak eta hemen barazkiak.

Niretzako gai hauen arazoa da ez dagoela gairik. Esan nahi dut: ez dela erreala. Gutako inor ez da geratu sauna batean harrapatuta eta barazki *konjeladore* batean gutxiago! Orduan nola ez dagoen gairik... Gaia da itxita zaude pertsona honekin nonbait. Hori da gaia. Eta gero egongo dira adornu diferenteak, ez?

15. *Patxi Bakallo* trollak saioan bertan kritikatu zuen Twitterren doinuaren aukeraketa eta Iguarani bertso-eskolako kideek ere esan zioten ez zutela doinuarekin asmatu.

16. Pasarte hau 2009ko finalurreko batean lekutu zen, Donostiako Belodromoan. Alberdi eta Estiballes ziren koplekako saioan ofizioki aritzekoak eta orduko hartan sauna batean kokatu zituzten, atea ezin irekita. Oso bertsoaldi biolentoa da, Estiballesek Alberdirekiko hartu zuen jarrera eta kantatu zuena zirela medio. Alberdik berak aitortzen du oraindik orain ez duela eszena hura burutik kentzea lortu.

Beste gai guztietan iruditzen zait dagoela harreman erotiko bat edo, botere-harremana markatuta dago. Goiko bizilaguna/beheko bizilaguna, *kamareroa/langilea*, bakoitzak posizio bat dauka eta ez dira besterik gabe bi gorputz gure sisteman gorputzek daukaten irakurketaren menpe. *Kamarero* batek zeregin batzuk dauzka; lorezain batek zeregin batzuk dauzka; loreak erostera doan batek nahi konkretu batzuk dauzka... *dibujatuak* daudela esan nahi dut.

Iruditu zait horrelako gaiekin kontua ez dela gaia ezin da jarri zeren eraso bat egongo da. Kontua da: *eske* igual gai txarra da. Besteen aldean ez daude *dibujatuta pertsonajeak* orduan hiru bertsotara Txapelketako testuinguruan eta elkarri dardoak botatzen aritzeko aukera gutxi ematen dituen gai bat da.

#### 4. *Kamiseta arrosa baten gizontasun hegemonikoa zalantzan jarri zueneko*

Aztergai dugun Txapelketan bertsoaldi konkretu honek hautsak harrotu zituen, Bastidako saioan Jon Martin eta Agin Laburuk osatutako zortziko txikiko ariketak, hain zuzen ere. Gaia etxea margotzearen ingurukoa izan arren, Martinek bigarren bertsoan, margolariari horrenbeste denbora galaraztea justifikatu nahirik bezala, berarekin «enamoratu» zela kantatu zion Labururi. Laburuk, orduan, «hori nola esaten dek / zer dek gay edo gai? [...] Kamiseta horrekin pentsatzen nian bai<sup>17</sup>» erantzun zion. Arratsalde hartako bertsoaldirik txalotuenetako bat izan zen.

Egunean bertan sare sozialetan hasi ziren eduki homofoboagatiko lehen kritikak eta hurrengo egunetan hedabide ezberdinetako artikuluetan ere izan zuen lekua gaiak. Geroztik, bertso-munduko partaide garenok hainbat eztabaida izan ditugu honen inguruan.

Nire aburuz, argia da bertsoaldi hau maskulinitate hegemonikoaren<sup>18</sup> errepresentazioarekin lotuta dagoela, ezinbestean. Hasteko, aipagarria da, Labururen hirugarren bertsoa aipamenaren bidez bi plano nahasten direla<sup>19</sup>, batetik, bertsoaldiaren beraren gaiarena (bezeroa eta margolariarena) eta, bestetik, Jon Martin eta Agin Labururen artekoa. Laburuk Martinen kamiseta aipatuz errealitateari egiten dio erreferentzia, nolabait gizontasun hegemonikoarekin bete-betean bat egiten ez duela iradokiz. Eta aurrez esan bezala, ikusleriaren gehiengoak ideia hau gogotsu txalotzen du.

Jon Martin bertsolariaren ibilbidea ezagutzen dugunok, oro har, badakigu ez dela maskulinitate hegemonikoaren eredu nabarmenena. Ahots-tonalitatez goxoagoa da, sakonago eta poetikoago kantatu ohi du, bere bertsokera ez du beti azken kolpeetan oinarritzen... Hautsi egiten du, nolabait, gizarteko nahiz bertsolaritzako gizon

17. Jon Martinek kamiseta arrosa bat zeraman jantzita.

18. «Maskulinitate hegemonikoa normalki eta orokorki onartua den estrategia gorpuzten duena litzateke, patriarkatuko gizon boteretsuen eta emakume menpekoen arazoari zilegitasuna ematen diona» (Connell, 1979: 12).

19. Bi planoak nahastearena askotan jazo ohi da, esaterako, emakume bat eta gizon bat kantuan ari direlarik eta gaiak horretarako bide ematen ez duelarik gizona bertsolariak emakumezkoaren fisikoari, erropari, orrazkerari... erreferentzia egin eta bertsoaldira ekartzen duenean.

hegemonikoaren irudiarekin. Labururena, kontrara, bertsokera bizia da, zirtoan eta kolpean oinarritua, hegemoniatik gertuago egon daitekeena.

Nire uste apalean, bertsosaldi honetan argi markatu zuen Laburuk Martinen maskulinitatea hegemoniaz kanpoko zela. Gainera, bera heterosexualitatean kokatuta homosexuala izan zitekeenari, menderatu edo marjinetuari<sup>20</sup>, egin zion barre. Ohikoa den moduan, gainera, homosexualitatearena iradokitzekeo gizartearen roletan ustez emakumezkoena izan daitekeen elementu bat baliatu zuen; kolore arrosa.

Aurrez aipatu bezala, egia da bertsotan ari garenean bat-batean ari garela eta bat-batekoa sormen-lan prekarioa dela. Baina, hala ere, aipagarria eta aldi berean susmagarria zait bertsosaldi honen osteko polemikan gizonezko bertsolarien artean sortutako konplizitatea<sup>21</sup>. Laburuk kantatua justifikatzeko nahia hedatu zen gizonezko bertsolarien artean, bere uste eta aurreiritzietatik kanpo margolari matxista estereotipatu bat irudikatzen ari zela argudiatu nahi izateraino.

Hitz gutxitan, bertsolari hegemonikoa gizonezko zisgeneroa, zuria, klase ertainekoa, gaztea eta heterosexuala da. Plazaz plazako jardunari behatzea baino ez dago hori baieztatzeko.

##### 5. *Bi neska gaztek puntuka inongo graziaz egin ez zutenekoa*

Atal hau osatzeko Alaia Martinen eta Miren Amurizaren Iruñeko puntukako bertsosaldia aletzea dagokigu jarraian. Berriozabal izan da bere berbaldira saio zehatz honen aipamena ekarri duena:

Buffetaren gaian, adibidez, bi gizon pisuz gora doazenek egiten dute kriston grazia loditasunaren inguruan txiste txarrak egiten (ez zirelako oso onak) eta Miren eta Alaia direnez argalak, guapak eta emakumeak ez dute egiten graziaz eginen gauza bera egiten.

Orduan esaten duzu: hor muga ez da umorea bakarrik hor muga haratago doan beste gauza bat da. Kasu horretan niretzako ez zaio umoreari mugarik ipini behar, ez? Ze, ez da honek txarto egin du. Ez da hori. Niretzako da hor zer pasatzen den.

Berriozabalen hitzek umorerako zilegitasunaren auzia aipatzera garamatzate ezinbestean:

Bi neska gazte aipatzen zer jan zuten eta nola *arrasatu* zuten, inongo graziaz eginen. Eta saio berean Sarriegi eta Agirrek egin zuten anorexiarena<sup>22</sup>. Beraiek biak jarritz gero bertso igualekin, zer? Beti esaten duguna, zeinek daukan legitimitatea eta zeinek ez.

20. Zapalkuntzak maskulinitate homosexualak gizonen arteko hierarkiaren geruzarik baxuenean kokatzen ditu, eta zenbait teoriko homosexualen arabera, maskulinitate hegemonikoaren ikuspuntutik homosexualitate feminitatearekin lotzen da (*ibid.*: 13).

21. Connellentzat hegemonia, menderakuntza eta konplizitatea genero-ordenamenduaren barruko erlazioak dira (*ibid.*: 15).

22. Iruñean Sarriegi eta Agirrek anorexiari buruzko gaia umorez hartu zutenekoa. Sarriegik kontatzen duenez, elkarrekin komentatu eta aurrez hala erabakita. Batzuentzat mingarria izan zen hautu hau, publikoaren artean arazo hori zeukan pertsona bat baino gehiago egon zitekeelako.

Aipagarria da Unai Agirreri beste ofizio batean Oihana Iguaranekin kantatzea egokitu zitzaiola eta hor ere gizon «lodi» edo «jaton ona»ren kartarekin jokatu zuela. Alberdik argi diosku zergatik funtzionatzen duen batzuen kasuan besteenean funtzionatzen ez duenak:

Azkenean gizaratean ere baimentzen zaiolako adin horretako gizon bati tripa edukitzea eta lodi egotea, *graziosoa* delako. Eta emakume bati ez. Ia umorea egiteko ere diferente jasotzen da. Batean ari zara onartzen den zerbaiti buruz eta bestean gaizki ikusia dagoen zerbaiti buruz.

Batetik hori, bestetik delako umore bat sozializatuta dagoena eta kode konpartitu bat daukana. Bestetik, ez bakarrik lodi egotea, bata da gaiak esaten duen gorputz horretan sartzea baina beste gauza bat da *inkorrektu* izatea. Berdin du zer gairi buruz. *Golfa*, *inkorrektu*, jadona... Falta zaizkigu erreferenteak eta gainera ez dago ondo ikusita eta emakumea gehi adjektibo itsusi bat. Ez du grazia egiten ez.

### **EMAN DEZAGUN UMORE!**

«Nire ustez umorerik onena egiten duen jendea honakoa da: zerbait esan eta piska bat erresumintzen zaituena baina erasotzen ez zaituena».  
Varela, 2018

Espazio-mugengatik artikulu honetatik kanpo utzi behar izan ditut ikerlanetan iruzkindutako eta tentsiogune izandako beste zenbait bertsoaldi. Hala ere, zerrendatu ditudanak bertsolaritzan egun gertatzen ari diren umore-talken erakusgarri izan daitezkeela iruditzen zait eta, Alberdik bezalaxe, aberasgarritzat jotzen dut txapelketa den eremu «aseptiko eta garbian» tentsioa sortu duten kasuak egon izana:

Nik nahiago dut hori, ni txapelketan horrelako gauzak kantatzearen aldekoa naiz. Gero hortaz pentsatzeko eta hitz egiteko, inor *kruzifikatu* gabe. Momentu batean *cabeza de turco* bat ondo etortzen da eta hau bai eta besteok libre. Eta horren aldekoa ez naiz. Iruditzen zait opa behar diogula elkarri hanka sartzeko aukera eta libertatea ze bestela, egingo dugu diskurtso perfektua baina denok egongo gara elkarrekin haserre eta gure buruaren barruan beldurtuta. Nik ez dut nahi horrelako bertsolaririk. Plaza askoz zikinagoa da.

Alberdiri iruditzen zaio batzuek ezin dutela imajinatu ere egin txapelketatik kanpoko giro feministetan umorea noraino joan daitekeen. Nik ere bat egiten dut berarekin, emakume bertsolari asko ohartu gara horretaz dagoeneko eta kantuan jarraituko dugu, bazterreko umorea(k) gozatu eta hegemonia zalantzan jartzeko nahiz, irribarre erditik irribarre osorako bidean.

**BIBLIOGRAFIA**

- Agirre, Lorea (2017): «Zuzendariaren hitzak», *Jakin*, 220, Tolosa, 7-8
- Akizu, Maialen (2018): «Diskurtso komunitatea. Bertsolaritzaren kasua. 2001 eta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaletako gaien azterketa», EHU, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea. Sarean: <[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/27943/TFG/GRAL\\_AkizuBidegain-M.pdf?sequence=2&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/27943/TFG/GRAL_AkizuBidegain-M.pdf?sequence=2&isAllowed=y)> (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Anduaga, Uxo (2016): *Herri barrez, umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua* (tesia), Soziologia eta Gizarte Langintza Saila, EHU.
- , (2017): «Umorearen sarrailez eta giltzez», *Jakin*, 220, Tolosa, 25-40.
- Aranbarri, Iñigo (2017): «Umorearen zimurrak», *Jakin*, 220, Tolosa, 11-23.
- Artetxe, Miren (2017): «Umore eman gabe», *Argia*. Sarean: <http://www.argia.eus/argia-astekaria/2546/umore-eman-gabe> (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Connel, Robert William (1997): «La organización social de la masculinidad», in Teresa Valdés eta José Olavarria (ed.), *Masculinidades, Poder y Crisis*, ISIS-FLACSO, Santiago, Txile.
- Eskisabel, Idurre (2017): «Txapelketa, gure inurritegi hori», *Berria*. Sarean: <[https://www.berria.eus/paperekoa/1955/026/001/2017-12-23/txapelketa\\_gure\\_inurritegi\\_hori.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1955/026/001/2017-12-23/txapelketa_gure_inurritegi_hori.htm)>, (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Esteban, Mari Luz (2004): «Antropología encarnada. Antropología desde una misma», *Papeles del CEIC*.
- Foley, John (1991): *Inmanent Art*, Indiana University Press, Bloomington/Indianapolis.
- Haraway, Donna (1991): «Conocimientos situados: la cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial», *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, 313-346.
- Hernández, Jone Miren (2016): «Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoetarako bizitoki», in M.L. Esteban eta J.M. Hernández, *Etnografía feminista Euskal Herrian, XXI. mendera begira dagoen antropologia*, EHU-UEU.
- Ibarzabal, Nerea (2018): «Zenbat», *Berria*. Sarean: <<https://www.berria.eus/paperekoa/2048/016/002/2018-08-26/zenbat.htm>> (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Iturriaga, Unai (2017): «Zenbait ohar umorearen gainean», *Jakin*, 220, Tolosa, 41-48
- Labaka, Ane (2017a): «Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik», EHU, Master Amaierako Lana, Gizarte Antropologia masterra [argitaratu gabea].
- , (2017b): «Txapelketaren barregrafia (posible) bat». Sarean: <<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolari-txapelketa-nagusia/albistek/txapelketaren-barregrafia-posible-bat>> (Azken kontsulta: 2019-03-01).

- , (2018): «2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko umorea aztergai, genero-ikuspegitik», EHU, Master Amaierako Lana, Ikasketa Feministak eta Generokoak masterra [argitaratu gabea].
- Lujanbio, Maialen (2003): «Irrifar erdia», *Argia*. Sarean: <<https://www.argia.eus/argia-astekaria/1912/irrifar-erdia>> (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Mintegi, Laura (2017): «Umoreak ez die graziaz egiten», *Jakin*, 220, Tolosa, 50-65.
- Nueve, Aysa (2018): «Otra vez los límites del humor», *El Salto*, Tribuna. Sarean: <<https://www.elsaltodiario.com/tribuna/otra-vez-los-limites-del-humor>> (Azken kontsulta: 2019-03-01).
- Retolaza, Iratxe (2017): «Genero Ikerketetatik Literatur Teoria Feministara» hitzaldia, «Euskal Literatur Kritika eta Genero Ikerketak» ikastaroa, UEU, Eibar.





### III. Desautorizazio(eta)tik ahalduntze kolektibo(eta)ra



*Doinua: Izarren hautsa*

Sustraiak nekez argitzen ditu  
fokoaren errainuak  
Mikrofonotik entzun-ezinak  
zaizkigu infrasoinuak  
Baina aztertuz gero eskema:  
lehia, epaiak, gutxiespena,  
porrotaren engainuak...  
Bertsoa ez dute mugatzen soilik  
metrikak eta doinuak  
Patriarkalak dira egungo  
oholtzaren diseinuak.  
Mekanismoak dira hogeita bi,  
erresistentzia berrien kabi  
ta iraultza baten kimuak:  
Konplizitate keinuak.

**Sarai Robles Vitas**



# Bertsoraino (*Kontrako eztarritik*<sup>1</sup> lanaren alderdi teorikoa)

*Uxue Alberdi Estibaritz*

## **SARRERA**

«Nola iritsi bertsora emakume gorputzetik?»  
(Itziar Okariz)

«Nola iritsi bertsora emakume<sup>2</sup> gorputzetik?», galdetu zidan Itziar Okarizek duela bost urte inguru auto-gidari desorientatuaren aurpegiarekin. Kosta egin zitzaidan erreakzionatzea. Galderak, Suedian bizi nintzenean amonak egin zidan beste bat oroitarazi zidan: «Aizan, hor ere igandea al da?». Distantziaren neurria sentitzera eramán ninduten. Joan egin behar da Stockholmeraino; iritsi egin behar da, gero, bertsoraino.

Gorputz ez-autorizatuak iritsi egin behar du testuraino, eta testuak askatu egin behar du gorputza, kreaio autonomo gisa funtzionatuko badu. Horri buruz ari zen Virginia Woolf *Gela bat norberarena* enblematikoan Shakespeareren purutasunaz mintzo, haren idazkera askeaz, amorrurik, aldarririk, gorputzik gabeaz. Aldiz, madarikatu egiten zuen emakumea zela ahaztuta idatzi ezina, luma astindu beharra gorputz hankaperatua garraio. Distantzia hori, emakumearen eta bertsoaren artekoa zerez egina dagoen ikertzeko jakin-mina ate joka dabilkit ordutik.

Autoritateaz pentsatzen neramatzan hilabete batzuk, gogoetatzen nola eraikitzen eta deseraikitzen den bertsoaren munduan baina bertsoetik —testutik— kanpo. Entzuleek mikrofonoaren aurrean ikusten duten gorputza, entzuten duten ahotsa non dagoen neurtu nahian, non autopertzepzioz, non besteen begietara, non beste gorputzekiko erlazioan. Zenbateraino dagoen hurbil adostutako sinesgarritasunetik, taxutik, kalitatetik, graziatik, purutasunetik. Zenbateraino den Shakespeare, zenbateraino Woolf. Zein diren bertsolariak autoritatez janzteko eta erantzeko martxan dauden mekanismoak. Nola eragiten duen sexu-generoaren

---

1. Alberdi, Uxue (2019): *Kontrako eztarritik*, Lisipe, Susa, Zarautz.

2. «Emakume» eta «gizon» terminoak zentzu sozialean erabiliko ditut, gu guztiok emakume eta gizon izendatuak eta irakurriak garen neurrian. Komatxoak, izartxoak eta zirrimarrak irakurlearen esku.

sistemak horretan. Nola gertatzen den edo ez den gertatzen autoritate-transferentzia belaunaldien artean, kolegen artean, gizonen eta emakumeen artean. Zertarako autorizatua dagoen bertsolari bakoitza une, plaza, ariketa bakoitzean. Leku berean egonagatik posizio diferentzetan dauden gorputzek habitatzen bertso-saioak.

Emakume bertsolarienak gorputz publikoak dira —begiratuak, epaituak, esanguratsuak— eta haien errepresentazioa etengabeko negoziazio semiotikoaren emaitza da. Askotarikoak izan arren —neurritz, estiloz, esanguraz—, emakume bertsolarien gorputzek *emakume-gorputz* generikoarekin dialogatzen dute (haren historiarekin eta etorkizunarekin) inguruko gorputz errealekin adina. Emakume-gorputzak plazaratzeak ekarri du gorputzasuna lehen lerrora bertsolaritzan eta, gorputzari lotuta, plazera, mina, bortxa, erotika, erresistentzia... haragitzen ari dira.

Gizonek taxaturiko tradizio eta moldeetan, gizonekin batera, eta gorputz maskulinoen artean eta aldamenen sortzen dute emakume bertsolariak (sarritan, saioan gutxiengoa direla), eta ezinbestean daude haien iritzi eta balorazioekin, haien esperientziarekin, presentziarekin eta egiteko moduekin zeharkatuta. Bertsolariak ezin du, Canok amesten zuen idazlea nola, artista *abuhardillatua* izan; behartuta dago autoa, solasa, komunitatea eta errelatoa konpartitzera edo, gutxienean, negoziatzera. Egikera hori aldi berean da zailtasun eta aukera: frikzio eta entrenamendu.

«Gizonen pertzepzio eta sententzioen gatibu gara denok. Gizonen hitzen gatibu».

«Emakumeen gerrak kolore, usain, argiztapen eta espazio propioak ditu. Hitz propioak».

«Gizonek... desgogara uzten diete emakumeei beren munduan, beren territorioan sartzen».

«Gizonak beldur ziren emakumeek beste gerra bat, bestelako gerra bat kontatuko ote zuten».

Svetlana Aleksievitx-en *Gerrak ez du emakume aurpegirik* liburuaren irakurketak izan zuen eraginik emakume bertsokideen testigantzak biltzen hasteko asmoan. Urte-erdia eman nuen bertsokideak elkarrizketatzen tabernetan, terrazetan, euren etxeetako sukalde eta egongeletan, gure etxean bertan. Haien hitzak antolatzen eta entzundakoari buruz gogoetatzen aritu ostean, gaur egun plazan kantatzen duten 15 emakume bertsolarien testigantzak bildu nituen *Kontrako eztarritik lanean*. 1977koa da elkarrizketaturik zaharrena, eta hogeita bost urtetik gora daramatza plazan; 1996an jaioa da gazteena, baina dozena bat urte dira jendaurrean kantatzen duela. Badira bertsolari intermitenteak, beren jarduneko unerik batean plazan bertsotan egiteari utzi eta handik urte batzuetara itzuli direnak, beste kontzientzia eta oinarri batekin; Ainhoa Agirreazaldegi eta Miren Artetxe, kasurako. Badira, bat-batean maiztasunez aritu ostean jendaurreko bertsogintzatik erretiratu eta (oraingoz) itzuli ez diren hainbat bertsolari ere: Estitxu Arozena, Alaitz Sarasola, Estitxu Eizagirre, Leire Ostolaza, Erika Lagoma, Estitxu Fernandez, Leire Bilbao, Oihane

Enbeita... Haien testigantzak jasotzeak osatu egingo luke emakume bertsolariaren errealitatea, eta ertz berriak gehituko lizkioke argazkiari. Era berean, interesgarria litzateke hemen azaltzen diren gakoak gizonezko bertsolariek nola bizi dituzten ikertzea ere.

*Kontrako ezarrira* lanean bildutakoak ez zuen istorio bat izan nahi. Joanna Russek *Nola ezabatu emakumeen literatura* saiakeran adierazi bezala, «tresna analitiko baten zirriborroa» izan nahi luke, emakumeen bertsolaritza azpiratzeko mekanismoetan errepikatzen diren patroiak bistaratuko dituena. Horrekin batera, bertsolaritzaren definizio tradizionala zabaltzen eta osatzen lagundu nahi luke; orain arteko definizioetan ez baitira kabitzen bertsogintzaren, bertsolari-gorputzaren eta esperientziaren hainbat aspektu, emakume inprobisatzaileek azpimarratzen dituztenak.

22 patroi edo mugatze-mekanismo errepikari identifikatu eta izendatu nituen emakume bertsokideen kontakizunetan; ez dira patroi isolatuak, elkar ukitzen dutenak, gurutzatzen eta gainjartzen direnak baizik. Mekanismook, izan, ez dira emakume bertsolariei bakarrik eta bereziki eragiten dietenak: gutxi-asko eta partikularitasunak partikularitasun, azpiratze-sistema orotan errepikatzen dira. Mugatze-mekanismo horiek aletuko ditut artikulu honetan.

### ***Emakume\* bertsolarien jarduna mugatzen duten mekanismoak***

1. Akatsa barneratzea (ez funtzionatzearen sentipena)
  - 1.1. Ahots akastuna
2. Gizonen «kidetzat», ez-emakumetzat hartzea
3. Bertsolaritzaren definizio hertsatzailea
  - 3.1. Kategorizazio faltsua
4. Itxuragatik epaituak izatea
5. Merezimendu faltaren epaia
  - 5.1. Autoexijentzia suntsitzailea
6. Infantilizazioa, aitakeria, aitapontekotza
7. Desexualizazioa, deserotizazioa, desgorputzea
8. Hipersexualizazioa eta heteroaraua
9. Gizonen desiraren arabera eraikitzearen kontraesanak eta gatazkak
10. Irainak, jazarpen sexuala, bortxa
11. Biolentziaren naturalizazioa
12. Konpetentzia
  - 12.1 Autosufizientzia

13. Bazterkeria, ikusezintasuna eta gizonen arteko aliantzak
14. Eranskintzat, osagarritzat, ez-osotzat hartzea
15. Protagonismoa eta arrakasta zigortzea, autoboikota
16. Umore azpiratua
17. Gutxiespena
  - 17.1. Gutxiespen ekonomikoa (soldata arrakala?)
18. Norbere burua erreazioz eraikitzea
19. Desautorizazioa
20. Emakume-identitatearen zailtasunak
21. Feminista-identitatea: indarra eta kuestionamendua
22. «Festara gonbidatuak» eta «Gure festa»

### ***1. AKATSA BARNERATZEA (EZ FUNTZIONATZEAREN SENTIPENA)***

«Emakume intelektuala beti ahalegintzen da gizon portatzen» idatzi omen zuen Rousseauk. «Idazle onak, egiaz, gizona izan nahi luke», utzi digu Katixa Agirrek *Amek ez dute* eleberrian. Joanna Russek Chelsea Quinn Yarbro nobelagilearen hitzak jasotzen ditu *Nola ezabatu emakumeen idazketa* liburuan: «[idazteagatik] Nire feminitatea ukatzen ari nintzela esan zidan psikologoak; bekaitza niola zakil maskulinoari, eta ondo egoteko behar nuena larrua jo ziezadatela eta haurdun gelditzea zela».

Bertsolari bezala ez funtzionatzea eta emakume bezala ez funtzionatzea bi zama dira emakume bertsolarientzat, bi zama sarritan kontraesanekoak: bertsolariari baloratzen zaiona zigortzen zaio emakumeari; emakumeari baloratzen zaiona zigortzen, bertsolariari. Traba egiten diote elkarri, kontrakarrean eraikitako identitateak bailiran. Ez da kasualitatea nire ustez, bertsolarietako batek lotuta ikusten dituela bertsolari-karreraren beheraldia igartzen duen bakoitzean sentitzen duen hutsunea eta, justu une horietan, «emakumeari dagozkion zereginetan» hasteko *tentazioa* —ama izatekoa, bikote-harreman batean egonkortzekoa... —.

Testigantzetan hainbat esanahi hartzen ditu bertsolari gisa «ez funtzionatzeak»: feminitate *okerra* performatzea, erregistro, estilo eta iruditeria jakin batzuk soilik errepresentatzea, graziaz eza, arrotasuna...

#### ***1.1. Ahots akastuna***

Kantua da bertsolariaren kanala, eta gorpuztasunaren adierazpen jakin horrek, ahotsak esangura nabarmena du. Goian aipaturiko mugak ahotsen pertzepzioan eta irakurketan ere islatzen dira: ahots okerra edo mugatua dutela edo hala irakurri izan dietela aitortzen dute inprobisatzaile batzuek: desegokia, femeninoegia,



maskulinoegia, zakarregia, goxoegia, ahulegia, infantilegia, baxuegia, zalantziategia, erregistro edo ariketa batzuetan soilik baloratua... Hainbat dira euren ahotsaren mugekin —kategorizazio kanonikoak euren ahotsei ezarrirako mugekin— topo egin dutenak, izan tonuz kanpo gelditzen zirelako, tinbre desegokia egotzi zaielako, distortsioa eragin dutelako...

Arantzazu Loidik 1990ean Ordiziako bertso-jaialdian kantaturiko bertsoa eta haren ahots finak eragindako deserosotasuna aspaldiko kontutzat ditugu, gaur egun ez du inork emakume-ahotsa zuzenean bertsoarako okertzat joko, baina testigantzetan arakatuta, badago oraindik akatsera hurbiltzen den zer edo zer.

[...] baina oraindik txikia naiz da  
ahotsa daukat makala,  
haundi egitean kantatu nahi dut  
atzeko hoiek bezala.

Atzekoak gizonak ziren. Ahots-irakurketa gorputz-irakurketa da, eta gorputz autorizatuen eta ez-autorizatuen berri ematen digu. Ahots zuzenak edo ahotsa erabiltzeko modu zuzenak maskulinitate hegemonikoa edo feminitate egokia errepresentatzen dutenak lirateke eta, bigarren kasuan, egokia izanagatik mugatua litzateke, feminitate egokitik kanpo gelditzen direnez gero hainbat erregistro edo funtzio: ahots ozena, indartsua, ziurra, graziaduna... ez dira berdin baliozko emakume- eta gizon-gorputzetan.

## 2. GIZONEN «KIDEAK», EZ-EMAKUMEAK

Svetlana Aleksievitxen *Gerrak ez du emakume aurpegirik* liburuan ia ukitu egin daitezke emakume-identitatearen eraikuntzak eta deseraikuntzak; lego piezekin eginak dirudite. Gerran aritu ziren emakume errusiarrei feminitatea erantzi zieten (ez zegoen haien neurriko bota eta jantzi militarrik, ez konpresarik, ez azpiko arroparik; gizonen arropetan sartu behar izan zuten literalki eta sinbolikoki), *kidetzat* hartu zituzten, ardura-postuetan jarri, deserotizatu eta «arreatxo» deitu zieten gerrak iraun zuen bitartean. Soldaduak behar ziren eta emakumea nahitaez *igo* behar izan zuten gudari-kategoriara. Gerraostean, ordea, frontetik itzulitako gizonak gerrak zikindu gabeko emakumeak hartu zituzten emaztetzat; gudaren izugarrikeria ikusitako andreak ez zuen maitasunerako eta ume egiteko balio. Gerrak deuseztatu egiten zuen emakumea. Paradoxikoki, gerrarako balio zuenak ez zuen gerraosterako balio: emakume-identitatearen bi eraikuntza ziren, elkar ukatzen zutenak.

Angela Davis zuri bilakatu zen une batez 17 urte zituela, zapata-denda batean. Fania ahizparekin berriketan ari zen erakusleihoaren aldamenean, frantses perfektuan, eta, atzerritarrek zirelakoan, barrura sartzea gonbidatu zituen beltzik onartzen ez zen denda hartako arduradunak. Dendariak paristarrak ote ziren galdetu zienean, «hemengoak» erantzun zion Angelak, eta beltz bihurtu zen berriz.

Hainbat emakume bertsolari salbuespen sentitu izan dira. Zurituriko beltza nola, gizondutako emakumea hala. Amaia Alvarez Uriaren doktore-tesian edo Iñaki Azkuneren *Katalin Erauso* lanean 1976an moja alferrezaz nola, «beste emakumeak bezalakoak ez direla» esan izan da haiei buruz, baita «gizon indarra eta arima» dutela ere. Festara edo gerrara gonbidatuak, gizonen artekotzat hartuak, gizonen mailara *igoak*, emakumeen saldo subordinatutik *erreskatatuak*, horrek dakarren autogorrito inkontzientea garatzeko arriskuarekin.

### 3. BERTSOLARITZAREN DEFINIZIO HERTSATZAILEA

Joanna Russek emakumeen literatura suntsitzeko erabiltzen diren mekanismoez gogoetatu zuen *How to Suppress Women's Writing* saiakeran 1983an. «Begira zeri buruz idatzi duen, ulertezina da, gaizki idatzia dago, ez da behar bezain trinkoa, irregularra da, ez da interesgarria...». Autoritate maskulinoek erabakitzen dute zer den literatura eta zer ez. Zer den literatura ona eta zer literatura txarra. «Emakumeen esperientziaren devaluazio automatikoa» salatu zuen Russek, eta Phyllis Chesler-en hitzez baliatuz azaldu: «Gutxiespen horrek baimenduta, gizonek emakumeen sufrimendua ez dute ikusten sufrimendu humanoaren erakusgarri edo ordezkari posible gisa». Ezta emakumeen poza, kezka edota interesak ere. «Esperientzia femeninoa esperientzia maskulinoa baino zabaltasun, erakusgarritasun, garrantzi gutxiagokotzat jotzen da». Hala, «emakumeen esperientzia gizonezkoenaren azpikotzat, garrantzigabetzat eta mugatutzat jota, emakumeen literatura automatikoki gutxiesten da». «Zoritxarrez», baieztatzen du Erica Jong-ek, «emakume izateak definizio maskulinoak sinestea esan nahi du». Azpirakuntzaren motiboa argia da Russentzat: «Literatura bereizi egiten da esperientziatik, emakume idazleak bereizi egiten dira haien tradizioetik eta batzuk besteengandik, publikoa bereizi egiten da pribatutik, politikoa pertsonaletik, eta hori guztia kriterio absolutu jakin batzuk ezartzeko. Beltzen artea, emakumeen artea, arte txikanoa —eta gainerako arte subordinatu guztiak— beldurgarriak dira honexegatik: objektibitatearen eta kriterio absolutuen ideia bera jartzen dutelako zalantzan».

#### 3.1. Kategorizazio faltsua

Emakume sortzaileak gutxiesteko erabiltzen den beste mekanismo bat haien lana kategoria *okerrean* sailkatzea dela salatzen du Russek, kategoria *zuzenerako* sarrera ukatuz. Emakume bertsolariak definitzeko *sakonak* direla esan izan da maiz, *ikasiak* direla, diskurtso landua dutela, *interesgarritasuna* aitortu izan zaie, baina zalantzan jarri izan zaizkie *naturaltasuna*, *grazia*, *bat-batekotasuna*... Horrekin batera, *emakumeen kontuez* asko jakitea eta *sentiberatasun berezia* aitortu eta egotzi izan zaie aldi berean, unibertsaltasuna ukatuz. *Kalitate falta* edo *gorengo mailarik ez ematea* ere leporatu zitzaion zuzenean eta zeharka, *bikaintasunera* ez iristea, diskurtsoaren lanketan zentratu izana, eta *teknikari* behar adina kontu ez egitea.

#### 4. ITXURAGATIK EPAITUAK IZATEA

Emakumeen gorputzen eta kanpo-irudiaren gaineko epaia atergabea da bertso-munduan —eta handik kanpo—. Oholtzan itxuraz *diskretuak* izan nahi dutela aipatzen dute emakume bertsolari askok. Entzuleen arreta bertsora bideratu nahian traba zaie gorputza. *Diskretuak*, akaso, esan nahiko du *neutroa*, *testuala*, *bertsolaria*: alegia, *gizona*.

#### 5. MEREZIMENDU FALTAREN EPAIA

Okupatzen duten espazioa ez dagokiela barneratzea da, agian, gorputz ez-autorizatu-  
tuen lasta zamatsuenetarikoa. Plazan lubrifikatzailearekin sartu izana egotzi izan  
zaie emakume bertsolariei, diskriminazio positiboaren laguntzarik gabe ez omen  
leukakete plazan orain daukaten lekurik. Utzitako lekua omen, ez irabazia. Harkaitz  
Zubirik eta Xabier Aierdik gidaturiko *Bertsolaritzaren Azterketa Soziologikoa 2005-  
2018* ikerketak gezurtatu egin zuen uste zabaldua: emakume bertsolariak % 25 dira  
kopuruz, eta plazan % 25 okupatzen dute. Diren adina daude, dauden adina dira.  
Azken 15 urteetan ez da hazi plazan kantatzen duten emakumeen proportzioa.

##### 5.1. Autoexijentzia suntsitzailea

Sylvia Plath poetari buruz hala esan zuen Suzanne Juhasz poeta eta kritikariak:  
«Denean ona izan beharra zeukan, horrela bakarrik izan ahalko baitzuen dena:  
emakumea eta poeta». Baina Amelia Valcarcelen *akatserako eskubidearen* haritik,  
«egitea merezi duen guztiak merezi du gaizki egitea ere» gehitzen du Russek.

Zadie Smith idazleak kontatzen du beltzen amek euren seme-alabei aldarri egiten  
dietela errebaletan: «izan zaitezte bi aldiz onak!». Ez: «izan zaitezte ukaezinak!».  
Badira ukaezin sentitu arte isilik irauteko hautua egin duten bertsolariak, ohartu  
diren arte ondoegi esan nahiak zeuzkala isilik.

#### 6. INFANTILIZAZIOA, AITAKERIA, AITA PONTEKOTZA

*Aita kultural*ez idatzi zuen Ane Labakak *Berriarako* artikulu batean. «Eskatu gabeko  
aholku» sortaz ari zen, «[...] laguntzeko prest beti, susmagarria suerta daitekeen  
gehiegizko aitakeriaz [...]. Jende interesgarri gehiago aurkeztuko dizute gero, kultur  
programatzaileak, idazle kontsakratuak, editore zorrotzak... hortxe dituzu, gurtu  
beharreko aita gehiago zure bildumarako». Transferitzen ez den kapital sinbolikoaz,  
kulturalaz eta sozialaz ari zen, emakume sortzaileak alaba kategorian manteneziko  
dituenaz.

Goitik beherako transmisio-tradiziotik parez parekora urratsak egiten ari dira  
emakume bertsolari asko. Transmisio horretan aita elikatzailearen figura absolutua  
lausotu eta ahizpa-konplizearena ari da indartzen.

## 7. DESEXUALIZAZIOA, DESEROTIZAZIOA, DESGORPUZTEA

*Emakumeek ezin dute idatzi premisari ni ez naiz emakumea*-rekin erantzun izan diote emakume idazle askok, hala kontatzen du Russek. Bata ala bestea izatekotan, idazlea aukeratu eta emakumea ukatu. Horretarako estrategiak hainbat izan dira: femeninotzat jotzen diren ezaugarri fisikoak ezabatzea, idazkera maskulinizatzea, norbere burua gainerako emakumeen multzotik salbuestea haiekin *nahasi* ez dezaten...

Nola ez-desiragarritzat jotako gorputzen deserotizazioa eta haiekiko biolentzia pasiboa, hala hipersexualizazioaren beldurrez auto-zentsuraturiko gorputzasuna eta erotika gatazka-iturri dira emakume bertsolari askorentzat.

## 8. HIPERSEXUALIZAZIOA ETA HETEROARAU

Feminismoarentzat gorputzaren errepresentazioa kontu gatazkatsua dela baieztatzen du Maria Teresa Alario Triguerosek *Arte y feminismo* liburuan. Barbara Kruger artista alemaniarren *Zure gorputza gudu-zelaia da* obra hartzen du metaforatzen. Obrari izenburua ematen dion esaldia emakume gazte baten aurpegi zatituaren gainean irakurtzen da. Bi erdi simetrikotan banatzen da aurpegia: ezkerrean erretratuaren positiboa; eskuinean, negatiboa. Batetik, hor dago emakumeen autorrepresentazio-beharra eta, bestetik, irudi horiek ohiko errepresentazio sexistekin nahasteko arriskua.

Bertsolari (emakume?) modura, batez ere, gizonetik erlazio erotikotik existitu ahal izatearen eta haien desiraren arabera leku okupatzearen muga azpimarratzekoa da bildutako testigantzetan. «Emakumeen ikusgarritasuna gizonetik desiraren neurrira egina izan da» (Nead, 1998). Gizon publikoaren osagarri-rola bete izan du askotan emakume publikoak, kontrastean lehenengoaren ezaugarriak bistartzeko erabili izan da bigarrena. Autorrepresentazioaren eta interpretazio sexisten artean borrokan ari da maiz emakume bertsolaria, positiboaren eta negatiboaren artean.

## 9. GIZONEN DESIRAREN ARABERA ERAIKITZEAREN KONTRAESANAK ETA GATAZKAK

Gizonen iritziek eta balorazioek —baita erotikoen ere— emakume bertsolari askoren eraikuntzan duten eragina sakon aztertzekoa litzateke. Mary Ellman idazle eta kritikariak *inposizio erogenoaz* idatzi zuen 1968an argitaraturiko *Thinking about women* saiakeran. Lau urte geroago Eleine Reuben kritikariak zehaztu zuen: «Emakumeek, gizonentzat erakargarria den eran jantzi behar izateaz gain, idatzi ere helburu berarekin idatzi behar dute». Elkarriketaturiko ia bertsolari guztiek diote gehien bilatzen duten aprobazioa bertso-kide kanonikoena dela, haietako denak —Lujanbio salbu— gizonak dira, eta haien gustuko izan nahiak —kontraesanez betetako— egitate bat dirudi gaur egungo emakume bertsolariarentzat. «Gehiegi begiratzen diezue gizoni», egotzi zigun Mari Luz Estebanek Iruñeko «Bertsolaritza genero-ikuspegitik» ikastaroan. Testigantzetan ere gutxi aipatzen dira emakumeak

solaskide edo erreferentzia gisa. Boterea ments duenak, botereguneetan ninia. Ahalduntzea autozentratzetik hasten bada, estrabismoa dugu sendatzeko, baina oraingoz, gizonezko kanonikoen aitortza-eskea eta haren hutsunea nabarmentzen dituzte hainbat emakume bertsolarik.

### **10. IRAINAK ETA JAZARPEN SEXUALA**

«Nerabegarora sartu ginenean, 12-13-14 urte geneuzkala, bazen ikasgelan askotan errepikatzen zen jolas bat: mutiko batek eskua neskato baten bizkarraren erdi parera eramane, bularretakoaren elastikoari heldu eta tenk egiten zion, ondoren askatu eta gomak neskatoaren bizkarra kolpatu zezan». Bularretakoaren zartailukada izeneko artikulua idatzi zuen Idurre Eskisabelek 2017an. «Egia esaten jarrita, bularretakoaren elastikoaren bizkarreko zartadak ez zuen min ikaragarririk ematen. Erantzuna, berriz, ez-sentituarena egitea izaten zen askotan, muturra okertu eta ahapeka protestaren bat jaurtitzea gehienetan, eta buelta eman eta aurre egitea oso aldi bakanetan [...]. Ordura arte milioika jolas partekatutako kideekiko harremana hankazgoratzen zuen. Norberaren gorputzean norberaren borondatearen kontrako interbentzioak jasateko eta, batik bat, zilegitzeko aukera esponenzialki biderkatzen». Erasoak, irainak, jazarpen sexuala eta horrelako jolasak «diziplina-ariketak» direla baieztatzen zuen Eskisabelek, kontrolaren eta indarkeriaren jabe edo meneko izaten ere ikasi egiten baita.

Emakume bertsolarien hitzetan esplizituki bezala zeharka antzematen dira jasandako diziplina-ariketak. Kasurik gehienetan, bi etapa bereizten dira: kontzientzia feminista hartu aurrekoa —zeinetan ariketok naturalizat edo aldaezintzat jotzen zituzten— eta kontzientzia feminista hartu ostekoa —zeinetan biolentzia hitza ahoskatzen duten—.

### **11. BIOLENTZIAREN NATURALIZAZIOA**

Agenteek kokapen sozial bati loturik dagoen gizarte-dominazioa barneratzeari esaten zaio biolentzia sinbolikoa (Bourdieu). Subjektuak ez dira jabetzen azpirakuntza-egoeraz, eta gutxiagotasun-uste edo ezdeus-sentimendu iturri izan daiteke. Biolentzia sinbolikoak talde sozialen hierarkizazioari loturik dagoen sailkapen-eskemen legitimazioan du oinarria, eta ez da subjektuen arteko menderakuntzan oinarritzen (pertsona bat beste baten gain), ezpada egiturazko dominazioan (kokapen bat beste baten gain).

Emakume bertsolari gehienak oso gaztetxotan hasten dira jendaurrean inprobisatzen, jendarteko botere-egiturak irakurri ahal izan aurretik, sarri. Horretaz gain, bertso-munduak badu familia-egituraren antza: korporatibismo handia dago, aurrekoen lanaren aitortza sakona, leialtasun bizia... Taldetasuna, bizikidetzeta, «gu»a balio handikoak dira, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen direnak. Familia-

egituretan izaten da zailen biolentzia identifikatzea, eta are zailagoa hura seinalatzea: egituraren beraren osasuna jartzen baita zalantzan. Emakume bertsolari askorentzat bizirauteko estrategia izan dira *desproblematizazioa* eta *ahantzura*.

## 12. KONPETENTZIA

Celia Amorosek *Espacio de los iguales, espacio de las idénticas* artikuluan bereizi egiten zituen berdinak (gizonak: indibiduo bereziak, singularrak) eta identikoak (femenino generikoaren pean homogeneizatutako eta ordezkagarri bilakaturiko emakumeak, elkarren artean lehiatzera behartuak). Emakume bertsolariek testigantza askotan azpimarratu dute gizarteak eta, areago, bertso-sistemak berak (plazetan emakumeek betetzen duten lekua % 20koa delako eta elkarren ordezkotza izan ohi direlako, besteak beste) emakumeen arteko lehia eta inbidia sustatzen dituela. Plaza hartzeko ahaleginak, identikotasunetik berdintasunera igarotzeko saiakerek eta ahaldunderantz egindako urrats bakoitzak gizonen lehiakortasuna piztu duela ere adierazten dute. *Meritokrazia neutrala* desafiitzen eta elkartasun-sareak sortzen ari diren gehienak emakumezkoak izatea, ez da kasualitatea.

### 12.1. Autosufizientzia eta ahizpatasuna kontrajartzea

Sistemak ezarritako konpetentziaren eta jardun indibidualistaren aurrean ahizpatasuna aldarrikatzen eta praktikatzen dute emakume bertsolari batzuek (*topa ahizpatasunaren alde!*<sup>3</sup>). Logika horretatik sortu dira «Ez da kasualitatea» saioak, Ahalduntze Bertso Eskola, Txakur Gorria kolektiboa eta elkar hartzeko beste hainbat bide informal. Beste zenbaitek buruaskitasuna du helduleku (*ez nator zortzikote zein / laukote bat osatzera*<sup>4</sup>), indibiduo jarritz oroz gain, izan ideologikoki egiten duen hautua delako, izan ahizpatasun-sareetatik kanpo sentitu delako. Ez genioke autosufizientzia kontrajarri behar ahizpatasunari, feminismoak horixe baitu helburu: ahalik eta autosufizienteenak izan gaitzela indibidualki eta kolektiboki, betiere jakinda interdependentek garelako eta elkarrekiko konexioan bizi garelako. Dikotomia tranpatia da —eta patriarkatuak sarri erabiltzen du— askapen indibiduala eta askapen kolektiboa kontrajartzea, bata ala bestea aukeratu behar dugula aditzera emanez, bata praktikatzen badugu besteari bizkar eman behar diogula pentsaraziz. Inor ez baita erabat autosufiziente, hala pentsatzeak bakartzera (aurrekoengandik eta kide garaikideengandik) eta isolamendura eramanez dezake autorea.

## 13. BAZTERKERIA, IKUSEZINTASUNA, GIZONEN ARTEKO ALIANTZAK

Chimamanda Adichieren *Istorioren arriskua* hitzaldi ezagunean, 19 urterekin Nigeriatik AEBko unibertsitate batera aldatu zenean bere gelakide amerikarrari eragin zion harridura kontatzen du idazleak. Ingelesean hain ondo ez ikasi zuen

3. Miren Amurizaren amaierako agurreko azken puntua 2018ko Bizkaiko finalean.

4. Jone Uriaren hasierako agurreko puntu bat 2018ko Bizkaiko finalean.

galdetu zion kideak, eta nahasita utzi zuen ingelesa Nigeriako hizkuntza ofiziala zela jakiteak. Adichieren *musika tribala* entzun ote zezakeen eskatu zion pisu-kideak, eta atsekabetu egin zuen hark Mariah Careyren kasetea jartzeak. Pisukideak uste zuen Adichiek ez zuela berogailua pizten jakingo. Afrikar gisa *omisioz* eraikia zuen haren irudia estatubatuarra. Afrikari buruzko istorio bakarra ezagutzen zuen. Pobreziaren istorioa ez zen beste guztia ikusezina zitzaion.

Autopertzepzioz hortik urrun daude gure inguruko emakume sortzaileak —Adichieren beraren autopertzepzioa ere oso zen bestelakoa—, ikusezintasunaren eta bazterkeriaren erroek sofistikuatuak bezain sakonak izaten badakiten eta, norbera ohartu ala ez, arrastoa uzten duten arren.

Entzuleek haiengandik diskurtso politikorik espero ez zutela ohartzea, euren kalitate onarekin harritu egin direla jabetzea, bertsoakideek «ez baleude bezala» tratatzea, saio aurreko eta osteko solasaldietan bakartuak sentitzea, gai-jartzaileek ariketa exijenterik ez jartzea... Hainbat dira *istorio bakarraren arriskuak*.

#### **14. ERANSKINAK, OSAGARRIAK, EZ-OSOAK**

Griselda Pollock-ek 70eko hamarkadatik hona feminismoak kanona negoziatzeko erabili izan dituen estrategiak aletzen ditu *Differencing the Canon* saiakeran. «[Feminismoak] kanonaren oinarrian dauden ezberdinkeriaren egiturak identifikatzen ditu, eta diferentzia horri eusteko kanonak erabiltzen dituen mekanismoak aztertzen. Hala nola emakumea irakurtzea halako zerbait balitz bezala: bestea, sexua, gabetasuna, metafora, zeinua...».

Mary Beard-ek «The Public Voice of Women» artikuluan baieztatzen du mundu klasikoan, eremu publikoan mintzatzen diren emakumeen artetik, hiru arketipori baino ez zaiela jendaurrean hitz egitea zilegiztatzen. Mintzo publikoaren gaitzespenetik salbuetsita daude hiltzera doan martiria edo biktima; etxeaaren, seme-alaben edo senarraren defentsan altxatzen den emakumea eta beste emakume batzuen defentsan mintzo dena. «Emakumeek, muturreko egoeretan, haien interes partikularrak defenda ditzakete, baina ezingo dute hitz egin gizonen edo komunitate osoaren izenean», idatzi zuen Beardek.

#### **15. PROTAGONISMOA ETA LEHIAKORTASUNA**

Eider Rodriguezen *Idazleen gorputzak* lanean (Lisipe 6, 2019) Laura Mintegiren hitzok aurki ditzakegu: «Joan Riviere-k hitz egiten du feminitateaz maskara moduan. Berak dio emakume indartsuak, proiektio soziala daukan emakumeak, eremu publikoan aritu ostean (hitzaldia eman ondoren, esaterako) inkontzienteki bilatzen duela gizonezkoen onarpena; emakume horrek behar du gizonezkoak berrestea ondo egin duela. Eta, gainera, bere burua gutxietsi egiten du, garrantzia kentzen dio egindako lanari, lan bikaina izanagatik. Lortutako arrakasta egotziko dio lanean



emandako ordu mordoari edo zori onari, baina ez bere gaitasunari, sakon-sakonean, uste baitu bere ahalmena agerian utziz gero galdu egingo duela gizonaren afektua. Jendaurrean arrakastatsua izan den emakumeak disimulatu egiten du bere gaitasuna, gizonezkoak mantentzen dezan nagusitasuna eta feminitatea ez galtzeko berak. Halaxe azaltzen du Joan Riviere-k. Egia da Riviere 1883an jaio zela eta gaur egun gauzak aldatu egin direla emakumeentzat, baina ikuspegi psikoanalitikotik begiratuta, nik uste dut eremu publikoan gabiltzan emakume guztiok noizbait sentitu dugula halako zerbait... Nola edo hala, gizonari esaten zaio, “ni naiz ondo egin dudana baina zu zara hori berresten duena”. Eta hori guztia, ez bihurtzeko lehiakide gizonarekiko, onartua izateko...».

Virginie Despentes-ek ere hala definitu zuen emakume zuri ideala *King Kong teoria* ezagunean: «Lan egiten duena baina bere gizona zapalduko duen arrakastarik gabe, [...] inteligentea baina ez gizon bat beste...».

## 16. UMOREA AZPIRATUA

Virginia Imazek «Género y humor. La triple transgresión» artikuluan azaldu zuen nola emakumeei bereziki debekatu izan dizkiguten sexua eta umorea plazer —eta, beraz, askatasun— iturri gisa. *Bertsolaritzaren ikerketa soziologikoa 2005-2018*ren arabera: «Aldea dago bertsolari batengan gehien estimatzen diren ezaugarriei buruz galdetzerakoan. Askotariko iritziak daude, baina, oro har, umorea, hunkiarazteko gaitasuna eta irudimena dira ezaugarri estimatuenak bertsolari batengan. Hunkiarazteko gaitasuna estimatzen dutenen kopurua handiagoa da emakumezkoen artean, baita irudimena estimatzen dutenena ere. Aldiz, umorea estimatzen dutenen kopurua handiagoa da gizonezkoen artean. Ondoriozta genezake emakumezkoen artean umorea gutxiago estimatzearen arrazoia ez dela umorea oro har gutxiago estimatzeagatik, baizik eta bertsolaritzan gutxienez tarteka nagusitzen den umorea hainbeste ez estimatzeagatik». Gai honetan interes bizikoa da Ane Labakaren *Bertsolaritzan garaturiko umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik* master-amaierako lana. Umoreaz eta generoaz egin diren ikerketa guztiak gai bereziki garrantzitsutzat jo dute: ezarritako hierarkiak berrezartzeko eta finkatzeko bezala erabiltzen baita hierarkia horiek iraultzeko tresna gisa.

## 17. GUTXIESPENA, DESAUTORIZAZIOA

Zuzentzaile automatikoak gorritz markatzen du *plazandre* hitza. Modu agerikoan edo estalian, zuzenean edo zeharka, kontzienteki edo oharkabea, gutxiespena eta desautorizazioa bizi ditu emakume bertsolariak. Zalantzan jartzen dira haien maila, meritua, diskurtsoaren eta jardunaren egokitasuna eta balioa, gaitasuna... Gutxiespen hori barneratuta dute bertsolari askok.



### 17.1. *Gutxiespen ekonomikoa (tarifak eta autotarifak)*

«Oso gauza desberdinak dira prezioa eta balioa berez, baina batzuetan elkarri lotuta datoz edo elkarrekin nahasten ditugu», idatzi zuen Oihana Iguaranek «Prezioa eta balioa» artikuluan. Batetik, kultura erdigunean ez jartzeak dakarren prekarizazioa legoke eta, bestetik, genero-arrazoiak direla medio, prekarizazio horren baitan emakume kulturgileek pairatzen duten bigarren azpiratzea. Ontzat ematen da bertso-munduan ez dela soldata-arrakalarik existitzen, baina interesgarria litzateke aztertzea nola banatzen diren sosak bertso-saioretan: Lankuko kategorietan non kokatzen duen bertsolari bakoitzak bere burua<sup>5</sup>, Lankutik kanpo antolatzen diren saioen kontratazioan<sup>6</sup> nola eragiten duen sexu-genero sistemak, ondoen eta okerren ordaindutako saioetan genero-bereizketarik baden, bertsolarien lan baldintzek nola eragiten duten gizonengan eta emakumeengan, eta abar. Egintzat jotzen dugu guztiok *maila berean*, berdin prestatuta gaudela gure balio ekonomikoa kudeatzeko, baina argi dago ezetz, eta genero-arrazoiak ere badira tartean.

## 18. *NORBERE BURUA ERREAKZIOZ ERAIKITZEA*

Danele Sarriugartek Eider Rodriguezi *Hitzen Uberanerako* egindako elkarrizketa batean honakoa zioen oreretarrak: «Zer espero dute emakumezko idazle batengandik? Gordina izatea. Hori da modua, *bestseller*-etik aparte geratzen den literatur sistemaxo txiki horretan bidesari hori ordaindu behar bagenu bezala. Erreakzio bat da, azkenean

5. Lanku ([www.lanku.eus](http://www.lanku.eus)) Bertsozale Elkarteko enpresa da, bertsolarien kontratazioaz arduratzen dena. Bertan, bertsolariak hiru kategoriatan banatuta daude, prezioaren arabera. Bertsolarien esku dago beren burua zein kategoriatan kokatuko duten erabakitzea eta, beraz, saio bakoitzeko izango duten ordainsaria finkatzea. Bertsolari berriak C mailatik abiatzen dira eta plazan egindako *jauzien* arabera proposatu ohi zaie, Lankutik bertatik, kategoriaz igotzea. Badira hainbat lege ez idatzi (iraganeko irizpideetatik datozenak, orain dela zenbait urtera arte bertsolariak txapelketan lorturiko emaitzen arabera sailkatzen baitziren A, B eta C kategorietan) bertsolariak beren burua txapelketan lortutako postuaren arabera sailkatzera daramatzatenak.

Hauek dira bertsolarien diru-sariak saioko:

A maila. Gordina: 196,13 €. Garbia: 154,16 €.

B maila. Gordina: 151,67 €. Garbia: 119,21 €.

C maila. Gordina: 98,36 €. Garbia: 77,31 €.

Autonomoak

A maila: 263,24 € – PFEZA

B maila: 204,42 € – PFEZA

C maila: 133,83 € – PFEZA

A kategorian 31 bertsolari daude, 26 gizon eta 5 emakume —horietatik 3, 2018tik— (emakumeak, % 16,13).

B kategorian 72 bertsolari daude, 54 gizon eta 19 emakume (emakumeak, % 26,39).

C kategorian 129 bertsolari daude, 99 gizon eta 30 emakume (emakumeak, % 23,26).

6. Lankutik kanpo, zuzeneko kontratazio bidez antolatzen da bost saiotik lau. Kasu horietan bertsolariak berak negoziatzen du bere tarifa.

idatzi behar dugu ama abandonikoei buruz, *destroia* den jendeari buruz, zergatik eta gugandik espero dutelako pastelak egitea, ulerberak izatea eternalki eta inolako aurreiritzirik gabe, eta lañoak izatea, eta light. Uste dut hori baino askoz gehiago daukagula emateko». Norbere bertsokera, portaera, janzkera... erreakzioz eraikitzea bestetasunaren sintoma da sarri.

### 19. DESAUTORIZAZIOA

Mira Schor artista, kritikari eta arte-irakasleak «Autoritatea eta ikasketa» artikuluan unibertsitateko irakasleen genero-abusuak bistaratu eta akademiaren barnean gertatzen diren botere-harremanak eta sexualitatearen erabilera salatu zituen. Gizonezko irakasleen eta emakumezko ikasle gazteen arteko harremanetan jarri zuen fokua, jazarpen sexual argienetatik hasi eta *autoritate-transferentziaren promesa* lanbrotsuagoetara bidean gertatzen den guztian. Faltan duten boterea eskuratu nahi duten ikasle gazte anbiziotsuen eta boterea izan baduten edo, Schoren hitzetan «artearen mikrokosmos instituzionalizatuaren barruan botere irudia duten» gizonen arteko desberdinkeriazko tratuan. Beren talentuagatik baino gehiago erakargarritasun erotikoagatik baloratuago diren neska gazte artisten azpirakuntza-egoera perbertsoa azaleratu eta maisuaren inpunitateaz eta botereari eusteko mekanismoez gogoetatu zuen, irakaskuntza gardenerako desartikulatu beharreko autoritate eta kanon maskulinoen boterekeria naturalizatuaz azpiko gora jarritz.

Bertsolaritzaren esparruan belaunaldi batetik bestera eta gizonengandik emakumeenganako autoritate-transferentziarik baden, zein moldetan egiten den edo ez den egiten... aztergai ezinbestekoa da. 2017ko Txapelketa Nagusiko finala *inoizko zaharrena* —eta azken urteetan bezain maskulinoa— izateak, atzetik bultzaka datorren belaunaldia sekula baino feminizatuagoa denean, zer pentsatua eman behar liguke. *Erreleboarekin kezkatuta* daudela aditu izan dugu finalista batzuen ahotik. Erreleboa badago: autorizatzea falta da.

### 20. EMAKUME-IDENTITATEAREN PISUA

«Guk ere ez al dugu, Katixa, gure izen-abizenen ondotik emakume hitza mandeulia bailitzan uxatu behin baino gehiagotan? Zergatik?», galdetu zion Eider Rodriguezek Katixa Agirrerri 2009an *Argia* astekarian «Ni ez naiz feminista» artikuluan. «Nik normala izan nahi dut. Ez mehatxu bat, ez arrisku bat, ezta salbuespen edo bitxikeria bat ere. Eta horretarako ez dut hurrengo bizitzara arte itxaron nahi, ez baitidate inon bermatu hurrengo berraragiztatzean zakil handi batekin eta baritonohots indartsuarekin jaioko naizenik» erantzun zion Agirrek «Troiako behorrak» izenekoan. *Emakume* hitza arantzatsua da, borroka sortzen du sortzailearen baitan. Kategoria horretatik ihesi edo kategoria horrekin gatazkan ari dira sarri emakume

bertsolariak ere. Monique Wittigen hitzetan, «*emakume* hitzak ez du esanahirik pentsamendu-sistema heterosexualetan eta ekonomia-sistema heterosexualetan baizik» eta, ondorioztatzen du: «Lesbianak ez dira emakumeak». *Bollera* identitatea indarra hartzen ari da bertso-munduan.

## **21. FEMINISTA-IDENTITATEA: INDARRA ETA KUESTIONAMENDUA**

Azken urteetan feminismoarekin identifikatu dira emakume bertsolari asko. Ideologia eta praktika feministek aukera eta indarra eman dizkietela nabarmentzen da haien esanetan, haien burua eta ingurua ulertzeko, bakardadetik irteteko eta elkartzeko, alternatibak pentsatzeko, esperimintatzeko, aliantzak sortzeko... Indarrarekin batera dator jasaten duten kuestionamendua ere.

«Izan ere, zein espaziotan gauden, feminista garela onartzea suizidioa izan daiteke. Real Madrid eta Athleticen arteko futbol partidara joan eta Ultrasurren harmailetan esertzea bezalakoa ikurrin bat aurpegian pintatua duzula. Zisjordaniako checkpoint batean militar bat urezko pistola batekin xaxatzea bezalakoa. Zuhurtzia kontua», idatzi zuen Rodriguezek «Ni ez naiz feminista» artikuluan. *Tiroa kontzertuaren erdian* saiakeran, Stendhalen hitzak dakartza titulura Belen Gopeguik (2011): «Pistola tiroek kontzertuaren erdian duten efektu bera du politikaz aritzeak nobela literario batean». Bertso-saio batean feminismoaz aritzea tiro bat da kontzertuaren erdian. Identitate desafiatazailatzat jotzen da oraindik, hain zuzen ere, boterekeria naturalizatua jartzen duelako jo-puntuari.

Emakume-identitatea pisua bada, desafiatazaila da identitate feminista. Testigantzetan ageri denez, bertsokide zenbaiten aldetik era askotara artikulatzen dira feminismoaren aurkako erresistentziak: isiltasun erabatekoaren bidezko omisioa, bertsolari feministei beste kide feminista batzuen jarduna kritikatzeko eta zatiketa bilatzea, feminista *onen* eta *txarren* arteko bereizketa egitea, diskurtso feministen kuestionamendu zeharkakoa, feministen arteko aliantzak traiziotzat jotzea, genero-irakurketak *joko zikintzat* hartzea gaira ez datozelakoan... Oro har, bertsolaritza berdinzalerantzko bidearen ardura osoa, diskurtso eta praktika berrien ardura bertsolari, gai-jartzaile eta gainerako eragile feministen bizkarrean kokatzen da, baina ekitea kuestionatuz, desautorizatuz, galgatuz.

Ez dira emakume bertsolari guztiak eroso sentitu diskurtso eta praktika feministekiko (ez dutelako identifikaziorik sentitu, *kanpo* sentitu direlako, *epaituak* sentitu direlako, praktika batzuekiko kritiko azaldu direlako...). Feminista izatea justifikatu behar duen bezala, ez-feminista izatea, feminismoarekin kritikoa izatea, edo bestelako feminismo baten aldarria ere justifikatu egin behar du emakume bertsolariak. Gaia hari dagokiola gogoraraziko dio egunerokoak, nahi ala ez, eta deserosotasuna kudeatu beharra bera izan liteke mugimendu-marjina mugatzen duen mekanismo bat.

### 20.1. Diskurtso feministekiko deserosotasuna

Emakume bertsolari guztiak ez dira eroso sentitu diskurtso eta praktika feministekiko (ez dutelako identifikaziorik sentitu, *kanpo* sentitu direlako, *epaituak* sentitu direlako...). Hala ere, interpelatuak sentitzen dira, eta gizona ez bezala, ez dute *ihes egiteko* aukerarik. Feminista izatea justifikatu behar duen bezala, ez-feminista izatea edo feminismoarekin kritikoa izatea ere justifikatu egin behar du emakume bertsolariak. Gaia hari dagokiola gogoraraziko dio egunerokoak, nahi ala ez, eta deserosotasuna kudeatu beharra bera izan liteke mugimendu-marjina mugatzen duen mekanismo bat.

### 22. «FESTARA GONBIDATUAK» ETA «GURE FESTA»

Zadie Smith idazle ingelesak «Lotsaz, amorruez eta idazketaz» elkarriketan multzo menderatuen ahalduzaren aurrean talde dominatzaileek sentitzen duten amorruez hitz egiten du; kasu horretan beltzez eta zuriez ari da. *Black Lives Matter* bezalako aldarri batek zenbait kolektibo zuri asalduzaren arrazoiak hausnartzen du eta esaten: «Hain probokatzailerak iruditzen zaizkie hiru hitz horiek, erotu egiten baitira [...]. Zer gertatzen zaio jende zuriari kanpo uzten duen edozein kolektibitate desafiatailetzat hartzeko? Uste dut dela... segurtasun falta... jeloskortasuna... eta banitate moduko bat, espazio guztietan parte izan behar dutela sinetsarazten diena. Zergatik bihurtzen da hori amorruek? Bihur zitezkeen beste zerbaitek; esaterako, jakin-min... edo interes soil».

Silvia Federiciren *Caliban eta sorgina* saiakera mardulean kapitalismo aurreko garaian herri-lurrek, merkatuek eta gainerako eremu kolektiboek emakumeentzat zuten garrantzia azpimarratzen da: «Bizitza sozialerako, biltzeko, elkarrekin berriak trukatzeko, aholkuak jasotzeko eta gizonen ikuspuntutik bereizita beren ikuspuntuari bide emateko tokiak ziren herri-lurrak eta merkatuak». Lurra pribatizatzean eta lan-kontratu kolektiboen tokia lan-kontratu indibidualek hartzean desagertu zen lankidetzara hura. Gauza bera entzun izan dugu iturriez, latsarriez, jostundegiez... «Diskurtso maskulinoaren kantxatik geure definizio propioak sortzen ditugun eremuetara igaro den edozein emakumek ezagutzen du sentipen hori: *itzultzeari uztearena*», idatzi zuen Adrienne Richek, eta gehitu: «Ez du esan nahi pentsetzea kontu erraza bilakatzen denik, ezpada zailtasunak lanari berari dagozkiola, eta ez testuinguruari...». Diskurtso propioak bakarrik ez, praktika feministak sortzeko eta esperimendatzeko gune eta une ere badira emakumeen arteko bertso-saioak.

### ONDORIOAK

«Elkarriketa publikotik kanporaturiko emakumeen adibidez beteta daude literatura eta historia» idatzi zuen Mary Beardek «The Public Voice of Women» artikuluan. Mintzo publikoa maskulinitatearen ezaugarri definitzailea izan dela —eta dela—

azaldu zuen argudio-soka luzean, eta jendaurrean solastatzen den emakumea, definizioz, ez-emakumetzat joa. Gutxitan ematen zaio zilegitasunik emakumeen ahotsari eta, ematen zaionetan, biktima-posiziotik edo bere buruaren eta bere gisako beste emakumeen izenean izan ohi da. Bakan-bakanak dira *izaki unibertsaltzat*<sup>7</sup>, komunitate osoaren ordezkari eta eredutzat, hartzen diren emakumeak. Gehienetan eta gehienera, Enbeitaren hitzak erabiliz, «*gure txokoari* buruz hitz egiteko autoritatea daukagu». Liburu hau bertsolaritzari buruzko liburu bat litzateke —eta ez *emakumeak eta bertsolaritzari* buruzkoa—, emakumeak izaki unibertsalak bagina.

Ahots autorizatuaz eta haren eraikuntzaz pentsatzea ezinbestekoa iruditzen zait bertsolaritzaz pentsatzerakoan. Bearden hitzetan, «tradicionalki maskulinoztat jotako territorioetan sartuz gero, ez du axola emakume gisa hartzen duzun jarrera zein den», automatikoki aktibatuko dira mugatze-mekanismoak. Testigantza-bilketa hau horrexen erakusle da. Hori dela-eta dabilta emakume publiko asko *emakume* hitza «mandeulia bailitzan» uxatu nahian, ez ditzaten saldo subordinatura murriztu, Woolf amorratu bainoago nahi luketelako izan Shakespeare puru.

Mintzo publikodun emakumeak aldi berean jasotzen ditu emakume-kategorizazioa eta ez-emakume izateko deia. «Lujanbio bertsotan dena izan behar zenuke zuk literaturan» aholkatu zion Eider Rodriguezi gizonetzko idazle ezagun batek. Sofistikatua da azpirakuntza. Atergabeak dira gure sexuaren *gainetik*, hartatik *aparte* aritzeko deiak.

Emakume bertsolariotako asko saiatu dira emakume gisa irakurriak ez izaten: gorputza neurtzeko, estaltzeko, neutralizatzeko eta kontrolpean edukitzeko ahalegin automatizatuak horren adierazgarri. *Diskrezioa* da gehienek bilatzen dutena. «Nabarmentzekotan, izan dadila bertsoengatik», dio Uriak. Libre nahi dugu kategorizaziotik, subordinaziotik, irakurketa partzialetatik... baina gorputz markatuak gara, emakume izendatuak eta emakume irakurriak. Ez dakit larregi esatea ote litzatekeen jendaurrean mintzo garen bakoitzean ahalegintzen garela, nolabait eta kontzientzia handiagoarekin edo txikiagoarekin, emakume ez izaten. Danele Sarriugarteri aditu nion bezala, *piztia beraren kontra* ari garenez, estrategia guztiak, emakume-identitatea markatzearen aldekoak eta haren kontrakoak erresistentzia bide gisa ulertu eta kokatu behar genituzke.

Menosten gaituen kategorizazioa askapen-eremu bilakatzerara dator feminismoa. Identitate subalternoa identitate eraldatzaile bilakatzerara. Haatik, emakume ez izateko deiarri lotuta dator emakumeen artean ez aliatzeko *aholkua*. *Txokokeria*, *tranpa*, *erosokeria* eta, are, *pribilegioa* egotziko dizkiote kolektiboki antolatzen eta askatzen saiatzen denari. «Feministek kalte egin dizute», «ausartu oihanera»... izan zaitez *berdina* desberdinkeria pairatzen duzun bitartean. Izan zaitez gizon, gizon ez izanda ere. Ez da ahalegin faltagatik izango. Alabaina, testigantzotan sarritan

7. Mari Luz Estebanek Maialen Lujanbio *izaki unibertsal* gisa irakurria zela aipatu zuen Iruñeko UEUko «Bertsolaritza eta generoa» ikastaroan (2018ko ekaina), baina baita irakurketa hori alda zitekeela ohartarazi ere.

errepikatzen da ariketa kolektiboa dela emakumeak ahalduntzen ari dena; behin eta berriz errepikatzen da emakumeen arteko bertso-saioen, bertso-eskolen eta, oro har, espazio eta gune konpartituen beharra.

Testigantza-bilketa hau ahots publikoa duten emakumeen mugimendu-marjinari buruzko gogoeta bat da, bertsolaritzaren esparrutik harago doana. Esfera publikoan emakumeen zailtasunak ez dira testualak, ezpada testuinguruari lotuak. Bertsolaria egin egiten dela ikasi genion Xabier Amurizari, emakumea egin egiten dela Beauvoirri. Bertsotarako testuinguruak eta baldintzek bertsolaria, emakumea eta gizona nola egiten eta berregiten dituzten pentsetzeko erremintak behar ditugu. Bourdieu-ren kapital sinbolikoa<sup>8</sup> eta biolentzia sinbolikoa<sup>9</sup> genero-ardatzean kokatu eta nola eraikitzen eta transmititzen diren xehe aztertzeak (Goikoetxea *et al.*, 2019) lagun lezake lan horretan.

*Emakumeen esperientziaren devaluazio automatikoa* salatu zuen Russek. Elkarrizketaturiko bertsolarien oztupoak ez datoz testu egokia, teknika doia, taxuzko diskurtsoa, baliozko mintzoa eratu ezinetik, mintzo hori sortzeko eta balioztatzeko talaia eta posizioa topatu ezinetik baizik. Bertsolaria gorputz da, eta gorputza du lehen talaia. «Ohartu nintzen lehenengo ikusten zena ez zela bertsolaria, ezpada neska», zioen Akizuk; «publikoaren aurrean jartzen dugun lehenengo elementua da gorputza, ahotsa baino lehenago», Bartrak. Ezin dira bereizi *zer* eta *nondik*, gorputzarena da mintzoa, mintzoarena gorputza, eta egituratuta daude botere-harremanetan.

Ez da berria gorputzarekin kinkan dabilzanek ekarri izana, hain zuzen, gorputza oholtzara eta, gorputzarekin batera, erotikari, plazerari, soinaren endekatzeari, fisiologiari, zaurgarritasunari eta biolentziari buruzko ezin konta ahala bertso. Gudu-zelaiaz eta goza-zelaiaz ari dira emakumeak gorputzaz ari direnean, autorrepresentazioaz eta haren mugez. Haiek ekarri dute lehen lerrora.

Emakume bertsolari gehienentzat iraupen-proba gogorra dirudi bat-bateko bertsogintzak, gizonek eraikitako tradizioari jarraituz, haien eredutik ikasita, gizon artean eta gizonekin ari dira kantuan, gizonen iritziek eta gustuak pisu espezifikoa handia duten eremuan, testuinguru lehiakorrean, esposizio bizian. Elkarrekin taxutzen duten *gintzak* frikzioarekin batera dakar aukera: etengabeko negoziatziora *behartuta* daude, eta negoziatziora plazer konpartituaren baitan gertatzen da maiz. Bertsoarekiko pasioa bizi dute gizon eta emakume bertsolari guztiek, harreman estua

8. Pertsonarengan berezkoak diruditen ezaugarriek osatzen dute: autoritatea, prestigioa, ospe ona, sinesgarritasuna, garrantzia, ohorea, gustu ona, ulergarritasuna... Pilaturiko balio sinbolikoa.

9. Biolentzia sinbolikoa agenteek kokapen sozial bati loturik dagoen gizarte-dominazioa barneratzea da. Dominazio hori kontzientziaren azpitik dago eta ez da subjektuen arteko menderakuntzan oinarritzen (gizabanako bat beste baten gain), ezpada egiturazko dominazioan (kokapen bat beste baten gain). Egituraketa agenteek duten kapitalaren arabera egiten da eta biolentzia da, agenteek ez baitute antzematen. Biolentzia hori gutxiagotasun-uste edo ezdeus-sentimenduen iturri izan daiteke: sufrutua izan daiteke; inolaz ere ez objektibatua. Biolentzia sinbolikoak talde sozialen hierarkizazioari loturik dagoen sailkapen-eskemen legitimazioan du bere oinarria.

dute, eta elkarrekin gozaten dute, elkarrekin umorea egiten, elkarrekin gogoetatzen 10-8an, 7-6an.

Neurri estuan jokutzen da, ordea, plaza ere. Kontu delikatuak dira lan-banaketa, merkatua, dirua. Balioa eta prezioa. Txapelketa da bertsolaritzan balidazio-sistema nagusia eta ia bakarra, *basamortua* aipatzen dute handik kanpo. «*Irabazlearen eredia*» kuestionatu beharra aipatzen du Artetxek, bertsolariaren karrera kirolariarenarekin parekatzen duena, gazterik eta erorikorik gabe goia jo ondoren ahalik eta luzaroen eustean oinarritzen dena, gazteagoek erretiratzen duten arte. «Muturreko merkatu kapitalistan borrokan» sentitzen dela aitortzen du Ibarzabalek, «Badirudi 2019ko txapelketa hau izango dela *mugarria*. Orain egin ezean, galdu egingo nuke *gaztearen etiketa*», larritzen da Akizu 22 urterekin. *Beren lekua lortzeko* edo *lortutako lekuari* eusteko lehian ari direla iradokitzen dute gehienek. Testigantzetan hamahiru aldiz aipatzen da «demostratu beharra». Ordainsari duina *merezi* ote duten ala ez zalantzan jartzen dute emakume bertsolari zenbaitek, *maila* nahikorik ba ote duten, jardun honetarako *balio* ote duten. Ukaezintasuna eta bikaintasuna ezin izan litezke izateko modu bakarrak, eraiki beharko dira oasiak basamortuan. Muturreko autoexijentzia estrukturala suntsitzailea izan daiteke, eta egiten dutena nahikoa ez dela sentitzera, isiltzera eta lan beraren truke gutxiago kobratzera eraman ditzake bertsolariak. Euskarazko sorkuntza den eremu berez prekarioan generoak prekaritate handiagora bultzatzen dute emakume bertsolariak. *Diruaren sexualizazioaz* hitz egiten dute adituek. Egokia litzateke gizonen esperientzia jasotzea eta haien arteko diferentzietan ere erreparatzea. Clara Coria psikologo argentinarrek diruaren erabilera eta banaketa *desnaturalizatzearen* garrantziaz idatzi zuen 1986an argitaratu eta hainbat aldiz berrargitaraturiko *El sexo oculto del dinero* liburuan. Kulturgintzaren alorreko kudeaketa ekonomikoari buruzko hausnarketa egitea, bertsolaritzako politika ekonomikoez pentsatzea, diruari buruzko hausnarketa kolektiboa egitea eta gaia genero-ardatzean kokatzea lehentasunezkoa da.

Bestalde, txapelketaren garrantzia erlatibizatzeak eta analisiarena areagotzeak kiroletik urrundu eta artearen esparrura hurbilduko luke bertsogintza (edo alderantziz da, akaso: kiroletik urruntzeak eta artearen esparrura gerturatzeak puntuaketatik urrundu eta analisisira hurbilduko luke). Ez luke horrek jarduna lehiatik salbuetsiko, artearen esparrua ere lehiakorra eta oso indibidualista da sarritan —aitzitik, bertsolaritzan kolektibotasunak indar handia du—, baina izateko modu diferenteak egingo lituzke posible, eta balorazio-eskalak dibertsifikatuko.

Kezkagarria iruditzen zait elkarrizketaturiko bertsolari askok euren buruari ezartzen dieten *behin-behinekotasun presuntzioa*, ez dagokien territorioan aritzearen *pribilegio-sentsazioari* eta izaera *ordezkagarriari* lotua. *Besteren eskutan* egotearen sentipen uzkurtzaile hori. Behin-behinekotasunaren onarpena umiltasun existentzialari eta bizitzaren lege naturalari balegokie, gaitz erdi, baina nago autoafirmazioaren kontrako txerto ez ote den. Emakume bertsolariek, praktikan, onartuta daukate elkarren arteko *ordezkagarritasuna*. Gutxitan kantatzen dute elkarrekin, elkarren



ordezko direnez. Bestalde, nahikoa da emakume *berri* bat plazaratzea *zaharrek* euren agendetan suma dezaten. Bertso-eskoletan % 50 direnek plazako merkatuaren % 25 dute eskura. Gerruntzeari inbutua gehitzea da hori. «Neska gazteak nire lekua lapurtzera zentoztela sentitu nuen», «bertso-sistemak berak emakumeon arteko lehia eta inbidia sustatzen dituela sentitu nuen nire gorputzean»... Gizonezko bertsolari zaharragoen (40 urteren bueltakoez ari naiz!) ahotan ere aditu izan dugu ordezkatuak izango diren segurantzia. Adin horretatik gorako emakumerik apenas gelditzen den plazan. Euren zikloa amaitu den sentipena edo errealtatea bizi dute. Niri neuri tamalgarría iruditzen zait horren bizi laburreko bertsolariak ekoizten dituen sistema. Plaza bertsolari zaharragoentzat —eta bereziki emakume bertsolari heldu eta zaharrentzat— bizigarri egiteko helburuari eta bertsolari zaharrak entzuleen intereseko bilakatzeko erronkari heldu behar geniokeelakoan nago. Ahaleginak agerian utziko luke plazako baldintzak norentzat diren bizigarri, eta norentzat ez.

Sistemak eragindako lehiakortasunari eta prekaritateari aurre egiteko mekanismo kolektiboak lantzen ari dira emakume bertsolari asko. Ahalduntze Bertso Eskola, Zilekoa, «Ez da kasualitatea» saioak, Txakur Gorria kolektiboa...; banakako lehia meritokratikotik aparte, testua eta testuingurua lantzeko tresna kolektiboak ari dira izaten. *Festa, konplizitatea, inspirazioa, kalitatea, erotika, lasaitasuna, gozamina, segurtasuna, taldetasuna, ausardia, maitasuna, alternatiba, entusiasmoa, autorrepresentazioa, gorpuztasuna...* gune horietan aurkitu dituzte emakume bertsolari askok. Zoru komunaren eraikuntza (Estitxu Eizagirrek *emakumera batua* deitu ziona), hizkuntza eta erregistro berrien sorkuntza, elkarren ezagutzaren bidezko autoezagutza bultzatzen dituzten gune kreatiboak eta funtsezkoak dira.

Lan horri esker esparru batzuetan prestigioa lortu dute emakume bertsolariek, haien diskurtsoak eta bertsokerak. Aldi berean, lehenago bertsozalea ez zen jendea bertsozaletu dute eta plaza berriak sortu. Emakume bertsolarien lan kreatiboa eta aktibista, biak dira esanguratsuak euskal gizartearen parte batentzat, eta bertsolaritzaren azken ikerketa soziologikoaren arabera, baita bertsolaritzaren beraren etorkizunerako ere.

Identitate feminista askatzailatzat dute emakume bertsolari gehienek. Kontzientzia eta kontzientziaurrea bereizten dituzte batzuek (Agirreazaldegí, Akizu, Amuriza, Artetxe, Bartra, Enbeita, Ibarzabal...), kontzientzia feministak euren buruaren eta bertsotarako testuinguruaren irakurketa erabat aldatu baitie. Haietako zenbait, kontzientzia feministaren ondorioz iritsi dira biolentziaren kontzientziara, beste batzuek alderantzizko bidea egin dute: biolentziaren kontzientziak eraman ditu kontzientzia feministara.

Emakume bertsolari batzuek euren burua kolektibo feministatik kanpo sentitu edo kokatu izana kontuan hartzekoa eta lantzekoa da. Komunikazio-zubiak hobetzea, hainbat esparrutatik egindako lana aintzakotzat hartzea, era guztietako bizipenei leku egitea, pentsamendu feministan sakontzea, egiturazko azpiratze-mekanismoak



bistaratzea eta aitortzea, sistemak eragiten duen elkarren arteko lehiakortasuna desaktibatzea eta lanketa eta tresna kolektiboen garrantzia azpimarratzea beharrezkoak izango dira aurrerantzean ere.

Autoafirmazio-ariketa kolektiboak martxan dauden arren, azpimarratzekoa da emakume bertsolarientzat bertsokide kanonikoen (gizonak, ia denak) aprobazio-premiak duen pisu nabarmena ere. Haien iritziek, aitortzak edo gaitzespenak (zeharkakoa izaten da maiz, kideei buruzko iruzkinen bidezkoa) eragin zuzena dute elkarrizketaturiko bertsolarien autoestimuan, autopertzepzioan eta errendimenduan. Esposizio maila altuak eta familia-egituraren antzekoa den sistemak eragindako iritzien eta iruzkinen iragazkortasunak antzekoa —«Biolentziaren ordena sinbolikoa aita da / amaren ordena sinbolikoa biolentzia da» (Goikoetxea, 2014)— zaurgarri egiten ditu bertsolaria, zaurgarriago emakumezkoak. Izan ere, emakumezkoek ez dute Anaidiaren babesik. Emakumeen arteko aliantzez hitz egiten den moduan, hitz egin behar genuke gizonen arteko, tradizio luzeko babes-sareaz eta konplizitate-mekanismoez. Belaunaldien eta generoen arteko autoritate-transferentzia nola eta zeren arabera gertatzen den —edo ez den gertatzen— aztertzea litzateke.

Bide beretik, *bertsolari purua* eta *bertsolari totala*, eraitsi beharreko bi totem direla dirudi, periferiak oro (generikoa, identitarioa, territoriala, linguistikoa, generazionala) kanpo uzten dituztenez. *Naturala/artifiziala, purua/ez-purua, erabatekoa/partziala, jatorra/traketsa, zirtolaria/puntularia, intimoa/soziala...* sustrai sakoneko ideologiaren aurpegi dikotomikoak izan daitezke, bertsolaritzaren biziraupenerako eta osasunerako arriskutsuak.

*Hogeita bira* deitu diot mugatze-mekanismoak aletzen dituen atal nagusiarri. Tantoak oharkabean sartzen dizkiguten bitartean, kontrako eztarritik kantatzen jarraituko dugu.

Berdintasunezko bertsolaritza bizigarriaren alde, topa, lagunok.

### ***ELKARRIZKETATUAK***

Amaia Agirre Arrastoa (1977, Villabona)

Ainhua Agirreazaldegia Rekondo (1978, Elgeta)

Maialen Akizu Bidegain (1996, Urretxu)

Miren Amuriza Plaza (1990, Berriz)

Maidar Arregi Markuleta (1996, Oñati)

Miren Artetxe Sarasola (1985, Hendaia)

Maddalen Arzallus Antia (1990, Hendaia)

Oihana Bartra Arenas (1984, Bilbo)  
 Onintza Enbeita Maguregi (1979, Muxika)  
 Nerea Ibarzabal Salegi (1994, Markina-Xemein)  
 Oihana Iguaran Barandiaran (1991, Amasa-Villabona)  
 Ane Labaka Mayoza (1992, Lasarte-Oria)  
 Alaia Martin Etxebeste (1987, Oiartzun)  
 Eli Pagola Apezetxea (1995, Ereñotzu)  
 Jone Uria Albizuri (1990, Algorta)

### **BIBLIOGRAFIA**

- Adichie, Chimamanda Ngozi (2009): *The Danger of a Single Story*, TED Global, <[https://www.ted.com/talks/chimamanda\\_adichie\\_the\\_danger\\_of\\_a\\_single\\_story](https://www.ted.com/talks/chimamanda_adichie_the_danger_of_a_single_story)>.
- Agirre, Katixa (2018): *Amek ez dute*, Elkar.
- , (2009): «Troiako behorak», *Argia*, 2009-06-21.
- Alario Trigueros, Maria Teresa (2008): *Arte y feminismo*, Nerea.
- Aleksievitx, Svetlana (2017): *Gerrak ez du emakume aurpegirik*, Elkar.
- Alvarez Uria, Amaia (2011): *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzezlanetan*, EHU [argitaragabea], <[http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Amaia\\_Alvarez\\_TESIA.pdf](http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Amaia_Alvarez_TESIA.pdf)>.
- Amoros, Celia (1987): «Espacio de los iguales, espacio de las idénticas: notas sobre poder y principio de individuación», *Arbor*, 503-504.
- Azkune, Iñaki (1976): *Katalin Erauso*, Gero.
- Beard, Mary (2014): «The Public Voice of Women», *London Review of Books*, 6, 11-14.
- Bourdieu, Pierre (2006): *La dominación masculina*, Anagrama.
- Chesler, Phyllis (2018): *Women and Madness*, Lawrence Hill Books.
- Coria, Clara (2012): *El sexo oculto del dinero*, Red Ediciones.
- Despentes, Virginie (2017): *King Kong teoria*, Eskafandra, Jakin-Elkar, Donostia.
- Ellman, Mary (1968): *Thinking about Women*, Brace & World, Harcourt.
- Eskisabel, Idurre (2017): «Bularretakoaren zartailukada», *Berria*, 2017-10-25.
- Federici, Silvia (2017): *Caliban eta sorgina*, Eskafandra, Jakin-Elkar, Donostia.
- Goikoetxea, Jule (2014): *Tractatus*, Susa, Zarautz.
- Goikoetxea, Jule et al. (2019): *EAEko Demokrazia Patriarkala*, Emakunde.
- Gopegi, Belen (2011): *Tiroa kontzertuaren erdian. Eleberrietan politikaz aritzeari buruz*, Txalaparta.
- Iguaran, Oihana (2018): «Prezioa eta balioa», *Bertsolari*, 2018-10-19.

- Imaz, Virginia (2005): «Género y humor. La triple transgresión», *Emakunde*, 2005eko ekaina.
- Jong, Erica (1973): *The Artist as Housewife*, Warner Paperback Library.
- Juhasz, Suzanne (1976): *Nakees and Fiery Forms: Modern American Poetry by Women, A New Tradition*, Harper & Row.
- Labaka, Ane (2017): *Bertsolaritzan garaturiko umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik*, EHU [argitaragabea].
- Labaka, Ane (2018): «Gure aitak», *Berria*, 2018-10-28.
- Laborde, Denis (1998): *Une archéologie du bertsularisme, Antoine d'Abbadie 1897-1997*, Congrès International, Eusko Ikaskuntza
- Loidi, Arantzazu (1990): Ordiziako bertso jaialdia, <<https://bdb.bertsozale.eus/es/web/bertsoa/view/iqg2g>>.
- Pollock, Griselda (1999): *Differencing the Canon: Feminism and the Writing of Art's Histories*, Routledge.
- Reuben, Eleine (1972): «Can a Young Girl from a Small Mining Town Find Happiness Writing Criticism for the New York Review of Books?», *College English*, 34, 1, 1972ko urria.
- Rich, Adrienne (1977): «Conditions for Work: The Common World of Women», *Heresies*, 3.
- Rodriguez, Eider (2009): «Ni ez naiz feminista», *Argia*, 2009-06-07.
- , (2019): *Idazleen gorputzak*, Lisipe 6, Susa, Zarautz.
- Russ, Joanna (2018): *Cómo acabar con la escritura de las mujeres, Dos bigotes/Barrett*.
- Sariugarte, Danele (2018): «Eider Rodriguez: idaztean, asko gozaten dut errealitate-zati infinitesimalak hartuz, halako Frankenstein batzuk egin, eta ibiltzera bultzatuz», *Hitzen Uberan*, 2018-09-14.
- Schor, Mira (2007): *Autoridad y aprendizaje, Crítica feminista en la historia del arte*, Universidad Iberoamericana.
- Smith, Zadie (2018): «Zadie Smith interview: on shame, rage and writing», Louisiana Channel, <<https://www.youtube.com/watch?v=4LREBOwjrrw&t=7s>>.
- Valcarcel, Amelia (2012): «El derecho al mal», *Antología del pensamiento feminista español: (1726-2011)*, Servei de Publicacions.
- Wittig, Monique (2017): *Pentsamendu heterozuzena*, Susa, Zarautz.
- Woolf, Virginia (2013): *Gela bat norberarena*, Consonni.
- Yarbro, Chelsea Quinn (1975): *Khatru 3 & 4*, Phantasmicon Press Publication.
- Zubiri, Harkaitz eta Aierdi, Xabier (2018): *Bertsolaritzaren azterketa soziologikoa 2005-2018*, EHU [argitaragabea].



*Doinua: Herri txikien negu gordina*

Ez da bakarrik emakumeok  
bertsotan badakigula  
bertsolaritza parekiderantz  
zuzendu dugu brujula  
bakarka ez da erraz probatzen  
gozamenaren pilula  
kolektiboki ahaldunduta  
aldatzen da pelikula

**Izarne Zelaia Arratibel**



# Emakume\* bertsolari garaikideak. Ahalduntze-prozesu baten kontaketa posible bat

*Miren Artetxe Sarasola*

«El feminismo nos ha nutrido, nos ha abierto puertas, ventanas; hemos visto cosas que no veíamos, pero lo que queremos es cantar y pasarlo bien, simplemente».

Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo<sup>1</sup>

Ez du hain aspaldi *emakume bertsolaria* oximoron bat zela. Gaur egun, ordea, edozein euskaldunek esango dizu Ane Labaka, Aroa Arrizubieta, Eli Pagola, Jone Uria, Nahia Sasco, Nerea Ibarzabal eta beste asko bertsolariak direla, inolako krakateko kontzeptualik gabe.

Ukaezina da, ordea, oraindik bertsolari hegemonikoa gizona dela eta bertsolaritzaren sistema bertsolari hegemoniko horren inguruan eratu eta eratzten dela, neurri handi batean (Larrañaga, 1994; Hernández, 2006). Izan ere, bertsolaritza ez da gizartearekiko modu isolatuan garatzen den praktika sozial eta kultural bat, eta beraz, gure gizartea goitik behera zeharkatzen duen genero-sistemak zeharkatzen du bertsolaritza ere.

Baina, oximoron bat gorpuztetik kontzeptu bat zabaltzerako bide horretan, bertsolaritzak berak hainbat eraldaketa jasan ditu, genero-perspektibatik begiratuta. Eta bertso-munduko emakumeak izan dira eraldaketa horien sustatzaile, modu diseinatuan zein intuitiboan, indibidualki zein kolektiboan.

Lan honetan, batez ere azken hamabost urteetan emakume bertsolarien ahalduntze-prozesuan mugarriztat ditudan batzuei buruzko irakurketa bat proposatzen dut. Zein aldaketa izan diren eta nora heldu garen azaltzea baino areago, hona heltzeko eman diren zenbait gertakari, une zein gune gako aztertu nahi nituzke. Bistan da, gizartean gertatu diren aldaketek eragin badute ere bertsolaritzaren azken urteetako garapenean, baina, kasu honetan bertso-munduko eragileen ekimenez emandako zenbait aldaketa-une eta gune izango ditut aztergai. Eta bertso-

---

1. Contenedor de feminismos (2014): Docu-acción para el contenedor de feminismos. conversación con bertsolaris [bideo-artxiboa]. <<https://www.youtube.com/watch?v=XRhd4wi8T5E>>.

munduaren baitan ibilbide pertsonalek eragin badute ere, bai bertsogintzan eta bai bertsolaritzaren sistemaren egiturari, artikulu honetan —neurri batean ala bestean— modu kolektiboan garatu diren ekimenetan jarriko dut arreta<sup>2</sup>.

Horretarako, ezagutza kokatuaren perspektibatik, eta ikuspegi autoetnografikoa aintzat hartuz<sup>3</sup>, erabilitako diseinu metodologikoa behaketa zuzenean, emanaldien analisisan, emakume bertsolariei bidalitako inkestetan<sup>4</sup> eta analisi dokumentalean oinarritu dut.

### **ICEBERGA. GAILURRA, URPEKOA ETA KORRONTEA**

Icebergaren metaforak ederki isla dezake begi-bistako egoera jakin bat eman dadin azpian dagoen guztia. Esan bezala, bertsolaritza asko aldatu da —genero-perspektibatik begiratu gero, besteak beste— azken hamarkadetan. Bertsoeskolen bidez emakumeak plazan agertzea zilegi izateaz gain ohiko bihurtu da, emakume-ahotsa izateak ez gaitu bertsotarako ezgai bilakatzen *de facto*, oro har gaiak emakumeen presentzia potentzialera egokitu dira, eta saioetan —plazan zein txapelketan— emakume bat baino gehiago ikus daiteke martxoaren 8a ez denean ere. Anekdotikoak izan daitezke zenbait aldaketa beren hutsean, baina, esan daiteke egiturazko aldaketak islatzen dituztela. Ez da noski gauza bera, aukera-berdintasunaz ari bagara, emakume bertsolari ala gizonezko bertsolari izatea, gizarteak zein bertsolaritzaren sistemak berak jartzen dituen mugak direla medio. Baina, bada icebergaren puntan jarriko nukeen ideia bat gertatu diren aldaketen azken erpin gisa identifikatzen dudana: emakumeak bertsolaritzara egokitzeaz gain bertsolaritzaren sistemak berak ere emakumeentzat inklusiboago izan behar duela aldarrikatzea politikoki zuzena bilakatzen ari da.

Esango nuke, gaur egungo bertso-mugimenduaren baitan badagoela genero-perspektiba aintzat hartu behararen kontzientzia bat, bederen, eta kontzientzia horretatik abiatuta hainbat moldatze-saiakera ikusten ari garela gure inguruan. Ez ahaleginik gabeak. Ez erresistentziarik gabeak ere. Baina, batez ere, maila diskurtsiboan, ideia politikoki zuzena bilakatzen ari da —eragile guztiengan ez bada

2. Esaterako, Maialen Lujanbioren ibilbideak (Euskal Herriko txapela lortuz 2009 eta 2017an) zuzenean bertsogintzan eta bertsolaritzaren sisteman eta zeharka emakume bertsolarien ibilbide indibidualetan zein kolektiboan izan duen eragina ez dut artikulu honetan aztertuko, prozesu horretan gako izan arren. Izan ere, fokua elementu kolektiboetan jarri izanak motibazio pragmatiko bati erantzuten dio: bertso-mugimenduko kide eta feminista naizen aldetik, testu honek emakume bertsolarion gogoetak elikatzeke balio izatea nahi nuke, bere neurri xumean, aurrera begira bertsolaritza parekide(ago) bat lortze aldera kolektiboki eman ditzakegun urratsez hausnartzen jarraitzeko.

3. Jone Miren Hernándezek (1999) edo Mari Luz Estebanek (2004b) azpimarratu izan duten gisan, ikerketa-prozesua ezin da norbere esperientziatik erabat bereizi. Ezta nahi ere: uste dut nire esperientzia propioarekiko irakurketa kritikotik abiatzeak aberastu dezakeela *bestearen* ulermenari.

4. Hainbat emakume bertsolariri lau galdera pausatu nizkien, idatziz eta modu irekian erantzuteko. Funtsean, ahalduntzearen definizio propio bat emateko, bertsolari eta emakume gisa ahalduntzeko baliagarri izan zaizkien une eta guneak identifikatzeko eta prozesu horretan bertan zeren falta sumatzen duten gogoetatzeko eskatzen nien. 23 kidek erantzun zieten galderei. Eskerrik asko deniei.



ere, eta eragiletik eragilerara oso maila ezberdinean izanik ere— bertso-munduak berak baduela ardura bat, hain zuzen ere, bere sistema egokitzeko emakume bertsolariengana.

Idea hori ur-azaleratzeko, ordea, bide bat egin da, esan bezala. Gizartean akademia eta mugimendu feministari esker maila diskurtsiboan zein praktikoan egin diren aldaketek gain, besteak beste emakume bertsolariek haien beharrei erantzuteko modu formal zein informagoan, kontziente zein inkontzienteagoan, modu indibidual zein kolektiboagoan garatutako hainbat ekimeni esker izan da aldaketa, hain zuzen ere. Eta bide horretan mugarri izan diren zenbait elementu aipatu nahi nituzke: lehen erreferenteen ekarpena, emakume bertsolarien saretzea, eta teorizazio zein praktika feministak bertsolaritzara ekarri izana. Azkenik argudiatuko dut ibilbide hau ahalduntze<sup>5</sup>-prozesu bat dela, funtsean, eta zenbait gogoeta plazaratuko ditut etorkizunera begira ahalduntzen jarraitzeko bide posibleez.

### ***LEHEN ERREFERENTE GARAIKIDEAK***<sup>6</sup>

Azken hamabost urteetako ibilbidean —eta bereziki ekimen kolektiboetan— sakondu nahi badut ere, ezin bertsolaritza garaikideko lehen emakume erreferenteak aipatu gabe utzi.

Amaia Otsoa, Kristina Mardaras eta Arantzazu Loidi izan ziren bertsolaritza garaikidean plazan kantari ikusi genituen lehen emakumeak 80ko hamarkadan. Bertso-eskolak martxan zeuden ordurako, eta plazaratzen hasi zen belaunaldi berriak neska zein mutil gaztez osatuak ziren. Hala plazaratu ziren, beraz, 90eko hamarkadan, Estitxu Arozena, Iratxe Ibarra, Ainhoa Agirreazaldegi edo Maialen Lujanbio, beste hainbaten artean.

Emakumeen ahotsa eta gorputza oraindik gudu-zelai direla esan liteke, emakume bertsolariak ez hegemonikoak izatearen arrazoi nagusietako bat haien gorputza bera izanik<sup>7</sup>, eta ahotsa ere gorputz gisara ulertuz. Pentsa liteke, beraz, orduko emakume bertsolariek ere hainbat aurreiritziren eta taburen aurka azaldu

5. Kontziente naiz ahalduntze kontzeptua erabiltzeak ekar dezakeen lausotasunaz eta lausotasun horren arriskuaz (Esteban, 2017). Hitz egingo dut aurrerago, hain justu ere horretaz. Esan dezadan, hala ere, kontzeptu hori erabiltzea erabaki dudala, 2003an Euskal Herrira heldu zenetik bertso-munduan aski erabilia izan delako, eta eremu horretan kontzeptuaren zenbait polisemia neutralizatzen direla ulertzen dudalako, arriskuak mugatuz.

6. Emakume bertsolariak izan dira bertsolaritza bertsolaritza denetik. Izan, bertsolaritzaz dugun lehen aipamena, emakume bertsolariei bertsotan aritzeko debeku bat da. Bertsolaritza modernoaren abiaburu jotzen diren XIX. mendeko desfioetan ere aritu ziren emakumeak kantari. Baina, bertsolaritza paisaiaren parte izatetik kultura izatera pasa ahala (Laborde, 2005), eta aldi berean bertsolariaren definizioa bat-bateko jardunari hertsiki lotu ahala —eta ez hainbeste idatzizkoari— (Larrañaga, 1997), emakume bertsolarien izenak desagertzen joan ziren garaiko kronika zein historiako liburuetatik. XX. mendearen bukaerara arte itxaron behar izan genuen, berriz ere emakumeak bat-batean eta eremu publikoan kantari entzuten hasteko.

7. Funtsean, «gorputz emeak ez baitira bertsoetarako bizitoki» (Hernández, 2016: 17). Gai honi buruz sakontzeko, ikusi, baita ere, Mari Luz Esteban, 2004a eta Alberdi, 2014.

behar izan zutela publikoki haien gorputz eta ahotsez, bertsolaritza haien presentziara moldaraziz unean uneko eta tokian tokiko neurrian —onarpenetik besterik ez bada ere—, halabeharrez.

Emakume bertsolari haien subertsibitatea ez zetzan soilik gorputz haiek oholtzaratzean, ordea. Gatazka diskurtso mailara ere eramán zuten. Tentsio hari hitzak jarri, lehen aldiz, eta lehen pertsonan. Izan ere, gorputz haiei esker, emakumeek hitz egin zezaketen lehen aldiz emakumeen paperetik (egozten zitzaizkien gai gehienek hala eskatzen zietenez, besterik da emakumeen paperetik baizik ez zitzaizela hitz egiten uzten), baina, ez soilik emakumeez; baita, esaterako, bertsolaritzaz ere<sup>8</sup>.

Diskurtso mailako tentsio horrek ere ekarri zituen aldaketak, gizon bertsolarien emakumeekiko diskurtsoa ere doitzuz. Ez, berehala eta ez erabat, noski. Baina zuzentasun politikoaren mugak mugitu zirela ez dago zalantzarik. Gizarte mailan garaiak aldatzen ari ziren, noski; eta Karine Etxeberri argi adierazten duen gisan, «la problématique de l'égalité des sexes dans le mouvement du bertsolarisme passe également par une contextualisation du mouvement des femmes» (Etxeberri, 2015: 47)<sup>9</sup>. Eta bertsolaritzaren baitan garai-aldaketa eman zedin, emakume haiek izan ziren barne-palanka<sup>10</sup>.

8. Honen adierazletzat jo daiteke zentzu horretan 1993ko Bertsolari Egunean Lujanbiok, Ibarrek eta Arozenak osatu zuten saioa, eta, bereziki, Arozenaren bertsoa:

Eguna: 1993-01-24

Lekua: Donostia

Arozena:

Emakumeok mikrofonoan  
jaso izan dugu burla.  
Gaur ere batzuk haserre daude,  
ezin dute disimula.  
Ni ziur nago egunen baten  
erakutsiko dugula  
bertsolaritzak barrabilekin  
zerikusirik ez dula.

9. Besteak beste, Euskal Herriko Jardunaldi Feministen hiru edizio igaro ziren ordurako (1977, 1984 eta 1994an) eta euskal mugimendu feminista indarra hartzen hasia zen (Zabala, 2008; Epelde, Aranguren & Retolaza, 2015).

10. Garai-aldaketa horren adierazle da, besteak beste, Andoni Egañaren 1997ko Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako belodromoko agurra:

Eguna: 1997-12-14

Lekua: Donostia

Bertsolaria: Andoni Egaña

Jardun mota: Agurra

Ez da bakarrik Belodromoko  
jendetza honen disdira  
bertsolaritza aurrera doa  
emakumeen harira  
82ko Txapelketari  
jarri gaitzen begira  
orduan gaitzat hartzen genitun  
ta orain eurak gai dira.

Alferrik azpimarratuko dugu zenbateraino eragin dezakeen praktika batean aurrera egiteko garaian erreferenteak izateak. Edo beharbada zehatzago, erreferenterik ez izateak. Estitxu Eizagirrek honela kontatzen du nola eragin zion Maialen Lujanbio erreferentzia gisa izateak:

Gu bertsotan hasi ginenean idatziz hasi ginen, eta oso engantxatuta geunden idatzizkora. Eta joan ginen Eskolarteko Txapelketa batera, eta hor ikusi nuen lehenengo aldiz neska bat kantuan. Eta gogoratzen naiz 8 urterekin pentsatu nuela, «ah, klaro, posible da neskek ere kantatzea». Eta hurrengo pentsamendua izan zen: «ba, baina futboleko bezala, umeak diren bitartean bai, bai baina gero profesionalik ez dago». Handik urte batzuetara lehen aldiz ikusi nuen telebistan Maialen, eta orduan sortu zen nire problema, ikusi bainuen posible zela Lizasoren aldamenean neska bat egotea, eta handik aurrera ezin nuela beti idatzizkoan eta bakarrik eta nire gustuko koadernoarekin segi, eman behar nuela pausoa jendaurrean kantatzeko eta bat-batean aritzeko, eta niretzako hori problema bat izan zen (Euskal Irrati Telebista eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak; 2005).

Erreferenteak izatea ez da aski, ordea, gizon bertsolaria hegemonikoa den sistema batean emakume bertsolariek dituzten oztopoak birsortu ez daitezkeen hurrengo belaunaldietan. Ikuspegi aski *naïf* batetik pentsa liteke, izan ere, behin batek sasiak erreta atzetik datorrenak ez duela izango non trabatu. Carmen Larrañagak ederki azaltzen du, alta, Egañak agur hura bota zuen urte berean, nola zenbait erreferente existitzeak berak ez duen uste bezainbat errazten ondorengoek egin beharreko bidea:

Y se insiste en que después de ella [Kristina Mardaras] transitar la senda del bertsolarismo resulta mucho más fácil para las pocas improvisadoras que le han sucedido. Esto es cierto sólo parcialmente. La historia enseña que antes que Mardaras hubo otras bertsolaris con destreza suficiente para ganar hasta concursos de plaza, sin que la participación de aquéllas forzara un equilibrio entre los dos géneros (varones y mujeres) en el ejercicio del bertsolarismo (Larrañaga, 1997: 60).

Bertsolaritzaren sistema bera zalantzan jartzeko, eta bertsolaritzaren sozializazio-eragileek genero-perspektiba aintzat hartzeko, ez da aski emakume jakin batzuek eginiko bidea, halakorik gabe inolako aurrerapenik egin ezin bada ere. Badira aldaketarako bidean gako izan diren beste hainbat faktore.

## **SAREAREN LEHEN KORAPILOA**

Gaur egun —orain dela berrogeita hamar urte ez bezala— gaztetxo bat bertsolaritzara murgiltzeko modua, etxetik ez bada, bertso-eskolatik izan ohi da, maizenik. Han bildu ohi da bat astero —ordu pare batez edo— taldekideekin, bat-batean bertsotan egiten ikasteko<sup>11</sup>. Baliteke gerora plazara jauzi egitea; ala ez. Baina, bertso-eskola, adin batetik aurrera, taldean eta bat-batean egiteko lekua izan ohi da, funtsean. Taldea

11. Haurren bertso-eskoletan ohikoa da hasiera batean idatzizko trebakuntza lantzea lehenik, eta ondoren bat-bateko jardunera jauzi egitea. Gaztetxoaren bertso-eskoletan, gehienetan, bat-bateko trebakuntza da jarduera nagusia.

da bertso-eskolaren oinarria. Taldekideen arteko harremanek definituko dute bertso-eskolako giroa, eta bertso-eskolako kideak izango dira, bertso-mundu zabalagoan sozializatzeko norbere bidaide. Besteen edo bertso-eskolako kideen bertso-saioak entzutera joateko. Beste bertso-eskoletako jendea ezagutzeko. Bertsolaritzaz eta bertso-munduaz hitz egiteko. Norbere zaletasuna konpartitzen duen jendearekin sozializatzeko, hots.

Kontua da, haurren bertso-eskoletan ohikoa dela mutil adina neska izatea taldean, baina, adinean aurrera egin ahala, normalena neska baino mutil gehiago izatea dela, oraindik ere. Idatzizkotik bat-baterako eta talde itxitik publikorako jauzian gertatzen da maizenik desoreka: neska askok bertso-eskola uzten dute (Latasa, 2010). Faktore asko izan litezke fenomeno horretan eragiten dutenak —gizarte mailakoak, eta berariaz bertsogintzari eta bertso-munduari dagozkionak elkarreraginean, ziurrenik— eta azterketa sakona merezi lukete, baina kontua da neska asko eta asko bertso-eskolako neska bakarrak izan garela adin batetik aurrera.

Ondorioz, oso gutxitan izan dugu neska bertsolariok beste neska bertsolariekin kantatzeko, hitz egiteko zein egoteko aukera. Halakorik gertatzen zenean, gainera, maiz lehia testuinguruan izaten zen, izan eskolarteko txapelketan, izan gazte-sariketaren batean. Gure garaian ez zen udalekurik edo bertsolaritzaren inguruko aisialdiko eskaintza berezirik gure adinekoentzat. Ez zen batere ohikoa bertso-saio batean neska batek baino gehiagok kantatzea —martxoaren 8a ez bazen—, eta asko ziren oraindik batere neskarik gabeko saioak.

Horregatik izan ziren mugarri bat 2003an egin ziren emakume bertsolarien topaketak. Hogei hogeita hamar urte inguruko hamabost bat emakume elkartu ginen. Eta gutariko askok ez genuen elkar ezagutzen.

Askizuko asteburu-pasarako intuizioari segi genion, bagenekien gai horren atzean bazegoela zerbait, baina ez genekien zer [...]. Noski, bertso munduko nesken zerrenda bat egin, eta ezagutu ere egiten ez ginenok e-mailez hizketan jartzea «artifiziala» izan zela, edo «antolatutakoa», ez berezkoa. Bai, asteburu pasa hartan elkartu gintuena bertsoa eta emakumetasuna izan zen (Eizagirre, 2004: 2).

Asteburu hartan emakume bertsolari gisa geneuzkan bizipenak konpartitu genituen. Ez modu antolatuan. Gai-ordena idatzirik gabe. Non sentitzen genituen mugak. Geure buruak jarritakoak ala kanpotik ezarriak ote ziren.

Estitxu Eizagirrek topaketa haien kronika batean orduan aipatu kezka batzuk zerrendatzen ditu:

Zertarako deitzen digute, genero kupoa betetzeko edo gu garelako? Txarra da neskak garelako deitzea? [...] Norengan pentsetzen du gai-jartzaileak gaiak jartzean? Zergatik tokatzen zait beti emakumearen papera? Zergatik kostatzen zaie hainbeste bertso-eskoletako neskei plazara ateratzea? Sentitzen duten lotsa, beldurra, paniko eszenikoa... zerk eragiten du? Estilo propioa dut bertsotan edo [gizon bertsolaria] imitatzen nabil? Zergatik entzun behar izaten dut gure inguruan emakumearen arazoa

gaindituta dagoela? Gizartea matxista bada, posible al da bertsolaritza kutsatu gabe egotea? Nahi dugun bezalakoak gara plazan? Batzuk bide bazterrean geratu dira... zergatik? (Eizagirre, 2004: 1-2)

Nire baitako bi leherketa oroitzen ditut. Lehena, beste emakumeen bizipenek, galderek eta kezkek nire bizipen, galdera eta kezkekin zuten antzekotasun —orduan nire ustez— harrigarriaz konturatu izana. Gogoan dut nola aipatzen zen korapilo eta gatazka bakoitzak zuen oihartzunen bat nigan.

Konstatazio hark bere baitan zekarren bigarren leherketa: bazegoen egitura bat nire eta emakume haien bizipenak antzeko egiten zituena. Jolas ez neutro batean aritzearen sentipen —neurri batean— askatzaile bat dut gogoan. Ez naiz ni. Egitura da. Eta egitura horretan, ez geunden lekurik onenean —hori onartzea errazagoa da norberak ezintasun edo ezgaitasun berezko bat duela sentitzea baino—. Analisia baldarra bezain argia zen, orduan: gizonek egiten zutena egitea zen bertsolari izatea, gure ulermenean; baina, guk ezin genuen gizonek egiten zuten guztia egin. Ez ezin genuelako, zilegi ez zitzaigulako baizik. Ez zuen funtzionatzen. Umorearen eta hizkeraren mugek estuago inguratzen gintuzten<sup>12</sup>. Beste bertsolarien zein publikoaren begiradak ez zebiltzan gure talentuaren bila. Guk ederki egiten genuen, *neskak izateko*<sup>13</sup>. Joko-arauak ez ziren berdinak denontzat eta guretzat zailagoa zen edozein lorpen; lorpena gozamina besterik ez izanik ere.

Harrigarria izan liteke, Bertso Egun hartan Arozena, Ibarra eta Lujanbioren saiotik hamar urte besterik pasa ez zirenean, eta bertsolaritza oraindik ia erabat gizonezkoek kudeatzen zuten praktika zen garaian, bertsolaritzaren baitako genero-egitura ebidentzia bat ez izatea gutako askorentzat. Baina, paradoxa hau aplikagarria da, tamalez, bestelako praktika kultural eta sozial guztietara, eta gurea ez zen salbuespena izan. Gainera, garai hartan Askizun elkartu ginen bertsolariak ez ginen aitzindarietakoak izan, eta horrek gure esperientziak itxuraz leunagoak egin zituen. Ez ginen hutsetik ari. Guri ez zitzaigun hain maiz egokitu, egokitu bazitzaigun inoiz, plaza jakin batean kantatu zuen lehen emakumea izatea edo inongo arauak aldatu

12. Iratxe Ibarrek aipatuak zituen joko-arau asimetrikoak, Arozena eta Lujanbiorekin batera Bertsolari Egun sonatu hartan kantatu zuenean:

Erabiltzen den hizkerak ere  
badu nahiko zerikusi  
guk neskok kontu horretan behintzat  
ez baitugu hola bizi  
nahiz ta gizonek kristonak esan  
beren grazi eta guzi  
*de puta madre* geratzen zaie  
ta guri berriz itsusi.

13. «Neska batek bertsotan ondo egiten duela errekonozitu dezan jendeak, hiru aldiz ona izan behar duela. Behin ona izatea ez da nahikoa. Lehenengo urte dezentetan, “neska izateko ona dek”. Gero beste urte mordoxka batean, “ba, nesken artean onentsuna”. Eta gero agian irits zaitezke noizbait ona izatera, bertsolari izatera. Orduan, hiru aldiz ona izan behar duzu, noizbait esan dezaten “bertsotan egiten du”, ez jada ona edo txarra, bertsotan egiten du, baizik» (Lujanbio, 2007).

behar izatea gu sartu ahal izateko. Gu kantari hasi ginenerako ez zen politikoki zuzena esatea emakume batek ezin zuela bertsolari izan. Muga gardenen garaia zen, ordurako<sup>14</sup>.

Jone Miren Hernándezek, bestalde, azpimarratzen du nola Joxerra Garzia, Jon Sarasua eta Andoni Egañak baieztatzen duten bertsolaritza garaikideari buruzko ordura arteko libururik erreferenzialenean «emakume bertsolarien presentziak aspaldi utzi zio[la] anekdota aipagarri izateari» (Garzia, Sarasua & Egaña, 2001). Bertso-munduan hegemonikoa zen diskurtsoak ez gintuen esplizituki baztertzen. Baina, ustezko normalizazio batera heldu izanaren usteak zailtzen zigan oztopoak ikusi, identifikatu eta izendatzea, hain zuzen ere.

### **TEORIZAZIO FEMINISTAK BERTSOLARITZARA, ETA BERTSOLARITZA FEMINISMORA**

El análisis de la (re)incorporación de las mujeres a nuevos espacios requiere ir más allá de la importancia que tiene el número de mujeres que participan en la actualidad, para pasar a analizar los mecanismos de segregación, de desigualdad, que son mucho más sutiles y por ello más difíciles de detectar. Proviene de universos donde la desigualdad ha impregnado formas de estar, de vestir, de actuar, de gestualidad, de competir, de la resolución dialéctica, de emocionarse. De ahí que resalte que la mirada desde la antropología feminista puede poner de manifiesto las estructuras profundas que actúan en las expresiones, la lengua, los símbolos, el imaginario y que solamente desde ese análisis es posible descubrir los sustratos de las diferencias que se traducen

---

14. Arozenak berak, 1993ko saio hartan botatako bertsoaz galdetu zionean Manolo Arozena aitak, sei urte berantago, 1999an, Goizuetan (Nafarroa), egitura ikusezinak aipatu zituen:

Eguna: 1999-08-17

Lekua: Goizueta

Gai-jartzailea: Manolo Arozena

Jarduera: Bakarka gaia-emanda

Oinarri txarrak baldin baditu  
aldatzen dira ohiturak;  
bidetxorrik ez izan arren  
bidea egin du urak.  
Haseran garbi izan genitun  
ere du eta helmugak,  
arriskutsuen bihurtu dira  
ikusten ez diren mugak.

Loidiri berari ere, 1995ean *Bertsolari* aldizkariak «Emakumeak Plazara» deitu zuen emakume bertsolariei buruzko monografikoan egin zioten elkarrizketan, hala galdetu zioten: «Zuk kantatzen zenuen garaian eta orain emakumearen egoerak bertsolaritzan ezaugarri berdinak al ditu?» Eta hauxe izan zen bere erantzuna:

«Nik uste dut hobetuz doala, oztopo batzuk gainditu direla uste dut. Lehen irten behar izaten genuen emakumezkook belo baten antzerako zerbait pasatu behar izaten genuen. Orain gauzak gardenago egiten dira. Ez dago inolako hormarik apurtu beharrik plazatan kantatzeko. Horretan aurreratu da. Baina, gauza batzuk, oso sutilak, halaxe izango bailiran irauten egiten dute [...]» (Loidi, 1995).

en desigualdades, en éste caso, en el acceso en igualdad a los espacios de poder y de prestigio (Del Valle, 2012: 12).

Askizukoaz geroztik generoaren gaia mahai gainean zegoen bertso-munduaren baitan ere. Horren erakusle dira, esaterako, 2005ean *Hitzetik Hortzera* programak emakumei buruzko saio monografikoa, hainbat emakume bertsolarik blog ezberdinetan argitaratutako artikulua, 2006an Onintza Enbeita, Iratxe Ibarra eta Oihane Pereak sorturiko *Emetik Bertso Kabareta* ikuskizuna, 2007an Maialen Lujanbio «Bertsolaritza emakumearen ikuspuntutik: bertsolaritza eta emakumea» izenburu zuen hitzaldia eman izana (Lujanbio, 2007), edo 2008an «Generoa eta Bertsolaritza» izenburupean *Argia* aldizkariak antolaturiko mahai-ingurua (Eizagirre, 2008-05-11), Genero Taldearen sorrera<sup>15</sup> besteak beste.

Horrez gain, ordurako antropologia feminista ere hasia zen bertsolaritzan gertatzen ari zenaz interesatzen<sup>16</sup> eta mugimendu feministak sendotzen jarraitzen zuen Euskal Herrian (Zabala, 2008; Epelde, Aranguren & Retolaza, 2015).

Baina, ordura arte bertso-munduaren baitan *bertsolari(tza)* eta *feminista* terminoak ez ziren sintagma berean batu —ez behintzat esparru akademikotik kanpora—. Ausardia hura Uxue Alberdi eta Ainhoa Agirreazaldegiri zor diegu. Bi bertsolari horiek, feminismoak, eta zehazkiago antropologia feministak eskaintzen dizkigun lanabesak erabiliz eta genero-sistemak gizartean izan ohi duen eraginaren translazio bat eginez, ordura arte han eta hemen azaleratutako hainbat gai berrartu zituzten diskurtso feministatik interpretatuz, eta teoria feministatik bertsolaritzari begiratuz analisirako gako berriak proposatu zituzten. «Bertsolaritza: Begirada feminista bat» deitu zuten hitzaldia berrogei aldiz baino gehiagotan eman zuten 2010 eta 2015 bitartean. Akademiatik eginiko proposamenak kalera jaitsi zituztela esan liteke.

Hitzaldi hartan, bestalde, bertsolaritza ez baztertzaila baten eraikuntzarako kontzientzia feministaren estrategikotasuna azpimarratzen zuten. Are gehiago, kontzientzia feministatik eginiko eraldaketak bertsolaritzari eginiko ekarpen gisa ulertzen zituzten, ez baztertzaila izateak berekin zekarrelako aberatsago izatea. Eta azkenik, aurrera begira jarritz mugimendu feministaren eta bertso-munduko eragileen arteko harremana proposatzen zuten, bi noranzkotan. Feminismoak tresnak eskaintzen zizkion bertsolaritzari sistema gisa parekideago bihurtzeko bidean, eta bertsolaritzak ere bazuen gizarte parekide baterako bidean zer eskaini. Lehen aldiz, bertsolari, emakume eta feminista ginen. Edo izan gintezkeen bederen.

15. 2008an bertso-munduan erreferentzialtasun handiena duen erakundearen barruan berariaz berdintasunaren alde lan egiteko lehen egitura sortu zen gogoeta-prozesu baten ondoren: Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Genero Taldea (Erkiaga, 2008).

16. Jone Miren Hernándezi zor diegu nagusiki interes hori garatu izana. Bera izan zen genero-sistemak bertsolaritza nola zeharkatzen zuen aztertzen lehena (Hernández, 2006). Eragina izan zuen halaber, Mari Luz Estebanek bertsolari emakumearen gorputzean jarri izana fokua (Esteban, 2004a). Ondoren etorri zen, besteak beste, Leire Ibagurennek emakumeek oholtzan zerabilten umoreari buruz egindako master-amaierako lana (Ibaguren, 2009).



Diskurtso hura formulatzeak mugimendu feministaren eta bertsolaritzaren arteko harremana eraikitzeke balizko agertoki posible bat agertoki erreal egin zuen. Hala, esaterako, mugimendu feministarekin harreman zuzenik ez genuen emakumeok feminisnotantz begiratzeraz eraman gintuzten<sup>17</sup>. Eta horrez gain, bertsolaritzako emakumeen esperientzia bestelako eremuetako emakumeen esperientziarekin parekagarri eginenez, bestelako eremuetako esperientziak bertsotara ekartzea ahalbidetu zuen akademiaren, mugimendu feministaren eta bertso-munduko eragileen arteko zubi-lan diskurtsibo hark.

### ***PRAKTIKA FEMINISTAK BERTSOLARITZAN. «EZ DA KASUALITATEA» ETA AHALDUNTZE BERTSO-ESKOLA***

Hala sortu eta garatu ziren, geroztik, bertsolaritzaren baitan ere zenbait praktika, diskurtso feministarik gabe justifikatzen zail gerta zitezkeenak. Esaterako, eremu ez-mistoak sortzea, topaketa haietatik kanpo, plazako jardunean zein oholztapeko trebakuntzan.

Testuingurua ez zen, dagoeneko, 2003koa. Bertso-munduan inoiz baino presentzia gehiago zuen generoaren gaiak, besteak beste, hitzaldi haren eraginez<sup>18</sup>. Eta plazari dagokionez, ekimen eraldatzaile bat sortu zen: saio ez-mistoak —edo nabarmenki emakumezko osaturikoak, bederen— «Ez da kasualitatea» saioak deiturikoak<sup>19</sup>, nagusiki. 2009an izen hori eman zitzaion emakumezko soilik osatutako saio musikatu bati, Mutrikun (Gipuzkoa) eta geroztik, formatua behin eta berriz errepikatu da, bereziki 2013tik aurrera indarra hartuz. Saio hauetan, emakumeok emakumeekin kantatzen dugu, eta kantatuaz bat ohartu gara zenbaterainoko eragina duen emakume bertsolariek elkarrekin kantatzeak. Hainbat eragin aipa litezke, baina, kasu honetan honakoak hartuko ditut aintzat: konfiantza-giroa eta norbere ahotsaren indarraren eta balioaren kontzientzia.

Alde batetik, saio hauetan bertsokideen artean egoten den giroa bereziki izan ohi da enpatiazkoa. Konplizitate keinuz zein hitzez erakutsi ohi diogu elkarri, oholztza azpian zein gainean. Eta saioz saioke esperientzia metatu horrek konplizitate-sare bat eraikitzen du (Labaka, 2017; Alberdi, 2015). Bestetik, bi elementu garrantzitsu: lehenik, saio mota honetan emakumezko bertsolariok saioke emakume bakarra garenean sentitzen dugun edo sentitu dezakegun ordezkartza-ardura galtzen dugu, sentitzen dugunean geure buruari ezartzen dizkiogun zenbait muga hautsiz.

17. «Nik, pertsonalki, feminisnotaren berri eduki badut, emakume bertsolariei esker izan da. Gertuen geratu zaidan iturria horixe izan da beti» adierazi zuen Nerea Ibarzabal bertsolaria 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren testuinguruan eginiko elkarrizketa batean (Ibarzabal, 2007-10-14).

18. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Genero Taldeak emakume bertsolarien topaketak antolatzeari ekin zion, eta 2013an berriz elkartu ginen Askizun, topaketa haiek urteroko elkargune bihurtuz. 2014an Bertso Eguna generoaren ingurukoa izan zen, 2015ean estreinatu zen *Bertsolaritzaren Sekretuak. Isilduriko emakumeen historia* ikuskizuna; hots, gaia hedatua zen dagoeneko, eta pil-pilean zegoen.

19. Izenburuak berak adierazten du, neurri batean, saioaren izaera: Ez da kasualitatea, hain zuzen ere, oholztzako bertsolari guztiak —ala ia denak— emakumeak izatea.



Eta bigarrenik, saio hauek emakumezko publikoa erakartzen dutenez maizenik, publikoarekiko mundu erreferentzial —hein batean— konpartituago bat sortu ohi da. Hala, bertsolariok beste saio batzuetan esango eta egingo ez genukeena egiteko askeago sentitu ohi gara (Labaka, 2017).

Azken batean, saio horietan sentitzen duguna konfiantza-giro bat da. Eta horrek berarekin dakar norbere buruarekiko konfiantzak ere gora egitea. Saio hauetan nola sentitzen den galdetuta, hala erantzuten dio bertsolari batek Alberdiri (2015):

Bereziki eroso. Ohiko saioetan sentitzen dut lehia bat, demostratu behar bat... Eta hauetan ez dut hainbeste sentitzen. Sentitzen dut nire ahotsak badaukala zeresan bat, eta horrek berak indarra ematen dit. Bestetik, oso motibatuta, eta motibazio horrek eramaten nau arriskatzera ere.

Eta ez da txikikeria konfiantzaren kontu hau. 2014ko emakume bertsolarien topaketan eginiko gogoeta kolektiboan geure buruei «Zer behar dut nik bertsotan ondo egiteko?» galdetu genienean, *konfiantza* izan zen ia aho bateko erantzuna (izan norberarengan konfiantza, izan konfiantzazko espazioak). Ohartu ginen kontziente ginela berez gai ginela bertsotan egiteko. Are gehiago, egin nahi genuela. Eta, ondo egiteko behar —eta neurri handi batean falta— genuena geure buruarengan sinestea zela<sup>20</sup>. Horretarako behar genituen geure buruarengan sinestera eramango gintuzten espazio gehiago. Ondorio horretatik abiatu zen, hain zuzen ere, bertso-munduko praktika feminista gisa defini dezakegun beste gune estrategiko bat: Ahalduzte Bertso Eskola.

Genero Taldeak proposatu zuen 2015ean emakume bertsolarientzako berariazko bertso-eskola bat sortzea, plazetan jardun nahi zuten bertsolariak *ahalduzteko* helburuarekin. Eredu horrek ere badu bere eragina norbere —eta taldearen— balioaz eta indarraz ohartaraztean, baita emakume bertsolarion kontzientzia hartzean eta saretzean ere<sup>21</sup>. Aurrez esan bezala, emakume bertsolariok ez dugu berariazko elkargune asko, eta gutxiago denboran erregularrak. Elkartzen garenean, plazan eta plaza-jiran izan ohi da, maizenik. Eta Ahalduzte Bertso Eskola —bertsotan trebatzeko esparru izateaz gain— gogoetak eta esperientziak konpartitzeko gunea da. Plazan ez bezala, publikotasunaren presiotik aske, gure jardunari buruzko hausnarketak egitea ahalbidetzen digu; perspektiba hartzea, azken batean.

Gure kezkek plazaratzen ditugu; bertso saioetan noiz egoten garen eroso eta noiz deseroso; zergatik deserosotasun hori; batzuetan gaiagatik izan liteke, landu gabe dugulako, edo bertso-kide batek zerbait formulatu duenean ez dakigulako nola erantzun... Egoera asko detektatu ditugu (Agirre, 2017-09-08).

20. Emakume bertsolariek bertsotan egiteari uzteko arrazoiei buruzko ikerketa batean Izarne Zelaia ondorioztatzen du emakumeek bertsotan egiteari uzteko arrazoi nagusietako bat, bederen, «konfiantza falta» dela (autoexigentziarekin eskuz esku), jakinik faktore hori egiturazkoa dela, eta hezkuntzan gertatzen den genero-sistemen erreproduzioan duela oinarria (Zelaia, 2015).

21. Oihana Iguaran bertsolariak honela dio Ahalduzte Bertso Eskolaz: «Emakume mordoia batu gara, elkarri entzunaz indartu gara, bakoitzak beretik zerbait eman dezakeela sinetsi dugu, konplexuak galduta» (Iguaran, 2017-10-31).

Badira praktika feminista gisa definitu ditudan hauei buruzko adierazpenetan elkarri oihartzun egiten dioten hainbat ideia. Batean zein bestean, plazan, gaiekiko, publikoarekiko, antolatzaileekiko, bertsokideekiko zein geure buruekiko sortzen zaizkigun krika-kraiki buruz hausnartzen dugu, eta hausnarketa horiek partekatu. Eta batean zein bestean, bertsotarako giro, tonu, eta umore mota berriekin esperimentatzen dugu, kontzienteki batzuetan, inkontzienteki bestetan. Teresa Del Valleren hitzak berrartuz, «todo un desafío que requiere y muestra empoderamiento y creatividad (Del Valle, 2012: 18)».

### ***BERTSOLARITZA PAREKIDE BATERANTZ AHALDUNTZEN. AZKEN GOGOETAK***

Azken urteotan bertsolaritzak aldaketak jasan baditu, genero-ikuspegiari dagokionez, emakume bertsolariok aurrera eramandako zenbait ekimeni esker izan da, neurri handi batean. Bertsolaritzaren sistema bera zalantzan jartzeko aski ez izanik emakume batzuek eginiko bidea —halakorik gabe inolako aurrerapenik egin ezin bada ere—, badira aldaketarako bidean gako izan diren beste hainbat faktore. Alde batetik, saretzeak eraman gintuen egituraz ohartzera, esperientziak konpartitu ahal izatera eta elkarren esperientzietatik ikastera. Bertsolaritzara ekarritako teorizazio feministek mugimendu feministaren eta, bertsolaritzaren arteko zubi-lana eraiki zuten, bertsolaritzako emakumeen esperientzia bestelako eremuetako emakumeen esperientziarekin parekagarri eginez, eta beraz, bertso-mundutik kanpoko praktika feministak bertsotara ekartzea ahalbidetuz. Hala, plazan zein plazaz kanpo, emakumeen arteko bertso-saio edo bertso-eskoletan, bertsolaritza ulertzeko modu berriak ari gara gorpuzten.

XX. mendean plaza-gizonaren eredia nagusitu zen. Eta XXI. mendean? Aurreikuspen bat: bertsolaritza definizio berri baterantz doa eta, honetan, emakumeen ekarpena ezinbestekoa izango da. Emakumeen bizipenaz, emozioez, doinuez, nahiez eta aldarrikapenez beteko dira bertsoak, denon bertsolaritza irudikatu ahal izateko (Hernández, 2011: 3).

Hau hasiera besterik ez da eta bertsolaritza parekide batera heltzeko bide luzea eta zabala dugu, Hernándezek ongi adierazten duen gisan (2016). Genero-sistemak goitik behera zeharkatzen du bertsolaritza, eta genero-dikotomian oinarrituriko bereizkeriak bertsolaritzaren baitako esparru guztietan ematen dira (Hernández, 2016). Egoera horretan, norbanako gisa bertsogintza eta bertso-mundua gozamen-esparru nahi baditugu, eta hala izan daitezen nahi badugu gure gaur egungo eta etorkizuneko bertso-kideentzat ere, ezinbestekoa zaigu kantuan jarraitzea —ahal bezainbat, ahal bezain ongi, eta batez ere ahal bezainbeste gozatuz—, bertsolaritza genero-sistemak nola zeharkatzen duen kritikoki aztertzen jarraitzea, eta sistema horren oreka haustea; hots, ahalduntzea.

Zentzu horretan, Kate Young-en antzera, ahalduntzea emakumeen subordinazio-posizioa erreproduzitzen duten prozesu eta egituren aldaketa erradikal gisa ulertzen badugu (Young, 1997: 104-105) —eta emantzat jotzen badugu nahiago dugula eraldaketa horiek epe laburragoan gertatzea luzeagoan baino— erraz uler genezake norbanakoen ahalduntzeaz gain beharrezkoak direla ekintza kolektiboak (Young, 1997: 105).

Las mujeres se tornan empoderadas a través de la toma de decisiones colectivas. Los parámetros de empoderamiento son: la construcción de una autoimagen y autoconfianza positiva, el desarrollo de la habilidad para pensar críticamente, la construcción de la cohesión de grupo y la promoción de la toma de decisiones y la acción (Programa de Acción de la Política Nacional sobre Educación del Gobierno de la India, 1986 in Young, 1997: 123 ).

Ahalduntzea kontzeptu gisa erabilia bezain anbigua bilakatu da, ordea, azken urteotan (Esteban, 20017), baita bertso-munduan ere. Eta ahalduntzea nola definitzen dugun, halako analisia eta balorazioa egingo dugu emakumeen ahalduntze-prozesuaz ere. Deigarria zait nola egitura kolektiboetan parte hartzen dugun emakume bertsolarion diskurtsoetan ere, oraindik ahalduntzearen dimentsio kolektiboari ez diogun leku handirik ematen. Estrategikoa iruditzen zait, beraz, etorkizunera begira, ahalduntzearen kontzeptuari dimentsio kolektiboa erantsi eta emakume bertsolari gisa kolektiboki egin dezakegunaz eta egin nahi dugunaz hausnartzen jarraitzea.

Gaur egun ugariak dira diskurtso eta praktika feministak sortu eta birsortzeko espazioak bertsolaritzan eta gero eta zentralitate handiagoa dute bertso-eremuaren baitan. Gero eta norbanako gehiago gara prozesu horretan eragile gisa identifikatzen dugunak geure burua. Plazetan gaude, gai-jartzaile gara, hezitzaile, epaile, antolatzaile, gutako asko ari gara bertsolaritzaren esparru bat edo beste modu akademikoan —ere— genero-ikuspegitik ikertzen, aldizkari zein egunkaritan zutabeak idazten ditugu, Twitterren gaude, Euskal Herriko, lurraldeetako zein herrietako bertsozale-elkarteetako kide gara. Eta ahalduntzea espazio feministetatik kolektiboki bertsolaritzaren sisteman eragitea bezala ulertuz gero, bertso-munduko espazio feministen eta bertso-sistema osoaren arteko harremanez zein emakume bertsolarion kolektiboaren barruko dinamikez ere hausnartu beharra dugu. Zentzu horretan, Mari Luz Estebanek (2014: 72) Emakumeen Etxeen testuinguruan egiten dituen galderak berrartu nahi nituzke hemen, bertso-mundurako ere baliagarri izango zaizkigulakoan, aurrera begira:

¿El conocimiento que surge en un espacio feminista cualquiera [irudika ditzagun bertso-munduko espazio feministak], cómo llega, cómo se transforma, cómo influye, cómo se proyecta a la sociedad [irudika dezagun bertso-mundua] o a otros espacios? ¿Cómo se están llevando a cabo las traducciones de conceptos, ideas, teorías, prácticas? ¿Cómo se están administrando las relaciones de poder entre diferentes feministas, grupos y espacios? ¿Hay espacios puente, hay mujeres puente, hay posiciones puente? ¿Hasta qué punto este conocimiento se está traduciendo en acciones políticas concretas?

Airean utziko ditut galderak, kolektiboki erantzungo diegun esperantzan.

**BIBLIOGRAFIA**

- Agirre Arrastoa, Amaia (2017-09-08): «Belaunaldi berria betaurreko moreak jantzita dator», *Gipuzkoako Hitza*. Hemendik hartua: <<http://gipuzkoa.hitza.eus/2017/09/08/belaunaldi-berria-betaurreko-moreak-jantzita-dator/>> (Azken kontsulta: 2018-04-12).
- Agirre Dorronsoro, Lorea (2010): *Zapia eta txapela Emakume bertsolariak tradizioarekin negoziatzen eta eredu berria sortzen Negoziazioak eta disonantziak: mututasunetik emulaziora, eta emulaziotik ahots propiora* (Master bukaerako Lana), HUEZI, Arrasate.
- Alberdi Estibaritz, Uxue (2010): «Ezin dut bertsolari izan emakume feministaren kontzientziarik gabe» (Ainhoa Agirreazaldegi elkarrizketa). Kontsultatuta in: <<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2224/ainhoa-agirreazaldegi>>.
- , (2014): «Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak bertsolaritzan», in Gema Lasarte eta Amaia Alvarez (ed.), *Gorputza eta generoa: Teoria didaktika eta esperientziak*, UEU, Bilbo, 145-162.
- , (2015): «“Ez da kasualitatea”, esperientzia feminista bat bertsolaritzan», «Jai ereduak genero ikuspegitik: begirada antropologiko bat Euskal Herriko errealitateari» ikastaroan emandako hitzaldia, 2015eko uztailaren 16an, UEU, Eibar.
- Alkaiza Guallar, Saioa (2014): «Bertso eguna, saio deserrosoa», *Argia*, 2014-01-27, <<http://www.argia.eus/albistea/bertso-eguna-saio-deserrosoa>> (Azken kontsulta: 2018-04-12).
- Biglia, Barbara (2007): «Desde la investigación-acción hacia la investigación activista feminista», *Perspectivas y retrospectivas de la Psicología Social en los albores del siglo XXI*, Biblioteca Nueva, 415-422.
- Bourdieu, Pierre (1998): *Les Règles de l'art. Genèse et structure du champ littéraire*, Seuil, coll. «Point-Essais», Paris.
- Del Valle Murga, Teresa (2012): «Un ensayo metodológico sobre la mirada en la Antropología Social», Aniversario de la Gazeta De Antropología, *Gazeta de Antropología*, 28.3.
- Eizagirre Kerejeta, Estitxu (2004): *Maritxu, nondik zatoz?*, [online] Hemendik hartua: <<https://www.bertsozale.eus/eu/generoa/dokumentazioa/artikuluak/2004-06-00%20Estitxu%20Eizagirre-%20Maritxu%20nondik%20zatoz.pdf>> (Azken kontsulta: 2018-04-13).
- , (2008-05-11): «Konplexu eta estereotipoak hausteko ordua», *Argia*, 23-26. Hemendik hartua: <<http://www.argia.eus/astekaria/docs/2136/pdf/p23-26.pdf>> (Azken kontsulta: 2018-04-13).
- Enbeita Maguregi, Onintza (2016): «Eta hala ere plazan gaude», in M. Guillo Arakistain (koor.), *Festak, genero-harremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, UEU, Bilbo, 117-130.

- Epelde, Edur, Aranguren, Miren & Retolaza, Iratxe (2015): *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko mugimendu feministaren kronika bat*.
- Erkiaga Laka, Nere (2008): *Genero ikuspegia Bertsolaritzaren mugimendu barruan* (Master Bukaerako Lana). Kontsultatuta in: <<http://www.bertsozale.eus/eu/generoa/dokumentazioa/artikuluak/2008%20Nere%20ErkiagaGeneroaren%20ikuspegia%20Bertsolaritzaren%20kultur%20mugimenduaren%20barruan.pdf>>.
- Esteban Galarza, Mari Luz (2004a): *Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*, Edicions Bellaterra, Bartzelona.
- , (2004b): «Antropología encarnada. Antropología desde una misma», *Papeles del CEIC*.
- , (2014): «El feminismo vasco y los circuitos del conocimiento: el movimiento, la universidad y la casa de las mujeres», *OTRAS FORMAS DE (RE) CONOCER*, 61-76.
- , (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Susa, Zarautz.
- Etxeberri, Karine (2015): «*Je sais faire des bertso, mais je ne suis pas bertsolari*» *Le genre des improvisations chantées au Pays Basque en question* (Master Bukaerako Lana, argitaragabea).
- Euskal Irrati Telebista & Euskal Herriko Bertsozale Elkarte (2005): *Hitzetik Hartzera* [telebista-programa], 2005-05-08. Ainhoa Agirreazaldegiren transkripzioa: <<https://www.bertsozale.eus/eu/generoa/dokumentazioa/artikuluak/2005-05-08%20Bertsolaritza%20eta%20emakumea%20-%20Hitzetik%20Hartzera.pdf>>.
- Garzia, Joxerra, Sarasua, Jon & Egaña, Andoni (2001): *The art of bertsolaritza: improvised Basque verse singing*, Bertsolari liburuak.
- Haraway, Donna (1991): «Conocimientos situados: la cuestión científica en el feminismo y el privilegio de la perspectiva parcial», *Ciencia, cyborgs y mujeres: la reinención de la naturaleza*, 313-346.
- Hernández, Jone M. (1999): «Auto/biografía. Auto/etnografía. Auto/retrato», in *Antropología feminista: desafíos teóricos y metodológicos*, *Ankulegi: gizarte antropologia aldizkaria*, 53-62.
- , (2006): «Emakume bertsolariak: ahozkatu gabeko identitatea», *Kobie. Antropología Cultural*, 12, 61-70.
- , (2011): *Bertsolarismo. Palabras que emocionan, emociones hechas palabras*, *Incorporaciones antropológicas: Análisis desde el cuerpo y las emociones izeneko simposioan aurkezturiko komunikazioa*, XII Congreso de Antropología de la FAAEE (Federación de Asociaciones de Antropología del Estado español), León.
- , (2011): «Bertsolaritza, definizio berri baterantz?», *Emakunde aldizkaria 81*. Kontsultatuta in: <[http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/sen\\_revista/eu\\_emakunde/adjuntos/revista\\_papel\\_81\\_eu.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/sen_revista/eu_emakunde/adjuntos/revista_papel_81_eu.pdf)>.

- , (2016): «Odolak badu generorik? Edo zergatik gorputz emeak ez diren bertsoetarako bizitoki», *Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*, Udako Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 27-42.
- Ibarguren Agirre, Leire (2009): *Emakumeak, oholtza eta umorea* (Master Bukaerako Lana)
- Kontsultatuta in: <<http://bdb.bertsozale.eus/uploads/edukiak/liburutegia/2009%20Leire%20IbarguEmakumeak%20oholtza%20eta%20umorea.pdf>>.
- Ibarzabal Salegi, Nerea (2017-10-14): «Hilean behin biltzen gara emakume bertsolariak, elkarri laguntzeko», *El Diario Vasco*: <<http://www.diariovasco.com/culturas/nerea-ibarzabal-bertsolaria-20171014003852-ntvo.html>> (Azken kontsulta: 2018-04-12).
- , (2016): *Bertso eguna 2016: bertso-ikuskizuna eta genero-ikuspegia* (Gradu Bukaerako lana, argitaragabea). Hemendik hartua: <[https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18970/NereaIbarzabalSalegui\\_GRAL.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/18970/NereaIbarzabalSalegui_GRAL.pdf?sequence=1&isAllowed=y)> (Azken kontsulta: 2018-04-12).
- Iguaran Barandiaran, Oihana (2017-10-31): «Zazpi aulki jokoan», *Deia* egunkaria. Hemendik hartua: <<http://www.deia.eus/2017/10/31/ortzadar/zazpi-aulki-jokoan>> (Azken kontsulta: 2018-04-12).
- Labaka Mayoz, Ane (2017): *Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero ikuspegitik* (Master Bukaerako Lana, argitaragabea).
- Laborde, D. (2005): *La mémoire et l'instant: les improvisations chantées du bertsolari basque*, Elkar.
- Larrañaga Odriozola, Carmen (1994): «El Bertsolarismo: habitat de la masculinidad», *Bitarte*, 4, 29-51.
- , (1997): «Del bertsolarismo silenciado», *Jentilbaratz*, 6, 57-73.
- Latasa Oteiza, Zaira (2010): *Bertsolaria ez da bertsolari jaiotzen, izatera iristen da; Emakumearen ibilbidea bertsolaritzan zehar (1980-2009)* (Master bukaerako Lana, argitaragabea).
- Lujanbio Zugasti, Maialen (2007): *Bertsolaritza emakumearen ikuspuntutik: bertsolaritza eta emakumea*, Bertso-eskolak antolatutako «Bertso kritika» ekimenaren barruan eskainitako hitzaldia, Orereta.
- Loidi Garitano, Arantzazu (1995): «Emakumeak plazara», *Bertsolari aldizkaria*, 17, 41-43.
- Picaza Gorrotxategi, Maitane (2017): *Espacios propios para las mujeres y procesos de empoderamiento: La Red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia* (doktorre-tesia, argitaragabea).
- Young, Kate (1997): «El potencial transformador en las necesidades prácticas: empoderamiento colectivo y el proceso de planificación», *Consultantes*, 121.
- Zabala Gonzalez, Begoña (2008): *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*, Txalaparta.

Zelaia Arratibel, Izarne (2015): *Emakumeek jendaurreko jardunetan parte hartzeko gaitasunak eskura ditzaten eskolak jokatzen duen papera, bertsolaritza aztergai hartuta*. (Gradu Bukaerako Lana, argitaragabea).

Zinkunegi Barandiaran, Izaro (2015): «Emakumeak eta bertsolaritza. Gaiak, rolak eta bertsoak genero-ikuspuntutik», *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 94, 91-112.





*Doinua: Betroiarena*

Inkonformismoaren  
antzezpen himnoa;  
orgiak, regetoia,  
feminismoa;  
neskak\* oholtzen gainean  
ta bollerismoa;  
'ni'-a ta 'gu'-a egin  
nahia homonimoa;  
biluzte intimoa;  
punkyen mimoa;  
fuera snobismoa!  
ta kanon irmoa!  
Intsumisioa da  
doinuari eta errimari!

**Saioa Alkaiza Guallar**



# Sofatik oholtzara

*Maidar Arregi Markuleta, Maite Martinez Etxebarria eta Izar Algueró Txibite,  
(Bertsxortan)*

## **HITZAURREA**

2014ko uda zen. Haize beroak iraila ekarri zuen. Udaberri unibertsitariora. Helduaro gaztea. Intelektualismoaren komun-zuloa: filosofia eta antropologia karreretan matrikulatzea okurritu zitzaien bizitza ulertu ezinik zebiltzan hainbat txorimalori, txoribururi.

Lehenengo egunetako eguzki izpien azpian talde osoa, koherentziarik gabea baina alaia osatu zuten klasean zeuden mota guztietako marrazki bizidunek, gorputzen noraeza ulertu ezinik, nekatuta, eguzkia hartzen.

Bat-batean, 30 metroko diametroko zirkuluaren beste puntan, izpi batek arrosa fosforitoz argitzen zuen neska bat; berdez bestea, gorriz bestea... (denak fosforitoz). Eta *Carros de fuegoren* doinuan, kamara geldoan elkarrengana hurbiltzen hasi ziren, oso astiro, hasieran 30 segundoko pausoz, gero minutu bateko saltoz. Zirkuluaren erdian ukitu zuten elkar eta konturatu ziren zergatik zeuden kolorez argiturik: elkarren besapeak usaintzen hasi ziren, oraindik kamara geldoan, ileak luzatu eta sudurra murgildu; hanketako ileak laztantzen, gona azpiko itzala eguzkitara ateratzen...

Txirrinak jo zuen eta suzko Carlosen doinuekin batera joan ziren klasekideak klasera. Baina neskak kalean geratu ziren, erdi besarkatuta, erdi botata, eguzkipean; euripean ondoren, elurpean mozarrotu ziren, eta berriro eguzkiz sikatu. Ordurako asko zuten hitz eginda, baina gehiago bizita: jan zuten bizkotxoak elkarrekin, izozkia, txokolatea, berdura takoak, tea, berdura takoak, infusioak, txokolatea, infusioak... joan ziren hondartzara, mendira, basora, jardunaldietara, asanbladetara, parrandara, bataren eta bestearen herrira, hirira, atzerrira, batzuen alokairuko ikasle-etxeetara, topaketetara.

Hasi ziren oinez hirian zehar, etxeei, leihoei, ateei, sarraileri, jendeari eta jenderik ezari begira. Eguzkiaren lehen udako azken izpiekin, mozarrotu ziren. Hartu zituzten bata bestearen eskuak eta sartu ziren Narniara. Infernuaren txingarretan bere horretan mantentzen ziren onddoen etxera. Ez hala erabakita, baina horiekin elkarbizitzen jarri ziren. Txaboletara jolasten. Beraien buruari aurretik egin gabeko

galderak egiten: ze usain dute arratoi puzkerrek? Nola ostia apurtzen dira urrak? Hautatu gabekoak politizatzen: erreka zaporedun lentejak jaten.

Koloretako eguzki izpiek, oraingoan, kolore guztiekin islatzen zuten talde osoa, eta beraiek batzeko lekua: sofa desitxuratua, ajatua, kolore galdukoa, garai batean laranja eta modernoa izandakoa. Han agertu ziren gitarra, pianoa, koilarak, edalontziak... zarata egin zezakeen edozer. Eta han jarraitu zuten botata eta erdi besarkatuta, eguzki zein euripean.

Han hasi ziren bata bestearen atzetik, bertsioak, kantu ezezagunak eta kantu berriak, asmakizun propioak, beraien historia eta istorioak biltzen zituztenak, ikasitakoak eta zalantzak, politikak eta itsusiak, emotiboak eta desatseginak. Beraiek bezalakoak, eguzki eta euri. Eta egun batean, zergatik ez, sofa agertokira eraman zuten. Eta etxeokan egiten zuten gauza bera egin zuten, baina jende gehiagorekin. Jende horrek beste agertoki bat eskaini zien, eta beste bat, eta beste bat...

Etxean bezala, baina batzuetan urduri, besteetan aurretik prestatuta, batzuetan lau eta besteetan bi. Gehienetan, apur bat prestatuta.

Egiak, salaketak, aldarrikapenak eta zalantzak eszenaratzeko, umoretik eta umorez, pentsatzeko baina ondo pasatuz. Barre egiteko baina hausnartuz. Burla egiteko salatuz. Beraiek, gurekin, GUak sortzeko.

## **SARRERA**

Bertsxortan Donostian sortu genuen, unibertsitatean bildutako lagun talde baten eskutik. Hasiera batean, bost kidek osatu genuen, gerora moldatuz joan gara, eta saio bakoitzean nahi eta ahal zuenak parte hartu du.

Ikuskizun feminista da. Bertsoak, bertsioak, kantuak, ipuinak eta inprobisazioa erabiltzen ditugu egunerokotasun kolektibo bat publikoaren aurrean erreproduzitu eta islatzeko. Horregatik, gure agertokia etxeko sofa zaharra izaten zen, ahal zenean, eta zaindutako espazioetan aritzen ginen. Salbuespenak salbuespen.

Lehenengo saioa 2015eko urrian FIHEZI fakultateko GUnea espazio autogestionatuan egin genuen. Bertan ibiltzen ginenoiz zuzendua eta bertan ibiltzen ginenok sortua eta antolatua. Ia guztiz inprobisatua eta proiektzio-asmorik gabea. Gero, hurrengo saio baterako proposamena iritsi zitzaigun, Zumaiatik. Bertan egon ginen, 2016ko martxoaren 8aren harira antolatutako ekitaldi batean; eta gero beste dei batzuk etorri ziren. Horrela hasi zen «Euskal Herriko» bira (Gipuzkoa beti hegemoniko). Hiru urte inguru iraun duen inprobisazio-zurrunbiloa, autostopa azpiegitura nagusi.

## **TRIPAK**

Hastapenak: orgia publikoak eta *regetoia*.

Gure lehenengo saioa, esan bezala, GUnean izan zen, gure fakultateko gela autogestionatuan. Han kantatu genituen gure lehenengo bertso sortak.

Hasierako bertso sortak gure bizipenen ingurukoak dira. Nerabezaro indibidualizatu, matxista baten osteko amorrutik abiatzen dira eta feminismoa deskubritu izanaren euforia transmititzen dute. Nolabaiteko sendatze-prozesu intuitibo baten ondorio dira, ahalduntze kolektibo baten ondorio.

Unibertsiteko lehenengo urtean elkar ezagutu, eta bigarrenean batera biziko ginela erabaki genuen. Etxe bila hasi ginen, eta bloke bat aurkitu genuen hutsik, Infernuan (Donostiako auzo bat da, izena ez diogu guk jarri). Bloke hura okupatzea erabaki genuen, eta *Frutetxea* deitu genion.

Okupazioa, jabetza pribatua zalantzan jartzeko tresna izateaz gain, etxebizitza autogestionatzeko tresna izateaz gain, sorkuntzarako bidea izan zen guretzat. *Frutetxearen* egiturak (erdi ezarriak, erdi erabakiak) bizitza kolektibora bultzatu gintuen: logela berean egiten genuen lo, kazuela beretik jan, arropak armairu berean kolektibizatu... Denbora asko pasatzen genuen elkarrekin.

Filosofiako klaseetan hainbeste aipatzen zen *nitusunaren* kritika, indibiduoaren kritika, guk bizi egiten genuen. Ni-ak lausoak ziren, gu ginen.

Ez genuen asko irakurri feminismoaz; baina azkar harrapatzen genituen ingurukoen ideiak. Bizi egiten genituen. Gaueko manifestako «Beldurra aldeztuko dugu» eta tankerako leloak gorputzetik ulertzen genituen. Heterosexualitatearen kritika, «emakumearen» kritika... Bizi egiten genituen. Ulertu egiten genituen: teorikoki baino, gorputzetik; eta erabili egiten genituen, gure gorputzak aldatzeko.

Ez geneukan gogorik otzanak izateko. Oholtzara ere horregatik irteten ginen lasai. Bagenekien ez ginela antzerkilaria onak, ez ginela kantaria onak, gure bertso sortak ez zirela beste munduko ezer... Eta hala ere, edo horregatik, lasai irteten ginen oholtzara. Uko egin nahi genion historikoki exijitu diguten perfekzionismoari.

Hasierako bertso sortak nahiko *punkiak* ziren. Gustatzen ez zitzaigunari burla egiten genion, gorrotoa adierazi...

Hurrengo honek, adibidez, erakusten du zein zen hasierako tonua:

Doinua: *Itziarren semea* (errepikapenik gabe).

1-

Neronekin ez nintzen  
eroso sentitzen  
ta almohadek ninduten  
katxonda ipintzen;  
argalegi ezin egon,  
ezin egon gizen...,  
baina barne-ahotsak  
ez ziren isiltzen.  
Mundua hasi zen  
pixkanaka hiltzen...  
Ta orduan feminista  
bilakatu nintzen.

2-

Ezpainak beltzez eta  
betazalak morez,  
edo jantzi naiteke  
arropa dotorez;  
galtzontziloak jantzi  
kuleroen ordez,  
gainetik soineko bat  
arrosa kolorez...  
Segun ze umorez,  
txarrez edo hobez,  
kanona eraldatu  
nezake edo ez.

3-

Pentsatu nahi dugunez  
Ta pentsaarazi,  
beldurrik gabe egiten  
dugunez garrasi,  
guztiok ile motza  
daukagunez kasi,  
bigoteko ileak  
zaizkigunez hazi,  
guri feminazi  
deitzen ze enfasi!  
Eskerrak festa oraindik  
ez dugula hasi!

4-

Kalera irteten naiz  
eskuan arpoia,  
erasotzaile denei  
emanez jipoia.  
Ipurtzulotik sartu  
ohi diet takoia,  
ta esaten didate  
naizela kabroia  
edo neurekoia.  
Hori duk sermoia!  
Ez ote duk izango  
hire paranoia?

5-

Jainkoak ukatuko  
 dit barkazioa,  
 baina ez dut aldatzen  
 nire akzioa.  
 Autokonplazentzia,  
 hori da zioa,  
 nahiz eta txarra daukan  
 konnotazioa,  
 masturbazioa  
 nire pasioa,  
 ez dut bilatzen zuen  
 aprobazioa.

6-

Ez naizenez inoren  
 natazko bonboia,  
 ez naizenez inoren  
 etxeko morroia,  
 nahiz ta penetratzea  
 berez den *la polla*<sup>1</sup>,  
 nahiago beste zerbait  
 ahaztuta kondoia:  
 gure kalentoia  
 pizteko botoia,  
 orgia publikoak  
 eta *regetoia*.

---

1. Belarri sentikorrei barkamena hitz honen erabileragatik, errima *xuxenik* ez duenean ere!



Azken finean inkontziente hutsak gara.

Sofaren gainean, bi neska. Sofaren atzean, besteak. Sofa gainekoak, elkarri oihuka: «Mongixak jan doooooot», eta barrez lehertzen. Atzekoak, serio-serio eta isil-isilik, elkarri zaplaztekoak ematen, borobilean.

—Mongixak jan dot!!!

—Aaaaajajajaja. Nik bebai!!! Mongixak jan dot, jonkixa naiz, mongixak jan dot, jonkixa naiz.

—Mongixak jan dot, jonkixa naiz! Jonkixak jan dot, mongixa naiz!!!

—Bakizu zer jazten doten pistinara fateko? Mongituak!

—Badakizu ze liburu irakurri neben atzo?

—Bai!!! Jon kixote de la Mantxa!!!

—Ta bakitzu zer ikusi neben atzo telebistan? El jonkistador!

—Del fin del mundo!!! Jajajaja!!!

Bat-batean, serio jartzen da Maider.

—Esan, Maite, esan. Esan egixa jende honei. Esan nun bizi garen.

—Hmm... Ongi etorri... Jonkizate estatura.

Horrela hasten da mongien eszena. Eta seguraski lotura argirik ez duen beste eszena batekin jarraituko du.

Zergatik oñatieraz? Lehenengo absurdoa. Txisteeek ez daukate grazia berezirik, txarrak dira. Nahi ere, ez dute graziarik egin nahi. Erokeria-momentu bati leku egin nahi zaio. Momentu irrazional bati. Hori da garena, duguna, erabiltzen duguna.

Horixe da absurdoa, agian. Garena, gaudena, buelta gehiagorik gabe, sakontasun gehiagorik gabe; eguneroko irrazionala azaleratuz.

Feminitatearen definizio modernoan sartzen da emakumeen irrazionaltasuna, emozionalitatea. Kaka, txarra. Maskulinitatea, aldiz, beti arrazional eta eredu izan da, garaile. Berdinzaletasunaren garai honetan arrazionaltasunaren parera iritsi nahi izan gara, irrazionala umeentzat eta zoroentzat gordez. Gure unibertitate mendebaldar hiper-arrazionalan, argumentuak ematen erakusten digute. A ez bada B, orduan, B ez da A. Logika.

Heldua eta zentzuduna den pertsona baten profila arrazional deskribatuko den horren barruan kokatuko da egun.

Zorotasunak, irrazionaltasunak, absurdoak, badu zer eskaini ordea, sortzeko, kritikatzeko eta oinarri diren legeetatik ihes egiteko bidea izan daiteke. Desberdinak izan nahi dugu, marjinetara hurbildu nahi dugu, zapalduak izan gabe. Argudiatu gabe, gure arrazoia demostratu beharrik gabe, nahi dugulako, nahi dugun moduan, nahi dugunean, absurdoak gara.

Agian zorakeria da egiten duguna. Zorakeria ondorioa da, arnasa hartzea, lasaitzea, lasaitasunaren lasaitasunez, lo geratzea.

### ***HIIIIII!! ZE XAUK, HI?!***

Bertsxortanen gehien funtzionatu duen eszena hau izan da: Gu gizon janzten ginen, publikoaren aurrean arropak aldatuz, eta *Nor da feministagoa?* lehiaketa egiten genuen, koplatan. Hiru gizon-profil antzezten genituen saio gehienetan. Hona hemen profilak eta feminista zela argudiatuz, bakoitzak kantatzen zituen koplak:

Doinua: *Goierriko historia*

1-Matxito iraultzailea (M.I.):

Herri bazkaria txosnan (bis)

Kalean zenbat sukalde!

Gaur bazka(r)ia nik egin dut

Berdintasunaren alde.

Berdintasunaren alde

Kalean zenbat sukalde.

3-Matxitoeskinettoa (M.E.):

Nire arreba Idoia (bis)

Beti izan da piboia

Ta hurbiltzen zaionari

Emango diot jipoia.

Emango diot jipoia,

Zu lasai egon Idoia.

2-Matxitosensibler (M.S.):

Gure herriko gizonak (bis)

Ez omen garela onak

Baina zertako bereizi?

Guztiok gara pertsonak!

Guztiok gara pertsonak

Gure herriko gizonak.

4-M.I. (Aitortza)

Kapitalismotik irten (bis)

Marxekin zenbat bizipen...

Bera irakurtzen nago ta

Ez dut fregaurik egiten.

Ez dut fregaurik egiten,

Kapitalismotik irten!

5-M. S.

Bi gizona liatzen (bis)

Nork ez du hori onartzen?

Baina hortaz hitz egitea

Ez zait batere gustatzen

Ez zait batere gustatzen

Bi gizona liatzen.

6-M. E.

Inauteritan janzten dut (bis)

Nire arrebaren gona.

Globo pare bat tititan

Ta gora testosterona.

Ta gora testosterona,

Nire arrebaren gona.

7-M.I.

Nahi dut feminista izan (bis)  
 Fermin Muguruza gisan,  
 Altu egiten dut oihu  
 Martxoak 8n manifan.  
 Martxoak 8n manifan  
 Nahi dut feminista izan.

8-M. S

Ez naiz hain maskulinoa (bis)  
 Nik entzuten dut Anari.  
 Negar ere egin izan dut  
 Galdetu nere amari.  
 Galdetu nere amari,  
 Nik entzuten dut Anari.

9-M. E.

Kontzertuetan oi oioi (bis)  
 Guztiok gaude burusoil,  
 Eta ez dugu errimatzen  
 Gu makarrak garelako.  
 Gu makarrak garelako  
 Kontzertuetan oi oioi.

Eszena honekin, gizonak zuzenean interpelatzen genituen. Euren jarrerei ispilu eginez, autokritikara bultzatzen genituen: *Edo hau birpentsatzen duzue, edo guk ez dugu zuekin Iraultza egingo.*

Umoretik eta ironiatik, baina jarrera *matxitoak* identifikatu, kritikatu eta erridikulizatu egiten genituen. Tentsiozko gai bat izan daitekeena (batez ere, espazio militante mistoetan) oholtzara ekartzen genuen, salatzeke eta umorez osatzeko.

Gizonei ispilu egin nahi genien, horretaz pentsa zezaten. Dena dela, eszena emakume feministei zuzendua zen, batez ere. Gaiari zama kentzeko, beti astuna izan den gai bati (gertuko gizonen jarrera matxistak) barre egiteko, feminismoari tonu serio eta solemnea kentzeko, kritikak umoretik eginez.

Aipatutako kritikaz aparte, eszena honek generoaren performatibitatearen gaia ekartzen zuen oholtzara. *Drag King* tailer publiko bat zen. Agerian utzi nahi genuen, arropa batzuk eta gorpuzkera aldatuta, pasa gintezkeela *bollerak* izatetik *matxitoak* izatera, pare bat minututan. Horregatik aldatzen ginen jende aurrean, eta ez ezkutuan. Jendeak ikus zezan nola bihurtzen ginen bat-batean gizon.

Gizon bihurtzen ginela esatea sinplifikazio bat da, noski, badakigu generoa eraikuntza konplexua dela eta ezin dela bi minututan deseraiki; baina eszena honekin, *matxitoak* interplatzeaz gain, erakutsi egin nahi genuen generoa antzerki moduko bat dela, plastikoa, aldagarria.

Guretzat ere kuriozoso zen ikustea nola, ia entseatu gabe, oso ondo egiten genuen *matxitoarena*. Komentatu izan dugu, gure artean: «Zenbat gizon aguantatu behar izan dugu, hain ondo jakiteko nolakoak diren?».

### ***NON GAUDE?***

Doinua: *Zimur-zimur egina da*

Laurogeita hamaseiko  
gure generazioa  
esango genuke dela  
euskal degradazioa.  
Akzio gabeko hitza,  
hitz gabeko akzioa ...  
Nahiz ta kontserbatzen dugun  
iraultzako pasioa  
aldatu beharra dago  
lehengoan narrazioa,  
ordea, borrokatzeko  
zein da daukagun zioa? (bis)  
Twitterren bidez eraiki  
al daiteke nazioa?

Beti esan izan dugu  
 «muerte a Franco, muerte a España»,  
 frankismoa zer izan zen  
 ondo ez dakigu baina ...  
 Ez dugu kondenatuko  
 ETAk eman zuen kaña,  
 Goardia Zibilen kuartelak  
 puzten digu lepo-zaina ...  
 Gu ez gara iraultzaileak  
 ta ez gaitezen engaina,  
 nahiz ta oraindik daukagun  
 kontainer erre usaina, (bis)  
 gorpuztuta daramagu  
 bake zaleen kanpaina.

Besteen aurka ez bada  
 nola batzen da tribua?  
 Lehen Españak sortzen zuen  
 etsaitasunetik *gua*.  
 Baina gaur nor da etsaia,  
 España edo dirua?  
 Edo gizon hetero bat  
 gure korrora bildua?  
 Ez genuke ahaztu behar  
 historia amildua,  
 gure garaia delako  
 gerra baten testigua  
*Ez genuke ahaztu behar*  
*historia amildua:*  
 Aitonak esandakoa  
 ta amonak isildua.

Denok ez dugu jarraitzen  
 militantzia itxia.  
 Gazteria zatitua  
 gaur egun ez da bitxia.  
 Zein da, egin al daiteke  
 guztiontzat justizia?  
 Gehienetan ez dakigu  
 zein den gure iritzia ...  
 Baten batek deitu zion  
 presentziaren krisia.  
 izar handien garaia  
 geratu zaigu ahantzia, (bis)  
 baina izarren hautsetik  
 sortu omen zen bizia.

Pare bat urte generamatzan feminismoan militatzen, genero-gatazkaz kezkatuta eta, egari zor, beste gatazka batzuetaz erdi ahaztuta, adibidez, nazio-gatazkaz.

Bat-batean, ordea, gogoratu ginen gure etxe okupatutik kanpoko munduaz, eta gauzak mugitzen ari zirela konturatu ginen:

Orduantxe hasi zen, Ezker Abertzaleko gazte-antolakundean, haustura nabaritzen. Beste gazte-sektore batzuek indarra hartu zuten, modu autonomoan (Kantauri ponentzia, gaztetxeen mugimendua, klase-perspektibadun eragileak...) eta bazirudien gazteria ez zegoela bide bakarrean antolatuta. Horren erakusle dira ezker abertzalearen antolakundetik aparte garatutako hainbat dinamika:

Urtarrilaren 9an Nekane Balluerka EHUko errektore izendatu zuten. Horren aurrean, Leioako unibertsitatean eta Gasteizko campusean hainbat ikasle oldartu egin ziren, istiluak sortuz. Tentsio-momenturik altuena otsailaren 24an heldu zen, Leioako herri-unibertsitatean 203 ikasle identifikatu zituztenean.

Martxoaren 11n, Iruñean «Errepresioari autodefentsa» lelopean hainbat gaztek manifestazio bat egin zuten. Eta horren kariaz, lau gazte oreretar atxilotu zituzten «terrorismo-delitua» egotzita.

Hau guztia gertatu bitartean, bakearen artisauek ETAREN armagabetzea pentsatzen ziharduten, eta apirilaren 8an erakundeak armak entregatu zituen.

Testuinguru horretan, hainbat gazte militante galduta sentitzen ginen, eta ezinegon horretatik sortu genituen goian idatzitako lau bertsoak. Azkeneko bertsoan, *presentziaren krisia* aipatzen da, eta hura izan zen gure ezinegonari hitzak jarri zizkion kontzeptua:

Lehenengo aldiz, Mari Luz Estebani entzun genion, Iruñean, hitzaldi batean (2017). *Presentziaren krisia* Ernesto de Martino antropologoak erabiltzen duen kontzeptua da: subjektu burujabearen krisia izendatzen duena. Momentu bat da non subjektuaren ezaugarri nagusi bat edo ahalmen bat problematizatzen den; eta non, momentu horretan, subjektuaren beraren presentzia ere problematizatu egiten den. Momentu horri *blooma* deitzen zaio. *Bloomaren* sintomak dira angustia, nekea, pereza, indiferentzia ... Guk hemengo subjektu burujabearen osteko *blooma* sentitzen genuen:

*Independentzia helburu* (2015) liburuan, Olariagak XX. mendeko euskal militantzia modernotzat definitzen du. Bere ustez, ilustrazio frantseseko paradigmaman militatu izan da hemen: Iraultzan eta aurrerabidean sinesten, arrazoian, independentzian, ateismoan, materialismoan...

Paradigma horretan, oso argi zegoen zein zen etsaia eta zein laguna, zein izango zen garaipenaren eguna, zeintzuk ziren borrokaren helburuak, zer desagerrarazi nahi zen eta zer iraunarazi... Eskema kasik katolikoa zen: Osotasunaren ideia zegoen, historiaren hasiera eta bukaera...

Baina, kapitalismoak forma neoliberalala hartu ahala, hau da, errepresioaren estrategiatik konbentzimenduaren eta limurtzearen strategiara salto egin ahala, subjektu burujabea krisian geratzen da: Byung-Chul Hanek, adibidez, positibotasunaren gehiegizkotasunaz hitz egiten du *La sociedad del cansancio* liburuan.

Botereak forma neoliberalala hartu duenean, hau da, hiltzean eta derrigortzean oinarritu beharrean, askatasunaren bidezko dominazioan oinarritzen hasi denean, bizitzak negatibotasuna galdu du. Orain, etsaia difusoagoa da, orain, anulatzen gaituena ez da gure aurkakoa, geure burua baizik. Gu, geure buruari une oro esaten askeak izan behar dugula, edozer lor dezakegula bizitzan, zoriontsu bizitzeko jaio ginela ... Positibotasun gehiegizko horrek nekea, antsietatea eta blokeoa sortzen ditu epe luzera.

«Etsaiak txakur loratuaren forma hartu dionean, etsai gabe geratu da ETA» (Zulaika, 2006: 68).

Eta gu ere bai?.. Sentimendu horietatik idazten genuen, herriaren alde borrokatzeko beranduegi, eta izandakoari buruz galdetzeko goizegi jaio ginenok.



**ZAILA EGITEN ZAIT AURRERA EGITEA, HAMAIKETAKO AEGIN GABE**

Mikel Laboaren «gure hitzak» kantuaren bertsio lotsagabe bat:

Aizan, neska, nora hoa, umore txarra *airian?*

Irrifar bat, egin irrifar bat, ez dezatela ahaztu *sinpatika* zarela.

Vitaldenteko iragarki *yankitan* tipa rubia horrek eitten dun bezalaxe.

...

Zer dio bizilagunak igogailuan sartzean?

Irrifar bat, egin irrifar bat, ez dezatela ahaztu *sinpatika* zarela.

Andoni Aizpuruk Euskal Herriko mapan eguzki borobil bat jartzean bezalaxe.

...

Familia bazkaritan betiko galderak,

Zer dio karrera inutil bat ikasi duenak?

Irrifar bat, egin irrifar bat, ez dezatela ahaztu *sinpatika* zarela.

Zure izebaren bodako argazkitan familia osoak egin zenuten bezalaxe.

...

Juergan zaude, tipo bat dator, ez duzu ezagutzen...

Baina berak esaten dizu: *Ondo pasa genuen!*

Irrifar bat, egin irrifar bat, ez dezatela ahaztu *sinpatika* zarela.

Zure lehenengo txortaldia ta gero *matxito* hari egin zenion bezalaxe.

...

Bertsxortan ikusten zaude, ez duzu ezer ulertzen

Irrifar bat, egin irrifar bat, ez dezatela ahaztu *sinpatika* zarela.

Vitaldenteko iragarki *yankitan* tipa rubia horrek eitten dun bezalaxe.

Esan daiteke gure emanaldi osoa feminitate behartuari egindako kritika esplizitu bat dela: oholtza hartzeko modua, kantuetako desentonazioa, bertsoetan erabili dugun umore ironikoa, batzuetan zakar eta besteetan ume ...

Hala ere, badaezpada, letrak ere sortu genituen publikora kritika nabarmenago hel zedin. Ez dugu alua izateagatik genero-sistemak inposatutako jarreraren egile izan nahi. Ez dugu *sinpatika* eta zintzo izateko betebeharririk sentitu nahi. Nahi adina jan nahi dugu. Nahi adina jo nahi dugu larrua, nahi dugunarekin. Nahi adina gozatu gure buruaz. Besteei gustatzeko exijentzia gainetik kendu, *kantzontziloak jantzi kuleroen ordez*.

## ***LAU PARETA ARTEAN EGITEN DUGUNA PUBLIKOAREN AURREAN EGITEKO ATREBENTZIA***

Batzuetan, bertso musikatu bezala aurkeztu izan dute, beste batzuetan, antzerki moduan; baina esan daiteke gure emanaldia ezin dela ez batera ez bestera mugatu. Aurretik prestatuturiko ideien inprobisazio-saio bat zen, forma pixka bat edo, hobeto esanda, formalismo pixka bat ematearren, bertsoak eta kantak zituena tartean.

Lehen aipatu bezala, unibertsitate-garaian sortu zen. Taldean elkartu eta gai kritikoak izan daitezkeen inguruan hausnartzen eta horietaz barre egiten hasi ginen; sendatze- edo onartze-ariketa interesgarri bat, gaur egun, liburutegitik, hau idatzi bitartean, ikusita.

Bertsxortaneko emanaldien batura pixkanaka eman zen, eta nahi gabe hasi. Gure etxeko ohiko «fregau» luze bat alaitze aldera, bertsoak sortzen hasi ginen: burrunban ideiak bota, eta gure bertsolariak zentratu eta txukundu egiten zituen. Umore *punkiaz* baliatuta, esan nahi genuena esaten hasi ginen.

Lagun artean bizitzeaz eta sortzeaz harrotuta, gehiegi pentsatu gabe, emanaldi-proposamenei baiezkoa ematen hasi ginen eta horrela, jai anitzetan, Euskal Herriko txoko ezberdinetako protagonista bihurtzen ginen, ordubete inguruz.

Zer da ordubete inguruz protagonista izatea? Zer eskaini eta zer jasotzen da? Nola? Hemen aitopen eta ondorengo hausnarketa batzuk.

## ***PROTAGONISMOA, OHOLTZA, UMOREA, SORKUNTZA***

Beldurra ematen du oholtzara igotzeak, zehazki zer eskaini behar duzun jakin gabe, zehazki publikoak zer jaso eta zer barneratu nahi duen jakin gabe, eta kritika bat egon daitekeela jakinik.

Beldur horrek mugitu gaitu, alde batetik: beldurra garaitzeko indar kolektiboak, gehienek lotsaz egingo ez luketena egiteko lotsagabekeriak, eta gure gorputz emakumetuak oholtzara igotzeko harrotasunak. Beharraz ere hitz egin genezake, garenaren errepresentazio bat, edota argazki bat eskaintzeko beharraz, publikoa izatearen beharraz. Haietako batzuk gurekin identifikatu eta GU izango zirelakoan. Gu eta besteak.

Beldurra eta harrotasuna eskutik doaz. Barre eginarazteaz gainera, gure helburua kritikak plazaratzea izan da, kritika feminista eta antikapitalistak. Gure lehenengo kantuak gutaz sozialki espero denaren ukazioa izan ziren, eta izan nahi genuenaren errebeindikazioa. Gureganako erabaki politiko hainbat harturik, horiek publiko egitea erabaki ohikoena ez dela jakinik, eta onarpen sozialetik aldentzen ginela jakinik, oholtzara igotzeak harro sentiarazten gintuen. Gizarteko betebeharrak eta izan beharrei barre egiteak beste bizitza-bide posible batzuk argizatzen baitzuten, bai eta horietan jarraitzen lagundu ere.

Bertsxortan errealismo-ariketa bat izan da, bizi genuena lau haizetara kontatu nahi genuen, eta emanaldi-formatu honen bitartez lortu genuen. Ohiko ereduetatik pixka bat aldentzean, umorea derrigorrez bidelagun. Gai batzuen gordintasuna apaintze aldera, edo alderantziz, gordintasuna erakuste aldera, umore mota ezberdinak erabili izan ditugu. Umore absurdoa eta lotsagabea erabili dugu, haurren umorea batzuen hitzetan; beste batzuetan, performatiboa; gure kritikak performatzen genituen, performatze hutsarekin barrengarri bihurtuz; bertso eta kantetan, umore ironikoa; baina gure tresna eta lagun handiena parodia izan da, gauza oro handitu, zentzua kendu eta barrengarri bihurtzen duena. Umoreaz birjabetzen saiatu gara.

Horrekin lotuta, ezin utzi lotsa aipatu gabe. Euskal Herriko panorama politikoak utzi digun oinordetzari buruzko mahai-inguru batean zera aipatu zuten: *Giza harrotasunak hobeki darama kulparen zama lotsarena baino*. Bertsxortanen kantatzeko gaiak —generoa, *bollerismoa*, zikintasuna, biluztasuna, egonkortasun politiko falta, absurdoa, umore merkea...— orokorrean lotsagabeak izan dira, hein handian aitorenak.

Jendea lotsaraz dezaketen gaiez jardun dugu oholtza gainean. Oholtzara igotzea (edo oholtzarik ez badago ere, besteen begien aurrean jartzearen ekintza hutsa) esposizio-ariketa bat da. Denok egin dugu, klasean aurkezpen bat egitean, asanblada batean ideia bat aurkeztean edo autobusaren atzetik korrika abiatzen garenean hura gelditzera behartuz. Denetan ekintza bat dago, ekintzailea eta hartzailea.

Une batez, geure buruak biderkatzen dituen publikoa aurrean izatean, bi aukera daude: txiki-txiki gelditu edo harrotu. Gure baliabidea gai lotsagabeez ahalduntzea izan zen, lotsa publikora lekualdatuz. Adibidez, berez, lotsatu egin behar genukeen *Frutetxean* bizi ginenean izaten genuen usain txarraz; baina harrotu egiten ginen, politizatu egiten genuen, eta azkenean, publikoak amaitzen zuen lotsatuta goizero dutxatzen zirelako. Esan dezakegu lotsak zaurgarriagoa bihurtzen duela pertsona, baina lotsari lotsagabe aurre egitean, zaurgarritasuna publikora lekualdatzen genuen.

Bertsxortan, askotan, inprobisaziotik gertuago egon da beste edozertatik baino, baina lotsagabeak izatea eta tentuz ukitzen diren gaiak baldarkeriaz hartzea, oholtza eta publikoa geureganatzeko baliabideak izan dira (batzuetan).

Hori behar batzuen ondorioz gertatu da. Gatazka sozialean dauden gaiak arintasunez hartzea, eta horietaz trakeski barre egitea, deskantsu eta sendatze ariketa bat izan da. Egon daitezkeen bizipen anitzen errekonozimendu bat eta betebeharren eta kulpen arintze bat. Guretzat ahalduntze-ariketa bat.

Publikoaren intentzioak eta beharrak proiektatzen dira. Publikoa ispilu bat da, publikoan inpaktatu eta gurera itzultzen dira ideiak. Horrela erabaki izan dugu nondik jo eta nondik ez (askotan emanaldian *jo ta ke* geundela).

Bertsxortanen beste gako bat gaien trataera pertsonala izan da, dena gure ikuspuntuaren arabera aurkeztu dugu. Pribatutasuna publiko bihurtu nahi izan

dugu, lau pareta artean egiten genuena Bertsxortan izenaren azpian kaleratu dugu. Pertsonala oholtzara ekarri dugu, politikoa dela aldarrikatuz eta, morbotik haratago, publikoak zintzotasuna atsegin duela dirudi.

Labur esanda, gure helburua, modu zintzo batean gure ideiak plazaratzea izan da. Horretarako eskura genituen baliabideak/teknikak erabili ditugu: bertsoak, gitarra, antzerkia... bakoitzak ahal zuena eskaini dio emanaldiari, eta batura kaotikoaren emaitza izan da Bertsxortan.

Hori bai, ez dago plaza berdinek, han Agatik egingo dute barre, hemen Bgatik. Hor berriz, ez A eta ez B. Hemen A eredugarri eta han kritikagarri. Horregatik, plazak aukeratuak izan dira modu batera, eta guretzat espazio erosoak izan zitezkeenetara joaten saiatu gara.

## **AZKEN AGURRA**

Sorkuntza ez da soilik kanpora begirakoa.

Hausnarketak eta horiek konpartitzeko beharrak sorkuntzara hurbildu gaitu. Sorkuntza gure baliabide bihurtu da, barruko hausnarketak zirenak plazaratzeko. Espresio-bide bat izan da Bertsxortan, nahiz eta, hasiera batean, bilatzen genuena elkarrekin pentsatzea bakarrik zen.

Gure sorkuntzaren funtsa elkarbizitza izan da: edozein izan daiteke sortzaile, baina gure kasuan, kolektiboki bizitzeak eman digun indarrak eta konfiantzak lasai sortzera eta espresio bide berriak probatzera eraman gaitu, bakoitzak aurretik ezagutzen zituen teknikak batuz (bertsoa, antzerkia, musika).

Teknika horiek forma ematen lagundu digute, baina ez diegu garrantzi gehiegirik eman nahi izan. Emanaldiaren funtsa edukia zen. Badakigu oholtzara igo eta mikrofono bat hartzeak ardura bat suposatzen duela, baina ardurak ez du teknika landua esan nahi: gure kasuan, edukiak izan du garrantzia. Edukiak arduratu gaitu.

Gorputz emakumetuak animatzen ditugu oholtzara, beraien ideiak eta kezkek erridikulurako beldurrik gabe azaleratzera. Oholtzara igotzeko ez dago bi ahotsetara kantatzen jakin beharrik. Zer esana izatea nahikoa da.

Jendea bakarrik edo binaka bizi den garaian, feminismoa akademian sartu den, edo esanahiz husten edo puzten duten honetan, garrantzitsua eta aberasgarria iruditzen zaigu bizitza kolektiboan oinarritutako proiektu ez-mistoak egotea, bai oholtzan bai oholtzatik kanpo. Elkarrekin jan, harrikoa egin, jantzi, erantzi, lo egin, pentsatu, abestu eta bizitza egiten duten taldeak. Sorkuntza-bideak direla medio edo ez, inguruan eragiten dutenak. Horrelako zerbait izan da Bertsxortan. Ez zuen testu akademikoagorik merezi. *Jota ondo pasau du!*

PD: Autoan zoazela, edozein bide bazterretan, altzoan gitarra daraman (edo ez) taldetxo bat behatz lodia luzatuta ikusiz gero, hartu. Artistak dira. Ez dezagun *autostopa* galtzen utzi!!!

### **BIBLIOGRAFIA**

- Esteban, Mari Luz (2015): «La Reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable», *Ankulegi*, 19, 75-93, Donostia.
- , (2017-02-25): «Gatazkaren gorpuztasuna preso ohi baten esperientzia oinarri» hitzaldia, Emakumean, bollerak, trans-ak eta espetxea jardunaldiak.
- Han, Byung-Chu (2017): *La sociedad del cansancio*, Herder, Bartzelona.
- Olariaga, Andoni (2015): «Hautsi da anphora. Erresistentziatik eraikuntzara», in Andoni Olariaga; Jule Goikoetxea; Imanol Galfarsoro eta Unai Apaolaza, *Independentzia helburu*, Txalaparta, Tafalla, 41-116.
- Sarrionandia, Joseba (2015): *Lapur banden etika ala politika*, Lamia- Pamiela, Arre (Nafarroa).
- Zulaika, Joseba (20016): *ETAren hautsa*, Alberdania, Irun.



## IV. Kanpo-begiradak





*Doinua: Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Sustraiak nekez argitzen ditu  
fokoaren errainuak  
Mikrofonotik entzun-ezinak  
zaizkigu infrasoinuak  
Baina aztertuz gero eskema:  
lehia, epaiak, gutxiespena,  
porrotaren engainuak...  
Bertsoa ez dute mugatzen soilik  
metrikak eta doinuak  
Patriarkalak dira egungo  
oholtzaren diseinuak.  
Mekanismoak dira hogeita bi,  
erresistentzia berrien kabi  
ta iraultza baten kimuak:  
Konplizitate keinuak.

**Irati Majuelo Itoiz**



# Begirada bat bertsoaritzari feminismitik

*Mari Luz Esteban Galarza*

Testu honetan begirada orokor bat bota nahi diot bertsoaritzari feminismitik, baina, ondorio borobilik planteatu gabe, galderak egiten saiatuko naiz, feminismoaz zerbait jakiteak ematen didan ausardiaz baliatuta<sup>1</sup>.

Bost ataletan multzokatuko ditut edukiak, atal horien izenburuak honako hauek direlarik: (1) Gaur egungo testuinguru arrakastatsua: feminismoaz eta bertsoaritzaz zenbait apunte. (2) Generoa erlazionala da. (3) Ahalduntze-prozesuen eta egituren iraulketen arteko oreka. (4) Emakume bertsoarien aniztasunaz: identikoak eta berdinak. (5) Emakumeen arteko lehia eta ahizpatasuna.

## ***GAUR EGUNGO TESTUINGURU ARRAKASTATSUA: FEMINISMOAZ ETA BERTSOARITZAZ ZENBAIT APUNTE***

Feminismoa ulertzeko eta feminismoan antolatzeko eta ekiteko moduetan aldaketa esanguratsuak gertatzen ari dira. Horren frogak askotarikoak liriteke, baina bi nabarmentze aldera hauexek aipatuko ditut: azken urteetako mobilizazio erraldoiak eta politika (feminista) egiteko moldeen eraldaketa.

Mobilizazio feminista ikusgarrien garaian bizi gara; azpimarragarrienak, indarkeria matxistaren alorrean<sup>2</sup> eta Martxoaren 8aren bueltan gure kaleen mugak leherrarazi dituzten elkarretaratzeak. Mobilizazio horien bultzadan mugimendu

---

1. Eskerrak eman nahi dizkiot Jone M. Hernándezi testu hau hobetzeko egin dizkidan proposamenengatik.

2. Hala nola «Ni una menos» mugimendua, #MeToo eta haren aldaeraren inguruko «ahizpatasun digitalaren olatua», edota San Ferminetako bortxaketa kolektiboaren ondoko protestak.

«Ni una menos», 2015ean, Argentinan sortu zen mugimendu baten leloa da. Hortik Latinoamerika osora zabaldu zen eta munduaren hainbat aldetara. Bestela, *MeToo* olatuari buruz, 2017ko urriaren 17an, Alyssa Milano aktoreak txio batean, «metoo» idaztea proposatzen du, Harvey Weinstein Hollywood-eko ekoizle boteretsu eta bortxatzailearen salaketaren inguruan, zinearen munduan gertatzen denaren kontrako jarrera agerian uzteko. Aldez aurretik halakoak egin badira ere, mugimendu hori mugarri bat da mundu osoan izan dituen ondorioengatik.

Ikusi, esate baterako, María Eugenia Rodríguez Palopek «Una nueva ola feminista» artikuluan egiten duen sintesia: <<http://100insurance.com/News/News-282.php?el-despertar-del-nuevo-feminismo>>.

feminista dago, elkarre feministek bat eginez duten indarra, trebezia eta lidergoa agerian utziz. Feminismoa bada horren adabegi. Baina badago egintza politiko hori ugaltzen eta gainezten duen fenomeno bat, emakumeen fronte zabal eta herritarra deituko nukeena; hau da, mugimenduaren eragin zuzenaz, baina ondo aztertuta ez ditugun hainbat faktore tarteko<sup>3</sup>, makina bat emakume ados jarri eta «aski da!» oihukatzen hasi dira herriko plazan eta sare sozialetan, haien nazka, asperdura eta kexa, errizoma legez zabalduz<sup>4</sup>, egitura eta forma zehatzik ez duen baina norabide guztiak hartzen dituen amaraun mugagabe bat osatuz.

Ez dugu distantzia eta tresna nahikorik jakiteko gertakari horien zabalpena eta eragina noraino joango diren, edo nola uztartuko den fronte herritarra mugimenduaren dinamikekin eta zer-nolako ondorio zehatzak ekarriko dituen hurrengo urteetan. Ez dakigu ezta ere noraino helduko den sektore neoliberalen erreakzioa, baina azken aldian zabaldu diren eskuin politikoaren adierazpenak eta saiakerak ikusita, pentsatzekoa da erreakzioak, irauteaz gain, hazi ere egingo direla.

Feminismoaren eraldaketen alorrean aipatu dudan beste osagai bat mugimendu batean parte hartzeko eta politika egiteko moldeetan gertatzen ari den berrikuspena da<sup>5</sup>. Hori ez da feminismoak soilik eragiten duen zerbait, baina feministak, batez ere gazteak, buru-belarri daude ekinbide horretan<sup>6</sup>. Eraldaketa hori konpromiso eta egitekoen mailan mudantzak eragiten ari da. Horren ondorioz, egunotan, badaude emakume asko puntualki zerbait egiteko prest daudenak, ekintza zehatz batean parte hartzeko edo laguntzeko, baina ez modu jarraituan. Eta gaur-gaurkoz arrakasta gehien duten jarduerak zehatzak izan ohi dira, ez hainbeste plangintza edo prozedura luzea behar dutenak. Eta esan daiteke gizarte-mugimenduak, oro har, «globalizatu» egin direla, helburuak ekinez sortuz eta beste mugimenduekin elkarlanean aritzeko joera indartzu<sup>7</sup>.

Bertsolaritzara jauzi eginez, bertan ari diren emakume asko mugimendu eta bilbe feminista horren parte dira. Hortik harago, bertsolaritza feminismoarentzat espazio eta laborategi esanguratsua bihurtu dela azpimarratuko nuke, bai kulturagintzan duen lekuagatik baita emakume bertsolarien berariazko sormen eta ekarpenengatik ere. Horrela, Bertsozale Elkartearen baitan finkatu den genero-ardatza (eta horren barruan, Ahalduntze Bertso Eskola) aldaketa eta ahalduntze kolektiboaren adibide bikaina da.

3. Esate baterako, komunikabideen eta sare sozialen garrantzia.

4. Gilles Deleuzek eta Félix Guattarik *Mille Plateaux* (1980) liburuan errizomaren eredu proposatu zuten pentsamendu gisa. Errizoma horren inguruan sei printzipio zehatzu zituzten: (1 eta 2) lotura eta heterogeneotasuna: errizomaren edozein puntu lotu daiteke beste edozeinekin; (3) anizkoiztasuna: errizoma anizkoitza da eta anizkoitzen den heinean, bere natura aldatuz joango da; (4) esangurarik ez duen haustura: errizoma apur daiteke edozein unetan, baina edozein norabide hartuta ere has daiteke; (5 eta 6) kartografia: errizoma egituraezina den mapa bat da.

Ikusi, esate baterako: <[https://es.wikipedia.org/wiki/Rizoma\\_\(filosof%C3%ADa\)](https://es.wikipedia.org/wiki/Rizoma_(filosof%C3%ADa))>.

5. Ikusi, esate baterako, Gil (2011) edo Esteban (2015, 2017).

6. Honetan azpimarragarria da Joxemi Zumalabe Fundazioa egiten ari den lana. Ikusi: <<http://joxemizumalabe.eus/>>.

7. Ikusi Calle (1993).

Era berean, emakume bertsolariak paper garrantzitsua izaten ari dira kontzientzia feministaren hedapenean, eragin zuzena, beraz, fronte herritar horren indartzean; are gehiago aintzat harturik bertsoaritzak publiko orokor batera ailegatzeko duen ahalmena. Era berean, emakume bertsolariak bizitzen ari diren «ahizpatasun-unea» ere gertakari ezin interesgarriagoa da, azken atalean hizpide izango dudanez.

Hori horrela, bertsoaritzak euskal gizartearen eta kulturaren ispilu gisa erabil dezakegu, kulturagintza erreproduzitzeko baina baita berritzeko ere gune aparta da eta. Izan ere, emakume bertsolarien inguruan gertatzen ari dena beste eremuetan gertatzen ari den edo gerta daitekeenaren isla baino ez da, nahiz eta moduak eta tankera beti berdinak ez izan. Beraz, feminista guztion arteko eztabaida, gogoeta eta kontrastea funtsezkoak dira.

Emakume bertsolariak, bizitzen ari diren prozesuaren muntaren jakitun, beraien hausnarketak kaleratzen eta partekatzen ari dira, feminismoaren kapitala aberastuz. Halere, gogoeta hori alde baterantz makurtuegi ez ote dagoen galdetu behar dugu, alderdi negatiboetan jartzen ari baita enfasia, batez ere, emakume izateagatik dituzten bizipenak, erasoak eta ajeak azaleratuz eta azpimarratuz; eta horrek, maila batean, aldaketarako (edo behintzat egoerari aurre egiteko) eragile moduan burutzen ari direna estaltzen edo lausotzen du. Nik behintzat faltan sumatzen dut aspektu positiboak eta negatiboak arteko oreka doia, ez bakarrik hutsuneen edo azpiratze-uneen analisia, baizik eta indarguneen azterketa sakona ere egitea. Arrakasta eta zailtasunak batera baitoaz.

Arrakastarako osagai franko egongo dira, bertsolari emakume bakoitzaren jardunaren kalitatea eta meritu propioak, besteak beste. Baina argi esan behar da, oso emakume gutxik irauten dute ezein eremutan konplizerik edo babesik gabe. Hobeto esanda, emakume bakar batek lor dezake, «ondasun urria» den bitartean, salbuespenak onargarriak baitira. Emakume gehiago direnean sortu ohi da arazoa, orduan bizkortzen dira trabak edota aurkakotasuna. Eta horretan emakumeen elkarrekiko babes zuzena edo zeharkakoa funtsezkoa da.

Kontzientzia feministak berak ere eragin zuzena izan dezake arrakastan. Ausartuko nintzateke esatera feminista izateak aukera gehiago ematen dizkizula profesional hobe izateko, edozein arlotan, bertsoaritzan ere bai. Feminista izateak originaltasuna eta ikuspegi propioa eta kritikoa garatzea du bere gain, gizarteak, noiz edo behin bederen, aintzat har ditzakeen balioak. Eta originaltasuna eta begirada kritikoa oinarritzakoa da sorkuntzaz ari garelarik. Horren harira, beste faktore garrantzitsu bat emakume bertsolarien egokitasun koiunturala deituko nukeena litzateke; izan ere, egon behar zen lekuan eta denboran egoten asmatu baitute, abaguneak ederki aprobetxatzen.

Baina arrakastaren faktore nagusia, duda barik, gogoeta, antolaketa eta lanketa kolektiboa da, batera jarduteak beti ematen baitio emakume (talde) batek egiten duenari plusa. Nabaritu ala ez, ezein emakume bertsolari, bere burua feministatzat ez hartuagatik ere, ez dago bakarrik bere jardunean.

Hala ere, ez nuke aipatzen ari naizen arrakasta sorta hori sinplifikatu gura, bere konplexutasun osoan aztertzea baita nahitaezkoa. Gainera, kontuz ibili behar da arrakastekin, horretan feminismoaren iraganetik ere ikasi behar dugu. Une batean arrakastatsua den prozesu bat bertan behera gelditu daiteke ondoren<sup>8</sup>, eta hori ulertze aldera osagai ezberdinak hartu beharko lirarteke kontuan, hala nola feministen kontrako erreakzioak (sotilak edo zuzenekoak), dinamikek sorrarazten dituzten nekeak edota bestelako arazoak.

Ildo horretan, arriskuak ere sumatzen ditut bertsolaritza feministaren jardunean, berariazko arriskuak; horien artean bi nabarmenduko ditut: (1) jardunak berak (inprobisazioak, hain zuzen) baditu bere perilarak, bata, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren gaia bertsogai hartzen denean, estereotipoetara, sinplismora edo epikotasunera jotzeko erraztasuna/joera; eta (2) bertsolaritza fikziozko ariketa da eta fikzioa, alde batetik, iruditegiak sortzeko tresna boteretsuenetakoa da, baina, bestetik, eremurik zailenatarikoa izan ohi da genero-kritika sakonekoa burutu ahal izateko, ezein fikzioaren aurrean malguago jo behar dugula pentsatzeko joera ezin zabalduago baitago.

Azkenik, arriskuen eta ekarpenen uztarketari dagokionez, badago beste gai aipagarri bat: gaur egungo bertsolariek, euren eremutik aparte, jardute artistiko-kultural zabala izan ohi dute, sortzaile anizkoitzak dira, arlo eta lan-esparru ezberdinetan mugituz. Bertsolari izateaz gain, idazle, kazetari, artista, aktore, performer, etab. dira. Emakumeak batez ere, gehituko nuke. Eta jardun anizkoitz horren onurak eta kalteak taxuz aztertzeari ere beharrezkoa deritzot, eremu horien guztien artean elkar-elikatzeak sor baitaitezke. Harago joanez, esango nuke jardun-aniztasun edo sormen-aniztasun hori kolokan jartzen ari dela euskal kulturagintza sailkatzeko dugun eredu zurruna: literatura, bertsolaritza, musika, artea... Sormen-lanak behin baino gehiagotan sailkaezina den eremu batean kokaturik gelditzen dira, horien arteko mugak lausotuz eta problematizatuz.

## ***GENEROA ERLAZIONALA DA***

Gaur egungo teoria feministan adostasun zabal bat dago: generoa ez da emakumeei dagokien zerbait, nozio erlazionala da; hau da, emakume izatea, gizon izatea edo garena garena izatea estu-estu loturik daude. Beraz, gaur egungo galderarik interesgarrienak ez lirarteke «emakume gisa izendatuak izan diren pertsonak zergatik dauden dauden moduan», edo «zeintzuk diren emakumeen eta gizonen arteko aldeak», baizik eta «nola sortzen den, nola eraikitzen den gizarte-desberdinkeria

---

8. Esate baterako, badugu Euskal Herrian hirurogeita hamarrekota hamarkadaren amaieran martxan jarri ziren familia-plangintza zentroen esperientzia, larogeigarrenetan arrakasta osoa izan zutenak. Zentro horiek kontrazepzioaren eta abortuaren arloan, bai heziketari bai arretari dagokienez, zeuden hutsuneak betetzeko sortu ziren. Hurrengo hamarkadan, zentro gehienak Osakidetzan integratu ziren, emakumeentzako arreta publikoa aberastuz, baina zentroek lorturiko hainbat funtsezko kontu galdu egin ziren.

testuinguru zehatz batean pertsona guztiak leku eta posizio desberdinetan kokaraziz». Eta, horretarako, gizonak ere aintzat hartu behar ditugu, ikerketa-objektu moduan eta eragile eta sortzaile moduan. Ba al dakigu nahikoa gizon bertsoariez?

Ondo ulertua izan nadin, ez naiz ari esaten emakumeak elkartzea edo kolektibo moduan bizitzen ditugun trabak aztertzea ez denik beharrezkoa, ez nago ekintza positiboen kontra, ez. Esaten dudana da genero-ikuspegia ez dela emakumeek edo emakumez hitz egitea soilik. Emakumeei bakarrik erreparatuta argazkiaren parte bat baino ez dugu.

Aurrekoarekin harreman estuan, azpimarratuko nuke generoa, ezer baino gehiago, borroka eta gatazka-unea dela (gatazka aukera gisa) eta emakumeen lekua ezegonkorra dela, definizioz: gaur Jainko izan zaitezke, bihar deabru edo puta<sup>9</sup>. Eta horretatik ez zaitu zure artearen edo ekarpenaren kalitateak edo egokitasunak salbatzen. Beraz, ez dezagun lasaitasunik espero, ez une oro, behintzat.

Atal hau amaitzeko, azpimarratuko nuke bertsoaritzak baduela ezaugarri interesgarria emakumeen eta gizonen arteko harremanetan zer gertatzen den sakontzeko: hain justu, gizonezkoak baino gutxiago izanik, emakume bertsolariak inguru eta saio ez-parekideetan kantatzera behartuta daude. Beraz, pentsa liteke, emakume bertsolariak bereziki trebatuta daudela interakzio mistoetan aritzen eta bizirauten. Eskarmentu hori hautemateari eta aztertzeari bereziki baliagarria deritzot feminismo osoarentzat.

## ***AHALDUNTZE-PROZESUEN ETA EGITUREN IRAULKETEN ARTEKO OREKA***

Ahalduntze terminoaren elastikotasunaren aurrean nire kezka agertu izan dut lehenago ere<sup>10</sup>. Nire planteamendua laburtuz, esango dut ahalduntze terminoaren erabilerak badituela bere arazoak, batez ere terminoaren lausotasuna, askotan ez baitakigu zehazki zertaz ari garen emakumeen ahalduntzeaz hitz egiten edo entzuten dugunean, edota normalean gehiegi erreparatzen zaiela norbanakoen prozesuei. Feminismoak argi dauka, ahalduntzeak dimentsio kolektiboa hartzen du beregain, ez da inoiz bakarka jorratzen den prozesua, baina hori ez dago beti presente gizartean.

Euskal Herrian martxan ditugun ahalduntzearen arloko ekimenik zabalduenak udal mailako berdintasun-arloek kudeatu ohi dituzten jabetzaren edo jabetze-eskolak dira, non proposatzen ari diren mintegi/ekintzen zerrenda amaigabeari zientoka emakume etekin handia ateratzen dioten<sup>11</sup>. Balorazioa, beraz, batez ere

9. Bere adiera sozial ezkorrean, jakina.

10. Ikusi, esate baterako, *Berria* egunkarian argitaraturiko artikulua (<[https://www.berria.eus/paperekoa/1832/021/003/2016-05-13/ahalduntze\\_terminoaren\\_elastikotasun\\_kezkagarria.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1832/021/003/2016-05-13/ahalduntze_terminoaren_elastikotasun_kezkagarria.htm)>) eta Esteban (2017).

11. Ikusi, esaterako: <[https://eu.wikipedia.org/wiki/Emakumeen\\_ahalduntzerako\\_Eskolak\\_Euskal\\_Autonomia\\_Erkidegoko\\_udalerrietan](https://eu.wikipedia.org/wiki/Emakumeen_ahalduntzerako_Eskolak_Euskal_Autonomia_Erkidegoko_udalerrietan)>.

emakumeak erakartzeko eta kontzientziatzeko duten paperari dagokionez, positiboa da derrigorrez.

Bertso Eskola Feminista esparru horretan kokaturik badago ere, baditu berezitasunak eta abantailak, nire ustez, eremu tematiko zehatz batean egoteak helburuak taxuz zehaztea eta fintzea ahalbidetzen baitu. Era berean, beste jabekuntza-eskoletan zailagoa izan ohi dena, emakumeen antolaketa, alegia, maila zabalagoan lortzen ari da bertsolaritzan. Hortaz, ezin baliotsuago ikusten dut, ez bakarrik bertsolaritzaren eremuan, orokorrean baizik.

Ahalduntzeaz aritzea, genero-harremanen eraldaketaz aritzea da. Baina ahalduntzea, funtsezkoa bada ere, ez da horretarako tresna edo berme bakarra, egiturak, gizarte-baldintzak astintzea nahitaezkoa delarik. Horren harira, bertsolaritzak badu parekidetasuna zailtzen duen ezaugarria: merkatuaren esparru eta baldintzapean funtzionatzen duela. Hortaz, ahalduntzeak edo eraldaketak zer-nolako eragina edo zailtasunak dituen antzeman ahal izateko, ez zaio Bertsozale Elkarteari bakarrik begiratu behar, baizik eta inguruan daukan sare formal eta ez-formal osoari eta bien arteko harremanari; alde horretatik, elkartearen barne-prozesua, batetik, eta gizartearen eskaera edota zerbitzu-kontratazioen moduak, bestetik, orekan baina talkan ere sar daitezke.

Ahalduntze Bertso Eskolaren bidez egiten ari den lana goresgarria izan arren, hortik bakarrik ez da parekidetasun osoa etorriko. Bertsolaritza sistema moduan ulertuta, sistema horren alor ezberdinen artean egon daitezkeen joan-etorriak, maileguak, ekarpenak edo kontrako joerak, ez bakarrik aintzat hartu, baizik eta beren tamainan eta konplexutasunean aztertu behar dira, beste eremuetan onuragarriak izan diren neurriak kopiatuz eta egokituz. Eta horien artean badago gizartearen alor askotan positiboa izaten ari den neurri bat, kuoten sistemarena, alegia; hau da, gizartea edo merkatua autorregulatzen dela pentsatu gabe aztertzea emakumeen presentzia edo parekidetasunera heltzeko bidea zein izan behar den, eta horren aldeko neurriak indarrean jarri eta ebaluatzea. Esperimentazioa ere funtsezkoa izango da.

### ***EMAKUME BERTSOLARIEN ANIZTASUNA: IDENTIKOAK ETA BERDINAK***

Gero eta emakume bertsolari gehiago daude, adin, jite eta ezaugarri ezberdinetakoak, eta aniztasuna da nagusi. Aniztasuna oholta gaian egoteko eta kantatzeko maneretan, aniztasuna sortzeko moduetan, aniztasuna gorputz-irudietan, aniztasuna nork bere burua gizartera proiektatzeko eretan... Eta hori, berez, interesgarria izateaz gain, ederra da, eta, gainera, gizartean dagoen emakumeen espektroaren parte bat behintzat ordezkatzen du. Baina, kontuz, aniztasuna multzo estuetan sailkatzeko joera ere badugu, tipologiak egitekoa, eta horrek berez aniztasuna ere pobretu dezake.



Bolumen honetan bertan, Jone M. Hernándezek Celia Amoros filosofoak «Espacio de los iguales, espacio de las idénticas: notas sobre poder y principio de individuación» (1987) artikuluan proposatzen duen teoria bat gogora ekarri digu. Emakume batek beste emakume guztiak barne hartzen ditu beregan, idatzi zuen Amorósek; aldiz, gizonak berdinen espazio batean mugituko lirateke, identikoen espazio berdinen espazioarekiko oposizioan:

Por espacio de los iguales entendemos en este contexto el campo gravitatorio de fuerzas políticas definido por aquellos que ejercen el poder reconociéndose entre sí como los titulares legítimos del contrato social, a la vez que reconocen la expectativa de otros posibles titulares que aguardan su turno en calidad de meritorios, que no están actualmente en ejercicio pero sí en actitud de espera ante un relevo siempre posible, al menos, en principio (Amorós, 1987:121).

Hernándezek honako hau idatzi du gizon bertsoariei buruz:

Euren artean —lehian izan arren— kideztat dituzte euren buruak. Horrela osatu dira gizon bertsoariene genealogiak ere. Izen propioek osatzen dute bertsoaritzara garaikidearen bidea eta sarritan entzuten dira bakoitzaren inguruko anekdotak, istorioak, laudorioak... Horri bertsoaritzaren historia deitu izan zaio.

Amorósen arrazoiketa horri jarraituz, esan genezake emakume bertsoariak identikoak direla, ordezkagarriak beraien artean. Horrela, saio bat antolatzerakoan, beste barik, «emakume bertsolari bat behintzat» eskatzea eta jartzea ohikoa da.

Baina gaur egun emakume bertsoariene irudi/posizio anizkoitzari eta aniztasunari erreparatuta, Amorósen teoria horri zerbait gehitzeko tentazioa ere sortzen zaigu. Galdera bat egitekoa, behintzat. Hainbat eremutan, bertsoaritzan ere bai, emakumeak ez gara jada identikoak bakarrik, berdinak izatera ere pasatu gara, tarteka behintzat, edo tentsio horretan gaude. Emakume bertsoariak beraien anekdotak eta istorioak kontatzen entzuten ditudanean, joko hori sumatzen dut nik: identikotasunetik berdinkidetasunerako joan-etorria. Eta ezin interesgarriagoa litzateke hautematea noiz bai eta noiz ez, eta zergatik, eta alderatu hori gizonen (berdin)kidezarekin. Liminalitate horretan egotea (orain identiko, emakume guztien ordezkari eta ordezgarri; geroago «norbera» eta berdinkide...) funtsezkoa iruditzen zait gizartearen eta gauden eremuaren funtzionamendua nolakoa den sakonki arakatzeko, gure artean berdinkidetzara sortzea ezin inportanteagoa iruditzen baitzait.

### ***EMAKUMEEN ARTEKO LEHIA ETA EMAKUMEEN ARTEKO AHIZPATASUNA***

Marcela Lagarde antropologoak (2003) adierazi du botere-karguetan (edozein eremutan) dauden emakumeek, batzuetan, haien burua ordezkatzeko dutela soilik eta, beste batzuetan, beste emakumeak edo kolektibo osoa; baina emakume bat boterean

edo ikusgai dagoen aldiro emakume guztiak ordezkatzeko dituela sinbolikoki. Hori —gehitzen du— une berean da arazo nahiz aukera.

Gizaki unibertsalak diren emakumezkoak oso urriak dira, ez bakarrik gure gizartean baizik eta gizateriaren historian (zabaldu den historia publikoan, jakina). Bertso-munduan badugu adibide bikaina, Maialen Lujanbio, euskal izaki unibertsala izatera heldu dena zalantza barik. Baina, oro har, emakumeok, edonon agertzekotan, alde aurretik, emakumetzat hartuak izan ohi gara, eta zailtasun handiak ditugu gizateria osoa ordezkatu ahal izateko. Horrek, besteak beste, emakumeen artean etengabe lehiatzera eramaten gaitu, guztiok ez baikara definizioz mugaturik dagoen eremu batean kabitzen. Zer egin ohi dugu feministok horren aurrean? Beste ideia askoren artean emakumeen ahizpatasuna goraiatzea, azpimarratzea. Baina ahizpatasun hori, bere osotasunean behintzat, ez da automatikoa, ez da gurari soil bat, jorratu egin behar da.

Gizonen artean ere badago lehia, handia, baina, aurreko atalean ikusi dugun moduan, alde esanguratsuak daude. Esate baterako, gizonak beraien artean lehiatzen dira jakinik badutela nor azpiratu, noren gainean kokatu eta promozionatu, emakumeen gainean. Eta gizonen lehia eta gizonen ituna edo sarea (gizonen fratria<sup>12</sup>) batera doaz, nahiz eta beraiek ondo dakiten itun horrek haien arteko ezberdintasunik ere ez egotea badakarkiola. Eta horretan egokia da, nire ustez, Maurice Godelier (1986) antropologoak Papua Ginea Berriako Baruya kultura patriarkala aztertzeo erabili zuen kontzeptua, Gizon Handien sistema, hain zuzen, non gizon batzuek botere gehiago zuten eta gizonen artean ere zehazten ziren ezberdintasunak, baina emakume guztiak menpekoak ziren. Aldeak alde, esan daiteke Euskal Herriko genero-sistema, maila batean behintzat, gizon handien sistema ere badela, gizonen arteko harremanak eta ezberdintasunak ordenatzen dituen, emakumeen posizioa (salbuespenak albuespen) periferian edo aparteko leku batera zokoratuz.

Baina azter dezagun astiroago emakumeen arteko lehia.

Lehia hori era ezberdinetara gauza daiteke: emakume legez bizirauteko duten alternatiba bakarra edo nagusia gizon batekin ezkontzea den gizarte batean, logikoa da emakumeak beraien artean lehiatzea «gizon onena» lortze aldera. Baina emakumeok bizirauteko behar hori ez dugunean ere, ez guztiz behintzat, gure artean lehiatzen jarraitzen dugu. Zergatik? Ez dugulako behar bizirauteko baina argi dagoelako espazio publikoan «oraindik ez garela emakume guztiak kabitzen», edo, hobeto esanda, ematen du ez garela kabitzen eta ez gara kabitzen, biak batera, gure lekua mugatuta baitago maila sinbolikoan eta praktikoan; eta horrek badauka isla zuzena bai munduan bai beste emakumeak ikusteko dugun moduan, eta, gainera, norgehiagoka horretan gure ziurtasun eza proiektatzen dugu.

---

12. Olatz Gonzalez Abrisketa antropologoak Euskal Herrian aplikatu duen kontzeptu bat.

Carmen Alborchek bere *Malas: rivalidad y complicidad entre las mujeres* (2002) liburuan idatzi zuen: «Vivimos inmersas en la comparación, midiéndonos constantemente. Aprendemos a competir para sobrevivir, siempre desde la escasez»<sup>13</sup>. Eskasia hori kudeatu behar dugu emakumeok etengabe eta gero gure artean borrokan ari garela entzun behar dugu. Luisa Posadak ere esan du: «El mundo masculino es el que tiene la autoridad y el que da el reconocimiento. Por eso cuando una mujer busca reconocimiento lo busca en ese ámbito simbólico»<sup>14</sup>. Ipuinei eta fikzioari (zineari, adibidez) begiratzea besterik ez dago: protagonista gehienak gizonetakoak dira eta badaude neska bat edo bi, beraien artean borrokan askotan. Maria Castejón-ek fikzioari buruz idatzi du: «Cuando solo tienes una chica, es imposible ver cómo se relaciona con las demás»<sup>15</sup>. Beraz, emakumeen elkartasunaren ereduak faltan gaude. Logikoa da inbidia sentitzea edo lehian sartzea.

Zer egiten ari gara horren kontra? Laburki, emakumeentzako leku egitea, emakumei autoritatea ematea, eta ahizpatasunaren filosofia zabaltzea.

Halere, argi eduki behar da erraza dela ahizpa edo solidario izaten ondo jausten zaigunarekin edo gure eremuan gu baino berriagoa, eskarmentu gutxiago duen horrekin. Zailagoa da ahizpatasuna praktikatzea gure berdinekin. Emakumeen arteko aliantzak, ituna(k) behar dira kasu guztietan. Berdin da zer sentitzen dugun, inportanteena da zer eta nola ekiten diogun elkarrekin. Egiteak aldatuko ditu sentipenak. Gatazkak egongo dira, nola ez, eta aurre egin beharko zaie gatazkei ahalik eta ondoen. Baina helmuga da ipuin berri bat, errealitate berri bat asmatzea, non emakume guztiak kabitzen garen eta elkar elikatzen dugun.

Virginia Woolf-ek esan omen zuen gizonei begiratzen diegula haien irudia handitzen duen ispilu batean. Aldiz, beste emakumei begiratzen diegun ispiluak txikitu egiten du haien irudia. Baina, horrekin batera, gure jardunaren eragina edo inpaktua baloratzeko gizonei bakarrik erreparatzea ere oso ohikoa da, eta gurea kontuan hartzen ez badute, kexatu egiten gara. Eta halaxe da, askotan, ez digute merezi dugun arreta eskaintzen. Baina ez al gara ari gu ere, nahi gabe, publikoa mailakatzen? Ez al diogu guk horrela garrantzi gehiago ematen publiko maskulinoari femeninoari baino?

Emakumeen arteko aliantza, konplizitatea eta elkarrekiko babesa funtsezkoak dira. Mezu positibo horrekin bukatu nahi dut. Eta eskerrak emanaz emakume bertsolari guztiei feminismoari eta emakumeen aldaketan eginkizunari egunero egiten dioten ekarpenarengatik.

---

13. Ikusi: <<https://www.yorokobu.es/cuento-de-la-rivalidad-femenina/3/?offset=25>>.

14. *Ibidem*.

15. *Ibidem*.

**BIBLIOGRAFIA**

- Alborch, Carme (2002): *Malas: rivalidad y complicidad entre las mujeres*, Aguilar, Madril.
- Amorós, Celia (1987): «Espacio de los iguales, espacio de las idénticas: notas sobre poder y principio de individuación», *Arbor: Ciencia, pensamiento y cultura*, 503-504, 113-128.
- Calle, Ángel (2003): «Los nuevos movimientos globales», *Papeles del CEIC*, 7. Sarean: <<http://identidadcolectiva.es/pdf/7.pdf>>.
- Cornwall, Andrea (2016): «Women's Empowerment: What Works?», *International Development*, 28, 342-359.
- Deleuze, Gilles; Guattari, Félix (1980): *Mille Plateaux*, Éditions de Minuit, Paris.
- Esteban, Mari Luz (2015): «La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable», *Ankulegi-Revista Vasca de Antropología*, 19, 75-93.
- , (2017): *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*, Susa (Lisipe), Zarautz.
- Gil, Silvia L. (2011): *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión*, Traficantes de Sueños, Madril.
- Godelier, Maurice (1986): *La producción de Grandes hombres. Poder y dominación masculina entre los Baruya de Nueva Guinea*, Akal, Madril.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014): *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*, <<http://joxemizumalabe.eus/liburuak/DHGE-1.pdf>>.

*Doinua: Bizkorra ez naiz baina badaukat*

Kritikak zertan eragiten du?  
Noiz garrazten da aparra?  
Nor da erdiko? Nor da autore?  
Zer da ona? Zer da txarra?  
Prestigioak non du zuloa?  
Diskurtsoak non indarra?  
Bereizkeria noiz da zuzena,  
eta noiz lerro zeharra?  
Zertan eta non da marra?  
Bi aurpegiko txanpona bada  
plaza publiko (zah)arra,  
guztiak ditu bi alde eta  
aterabide bakarra.

**Ane Zuazubiskar Iñarra**



# Bertsolari emakumeak vs idazle emakumeak: kultur esparruak, kultur autoritateak eta genero-logikak

*Iratxe Retolaza Gutierrez, UPV/EHU<sup>1</sup>*

## **SARRERA: PLAZARATZE DARDARATIAK**

*Eskuak eta lumak zituen  
haseran mila dardara  
Maddalen Arzallus<sup>2</sup>*

Kartzelako lanean aritzeko gai hau jarri zion Joana Itzainak Maddalen Arzallusi, Aiherran (2007ko abenduaren 8an): «Zure lehen liburua argitaratu duzu. Gaur, Durangon atera da, eta egun osoa promozioa egiten pasa duzu». Bertsoa sortzeko, beraz, bestelako sorkuntza-esparru batera hurbiltzeko eskatu zitzaion Arzallusi: hain zuzen ere, literatura idatziaren esparrura, liburuaren kulturaren plazara. Esku eta luma dardaratiek plazan lehen aldiz hitza hartzeak sorrarazitako ezinegona, emozioa eta grina adierazten dute: leku ezezagun bateranzko urratsa egiteak sortzen duen zirrara. Plazan aritu ahala, plazan trebatu ahala, dardarak hor darrai, sotilago batzuetan, bizkortuago beste batzuetan.

Nolanahi ere, dardaratze hori oso bestelako testuinguru eta baldintzatan gorpuzten da bat-bateko bertsolaritzaren<sup>3</sup> plazan zein literatura idatziaren<sup>4</sup> plazan. Baina bi kultur esparruetan dardara horrek ezaugarri berezitu batzuk hartzen ditu sortzaileen genero-kokapenaren arabera. Hain zuzen ere, gogoeta-sorta honetan bi kultur esparru horiek elkarrizketan jarriko ditut, esparruan esparruko genero-logika zenbait argitze aldera.

---

1. Liburu-atal hau ikerketa-proiektu hauen testuinguruan garatu da: batetik, «Genero-identitateak eta diskurtso soziopolitikoaren transmisioa euskal literaturan» (US US18/39), Ibon Egañaren zuzendaritzapean; eta bestetik, «Poesía actual y política: Análisis de las relaciones contemporáneas entre producción cultural y contexto sociopolítico» (POEPOLIT) (FFI2016-77584-P, 2016-2019), Burghard Baltrusch-en zuzendaritzapean.

2. Bertsaldiaren pasarteak kokatu ditut atal-atarietan (Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

3. Bertsolaritzari buruz jardutean, besterik azpimarratzen ez bada, bat-bateko bertso-jarduna izango dut hizpide, gaur egungo erabilera hedatuenari kasu eginda (Garzia, 2012: 8).

4. Literaturari buruz jardutean, besterik azpimarratzen ez bada, literatura idatzia izango dut hizpide, gaur egungo erabilera hedatuenari kasu eginda.

Bertsolaritzaren eta literaturaren arteko alderaketa egiteko, honako bi arakatze-bide eta gogoeta-bide uztartu ditut: batetik, kultur diskurtsoak eta kultur teoriak hartu ditut ardatz, bertso-diskurtsoak eta literatur diskurtsoak ikuspegi feminista batetik alderatzeko asmoz; eta bestetik, bi kultur esparruetan jardun duten hiru sortzaile emakumeren lekukotzak bildu ditut, diskurtsoetan garaturiko imajinarioak esperientzia gorpuztu horiekin harremanetan ere interpretatzeko. Honako sortzaile emakume hauek elkarrizketatu ditut: Uxue Alberdi<sup>5</sup> (1984), Leire Bilbao<sup>6</sup> (1978) eta Itxaro Borda<sup>7</sup> (1959). Ezaguna denez, bai bertso-munduan, bai literatur munduan, oso bestelako bideak egin dituzte hiru sortzaileek, eta gainera, sortzaile bakoitzak aldi jakin batean egin du jauzi kultur plazara —Itxaro Bordak, 1970eko hamarkadan; Leire Bilbao, 1990eko hamarkadan; eta Uxue Alberdik, 2000ko hamarkadan—; gainera, lehen biak ez dabilta jada bertso-jardunean, ez behintzat bertso-plazan. Horregatik, hiru profil horien lekukotzek aukera eman didate gogoeta teorikoak subjektu gorpuztuen<sup>8</sup> (Najmanovich, 2001) ahotsekin harremanetan jartzeko, eta hamarkadaz hamarkada kultur esparruetan gertaturiko aldaketa batzuen inguruan aritzeko<sup>9</sup>.

### **HITZA HARTZEKO GONBITA: KULTUR PLAZARA JALGITZEKO MODUAK**

*baina azkenik gainditu nuen  
orri hutsaren ikara.  
Maddalen Arzallus*

Edozein sortzailek, kultur plazaren egiturak ezagutu gabe ere, plazan hitza hartu aurretik —izan ahoz, izan idatziz—, ikarari aurre egin behar dio: literaturan, orri hutsaren ikarari; bertsolaritzan, aldiz, plaza betearen ikarari. Kultur plazarako sarbide hori ere ez dute sortzaile guztiek modu berean egiten, ez plazaren zirrikitu bertsuetatik.

5. Donostian elkarrizketatu nuen Uxue Alberdi, 2019ko otsailaren 13an.

6. Durangon elkarrizketatu nuen Leire Bilbao, 2019ko otsailaren 22an.

7. Baionan elkarrizketatu nuen Itxaro Borda, 2019ko otsailaren 18an.

8. «O “corpo vivencial” não alude a substância alguma, não tem um referente fixo fora das nossas experiências como sujeitos encarnados. Nosso “corpo vivencial” é antes de tudo um limite fundamental e trama constitutiva de um território autônomo e, por sua vez, ligado não extrinsecamente ao entorno, com o qual o sujeito vive em permanente intercâmbio. Dessa perspectiva, um sujeito encarnado é uma linguagem específica de transformações» (Najmanovich, 2001: 23).

9. Bi ohar egiteari garrantzitsua iritzi diot: batetik, atal honetan gogoeta-sorta zenbait harilkatu dira, ikerketa-ildo bat abiatzeko lehen oinarri zenbait zedarritzeko asmoz; bestetik, gogoan izan behar da bertsolaritzaren eta literaturaren arteko alderaketa honek baduela ikuspegi-muga bat, edo ikuspegi-kokapen bat; alegia, ni neu literatur eragilea naiz —literatur esparrua barrutik ezagutzen dut, eta bertso-esparrua, aldiz, kanpotik—.



### **Trebatzeko erak**

Linda Nochlin-ek (2001), «Zergatik ez da izan artista emakume gorenik?» artikulua klasikoan, arte-esparruan sarbidea egiteko oztopoak aipatzean, trebakuntzarako espazioak zein baldintzak zituen hizpide. Literatur esparruan trebatzeko eta aritzeko aukerak arte plastikoetan aritzekoak baino ugariago zirela zioen, literatura sortzeko baliabide gutxiago behar direlakoan, eta trebatze-teknika berezitu gutxiago behar direlakoan (Nochlin, 2001: 32-33). Trebatzearen eta baliabideen ikuspegi horretatik argudiatzen zuen sortzaile emakumeek literatur esparruan urratsak lehenago egin izana, arte plastikoetan baino. Nochlinen (2001: 32) ustez, literatur sorkuntzarako hizkuntza- eta idazketa-gaitasuna ziren beharrezko, eta gaitasun horiek guztion eskura daudela iritzi zion, herritar guztiak ikasten dutelako hizkuntza, edota nor bere kabuz treba daitekeelako alfabetatze literario horretan. Bat nator baliabideen inguruko irakurketarekin: alegia, literatur sorkuntzak ez du material garestirik eskatzen, eta beraz, klase sozial xumeenak eskurago izan dute idazketa, jakina, alfabetatzeko aukera izan dutenean —besterik da argitaratzeko baliabideak izatea—. Ahozko sorkuntzak are baliabide gutxiago behar ditu, bat-batekoa eta jendaurrekoa denean behinik behin. Nolanahi ere, baliabide gutxiago behar izateak ez dakar trebakuntzarako berezko espazioak aise eskuragarri izatea, batik bat kultur esparrua egituratu eta erakundetu ahala: batetik, hizkuntza-gaitasuna hainbat erregistro eta testu-generotan gauzatzen da, eta hortaz, erregistro zein testu literarioetan trebatzea jardun berezitua da, sormen-teknika batzuetan ere gorpuzten dena; eta bestetik, garaian garaiko eta lekukoan lekuko hizkuntzaren erabilera *literarioa* zer den literatur esparruak hitzartu ohi du, literatur eragileen bidez. Bertso-trebakuntzan ere bi baldintza horiek funtsezko dira.

Trebatze literarioari dagokionez, euskal sorkuntzak ezaugarri berezituak izan ditu, besteak beste, alfabetatze literario eta kulturala oso berantiarra izan delako, eta euskal sorkuntzak ere zailtasunak izan dituelako esparru publikoa hartzeko, oso berandura arte administrazio publikoek euskarari kultur hizkuntzaren estatusa ukatu izan diote eta. Hortaz, hizkuntza-gaitasuna eta idazketa-gaitasuna ez da guztion eskura egon, Nochlinen iritziaren kontrara. Juan Madariagak (2014: 524) aztertu duen moduan, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar euskararen egoera ahuldu zen, eta XIX. mendean nabarmen egin zuen atzera euskararen erabilerak batez ere gizonen artean, hainbat arrazoirengatik: hezkuntza erdaldunean eskolaratzea, administrazio erdaldunean txertatzea, soldaduskaren eragina, eta abar. Testuinguru horretan hizkuntza diskriminazio sozialerako tresna ere bihurtu zen, eta garai hartan, XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, emakume gehienak euskaldun elebakarrak zirenez, bazterketa bikoitza pairatzen zuten: esparru publikorako sarbidea oztopatzen zitzaien eta hizkuntza-bazterketa bizi zuten (Madariaga, 2014: 393-401; Alvarez-Uria, Muñoz eta Retolaza, 2018: 183). Ezaguna denez, 1960ko hamarkadara arte euskarazko alfabetatzea eta kultur trebatzea batez ere elizaguneetan garatu zen, elizgizonen eskutik (Sarasola, 1975). Giro horretan salbuespen izan zen 1920ko-1930eko hamarkadetakoa ikastolen mugimendua, baina 1936ko

gerrak berehala eten zituen kultur egitasmo horiek. Hortaz, 1960ko hamarkadako kultur pizkundera arte euskarazko alfabetatze literariorako zein kulturalerako aukera gutxi izan dituzte gizarte-talde batzuek, besteak beste, emakumeek. Bizenta Mogel da salbuespenetariko bat, emakume batek idatzitako lehen liburu inprimatuaren egile baita, XIX. mendearen hastapenetan<sup>10</sup>. Idazle bizkaitar horren ekarpena ulertzeko funtsezkoa da testuinguru hau kontuan hartzea: XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran klase altuko familia batzuetan emakumeek etxe-giroan jaso ohi zuten heziketa literarioa (Alvarez-Uria, Muñoz eta Retolaza, 2018: 182-184)<sup>11</sup>, eta ezaguna denez, euskarazko alfabetatzean Joan Antonio Mogel osaba eta apaiza izan zuen bidelagun. Giro hartan euskaraz, gazteleraz zein frantsesez alfabetatu zen Bizenta Mogel, eta obra klasikoak ere ezagutu zituen (Olaziregi, 2003).

Idazketarako trebakuntza mugaturik zen garai hartan, ahozko kulturaren trebatzeko berezko espazio gehiago zituzten emakumeek, eta urte luzetan ahozkoa izan dute sorkuntzarako bide nagusi (kantua, ahozko narrazioak, arta-jorraketa, bertsoa...). Ahozko kulturaren lehen lekukotasunek ere hala adierazten dute, emakumeen parte-hartzearen arrastoak jaso direlako (XV. mendeko eresi-egileak, XIX. mendeko kantu-biltzaileak emakumeak ere izan zituzten informatzaile...) (Onaindia, 1972: 17; Lekuona, 1982: 96). Besterik da zer espaziotan garatu izan den ahozko sorkuntza hori, eta batez ere diskurtso publikoetan eta aitortza publikoetan erromantizismora arte ez duela kasik ikusgarritasunik izan; eta erromantizismoan herri-kulturaren transmisio kolektiboari gehiago erreparatu zitzaion, egiletzari baino. Ahozko jardun eta transmisio kolektibo horretan emakumeak ere eragile garrantzitsu izan ziren (eta dira); bat-bateko bertso publikorako sarbidea, oster, murriztuago izan dute emakumeek, batez ere espazio sozial jakin batzuetan garatu izan delako bat-bateko bertsoa XX. mendearen azken herenera arte, eta espazio sozial horietan bertan emakumeek sarbidea mugatuago zuten garai hartan (tabernak, sagardotegiak, demak...); eta bat-bateko bertsoaldiak beste espazio sozial batzuetan egin izan direnean (sukaldeak, egongelak, logelak, dendak...) ez dira hain ikusgarri egin kultur plazan, ez behintzat kultur memoria kolektiboan. Nolanahi ere, XIX. mendearen amaieran bertso jarriak hedatu ziren<sup>12</sup>, eta euskal kazetaritzaren edo kazetaritza elebidunaren sorrerak ahalbidetu zuen bertsozale ezezagunek ere bertso jarriak argitaratzeko espazio bat izatea<sup>13</sup>. Halaber, bertso jarrien goraldi hark bat egin zuen

10. Eskuizkribuetan izan badira sinatzaile emakumeak. Esaterako, Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribuen artean Estibaliz de Sasiola sinadura agertu zen, Patri Urkizuren ikerketen arabera, euskal literaturako lehen poeta emakume duguna (Urkizu, 2005).

11. *Ipui onak* (1804) alegia-bilduma da heldu zaigun lehen liburu inprimatua, emakume batek argitaraturikoa. Agian gehiago egongo ziren lehenago, baina ez da horien berririk izan.

12. Are gehiago, paskinetan argitaraturiko bertso-paperak euskal kazetaritzaren aitzindarizat ditu Javier Díaz Nocik (1995: 28-30).

13. Euskal prentsaren lehen agerkarrietan bertsoak argitaratzen ziren: izan irakurleen gutunekin batera argitaraturiko irakurleen bertsoak —esate baterako, *California-ko Eskual Herrian* (1893-1897) (Díaz Noci, 1995: 45) —, izan kolaboratzaileen bertsoak —adibidez, Kepa Enbeitaren bertsoak *Euzko Deyan* (1916-1920) (Díaz Noci, 1995: 87) —.

emakumeen alfabetatze-prozesuarekin. Izan ere, XIX. mendean zehar emakumeei hezkuntzarako aukerak ugaritu zitzaizkien, eta XIX. mendearen bigarren erditik aurrera Hego Euskal Herrian emakume alfabetatuen kopuruak nabarmen egin zuen gora<sup>14</sup>. Euskaraz alfabetatzeko aukerarik ia ez izan arren, gazteleraz alfabetatzeak euskarazko testu idatzietara hurbiltzeko aukera eman zien, eta ondorioz, bertso jarriak idazteko nahikoa trebakuntza eman ere.

### ***Plazaratzeko manierak***

Jakina, ez da gauza bera jardun literarioan edo bertsolaritzan trebatzeko aukera izatea eta plaza hartzea: publikotasunak jarduna baldintzatzen du, jarduna testuinguru soziokultural jakin batean kokatzen baitu. Literaturan idazle emakumeen sarbidea ahalbidetzeko funtsezko izan dira euskal eskolaren bilakaera eta euskal kazetaritzaren bilakaera. XX. mendearen hasieran, Emakume Abertzale Batzaren (1922-23/1931-1936) testuinguruan, maistra-ikasketak eginik zituzten kide batzuek euskaraz alfabetatu eta euskal eskola egituratzeko lehen urratsak egin zituzten (Perez, Ezkurdia eta Bilbao, 2012): euskal eskolaren garapenerako, gainera, irakaskuntza-materialak behar ziren, eta horretan ere jardun zuten maistra haiek (literatur lanak, kantuak, irakaskuntza-liburuak...). Modu horretara, pixkanaka liburugintzara ere egin zuten jauzi emakumeen ahotsek, eta eskola-dinamika horiek espazio publikoan ahotsa hartzeko bide garrantzitsu bilakatu ziren; are gehiago, alfabetatze literario zein kulturean mugarri izan ziren. Bestalde, euskal kazetaritza errotzeak ere ahalbidetu zuen XX. mendearen lehen herenean emakumeek testugintzan (bertsoak, ipuinak, iritzi-testuak, kronikak, poemak...) lehen ekarpenak egitea<sup>15</sup>, eta beraz, kazetaritza

---

14. 1860ko erroldaren arabera, Euskal Herriko hiru probintzian emakumeen alfabetatzea % 20tik gorakoa zen (Arabak, % 28,9; Bizkaian, % 21,7; Nafarroan, % 21), Espainiako Estatuko portzentajetik gora, % 11,9koa zena —Emakumeen alfabetatzea % 20tik gorakoa zen Espainiako Estatuko beste hiru probintzian soilik (Logroño, Madril eta Santander)— (Sarasúa, 2002: 285). Jakina, emakumeen alfabetatzeak gora egin zuen eremu horietan eskola mistoa garatuagoa zegoen beste eremuetan baino (emakumeen alfabetatzea eskasa zen emakumeek eskolaratzerik ez zuten eremuetan, edo emakumeen eskolak bakarrik zeuden gunetan, emakumeentzako formazio berezitu horrek helburu zuelako feminitate-eredu tradizionalari eustea) (Sarasúa, 2002: 285-286).

15. Garaiko aldizkari askotan irakurle emakumeei zuzenduriko idazle emakumeen atalak eratu ziren: besteak beste, *Napartarra*, *Euzkadi*, *Euskal Erria*, *Euskalerrriaren Alde* (Nuñez Betelu, 2001: 80; Díaz Noci, 1995: 74). Díaz Nocik aztertu moduan, «*Napartarrari zor zaio, beraz, emakumeentzako eta emakumeek egindako atal txo bat sortzea. Azpimarratzekoa da nola emakume abertzaleentzako atal horiek euskarazkoak izaten ziren*» (Díaz Noci, 1995: 74). Literaturaren esparruan ere halako ahaleginak egin ziren: Esteban Urkiaga *Lauaxetak Euzkadi* aldizkarian «Emakume arlua» izeneko txoko bat bultzatu zuen, eta euskal emakume idazleak bertan parte hartzera deitu zituen, 1932. urtean (Ugalde, 1993: 363). Gipuzkoako Emakume Abertzale Batzak «Emakume ingoskia» atala abiarazi zuen *El día* egunkari donostiarrean, 1935. urtean. Batez ere euskararen aldeko aldarrikapena egiteko erabili zuten espazio hori. Gainera, aldizkari propio bat sortzeko ahalegina ere egin zuten (Ugalde, 1993: 522).

bilakatu zen emakumeek espazio publikoa hartzeko beste bideetariko bat<sup>16</sup>. Hala ere, XX. mendearen hasiera hartan, euskal kazetaritzan ohikoa zen joerari jarraiki (Díaz Noci, 1995: 73), emakume askok ezizenez sinatu zuten, eta askotan zail da egiletasuna identifikatzea (Alvarez-Uria, Muñoz eta Retolaza, 2018: 186). Ezin ahaztu, hala ere, kazetaritza ez dela kultur esparru berezitua, eta kultur eremu orokor horretan ez direla jokatzeko aitortza literarioak (ezta bertso-aitortzak ere).

### *Itxaro Borda, kazetatik plazara*

Azken mende erdian kultur esparru hauetarako sarbidean pixkanaka aldaketak gertatu dira, hona ekarriko ditudan lekukotzek adierazten duten moduan. Hiru sortzaileen kasuan kazetaritza espazio publikoan ahotsa hartzeko bide garrantzitsu izan bada ere, ez da guztietan lehen sarbidea izan. Itxaro Bordak, 1970eko hamarkadako kultur gile gehienen modura, kazetaritza-esparrua izan zuen idazketan trebatzeko gune, baita plaza hartzeko lehen gune ere. Bat-bateko bertsolaritzan jardun aurretik bertso jarrien bidez egin zuen jauzi plazara, baita poemen bidez ere: «1974ean hasi nintzen ene lehen poemak *Herria* astekarian publikatzen, hitz lauz eta bertsoan ere bai, soneto edo bertso moduan. Bakarrik hasi nintzen, behin, testua gutun azal azpian igorri eta handik zenbait asteren buruan publikatua ikusiz». Gogoan izan behar da Itxaro Borda izengoiti literarioa garai hartan asmatu zuela, lehen lan haiek jada ez baitzituen izen ofizialarekin sinatu (Bernadette Borda) (Alberdi, 2010), eta modu horretan, Bordak ere aukera izan zuen izengoiti literarioaren atzean nortasun pertsonala nolabait ezkutatzeko<sup>17</sup>.

Gerora kultur giroko jendea ezagutu zuen, Manex Erdozaintzi-Etxart eta Junes Casenave, besteak beste, eta lizeoan ere Etxamendi eta Larralde ezagutu zituen. Kultur giro hartan hurbildu zen pixkanaka bertso-plazara:

16. Díaz Nocik (1995: 142) ohartarazi bezala, aldizkarien zabalkundearen erakundeak emakumeak gako izan ziren, dotrina erlijiosoa hedatzeko bitartekari funtsezkotzat zituztelako aldizkarietako arduradunek: «Emakumeen zeregina ere pisuzkoa izan behar zen, katolikotasuna zabaltzeko, ondo dakigunez beraiengan apaizek jokabide eraginkorra egin bait zuten. Euskal Herrian emakumearen garrantzia handia izan da beti, gizarte tradizionalen behintzat. Gizarte industrializatu berrian —gogora dezagun nola Sabino Aranak eta bere jarraitzaileek, nahiz eta gizarte horren barne egon, industrializazioaren aurka azaldu ziren— emakumearen zeregina guztiz ezberdina bihurtzeko arriskua zegoen, eta elizgizonen ere ondo ikusi zuten. Hortik katolikotasunak eman zien garrantzia, ez ordurarte nahiko pasiboa, aktiboa baino [...]. Abertzaletasunak ere emakumeari bere betebeharrak eman zion mikrogizarte abertzalean, Emakume Abertzale Batza asmo horiek gauzatzen zituelarik» (Díaz Noci, 1995: 142).

17. Uxue Alberdik 2010ean *Argian* egindako elkarrizketa batean honela azaldu zuen izengoitiaren hautua: «Egia, Itxaro pseudonimoa da, erdi pseudonimoa. Duela asko, hamalau urtetan hasi nintzen *Herrian* bertsoak publikatzen eta pixka bat beldur nintzen familiak zer errango zuen. Gainera, konturatu nintzen euskaldun musikaltateko izen bat behar nuela, eta justu garai hartan bazen hemen Baionan erakusketa egiten zuen pintore bat, bizkaitarra, Itxaro Mentxaka deitzen zena. Beraz, haren izena hartu, ene deitura ofiziala, biak lotu eta, hara! Betidanik izenpetu ditut testuak Itxaro Borda izenarekin, eta orain gehienbat ezagutzen nauten jendeek Itxaro deitzen naute, familiak salbu, bistan da, eta lankideek, haiek Bebe edo Bernardette deitzen didate» (Alberdi, 2010).

Bertso kantaturako jauzia egin nuen Mendiburu, Alkat, Arrosagarai eta orduko iparraldeko bertsolariekin batera 1976 aldera. Ni bezala hasten zihozen Niko Etxart eta Jean Michel Bedatxagar, beranduago kantura dedikatu zirenak. Iparraldean kantatzen genuen bai eta hegoaldean ere, Gernikako ezker paretan, behin, oroitzen naiz Bedatxagar ere gurekin zegoela! Enbeitatarrak hor ziren, batez ere ezagutzen nuen Libe Enbeita, eta Lopategi be bai.

Bordaren lekukotzetan bada Alberto Irazuk (2017) *Rock puntua!* saiakeran bildutakoen arrastorik: hau da, 1970eko hamarkadan Ipar Euskal Herrian bertsogintzaren eta kantagintza berriaren arteko zubiak sortu ziren<sup>18</sup>. Antza denez, bertsogintza kultur trebakuntzarako funtsezko esparru izan zen hurrengo hamarkadetan beste kultur esparru batzuetan arituriko sortzaileentzat (antzerkia, kantua, literatura...), baita sortzaile emakumeentzat ere.

### *Leire Bilbao, bertso-eskolatik plazara*

Leire Bilbao, aldiz, bertso-plazan trebatu zen, baina, ikastetxeetako bertso-irakaskuntzak sustaturik. Izan ere, 1980ko hamarkadatik aurrera gaztetxoak bertsotan trebatzeko joera nagusitu zen<sup>19</sup>, eta hainbat bertsolari zein bertsozale izan ziren ikastetxeetan bertsolaritzara ikasleak hurbilarazi zituztenak. Eskolan bertsozaletu eta bertsotan trebatu zirenen adibide argigarria da Leire Bilbao. Trebatzeko eta plaza hartzeko esperientzia hura xehe-xehe bildu dut hona, testuinguruaren zein bertso-zabalkunderako moduen berri argi ematen duelakoan:

12-13 urte izango nituen, Ondarruko ikastolan nenbilen eta Joxemari Urteagak irakasten zigun euskara eta bertsolaritza. Gogoratzen naiz Joxemarik egun batean esan zigula «nork nahi du bertsotan proba bat egin Jon Lopategirekin?»; garai hartan Jon Lopategi, ikastolaz ikastola bertsolaritza irakasten aritzen zen. Akordatzan naiz batzar gelan batzen gintuela Lopategik, lau mutil eta ni neska bakarra eta ematen zizkigun gaiak edo lau puntu eta kontua zen bertsoa osatzea, esplikaziorik gabe, gure eginbeharra bat-batean zerbait sortzea zen. Itxuraz, taldetxo hartatik neu nabarmendu nintzen, eta niri eman zidaten aukera eskola orduak galdu eta Lopategirekin trebatzera joateko. Bere Ford Orionen etortzen zitzaidan bila. Batzen ginen Ondarruko, Berriatuko eta Lekeitioko hiru gaztetxo, baita gerora Markinakoak ere, herri bakoitzetik bat. Peru Aranburu, Joseba Gojenola, eta hirurok ibiltzen ginen batez ere. Jasotzen ninduen ni Ondarrun, joaten ginen Josebaren bila Berriatura, joaten ginen Peruren bila Lekeitiora, eta joaten ginen, adibidez, Berrizeko eskolara, eta esaten zigun hemen daukazue zuen adineko jendea zuen bertsoak entzuteko zain. 20-30 neska-mutiko izaten genituen

18. Daniel Landart gaztearen bertso jarriak rock airera moldatu zituzten Anje Duhalde eta Mixel Ducauk Errobiren lehen diskoan, 1975. urtean (Irazu, 2017: 53): «Bertsoak aurreneko aldiz rock doinuetara ekartzeara, ez da sekula behar bezala azpimarratu, eta badu bere garrantzia: Errobik bertsoak rock estilora jotzen zituela esatea, bertsoa euskarazko rockaren hastapen-hastapenetan hor zegoela esatea baita» (Irazu, 2017: 75).

19. 1974an gerraosteko lehen bertso-eskola sortu zuten Leintzen Santi Iparragirrek eta Patxi Goikoleak (eta bertako ikasle izan ziren Sarasua anaiak, Felix Iñurrategi, Arantzazu Loidi eta Danel Goikolea), baina batez ere 1980ko hamarkadan zehar ugaritu ziren bertso-eskolak (Irazu, 2017: 55), eta pixkanaka ikastetxeetan ere bertsolaritza hautazko ikasgai bihurtu zen.

aurrean guk zer kantatuko. «Hona hemen lau oin: *arra, bakarra, zaharra, gitarra*. Bota bertsoa». Hirurak ginen lotsatiak, baina bagenekien gure adineko edo zaharxeago ziren hainbeste neska-mutikoren aurrean isilik egotea lotsa izugarria izango zela, eta orduan, okurritzen zitzaigun lehen gauza botatzen genuen. Astero-astero etortzen zen gure bila, horrela Lea-Artibai inguruko ia eskola guztiak bihurtu ziren gure plaza.

Leire Bilbaoren lekukotzak erakutsi bezala, bertsolaria bertsokideekin trebatzen da, jardun publikoan trebatu ere, eta horren kontzientzia argia izan zuten 1980ko hamarkadan ikastetxez ikastetxe bertsolaritzako saioak eskaintzen aritu ziren bertsolari zein bertsozaleek (besteak beste, Xabier Amurizak, Manolo Arozenak, Joanito Dorronsorok, Abel Enbeitak, Jon Lopategik, Juanjo Uriak). Linda Nochlinek (2001) esandakoaren kontrara, hizkuntza ikastea ez baita aski sormen-lanetan jarduteko, teknika eta entrenamendua beharrezkoak dira, baita kultur esparru edo plazaren gutxieneko ezagutza ere, Leire Bilbaok gogorarazi bezala:

Luis Baraiazarrarekin batzen ginen bazkaltzeko Markinako jatetxe batean. Jon eta Luis euren kontuez aritzen ziren, euskalgintzaz eta noizean behin latinez esaldiak botatzen ere bai. Isil-isilik egoten ginen gu. Belarriak eta begiak adi. Urduri ere bai esango nuke, batzuetan oso urduri; jende aurrean egin behar genuen entrenamendu saioaren tentsioagatik. Sufritu eta gozatu egiten genuen; gauza biak. Lopategik argi esaten zigun: entrenatzera goaz. Oso argi geratu zitzaigun bertsokideei entrenatzen genbiltzala, pelotan edo futboleko bezala, hitzak daukan karga guztiarekin. Hitza entrenatzen genuen, eta ez genituen bakarrik errimak ikasten, hizkuntza trebatzen genuen, doinuak ikasten genituen, baita kantatzen ere. Kanpantxun egiten genuen egonaldian (bertso udalekuen antzerako egonaldi haietan), kantu zaharrak irakasten zizkigun, iparraldeko abestiak eta beste... Lopategirengandik ikasi ditut horiek guztiak.

Bertso-teknikan ez ezik, kulturgintzan trebatzeko aukera izan zuten Leire Bilbaok ikastolako bertso-jardun hartan, eta are gehiago, plaza hartzen ere trebatu zen:

Ez genuen bakarrik bertsolaritzaren transmisioa jaso, baita kulturaren transmisioa ere. Eta era berean, bazen ahalduntzea plazan jende aurrean aritzea. Jon Lopategik bazuen esaera bat sarri errepikatzen zuena «ahotsa altu eta paparra tente». Orduan niri, nahiz eta oso giro maskulinoan izan, horrek bai lagundu zidan berezkoa nuen lotsa alboratzen; gazte-gaztetatik ahaldundu nintzen oholza gainean. Oso pertsona lotsatia naiz, baina oholza gainera igotzean konfiantza izaten dut nigan, urduritasuna disimulatzen ikasi dut, entrenatuta nengoelako oso umetatik oholztan egotera. Lopategiri zor diot ikasgai hori.

Leire Bilbaoren lehen plaza Ondarroa izan zen, Zubi Zahar ikastola, hamasei urte zituela (1994ko ekainaren 4an), eta bertsokide izan zituen Sebastian Lizaso, Iratxe Ibarra, Mañukorta eta *Botx*. Hortaz, lehen unetik plazan parez pare aritu zen puntako bertsolariekin, baita adin zein ibilbide askotariko bertsolariekin ere. Garai hartan plaza asko egin zituen Leire Bilbaok, eta 2000. urtean Lea-Artibaiko I. Bertsolari Txapelketako finalean ere jardun zuen.

Bertsogintza irakaskuntza arautuan txertatzeak ahalbidetu du transmisioa hurbileko erakunde sozialez beste hedatzea (Aierdi *et al.*, 2007: 31, 121), eta hortaz, inguru hurbilean (etxeokak, lagunak, hurbileko jendea...) bertsolaritza ezagutu gabe ere bertsozaletzeko aukera izatea, Leire Bilbaoren ibilbidean gertatu bezala. Transmisio-bide horrek ere bertsolari-profilak ugaritzea ekarri du, baita genero-kokapenari dagokionez ere. Bertso-eskolek trebakuntza-gune ireki bat eskaini badute ere, eta bertsolarien profilak ugaritzea ekarri badu ere, ez naiz Jon Maia<sup>20</sup> bezain baikor; esan bezala, trebakuntzaz gain plazaratzeko baldintzak ere beharrezko dira. Trebakuntza-guneetatik plazaranzko bide horretan aniztasuna galdu egiten da: esate baterako, emakumeen kopurua handiagoa da bertso-eskoletan plazetan baino (Zubiri, 2018: 41). Ziur asko, hala izango da bestelako aldagai sozialei erreparatuta ere (adina, hizkuntza, klasea, jatorria...).

### *Uxue Alberdi, sariketetatik plazara*

Uxue Alberdik hizkuntzarekiko lilura eta kulturzaletasuna aitarengandik jaso zuen «Txikitan, ipuinak eta bertsoak ikasi nizkion, zortzi edo bederatzi urterekin bertso-eskolara animatu gintuen neba eta biok, nagusiagotan, aita literatur lehiaketarako erreorteak biltzen zizkidan». Aitaren keinu hori hauspo garrantzitsu izan zen. «Hark bultzatuta hasi nintzen lehiaketetan parte hartzen». Bertso-eskolan ere aita bultzatuta eman zuen izena. Garai bertsuan egin zuen Alberdik sarbidea bertsolaritzara eta literaturara. Lehiaketek lagundu zioten bi esparru horietan bidea egiten. Alberdik, beraz, 2000ko hamarkadan erroturiko sarbide bat izan zuen akuilu: sariketak edo lehiaketak. Izan ere, EAEn hezkuntza-sistema errotzarekin batera, 1990eko hamarkadatik aurrera ikastetxeen arteko sariketak ugaritu ziren, bai bertsolaritzaren esparruan, bai literaturaren esparruan. Honela ditu gogoan hastapenak Uxue Alberdik: «Bertso-paper lehiaketetara eta ipuin lehiaketetara aurkezten hasi nintzen, eta sariak irabazten hasi nintzen... Horrek motibatu egiten zaitu aurrera segitzeko». Hainbat sari jaso zituen garai hartan, bertso-paper lehiaketetan: Xabier Munibe Bertso-paper Lehiaketa (2000); Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, bertso jarriak (2001); Durangoko Julene Azpeitia Bertso-paper Lehiaketa (2003); Lazkao Txiki Bertso-paper Lehiaketa (2005). Alberdiri, beraz, sariketek eman zioten trebatzeko espazioa: «Bertso-paperak idazketan eta hitzarekin

20. Hala gogoetatzen du gaiaren inguruan Jon Maiak: «Bertso eskolek bertsoa demokratizatu dute, bere zentzurik zabalenean eta uzten badidazue, friboloenean. Edozein izan daitekeela bertsolari esan zutenean ez zieten soilik kalekume, neska edo erdal familiako jatorridunei esan. Lehengoz gain, bertsotara hurbiltzeko bidea eman zieten klase altueneko zein baxueneko familia jatorrikoei, peoi zein burges familiakoei, irakasleen seme-alabei, funtzionarioenei, babes ofizialtako etxean zein txaletean bizi zirenei, futbolisten zein medikuen ondorengoei... bakoitzak bere etxetik jasotako hura bertsolaritzara transmitituz. Eta, halaber, artista izan nahi zutenei, anbizioidunei, enpolloiei, antiklerikal kultura zuten haurrei, bataiatu gabeei, jaunartzearen aurkakoei, gurasoak bananduta zituztenei, heterosexualei, homosexualei, lesbianei, in vitro jaioakoei, porroak erretzen zituztenei, igerilariei, piraguistei, ezintasun fisikoren bat zutenei, barbiekin jolastan zutenei, scalextricarekin, gutxi zutenei eta gehiegi zutenei... Alegia, bertsolaritzaren eta bere ordura arteko profilarren eta edukien iraulketa erabateko baten atarian geunden» (Maia, 2017: 59-60).



trebatzeko garrantzitsu izan ziren niretzat». Bertso-plazara jauzi beranduago egin zuen elgoibartarrak:

Bertso-plazarekiko lotura, edo bertso-kuadrilla batez ere unibertsitate-garaian topatu nuen. Ez naiz umetatik bertso-eskolan trebatu direnetakoa. Nire belaunaldiko askok umetatik ezagutzen zuen elkar, bertso-mundutik, bertso-eskoletatik, Eskolarteko Txapelketetatik... Miren Artetxe, Beñat Gaztelumendi, Oihana Bartra, Agin Rezola, Alaia Martin... Nik beranduago egin nuen bertso-plazara sarbidea, nahiz eta lehenago bertso-paperak ere idatzi. Pisukideen artean, ikaskideen artean, bertsozale eta bertsolariak baziren, eta Santutxuko bertso-eskolan taldetxoa egin genuen. Hasieran plazan gai-jartzaile edo antolatzaile aritu nintzen. 2004. urtean Elgoibarko Gabonetako bertso jaialdian, adibidez. Bertsolari gisa Bilboko saioetan eta Plazatik Gaztetzera txapelketan hasi nintzen.

Artean hogeitun urte zituela. Nolanahi ere, bertsolari-ibilbidean une gogoangarri hau aipatzen du Uxue Alberdik: «Xenpelar Saria irabazi nuen 2006. urtean, 22 urterekin. Xenpelar Saria irabaztea niretzat mugarri bat izan zen. Xenpelar Saria, bertsolari on askok irabazitako saria, miresten nuen askok irabazitakoa. Urtebetera, Hamaika bertute kolektiboko kide izan zen. Hamaika bertute kolektiboa bertsolari gazteek sortu zuten, plaza gehiagotan parte hartzeko aukera izateko, 2007. urteko urtarrilean: «Hamaika bertute eskola garrantzitsua izan zen niretzat». Urte hartan bertan Gipuzkoako txapelketako finalurrekoetara heldu zen, eta 2009. urtean baita Txapelketa Nagusiko finalerdietara ere.

### ***Bertsogintza eta literaturgintza bidegurutzan***

Bertsolaritzarako eta literaturarako sarbidea eskutik etorri zen Itxaro Bordaren ibilbidean, baita Uxue Alberdiren ibilbidean ere; Bordak kazetaritza-jardunean abiatu zituen biak, eta bertso-plazan ere aritu arren, berehala urrunduz bertso-mundutik; Alberdi, aldiz, sariketen bitartez trebatu zen, eta unibertsitate-giroko bertsozaleen eskutik hurbildu zen bertso-plazara, baita Santutxuko bertso-eskolaren eskutik ere. Bi kasuetan, nolanahi ere, trebatze-prozesuan zein plazaratze-prozesuan anonimotasuna izan zuten lagun, azken batean, sariketetara aurkeztean izengoitia ere jarri ohi delako, epaimahaiek testuak nori idatziak diren jakin ez dezaten. Anonimotasunaren itzal horretan hitz-sorkuntzan trebatu ondoren egin zuten biek bertso-plazara jauzi, hain zuzen ere, anonimotasunerako zirrikiturik eskaintzen ez duen espazio batean hitza hartzeko. Itxaro Bordak adierazi bezala, *Herrian*, *Zeruko Argian* eta prentsan idazten zuenean, hurbileko guztiek ez zekiten bera zenik Itxaro Borda goitizenezkin sinatzen zuena, eta hartara, iritzia emateko askatasun handiagoa sentitzen zuen, babestuago sentitzen zen. Bertso-plazan, aldiz, ezinezkoa zen gordetze hori, babeste hori.



Uxue Alberdik literaturan ere lehiaketa esanguratsuak irabazi zituen, bertso-paperak saritu zizkioten garai bertsuan, eta lehiaketetan jasotako aitortza hura akuilu izan zen kulturarekiko jakin-mina areagotzeko, eta kultur ekimenetan parte hartzeko:

17-18 urterekin Elgoibarko ipuin lehiaketan eta Bergarako gutun lehiaketan sariak jaso nituen, eta sariketa horien ondotik literatur munduko jendearen iritzia jasotzen hasi nintzen, idazten nuenarekiko interesa ere agertu zuten... Lehiaketak eta sariak irabazten hasi nintzen garai horretan kulturarekiko jakin-mina areagotu zitzaidan, eta saltsera bat naizenez, han eta hemen muturra sartzeko gogoia piztu. Orduko mutil-laguna konbentzitu nuen Zestoako bertso-eskolan izena emateko, nik ez nuelako gidabaimenik, ez kotxerik, eta biak hasi ginen bertso-eskolan. Mutil-lagun hura konbentzitu nuen Larrabetzuko Literatura Eskolara hurbiltzeko ere... Batean zein bestean bertso-munduko eta literatura-munduko jendea ezagutzen hasi nintzen.

Leire Bilbaok, aldiz, bertsolaritzatik literaturaranzko jauzia egin zuen, eta ez da sekula bi esparruetan aldi berean aritu. Literaturgintzarako jauzi horretan, bertsogintzan ez bezala, sariketak ere izan ziren sarbide garrantzitsu:

Bertso jarriak izan ziren literaturarekin izan nuen lehen harremana [...]. Bertso idatzien lehiaketaren bat edo beste irabazia nuen, Ondarruko herri mailako narrazio lehiaketa batzuk ere bai eta Urruzuno eta R.M. Azkue sarietara aurkezteko hasi nintzen poesia jorratzen. Bertsoetatik poesiara igaro nintzen era natural batean. Eta gerora neure erabakiz plazak definitiboki utzi nituen arren, denbora pasa ahala, sortzeko sentitzen nuen harra handitzen zihoakidan. Zorionez, Larrabetzuko Literatura Eskolan hasi nintzen parte hartzen eta 2006an, 27 urte nituela argitaratu nuen *Ezkatak* lehen poemaliburua han ezagutu nuen idazle lagunei esker.

Hartara, trebatzeko gune bihurtu dira sariketak, nahiz eta oraindik ere gazte-sariketetako sortzaile emakumeen parte-hartzea handiagoa izan literatur plazakoa baino.

Ibilbideak ibilbide, hiru sortzaileon kasuan bertso jarriak edo bertso-paperak literaturaren eta bertsolaritzaren arteko zubi bilakatu izan dira, eta hirurek, gainera, euren ibilbideen hastapen haietan euskal hedabideetan bertso jarriak argitaratu edo kantatu zituzten<sup>21</sup>. Itxaro Bordak, esaterako, 1976tik aurrera *Zeruko Argian* hilabetean behin bertso jarriak plazaratu zituen; Leire Bilbaok Euskadi Irratian kolaboratzen hasi zen 1997. urtean-edo Arantxa Iturbe eta Jaime Otamendirekin, eta bertso bat osatzen zuen asteko gai baten inguruan; eta Uxue Alberdik ere Euskadi Irratiko saio berean kolaboratu zuen testu literarioak irakurriz. Hedabideak bihurtu ziren sortzaile hauen bertsoak plazaratzeko bitarteko garrantzitsu, eta hortaz, baita trebatze-gune ere.

---

21. Bertso jarriek ahozko kulturaren eta kultura idatziaren artean zubiak sortzen dituztela adierazi du Joseba Zulaikak, aita bertsozalearen lekukotzen inguruko gogoetetan (Zulaika, 2003).

## **KULTUR ESPARRUEN FUNTZIO SOZIALAK ETA GENERO-LOGIKAK**

*Bertan aipatzen ditut herria  
naizena eta euskara...  
Maddalen Arzallus*

Kultur sorkuntzetan nortasunak ere badira auzigai, izan maila pertsonalari dagozkionak (*naizena*), izan kolektiboari dagozkionak (*herria*), izan adierazpideari dagozkionak (*euskara*). Nortasun horietan, jakina, badute eraginik kultur jarduera jakinetan garaturiko genero-arauek edota genero-diskurtsoek.

### ***Bide komunitarioa vs bide bakartia?***

Kultur esparruaren joerak, komunitarioak ala bakartiak, badu eragina sortzaileek plaza hartzerakoan, sortzailearen nortasunak bateko zein besteko bidea hobetsiko duelako. Itxaro Borda erosoago sentitu zen literaturan bertsolaritzan baino, nortasun bakartiak ere hartara bultzatuta: «[Bertso-plazan] Jende asko ezagutu nuelako pozten nintzen, baina oso beldurtia nintzen, eta plazak paperak baino gehiago beldurtzen ninduen. Bakartia ere banintzen nerabezaroan (hori ez da aldatu)». Bestalde, bertso-plazan hasi eta urte gutxira *Maiatz* aldizkari literarioa sortu zen, eta ekimen horren bueltan topatu zuen Bordak bere lekua: «Literaturan hobe senditzen nintzen, 1981ean *Maiatz* sortu genuen eta horretan sartu nintzen buru-belarri». *Maiatz* literatur aldizkariaren sortzaileetarikoa bat ez ezik, zuzendari ere izan zen Borda 1981etik 1991ra arte (Urkiza, 2006: 277). Hain zuzen ere, euskarazko literatur aldizkariaren artean *Maiatz*ek eman die sortzaile emakume gehiagori ahotsa, testu orori leku egin diolako, edizio-galbaherik jarri gabe (Asurmendi, 2013).

Hiru sortzaileek adierazi dutenez, «bertsolaritza kuadrillan edo taldean egiten da, eta literaturan bakarrik zaude». Alegia, bertsolaritzan taldean plazaratzen zara, eta literaturan, aldiz, bakarrik. Nolanahi ere, kultur kolektibo bateko kide izatea ere akuilu izan zen Bordarentzat, bakartia izanik ere *Maiatz* aldizkariaren sarea funtsezko bilakatu baita bere ibilbidean. Leire Bilbaok, aldiz, literaturaren plazara jauzi egin zuenean ez zuen halako gunerik topatu: «Lehen liburua argitaratu nuenean ez nintzen inongo sentitzen, inongo kuadrillako sentitzen. Susa nahiko maskulinoa izan da, orduan hala zen, eta aurkezpenetan argialetxetik ere gizonak bakarrik hurbildu ohi ziren, baina nire lagunak ere han ziren, nahiz eta literatur mundukoak izan ez». Uxue Alberdik ere bertsolaritzaren bide komunitario hori faltan hartu zuen literatur munduaren lehen urratsetan: «Bertso-mundua askoz abegikorragoa izan da, sozialagoa, jendeak adeitsuago egin ohi dizu harrera; literatur munduan etsaitasunak edo urruntzeak agerikoagoak sumatzen nituen, harremanetarako eremu zailagoa egin zitzaidan hasieran». Sortzaileen lekukotzek agerian utzi duten moduan, literaturaren eremuan sormen-prozesua bakartiagoa izan ohi da, eta bertsolaritzan,

aldiz, komunitate bateko kide sentitzen da sortzailea<sup>22</sup>. Are gehiago, bertsolaritzan trebatzeko plazan egoteko prestasuna ezinbestekoa da: oholtza gainean edo plazan agertzeko prest egon behar du bertsolariak, ordu txikitan aritzeko prest, herriz herri ibiltzeko prest<sup>23</sup>. Jakina denez, espazio publikoa hartzeak, are ordu txikitan zein etxetik urrun, ez du inplikazio sozial bera emakume izendatuentzat. Literaturan idazleak espazio publikoa hartzeko bide propioak gara ditzake, hainbat modutara har daitekeelako espazio publikoa literatur plazan (sorkuntza, hedabideak, irakurle taldeak, kultur ekimenak...).

Lekukotzek ez ezik, kultur diskurtsoek ere bertsolari edo idazlearen inguruko irudi horiek elikatzen dituzte. Bertsolaritzaz teorizatu izan denean sarritan *bertsolari-nortasuna* ere definitu izan da, baita bertsolariak izan behar dituen dohainak aurkeztu ere. Hona hemen adibide zenbait:

Bertsolaritzaren alderdi erretorikoari jarraituz, beste zenbait dohai ere aipagarriak dira izan. Batez ere entzuleekiko harremanek eskatzen dituzten giza baldintzak, giza jarrerak [...]. Horregatik, bertsolariaren eta entzuleen arteko harreman honek dohai bereziak eskatzen dizkio bertsolariari plazako bertsogintzan: entzuleen munduarekiko sentiberatasuna, begirunea eta maitasuna. Entzuten dagoen jendetza ondo ezagutu behar du. Entzuleek bezala pentsatu behar du, publikoarekin batera pentsatu ere (Lekuona, 1982: 127).

Ondoren sentiberatasuna aipatuko genuke. Inoiz bertsolariak lakarra dela badirudi ere —gaur ez hainbeste, noski—, barrutik sentiberatasun handiko gizona dela sumatzen da eta ikusten [...]. Handi-husterik gabea behar duela izan plazako bertsolariak; eta, gainera, egokitasuna eta duintasuna behar dituela eduki bere izaera eta jokabideetan (Lekuona, 1982: 128).

Dialektikarako trebetasun handia behar du izan koblakariak. Gero hitz azkarra, segurua eta eztabaidarako zorroztua (Lekuona, 1982: 129).

Ahots ozenarekin batera, beste zenbait dohai ere aipa daitezke gorputzaren aldetik. Presentzia ederra edukitzea, gorputz egokia, eta, batez ere, sentimenduak zabaltzeko talante kutsakorra edukitzea (Lekuona, 1982: 130).

---

22. Askotan aipatu da bertso-kuadrillaren edo bertso-komunitatearen auzia. Hona hemen Jon Maiaren hitzak: «Baina bertsogintzak baditu hauskorragoa bihurtzen duten ezaugarri batzuk. Bertsolari nerabe zein helduak gutxieneko kolektibo bat behar du bere gustuko jardueran jarraitu ahal izateko. Behin plazetan ari delarik gutxieneko eskaera bat ere derrigorra du, maite duen horretan publikoan aritzeko. Izan ere, bertsolariak lagunak eta publikoa behar ditu, eta biak ere euskararen eremu “murriztuaren” baitan topatu behar ditu, eremu estu horretan baitago maratoia korritzeko bidea» (Maia, 2017: 71). Lagunak eta publikoa topatzeko bide horretan, sortzaile feministek ere urratsak egin dituzte azken urteotan, bertso-komunitate feminista eraikitzeko.

23. Joseba Zulaikak gogoan du bere aitaren bertsozaletasuna, sukaldean bertsoak kantatzen aritzen zena, eta tarteka-marteka tabernaren batean edo familia-giroan bertsotan aritzen zena. Uztapide zuen lagun, eta Zulaikak oroitzen duenez, «Uztapidek jende aurrean kantatzen has zedin zirikatu zuen, baina gure aita lotsati eta ezgauza sentitzen zen» (Zulaika, 2003: 72).

Juan Mari Lekuonak adierazi bezala publikoarekin harremana are zuzenagoa da bertsolaritzan, eta jendekoiago aritzeko joera dago. Jakina, bertso-jardunari loturiko ezaugarri horiek (jendetasuna, plazazalea, ibiltaria, jatortasuna, ziurtasuna, zorrotasuna...) maskulinitate hegemonikoak indarturiko plazagizonaren irudia dute oinarri, eta genero-zamaz bete ohi dira jarrera horiek emakume izendaturiko gorputzek zeharkatzen dituztenean. Bertsolariaren irudiak eta ereduak ugaritzen ari badira ere, Lekuonak (1982: 126-130) garaturiko dohain-zerrenda horren itzalik egun badela uste dut. Itzal horren ondorioz, genero-azua azaleratze hutsak, edo genero-talka gorpuzte hutsak, *bertsolari-nortasun idealak* gorpuzturiko zenbait ezaugarri urratzea dakar. Azken batean, bertsolari jator eta apalaren irudiak badakar harmonia kolektiboaren babesle izatea, eta edozein gatazka azaleratzeak ezinbestean bertsolari neurritsuaren zein jendekoiaren irudia urra dezake, eta aldarrria oker interpreta daiteke: erasotzat hartu (bihozbera- eta jendetasun-irudiak auzitan jarritz), komunitatea desegituratzeko ekintzat hartu (komunitatearen zaindaritza zalantzan jarritz), protagonismoa lortzeko estrategiatzat hartu (apaltasunaren irudia urratuz), eta abar. Halako irudikatzeen adibiderik bada bertso-esparruan bertan: izan ere, Xabi Payak eta Patxi Gallegok *Nork* (Bertsolari, 2015) komikian Uxue Alberdi gorpuztean —eta Alberdiren kokapen feministaz ari direla argi utzita—, alderdi hauek hanpatzen baitira: erasokorra, agintaritzarako joera, nabarmenkeria, harmoniaren urratzaile...

Literatur esparruan, aldiz, egiletasunaren teorietan bi joera nagusitu ziren XX. mendean zehar (eta gaur egun bi horiek dute itzal handien Euskal Literatur Kritikan)<sup>24</sup>. Batetik, XVIII. mendetik aurrera jenialtasunari loturiko idazle-irudia hedatu zen (artista-irudiarekin gertatu bezala) (Schaeffer, 2016), ikuskera hauek oinarri dituen: originaltasuna, inspirazioa, sorkuntza egilearen barne-munduaren adierazpen gorena da, kanpo-munduaren eraginetik urrun kokatzen da sortzailea, eta abar. Ikuspegi hori *singularitatearen erregimen* gisa izendatu izan da (Pérez Fontdevila eta Torras Francés, 2016: 27)<sup>25</sup>. Bestetik, egilearen nortasuna eta gorpuztasuna urtzeko ahaleginak egin dira Literatur Teoriatik eta Literatur Kritikatik, batez ere 1960ko hamarkadatik aurrera, estrukturalismoek eta korrante dekonstruktibistek indarra hartu zuten garaitik. Ordukoa ere bada Roland Barthesen «La mort de l'auteur» (1968) lan ezaguna; Barthesek autoritatearen ikuspegi erromantikoa kritikatu zuen, eta komunikazio literarioak testuan zein irakurlean arreta jarri behar zuela aldarrikatu. Egiletasunaren bi ikuspegi horiek oso urrun badaude ere, izan badute

24. Literatur egiletasunaren ekarpen teorikoen arrastora eraman ninduen Ibon Egañaren hitzaldi honek: «Egilearen gorputik gorputzera. Ohar teoriko batzuk egiletasunaren inguruan» (Eibar, 2018ko azaroaren 23a), UEUko *Egiletasuna eszenaratzeko moduak: hurbilketa bat literatur kritika feministatik* ikastaroan eskainitakoa.

25. «Como muestran Schaeffer y Woodmansee [...], la principal operación de este proceso consiste en la interiorización de la inspiración: “en lugar de ser una posesión que sobreviene del exterior (normalmente de un lugar trascendente), será concebida como una fuerza alojada en el interior del alma del artista” [...] la obra se concebirá como propiedad exclusiva del autor en tanto “impresión o [...] encarnación verbal de [su] intelecto”, identificándola con el *fuero interno* y desligándola del *foro público*» (Pérez Fontdevila eta Torras Francés, 2016: 28).

zerbait amankomunean: egilea testuinguru soziokulturaletik eta komunitatetik at kokatzen dute. Are gehiago, idazlea gorpuztu gabeko subjektutzat definitzen da: batean, arimaren, gogoaren edo jenialtasunaren adierazletzat hartzen delako; bestean, idazlea testu-arrastotzat hartzen delako, ez subjektu sozialtzat. Hala izanda, *idazle emakume* kategoria gatazkatsua da, emakumetasunak ezinbestean gorpuztasuna jartzen duelako jokoan, baita kokapen soziala ere. Ibon Egañak (2014) ohartarazi zuenez, euskal literaturan «1990eko hamarkadara arte ez du egile funtzioak egiazko kapital kultural autonomorik eskuratu ahal izan, ordura arte kapital politikoarekin loturikoa baitzen idazlearen kapitala» (Egaña, 2014: 266), baita idazle-irudia ere. 1990eko hamarkadako prentsako Literatur Kritika aztertuta Ibon Egañak (2014) ondorioztatu duenez, idazle emakumeen lanak balioestean, besteak beste, gorpuztasuna azpimarratzen da, idazletasunaren kaltetan:

Gorpuztasuna eta sentsualitatea azpimarratzera jotzen da. Hots, idazle bainoago emakume bezala markatzen ditu kritikak sarri idazleok, eta gorputzari eginiko erreferentziak baliatzen dira horretarako. Bestela esanda, idazletasuna (intelektualitatea) bigarren mailan geratzen da emakumetzko idazleen lanen kritikan, horren ordez gorpuztasuna markatuz (Egaña, 2014: 325).

Bertsolariaren 1980ko definizioetan gorpuztasunak, ordea, bazuen lekurik (Lekuona, 1982); nolahi ere, bertsolaritzaren esparrua erakundetu ahala, eta bertsolaritzaren beste teorizazio zenbait garatu ahala, 2000ko hamarkadaren hasieran bertsolariaren gorpuztasuna itzalean geratu zen, eta erretorikari eman zitzaion lehentasun, baita dialektikari edo argudio-bideari ere (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001). Gaur egun ere han-hemen errepikatzen da ikuspegi hori:

Bertsolariak bat batean dihardu, pentsamenduaren kudeaketa etengabe, automatizazioak entrenatuta ere egoera sekula ez dago erabat kontrolpean eta ziurgabetasun horretan, gorputzaren kontrola mekanismo garrantzitsua da pentsamenduaren —beraz hizkuntzaren— kudeaketarako. Denboraren poderioz, bertsolaritzaren liturgiaren parte bihurtu da gorputzaren kontrol hori [...] gorputza pausan utzita gogoia egoki mintzo dadin (Irazu, 2017: 148-149).

Ezaguna denez, azken urteotan bertsolariaren gorpuztasunaren inguruko gogoetak garatu dira bertsolari emakumeen diskurtsoetatik (Alberdi, 2014) edo antropologia feministatik (Hernández, 2014).

*Kolektibitate/singularitate* ikuspegiari dagokionez, *bertsolari*-nortasunaren diskurtsoa eta *idazle*-nortasunaren diskurtsoa kontrakarrean eraiki direla esan daiteke. Ziur asko, ikuspegi-talka horrek ere ekarri du bertsolari- eta idazle-jardunean batera aritzeko zailtasuna, edo kultur esparruko eragileek zubi-jardun horiek edo mugako jardun horiek balioesteko zailtasuna. Alegia, bertsolari batek literatur munduan sartu-irtena egitea ongi ikusirik dago (baita alderantziz ere, kasurik gehienetan, bertso jarrien bidez); baina bi esparruetan modu iraunkorrean aritzeak segur aski susmoak sortuko ditu bertsolaritzan zein literaturan, bateko zein besteko egile-irudian arrakalak sortzen dituelako (esate baterako, Uxue Alberdi da salbuespen

horietariko bat, bi esparruetan diharduena, aldi berean, ibilbide osoan zehar). Halaber, kolektibitatearen ikurtzat hartzeak edo singularitatearen ikurtzat hartzeak generomugatzeak dakartza; esan bezala, *emakume* kategoriak zail du komunitate osoaren ordezkari izatea, eta aldi berean, *emakume* kategoriari beti egozten zaio emakumeen kolektiboaren ordezkari izatea (beraz, zail du singularitatetzat hartzea ere).

### *Nortasun eredugarrien itzala*

Beraz, komunitatearen genero-logikek lekuz kanpo sentiaraz dezakete sortzailea. Hala ere, sortzaileen genero-kokapena ugaritu ahala, sortzaile-eredu berriak ikusgarri egiten dira pixkanaka, eta nortasun eredugarri hegemonikoen logika pitzatu, gutxika bada ere. Esate baterako, literatura inprimatuaren plazan emakume-ahotsak arrotz zirela ezagun zuen Mogelek, *Ipui onak* (1804) liburuaren hitzaurrean adierazi zuenez<sup>26</sup>, hain zuzen ere, hitzaurrea egiletzaz jarduteko gune garrantzitsu bilakatu zen garaian<sup>27</sup>.

Arroztasuna kultur eragileek sor dezakete euren diskurtso edota jarrera esplizituekin, edo izan daiteke kultur ereduek sorturikoa. Horregatik, diskurtso esplizituki erasokorrak ez daudenean ere, garrantzitsua da sortzaile-eredu ugari ikusgarri egitea. 1970eko hamarkadan, antza denez, kultur eragileen diskurtso batzuek kritikatzin zuten emakumeek kultur plaza hartzea, modu agerikoan egin ere. Hala oroitzen du Bordak:

1970eko edo 1980ko hamarkadan ez zen ezer emakume kokapenetik gogoetetzen, baina egia erran, militantea izan gabe, nik De Beauvoiren *Bigarren Sexua* irakurria nuen 1976an eta banuen feminismoaren halako hurbilpen bat eta batzuetan minberatzen ninduten bertsolarien (orduan, gaur baino gordinagoak ziren emazteekiko —ezberdinekiko— diskurtsoetan) ateraldiek. Behin, Donapaleun ginen, Alkatek, arraieriaz menturaz eta airean zegoen giro gizonkoiaren (matxismoa) arabera, bertsotan kantatu zidan hobe nuela etxean kozinan egon, gaitzitu eta bide horren uztea erabaki nuen [...]. Erran behar dut beranduago *Herria* astekarian izan zela halako eztabaida bat Ezpondaren eta Andere Atalkiren (Marijane Minaberri) artean emaztea, plaza, bertsolaritza, kultura eta sukalde zokoa gaiak biltzen zituela<sup>28</sup>.

26. «Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoela itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean [...] besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitze liburugiñen: asko duela gorua, naiz jostorratza zuzen erabiltzea [...]. Nola nik siniserazoko diet askori, euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argiratu dituzten ipuiak? Nolakoa arrotasuna berri latinezko itzkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea euskera, gaztelania, eta latinezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan!» (Mogel, 1963 [1804]: 37).

27. «La imprenta inaugura también modalidades de alienación o expropiación distintas a las de la obra manuscrita que hacen necesaria la proliferación de marcadores de autorialidad —desde la misma firma hasta diversos dispositivos de (auto)presentación, como los prólogos o, más adelante, la representación iconográfica—» (Pérez Fontdevila eta Torras Francés, 2016: 24).

28. *Argia* aldizkariko elkarrizketa batean ere honela oroitu zuen giro hura: «Nik bertsoak idazten nituen gehienbat, kantatu ere bai, baina ez ausart, beti nire herabekeriarengatik. Egia da garai haietan, 1970eko hamarkada hartan ez zela emazterik ez neskarik bertso munduan, eta beraz, idatziz bai, Marijan

Emakumeek bertso-plaza hartzea auzitan jartzen zen, beraz. 1990eko hamarkadan, aldiz, bertsoaldietan beste galdera zenbait ekarri zituen bertsolari emakumeek plazak hartzeak. Jada ez zen zalantzan jartzen espazio sozial hori hartzerik zuten, baizik eta bertsolari emakumeak agerpen berri izanik, jakin-mina pizten zuten, eta berezitat hartu. 1990eko uztailaren 10ean Lazkaoko Jaialdian Maialen Lujanbio eta Ainhoa Munitxari Pello Urretabizkaiak jarritako gai hau: «Zer sentitzen du neska batek mikrofono aurrean bertsoan?».

Giro hartan plazaratu zen Leire Bilbao: «Herriko bertsolaria bihurtu nintzen bat-batean, Ordura arte eta baita orain ere, Ondarruko bertsolariak Jon eta Botx ziren, tabernako bertsolariak, oso jatorrak, kalekumeak, eredu jakin batekoak. Eta ni agertu nintzen bat-batean, neska eta gaztea, eurek errepresentatzen zuten plazagizon prototipotik oso urrun». Garai hartan, beraz, eredia zen arrotz sentiarazten zuena (ez diskurtso esplizitu jakin bat), maskulinitasuna baitzen nagusi (Larrañaga, 1994):

Oso emakume gutxi zebiltzan garai hartan bertsoan. Lea-Artibain Iratxe Ibarra zegoen. Baina apur bat nagusiagoa zenez, eta maila hobea zuenez, beste zirkuitu batean zebilen. Gerora Kanpantxun ezagutu nituen Oihane Enbeita, Onintza Enbeita, Zihara Enbeita eta Alaitz Areitio. Oso ilusionagarria izan zen emakume gehiago ezagutzea. Mutil-giroan sentitzen bainintzen ordura arte.

Uxue Alberdik, aldiz, bertsolari emakumeak izan ditu bertso-kide ibilbidearen hastapenetik: «bertso-munduan kide emakumeekin aritzea ohikoa izan da hasieratik, Hamaika bertuten ere bazeuden Amaia Agirre, Ainhoa Agirreazaldegia, Miren Artetxe, Oihana Bartra, Estitxu Eizagirre...». 1990eko hamarkadaren hastapenetan bertsolari emakumeen kopurua izan zen kezka<sup>29</sup>, baina kopuruak gora egin ahala, eta plazetan zein bertso-munduan bertsolari, gai-jartzaile, bertso-eragile eta bertsozale emakumeak (eta feministak) areagotu ahala, genero-auzia bihurtu da kezka. Bertsolari emakume eta feministak areagotzea arrotasun-sentimenduak eta biolentziak (fisikoak eta sinbolikoak) identifikatzea ekarri du, baita horiek arintzeko estrategiak garatzea ere (Alberdi, 2019).

---

Minaberrik ere egiten zituen *Herrian* bertsoak nik bezala, baina plazetan oso laster harrapatzen genituen halako belarrondoko batzuk, gogorak, eta uste dut batzuetan belarrondoko haiek umiliatzaileak zirela. Beharbada, ez nahita, beharbada irri egiteko, baina bere burua mundu honetan aurrera atera nahi duenarentzat umiliatzaileak suertatzen dira halako belarrondokoak, eta enetako uste dut hala gertatu zela. Eta gero, energia asko behar nuen jendearen aintzinean agertzeko, eta hori ezinezkoa zen, errazago da bakartasunean idaztea» (Alberdi, 2010).

29. 1990eko uztailaren 10ean Lazkaon Ainhoa Munitxak hala bukatzen zuen bertsoaldia: «neskato gehio izango al gara / jaunak, bihar edo etzi».



### ***Komunitatearen ordezkari***

Kultur esparruei askotariko funtzio kolektiboak eta sinbolikoak esleitu zaizkie, garaian garaiko joera soziokulturalen arabera: esate baterako, batzuetan herritartasuna ordezkatzeko funtzioa aitortu izan zaie. Adibidez, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, erromantizismoaren giroan, dantza tradizionalak ordezkatzeko zuten herri-gorpuztasuna; edo hizkuntza hartu izan da herri-nortasunaren ikur nagusitzat, edo bertsolaritza, edo literatura, edo musika, eta abar<sup>30</sup>. Kultur esparruei ordezkari-tza-funtzio hori eman izan zaienean, edo kultur sorkuntza jakin batzuek plaza esanguratsuki hartu dutenean, erakunde erlijiosoek edo politikoez edo kulturez genero-arauak edo genero-logikak estutu izan dituzte. Dantza tradizionala dugu horren erakusle: alde batetik, eliza katolikoak XVI. mendetik XIX. mendera arte dantza tradizionala arriskutsutzat hartzen zuenez, arautu egin zuen (baita kasu batzuetan debekatu ere); beste alde batetik, XIX. mendearen amaieratik aurrera foruzaletasunak eta abertzaletasun katolikoak dantza tradizionalak hartu zituzten komunitatearen ikurtzat (Bidador, 2005: 13-86), eta besteak beste, omenezko dantzetan genero-praktikak maskulinizatu zituzten. Azken batean, Monique Wittigek (2010) gogorarazten duen moduan, maskulinitasunak ordezkatzeko du unibertsala, kolektiboa; feminitasuna, aldiz, emakume-taldearen ordezkari-tzat hartu ohi da, ez kolektibo osoaren ordezkari-tzat. Esanguratsua ere bada *emakume idazle / emakume bertsolari* zabalduago daudela, idazle emakume edo bertsolari emakume baino, emakumetasuna erro nagusitzat hartuta. Sortzaileak biltzen dituen kidego edo esparru batean, sortzaile izendapenari gehitzen zaion edozein «adjektibo» edo «tasun» (*idazle anarkista, idazle nazionalista, idazle konprometitua, idazle lesbikoa...*) susmagarria da, sortzailetasun huts eta garbia auzitan jarriko bailuen. Hurrengo bertso-gaia izan bada aipaturiko ikuspegi horren erakusle. Bilbon, 2013ko abuztuaren 20an, honako gai hau jarri zien Ibon Aristik lau bertsolariri (Oier Aizpurua, Uxue Alberdi, Iñaki Apalategi eta Amaia Iturriotzi):

Nahiz gaizki dagoen hemen esatea eliza baten ondoan gaudelako, bertsolariak politeistak dira. Alegia, jainko bat baino gehiago dituzte. Adibide batzuk jartzearen: Andoni Egaña dago, bertsolari ahalguztiduna, edo Maialen Lujanbio, emankortasunaren irudi edo bertsolari askoren ama dena. Antzinako greziarrek bazuten parrandaren eta desfasearen jainko bat; haiek Dionisio zuten, eta guk... Badaezpada izenik ez diot jarriko. Gehiago daude: Amets Arzallus, adimena eta intelektualtasunarena eta abar. Zein da, baina, zuek gehien gurtzen duzuen bertsolaria? Eta zeren jainkoa da? (Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

Egaña ahalguztiduna, unibertsaltasunaren ordezkari; Lujanbio ama eta emankortasuna, emakumetasunaren ordezkari; Arzallus adimena, pentsamenduaren eta gogoaren ordezkari. Zalantzarik gabe, guztiak ere genero-aurreiritziz eraturiko

30. Jon Kortazarrek gogorarazten duenez, «1930. urte ingurura arte, uste zuten herriaren arima hizkuntza zela; orduan aurrera berriz, herriaren arima literatura dela esango da» (Kortazar 2000: 13). 1960ko hamarkadan, besteak beste, kantagintza berriak hartu zuen komunitatea ordezkatzeko indar hori, eta 1980ko hamarkadatik aurrera bertsolaritza izendatu zen *hitzairen kirol nazionala* (Amuriza, 1981).



definizioak. Uxue Alberdiren bertso hauek hain zuzen ere bertsolari *gurtu* horiez jarduteko beste bide batzuk proposatzen dituzte: «Ba nik Jon Maia habaneretan / Maialen gai irikian / Jon Sarasua filosofatzen / ta Amets zortziko txikian». Alegia, bertso-jardun jakin batek du bertsolaria definitzen.

Ondorioz, herritartasuna edo komunitatea eraikitzeke funtzioa hartu duten kultur sorkuntza askotan ordezkartza-ereduetan maskulinitasuna gailendu da, hainbat sinboloren irudira (*aita, profeta, militantea...*). Gaur egun bertso-esparruak komunitatea eraikitzeke gaitasun handiagoa du literatur esparruak baino<sup>31</sup>; gaur egun eragin soziokultural handiagoa ere badu, nabarmen. Ikuspegi kolektibo horren lekuko dira bertsolaritza zein bertso-jarduna izendatzeko bideak: *herri-poetak* (Lekuona, 1982: 124), *hitzaren kirol nazionala* (Amuriza, 1981), eta abar. Ezbairik gabe, euskalduntasuna eraikitzeke edo ordezkatzeko gaitasun hori esleitzen zaio bertsolaritzari, euskararekiko atxikimenduan baitu erro nagusi. Hortaz, euskaltzaletasunaren inguruko diskurtsoek eragina izan dute bertsolaritzan; azken urteotan bertsolaritzaren zein feminismoaren arteko bidegurutzak sortu direnez, diskurtso horiek ere zeharka izan dute eraginik bertso-eragileengan. Haatik, bada aintzat hartzeko gako garrantzitsu bat: euskaltzaletasunaren zein feminismoaren arteko bidegurutze horretan batik bat hizkuntza-ikuspegiak izan dira hizpide, eta eskasago izan dira euskalgintzan kultur ikuspegiaren, pentsamendu estetikoaren edo gogoeta erretorikoen inguruko ekarpen feministak.

Bestalde, bertsolaritzan bertan ordezkartzak hautatzeko (edo autoritateak eratzeke) adostasuna handiagoa da: Txapelketa Nagusian jokatzeko dira batez ere bertsolari eredugarrien izenak. Testuinguru horretan oso esanguratsua da bi Txapelketa Nagusitan (2009, 2017) Maialen Lujanbiok txapela eskuratu izana, genero-ikuspegiari dagokionez ordezkagarritasun-eredua auzitan jarri baitu. Literaturan, aldiz, ez dago halako adostasuna duen saririk, ez espaziorik. Horrek ere zailtzen du sortzaile bat literatur komunitate osoaren ordezkartzat hartzea. Gaur egun bi literatur sarik dute kanonikotasuna eraikitzeke gaitasun handien, nahiz eta literatur eragile guztien oniritzirik izan ez: batetik, Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Euskadi Literatura Sariak; bestetik, Espainiako Kultura Ministerioak antolaturiko Espainiako Sari Nazionalak. Hiru Euskadi Literatura Saritan saritu dituzte idazle emakumeen lanak helduen literaturan<sup>32</sup>; zortzitan saritu dituzte idazle emakumeen lanak haur-eta gazte-literaturan<sup>33</sup>; behin saritu dute idazle emakume baten lana «Euskarazko

31. XX. mendearen hasieran, Euzko Pizkundearen garaian, literaturari herritartasuna eraikitzeke funtzioa aitortzen zitzaion, baita 1960ko hamarkadan ere. 1970eko hamarkadatik aurrera literaturaren autonomiaren inguruko diskurtsoak gailendu ziren, eta 1990eko hamarkadatik aurrera herritartasuna eraikitzeke funtzioa apaldu da (diskurtsoetan, praktiketan zein erakundetze-bideetan).

32. Lourdes Oñederra, *Eta emakumeari sugeak esan zion* (Erein, 1999); Itxaro Borda, *% 100 basque* (Susa, 2001); Eider Rodriguez, *Bihotz handiegia* (Susa, 2017).

33. Miren Agur Meabe, *Itsaslabarreko etxea* (Elkar, 2001); Miren Agur Meabe, *Urtebete itsasargian* (Elkar, 2006); Miren Agur Meabe, *Errepidea* (Elkar, 2010); Yolanda Arrieta, *Argiaren alaba* (2014); Uxue Alberdi, *Besarkada* (2015); Leire Bilbao, *Xomorropoemak eta beste pizti batzuk* (Pamiela, 2016); Eider Rodriguez, *Santa Familia* (Xabiroi, 2017).

saiakera» atalean<sup>34</sup>; Espainiako Sari Nazionala, aldiz, euskal literaturako emakume bakarrak jaso du, Mariasun Landak, haur- eta gazte-literaturan<sup>35</sup>. Hain zuzen ere, saritu horien artean daude elkarrizketaturiko hiru sortzaileak. Borda, helduen literaturan; Alberdi eta Bilbao, haur- eta gazte-literaturan. Baiki, haur- eta gazte-literaturan sortzaile emakumeek sarbidea errazago dute helduen literaturan baino, zaintzari eta hezkuntzari loturiko esparrutzat hartu izan delako. Bi sarien emaitzak genero-ikuspegi horren erakusle dira. Biak ala biak erakunde politikoei antolatuturiko sariak dira, epaimahaikideak literatur kritikari edo eragileak badira ere; literaturan ez dago literatur eragileek antolatuturiko sari entzutetsurik, eredu kanonikoetan eragiteko modukorik. Hala izanda, zailago da sari entzutetsu horien dinamiketan eragitea, eta eredu kanonikoak genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik berrikusteko indarrak metatzea.

Itxaro Bordak ordezkagarritasun sinbolikoari dagokionez, honela ikusten du gaur egungo aldea bertsolaritzaren eta literaturaren artean:

Oztopoak bata eta bestean norberak finkatzen ditu, nola senditzen den bere gorputzean, ahotsean, izaeran. Gero, uste dut ere, jendarteak denboran jartzen zizkiola (dizkiola) mugak kultura mailan emazteari ere: ezin zen imajinatu emazte bat bertsolari, alta zenbait izan zirelarik mendeetan zehar (izenak ahantziak dira hala ere, Piarres Lafitten *Literaturaz* liburuan frogatuta daitekeenez). Oroitzen naiz, gure ondotik, Arantzazu Loidi plazaratu zenean, jendartean, komentario ez samurrak ibiltzen zirela. Gaurko belaunaldiak ez du horrelako arazorik. Alde horretatik, gure belaunaldi literarioak (Marijane Minaberri, Amaia Lasa, Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi eta nik ere) harrikada teorikoak jasan behar izan zituen gizonezko izarren literatura mundua inbaditzen hasi zenean, ez baitzen naturala emazte batek literaturarako pretentsiorik edukitzea, orokorrean. Gaur egun, bertsolaritzan giroa aldatua baldin bada, txapeliduna emazte bat da, txapelketetan paritatea bada partaideen artean, literaturan lehenetasun sinbolikoa gizonezkoak dauka oraindik ere, gurean, bai eta kanpoan.

Nahiz eta Txapelketa Nagusiaren logikak bertso-ikuspegitik zein genero-ikuspegitik berrikusi beharreko alderdiak dituen, bertsolaritzaren eremuan aitortzarako eta autoritateak sortzeko eremu adostu bat egoteak ere ahalbidetu du genero-logika zenbait auzitan jartzea, mantso bada ere. Hau da, *bertsolari aktibo* guztiak Bertsozale Elkartearen egituraturik egon ohi dira, modu batera edo bestera, eta Txapelketa Nagusia Bertsozale Elkartearen antolatzen duenez, bertsolari zein bertsozale feministek izan dute barne-logiketan pitzadurak sortzeko aukerarik. Jakina, kolektibo baten barruko aldatetako motelak dira beti —are gatazkatsuek oso, komunitatearen zimenduak eraldatzeko ahaleginak direlako—; baina kultur komunitate egituratu bat egoteak ere ahalbidetzen du genero-erlaketak (txiki) horiek errotzen joatea —erlaketaren aldeko gune eraginkor bat sortzen denean—, eta ez izatea une jakin bateko gertaera esanguratsu edo ikusgarri soil bat. Literatur komunitatea hain egituraturik ez dagoenez, zailago da eragile feministen arteko elkarlana, baita genero-logika berriak modu iraunkorragoan errotzea ere.

34. Arantxa Urretabizkaia, *Bidean ikasia* (Pamiela, 2016).

35. *Kokrodiloa ohe azpian* (Erein, 2002).

**FIKZIO-HITZARMENAK ETA GENERO-DISKURTSOAK**

*Etor dedila nereganaino  
hurbildu bedi bertara  
barrutik nola sentitzen naizen  
jakin nahi duenik bada*  
Maddalen Arzallus

Bertsolaritzan eta literaturan fikzio-hitzarmena desberdina da oso, eta horrek badu eraginik genero-diskurtsoetan zein genero-kokapenak interpretatzerakoan. Fikziozko literaturaren ezaugarrietako bat da idazleak maskara jartzea, eta beste pertsona/pertsonaia batzuen ikuspegitik idaztea. Edo, aukera hori egin dezake behintzat. Komunikazio literarioan irakurleon lehen galderetariko bat hortik sortu ohi da: zer distantzia dago egile-protagonistaren artean? Zentzu horretan, jolas moduko bat ere bada maskara hori. Maskara horretan, genero-posizioak badu garrantzia. Izan ere, pertsonaiari gorputza emateko generoa erabakigarria izan ohi da: gizartearen gertatzen den moduan, kasik pertsona bati gorputza emateko ezinbestekoa baitzaigu *genero* kategoria batean sartzea, nahiz eta transgeneroaren zein transfeminismoaren diskurtsoek halakoak lausotzea ekarri duten. Euskal literaturak badu maskararen jolas literario horretan ezaugarri jakin bat: genero gramatikalik gabeko hizkuntza da euskara (jakina, badu genero sozialik). Beraz, obra literario batean genero-arrastorik gabeko pertsonaiak sortzeko aukera ematen digu, genero-anbiguotasunak sortuz (ohiko bidea da hori narrazioan eta poesian). Nobelagintzan bide zailagoa da hori, baina, nobela batek hartu du genero-arrastorik ez irudikatzeke hautu hori: Itxaro Bordaren *Ezer gabe hobe* (Susa, 2010). Bertsolaritzan, ordea, ezinezkoa da genero-posizioaren arrastoa lausotzea edo ezabatzea, bertsolariaren gorputzak islatuko baitu genero-kokapen hori. Are gehiago, bertsolariak erabateko fikziozko maskararik jartzeko aukerarik ez du, Harkaitz Canok adierazi bezala:

Bertsogintzan pertsonaiak sortzeari buruz ari garenean, honenbestez, *norbere pertsonaia sortzeaz* ari gara neurri handi batean, «ni mutante» autofikzional bat. Autobiografian ez bezala, egiatik urruntzea zilegi baita autofikzioan, eta areago, lanketa hori estimatzen dugu entzuleok. Bertsozaleak ez soilik dauka bertsolari bakoitzaren kantaera, estilo, doinu kuttun eta gestikulazioaren berri, haren bizitzari buruzko zertzelada asko ere badakizki. Aurreiritzi horiekin prozesatzen du bertsoa entzuleak, eta aurreiritziorik maneian trebe den bertsolariak egina du jada sedukzio lanen erdia (Cano, 2017: 401).

Alegia, beste pertsona baten lekuan jar daiteke bertsolaria, rol jakin bat jokatuz, baina, literatur sorkuntzan ez bezala, ez du beti bertsolariak rol hori hautatzen (ez du maskara mota hautatzen), eta gainera, bertsolariaren nortasuna beti presente dago oholta gainean, eta pertsonaia-bertsolari arteko muga kokatzen gaitu bertsoaren fikzio motak. Era berean, entzuleak bertsoa prozesatzean genero-aurreiritziak ere izango ditu. Are gehiago, askotan gai-jartzaileek ere bertsolarien bizipenak edo rolak hartzen dituzte ardatz gaiak proposatzerakoan. Leire Bilbaok halako egoera bat du gogoan:

16 urte nituela Balendin Enbeita Bertso-Paper lehiaketara aurkeztea erabaki nuen. «Lesbiana baten maitasun gutuna» bertso-sorta idatzi nuen lehiaketa hartarako<sup>36</sup> eta lehen saria irabazi nuen. 1994a zen. Unai Iturriagak, *Eginen* egiten zuen lan, kolaboratzaile, eta bertsoak jaso zituen egunkarian, «gazte baten bertso helduak» izenburua jarrita. Asko poztu ninduen, Iturriaga erreferente bat zen niretzat. Handik denbora batera, EHU saio bat izan nuen eta gai-jartzaileak zera galdetu bakarrekoan erantzuteko: zuk idatzi dituzu bertso hauek, zer uste duzu benetan gai horretaz. Ez da gauza bera denbora duzunean bertso jarriak idaztea, edo publikoaren aurrean bat-batean aritzea. Ni 16-18 urterekin ez nengoen prestatua publikoki homosexualitatearen inguruan bertsoan bat-batean aritzeko. Ez nintzen gustura geratu han botatako bertsoekin.

1994ko urte hartan kasik ez zen homosexualitatearen gaia jorratu bertsolaritzan, salbuespen gutxi batzuekin<sup>37</sup>. Jon Maiak adierazi bezala, «Gure publikoa ez zegoen ohituta. Errealitate hori ez zegoen bertsoaren unibertso imajinarioan, ez eta errealean» (Maia, 2017: 226). 1997ko Txapelketan Unai Iturriagari eta Jon Maiari lesbianismoaren gaia jarri zieten, genero-maskara bat eraikitzeke ariketa eskatuz: «Bi neska zarete, beti hurbileko harremana izan duzuen bi lagun min. Konturatu zarete zuena adiskidetasuna baino zerbait gehiago dela» (Maia, 2017: 226). Maiak gogorarazi bezala, publikoak barre artean jaso zuen gaia<sup>38</sup>. Giro hartan egokitu zitzaion lesbianismoaren gaia Leire Bilbaori, genero-maskararen jolasa lagun ez zuela, gainera.

Bertsolaritzan maskara jartzeko zailtasuna ere islatzen du beste egoera honek:

Beste une batzuk ere izan nituen publikotasunarekin deserosoak. Zaldibarreko festetan gaueko orduetan bertso saioa genuen Jon Sarasua, Oihane Enbeita eta Peñagarikano eta laurok ginela uste dut. Honela esan zidan gai-jartzaileak: «Leire, gaur egunkaria zabaldu duzu, eta 901666555, telefono zenbakia agertzen da, 5.000 pezeta kobratzen ditut orduko». Ez dakit zer asmorekin eman zidan gaia, baina publikoaren barrea eta bere begirada eta tonua bihurtu zitzaizkidan harresi. 20 urte izango nituen eta ez nuen izan gaitasunik gaiaren tonuari eta irribarreei buelta emateko, ez bat-batean behintzat. Halako egoeretan paperean gusturago arituko nintzen.

Literatur testuak irakurtzean ere badira genero-aurreiritziak, baina Itxaro Bordak adierazi bezala, irakurleen presentzia eta erantzuna ez da bertso-entzuleena bezain hurbilekoa, eta distantzia horrek babestuago sentiaraz dezake sortzailea, bai gaiak hautatzean, bai maskara motak eraikitzean:

36. Bertso-sorta hori *Bertsolari* aldizkariaren 17. zenbakian bildu zuten, 1995eko martxoan (65-66. orrialdeetan).

37. Esate baterako, 1994ko Bertso Egunean Jesus Mari Irazuk eta Maialen Lujanbiok homosexualitatearen gaia jorratu zuten (Maia, 2017: 187). 1995eko Gipuzkoako Txapelketan ere jorratu zuen gaia Jesus Mari Irazuk.

38. «Gu bi mutil izanik bi lesbianarena egin behar izateak grazia egin zien han bilduta zeuden milaka euskaldunei. Barre horiek ez zitzaizkidan normalak iruditu» (Maia, 2017: 226). Jon Maiaren erantzuna bertsoan: «berotzen ari gara / gu biok uneka / ni ez naiz harrituko / normala da eta / gaia esandakoan / hara ze iseka! / Ez dakit zertan hasi / zareten barreka!» (Maia, 2017: 227). Epaileek zigortu egin zuten gaitik atera izana.

Uste dut literaturak ahalmen gehiago eman zidala ene bidean garatzeko, literaturak, kazetaritzak, kanta-letrak egiteak (1977ko Otxalde taldearentzat hasirik), ikusgarrietako testuak asmatzeko. Dena egin dut literaturaren alorrean, bertsoak ere bai. Gero, agian, literaturan eskas dena da entzuleekiko, ikusleekiko hurbiltasun inmediato hori. Idazteak ematen duen distantzia hori maite dut. Idaztean ere, ohartzen naiz, libertate gehiago badela gaia minberak eta tratatzeko, publikoa ez dugu hor aitzinean, epaitzeko, txistuka edo oihuz<sup>39</sup>. Orokorrean, bertsolaria, lehen eta orain, beti ari da eman publiko batek pentsatzen duenaren alde, kritikak beti publiko horrek berez kritikatzten dituen gaiengana doazela! Neurri batean entzulegoaren presentzia fisikoak pentsamendua baldintzatzen du bertolaritzan.

Jakina, kultur erreperitorioak ere badu eraginik. Kultur jardun batzuetan, garai jakin batzuetan, gaitegi jakin batzuk hedatzen dira, edo forma zein estetika jakin batzuk. Leire Bilbaoren esperientzian bertsoan gai batzuk jorratzen ziren, literaturan beste batzuk: «Gaia emanda, neurria eta errima. Nik gaia hautatzekotan erritmorik gabe. Lehen horrela sentitzen nuen. *Ezkatak* argitaratzea neurri librean, gai librean. Bertsoak ez ziren hilekoari buruz egiten orduan; orain bai, bertsolari emakume batzuek egin duten ahalegin izugarriari esker... Niretzat poesia libre aritzeko gune bat zen, moldea zein gaia hautatzeko... Askatasun bat ematen zidan».

Are gehiago, poema-liburua ere bertso-esperientziari erantzun bat emateko bide izan zen:

Emakume ahots bat nahi nuen sortu, hitza emakume batena izan behar zuela argi nuen. Bestean horrela huts egin nuela ikusi nuelako. Zorrak kitatu nahi nituen neure buruarekin. «Odoletan dagoen emakume baten hitza da hau». Martxoaren 8an aurkeztu nuen. Aholku bat ere eman zidaten: «zuk ez esan emakume ahotsa denik, saihestu gaia, liburuak bere buruaz hitz egin behar du».

Bertsolaritzak oihartzun eta eragin sozial handia du; poesiak, aldiz, oihartzun eta eragin apala, eta horrek ere izan zuen eraginik Leire Bilbaoren hautu estetikoetan:

Nork irakurtzen du poesia? Euskal poesia gainera, Euskal Herriko plazetan astero bertso saioak daudenean? Horren kontzientzia izateak askeago egin ninduen sortzeko orduan. Gogoan dut behin telebistarako literaturaren gaineko elkarrizketa bat grabatzera gindoazen unean honela esan zidala kazetariak: «Gauza oso intimoak eta ausartak idazten dituzu». Eta nik erantzun nion: «literatura egiten aske sentitzen ez banaiz, esan non sentituko naiz aske?» [...]. Dudarik gabe, poesia minoraren minoria izateak askeago idazten lagundu dit. Eta hori da literaturan bilatzen dudana gauzatariko bat.

---

39. Maialen Lujanbiok Zumaiaiko jaialdian (2013ko apirilaren 5ean) botatako bertsoa: «Bi bertsoio ta igual gehiago / ta hamaika zirrikitu / ta guk esan nahi esan nahi deuna / ta ez nahi dena aditu / ta kritikatu egin nahi baina / ahal dela ez zauritu / bapatekoan hari meheak / korapilo asko ditu» (Iturria: Xenpelar Dokumentazio Zentroa).

Leire Bilbaok adierazten duen moduan<sup>40</sup>, literatur generoen artean poesia da sortzailearen nitasunetik hurbilen kokatu ohi dena euskal literaturan (nahiz eta berez genero poetikoari ez dagokion soilik nitasuna adieraztea). Hala izanik ere, idazle emakumeen literatur lanak, oro har, idazlearen biografiatik hurbilago kokatzeko eta interpretatzeko ohitura dago idazle gizonena baino. Modu horretara, fikzio-eraikuntzarako eta fikzio-jolasera legitimitate gutxiago aitortzen zaio idazle emakumeari, eta egileak obra fikziozko genero gisa aurkeztu badu (eta testu motak behinik behin hori zalantzan jartzeko ezaugarririk ez badu), fikziotzat ez hartzea hitzarmen literarioa auzitan jartzea dakar (hots, autoritate literario hori zalantzan jartzea).

### ***KULTUR HISTORIOGRAFIA ETA KANONAREN DISKURTSOAK***

*Baina oraindik ez baitut lortu  
idazle haundien fama  
dirudienez ez du hauteman  
inork liburuan xarma.  
Maddalen Arzallus*

Bertsolaritzaren/Literaturaren historia batek bertsolaritzaren/literaturaren ibilbideak eta norabideak kontatzearekin batera, hainbat *bertso/literatura* kontzeptu, irizpide eta ikuspegi hedatzen ditu. Alegia, kultur historiografiak izaera ideologikoa, kanonizatzailea eta instituzionalizatzailea du.

#### ***Historiografiaren irizpideak eta genero-ikuspegia***

Euskal Literaturaren Historiak aztertuz gero, egituratzerakoan hiru irizpide hauek gurutzatu direla antzematen da: autoritatea, mugimendu literarioa eta genero literarioa. Literaturaren historietan emakumeen presentzia txikia da, besteak beste, bi logika hauek gailentzen direlako. Batetik, korronte literarioen ordezkariak irudikatu ohi dira historia literarioetan (eta gizonek bete ohi dute ordezkaritza-funtzio hori). Esate baterako, Euzko Pizkundearen berri ematean, hiru idazleren ekarpenak dira nagusi: Lauaxeta, Lizardi eta Orixe. Eta garaiko beste idazle batzuen ekarpenak gutxiago jorratu ohi dira: Julene Azpeitia, Katalina Eleizegi, Tene Mujika, Sorne Unzueta... Bestetik, historia literarioan genero literario batzuek besteek baino prestigio handiagoa eta leku esanguratsua hartu dute (gaur egun nobelak). Kasu askotan, emakumeen ekarpen literarioak beste genero literario batzuetan garatu dira (adibidez, XX. mendearen hasieran antzerkigintzan eginiko ekarpena, edo XXI. mendearen hasieran narraziogintza laburrean). Esan bezala, nobela da genero kanonikoena, autoritate literarioen lehia-eremu nagusia. Hain zuzen ere, nobelagile emakumeen ekarpenak eskas izan dira XXI. mendera arte: nobelagile emakume baten lehen nobela 1979. urtean argitaratu zen: Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox*

40. «Poesiak badu baina bat: jendeak aurreikusten duela nitasunetik ari dela, fikzionatzen duzunean ez da hala ulertu ohi».

(lehen euskal nobela 1898. urtekoa izanik). XX. mendean zehar soilik hiru emakumek idatzi zituzten bi nobela baino gehiago: Itxaro Borda, Arantxa Urretabizkaia eta Laura Mintegi. XXI. mendearen bigarren hamarkadan kopuru horrek gora egin badu ere<sup>41</sup>, oraindik ere gutxi dira bi nobela baino gehiago argitaratu dituzten idazle emakumeak. Kontuan harturik azken aldian euskal literaturaren historiografian ez dela ekarpen berririk egin —2004. urtean argitaratu zen azken ekarpen historiografikoa (Aldekoa, 2004) — eta Literatur Kritikak batez ere sorkuntza garaikidean arreta jarri ohi duela, genero-ikuspegitik eta ikuspegi feministatik literaturaren historiografia berritzeko ekarpen gutxi egin da azken urteotan.

Bertsolaritzaren historiografian bi irizpide nagusitu dira: kultur mugimendu edo garaian araberakoa, edo autoritateen araberakoa (Lekuona, 1982: 95-108; Garzia, 2012: 42-104). Bi irizpide horiek beste honekin gurutzatu dira: Txapelketa Nagusiak. Zalantzarik gabe, «Txapelketa Nagusia bertsolaritzaren eferbeszentzia une bat da» (Aierdi *et al.*, 2007: 33), eta «euskararen olinpo» gisa (Maia, 2017: 13) edo «hizkuntzaren erabileraren eszenatoki goren» gisa definitu da (Maia, 2017: 15). Hortaz, kate historikoa eraikitzerakoan Txapelketa Nagusiei leku berezia eskaini zaie (Garzia, 2012). Nolanahi ere, Maialen Lujanbio txapeldun izan ondoko aroa honela izendatu da: bertsolaritza multipolarra. Nahiz eta bertsolaritza garaikidearen bereizgarri nagusi bat ugaritasuna, aniztasuna eta adarkatzea izan, esanguratsua da oso bertso-arroak izendatzeko hautua. Aurreko aldiak izendatzean aro bakoitzaren ordezkariatzat bertsolari bat edo bi izendatu dira, azpiizenburuan bada ere<sup>42</sup>. Azken aroa izendatzean, ordea, ez da aipatzen Maialen Lujanbio lerro-buruan<sup>43</sup>. Lujanbioren txapela belaunaldi baten eta talde-lan baten emaitza bailitzan<sup>44</sup>, ez Lujanbioren jardun pertsonalaren fruitu. Bestalde, literaturaren historietan antzemandako logika berak garatu dira bertsolaritzaren historiografian: bertso-mugimenduen ordezkariak

---

41. Hiru nobela argitaratu dituzte, besteak beste, Alaine Agirrek, Aitziber Etxeberriak, Ixiar Rozasek, Marikita Tambourinek. Bi nobela argitaratu dituztenak ere ez dira askorik: Katixa Agirre, Uxue Alberdi, Garazi Goia, Lourdes Oñederra, Danelle Sarriugarte. Kopuruek gora egin dute 2015. urtetik aurrera; beraz, goraldi oso berria da.

42. «Bertsolaritza klasikoaren paradigma: Txirrita» (Garzia, 2012: 54); «Biziraupen bertsolaritza: 1945-1960. Funtsezko erreferentziak: Basarri eta Uztapide» (Garzia, 2012: 60); «Erresistentziako bertsolaritza: 1960-1979. // Lazkao Txiki / Xalbador / Francoren garaian eta ondoren: Lopategi eta Azpillaga» (Garzia, 2012: 62, 68, 74); «Herriarentzat abestetik publikoarentzat abestera: 1980-1998. Amuriza» (Garzia, 2012: 76); «Amurizatik Egañara» (Garzia, 2012: 86); «Urruntze bertsolaritza: Andoni Egaña» (Garzia, 2012: 54).

43. «Bertsolaritza multipolarra: azken belaunaldiak» (Garzia, 2012: 98). Gogoan izan bedi *bertsolaritza multipolar* izendapena Amets Arzallusek 2013ko Txapelketa Nagusia irabazi aurretik sortu zela.

44. «2009ko Txapelketa Nagusiko irabazle Maialen Lujanbio (Hernani, 1976) koroatu izana har daiteke duela hainbat urtetatik hona bazetorrela ikusten zen belaunaldi txandaketaren burutze gisa. Egañaren ondorengo belaunaldiko goi-mailako bertsolarietako batzuk, Maialen Lujanbiorekin berarekin hasita, honako hauek dira: Unai Iturriaga (Durango, 1974), Igor Elortza (Durango, 1975); Jesus Mari Irazu (Larraul, 1972), Jon Maia (Zumaia, 1972), Aitor Mendiluze (Andoain, 1975), Xabier Silbeira (Lesaka, 1976), Estitxu Arozena (Mutriku/Lesaka, 1975)...» (Garzia, 2012: 100).



aurkeztea (gizon-ordezkaritzak nagusituz)<sup>45</sup> eta bertso-gune jakin bat prestigiatzea (Txapelketa Nagusia), beste bertso-jardun batzuen kaltetan —eta jakina, historikoki prestigio-guneetatik kanpo bertsolari emakumeen ekarpenak ugariago izan dira—.

Kultur historiografia berrikusteko premiarik bada, beraz. *Bertsolari emakume* kategoria (baita *idazle emakume* kategoria ere), historikoa eta kulturala da, garaian garaiko eta lekuan lekuko ikusmoldeek eraikitzen dutena: batetik, *bertsolari* zein *idazle* kategoriak aldakorrak dira, kultur esparruaren arabera zein aldi historikoaren arabera. Bestetik, *emakume* kategoria ere aldakorra da, eraikuntza kulturala baita. Kultur historiografia feminista batek, hain zuzen ere, historian zehar genero-logikak nola (des)eraiki diren kontatzea izan behar luke helburu. Bertsolaritzan zein literaturan sortzaile emakumeen ekarpen historikoak ikusgarri egiteko ahaleginak egin dira azken urteotan; hurrengo erronka, historiografia feminista bateranzko urratsak egitea izango da, orain arteko diskurtso historiografikoak ere berrikusiko dituen, eta kate historikoan aldagai, ikuspegi zein corpus berrituak kokatuko dituen.

### **KULTUR KRITIKA ETA KANONAREN AUZIA**

Bertsolaritzak «antolakuntza autoeratu» du (Garzia, Sarasua eta Egaña, 2001: 69), eta beraz, bertsolaritzaren inguruko diskurtsoak, balioztatze-irizpideak zein egiturak sortzeko barne-logika indartsuak garatu ditu. Testuinguru horretan, azken hamarkadetan bertsolaritzaren inguruko teorizazio zein diskurtsoak bertsolariek sortu izan dituzte, edo bertsozaleek, baina gehienetan bertsolari batekin elkarlanean (salbuespen dira antropologiatik eginiko ekarpenak). Ondorioz, bertsolari emakumeek eta bertsolari feministek espazioak hartu ahala, diskurtso feministak zein egitura feministak eratu dituzte: autoafirmaziorako halako praktikek bertso-jardunaren logiken barruan badute lekurik, hainbat esperientzia arrakastatsuk erakutsi bezala (ikus III. atala). Bestalde, hedapenari erreparatzean, etorkizuneko beharren artean kokatu izan da kritikari espezialisten premia (Aierdi *et al.*, 2007: 117). Hain zuzen ere, literaturaren esparruan kritikari espezialistak dira nagusi. Oro har, sorkuntza- eta kritika-gune berezituagoak dira literaturan, eta idazleek zailago dute euren literatur sorkuntza ikuspegi feministatik legitimatzea, literatur kritikaren diskurtsoak zein praktikak lagun ez badituzte. Genero Taldea sortu ondoren (2008. urtean), bertsolari emakumeen topaketa zenbait antolatu ziren; gar hura pixkanaka hauspotu dute hainbat bertsolari feministak, eta azken hamarkadan bertsolari emakume zein feministen sarea sendotu da; saretze horrek ahalbidetu du genero-ikuspegia modu iraunkor eta egituratuan lantzeko guneak eta plazak sortzea (nahiz eta guneetariko asko Bertsozale Elkartean bertan egituraturik ez egon, badute zeharka eraginik, elkarteko bertsolari-talde baten ekimenak direlako). Historian zehar idazle emakumeek elkartzeko eta jarduteko hainbat saiakera egin badituzte

45. Jon Maiaren (2017: 71) liburuan ordezkaritza-logika hori gailentzen da: «Txirritaren garaian, Amurizaren garaian, eta Egañaren garaian». Baita belaunaldiaren kontaketa egiterakoan ere, izenburuak iradoki bezala.



ere<sup>46</sup>, gune iraunkor bat ez da egituratu, literatur esparruaren beraren ezaugarriak direla eta (sortzaileen komunitatea ez dago hain egituraturik; sorkuntza modu bakartiagoan garatzeko joera; kritika edo diskurtsoak kultur kritikarien esku uzteko joera...). Nolanahi ere, badu aldeko aldagai bat literaturak: beste literatur esparru bateko erreferenteak egin ditzake bere, eta modu horretara, beste esparru batean legitimitatea eskuratu duten ereduak erabili bere jardunari bide emateko. Esate baterako, euskal literaturan bertsolaritzan baino lehenago garatu da Literatur Kritika Feminista, edo Gay Literatur Kritika, edo Literatur Kritika Lesbikoa, besteak beste, beste literatura batzuetako ekarpenek kritika-korronte horiek eta autoritate-eredu horiek legitimatu dituztelako.

## **HONDAR HITZAK**

*Pikutaraino joan da nire  
Durangon nedukan plana!  
Hala ta guztiz gogor joango naiz  
liburu saltzaileengana  
alper-alperrik ez dadin izan  
luzaz egin dudana.  
Maddalen Arzallus*

Kultur diskurtso hegemonikoez beste, kultur zirkuitu hegemonikoez beste, sortzaile bakoitzak kultur sorkuntzaren inguruko emozio, iritzi eta intuizio propioak ditu. Baita praktika eta estrategia propioak ere. Sortzaile guztiak, gainera, ez dira kokatu ohi kultur esparru baten muga hertsien barruan, mugako espazioak ugari dira, zubi-jardunak areago. Esate baterako, elkarrizketaturiko hiru sortzaileek oso modu ezberdinean eraiki dituzte bertsolaritzaren eta literaturaren arteko zubiak. Itxaro Borda jada bertso-esparrutik at kokatzen bada ere, idazle-nortasuna eta bertsolari-nortasuna estuki loturik antzematen ditu:

Idazten dudanean, askotan, bertsolari senditzen naiz, eta ez bakarrik poema bildumetarako eta musika taldeentzat bertsoak izkiriatzen ditudanean. Bertsolari izpiritua daukat, hau da, gustatzen zait berehala idaztea, instintiboki, ironia eta umore zikina sartuz, Pierre Bidart ikerlari zenak erraten zuen bezala bertsolariak aztertu zituen batez, atzera begiratu gabe praxia biziz (*vivre sa praxis sans se retourner sur elle*). Enetzat bi izaerak lotuak dira.

---

46. 1930. urtean Zarautzen euskal emakume idazleen bilerak abiatu zituzten, Emakume Abertzale Batzaren inguruko idazle batzuek, baina ez zuen egitasmoak arrakasta handirik izan (Ugalde, 1993: 361); 1987. urtean *Jakin* aldizkariaren ekimenez, hainbat idazle emakumek jardun zuten genero-ikuspegitik gogoetak egiten, mahai-inguru batzuetan (ekarpenak *Jakin* aldizkariako 45. alean bildu ziren); 1999. urtean Emakume Idazleen Lantaldea sortu zen, urte pare bat-edo iraun zuena (*Gutziak* bilduma kolektiboa argitaratu zuten, 2000. urtean, Txalaparta argitaletxean). Sortzaileen esparrutik at, literatur kritikaren eremuan bi gune sortu dira: batetik, Skolastika (2003) akademia sortu zen Bilbon, Munduko Emakumeen Literatura aztergai duena; bestetik, Sareinak (2007) egitasmoa sortu zuten literatur kritikari batzuek, Literatur Kritika Feministan urratsak egiteko.

Argi dago Bordarengan eragina izan zuela kultur trebakuntzaren lehen hazi hura, bertso-sorkuntza. Sortzaile-nortasunari dagokionez, Leire Bilbaori errazago egin zitzaion bertsolaritzat hartzea bere burua, idazletzat baino:

Bertsolari etiketa herrian jarri zidaten [...] Orduan plaza asko egiten nituen [...] Besteek hartzen ninduten bertsolaritzat. Besteek esaten dizute bertsolari zarela. Plazan, jendaurrean ikusten zaituztelako. Duela gutxira arte ez nintzen sentitzen idazle edo poeta, idaztetik bizi dena hartzen dut idazletzat [...]. Oraindik orain ez dut neure burua idazletzat aurkezten, besteek egiten dutenean ukatu ez arren. Ni erosoago sentitzen naiz «hau edo beste argitaratu dut» esatearekin.

Nolanahi ere, duela gutxi arte bi kultur esparru horiek oso bereizirik egon dira Bilbaoren sorkuntzan eta ibilbidean: «Orain, urteekin, umeen poesiarekin, ahozkotasuna bilatzean, bertsolari arituriko garaiarekin adiskidetu naiz, eta balio izan dit eta eskertuta nago, bertsolaritzan ikasitako guztiarekin. Teknika ikasteak aukera eman dit orain beste bide batzuk arakatzeko poesian ere». Hortaz, zubigintzarako espazio hori umeen poesia izan da Bilbaorentzat, besteak beste.

Uxue Alberdiren sorkuntzan ere, idazle- eta bertsolari-jardunak nahikoa ongi bereizi izan dira, nahiz eta ezinbestean elkarri eragin dioten eta elkar elikatu duten. Hain zuzen ere, bi sorkuntza-esparru horietan aritzeak ahalbidetu dio sorkuntza lanbide izatea: «Azken aldian hori dut buruan, ezinezko bertsoa bakarrik lanbide izatea, ezinezko literatura bakarrik lanbide izatea... Zortea izan dut, bi eremu horietan arituta hilabetea egiteko adina diru-sarrera lor dezakedalako... badu alde on hori ere bertsolari eta idazle izateak».

Kultur esparruak erakundetzeak kultur corpusak eta sortzaileak modu berezitan aztertzea ekarri du, eta mugako eremuetako ezaugarriak eta ekarpenak ikusezin egin ditu, Euskal Kultur Kritikan gutxi garatu baitira mugako espazioen ekarpenak balioesteko edo interpretatzeko azterbideak. Kultur esparruen berezitasunak eta egiturak kontuan hartuta ere, kultur esparruen arteko elkarriketak sustatzea ahalbidetuko du etorkizunean esparruan esparruko Kritika Feminista berezitua egituratzearekin batera, (Euskal) Kultur Kritika Feministarako lanabesak sortzea eta gunek egituratzea, testu-arkitekturaren/bertso-arkitekturaren genero-logikak xeheago aztertzeke, mugako espazioetan arreta jartzeko, diziplinartekotasuna zehar-lerro izan dadin, euskal kulturaren esparru guztietan genero-arkitektura ez-hierarkikoa eraikitze aldera.

**BIBLIOGRAFIA**

- Aierdi *et al.* (2007): *Bertsolaritza. Tradizio modernoa*, UPV/EHU, Bilbo.
- Alberdi, Uxue (2010): «Betidanik idatzi dut lesbiana izateaz», *Argia*, 2.230, 2010-05-16.
- , (2014): «Gorputzak, gorpuzkerak eta gorputzaldiak. Bertsolaritzan», in Gema Lasarte eta Amaia Alvarez Uria (ed.), *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak*, UEU, Bilbo, 145-163.
- , (2019): *Kontrako ezarririk*, Susa (Lisipe), Zarautz.
- Aldekoa, Iñaki (2004): *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.
- Alvarez-Uria, Amaia; Muñoz, Josune eta Retolaza, Iratxe (2018): «Crossing Centuries, Crossing Words, (1804-1920); Women, Basque Society, and the Struggle for the Public Sphere», in Silvia Bermúdez eta Roberta Johnson (arg.), *A New History of Iberian Feminisms*, University of Toronto Press, Toronto, 182-188.
- Asurmendi, Mikel (2013): «Idazleak saretuz saritu du *Maiatzek* emakumea», *Argia*, 2.359, 2013-03-03.
- Bidador, Joxemiel (2005): *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*, Bilboko Udala, Bilbo.
- Cano, Harkaitz (2017): «Autofikzioa eta maltzurkeria», in Bertsozale Elkarte, *Bertsolari txapelketa nagusia 2017*, Lanku Bertso Zerbitzuak, Villabona, 400-402.
- Díaz Noci, Javier (1995): *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, Mediatika. Cuadernos de Comunicación, 5.
- Egaña, Ibon (2014): *Izan gabe denaz. Hogeita hamar urte hedabideetako euskal literatur kritikan*, Utriusque Vasconiae, Donostia.
- Garzia, Joserra (2012): *Bertsolaritza / El bertsolarismo*, Etxepare Euskal Institutua, Donostia.
- Garzia, Joserra; Sarasua, Jon eta Egaña, Andoni (2001): *Bat-bateko bertsolaritza. Gakoak eta azterbideak*, Bertsozale Elkarte, Donostia.
- Hernández, Jone Miren (2014): «Emakume bertsolariak: bertsotik bertsora, hankapuntetan», in Gema Lasarte eta Amaia Alvarez Uria (ed.), *Gorputza eta generoa. Teoria, didaktika eta esperientziak*, UEU, Bilbo, 37-63.
- Irazu, Alberto (2017): *Rocka puntua!*, Pamiela, Iruñea.
- Kortazar, Jon (2000): *Euskal literatura XX. mendean*, Prames-Las Tres Sorores, Zaragoza.
- Larrañaga, Carmen (1994): «Bertsolarismo: habitat de la masculinidad», *Bitarte*, 4, 29-41.
- Lekuona, Juan Mari (1982): *Ahozko euskal literatura*, Erein, Donostia.
- Madariaga Orbea, Juan (2014): *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Maia, Jon (2017): *Berriak jaio ginen*, Lanku, Andoain.

- Mogel, Bizenta (1963 [1804]): *Ipui onak*, Auspoa, Donostia.
- Najmanovich, Denise (2001): *O sujeito encarnado. Questões para pesquisa no/do cotidiano*, DP&A, Rio de Janeiro.
- Nochlin, Linda (2001): «¿Por qué no han existido grandes artistas mujeres?», in Karen Cordero eta Ina Saenz (bil.), *Crítica feminista en la teoría e historia del arte*, Universidad Iberoamericana (Programa Universitario de Estudios de Género de la UNAM), Mexiko, 17-44.
- Nuñez Betelu, Maite (2001): *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*, University of Missouri-Columbia, Missouri.
- Olaziregi, Mari Jose (2003): «Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa», in Euskaltzaindia (arg.), *Euskal Gramatikari eta Euskal Literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (II)*, Euskaltzaindia, Bilbo, 203-221.
- Onaindia, Santi (1972): *Euskal literatura*, Etor, Bilbo.
- Pérez Fontdevila, Adina eta Torras Francés, Meri (2016): «Hacia una *biografía* del concepto de autor», in Adina Pérez Fontdevila eta Meri Torras Francés (bil.), *Los papeles del autor/a. Marcos teóricos sobre la autoría literaria*, Arco, Madril, 11-51.
- Perez, Karmele; Ezkurdia, Gurutze eta Bilbao, Begoña (2012): «Euzko ikastolen andereñoen formazioa eta eskola-praktikak», in Begoña Bilbao *et al.* (bil.), *Emakumeak. Hitza eta bizitza*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 45-76.
- Sarasola, Ibon (1975): *Euskal literatura numerotan*, Kriselu, Donostia.
- Sarasúa, Carmen (2002): «Aprendiendo a ser mujeres: las escuelas de niñas en la España del siglo XIX», *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 24, 281-297.
- Schaeffer, Jean-Marie (2016): «Originalidad y expresión de sí. Elementos para una genealogía de la figura moderna del artista», in Adina Pérez Fontdevila eta Meri Torras Francés (bil.), *Los papeles del autor/a. Marcos teóricos sobre la autoría literaria*, Arco, Madril, 243-278
- Ugalde, Mertxe (1993): *Mujeres y nacionalismo. Génesis y desarrollo de Emakume Abertzale Batza (1906-1936)*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Urkiza, Ana (2006): *Zortzi unibertso zortzi idazle*, Alberdania, Irun.
- Urkizu, Patri (2005): «Euskal poesia idazleen artean lehen anderea: Maria Estibaliz de Sasiola (Deba 1550a-1611)», *Lapurdum*, 10, 287-302.
- Wittig, Monique (2010): «Ikuspuntu berezia ala unibertsala», in Ibon Egaña (koord.), *Desira desordenatuak. Queer irakurketak (euskal) literaturaz*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 279-288.
- Zubiri, Harkaitz (2018): «Nondik gatoz, nora goaz? Bertsozaletasunaren III. azterketa soziologikoa», *Bertsolari*, 112, 2018ko negua, 18-49.
- Zulaika, Joseba (2003): «Bertsolariak eta idazleak: aita-semearen arteko kondaira zaharra», in Joseba Zulaika, *Bertsolaritzaz bi saio*, Bertsolari Liburuak, Andoain, 67-100.

## Eskerrik asko

Liburu honetan agertu ez arren, liburuaren abiapuntu izan zen ikastaroan parte hartu zenutenei: Malen Amenabar Larrañaga, Miren Amuriza Plaza, Miren Aranguren Etxarte, Mariñe Arbeo Astigarraga, Estitxu Arotzena Albizu, Ixak Arruti Aranburu, Bea Egizabal Ollokiegi, Ixiar Eizagirre Kerejeta, Nerea Elustondo Plazaola, Edur Epelde Pagola, Karine Etxeberri, Miren Gaztañaga Zabaleta, Arantzazu Loidi Garitano, Leire Lopez Ziluaga, Kristina Mardaras Sedrun, Kattalin Miner Perez, Gari Otamendi Arrieta, eta Danele Sarriugarte Mochalesi; datu pertsonalak babesteko legearen arabera argitaratu ezin dugun parte-hartzaile zerrendako guztiei; bertan egoterik izan ez zenuten arren aurrez zein ondoren interesa eta babesa erakutsi zenuten guztiei; ikastaroaren antolakuntzan aldamenean izan genuen Udako Euskal Unibertsitateko lantaldeari; Renoko Unibertsitateko Center For Basque Studies zentroari ikastaroaren hazietako bat izan zen «Women's Voices from the American West to Basque Country» kongresua antolatzeagatik eta Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Xenpelar Dokumentazio Zentroko lankideei, ikastaroko edukiak jasotzeagatik.

Liburu honetarako artikuluak idazteko lana hartu duten guztiei, Carmen Larrañaga Odriozolaren artikulua gaztelaniatik euskarara itzuli duen Irati Majuelo Itoizi, eta artikulua bakoitzari dagokion bertsoa idatzi duten kantukideei (Amaia Agirre Arrastoa, Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo, Saioa Alkaiza Guallar, Aroa Arrizubieta Barredo, Amaia Iturriotz Etxaniz, Rosi Lazkano Larrañaga, Irati Majuelo Itoiz, Alaia Martin Etxebeste, Eli Pagola Apezetxea, Sarai Robles Vitas, Nahia Sasco Etxeberri, Izarne Zelaia Arratibel, Joana Ziganda Olano, Ane Zuazubiskar Iñarra). «Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik» infografiaren egilekide eta argitaratzaileei (Uxue Alberdi Estibaritz, Ainhoa Agirreazaldegia Rekondo, Txakur Gorria Kolektiboa, Argia, Berria, Jakin eta Lankuri), eskuzabaltasunez liburu honetan eranskin gisa banatzeko aukera emateagatik. Bide honetan animoak, mimoak eta indarra eman dizkiguzuenoi, «lan ederra egiten ari zarete» esan bitartean libururako —ere— lanean ari zinetenoi, liburu honen beharra adierazi diguzuen bertso-munduko kide feministei, bertso-mundutik kanpokoei zein tartekoei.

Infusio eta pintxo banarekin goiz osoa tabernan pasatzen uzten duten tabernariei.



## Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

*Etnografia feministak Euskal Herrian. XXI. mendera begira dagoen antropologia*

Mari Luz Esteban Galarza, Jone Miren Hernández García (koord.)

2016an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-598-1

*Festak, genero-harremanak eta feminismoa*

Miren Guilló Arakistain (koord.)

2016an argitaratua

ISBN: 978-84-8438-612-4

## Arloko *Uztaro* aldizkarian argitaratu diren artikulua ([www.uztaro.eus](http://www.uztaro.eus))

Emakumeak lanbide maskulinizatueta: autobus-gidari lanbidearen kasua  
Soubelet Fagoaga, Iduzki; Larrañaga Egilegor, Maider; Sanchez de Miguel, Manuel Norberto,  
*Uztaro* 101 (2017), 87-101

Espetxeko genero-diskriminazioa hizpide: Euskal Herriko presondegiatako atxiloen,  
langileen eta elkarrekin kideen ikuspegiak  
Ruiz Torrado, Maria, *Uztaro* 98 (2016), 5-29

Jarduera fisikoaren rola emakume presoan bizi-kalitatean. Euskal Autonomia  
Erkidegoko bost preso ohien espetxeratze-aldiko ongizatearen inguruko bizipenak  
Martinez Merino, Nagore; Martin Gonzalez, Nerian; Usabiaga Arruabarrena, Oidui; Martos  
Garcia, Daniel, *Uztaro* 95 (2015), 99-115

Emakumezkoen irudikapena Joseba Sarrionandiaren 1981-2001 bitarteko poesia-  
eta prosa-lanetan  
Rodriguez Martin, Eider, *Uztaro* 94 (2015), 49-67

Emakumeak eta bertsolaritza. Gaiak, rolak eta bertsoak genero-ikuspuntutik  
Zinkunegi Barandiaran, Izaro, *Uztaro* 94 (2015), 91-112

Emakume pilotariak: gure taldea, gure ordua  
Fernandez Lasa, Uxue; Usabiaga Arruabarrena, Oidui; Castellano Paulis, Julen, *Uztaro* 93  
(2015), 5-16

Genero-ikuspegia herritarren tokiko parte-hartzearen diseinuan Bilboko hirian  
Larrinaga Renteria, Ane; Amurrio Velez, Mila, *Uztaro* 83 (2012), 91-107

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen hedapena eta irudikapena  
egunkarietan  
Gil de Montes Etxaide, Lorena; Ortiz Anzola, Garbiñe; Valencia Garate, Jose; Larrañaga  
Egilegor, Maider; Idoiaga Mondragon, Nahia, *Uztaro* 82 (2012), 83-97

Emakume etorkina eta genero-indarkeria EAeko testuinguruan: arrisku-faktoreak  
eta babes soziala  
Irazu Ibañez, Ainhoa; Arnos Martinez, Maitane; Mazkarian López de Goikoetxea, Mikel;  
Arnos Martinez, Ainara, *Uztaro* 78 (2011), 77-101

Emakume gazteen estereotipoak Disney Channel kateko telesailetan  
Lopez, Susana; Aiestaran Yarza, Alazne, *Uztaro* 76 (2011), 45-56



Generoaren eragina komunikazioaren garapenean 8-30 hilabete bitarteko haur euskaldunetan

Arratibel Insausti, Nekane; Barreña Agirrebeitia, Andoni; Ezeizabarrena Segurola, Maria Jose, *Uztaro* 75 (2010), 69-86

Emakumeen aurkako indarkeria eta Gizarte Hezkuntzako unibertsitate-sinesmenak: prebentziorako eta heziketarako bide parte-hartzailea

Arnos Martinez, Ainara; Melcon, Sheila; Costa, Maialen; Isasa, Maite, *Uztaro* 73 (2010), 71-91

Berezko marko estetiko eta kulturala: Bertsolari Txapelketa Nagusia, euskal Agoraren bilgunea

Larrañaga Arriola, Jexux, *Uztaro* 72 (2010), 5-21

Jatorri desberdineko emakumeen migrazio-egitasmoa eta ongizatea. Genero-ikuspuntutik egindako ekarpenak

Arnos Martinez, Ainara; Elgorriaga Astondoa, Edurne; Martinez-Taboada Kutz, Cristina, *Uztaro* 67 (2008), 87-104

Adineko emakumeak: zenbait ekarpen lan-mundura sartzearen eta erretiroa hartzearen inguruan

Sanchez de Miguel, Manuel Norberto; Lizaso Elgarresta, Izarne, *Uztaro* 66 (2008), 75-85

Antropologia feministaren sorrera eta teoria antropologiko feminista nagusiak

Ruiz Torrado, Maria, *Uztaro* 63 (2007), 11-19

Ekofeminismoa, garatzeke dagoen teoria. Ingurune-feminismoaren gatazken hastapenak

Martinez Palacios, Jone, *Uztaro* 62 (2007), 99-116

Aurrekontu publikoek sexurik ote dute? Genero-aurrekontuen osagai eta erronka nagusiak

Jubeto Ruiz, Yolanda, *Uztaro* 61 (2007), 25-44

Hizkuntzaren erabilera genero-estereotipoak iraunarazteko tresna gisa: hizkuntzaren abstrakzioaren ondorioak

Ortiz Anzola, Garbiñe; Valencia Garate, Jose; Gil de Montes Etxaide, Lorena, *Uztaro* 59 (2006), 63-88

Lana eta osasun mentala: generoaren ikuspegitik aztertutako etxeko lanen eta langintzaren estresa

Sanchez de Miguel, Manuel Norberto, *Uztaro* 51 (2004), 99-108

Lehen gerra karlista bertsoen argitan. Foruak eta erlijioa hiz neurtuetan (1823-1840)  
Kintana Goiriena, Jurgi, *Uztaro* 30 (1999), 61-84

Antropologia eta feminismoa

Esteban Galarza, Mari Luz, *Uztaro* 24 (1998), 3-17

# Bertsolaritzaren bilakaera genero ikuspegitik

Taldea da berri (Kintina Mendonza) ondoren bertsolaritzan bitan agitar azkar erabazteko leku dela azaldu du bere iradizketan. Hala ere, oraindik ere bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak ez dira oso ugariak. Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak ez dira oso ugariak. Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak ez dira oso ugariak.



1993



Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

2003

Emakume bertsolaritzen topaketak

2009

Maitalen Lujanbalo Euskal Herriko txapeldun

Emakume bertsolaritzen parte hartzeak... Euskal Herriko txapeldun...



## BERTSOLARITZAK



EMAKUMEA  
BERTSO PRAKTIKAK  
PUBLIKOAK  
DISKURTSAK  
GAIK

1980/1990

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak



ANAZTUAK

1984/1985

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak



Anartzazu... Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak...

2006  
Emakume bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2008  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak


2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2009  
EHE-ri buruzko bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak

2003/2004

Emakume bertsolaritzen bitan agitar erabazteko lekuak... Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak...



Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak... Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak...

2016

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

2015

Ahaztutze Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

"Aita zahartutzea ez baita nahitako jada hurrengoak ez ditelaz zabalik eutsi behar da..."  
Nerea Ibarzabal

2016

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

"Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak ez dira nahitako jada hurrengoak ez ditelaz zabalik eutsi behar da..."  
Nerea Ibarzabal

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak

## definizio berrietarantz

Maitalen Lujanbalo EHE-ko txapeldun  
"Bertsolaritzaren bitan agitar erabazteko lekuak ez dira nahitako jada hurrengoak ez ditelaz zabalik eutsi behar da..."  
Nerea Ibarzabal